



Mondragon
Unibertsitatea

DOKTOREGO-TESIA

**Trama kooperatiboa ehuntzen:
Arrasateko Kooperatibak haustura
ekosozialaren eta subjektibotasun
neoliberalaren garaian. Azterketa sozio-
metabolikoa.**

JOKIN BERGARA EGUREN

Tesiaren zuzendariak:

Andoni Eizagirre Eizagirre
Joseba Azkarraga Etxagibel

Ekonomia Sozialean DOKTORE titulua lortzeko tesia

Mondragon Unibertsitatearen aldetik

Erakundeen kudeaketa aurreratua eta ekonomia soziala doktorego programa

Mondragon Unibertsitatea

2023ko Iraila

1. Copyright: Jokin Bergara Eguren

Egileak baimena ematen dio Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateari, HUHEZIrri eta Mondragon Unibertsitateari doan eta ikerketarako eta irakaskuntzarako soilik, dokumentu honen erreproduzio-, banaketa- eta komunikazio-eskubideak ematea, betiere egileari aipatzen bazaio obraren erabilera ez dela komertziala eta jatorrizkotik eratorritako lanik ez dela sortzen.

Originaltasun adierazpena

Nik, Jokin Bergara Egurenek, tesi hau nire lan pertsonalaren emaitza dela adierazten dut, eta ez dela aldez aurretik aurkeztu beste titulu edo kalifikazio profesional bat lortzeko. Besteen iturrietatik hartutako ideiak, formulazioak, irudiak eta taulak behar bezala aipatu dira.

Eskerrak

Testu baten idazketa beti da gorputzetik abiatzen den ariketa, etorriari zabaltze sarri prekario bat paper zuriak jaurtitzen digun erronkaren aurrean. Bizi dugun gorputzaldiak, tripetan ditugun korapiloek edo gai batekiko sentipen nekatuak eragina dute tesi baten garapenean. Zulo batzuetatik jauzi egitea ezinezko zaigu inguruan ditugun pertsonei eskerrak ez bada eta haien tirakadak dira neurri batean, doktorego tesi bat aurrera bultzarazten dutenak.

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiot Josebari, bere begirada, sosegu, aholku eta eskuzabaltasunagatik. Tesiaren bide malkartsuan iparroratz eraginkor izateaz gain, leku gutxitan topatzen diren solasaldi eta laguntasunera ateak zabaltzeagatik. Andoniri ere eskerrak eman nahi dizkiot, bere ekarpenek eta iradokizun formalek balio izan didate tesi lanarekin birkonektatu eta akademiaren lurretik gehiegi ez urruntzeko.

Federico Chicchi irakasleari, Boloniako harrera eta ideien elkartruke agortezinarengatik. Eskerrak Jokin eta Iruneri, lau urtetan zehar pisu bat etxe bero bihurtzeagatik. Xabi, Iker, Haizea, Aitor, Martin eta bidean lagun zaituztedan adiskideei, kolektiboki pentsatzea baino gauza ederragorik ez dago. Mila esker behar izan dudana bakoitzean bi belarri arretatsu eskaintzeagatik eta lagunarte bizi bat sortzeagatik.

Aitari, Amari eta Maialeni eskerrik beroenak, familiaren gotorlekuan maitasuna eta babesa jartzeagatik. Tesi hau ez nuke idatziko zuen eguneroko laguntzarik gabe. Eta nola ez, Iratiri, ibaiaren bihurtze bakoitzean eskutik heldu nauzulako.

Espazioak ere lagatzen du bere zaporea tesi lan baten azken emaitzan, eta eskuarte duzunak espazio esanguratsu ezberdinak izan ditu. Irakurketa eta kapitulu gehienak Eibarko *Juan San Martin* liburutegiaren eta Errebalpeko XX. mende hasierako egongela *vintage*-aren artean idatzi dira, udazken hotz eta negu ilunetan irakurraldi sukartsuen lekuko izan ditut bi lekuetako argi txikiak, eta Portaleako kafe ebakia, irribarre batekin atera didatena hiru urte luzetan zehar.

Tesi honek bigarren leku garrantzitsu Iruñea izan du, hiriburu buruzagiak eskaintzen duen maisutasunak eta SanFrantzisko plazako liburutegi dotoreak sosegua eta perspektiba eskaini diote lau urteko lanari, Arga ibai ertzeko iluntzeko paseoetan ideiak ordenatzeko arnasa emateaz gain. Han jaso ditut begirada interesgarriak, elkarrizketa ibiltarien bidez eraiki diren tesi atalak eta babeslekurik sakonena. Nafarroako hiriburuan egin ditudan egonaldi tartekatuak botika izan dira tesiari ate berrietatik tira egiteko orduan, eta han irakurri nuen ere, hasieran mesfidati, konpultsiboki ondoren, lan honen egitura zizelkatu duen eta geroztik esku artetik askatu ez dudana Emilio Santiago Muiñoren (2015) *Opción Cero. Sostenibilidad y Socialismo en la Cuba post-soviética: estudio de una transición sistémica ante el declive energético del siglo XXI*. Gizarte zientzietako eta krisi ekosozialaren gaineko doktoretza lan bikain horrekin topatzea inflexio puntu erabakiorra izan zen niretzat.

Baina batez ere tesi hau haragitu eta aurrerapausorik handienak eman dituen tokia Bolonia izan da. Bere kale gorrixkek goxo hartu ninduten 2022ko otsailetik abuztura bitartean, pandemiatik hala nola ateratzen ari zen hiri gazte eta erromantikoaren biziberritzea dastatzeko aukera emanez. 60 eta 70ko hamarkadetan ikasle matxinaden eta ezker berriaren agertoki izan zen lekuak ezabatzen zaila den nortasuna itsatsia laga

du bertako plaza eta kale zaharretan, egunero bufanda lodiz eta beroki dotorez euren fakultateetara hurbiltzen diren milaka ikaslek eraberritzen dutena.

Boloniako harlauza desorekatuek, harbide gorabeheratsuek eta udako berotik bezainbeste udaberriko euriteetatik babestu nauten *portici*-ek badiote zerbait lan honek izan duen ibilbideaz. Batzuetan bere bidea zein den argi duenaren determinazioz gurutzatu ditut bizikleta zaharren gainean kale katramilatsuak; beste askotan bota behar izan dut hanka lurrera bidegurutzeetan, turista galduak mapari begirada frustratuak botatzen dizkionean nola. Blokeo eta martxa-hartze horien agertoki izan ditut *Strada Maggioreko* soziologiako *aula dottorandi* polita edo Pelagio Palagiko nire etxeko terrazatxo, *il terrazzino piú bello al mondo*. Bolonian operaismoaren tradizioan arakatzeko aukera izan dut, kooperatibismoan eta ekonomia sozialean emankorra izan den Emilia-Romagna lurraldea ezagutu eta baita ekologia politikoan klasikoak diren autoreak sakontasun handiagoz irakurtzeko ere. Testuak irakurri eta euren literatura aberatsera sarbidea emateaz haratago, Danteren hizkuntza ezagutu eta ikasi izanak betirako gordeko ditudan laguntasun harremanetara zabaldu dizkit ateak. Mila esker *Farru, Laura, Ilenia, Elena, Ciccio, Lorenzo, Elisa, Gimmi, Matteo* eta zuen etxean beso-zabalik hartu nauzuenei.

Laburpena

Doktorego tesi lan honetan Arrasateko Kooperatibak aztertu ditugu begirada metaboliko-sozialetik. Gizakiak XXI. mendean bizi duen krisi ekologikoaren erronka erraldoiak eskatzen du ekonomiari eta kooperatibismoari buruzko begirada batzuk gainditu eta eguneratzea. Gure irudiko, Arrasateko Kooperatibek ekonomia sozialean eta aberastasunaren birbanaketan eredu arrakastatsua sortu eta denboran iraun dutelako, merezi dute begirada ekosozialetik hurbilduko den ikerketa lan bat egitea. Hala, gure susmoa da krisi ekologikoak dakarren agertokian trantsizio ezberdinak pentsatzen eta praktikan jartzen lagundu dezakeen esperientzia dela.

Atal teorikoan tesiaren begirada gurutzatuko duen ikuspegi ekosozialaren oinarriak jartzen saiatu gara. Ekonomia ekologikotik eta jasangarritasun sozialaren ikuspegitik egin diren ekarpenak bildu eta kooperatibismoa oinarri horietatik birpentsatzeko ariketa egin dugu. Era berean, ikerketa metaboliko-sozial bat egin asmo dugun neurrian, begirada epistemologiko horren arrazoieta arakatu eta berau Arrasateko Kooperatibetara aplikatzearen garrantzia aztertu dugu.

Jarraian, gaurko kooperatibismoa zertan den ulertu eta bere bilakaera aztertu asmotan, lanaren soziologiatik jasotako ekarpenak bildu ditugu. Lanaren munduak eta nazioarteko kapitalismoak izan duen bilakaerak lotura zuzena baitu gaur kooperatibak zein modutan konfiguratu diren azaltzeko. Horrela, bipolitikaren kontzeptuan, merkatu gizartearen hedapenean eta haren ondorio sozialean eta subjektibotasun garaikidearen gaiaren gainean sakondu dugu.

Ibilbide hori eginda, subjektibotasun ekosozial baten eraikuntzaren erronkari erreparatu diogu, kooperatibismo berritu bat josi dezakeena, planetaren mugekin eta baliabideen agortze aroarekin armonian. Ariketa hori egiteko, zenbait teoria psikosozial bildu eta eztabaidatu ditugu.

Atal enpirikoari dagokionez, analisia hiru zatitan banatu dugu. Lehenbizi Arrasateko Kooperatiben diagnostiko metabolikoa egin dugu, haien jardunaren inpaktua neurtu asmotan. Bigarrenik, eremu sozioekonomikoari heldu diogu, kooperatibek dituzten egiturazko erronkak aztertuz eta erronka ekosozialarekin lotzen diren korapilo nagusietan arreta jarrita. Hirugarrenik, kooperatiben senean iraunkortasunari buruz dauden uste sozialak eta diskurtsoak aztertu ditugu, gaia zertan den eta zein oinarri sozial duen arakatzeko. Azkenik, kooperatibetan nagusitzen den subjektibotasun mota aztertu dugu, erronka ekosozialarekin lotuz, eta biak lotzeko dauden zailtasun estrukturaletan arreta jarritz.

Azkenik, ondorioztatu dugu, AKE-k krisi ekologikoaren testuinguruan kokatzeko muga sozial eta ekonomiko handiak dituela. Besteak beste, identitate kooperatibistaren berrikuspen sakona eta krisi ekologikoaren garaira egokituko den kooperatibismoaren ulekera osotuagoa beharrezkoa da. Esango dugunez, joera hazkor eta akumulatibotik ateratzea eta bestelako lurralde ekonomiko eta sozialak arakatzeko dituen kooperatibagintza premiazkoa da, ekonomia fosiletik atera eta iraunkortasun sozioekologikorantz aurrera urratsak emateko.

Resumen

En la presente tesis doctoral hemos analizado las cooperativas de Mondragón desde una óptica metabólico-social. El reto ecológico ante el que se encuentra la humanidad del siglo XXI requiere una profunda revisión de la economía y del cooperativismo. A nuestro modo de ver, las cooperativas de Mondragón han contribuido de forma decisiva en la creación de una economía social de alta repartición de la riqueza. Por esa razón, pensamos que es necesario un trabajo de investigación de las cooperativas desde una visión ecosocial. Partimos de la base de que el análisis de la experiencia cooperativa de Mondragón nos permitirá pensar y poner en práctica diferentes transiciones.

En el apartado teórico, hemos sentado las bases de la visión ecosocial que es presente durante toda la tesis. Hemos recogido diferentes aproximaciones teóricas desde la economía ecológica o la perspectiva de la sostenibilidad social, intentando repensar el cooperativismo desde esas bases teóricas. Del mismo modo, en la medida que intentamos llevar a cabo una investigación sociometabólica, hemos profundizado en las razones y fundamentos de esa mirada epistemológica.

A continuación, con el objetivo de analizar y comprender el cooperativismo de hoy y su evolución, hemos traído varias aproximaciones desde la sociología del trabajo. La transformación del capitalismo y del mundo del trabajo está estrechamente ligado a la forma con la que se configuran las cooperativas actuales. Por tanto, profundizamos en el concepto de biopolítica, la expansión de las sociedades de mercado y sus consecuencias sociales, como también en los procesos de subjetivación contemporáneos.

Una vez realizado ese camino, nos hemos fijado en el reto de construir una nueva subjetividad ecosocial, que pueda coser un nuevo tipo de cooperativismo, en armonía con los límites del planeta y el contexto de escasez de recursos. Para realizar esa tarea, discutimos algunas teorías psicosociales.

En cuanto al apartado empírico, hemos dividido el análisis en tres partes principales. En primer lugar, hemos realizado un análisis metabólico de las cooperativas de Mondragón, con el objetivo de medir el impacto de su actividad económica. En segundo lugar, hemos atendido a la parte socioeconómica de las cooperativas, analizando los retos estructurales de las mismas y los nudos gordianos que existen en relación a la transición ecosocial. En la tercera parte, analizamos los discursos y las opiniones sociales que existen dentro de las cooperativas sobre sostenibilidad, con el fin de observar en qué posición se ubica la cuestión y cuales son las bases sociales que la sostienen. Por último, hemos examinado las formas de subjetividad que emergen dentro de las cooperativas, poninedo en relación con el reto ecosocial y las dificultades estructurales que existen entre ambas.

Para concluir, decimos que las cooperativas de Mondragón se enfrentan a límites sociales y económicos importantes a la hora de hacer frente a la crisis ecológica. Entre

otros, creemos necesaria una revisión profunda de la identidad cooperativista y una concepción del cooperativismo que interiorice los elementos que la crisis ecológica reclama. Concluimos con la necesidad de transitar hacia otro espacio que rompa con la tendencia acumulativa, haciendo posible un cooperativismo que camine más allá de la economía fósil y de pasos hacia la sostenibilidad socio-ecológica.

Abstract

This thesis proposes a sociometabolic reading of Mondragon Cooperatives. The ecological challenge that humanity is facing in the 21st century requires a profound review of the economy and cooperativism. In our view, cooperatives of Mondragon have contributed decisively to the creation of a social economy with a high redistribution of wealth. For this reason, we think that research work on cooperatives from the ecosocial perspective becomes necessary. Our initial objective is to develop critical thinking for various transitions through the analysis of the Mondragon Cooperative Experience.

In the theoretical section, we have developed the bases of the ecosocial perspective that is present throughout the thesis. We collected different theoretical approaches from ecological economics or from the field of social sustainability, trying to rethink cooperativism. Likewise, as we conduct a sociometabolic research we examine the reasons and foundations of that epistemological perspective.

Next, with the aim of analyzing and understanding today's cooperative behavior and its evolution, we have taken several approaches from sociology of work. The way in which current cooperatives are configured is closely linked to the transformation of capitalism and the world of work. Therefore, we explore the concept of biopolitics, the expansion of market societies and their social consequences, as well as contemporary processes of subjectivation.

After completing this path, we have developed the concept of a new ecosocial subjectivity that can create a new type of cooperativism, in accordance with the planet's boundaries and the context of resource scarcity. In order to accomplish that task, we discuss certain psychosocial theories.

Regarding the empirical section, we have divided the analysis into three main parts. Firstly, we have conducted a metabolic analysis of the Mondragón cooperatives to measure the impact of their economic activity. Secondly, we have studied the socioeconomic aspects of cooperatives, analyzing their structural challenges and the knots that exist in relation to the ecosocial transition. In the third part, we analyze the discourses and social opinions that exist within cooperatives about sustainability, in order to observe where the issue is located and what its social bases are. Finally, the forms of subjectivity that emerge in cooperatives have been analyzed in relation to the ecosocial challenge and structural difficulties that exist between them.

To conclude, we assert that the Mondragón cooperatives are confronted with significant social and economic limitations when it comes to dealing with the ecological crisis.

Among others, we believe is necessary a profound review of the cooperative identity. In addition, a new understanding of cooperativism is necessary. An interpretation that incorporates the elements required for the ecological crisis. We conclude with the requirement to move to a new space that transcends the cumulative tendency, making possible a cooperativism that moves beyond the fossil economy and takes steps towards socio-ecological sustainability.

TESIAREN EGITURA

| | |
|---|------------|
| IKERTZAILEAREN BEGIRADA..... | 20 |
| 1. Lurrikara sistemikoa, modernitatearen eztanda. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia bidegurutze sozioekologikoan..... | 27 |
| 1.1 XXI. mendeko gainbehera energetikoa. Hazkuntzaren logika kolapsorantz... | 29 |
| a) Garapena eta hazkundera: modernitatearen ardatz..... | 36 |
| b) Neutraltasun teknikoaren korapiloan | 39 |
| c) Teknologiaren konponbide ametsa | 42 |
| 1.1.2 Garapen jasangarriaren arrastoan..... | 45 |
| 1.1.3 Garapen forma alternatiboak: desazkundearen eta post-hazkundearen proposamena..... | 50 |
| 1.1.3 Ekonomia soziala, bestelako aterabide demokratikoak ehuntzen. Demokrazia ekonomikoa eta kooperatibismoa auzi sozio-ekologikoan..... | 58 |
| 1.2 Ikerketa soziometabolikoa. Gizarte sistemak eta sistema biofisikoak harilkatuz..... | 64 |
| 1.2.1 Ekologia-mundu amarauna..... | 64 |
| 1.2.2 Metabolismo sozialaren indar analitikoa | 70 |
| 1.2.3 Arrasateko Kooperatibismoaren erregimen soziometabolikoa aztergai. 73 | |
| 1.2.4 Kulturaren auzia, esperientzia kooperatiboaren arnas..... | 77 |
| 1.2.5 Kultura ekologistari buruz: Ingurumenari buruzko diskurtsoak eta uste sozialak..... | 81 |
| 2. Aro post-fordistaren etorrera, soldatapeko gizartearen ketzea. Subjektibotasuna balio sorkuntzari emana..... | 88 |
| 2.1 Fordismoaren egituratzea, masak lantegian..... | 89 |
| 2.2 Postfordismoaren etorrera, ziurtasunen lausotzea..... | 94 |
| a) Lan kognitiboa, ezagutzaren gizartea..... | 94 |
| b) Post-materialismoaren tesia..... | 98 |
| d) Ekonomia digitalaren zabaltzea..... | 100 |
| 2.3 Kapitalismo post-fordista pentsatuz. Axiomatika sozialera hurbilpena..... | 107 |
| 3. Subjektibotasuna post-fordismoan: Kooperatibagintzaren erreprodukzioa kolokan..... | 116 |
| 3.1 Subjektibotasuna argituz..... | 117 |
| 3.2 Subjektibotasuna soziologiatik..... | 120 |
| 3.3 Biopolitika eta subjektu diziplinamendua: | 123 |

| | | |
|-----------|---|------------|
| 3.4 | <i>Ethos</i> enpresariak, subjektuaren balio eraikuntza..... | 127 |
| 3.4.1 | Errendimendua eta gozamina, subjektu neoliberalak: | 128 |
| 3.4.2 | Subjektu zorpetua..... | 133 |
| 3.5 | Subjektu prekarioa, salbuespenetik normara..... | 135 |
| 3.6 | Azken argipenak garai moderno post-fordistaz | 138 |
| 4. | Subjektibotasun ekosozial kooperatiboa merkatu gizarte bakartietan. | 144 |
| 4.1 | AKE esperientzia ekonomiko edo garapen komunitario? Polanyi Arrasaten. | 145 |
| 4.1.1 | Merkatuari buruz, anomalia historikoa: | 146 |
| 4.1.2 | Giza jarrera kooperatiboari buruz: | 151 |
| 4.2 | Merkatua eta auzi sozioekologikoa..... | 158 |
| 4.2.1 | <i>Green</i> gobernuak, krisi sozioekologikoaren kudeaketa neoliberalak. | 162 |
| 4.3 | Komunitatearen haustura eta trantsizio ekosozialaren auzi kulturalak. | 165 |
| 4.3.1 | Lotura komunitarioen ahultzea, norbanakoa esparru pribatura bultzaketa. | 165 |
| 4.3.2 | Subjektibotasun ekosozialaren arrastoan, ekonomia-politiko alternatiboa..... | 168 |
| 4.3.3 | Molde subjektibo digitalak, autoeraketarako eragile?..... | 174 |
| 5. | Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, modernitatearen alaba. | 181 |
| 5.1 | Euskal kooperatibismoaren hasierak | 183 |
| 5.2 | Mugimendu izaera | 193 |
| 5.3 | Kooperatibismoaren erro pertsonalista, Arizmendiarristen oinarriak: | 196 |
| 6. | Planteamendu metodologikoa | 209 |
| 6.1. | Ikerketaren galdera eta helburuak | 209 |
| 6.1.1. | Ikerketa galdera | 209 |
| 6.1.2 | Helburu orokorrak..... | 209 |
| 6.2. | Ikerketaren kokapena..... | 210 |
| 6.3. | Elkarrizketatuen perfila | 211 |
| 6.3.1. | Gazteak, belaunaldi berriaren etorkia..... | 211 |
| 6.3.2. | Zuzendaritza eta ardura postuak. | 213 |
| 6.3.3. | Bazkide Kooperatibistak..... | 213 |
| 6.3.4. | Ingurumen arduradunak eta kooperatibismoan adituak..... | 214 |
| 6.4 | Elkarrizketen estrategiak, soziologia kualitatiboari ohore..... | 214 |
| 6.4.1 | Dokumentu analisia..... | 220 |
| 6.4.2 | Behaketa parte-hartzailea | 220 |
| 6.5 | Landa lanaren garapena..... | 221 |
| 7. | Arrasateko Kooperatiben metabolismo sozialaren analisia | 226 |
| 7.1 | Ardatz energetiko-metabolikoa, jasangarritasunaren mugak | 226 |

| | |
|---|-----|
| 7.1.1 Jasangarritasun kooperatiboa kolokan. | 226 |
| 7.1.2 EAEko sistema sozioenergetikoaren zorrak. | 230 |
| 7.1.3 Ardatz energetiko kooperatiboa, ordainagiri metabolikoa | 234 |
| 7.1.4 DANOBAT GROUP | 239 |
| 7.1.5 FAGOR TALDEA | 242 |
| 7.1.6 COPRECI..... | 244 |
| 7.2 Ardatz sozioekonomikoa. Makina-Kooperatiboa, gehiegizko burokraziaren eta aro malguaren artean. | 246 |
| 7.2.1 Demografia eta hiriaren auzia | 246 |
| 7.2.2 Elkartasun mekanismoak | 247 |
| 7.2.3 Merkatuaren exijentziak, makinaren bizkarrezur. | 249 |
| 7.2.4 Tamainaren arazoa | 251 |
| 7.2.5 Burokraziaren auzia | 253 |
| 7.2.6 Kooperazioaren korapiloak | 255 |
| 7.2.7 Lidergotza falta..... | 259 |
| 7.2.8 Parte-hartzea eta demokrazia formala..... | 261 |
| 7.2.9 Digitalizazioaren erronka | 264 |
| 7.3 Ardatz sinboliko kulturala (i) Iraunkortasunari buruzko nukleo diskurtsiboak, ekimen enpresarialetik identitatara | 269 |
| 7.3.1 Iraunkortasunaren auzia Arrasateko Kooperatibetan, lekua hartzen. .. | 269 |
| 7.3.2 Iraunkortasunaren eraikuntza diskurtsiboa AKE-n. Austeritatearen eta neurritasunaren helduleku katolikoak..... | 270 |
| 7.3.3 Jasangarritasuna derrigortasun koerzitibo modura | 273 |
| 7.3.4 Jasangarritasuna enpresa pragmatismoan | 280 |
| 7.3.5 Ekologiari buruzko kezka lanpostuen aurka..... | 285 |
| 7.3.6 Jasangarritasunaren zailtasun kulturalak. Kooperatibetan lurreratu ezina. | 287 |
| 7.3.7 Jasangarritasuna identitate ikur | 293 |
| 7.4 Ardatz sinboliko kulturala (ii) Subjektibotasun postfordisten trantsizio kooperatiboa krisialdi sozioekologikoan. | 301 |
| 7.4.1 Trantsizio kooperatiboa hizpide..... | 301 |
| 7.4.2 Espazioaren garrantzia | 308 |
| 7.4.3 Gazteak kooperatibismora gerturatuz: Subjektibotasun fordistak? Alienazioaren oihartzuna..... | 310 |
| 7.4.4 Talentuaren auzia eta trantsizio ekosoziala | 320 |
| 7.4.5 Desberdintasun sozialak, batasunik ez..... | 325 |
| 7.4.6. Etorkizunera begirako proiektzioak, garapenaren iruditeria. Segurtasunaren desioa. | 327 |

| | |
|--|------------|
| 8. Arrasateko Kooperatibismoa bidegurutzean, zenbait ondorio..... | 335 |
| 8.1 Kooperatibismoa merkatu gizartean: post-hazkunderako bide katramilatsua... | 335 |
| 8.2 Arrasateko kooperatibismoa, Modernitatearen zimenduetatik eraikitako metabolismo-sozial ez-iraunkorra..... | 341 |
| 8.3 Identitate kooperatiboaren ahuldadea, subjektibotasun ekosozialaren korapiloak..... | 344 |
| 8.4 Trantsizio eko-sistemiko baterako ikasgaiak Arrasateko Kooperatibismotik..... | 347 |
| 8.5 Ikerketaren mugak eta zabaltzen diren ikerketa lerro berriak..... | 351 |
| 9. SUMMARY & CONCLUSIONS..... | 354 |
| 10. ERANSKIN TEORIKOAK..... | 365 |
| 9.1 Oharrak ehuntze komunitario habermasianoaz:..... | 365 |
| 9.2 Digitalizazioaren eta gizarte eraldaketaren gainean oharrak..... | 370 |
| 9.2.1 Gazteak eta digitalizazio milleniala..... | 373 |
| 9.3 Pentsamendu emantzipatzaile autonomia, kate-muntaiatik askatuz. Post-operaismoaren oinarriak..... | 377 |
| 11. Erreferentzia bibliografikoak..... | 387 |

TAULEN ZERRENDA

| | |
|---|------------|
| 1 Taula. Ekonomia jardueraren eta isurien deslotzea. | 47 |
| Taula 2. Ongizatea eraikitzeko proposamen ekonomikoak. | 56 |
| Taula 3. Ingurugiroari buruzko iritzi korronteak. | 82 |
| Taula 4. Gazteriari loturiko kezakak. | 98 |
| Taula 5. Elkarrizketa azpi-egituratuen banaketa. | 213 |
| Taula 6. Elkarrizketen txosten teknikoa. | 215 |
| Taula 7. Mondragon taldea nazioartean. | 226 |
| Taula 8. Nazioartean filialak dituzten kooperatiba sendoenak. | 227 |
| Taula 9. Kooperatiben pisua lanpostutan EAEko ekonomian. | 228 |
| Taula 10. Gipuzkoako ekonomian pisua. | 228 |
| Taula 11. EAE-ren menpekotasun energetikoaren bilakaera. | 229 |
| Taula 12. Energia kontsumoaren bilakaera EAEn. | 230 |
| Taula 13. Industriaren eta garraioaren kontsumo energetikoa EAEn. | 230 |
| Taula 14. Intentsitate energetikoa EAE-n eta Arrasateko Kooperatiben errendimendura estrapolazioa. | 232 |
| Taula 15. Langile kopuruaren bilakaera eta industria sektoreko langileen pisua taldean. | 234 |
| Taula 16. Mondragoneko kooperatiben kontsumoa. | 234 |
| Taula 17. Berotegi efektuko gasen isurketa faktoreak. | 235 |
| Taula 18. Mondragoneko kooperatiben isuriak. | 236 |
| Taula 19. Energia kontsumoa Danobat. | 238 |
| Taula 20. Danobat taldearen Osintxuko planta. | 238 |
| Taula 21. Danobat taldearen Itziarko planta. | 239 |
| Taula 22. Danobat taldearen Elgoibarko planta. | 239 |
| Taula 23. Danobat taldearen guztizko kontsumoa. | 239 |
| Taula 24. Orotara emisioak, Danobat taldea. | 240 |
| Taula 25. Fagor taldearen energia kontsumoa. | 241 |
| Taula 26. Fagor Taldearen isuriak. | 241 |
| Taula 27. Copreci kooperatibaren kontsumoa. | 243 |
| Taula 28. Copreciko kooperatibako isuriak. | 243 |

IRUDIEN ZERRENDA

| | |
|---|-----|
| 1. Irudia: Doughnut ekonomia formaren proposamena | 54 |
| 2. Irudia: Arrasateko Kooperatiben metabolismo sozialaren banaketa. | 79 |
| 3. Irudia: EAEko Ekonomiaren Sankey Diagrama. | 224 |
| 4. Irudia: Energia iturrien banaketa Arrasateko Kooperatibetan. | 228 |
| 5. Irudia: CO2 isurien banaketa Arrasateko Kooperatibetan. | 229 |
| 6. Irudia: Lehengaien kontsumoaren banaketa Arrasateko Kooperatibetan. | 230 |
| 7. Irudia: Klase sozialaren pertzepzioa EAE-n. | 262 |

KOADROEN ZERRENDA

| | |
|--|-----|
| 1. Koadroa. Nazioarteratu edo ez eztabaida. | 257 |
| 2. Koadroa. Fagor Etxetresnaken ikasgaiak. | 278 |

Arlo formalari buruzko zenbait argipen

Testuaren gorputz nagusia euskara batuan idatzi bada ere, erreferentziazko autoreak jatorrizko hizkuntzetan ekartzea egoki ikusi dugu zenbait kasutan. Halakoetan, aipu zuzenak hartu ditugunean, gaztelera, italiara edo ingelera erabili ditugu, edukia aberasten dutela iruditu zaigun aipamenekin, eta testuaren jatorrizko bertsioarekin leial jokatuta. Itzultzea beharrezkoa zela ulertu dugun kasuetan, euskarara ekarri ditugu testuak, eta itzulpen propioa dela adierazi dugu hala zegokionean.

Analisi enpirikoan elkarrizketetan jasotako oinarri enpirikoa erabili denez, ahozko hizkuntzaren freskotasuna islatzearen aldeko hautua egin dugu, aipamenak egin diren hizkeran ekarrita (gaztelera edo euskalkietan). Dena den, beti ere testuaren ulermenarekin bateragarri izan dadin saiatu gara.

Aipuak adierazteko sistemari dagokionez, ideia zehatza zein aipu zuzena zen kasuetan autorea, lana eta orria ekarri ditugu testura. Aldiz, autore batek bere obran landu dituen ideia orokorrak aipatu nahi izan ditugun kasuetan, abizena eta lanaren urtea jartzea lehenetsi dugu. Euskaraz erabiltzen ez diren eta linguistikoki arrotzak suerta daitezkeen kontzeptuak adierazi nahi izan ditugunean, kursibaz idaztea hobetsi dugu. Guk egindako elkarrizketen atalak ekarri ditugunean ere kakotxak eta kursiba erabili dugu. Aldiz, beste autore baten aipu zuzenak ziren kasuetan, kakotx artean adierazita etorriko da.

1.SARRERA

IKERTZAILEAREN BEGIRADA

Aldiro jakiteko non jaio
beti behar izan dugu
beste batzuk izan

Jose Luis Otamendi

Ezin dut ukatu kokapen zehatz batetik abiatzen ez naizenik, jaio naizen herriak, jaso dudan hizkuntzak eta aukeratu ditudan ikasketek zerikusi handia dute gaur mundua ulertzeko janzten ditudan betaurrekoekin. Bereziki kezkatzen nau garaiotan bizi dugun zibilizazio erronkak, kapitalismoaren faktura garestiak eta hori ordaintzeko erregairik ez edukitzeak. Giza eta natur bizitzaren oinarri materialak kolokan jarri diren honetan, bizi dugun aro historikoak egoerari aterabide ekologikoki justu eta sozialki demokratikoa ematea eskatzen du, aterabiderik izango bada. Kezka horiek gidatzen naute tesi honetan murgiltzean, baina oso garbi edukita zientzia eta militantzia konpromisoa elkarren osagarri badira ere, biak bereizten saiatzeko ariketa zintzoa egitea dagokidala. Soziologia eta oro har gizarte zientzia geure buruak hobeto ulertzeko tresna modura ulertzen dut, bizi ditugun arazoan, desoreken eta minen diagnostikoa egin eta erantzun posibleak irudikatzeak aukera eskaintzen digun tresna, hain justu. Arrazoi horrek narama, soziologia ikasi, aplikatu eta ahal dudan zintzoen erabiltzera, nire kokapen sozial eta politikoak baldintzatzen nauela ahaztu barik.

Hor tesi honek egin gura duen ekarpena, geure garaiak eskatzen digun erronka zibilizatorioaren aurrean erantzun emantzipatzaile bat eraikitzea bideratua, justizia soziala eta klima justizia elkar-osatzen asmatuko duena. Arrasateko Kooperatibismoa eta bere ibilbidea ikertuz, ekarpena egin nahi diogu XXI. mendeak eskatzen duen trantsizio sistemikoa pentsatzeari, dimentsio eta arrakasta handiko alternatiba eredu batek izan ditzakeen muga estruktural eta tentsio-puntuak argitu eta trantsizio ekosozialari begira atera ditzakegun ikasgaiak zerrendatzeko. Arrazoi hori medio, tesi honetan Arrasateko Kooperatibagintzaren azterketa soziometabolikoa egingo dut, ikuspegi ekosozial kritikoaren oinarritik abiatuta.

Krisialdi sozio-ekologikoaren maila sistemikoa kontuan hartuta, tesi honen izaera ez da iker-objektu bati buruzko analisi zehatzera mugatzen, baizik eta arnas luzeko prozesu sozial eta historikoen ulermen markotik dago eraikia. Uste dugu krisialdi sozio-ekologikoa horren transbertsala izanik, bere aurrean kokatzeko eskema interpretatibo transbertsal eta orohartzaileak behar ditugula, zientzia analitiko zehatzetik urrunduz, eta ildo-luze eta zabaleko azalpenak biltzen dituzten azalpenak eraikiz. Esku artean duzun tesiak, beraz, hurbilpen orokor bat egin nahi dio Arrasateko Kooperatiba Esperientziari¹ begirada sozio-ekologikotik, jakinik fenomenora gerturatzeko bide *orohartzaile* horretan harimutur, ertz eta ñabardura ezberdinak galduko ditugula. Baina aldi berean,

¹ Hemendik aurrera Arrasateko Kooperatiba Esperientzia edo AKE laburdura erabiliko dugu, esperientzia berberari erreferentzia egiteko. Erreferentzia ez galtzeko, une zehatzetan laburduraren eduki osoa idaztea hobetsi da, beraz, bi adierak erabiliko dira. Nahasmena ekiditeko, zehaztu nahi da, AKE-ri erreferentzia egiten diogunean Arrasateko Kooperatibagintzaren esperientzia historikoari egiten diogula erreferentzia, eta aldiz, gaur egun insituzionalizatua dagoen modua aipatu nahi denean Mondragon Korporazioa (MK) zitatuko dela.

kooperatibagintza krisialdi sozio-ekologikoaren baitan kokatzeko artefaktu interpretatiboa garatuko dugu.

Hasieran nuen planteamenduan bi kooperatiba zehatz aztertzeke asmoarekin heldu nion ikerketaren garapenari. Lanak aurrera egin ahala ordea, konturatu nintzen kasu bakoitzean zentratuta metodologikoki finagoa izateko aukera gehiago baneuzkan ere, ez nituela nahikoa oinarri esplikatibo bilatzen Arrasateko Kooperatiba Esperientzia bere osotasunean biltzeko, eta osotasun heterogeneo gisa krisialdi sozio-ekologikoaren testuinguruaren baitan kokatzeko. Arrazoi hori medio, distantzia hartu eta begirada zabaltzeko hautua egin nuen, Arrasateko kooperatibagintza esperientzia historiko-sozial modura ulertuz, eta era berean, bere zabaltasunean bilatuz trantsizio ekosoziala gida ditzaketen itsas-argiak eta arriskutsuak izan daitezkeen amildegia.

Hori esanik, garbi laga nahi nuke motibazio bulkada nagusiak ez diola tesi ondo oinarritu eta ahalik zintzoena idazteko lanari aterik ixten. Nire hasierako abiapuntu ideologikoetatik distantzia hartu eta soilik akademiak eskaini dezakeen metodoarekin hurbildu naiz ikerketa objektua aztertzerako, trantsizioari ekarpenik onena, izatekotan, diagonalistiko zorrotza, zintzoa, eta objektiboena izango baita. Lortu dudana edo ez epaitzea irakurlearen esku lagatzen dut, batzuetan oso ariketa konplexua baita pasio beroaren eta metodo zientifikoak eskatzen duen hoztasunaren arteko muga lausoan igeri egitea.

Tesi honekin batera lortuko den jakintzak trantsizio ekosozialaren bidean bultzatzen egiten duten indarrak elikatu gura ditu, izan politiko, sozial, ekonomiko edota kulturalak. Era berean, gaurko kooperatibismoak etorkizunera begira hartu beharreko erabakietan eta politikak definitzerako orduan entzungo den ahots izan nahi du, diseinu estrategikoetan kontuan hartu litekeen jakintza ekoitzi nahi izan baitu tesi honek, bere muga intelektual eta material guztiekin. Kontua ez da Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren eredu beste gizarte eta geografia batzuetara hedatzen saiatzea, dimentsio komunitario sendoko alternatiba arrakastatsu bezala aztertzea baizik, ondoren euskal gizarteari eta beste testuinguru soziopolitiko batzuei balioko dion jakintza aberatsa eskura edukitzeko, trantsizio posibleen eraikuntzara begira.

Era berean, esan nahi nuke esku artean duzun tesi hau kezka sozioekologikoak gidatu badu ere, nire lan soziologikoak kooperatibismoaren bidezidorretan arakatzea izan duela xede. Jasangarritasuna eta trantsizio kooperatiboa elkar elikatzen diren prozesu gisa ulertzen ditut, ez baitago jasangarritasun sozialik elkarlanaren printzipioak gidatzen ez badu. Tesia hasieratik bukaeraraino gurutzatzen duten bi ardatzak, beraz, kooperatibismoa eta jasangarritasuna dira. Tesiaren idazkera eta garapena bien arteko joan-etorri ariketa etengabea izango da; zenbait kasutan zubi sendo eta argiakoak eraiki ahal izan ditut; bestetan, aldiz, ehundura finagoak josi ditugu. Bi portu horien arteko bidaietan murgilduko da irakurlea eskuartearen duen tesiaren irakurketan. Hala, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren nondik-norakoak aztertu eta ezagutzen saiatu naiz, komunitate baten autoeratzeko prozesuen gaineko ezagutza mugatu baina baliotsua lortuz. Merkatuaren gailentasuna nabarmentzen den aroan, plazer iturri izan da niretzat oraindik orain burujabetza mailan pauso sendoak eman dituen komunitate bati eta bere kontraesan zein muga guztiei buruzko ondorioak ateratzea.

Hurbilpen pertsonalaren ertz horiek ukitu ondotik, Arrasateko Kooperatibismoa begirada sozio-ekologikotik aztertzearen beste arrazoi bat, gaurko gizarte eta ekonomien

ezagutza sakonagoa lortzen saiatzea izan da. Lan-harremanen munduan eta lan egiteko eretan gertatzen ari diren eraldaketak esanguratsuak dira, datozen hamarkadetan konfiguratu daitezkeen agertoki berrien abiapuntuak. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia ere, lan merkatu globaleko partaide den neurrian, ez dago lanaren munduan ehuntzen ari diren trama berrietatik salbu. Merezi du arretarik kapitalismoak gaur hartzen duen formak. Egitura kapitalistak gaur nola diharduen, zein subjektibotasun mota ahalbidetzen dituen eta zibilizazio krisiaren garaiak dakartzan erronka historikoek behar dute gizarte zizentzien begirada pausatua.

Aipatu beharra dut ere ez dudala aurkitu Arrasateko Kooperatiba esperientzia moduko fenomeno historiko-sozial konplexu bat aztertzeke marko interpretatibo zehatzik gizarte zientzietan. Horrenbeste harimutur eta ertz edukita, gizarte zientzietako lubaki ugaritatik heldu diezaiokegu euskal kooperatibismoaren ikur nagusiaren azterketari, aspektu bat edo beste aztertzea lehenetsita. Gure kasuan, ikerketa soziometaboliko bat da planteatuko duguna eta horrek ezinbestez eskatzen digu elementu metabolikoez gain (energia eta materia fluxuak), elementu soziologikoak (kooperatibismoaren klase-egitura, praktika sozialak, dimentsio komunitarioa, identitatea), historikoak (kooperatibismoaren bilakaera eta bere oinarri sozial zein intelektualak), kultural-sinbolikoak (mundu ikuskerak, bizi-estiloak, praktika komunikatiboak) eta ekonomikoak (merkatuaren pisua, kapitalismoaren eta globalizazioaren eraginak, irabazien banaketak...) analisisira ekartzea. Konplexutasun handiko fenomeno izaki, sakoneko joerak identifikatzea dugu helburu, eta analisisira ekarriko ditugun elementu esanguratsuenak nola elkarlotzen diren ikustea.

Zeregin hori burutu ahal izateko, tesia zortzi kapitulu nagusitan banatu dugu, atal teorikoaren eta analisi enpirikoaren atala bereiziz. Ondorengo eginbeharrak burutu ditugu kapitulu bakoitzean.

Lehen kapituluan, ikerketa soziometabolikoen marko teoriko eta epistemologiko ezberdinak arakatu ditugu, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren ikerketa metaboliko-sozial bat egitea ahalbidetuko digutenak. Dauden ikuskera ezberdinetara hurbilpen kritiko bat eginda, ikerketari oinarria eta zentzua emango dion begiradetara gerturatu gara. Aldi berean, kapitulu hau baliatu dugu ikuspegi ekosozial kritikoaren argudio-zutabe batzuk azaldu eta garatzeko, tesia gidatzen duen begirada ekosozialaren oinarri teorikoak eraikiz.

Bigarren kapitulua kapitalismo garaikideari eta lan moldeen eraldaketari eskaini diogu. Arrasateko Kooperatibismoa testuinguru kultural, politiko eta ekonomiko horren amaraunean murgildua egonik, beharrezkoa zaigu kapitalismoaren gaurko ezaugarrietara eta bere jardunbideen analisisira gerturatzea, lan formetan gertatu diren eraldaketak ulertzeko batetik, eta subjektibotasun zehatzak ekoizteko dauden mekanismoei erreparatzeko, bestetik. Uste dugu krisialdi sozio-ekologikoaren ulerkera osotuago eta finagoa lortu ahalko dugula lanaren munduan gertatu diren eraldaketa prozesuen argitan. Horretarako oso iradokitzaila eta orijinala zaigun begirada soziologiko-filosofiko Deleuziarra hautatu dugu, fordismotik post-fordismorako trantsizioa ulertzeko tresna kontzeptualak ematen dizkigulako

Aurrekoarekin lotura zuzenean, hirugarren kapitulua kapitalismo garaikideak martxan jartzen dituen subjektu-eraketa moldeak lantzeko erabili dugu. Ariketa hori egiteko, subjektu garaikidearen diagnostiko psikosozialerako ekarpen aberatsak egin dituzten

begirada Foucauldiar batzuk hautatu ditugu. Modu horretan, subjektibotasun neoliberalaren auzian eta harek enpresa munduan duen hegemonia kulturalen sakonduko dugu. Horrez gain, ekonomiaren demokratizazio baterako eta horri funtzional izango zaion molde subjektiborako bulkada emantzipatzailea ipar, tesi honek argitu nahi dituen trantsizio ekosozialaren auzi askorekin lotura puntu nabarmenak ageri dira.

Laugarrenik, tesiaren bigarren helduleku teorikoa izango den begirada Polanyiarrari heldu diogu, merkatu libre autoarautuaren, komunitateen ahultzearen eta giza antropologiaren desbideraketaren gainean dituen analisi kritikoak tesira ekarrita. Tesiaren bigarren erreferentzia teoriko modura erabiliko dugu, soziologia ekonomikotik egindako ekarpen baliotsuak eta AKE ulertzeko funtsezko gakoak eman dituela uste baitugu. Hala, AKE koordinada teoriko horietan kokatuko dugu. Modernitate kapitalistak ezartzen dituen baldintza zorrotzen baitan, eta krisi ekologikoa planteatzeko gailendu diren merkatu-ikuspegi hegemonikoen arnasean. Era horretan kapitalismo kognitiboaren aroan krisialdi ekologikoari aurre egiteko martxan jartzen diren *green* estrategiekin egingo dugu lotura, merkatu gizarte garaikidean zein mekanismo jartzen dituzten martxan aipatuta. Jarraian, begirada Polanyiarra osatzeko, bestelako begirada kultural eta komunitario batzuekin lotura puntuak josi ditugu, trantsizio ekosozialaren auzi kulturalari helduz.

Azkenik, bosgarren kapituluan, Arrasateko Kooperatiba Esperientziara hurbilpena egingo dugu, berau ulertzeko onarri historiko-sozial batzuk ipinita. Hala, AKERen bilakaera elementu ezberdinekin ezaugarrituko dugu, eta bere pentsamendu oinarriak gaurko egoerarekin alderatzeko moduan egongo gara.

Tesiaren atal enpirikoari dagokionez, ikerketa sozio-metaboliko baten aldeko hautua egin dugu ikerlan honetan, analisia hiru zutabe nagusitan bereiziz: Atal metabolikoa, atal sozioekonomikoa eta atal kulturala. Hiru horiek aukeratzeko arrazoiak 1.2 atalean landu eta azalduko ditugu (*Ikerketa soziometabolikoa. Gizarte sistemak eta sistema biofisikoak harilkatuz*), gizarte zientzietara ikuspegi metaboliko-soziala ekartzearen garrantzia mahai gainean jarrita. Bada, atal enpirikoaren analisia hiru atal horietan bereizita aztertuko dugu, bakoitzari kapitulu bana eskainiz.

Azkenik, ikerketa tesi honen lana ixteko, analisi enpirikotik eratorritako zenbait ondoriotan sakonduko dugu, lan honetatik ikasi dezakegunaz gain, etorkizunera begira zein ikerketa-ildo ireki daitezkeen zehazteko.

1. KAPITULUA

Lurrikara sistemikoa, modernitatearen eztanda. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia bidegurutze sozioekologikoan

1. Lurrikara sistemikoa, modernitatearen eztanda. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia bidegurutze sozioekologikoan.

“Aireportuetan, hala ibiltzen zen jendea garai batean; galdetu zuen guraso edo aitona-amonei, bestela: argindar-sarrerak non, kablea han. Kargagailua non sartuko, entxufeen bila itxurak galduta, gailuak bateriarik gabe geratzear zeudenean ostera ere kargatu ahal izateko. Inork badaki zer den smartphone bat? Isiltasuna.” **Harkaitz Cano**

Arrasateko kooperatibismoa ikertzera gerturatzten den edonork jakin badaki ekonomia sozialaren ikono bat duela esku artean, modernitatearen odola zainetan daraman esperientzia arrakastatsua. XX. mendeko tentsio politikoen aztarna berehala igarri diezaiokegun moduan, etorkizunera begirako inspirazioa ere taupatzen du ikerlari sozialaren begiradatik. Ez du edozein herrialdeetako gizarte zientzialariak dimentsio, izaera eta arrakasta kooperatibo horren sendoko lekukotzarik aurkitzen.

Alabaina, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia bestelako praktika sozioekonomikoak antolatu eta egikaritzeko interes iturri bada ere, ez dago gure mendeak geroz eta modu ageriagoan erakusten digun erronka zibilizatoriotik salbu (Riechman, 2013). Lehenago edo beranduago XXI. mendean gauzatuko den zibilizazio industrialaren agortzearen koiuntura historikoa kokatua dago eta ezin dio tamainako arriskuari ezikusiarrena egin. Sistema sozioekonomikoak daraman bideak planetaren muga biofisikoekin talka egin duela laga dute frogaturik azken urteetako ikerketek, arlo ugarian gainera (Durán eta Reyes, 2018). Datu zientifiko orokorra, zehazki, giza jarduerak 1980ko hamarkadan lurraren biogaitasuna berdindu zuela da. II. Mundu Gerlaren ostean zabaldu zen etenganbeko hazkuntza ekonomikoaren aroari zor zaio *Mundu erdi hutsetik betetako mundurako* jautzia, hiru hamarkada iraun zituena. 1961. urtean gizateriaren aztarna ekologikoak planetaren biogaitasunaren % 73ko eskaera zeukan. 1980ko hamarkadaren hasieran gainditu zen langa hori, eta harrezkero, oinarri zientifiko errealetan sostengatu liteke gairidipen ekologikoko fasean gaudela. Horri gehitu behar zaio XX. mendeko bigarren erdian sekula aurrez ezagutu gabeko hazkuntza demografikoa gertatu dela, 2.529 mila milioi pertsona bizi ziren lurrian 1950an: 2020an, 7.800 mila milioi. Munduko BPG-a boskoiztu egin zen 1950-2010 aldian, motordun ibilgailuen erabilera zazpikoiztu, hegazkinez gauzatutako masa-turismoa %37 hazi zen, eta 2010an 1950ean halako bost energia unitate kontsumitu zen (García, 2021:464). 2019ko EAEko datua da 4,32 hektarea globaleko aztarna ekologikoa duela Erkidego Autonomoak, bestela esanda, 2,65 planeta behar lituzkeela isurtzen eta kontsumitzen duena bere biogaitasunarekin parekatzeko (Ihobe, 2019).

Jorge Riechmann filosofoak *Froga Handiaren Mende-an* gaudeneko ideia zabaldu du, laburrean iradokiz salbuespenezko zibilizazio egoeran gaudela (Riechmann, 2013). Autore madrildarrak, bidegurutze historiko erabakigarrian gaudela defendatzen du, materia eta energia forman beheranzko bidea hartuko duten gizarte eta ekonomia formak baitira geureak. Gizarte orok goranzko zikloak ezagutzen dituen bezala, beheranzko ziklo luzeetan ere sar daiteke. Gainezkatze ekologikoaren egoeraren ondorioz,

askotariko krisiak agertzen ari dira, izan energetikoa, klimatikoa, biodibersitate galerarena, zaintzarena, demografikoa edo krisi ekonomikoa bera. Guztiak ere, ikuspegi ekosozialarentzat, modernitate industrialak muga biofisikoekin talka egin duen sasoi historikoan, are gehiago larriagotzeko baldintzak dauzkate, eta beraz, gizarte aztertzailearen lana da prozesuok xeheki identifikatu eta azaltzea, ondoren aterabide posibleak jakintza ahalik zintzoenaren gainean eraiki ahal izateko. Ildo horretan, gizarte zientzietan eta literatura akademikoan ohiartzun handia hartu du Antropozenoaren kontzeptuak (Crutzen, 2002), muga ekologikoen gainditzeari eta zibilizazio industrialaren etete historikoari erreferentzia egiten diona. Ideia horren arabera, jada ez geundeke prozesu geologiko eta ekosistemikoen etengabeko elkareraginean orekatutako munduan, giza jarduerak gorabehera nabarmenak eragiten dituen aro historikoan baizik². Bestela esanda, giza jarduera indar geologiko bilakatu den aroa da bizi duguna.

Tesi honen helburua planetan eragiten ari diren prozesu biofisikoak deskribatzea ez bada ere, beharrezko deritzogu gutxieneko zertzelada batzuk aipatzea, sistema sozial modernoak bizi duen egoera materialaren berri izateko. Horretarako haustura metabolikoaren kontzeptua erabiliko dugu, Marx-ek ekarria gizartearen eta naturaren arteko ezinezko harreman iraunkorra deskribatzeko. Kontzeptu hori bera sarri erabiltzen da gizarte zientzietan geure zibilizazioak bizi duen dimentsio anitzeko krisiari erreferentzia egiteko.

² Esan beharra dago, ordea, eztabaida dagoela antropozenoa definitzerako eta kontzeptuari erabilera ematerako orduan. Ekomodernistatzat jotzen diren autoreentzat, antropozenoa giza garapenaren goi estadiotzat ulertu liteke, zientzia eta teknologiaren bidez giza bizitza inoizko bizigarriena eginez. Aldiz, korrante kritikoarentzat, antropozenoa gizakiaren gehiegizko jardunaren emaitzatzat jo behar dugu, prozesu biologikoetan desoreka sakonak eragiten dituen eta giza bizitza arriskuan jartzen duena epe ertainean. Autore batzuk haratago iritsiko dira, antropozenoaz baino Kapitalozenoaz (Moore) edo Plantationozenoaz (Haraway) hitz egin beharko genukeela defendatuz, landaketa forma modernoai, kapitalismoari eta patriarkatuari erreferentzia esplizitua eginda. Dena den, sozialismo errealeko herrialdeek ere paradgima hazkunderazaleari eutsi diotenez kostu ekologiko handien kontura, bada *Growthocene* izendatzea proposau duen autorerik (Chertkoscaya eta Paulsson, 2016).

1.1 XXI. mendeko gainbehera energetikoa. Hazkuntzaren logika kolapsorantz.

“Eguerdiko eguzki galdan etorri da andrea bere parasolarekin, aurkitu du lekua eta iltzatu du sonbrila arean. Sortu du bere itzal habitat babestua. Arropak erantzi eta gauzak bere horretan utzita joan da itsasertzera oinak freskatzera. Itzuli da andrea bere habitat txikia zenera eta bere sonbrilak, aldamen batean gustuz baliatzen duen gazte bati egiten dio itzal. Hor hurreratu zaio andrea, mugitzeko hortik, hori bere itzala dela. Lurra biraka dabil, dena mugitzen ari da eta ardatzari heldu dakioke baina itzalari ez. Ezin ba, dena eta beti eduki. Eguzkia justuagoa da askoz eguzkipekoak baino”
Maialen Lujanbio

Ikerketaren norabidea eta bere izaera ulertzeko, AKE-k zapaldu behar duen lur materialaren diagnostikoa dago oinarrian. Diagnostiko horretan, krisi ekologikoarekin eta kooperatiben kezkekin lotzen den lehen puntua XXI. mendeko gainbehera energetikoarena da. Gainbehera energetiko horren arrazoiak ongi ulertzeko, lehenbizi fluxuen energetik biltegiko energiara emaniko jauzia ulertu behar dugu. XVIII. mendean salbuespen metaboliko *fosilean* sartu ziren mendebaldeko gizarteak eta honek erroko eraldaketa darama itsatsia ardatz ekologikoan, izan ere, jarioan oinarritutako energia erabileratik, stock-ean oinarritutako energia erabiltzera pasa baitziren, biltegian pilatuak muga bat duela jakinagatik.

Erregai fosilek modernizazio prozesuari eman zioten bultzadak, sekula aurrez ezagutu gabeko eraldaketak ekarri zituen gizakiaren historiara, bai erritmoan zein edukian. Energia kopuru erraldoia eskuragarri edukitzeak estatuaren papera indartu zuen prozesu historikoetan, boterea kontzentratzearen bidetik³ (nazio-estatu forman artikulatuz) eta gizarteei konfigurazio historiko bereizi eta bakana eskaini zien kapitalismo industrialaren forman. Eraldaketa horren indarra, ordea, mugatua eta zaurgarria da. 1972an Erromako Klubeko txostenak garbi ohartarazi zuen baliabide naturalen hustuteka agertoki probablea zela baldin eta ordura arteko kontsumo eta ekoizpen erritmoa mantenduz gero (Meadows et al. 1972). Txosten ezagun horretan gizarte industrialen hondamendia aurreikusten da eredu matematikoen bidez egindako kalkuluekin, eta kolapsorako joera arriskutsuaz ohartarazpena luzatu. Aipagarria da orain artean txosten horrek aurreikuspenak egiteko izan duen zehaztasuna, zeinak XXI. mendeko lehen erdian jartzen dituen kolapsatzeko probabilitate aukera handienak. Zehazki, 2023an Estokolmoko Unibertsitateko zientzialarien arabera, bederatzi muga planetariotik sei jada gainditu ditugula ondorioztatu zuten (Richardson et al. 2023). Muga horiek Lur Planetako sistemaren oreka eta bizitzaren erresilientzia mantentzeko funtsezkoak dira, eta mugak gainditzeaz gain muga bakoitzaren gaineko presioa areagotzen ari da. Krisiak askotariko dimentsioak dituen arren (Klimarena, biodibertsitatea, ur edangarria, elikadura agroindustria, biosferaren integritasuna...) ez gara guztiak aletzen hasiko, tesiaren helburua bestelakoa baita. Dena den, haustura metabolikoaren zertzelada batzuk jasotzea funtsezko ariketa deskriptiboa zaigu, gizarte

³ Aipagarria da energia iturri modernoek (fosilak eta nuklearra) eta botere subirauaren arteko lotura estua. Lewis Mumford-ek aztertzen duen bezala, komunitateak eta norbanakoak energia sare zentralizatura konektatzean, estatuaren menpekoago bilakatzen zituen, bizitzeko ezinbesteko zuten energiaren giltza botere zentralarengan baitzegoen. Energiaren kudeaketa masibo eta komunitate oro sare horretara lotzea izan zuen eginkizun estatuak Mumforden arabera, norbanakoak diziplinatuz eta esanekeago bilakatuz. Energia fosilak eta nuklearra, beraz, modu merke eta masiboan, modernizazio prozesuaren birika erabakigarriak izan dira. Estatua izan da modernizaziorantz bultzatza egin duen palankarik indartsuena.

garaikidearen metabolismoaren eta lur planetako bizitzaren oinarri fisiko-biologikoen arteko apurketa ulertzeko. Gauzak horrela, oinarri energetiko-materialean sortu den arrakalan jarriko dugu arreta, sistema sozioproduktiboarekin eta ondorioz Arrasateko Kooperatibekin lotura zuzena eta agerikoa duelako.

- i) Bigarren Industria Iraultzatik erregai fosilek (ikatzak, petrolioak eta gasak) egin dute posible modernitate industrialaren hazkuntza eta garapena. Milioika urtetan pilatutako putzu energetikoen deskubrimendua eginda, lurretik energia merkea eta kalitate onekoa eskuratzea aukera erreal bilakatu zen modernooztat. Ordea, 2008. urtean petrolio ekoizpenaren gailurra jo genuen (Durán eta Reyes, 2018), orduz geroztik, lurretik atera dezakegun petrolio kopurua beheranzko norabidean doa, urtean %6,8ko jaitsierarekin. Energia Itzulera Tasa handiko petrolioaren aroa, beraz, amaitutzat jo daiteke (kupel baten energia erabiliz 100 lortu zitezkeen). Gaur erauzten ari diren petrolioak batzaz beste 1-30eko itzulera tasa dauka, eta Fracking teknikaren bidez ateratzen denak 1-5ekoa. Beheraldi energetikoaren diagnostiko objektiboa, horrenbestez, argia da.
- ii) Ez dago momentuz deskubrimendu zientifiko kontrastaturik erregai fosilen ordezkagarri izango den energia bat topatu duenik. Gure garraio sistemaren %94,5a petrolioaren errez egiten da posible, eta gaurko ekonomia antolamenduaren katebegi estrategikoa izaki, nekez irudikatu daiteke erregai fosilek mugiaraziko ez duten garraio-sistema ahaltsu bat prozesu industrialak elikatzen.
- iii) Energia berriztagarrien eztabaida azaleratu da azken urteetan, aurpegi berdeko kapitalismo bat hornituko lukeen aterabide modura aurkeztu dena. Ordea, berriztagarrien itzulera-tasa 2,4koa da soilik eta ezingo liokete aurre egin erregai fosilek mantendu duten ekoizpen eta kontsumo mailari. Pedro Prieto eta Charles Hall zientzialariek egin ikerketan ondorioztatu zutenenez, Espainian instalatutako eguzki plaken baratzeek, euren bizitza erabilgarri osoan zehar, energia unitate bakoitzeko ia hiru unitate irabazten dituzte (Prieto eta Hall, 2013). Hortaz, petrolioak edo gasak duten errendimendutik oso urruti. Horrez gain, aipatu behar da energia berriztagarri gehiago erabiltzeak ez duela esan nahi erregai fosilak gutxiago erabiltzen direnik, energia mix globalaren gaitasuna handitu baizik. Halatan, berriztagarrien energia-ekoizpenak argindarra du emaitza. Gure gizartearen kontsumo energetikoaren %16a soilik da elektrikoa, beraz, berriztagarrien bidez eremu hori hornitzea lortuko balitz ere (gaur gaurkoz, ezinezkoa) kontsumo energetikoaren %84a ordezkatu gabe geratuko da. Ezinezko ariketa bilakatzen da berriztagarrietan oinarrituko den eredu produktiboaren berregituraketa bat planteatzea, elektrikoak ez diren gizarteetan.
- iv) Badago sakoneko kontsumo eta produkzio erak aldatu barik aterabiderik proposatzen duenik. Modernizazio ekologikoarekin teorietatik, georingeniaritzaren eta teknogarapenaren bidez, gizarte industrial modernoak

bere hazkuntza tasak mantendu ditzake. Antonio Turiel CSIC-eko zientzialari eta dibulgatzaileak, egun espainiar Estatuan kontsumitzen diren 6 exajulioak iturri berriztagarrietatik soilik kontsumitzeak zer kostu lekarkeen kalkulatu zuen. Ondorioa, 4,12 bilioi dolar beharko lirateke azpiegituren aldaketak egiteko, espainiar Estatuko BPG-aren hirukoitza eta, 32 urteko denbora tarte, hau guztia ekonomikoki ia etekinik emango ez lukeela jakinda. Zentzu berean, García Olivares zientzialariaren lana ere aipatu dezakegu (CSIS-eko zientzialaria hau ere). Mundu mailako energia kontsumoa %100 jasangarria bilakatzeko aukera kalkulatu du: zientzialariaren arabera, posible litzateke 2005. urtean mundu mailan eman zen kontsumo energetikoko tasa mantentzea, industria petrokimikoaren kasuan izan ezik (García Olivares et al. 2012). Sektore horrek 80. hamarkadako energia produkzio tasetara itzuli behar luke. Gainerakoan, energia produkzio sistema eguzki-energian eta eolikoan ardatzu beharko litzateke, tokian toki bestelako sistema berriztagarri batzuekin konbinatuz (hidroelektrikoa, itsas-energia...). Hori guztia, gure gizartearen elektrifikazio prozesu orokortu bat burutu ondotik. Aipatu liteke ere Nazioarteko Energia Berriztagarrien Elkartearen ikerketa (IRENA, 2018); bertan zehazten denez, BPG-aren hazkunde jarraitua 2 graduren berotze globalarekin uztartzeko, (gogora dezagun Parisko akordioaren helburua berotzea 1,5 gradura mugatzea dela) 12,200 gigawatt-eko gaitasuna instalatu beharko litzateke haize eta eguzki energian 2050. urterako, hau da, egungo gaitasuna hirukoiztu edo lauhoiztu beharko litzateke (Parrique, 2019: 115).

- v) Arrasateko Kooperatibak nazioartean saretuta egonagatik, euskal azpiegitura ekonomikoaren zutabe sendoetako bat izan badira eta gure datu-energetikoek kezkarako tarte zabalik lagatzen dute. EAEn sistema energetikoaren auto-hornikuntza tasa %5,4koa da, Nafarroan %14,9koa eta iparraldean %1,4koa (Bueno, 2008). 2021. urtean, Hego Euskal Herrian kontsumitatuako energiaren %50,2a Espainiatik iritsi zen, %12,5 Errusiatik, %10 Mexikotik eta %5 AEBtik (Gaindegia, 2022: 62). Menpekotasun-energetiko zabal horrek, Arrasateko kooperatibagintza krisiari erantzuteko are kokapen ahulagoan jartzen duela aipatzea azpimarragarria da.

- vi) Harresi energetiko horrek, beraz, hazkuntzaren logikan oinarritua dagoen egitura sozioekonomikoaren uzkurtzea esan gura du, gizartearen konplexutasun maila murriztuz, ekonomien birtokiratzeari atea irekita. Planteatzen zaigun agertokia ez da nolana hikoia, kapitalismoaren jarraikortasun historikoa kolokan jartzen duen aurrekaririk gabeko egoeran sartuta geundeke ikuspegi ekosozialetik. Bestela esanda, balioaren etengabeko sorkuntza taupatzen duen azpiegitura ekonomikoak muga termodinamikoarekin egin du topo, eta horrek geldialdi sozioproduktiboari ematen dio bide, horren ondorio kezkagarriekin bai ekonomian zein aberastasunaren banaketa sozialean. Hortaz, XXI. mendeak erakusten digun errealitate enpiriko energetiko eta materialak, ezagutu dugun zibilizazio molde modernoari guztizko emendakina aurkeztu dio.

Energiaren krisiaz gain, ordea, ezin ditugu aipatu barik utzi biodibertsitate galera eta klima aldaketaren dimentsioak, zibilizazio krisiaren beste bi lerro garrantzitsuenetarikoz izaki. Giza jarduerak ekosistemetan eragindako presioari erreparatzen badiogu, ondoko efektuak gertatu direla ohartarazi dute zientzialariek: negutegi efektuko gasak era kezkagarrian metatu dira atmosferan, industria iraultza baino lehen zeuden kopuruetatik oso gora; azken berrogeita hamar urteetan lur planetaren tenperatura batz bestea gora da; eta are, 2021eko IPCC nazioarteko zientzialari taldearen txostenean ohartarazi bezala, XXI. mendeak 2 eta 5,7 gradu arteko berotzea ezagutu dezake (IPCC, 2021). Hartzen diren neurrien eta adostasun politikoaren arabera izango da berotze prozesu hori ze puntutan geldituko den. Dena dela, ondorio kaltegarri batzuk jada sahistezinak izango dira, aro industrialean isuritako gasak ezin baitira naturalki desegin epe labur-ertainean.

Halaber, lurreko biodibertsitateak eragiten zituen funtzio ekosistemikoen %60 degradatu da azken 25 urteetan (IPBES, 2019). Ekosistemen gain giza presioa zabaltzeak, haien 18 funtzio nagusietako 14 higitu ditu, 1970. urtetik, eta zerbitzu ekosistemikoen balio globala 20 mila milioi dolar/urteko erritmoan jaitsi da 1997-2011 urteen artean (Costanza et al. 2014). Munduko arrain poltsen %75 galdu da ere (kantauri itsasoan nabariak dira galera prozesu horren ondorioak) eta modernitate industrialaren aurretik zeuden baso tropikalen herena suntsitu da. Baliabide naturalen erabilera globala handitzen ari da, zehazki, 2002 eta 2015 urteen artean materiaren erauzketa globala %53ko kopuruan hazi zen (Krausman et al. 2018). Agertoki honen aurrean, zientzialari sozial ugari izan dira garai hau deskribatzerako orduan *azelerazioaren* metafora erabili dutenak. Walter Benjaminen metafora ospetsua ekarriz, azeleragailua sakoneraino zapaltzen dugun aroan gaude, maniobra sakonak egiteko geroz eta tarte gutxiagorekin agerian den talka bortitzera bidean.

Emilio Santiago Muiño antropologoak dio agertoki historiko hau eraldaketa sozial sakonak jasan dituzten aroekin konparagarria dela, iraultza neolitikoaren edo lehen industria iraultzaren parekoa (Santiago Muiño, 2015: 68). Eraldaketa hori egin ezean, bizi dezakegun kolapso egoerak Erromatar inperioaren gainbeheraren moduko prozesu bat jasatera bultzatu gaitzake (Sacristán de Lama, 2008). Ideiak konplexutasun sozialaren desintegrazio prozesu gogor bati egiten dio erreferentzia, erdi arora itzulera bat, baliabide gutxikoa. Gizarte konplexuen kolapsoa ez da historian gertatu ez den zerbait, inperio boteretsuak eta sofistikazio maila altuko gizarte-sistemak desegin izan dira. Josep Tainter erreferentziatzko autorea da kolapsoaren kontzeptuaz aritzeko (Tainter, 1988). Bere tesien arabera, kolapso sozialak metabolismo sozialaren desegite fase bati ematen dio bide, bere eremu bakoitza pixkanaka deslotzen doalarik osotasunetik, zatikatuz, arrakalatuz, gutxiagora joanez. Espezializazio ekonomikoan, politikoan edo kulturean atzerapausuak gertatzen dira, eta zentraltasun politikoak ere boterea deszentralizatzeke premian ikusten du bere burua. Finean, materia, energia, informazio, kapital eta arte-sorkuntza fluxuen murrizteaz ari gara, koordinazio sozial orokorraren argaltzeaz. Emilio Santiago Muiño antropologoaren aipu honetan biltzen dira kolapsoaren adierazlerik argienak.

“La desaparición del Estado unida a una debacle demográfica, a la rapidez relativa del proceso y a un orden pos-colapso simplificado (edades medias) pueden considerarse los cuatro signos más evidentes de un colapso social” (Santiago Muiño, 2015: 194).

Ildo beretik, Carlos Taibo pentsalariak aztertu duenez, historian zehar egon diren zibilizazio kolapsoek lotura izan ohi dute gain-ustiatze ekologikoarekin (Taibo, 2016). Izan lurren gehiegizko erabileragatik edo komunitate bat hornitzeko baliabideen erabilera azkarrarengatik, lortutako sistema sozial eta politikoen konplexutasun maila arintzen da, halabeharrez. Diamond-ek ere antzeko diagnostikoa egin du zibilizazio batzuk zergatik kolapsatzen duten aztertzean (Diamond, 2006). Esaterako, zehaztu du ingurugiroan eragindako kaltea izan zela Pazko Irlaren, Asanazien edota Maya zibilizazioaren kolapsoak garatzeko determinante nagusietako bat. Norbert Elias soziologo ezagunaren zentzuan esateko, zibilizazio prozesuak egon diren bezala, norabide integratzailearekin, deszibilizazio prozesuak ere gerta daitezke, kontrako norabidean. XX. mendean badaude adibide batzuk (Holokaustoa, Gulag-a, SESB-en erorketa eta desegitea, Jugoslabiaren gatazka etnikoa...) epe ertain-laburreko prozesuak izan ohi dira, suntsipen ahalmen handiarekin. Fernando Ampudia de Aro soziologo eta teoria eliasiarrean adituak, horrela bereizten ditu maila makrosoziologikoan eta mikrosoziologikoan des-zibilizazio prozesuak bilduko lituzkeen ezaugarriak (Ampudia de Aro, 2010): i) estatuaren indarraren erabileraren monopolio galera ii) elkarmenpeketasun kateen murrizte esanguratsua iii) talde sozialen arteko ezinikusiarren eta mesfidantzaren gorakada iv) oinarrizko elkarbizitzarako adostasunen haustura v) indarkeriaren presentziaren areagotzea eguneroko gizarte bizitzan. Maila mikroan aldiz, norbanakoaren autokontrolerako egiturek eraginkortasuna galtzen dute, eta oldarkortasun zein mesfidantza mailek gora egiten dute. Era berean, norabanakoaren identifikaziorako mekanismoen ahultzea dago, besteenganareko gerturatzea eta esparru komun bilaketa aktibatu orde, ukapena eta herra nagusitzen dira.

Teoria ekosozial kritikoaren koordenadetan, modernitate industrialaren abiadura azkarrak bide hori daramala ohartarazteaz gain, eztabaida dago ea jada kolpaso martxan dagoen edo oraindik iristeke dagoen prozesua den. Esan beharra dago, zibilizazioen kolapsoak aztertu dituzten historialariek etorkizunean determinatu dutela *kolapsoa* jasan zutela (Santiago Muiño, 2015: 131). Historiaren sententzia behar da, nolabait. Antropologo madrildarraren iritzian, orainaldian kolapsatzen ari garen edo ez detremintatze ariketa zaila bilakatzen da zientzialari sozialaren ikuspegitik. Martxan dauden sakoneko prozesu batzuk ikusteko dauden zailtasunengatik alde batetik, eta bestetik, gizarte bizitza dinamikoa, aldakorra eta kontigentea izanik, ezin dugu *kolapsologia* bat egin eta eskema aurre-determinatu bat betetzen ari ote den edo ez eztabaidatu. Ordea, zientzialari sozialak bai detektatu ditzake kolapso sistemikoekin lotura duten prozesuak eta elkarren artean dauden eraginak. Hortaz, pentsamendu sozial zintzo eta objektiboaren ildoan ezingo dugu esan kolapsoa jada emana dagoen edo ez, dauden puntu beltz batzuk seinalatzea da egin dezakegun lana. Santiago Muiñok esan bezala, *kolapsorako joera* dira eztabaidagai eta ikergai ditugunak (Santiago Muiño, 2015: 131).

Beraz, *kolapsorako joera* horiez ari garelarik, teoria ekosozial kritikoak eremu politikoan izan dezaketen eboluzio arriskutsuaz ohartarazten du (Riechman, 2019), ekofaxismoaren aterabidea probablea izan daitekeela azpimarratuz. Garatzen duten ikuspegiaren arabera, egongo den baliabide eskasiaren aurrean, baliabide horien jabetza lortzeko gatazkak, biztanleria osoen pobretze masiboak eta baliabideen banaketa sistema oso desorekatuak ezaugarritu ditzake aterabide autoritarioak hartuko dituzten gizarteak. Bidegurutzea, beraz, argia da, edo gizartearen deskonplexutasun

ordenatu eta adostua egin, edo konfigurazio soziopolitiko autoritarioetara jo (Azkarraga, 2012). André Gorz soziologoak ohartarazi zuen marxismo produktibistatik aldenduz 1973an petrolio krisiaren eta Erromako Klubeko txostenaren testuinguruan, bazetorren krisialdi ekologikoarekiko intuizio argigarri:

“Kapitalismotik irteera gertatuko da bai ala bai, modu zibilizatuan edo barbaroan. Planteatzen den auzia soilik da irteera moldea eta horren erritmoa.” (Gorz, 2008: 3).

Bidegurutze sozio-ekologiko horretara iritsi izanaren kausetan sakondu duten autoreek, modernitateak jasan duen azelerazio sakona izan dute hizpide. Hartmut Rosa soziologoak dio garai modernoaren ondoez gehientsuenen itzalean azelerazioaren ideia dagoela (Rosa, 2016): ertz ekonomiko finantzarioan nabaria da turbokapitalismoaren egokitu ezina ekonomia material errealari. Kapital, aktibo eta akzioen salerosketa birtualak halako erritmoz gauzatzen dira, ezen fikziozko burbuilen eraikuntzari ematen zaien bide, ondoren lehertu eta krisi finantzarioak abiarazteko; ertz politikoan ere berdintsu, deliberazio demokratiko ordenaturako behar diren epe, denbora eta bermeak ez datoz bat merkatuen berehalako itxuraldatze eta eskari berriekin. Ertz psikiko-subjektiboan, errendimenduaren eta emaitza berehalakoen exigentziak subjektu garaikidea kolpatu du, inoizko antsiolitiko kopururik handiena kontsumitzen da. Lan munduaren abiadura azkarrak eta konexio etengabeak koadro psikiko deprimitu, antsioso eta nekatuei zabaltzen die bidea. Norbere denbora ahalik eta ekimen gehienekin betetzen saiatzea, edo denbora gutxiagoan gauza gehiago egiteko desirak subjektu moderno garaikidea ezaugarritzen duela dio Rosak, bere berbetan esperientziaren *areagotze* prozesua bilatzen dugu. Ertz ekologikoan, auzi energetikoarekin azaldu bezala, kontsumo azkarrak hondakin kopuru erraldoia sortzeaz gain ez dio planetaren gaitasun biologikoari erauzitako materiala xurgatu eta berriz sortzeko astirik lagatzen. Eta azkenik, Rosak lotura sozialen eremua ere aipatzen du azelerazioak kaltetutako esparru modura, harremanetarako, zaintzarako eta elkar entzuteko denbora tarteia ia ezabatu dela iradokiz. Ivan Illich-ek ere, hala ohartarazi zuen:

“En una sociedad basada en la velocidad no es posible una verdadera elección del sistema político, así como tampoco es posible el establecimiento de unas relaciones sociales fundamentadas en la igualdad de oportunidades, pues las relaciones sociales que se pueden dar en libertad tienen lugar al ritmo de una bicicleta, nunca más rápido” (Illich, 1973: 37).

Azelerazioa, ordea, ez da modernitateari atxiki diezaiokegun ezaugarri bakarra. Autore klasikoagoetara joz, Max Weber-ek berak bi arrazionaltasun nagusiren arteko tentsio etengabe modura azaldu zuen jada modernitatea. *Arrazionaltasun formal*a (helburuei begirako arrazionaltasun utilitarista, eraginkortasuna xede duena) legoke alde batetik eta bestetik *arrazionaltasun material-baloratiboa* (balioetatik abiatzen den arrazionaltasuna, giza ekintzari zentzua ematen diona). Modernitatearen minen arrazoi nagusietakoa litzateke, beraz, Weberren arabera, arrazionaltasun formalaren hedatzea bizitza sozialaren esparru gehientsuenetara, giza-taldeen jardunaren zentzu-hornikuntza biluzik utzita. Gorz-ek berak ere dio kapitalismo industrialak ezin izan zuela erabat libre hegan egin arrazionaltasun ekonomikoa berau eusten zuten bestelako arrazionaltasunetatik emantzipatu zen arte (Gorz, 1994: 34). Azkarragak (2007) planteatutako irakurketan, modernitatea zeharkatu duen arrazionaltasunen arteko talka hori Arrasateko kooperatibismoan nola garatu den aztertzen du, arrazionaltasun ekonomiko-instrumentalaren eta zentzu-hornikuntza integral baten arteko oreka bilaketa

zail, konplexu eta bukatugabeen. Argigarria da Azkarragaren lanak dakarren berritasuna kooperatibagintza aztertzerako orduan, tentsio weberiar horretan aztertzen baitu Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren bilakaera eta gauzapena. Bada, arrazionaltasun utilitarista horren gailentze sozialak zaildu egiten du krisi ekologikoa modu integral batean interpretatzea. Bizitzari bere osotasunean mehatxu egiten dion prozesu modura ulertu ordez, krisi ekologikoa borrokatzeko neurriek ekar ditzaketen ondorio ekonomiko kaltegarrietan jartzen da arreta, eta beraz, haien egokitasuna zalantzan jartzen da.

Pentsatu behar dugu, arrazoi ekonomikoaren gailentze hori (lehenbizi azpiegitura ekonomikoaren ongizatea, ondoren, gainerako guztia) eskuin zein ezker ideologia modernoan oinarrietan aurkitu dezakegula. Tradizio liberalean kokatutako pentsalari ekonomikoentzat, BPG-aren hazkuntza gizarte baten norabide egokiaren adierazle litzateke; ikuspegi liberalaren arabera BPG-ak gizartearen garapen maila eta gainontzeko herrialdeekiko lehiakortasun maila adierazten du; ondorioz, geroz eta adierazle altuagoa izan, lehiakide hobe eta merkatu kokapen hobe izango duzu. Bestalde, bai marxismotik edo keynesianismo erreformistatik egiten diren ekarpenentzat, emantzipazioa hazkuntza materialaren bidetik etorriko dela pentsatu izan da historikoki. Kalekcy edo Keynesen lanean garbi adierazten da langile eta herri klaseak boteretzeko hazkuntza ekonomikoa ezinbestekoa dela; are, erabateko enplegua eta ekonomia publikoaren hazkuntza langile klaseak bilatu behar dituen helburuak direla ageri da Kalekcyren tesietan, era horretan botere sozial kapitalista arrakalatu eta kontzientziazio kolektiborako prozesu bat abiarazteko baldintzak jartzen ariko liratekeelakoan (Foster, 2013). Ordea, Jorge Riechmanek azaldu bezala, ez da kontuan hartzen BPG-a hondamendira garamatzen garapenaren adierazlea dela. Gizarte modernoan norabide horri Hartmut Rosa soziologoak *estabilizazio dinamikoa* esango dio, hau da, gizarte forma horiek egonkortasuna mantentzeko ezinbestekoa dute hazkuntza materialaren legearekin jarraitzea (Rosa, 2010). Soziologoaren iritzian, abiaduraren ideia barneratu dugu bizitza egoki baten ezaugarri gisa, mantso doanak, erritmorik egokitzen ez denak, gizartetik kanpo geratzeko arriskua du. Nolabaiteko bideitsu kolektiboaren ideia dago atzean, azkar joatea ondo joatearekin berdintzen duen kontakizun kulturala gailentzen da.

Krisi ekologiko globalak hazkuntza ekonomikoaren ulerkera partekatu horretatik aldentzeko aro historikoa ireki du. Ez soilik muga biofisikoekin talka zuzena egiten duelako (espezie eta ekosistemen desagerpen masiboa ahalbidetuta) ezpada finantza ekonomiaren aroan hazkuntza ekonomikoak ez daukalako itzulpen errealik jendarte zabalaren baldintza materialetan. Giovanni Arrighik (1999) aztertu zuen XX. mendeko hazkuntza ekonomikoko aroak ekonomia errearen egiazko biderkatzea zekarrela, eta berarekin batera aberastasunaren banaketa sektore sozial gehiagotara iristen zela. Ordea, 2008ko finantza krisiaren ondoren, finantza hazkundera eta ekonomia erreala erritmo ezberdinetan doazela frogatu dute zenbait ekonomialari eta soziologoren lanek (Alonso eta Rodriguez, 2013).

Hazkunderaren ideia, hortaz, bi norabidetan dago krisian: batetik mundu materialaren mugekin talkan sartzen delako; bestetik, gaurko hazkundera finantzaren fikzioan oinarritua denez, burbuilen lehertzea eta ondorio sozioekonomiko kaltegarriak

dakartzalako⁴. Hazkuntza=ongizatea ekuazioak indarrean jarraitzea, pentsamendu sozio-ekologikoak behin eta berriz errefusatu duen tesia izan arren, gizarte kapitalista egituratua dagoen moduak defendatzen duen ikuspegi ideologikoa da, azalpen zientifiko sozial kontrastatu eta partekatua izatek urruti. Paradigma hazkunderazetik haratago pentsatzea derrigortasun moral bilakatu da pentsamendu ekosozialean dabilzan autoreentzat, Walter Benjaminen esaladi sonatua ekarriz, bere garairako intuizio politiko harrigarri, agian trenaren larrialdi frenoei tira egitea zela emantzipazioari atea zabaltzeko bidea.

Beharrezko zaigu hortaz, indarrean dagoen garapen ereduaren eta beraz sostengatzen duen ikuskeraren ezaugarri batzuk zalantzan jartzea, tesiaren kokapena eta zentzua ondo oinarritzeko.

a) **Garapena eta hazkundera: modernitatearen ardatz.**

“Hortxe dago. Gizakiak bide atletiko eta ederzaleagoetan bere garapena ez egin izanaren atsekabea sentiarazten dizun lau oinetako noblezia puska incontestablea. Milurtekoan atzera eramaten zaituen katu mitologikoa. Gepardo beltza.” **Harkaitz Cano**

Lehenengo eta behin, garapenaren ideia klasikoari heltzea dugu zeregin. Ideia horretan, igogailu forma duen prozesu gisara irudikatzen da, forma sinpleetatik konplexuagoetarako bide lineala daraman tren bairatzen. Darwin-en teoria eboluzionistek gizarte zientzietan izan duten oihartzuna nabarmena da garapenaren ulerkera honetan. Darwinengandik badakigu organismo biziek joera dutela egitura eta sare konplexuagoetarantz eboluzionatzeko. Metafora biologizista horiek gizarte zientzietara jauzi egin dute historia prozesu gorakor modura definituz, forma konplexuagoetara bide egiten duena. Josep Fontana historialariak dio garapenaren ideiak praktika politiko askatzaileak garatzen lagundu zuen bezala Antzinako Erregimen aristokrataren eta monarkikoaren aurka, behin burgesiak bere botere kokapena erroturik, garapenaren ideia despolitizatu zuela bere kokapenaren indar-legitimatzaile modura erabiltzeko (Fontana, 2000: 189). Hala, garapenaren teoria hautapen naturalaren teoriarekin uztartu zela defendatzen du, non burgesiak bere kokapena mantentzeko beharrezko zuen desberdintasun sozialak eta ekonomikoak justifikatzea. Darwinismo sozialari keinu eginik, XVIII. eta XIX. mendean eratu zen klase sozial burgesak aurrerapen teknologiko eta zientifikoak erabili zituen, lan baldintza gogor berriak justifikatzeko eta etekina euren jabetzapean gordetzeko.

⁴ Finantza burbuilaren hazkundera ekonomia errealean eragin baxua dauka, finantza sektorea loditzen du gehienbat; aldiz, krisialdi garaian herrialdeen ehun produktiboa desegiten du. Egitura ekonomikoaren konposizio horren ondorioz, klase ertainen estatusa eta lan egoera mehatxupean jarri dira, eta ustez bizi-ibilbide ziurrak, ongi oinarrituak eta emankorrak zituzten sektore sozialak ziurgabetasun maila altuagoetara iritsi dira.

Garapenak hartu duen esangura garaikideari dagokionez, II. Mundu Gerlaren ostean sortu zen nazioarteko testuinguruan aurrerapen zientifikoa eta ongizate materiala herrialde guztietara hedatzearekin lotu izan da (García, 2021). Europak eta Japoniak eskatzen zuten berreraikuntzari eta deskolonizazio prozesuari heltzeko kontzeptu politiko bezala erabili zen, ezker parlamentariotik eskuineraino aho batez onartua izan dena. Hala, garapen maila ezberdinak definitu izan dira herrialde bakoitzaren maila teknologiko-zientifiko eta industrialaren arabera. Sailkapen horretan, gizarte aurreratuak, garapen bidean daudenak edo azpigaratuak bereiz litezke, herrialdearen Barne Produktu Gordinaren tamaina izanik sailkapen horretan postu bat edo beste esleitzen duena. Gizarte baten ongizate maila neurtzeko adierazlerik egokiena den edo ez aztertzeraz sartu barik, begirada sozioekologikotik luzatzen den galdera da ea garapenak noiz lagatzen dion ongizatea ekoizteari eta garatze hutsa arazo bihurtzen den bere horretan. Esaterako, Ernest García soziologoak argudiatu bezala, zenbait koiuntura historiko-sozial zehatzetan garapenaren trenera igotzeak esan nahi izan du hobeto bizitzea, ondasun material oinarrizkoen zabalpenaren bidetik. Hego Euskal Herriaren kasua hartu liteke adibide gisa, desarrollismoaren garaia (Arrasateko Kooperatibismoa jaio eta zabaldu zen garai historikoa hain justu) jendearentzat etxebizitza hobea, elikagai gehiago, higiena, osasungintzara sarbide unibertsala, opor ordainduak, argindarra edo ur-beroa edukitzea ahalbidetu zuen, gerraostean pasatako gosetetik zetorren gizartearentzat aurrerabide material handia izan zena. Galdera da modu kapitalistan garatutako egitura sozioekonomikoan zein puntutan hasten den gizartea galera gehiago edukitzen (kostu sozial eta ekologikoen forman) onurak baino. Bestela esanda, auzia da zehaztea zein geltokitan komeni den jaistearen trenetik, trenak abiadura handia hartu eta kontrolez kanpo geratu baino lehen.

Era bertsuan, Robert Nisbet (1981) soziologo kontserbadoreak kritika sakonak eginak ditu gizarte zientzien ikuskera *biologizistaren* falaziaren inguruan. Historia prozesu lineal eta aldebakarreko gisa definitu ordez, aldi berean gertatzen ari diren askotariko prozesuen emaitza dela sostengatu zuen, adar teknologiko, ekonomiko, kultural edo politikoan. Hortaz, eraldaketa sozialaren edo eboluzio sozialaren arrazoiak historiko-sozialki kokatuak daude gizarte zehatzetan, ez da garapenaren bide linealik gertatzen, elkarren artean harilkatzen diren prozesu askotariko eta ezberdinak baizik. Hots, iraultza bat edo errealitate soziohistoriko konkretu batean mutazio soziologiko nabarmena eragin dituzten kausak, beste testuinguru historiko batean garrantzirik gabekoak izan daitezke.

Charles Tilly (1991) historialari eta teoriko sozialak ere ildo beretik egiten du azpimarra. Soziologia ikuskera desarrollistan harrapatua dagoela kritikatzeko du eta ez dagoela aurrerabidearen prozesu bakar eta bukatuak. Aitzitik, eraldaketa sozial zabala egon ordez, prozesu zatikatu ugari daude, konplexutasun maila ezberdinekin, paraleloki gertatzen eta elkar-eragiten dutenak. Prozesu horiek guztiek ondorio ezberdinak dituzte klase sozial edo herrialde bakoitzean, tokian tokiko ezaugarri eta baldintzen arabera. Hortaz, gaurko errealitate sozial ezberdinak, prozesu historiko luze, motel eta historiko-sozialki kokatuen emaitza dira. Soziologiak, Tillyren iritzian, historikoki funtsatutako eta xehetasun maila altuko jakintza ekoizteko beharko luke. Progresoaren kritikaren begiradatik, hortaz, aurrerapen teknozientifikoak ez dakar berez eraldaketa sozial eta kultural zabalagoa. Bakoitzak bere dimentsioan aldaketak jasan ditzake, baina modu organiko eta bateratuan zibilizazioak norabide aurrerakoia dueneko ideia bere horretan erortzen da; are, aurrera egiten duen bezala atzera ere egin dezake historiak,

ez du norabide argirik, garaian garaiko botere konfigurazioaren eta nagusitzen diren indar sozialen arteko orekaren araberakoa izango da haren eboluzioa.

Theodor Adorno eta Walter Benjaminek ere defendatu zuten gizarteko sektore batzuetan bai nabaritu dezakegula aurrerabidea. Pertsona-talde batzuek euren gaitasunak eta jakintzak hobetzen dituztela. Ordea, pentsalari Frankfurtarren iritzian, gizarteak osotasun bezala ez du garapenik ezagutu. Historia ez da sekula izan bere patuaren gaineko ardura hartzen duen gizateria kontziente batena, historia natural basatia baizik, elkarren arteko etengabeko lehian. Pentsamendu marko horren logikarekin jarraituz, esan liteke krisi ekologikoak kolpatuko dituen gizartearen bilakaera ere, deskordinazio sozial orokorra baino, pixkanaka eremu sozial ezberdinetan igarriko dela eta eremu bakoitzak (teknologikoak, ekonomikoak, politikoak edo kulturalak) bere bilakaera propioa izango duela. Hala, garapenaren ideia linealari kritika egin diezaiokegun bezala, modu berean egin diezaiokegu desgarapenaren ideia linealari; prozesu sozialak beti baitira hauskorrak, ordena zehatzik gabeak eta erritmo ezberdinetakoak. Pentsa dezakegu, beraz, gizarte bakoitzak bere bide propioa bilatu beharko duela post-hazkunde edo desazkundeko agertoki historiko berrian, eta gizarte bakoitzaren baitan ere sektore ezberdinek eboluzio propioa eta errepikaezinak izango dituztela.

Ilido beretik, garapenaren ideian sostengatzen den pentsamendu ekonomikoaren zutabeak aztertu ditu Jose Manuel Naredo ekonomialari ekologikoak, *La economía en evolución* (2003) liburuan. Haren analisiaren arabera, analisi ekonomiko ortodoxoan nagusitzen den tesia da sistema ekonomikoa modu koherente eta ordenatuan eraikia dagoela. Ikuspegi horretan, bizitza ekonomikoak identifikatu daitezkeen lege zehatzak dauzka. Sistema ekonomikoa bere baitan itxia geratzen den organoa litzateke nolabait, autoerreferentziala, gainerako prozesu sozial eta naturalekin konexiotik kanpo. Ekonomialarien lana, beraz, sistema itxi horren legeak, jokamoldeak, konexioak eta jarduteko moduak deszifratzea litzateke.

Naredok, ordea, kritikatzeko du "produktibitatea", "garapena", "ekoizpena" edota "herrialde atzeratuaren" moduko kontzeptuak eraikuntza sozialak direla, oinarri historiko-sozial zehatzetatik eginak. Ikuskeran ekonomiko ortodoxo horrek mekanika newtondarrean hartzen du gorputz, beti gehiagora joatea posible dela onartuta, energia eta materialak puntu batean beherezko joera hasiko dutela aintzat hartu gabe. Naredoren kritikaren arabera, pentsamendu ekonomiko nagusiak ez du entropiaren legea bere formulazioetan murgiltzen, sistema koherente eta ordenatu horrek onarri material zehatzak beharko ez balitu bezala. XVIII. mendean Ingalaterran gertatu zen haustura epistemologikoak, aberastasuna naturak ematen zuenarekin lotzetik, balio monetarioaren sistema abstraktura igarotzea ekarri zuen (Naredo, 2019: 49). Aberastasun ekonomikoa ulertzeko ikuspegi aldaketa horrek, bereizi egin zituen eguneroko giza bizitzarako erabilera balioa duten ondasunen eremua eta diruaren eta irabazien eremu abstraktua. Bigarren horren gailentzeak pentsatu izan du ekoizpena eta haren biderkatzea zirela aberastasuna lortzeko modua, kontuan hartu barik bizitzarako funtsezkoak diren prozesu gehientsuenak produzioaren eremutik kanpo gertatzen direla (edaten dugun ura, aransten dugun airea edo fotosintesia). Hau da, pentsamendu ekonomiko neoklasikoak uste izan du ondasun naturalak kapital monetarioagatik ordezkagarri zirela, balioa adierazteko neurririk egokiena monetarioa zela. Arrazoitzeko modu horrek ehun ekonomikoaren hazkuntza albiste ontzat jo izan du, kontuan hartu barik horrek dakartzan higatze ekologikoak edo kalte sozialak. Funtsezkoa da beraz,

ikuspegi ekologikoa txertatzea analisi ekonomikoetan, produktu baten bizitza-ziklo osoak kontuan hartuz, ekoiztu eta kontsumitzen diren gizarteekin eta bere ekosistemekin orekan.

Kritika horretatik eratortzen zaigun galdera, beraz, berez emana dator: gizartearen oinarri materialen hazkundea eta garapena gizarte helburu modura hartzen den sasoi historikoan, nondik lortuko dute gizarte eta ekonomia forma garaikideek elikadura energetiko eta materiala, gizarte estadio garatuago, haziago eta sofistikuagora iristeko? Deposito material handienak ustiatuta dauden garai historikoan, zail egiten da konplexutasun teknologiko, soziokultural eta ekonomiko altuko gizarterik irudikatzea, erabili gabeko erregai berririk agertu ezean. Santiago Muiñok (2015) dioen moduan, termodinamikaren bigarren legeari erreferentzia eginez, erregai fosilak zibilizazioak izan duen tiro bakarreko arma dira, garapenaren mitoa elikatzeko baldintza materiala izan dena.

b) Neutraltasun teknikoaren korapiloan

Bada teoria ekosozialetatik garapen eredu modernoaren ikuspegiari kritikatzeko zaion beste ezaugarri bat, teknologia pisu politikorik gabeko eremu gisa aurkezten duena. Ez da berria gizarte zientzietan teknologikoa sozialki neutrotzat jotzeak dakartzan arriskuez ohartaraztea. Teknozientziaren garapenaren ideia eta soluzionismoa elkarren osagarri izan diren ideiak dira modernitatearen etorreran, hau da, geroz eta gaitasun tekniko handiagoa izan, gizarteek euren egiturazko arazoak konpontzeko kokapen hobeto egongo dira. Ordea, ez du gizarte eta garai historiko guztietan paper berbera jokatu teknologiak, berau epaitzeko eta sozialki ulertzeko modua aldatzea izan da. Funtzio positiboa izan dezakeen bezala herritarren bizitzak errazteko, suntsipen gaitasuna handitzeko ere balio dezake, modu zehatz batean egituratua dagoen gizartean jaio eta zabaltzen den neurrian.

XX. mendean egin ziren zenbait gogoeta filosofiko-soziologiko esanguratsuk zalantzan jarri zuten teknologiaren garapenaren logikan pentsatzea mesedegarri ote zitzaien gizakiari, batez ere II. Mundu Gerlax ekarritako sarraskiaren ondotik. Frankfurtoko eskolan ezaguna da garapenaren ideari egindako kritika, modernitateak eta arrazoiaren printzipio ilustratuek eraginkortasun zientifikoa izugarri areagotu baitzuten, baina baita Holokaustoa, Hiroshima edo Gulag-a posible egin ere. Garapen teknikoak garapen moral-espiritualari bide ematen ziola adierazten zuen ideiak ez zuten ondo bat egiten milioika hildako eragin zituen gertakari historikoarekin. Teknologiak garatu zuten suntsipenerako gaitasuna modernitateak askatu zituen prozesuen emaitzat jo zuten, potentzia zientifiko-materiala ez ezik prozesu sozial berriak ere jarri baitziren martxan tankerako gertakari historikoak ahalbidetu zituztenak. Zygmunt Bauman soziologo eta saiakeragile poloniarra, munduaren deslilura eta jainkoraren heriotza Nietzsche shearrak sortu zuen noraez kolektiboan jartzen du gizakiak teknikaren bidez muga moralak hautsi izanaren arrazoi historikotzat:

“Junto a la potencia inaudita de la tecnología se produjo la impotencia de las limitaciones que secularmente el hombre se había impuesto a sí mismo en su dominio sobre la naturaleza y sus semejantes:

el conocido “desencantamiento del mundo” o, en palabras de Nietzsche, “la muerte de dios”. Dios era, ante todo y sobre todo, un límite a la potencia humana: una restricción impuesta por lo que el hombre debía hacer sobre lo que podía hacer y se atrevía a hacer. El reconocimiento de la omnipotencia de Dios trazaba una frontera sobre lo que el hombre podía hacer y atravesarse a hacer” (Bauman 1989: 252)

Jainko ahalguztiduna sinesmen sozialen multzotik baztertuta, modernitatearen garapen tekniko-zientifiko azkarrak salbuetsi egin ziren, nolabait, epai moraletatik. Baumanek (1989) dioenez, teknologia eta garapen teknozientifikoa heriotza-industria bat antolatzeke erabili izana onartzea *adiforizazio*⁵ prozesu sozial bati esker gertatu zen . Teknikari eta mundu ez-gizatiarrari lotutako kontuak beti jo izan dira moralki neutrotzat, Elizak ez zuen epaitzen, ongia eta gaizkia giza-ekintzari bideratutako irizpideak ziren. Bestela esanda, Elizak sekula ez zuen armategi modernoek gainean erabaki behar izan, gizaki bakoitzaren ekintzen inguruan baizik, ondorio eta eragin-esparru ongi zehaztuarekin. Ordea, bi Mundu Gerlen esperientziaren ondotik, jakin badakigu armategi modernoak erabiltzearen ondorioak zein zabalak eta iraunkorrak izan daitezkeen, hau da, teknika moralki epaitua ez izanagatik, bere erabilerak (bere ekintzak) moralki gorrotagarriak izan daitezkeen kate efektuak eragin ditzakeela. Zehazki, Baumanek hiru ezaugarri giltzarri bereizten ditu *adiaforizazioa* gertatu dadin, eta Holokaustoa moduko sarraski baten aurrean gizarteak axolagabe jokatu dezan (Bauman, 1989: 250):

- Norbere ekintza muga moraletatik haratago eramatea. Nolabait, antolakuntza hierarkiko batean murgiltzean “aginduak betetzea” bilakatzen da norbanakoaren funtzio nagusi. Horrek, antolakuntzaren azken emaitzaren gainean kide bakoitzak izan dezakeen ardura bere ez sentitzea dakar. Ez dute era garbi eta gordinean ikusten euren ekintzek (agian trenbide-sarearen bidegurutzeak koordinatzea edo funtzionari-burokrataren beste edozein zeregin) ahalbidetu dutela heriotza-industria bat egikaritzea. Ekintza orokorraren erantzukizuna ez da inorena, guztiek ekarpen ñimiñoa egiten baitute gertatzen ari den guztiaren ardura norbere gain hartzeko.
- Despertsonalizazioa. Zeregin txiki eta moralki neutroak burutzen ari direnek, ez dute kontaktu zuzenik ahalbidetzen ari diren sarraskiaren jo-puntuarekin. Aurpegiak ez zaie jartzen, bestea ezabatu egiten da exigentzia morala eskatuko ligukeen ispilu gisara. Dena mugatzen da ekintza tekniko eta instrumental baten gauzapenera, ez dago bestearen gaineko erantzukizunik.
- Morala duen subjektua zatikatzen da, ezaugarri eta parte ezberdinetan, duen moralitasun hori desagiteko. Ekintzak puntu zehatzetan burutzen dira, ez osotasun guztiaren aurka, eta horrek efektu moral esanguratsuak ez askatzera darama. Ekintza xume eta ñimiñoa ezin da interpretatu giza-objektu oso baten ezabatze modura, ezin baitzaio ekintza horri borondate *hiltzailea* duenik esan.

Gogoeta horietan, Baumanek kezka agertzen du moralaren gaineko egile eskubideak antolakuntza sozialak soilik izateari buruz. Giza-ekintzaren *adiaforizazioa* edozein egitura sozialetan topa daiteke, antolakuntza eta erakunde moldeen elementu eratzailea da. Ordea, teknika ez da neutroa, hor Baumanen tesi nagusia, moralki epaitu, aztertu eta ulertu daiteke, ez dago prozesu sozialetatik salbu. Baumanek planteatzen duena da

⁵ Etimologikoki *adiaphoron* hitzak Elizak garrantzirik gabekotzat jotzen zuen hori zen. (Bauman, 1989: 249).

modernitateak ekarri duen gizaki-teknika harreman berrian pisu berezia hartu duela *adiaforizazio* prozesuak, teknikaren izaera neutroa berretsiz. Gizartea mekanismo *adiaforizatzaile* modura ulertzeak historia laburreko sarraski ugariaren azalpena hurbiltzen gaitu, are gehiago, historian egon den gizarte ilustratu, teknifikatu eta garatuenetako batek (Alemania 1930ko hamarkadan) Holokaustoa moduko gertakaria nola egin zuen posible ulertu gura badugu. Gizarte modernoari ikuspegi ebolutibo batetik begiratzen diotenei kritika zorrotza egiten die Baumanek, Jainkoaren heriotzaren ondotik, gizarte modernoa ez baita gai izan jokabide inmoralak errefusatzeko; are, gizarte modernoa bera izan da jokabide inmoral horiek guztiak zabaltzeko baldintza, erantzukizun eta epai moralaren garrantzia desaktibatzen duen neurrian.

Krisialdi ekologiko globalaren aroan gogoeta soziologiko Baumaniar horiek gaurkotasun berezia berhartzen dute. Lehenik, Lur planetako bizitza-sare osoaren suntsipena edo klima aldaketaren aurrean egiturazko neurriak ez hartzea, ekintza orokorraren ardura inork bere gain hartzeko gaitasunik ez duelako izan liteke. Nolabait, nazioarteko komunitate zientifikoak hondamendi ekologikoari buruzko ohartarazpenak egin arren, ez da metabolismo soziala mantsotzeko egiturazko erabakirik hartzen. Bigarrenik, gobernu lokal batek meategi berri bat zabaltzea edo gasa putzu berri bat ustiatzea erabakitzen duenean, ez du pentsatzen bere ekintza horrek ondorengo belaunaldietan izango duen eraginean. Baumanekin esateko, exigentzia morala esakatuko ligukeen subjektu bezala ez zaigu ageri. Hirugarrenik, teknika modernoak duen suntsipen gaitasuna kontuan izanda, trantsizio ekologikoaren norabidea borondate *hiltzailearekin* lotzeko ariketa teorikoa egin dezakegu. Baliabide eskasiaren eta tentsio geopolitikoaren gorakadaren aurrean, teknika militarren erabilera hornidura estrategikoetara iristeko bide bakar modura ager liteke. Zentzu horretan, Günter Anders filosofoak (1956) esan zuen gizakiaren garapen teknikoak muturreko egoera batera eramán gaituela, zeinetan ez garen gai guk sortua ondo ulertu eta kontrolatzeko, eta ondorioz, eragin ditzakeen kalteen gain ardura-hartzeko. Gizakiaren adimenetik jaiotako azpiegitura teknozientifiko guztiak, bizi propioa hartzen du nolabait, eta geure kontrolpetik kanpo geratu da modernitatean.

Gehitu behar da ere, teknikaren aplikazioa ez dela neutrala klase sozialen eta herrialdeen arabera. Abantaila bat ekar lezaketen berrikuntza teknikoak gizartearen klase ertain-atuetara iristen dira lehenik, eta ondoren, aukera materialik badago, produktu horren hedapena jartzen da martxan. Horrek inplikazio nabarmenak ditu krisi ekologikoari aurre egin behar zaion moldeak pentsatzean, izan ere, ez dauka ardura berbera auto pribatuan mugitzen den klase ertaineko gizon mendebaldar zuriak, edo garraio publikoa erabiltzen duen emakume migratuak. Bestela esanda, krisi ekologikoari erantzun asmoz garatzen diren teknologiek klase arteko, genero arteko eta herrialde arteko arrakalak sakontzeko tresna izateko arriskua daukate, ez dira neutroak zentzu sozialean. Energia berriztagarriekin edo kotxe elektrikoaren agerpenarekin, adibidez, deskarbonizazioaren izenean soilik sektore sozial batzuk izango dute mugikortasun-aukera pribatu altua mantentzeko eskubidea, gainontzekoei aukera hori ukatzen zaien bitartean, baliabide ekonomiko falta edo estatus sozial baxuaren ondorioz. Gogoeta bide soziologiko hori abiapuntutzat hartuta, sartuko gara jarraian arazo sozial eta politikoak teknologiaren bidez konpon litezkeeneko sinesmena arakatzera.

c) Teknologiaren konponbide ametsa

Aurreko bi ezaugarriekin harreman estuan, badaude Modernizazio Ekologikoaren Teoriatik, berrikuntza teknikoa eta hazkuntza ekonomikoa uztargarriak direla defendatzen duten autoreak (Huber, 1991; Buttel, 2000; Mol, 2002). Ikuskera horretan, krisialdi sozioekologikoa gizakiak sekula eduki duen berrikuntza eta asmakuntza teknikorako garaian konpongarri izan liteke, gaitasun konputazional eta zientifiko handia izaki. Geoingeniaritzaren edo berrikuntza teknikoaren bidez, gizarte garaikideak klima aldaketara egokitzeko moduan egongo direla ematen da aditzera Modernizazio Ekologikoaren Teoriatik. Berrikuntza teknikoari esker, ekonomia jarduera erregai fosiletatik deslotu eta hazkunde jarraitu baten aldeko apustua egiten da kokapen honetatik, hazkunde berdearen egingarritasunean sakonduz (Jacobs, 2013; Bowen eta Hepburn, 2014). Ikerketa eskola oso bat ari da ildo horretan sakondu eta proposamenak egin nahian; zentzu horretan, aipatu liteke *Global Green Growth Institute*⁶ erakundea, ideia horiek sintetizatu eta zientifikoki funtsezko lanean ari dena, oparotasun ekonomikoa gal ez dezaten gizarte garaikideek. Era berean, hiru nazioarteko erakunde esanguratsu nagusik sustatzen dute hazkunde berdearen kontzeptua, Munduko Bankuak (2012), Nazio Batuen Erakundeak (UNEP, 2011) eta Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGA, 2011). Nolabait, sakonean dagoen ideia ondokoa da. Gizakiak bere aurrerabide eta oparotasuna topatu izanaren ordaina da krisi ekologikoa, baina ordaintzeko gaitasuna izan badugu.

White historialariak kristautasunean topatu ditu ikuskera teknozale horren erro historikoak. Bere tesiaren arabera, Asiseko Frantzisko eta bere jarraitzaile iraultzaileen porrotaren ondoren, naturari buruzko ikuskera jakina taupatu zuen kristautasunak, zeinaren arabera baliabide naturalak teknikaren bidez ustiatzeko balorazio moral positiboa ezarri zuen elizak Erdi Aroan (White, 1967; García aipatua; 2021: 373). Hala, mendebaldeko kristautasunean hartu zuen gorputz bereziki teknikaren gaineko balorazio moral horrek, lekua hartu zuena bai katolizismoan zein protestantismoan; ez zuen aldiz eliza ortodoxoan edo ekialdeko erlijioetan mamitzerik lortu, eta hortik mendebaldeak izan duen garapen teknologikorako obsesioa. Kutsu weberiar nabarmena darion azalpen *kulturalista* horrek, gizarte zientzietan balio-sistemen bidez jokabide sozialak azal litezkeeneko premisa egiten du bere, eta horregatik kokatzen du ikuskera erlijioso zehatz horretan krisialdi ekologikoaren jatorria.

Dena den, gizarte modernoaren garapen teknikoak gizakien arazo oro konpontzeko gaitasuna daukala pentsatu izan dute kapitalismo industrialaren hedatze garaitik. Alemaniako erromantizismoan topatu ditzakegu ikuspegi teknozale utopiko horrenganako lehen kritikak (Sanchez Meca, 2013). Nietzschek jainkoa hil dela baieztatu zuenetik, Europan zabaldu zen krisi morala nolabait betetzera letorke teknikaren ilusioa; sakralizazio transmisio bat gauzatu zen, Elizatik teknozientziara; Gizaki moderno ilustratuak fedea teknozientziaren zabalpen eta garapenean jarri zuen nolabait, neurketan, kalkuluan, piezen osagarritasunean. Gizakiarentzat hainbeste miseria ekarri zituzten arazo material oro konponduko ziren horrela. Hor jaurti zioten lehen

⁶ Haien jardunean, karbono emisioak gutxitu eta,aldi berean, hazkunde jasangarria posible egiteko helburua nabarmentzen dute. Ikus <https://gggi.org/>

erromantikoek makina kapitalistaren zabaltze orokortuari kritika nagusia, esanez, interes ekonomikoak, irabaziak, kontsumoa eta efikazia baloratzen zituen gizarte batek funtzio deshumanizatzailea zeukala; norbanakoak makina birarazteko pieza hutstzat tratatzen zituztela. Zentzu horretan zioten, teknozientzia miresteak ez ziola gizakiari salbaziorik ekarriko adar espiritualean, bere autonomia sortzailea, errealizazio gaitasuna edo edertasunaren bilaketa bloketauta geratzen zirelako. Nolabait, gizarte moderno teknikoek ni-aren garapen sakona oztopatzen zuten; bakoitzak lanbide funtzional eta erabilgarri bat burutzearen derrigortasunak giza-askatasuna giltzapetzen zuela zioten.

Jorge Riechmann pentsalari ekosozial kritikoak (2015) *teknolatria* esaten dio mendabeldeko gizarte modernoak teknologiarekiko garatu duten lilurari, nolabait krisi sozioekologikoaren mehatxua arazo tekniko modura aurkezten duena, eta ondorioz, konponbidea ere teknikaren lurraldean bilatu behar genukeela dioena, zalantzan jarri barik egoera horretara bultzatu gaituen sistema sozial eta ekonomikoa. Ikuspegi horren aurrean, Riechmannek mesfidatiak izateko hiru ideia nagusitan egiten du azpimarra: i) Gaurko berrikuntza teknikorako gaitasuna oso lotua dago errentagarritasun irizpidearekin, hots, ez dena etekin iturri potentzial ez da ikertzen. ii) Sineskeria teknikoak bestelako krisiak (soziala, biodibertsitate galerarena, klimatikoa...) lehen planora ez ateratzea dakar, eta ondorioz indarrean dagoen gizarte-sistemaren oinarriak ez dira auzitan jartzen. iii) Gaitasun teknikoa are gehiago hauspotzeak auzi moralak ireki ditzake transhumanismoaren, biogenetikaren edota transgenikoen erabileraren gaineko gaietan. Hortaz, gizarte industrialen botere teknikoa arazoaren parte da, konponbidea bainoago. Aurretik Baumanen ideiekin ikusi bezala, gaitasun teknikoa modu zehatzean egituratua dagoen gizarte-sisteman murgiltzen den neurrian, ezin daiteke esan teknika neutroa denik.

Ez soilik auzi energetikoari erantzuna emateko modu bezala, gizarte eraldaketaren ikuspegitik ere, gizarteak dituen arazo estruktural eta historikoei aurre egiteko konponbidea izan litekeela formulatu izan dute. Mozorov-ek egindako kritika ezagunean (Mozorov, 2015), ikuspuntu horren gabeziak agertzen ditu. Teknologiarenekin erro sozioestrutural sakonak dituzten arazoak konpondu daitezkeela pentsatu izan dela dio. Esaterako, eskala globalean interneta zabalduz gero eta irismen digitalerako tresnak munduko bazter ezberdinetan ahalbidetuz gero, gizartearen arteko harremanak estuagoak, gertutasun handiagokoak eta demokratikoagoak izan zitezkeela teorizatu izan da.

Are gehiago, 2008ko krisialdi ekonomikoaren ostean munduan zehar zabalduriko mugimendu ezberdinei buruz egin diren ikerketek, sare sozialen protagonismoa determinantea izan dela azpimarratu izan dute (Benett-Segerberg, 2013). Adibide argiak dira "Udaberri Arabiarra" Afrika Iparraldean, Espainian Maiatzaren 15eko mugimendua edo Occupy Wall Street mugimendua AEBtan. Ordea, mobilizazio masiboak antolatzeo eta hiritarren haserrea une puntual batean bideratzeko gaitasun azkarra erakutsi bada ere, herrialde horiek bizi dituzten gatazka historiko eta estruktural sakonagoak bere horretan geratu dira. Teknologiarenekin bitartekaritzarekin edo gabe, egiturazko gatazka horiek antzeratsu diraute, beraz, formulatzen ari garen kritikaren arabera, teknozientzia garatu eta sofistikatuak ez du zertan gizarte forma orekatuago edo iraunkoragoetarako lurra goldatu. Kontrara, kontrol mekanismoak sendotzeko erabili daiteke, edo desberdintasun sozialetan are gehiago sakontzeko.

Ordea, Mozorov-ek ohartarazten du internet guztirako konponbide bezala ameste horrek ikuspuntu kritikoez bertan lekuri ez izatea ekarri duela:

“...”internet” ha proporcionado a los solucionistas abundantes argumentos para intensificar su guerra contra la ineficacia, la ambigüedad y el desorden; a la vez que les dio nuevas justificaciones para hacerlo. Pero también les ha suministrado una serie de suposiciones sobre cómo funciona el mundo y cómo debería funcionar, cómo se expresa y cómo debería expresarse; así, muchos temas y debates se reformulan en términos de “internet”. El inter-net-centrismo es a “internet” lo que el cientificismo es a la ciencia: su epistemología rechaza los puntos de vista discrepantes, y toda la historia reciente se ocupa de contarnos cómo el gran espíritu de “internet” se manifiesta ante nosotros” (Mozorov, 2015: 34.)

Aurrerabidearen eta pentsamendu modernizatzailearen ezaugarri nabarmena izan bada ere, bai ardatz ekologikorako zein sozialerako teknologia aterabide moduan planteatzeak, ahultasun analitikoak ditu. Gizarteen egitura soziologikoak eta psikearen konfigurazio antropologikoak alde batera lagatzea esan nahiko lukeelako. Bestela esanda, gizarte zientzien jakintzari uko egitea da *teknolatriaren* ideiak erantsita daraman ezaugarria, eta analisi soziologikorik gabe, krisialdi sozioekologikoa hautemateko eta ulertzeko dauden eskemen ikerketa gabe, nekez aztertu daiteke arazoa bere konplexutasun sozial, politiko eta kulturalen. Izan ere, pentsamendu ekologistan ezaguna den esaldiak dioten moduan, berotze globala eta klima aldaketa itxura atmosferikoa hartzen duen problema sozial eta kulturala da.

Edozein kasutan, aipatu behar dugu Modernizazio Ekologikoaren Teoriatik eta hazkunde jasangarriaren koordinatetatik egiten den proposamenaren baitan kokatu direla Europako Batasunaren erakunde nagusiak, Munduko Bankuaren (2012) eta Nazio Batuen (2011) txostenetatik eratortzen den hazkunde berdearen harian. Kokapen instituzional horrek eragile ekonomikoak ere hor posizionatzera bultzatu ditu, konponbide teknikoari garrantzia handia aitortuz. Kokapen legitimoa bada ere, gure irudiko, nahikoa ebidentzia badago erregai fosilen agortzeak eta klima krisiak hazkundearen, hedatzearen eta aurrerabide teknologikoaren ideian oinarritu den gizarte forma konkretu batekin zerikusia duela esateko. Ondorioz, moderazioa eta zuhurtzia bere egingo dituen paradigma *mugatzaile* bat pentsatzea beharrezkoa deritzogu (Kallis, 2019). Arrazoi hori medio, post-hazkundearen paradigmaren baitan kokatzen gara, eta hark tekno-konponbideari eginiko egiturazko kritika geure egiten dugu.

1.1.2 Garapen jasangarriaren arrastoan.

Ezin dugu aurrera egin tesia hasieratik bukaerara gurutzatzen duen jasangarritasunaren kontzeptuaren gainean argipen batzuk egin barik. Jasangarritasuna moduko kontzeptu zabal bat aztertu nahi badugu, AKE moduko esperientzia sozioenpresarial batean, kontzeptuaren gainean definizio maila altuagoa eskuratzea oinarrizko langintza zaigu. Haatik, jada egina dagoen eta ongi funtsatua dauden lanen errepikapen bat egin nahi ez dugunez, zertzelada labur batzuk soilik dira testura ekarriko ditugunak, ondoren gure posizio zientifikoa zein den zehazteko.

70eko hamarkadan hazkunde etengabeak zekartzen arazoaren problematizazioa egin zenean, ingurugiro politika globalak indarrean jartzeko dinamikan murgildu zen nazioarteko politika. "Garapen jasangarri" kontzeptua Brundtland txostenetik jaio zen, 1984an Nazio Batuen Erakundeari aurkeztutakoa. 1987an Tokion egin zen adierazpenean ezagutu zen publikoki eta Rio de Janeiron 1992an egin zen goi-bileran pasa zen herrialdeen agendaren eta hiztegiaren parte izatera. Txosten horretan darabilten ulerkeran zehazki ondokoa esan gura du: *gaurko beharrak asetzea etorkizuneko belaunaldiak eurenak asetzeko izango dituzten gaitasunak konprometitu gabe*. Bestela esanda, garapen eta hazkuntza ekonomikoa ingurugiroaren zaintza eta mantenuarekin uztargarria dela barnebiltzen du garapen jasangarriaren kontzeptuak (Bárcena et al. 2000).

Ezagun da kontzeptuak izan duen sona politiko-soziala eta agenda politikoetan zein diskurtso publikoetan hartu duen zentraltasuna. Kontzeptuaren arrakasta hazkuntza ekonomikoa ingurugiroaren zaintzarekin bateragarria dela pentsarazten duen ideiarri zor zaio, baita taupatzen duen izaera erreformistari ere. Finean, garapen jasangarriaren bitartez auzi sozioekologikoari ez zaio egiturazko begirada batetik helden, ez du beharrezkotzat jotzen eraldaketa ekonomiko eta kultural sakona. Argudio marko horretan, garapen jasangarriaren txostenean jartzen den helburu nagusietakoa garapen bidean dauden herrialdeen hobekuntza material eta teknologikoa da, justizia soziala hedatzearekin batera. Modu horretan pobrezia tasa altuak dituzten herrialdeak ongizate sistemetara gerturatzeko baldintzak jarriko lirake, hazkuntza ekonomikoa globalaren bidez, baina jabetza eskubideetan eta enpresa askatasunean esku hartu barik. Aipatu dugun gisan, naiozarteko sare insituzional sendoak hegemonizatu du krisi ekologikoari konponbidea emateko ikuspegi hori, barne kontraesanetan arakatu gabe.

Interesgarria zaigu Brundtland txostenean pobrezia jartzen zaion arreta berezia aipatzea, garapen jasangarria bertan ardaztuz, hazkuntza ekonomikoa tresna ezinbestekotzat agertzen baita. Egiten duten operazio intelektuala honakoa da: ezingo da munduko herrialde pobretuenen pobrezia gainditu, hazkuntza ekonomikorik egon ezean. Dena den, hazkuntza horrek materia kontsumo gutxiago izan beharko lukeela onartzen da, bere ondorioak ekitatiboagoak izan beharko lirakeela zehaztearekin batera, ipar-hego arteko harreman geopolitikoetan. Funtsean jaurtitzen den proposamena hazkuntza ekonomikoa materia eta energia kontsumoaren hazkuntzatik deslotzea da. Deslotze hori ezberdina izan daiteke beheko taulan adierazi bezala. Datuek, ordea, lotura estatistikoki adierazgarria adierazten dute BPG-aren hazkuntza tasaren eta materia zein energia kontsumoaren igoeraren artean. Bonnueil eta Fressoz

ikerlariek, ongizate estatuaren loraldia deritzen *hogeita hamar urte zoriontsuak* aztertu dituzte, eta ondorioa garbia da, ongizate hori oinarri energetiko oparo eta merkearen gainean eraiki dela; zehazki, urteroko %4,2ko hazkuntza tasari energia fosilaren kontsumoaren %4,5eko tasa gorakorrak jarraitu dio (C. Bonnueil eta J.B Fressoz, 2013). Alegia, hazkunde berdearen proposamenak oraindik zientifikoki funtsatu gabe jarraitzen du (Haberl et al. 2020), ezin da datu zehatzetan sostengatu BPG-aren hazkunde monetarioa eta ekonomiaren deskarboniazioa aldi berean egingarri direnik. Zehazki, Haberl eta kideek (2020) BPG adierazleen eta emisio zein materia kontsumoaren arteko deslotzearen inguruan dauden ebidentziak aztertu ostean, ondorioztatzen dute gaur gaurkoz dauden ebidentzien gainean ezinezkoa dela emisioen murrizpen azkar eta erabakigarria egitea. Era berean, gehitzen dute deslotze hori nahikotasuna bermatzeko estrategiekin uztartu behar dela, eta baita materia kontsumo absolutua murrizteko helburu zorrotzekin.

Alegia, ikerketa horretan oinarrituz, esan genezake hazkunde berdearen paradigmaren barruan, probabilitate gutxi dagoela beroketa globala 1,5 gradu edo are 2 gradura mugatzeko, karbono emisioak ez baitira modu erabakigarrian murriztuko (Hickel eta Kallis, 2020). Ekonomiaren hazkundeko eredu neoklasikoek ez dute kontuan hartu izan energia primarioaren erabilera eta hazkunde ekonomikoaren arteko harremana, eta funtsezko harremana da krisi ekologikoa azaldu nahi badugu. Hala ere, klima aldaketak eta energia krisiaren gaineko kezkek bultzaturik, geroz eta ikerketa gehiagok egiten dute azpimarra harreman horretan. Geroz eta handiagoa izan ekonomia bat, orduan eta materia eta energia gehiago kontsumitzeko egiturazko joera du, hau da, zailagoa izango zaio ekonomia horri bere hazkundera inpaktu materialetik urruntzea (Jackson, 2019). Parrique eta kideen (2019) lanean zehazten denez, BPG-aren hazkundera politika ekonomikoaren azken helburu gisa mantenduz gero, probableena da klima helburuak betetzeko baldintzarik ez egotea. Izan ere, norabide horretan teknologian eta efizientzian aurrerapausuak lortu arren, kontsumo absolutua areagotzea gerta liteke. Esaterako, ibilgailu energetikoki efizienteagoek eta emisio baxuagokoek, auto pribatuan oinarritutako garraio-sistema indartzen dute, azken emaitza izanik emisioen igoera.

Bada, ikerlari horiek ondorioztatzen dute, politika ekonomikoaren diseinatzaileek auzi ekologikoa haien planteamenduetan barneratzen badute, sahetsezina izango da herrialde aberatsenen ekonomia produkzioaren eta kontsumoaren jaitziera galdegitea. Edo beste modu batera esateko, ikerlan horretan hazkunde berdeari alternatiba zaizkion bideorrietan arreta jarri eta babestea proposatzen da, deslotzearen nahikotasun eza kontrastatu ondotik. Dena den, hazkunde berdearen kritika honetan, zehaztu nahi dugu ez dela zalantzan jartzen deslotzearen beharrezkotasuna eta desiragarritasuna, planteatzen den moduaren egingarritasuna baizik. Izan ere, gizarte ongizate sistemak materia erabilera hazkorretik deslotzea funtsezko zeregina da jasangarritasun ekologikoa lortu nahi duten gizarteentzako.

1 Taula. Ekonomia jardueraren eta isurien deslotzea

| Deslotzea BPG/ CO2 Isuriak | Norabidea | | Azken emaitza |
|----------------------------|--|--|---|
| Deslotze erlatiboa | Bi aldagaiak norabide berean doaz baina erritmo ezberdinean. | -BPGa gora -CO2 isuriak ere gora baina motelago | Ekonomiaren jarduera ez da horren mingarria ekosistementzat baina emisioen kopuru absolutua areagotu egiten da. |
| Deslotze absolutua | Bi aldagaiak kontrako norabidean joatea lortzen da | -BPGa gora -CO2 isuriak behera | Jarduera ekonomikoa indartzen da ingurugiroaren gaineko presioa murriztu bitartean. |

Iturria: Egintza propioa

Brundtland txostenarekin jarraituz, Mario Zubiaga politologoak aipatzen duenez, beharrizanen gaineko indefinizioa nabarmentzen da txostenean, ez baitira beharrizan berak ipar aberatsekoak edo hego subalternokoak: beraz, nork erabakitzen du zein beharrizan eta zein motatakoak diren asetu beharrekoak? (Zubiaga, 2000: 128). Horrez gain, zenbait autorek kritikatu izan du Brundtland txostenean nagusitzen den begiradak fede handia jartzen duela herrialde industrializatuek garatu duten teknologian (Alonso eta Sevilla, 2000). Txostenaren tesien arabera, garapen teknologiko horrek ahalbidetuko luke larrialdi sozioekologikoari aurre egiteko tresna ezberdinak garatzea, zalantzan jarri barik teknologia horien ekoizpena bera dela iraunkortasun gabezia sakontzen duena. Era berean, aberastasunaren birbanaketa justuagoari erreferentzia oso ahulak ageri dira eta ez da definitzen muga ekologikoen barnean ekoizteak zer esan gura duen, zeintzuk diren muga zehatz horiek eta zein langa ezin den igaro.

Bada, muga horien baitan sartzeko geure gizarte eta ekonomia formak, hazkuntza berdearen ezinezkotasuna metodikoki aztertu duten autoreak nabarmendu dira mundu-ikuskeran ekosozialean. Hala, Hèlene Tordjman ekonomialariak (Tordjman, 2021), puntuz puntu, osoko kritika egiten dio garapen jasangarri eta berdearen kontzeptuan oinarritutako ingurumen politikei, funtsean eredu industrialaren mantenua bilatzen dutela argudiatuta, auzitan jarri barik eredu industrial hori bera dela larrialdi ekologikoa ekarri duena. Aipatu dezakegu ere Daniel Tanuro-ren *El imposible capitalismo verde* (2011) lana, non ingeniari belgiarrak ongi funtsatutako kritika egiten baition kapitalismoaren eta bizitzaren mantenuaren arteko bateraezintasunari. Besteen artean, Tanuro-k zehazten du ekoizpena etekinaren zerbitzura egoteak, kapitalen arteko lehiak eta akumulazio beharrak ezinezko bilakatzen duela egungo eredu ekonomikoa irizpide berdeetara lerratzea. Ezaugarri horiek, kapitalismoan balioa-sortzeko dagoen moduarekin batera, oztopatu egingo lukete edozein trantsizio ekologiko arrakastatsu, beharrezko diren azpiegitura eraldaketetan inbertsioak egitea ez baita errentagarri. Ondorioz, finantzek gidatutako akumulazio fase garaikidean, azpiegitura digital erraldoiaren beharrekin eta produktibitatean gehiago sakontzeko bulkadarekin, krisi ekologikoaren garrantzi politikoa azpimarratzea derrigorrezko zaigu.

Ez gatoz bat, hortaz, Brundtlandt txostenetik jaio zen jasangarritasunaren kontzeptuarekin: gure irudiko, puntu itsu ugari lagatzen ditu. Era berean, Garapen Jasangarria ulertzeko hari horri jarraituz, ezin ditugu aipatu barik utzi NBEk 2015ean onartu zituen Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH), 2030 Agendaren baitan (NBE, 2015). Bertan, 17 helburu orokor eta 169 helburu zehatz jasotzen dira, planetaren higadura eten eta klima aldaketaren aurrean ekitera bultzatzen ditu nazioarteko erakunde eta gobernuak. Helburu horien hari eroalea, garapen ekonomiko, sozial eta teknologikoa naturarekin orekan burutzea da, desberdintasun sozialak murriztu eta gosea zein pobreziaekin bukatzeko politikak abiatzearekin batera. Nolabait, GJH-ak marko bateratu bat eskaini nahi diete munduko herrialdeei, erakunde pribatu zein publikoei, iraunkortasunaren aldeko ekinbidea koordinatu **dezaten**.

Dena den, 8. helburuan jasotzen duenez, hazkundera beharrezkoa da gizarte eta ekonomien garapenarentzat, eta beraz, onartzen du posible dela ekonomia globalak hazten jarraitzea, emisioak gutxitzen diren bitartean, 2 graduko berotzera mugatzeko beste abiaduraz (Hickel, 2019). Hala ere, Jason Hickel ekonomialariak zehazten duen bezala, GJH-ak betetzeko egungo aztarna materiala eta haren efizientzia nabarmen hobetu beharko litzateke, zeina 2015ean 87 tonakoa izan zen⁷. Materia efizientzia hori 8. helburuan zehazten den urteko %3ko BPG-aren hazkundera globalarekin gurutzatuz gero, 2030ean 167 tonako kontsumoa izango genuke, jasangarritasun ekologikoaren mugak hiru aldiz gaudituz. Ondorioz, GJH-ak kontraesanean daude elkarren artean, iraunkortasunari dagozkionak (6-12-13-14 eta 15 helburuak) betetzea zailtzen baitu 8.ak. Horrekin ez dugu esan nahi munduko zenbait herrialdetan hazkundera desiragarria ez denik, pobrezia larriari aurre egin eta adierazle sozioekonomiko ezberdinetan aurrerapausu determinanteak emateko; soilik argitu nahi dugu, behin ongizate adierazle batzuetara iritsita (osasunean, bizi-kalitatean, hezkuntzan, elikaduran etab.), Europa Mendebaldearen eta Euskal Herriaren kasuan bezala, BPG-aren urteko %3ko hazkundera ez dela beharrezkoa; are, kontraesankorra da iraunkortasun helburuak bete gura badira.

Horrenbestez, iruditzen zaigu jasangarritasun sozial eta ekologikoaz badihardugu, beste esanahi bat erantsi behar diogula, bateragarria izango dena plantaren muga ekologikoekin. Hortaz, zehaztu nahi dugu, jasangarritasunaz ari garenenan, gizarte sistemak ekologikoki bideragarri izateaz ari garela, denboran eusteko gai izango direnak hain justu. Santiago Muiño antropologo eta ikerlari ekosozialak zehaztu moduan, jasangarritasuna ezinbestez doa giza zentzuari loturik, zentzu antropikoan pentsatzen da:

“El postulado central para pensar la sostenibilidad es la incapacidad humana de absorber y sustituir a la naturaleza: puesto que somos estructuralmente ecodependientes, partes subordinadas del sistema biosfera, tenemos que procurar no deteriorar las condiciones de posibilidad de nuestra propia existencia. Por eso sostenibilidad es un concepto antrópico, con sentido humano. Los ecosistemas nacen, crecen, se desarrollan y mueren a lo largo de la historia natural, sufriendo periódicamente shocks críticos, colapsos ecológicos y grandes extinciones: no son permanentemente sostenibles. La sostenibilidad no podría ser una noción operativa si procurase abolir el despliegue de la vida y sus turbulencias. Su escala es la del ser humano: la

⁷ Garrantzitsua da aipatzea aztarna materialaren adierazleak herrialde batek urtean kontsumitzen duen materia kopuru guztia neurtzen duela, bai bertan ekoiztiriko produktuenak zein inportatutakoenak. Adierazle hori presio ekologikoaren adierazlearen parekotzat jo ezin badaiteke ere, korrelazio altua dago bi adierazleen artean (0,73).

preocupación que ha forjado la idea de sostenibilidad es lograr el mantenimiento en el tiempo de las sociedades humanas.” (Santiago Muiño, 2015: 125).

Argudia liteke ere jasangarritasunaren gainean pentsatzea ariketa absurdua izan daitekeela gizakiaren historiaren ikuspuntutik. Jorge Riechmannek funtsatzen duen moduan, gizarte ezberdinak jaio, hazi, loratu eta desegin dira historian zehar; are gehiago, historian egon diren gizarte gehienek ezagutu dute euren amaiera (Riechmann, 2003). Ez dira, beraz, denboran iraungarri, lege historiko bat betetzen da gizarteak jasangarritasun gabeziara eramaten dituenak. Gizarte moderno erreflexiboaren eginkizuna litzateke, honenbestez, ez-jasangarritasun horren kontzientzia hartzea eta horren aurrean neurri eraginkorrekin ekitea. Jasangarritasunak izaera prozesuala du, ez da zerbait estatikoa, egunero eraberritu behar den praktika eta uste multzoa baizik. Zentzu dialektikoan definitzen badugu, kolapsoaren kontzeptuarekin pentsatzea ezinbesteko ariketa zaigu, jasangarritasun-kolapso arteko kontrakotasunean aurkitu ahalko baitugu gizarte iraunkorren territorioa (Santiago Muino, 2015: 128). Bestela esanda, egunero eraberritu behar den praktika multzo horrek, erabaki okerrak eta haustura metabolikoak zuzentzeko eginkizun dialektikoa dauka, eta beti jokatu beharko da partida eremu ziurgabe horretan. Hortaz, jasangarritasunaren ideia historikoki eta sozialki kokatua dagoela onartzen dugu, eta gizarte bakoitzaren baldintzak izango direla zer den jasangarria eta zer ez determinatuko dutenak, kolapsoaren arriskua eraikitzen den modu sozialaren arabera.

Prozesu hori nolakoa izango den eta zein forma hartuko duen lurralde bakoitzean, horra zientzialari sozialak egin beharreko galdera. Nabarmena da herri bakoitzaren baldintza historiko-sozialen arabera jasangarritasunerako bideak problematika ezberdinak planteatuko dituela, eta konplexutasun soziala kudeatzeko estrategia ezberdinak jarri beharko direla martxan. Osterantzean, zibilizazio modernoaren iraupena laburra izan daiteke begirada historiko luze batean. Santiago Muiñok dokumentatu bezala, zentzu antropologikoan bide laburra egin duten gizarte ugari egon dira historian zehar:

“en el plano antropológico, una amplia gama de sociedades, especialmente sociedades estatales basadas en el ejercicio activo de su dominio, han demostrado un comportamiento análogo: una vida intensa y explosiva, pero breve. Y es que ningún Reich puede durar mil años: toda gloria estatal paga el precio de un derrumbe.” (Santiago Muiño, 2015: 127)

Gizarte garaikidearen eginkizuna da, beraz, jasangarritasun irizpide horiek eraikitzea eta sozialki hegemoniko bilakatzeko ariketa politikoa martxan jartzea, biziraupen senak bultzatuta bada ere. Gizarte modernoan jasangarritasun eza zientifikoki dokumentatua dagoen honetan, badagokigu gaur ditugun baldintzetatik erantzun bideragarria pentsatu eta aplikatzea. Alternatiba jasangarria eraikitzeko, hazkuntzaren eta garapenaren ideia hegemonikotik haraindi pentsatzea ezinbesteko ariketa bilakatu da.

Bide horretan, nabarmena da autore ugari direla garapen jasangarriaren kontzeptuak planteatzen duen ezinezkotasuna salatu dutenak, baliabide mugatuak dituen planeta batean infinituki haztea ezinezkoa deneko argudio aski ezaguna mahai gainean jarrita. Autore ekosozial kritiko horien ustean, pobreziaren ezabapena eta geure gizarte eta ekonomia sistemak dimentsio ekologikora integratzeak desaziko den ekonomia bateruntz joatea esan gura du. Are gehiago, berdintasun sozialaren ideia gauzatzeko formarik onena desaziko den ekonomia argalago batera jauzi egitea da, oreka ekologikoak eta oreka ekonomiko-sozialak lotura estua baitute. Yayo Herrero pentsalari ekofeministak argudiatu bezala:

“Podemos ver de una manera muy clara el vínculo entre sostenibilidad ecológica y sostenibilidad económico-social. La expansión de la economía solidaria, a través de la producción de bienes relacionales, no sólo crea valor económico allí dónde es posible reducir la degradación de la materia/energía, sino que constituye una vía potente para la realización de una economía justa, reequilibrando el proceso de concentración de la riqueza al que estamos asistiendo actualmente (...) En las sociedades enriquecidas hay una demanda específica de calidad de vida. Pero esta demanda no se puede satisfacer a través de la producción de una cantidad mayor de bienes tradicionales. Es más bien una demanda de atención, de cuidados, de conocimientos, de participación. La producción de este tipo de bienes implica una degradación de cantidades muy modestas de materia y energía. Pueden en todo caso representar una parte importante de la futura producción de valor” (Herrero, 2014: 39).

Balio sozialaren eraikuntza mekanismoen inguruko uste sozialak eraldatzean dago, beraz, gako nagusietako bat. Balio monetariotik haratago formulatzen diren balio formak maila berean jartzeko ariketa eskatzen du jasangarritasun sozialaren ideiak, jasangarri izateko ez soilik maila materialean, baita harreman sozial eta komunitarioen mailan eta maila afektiboan ere. Pentsamendu-oinarri horietatik abiatuz garapen forma alternatiboak proposatzen dira koordenada ekosozialetan, jarraian ikusiko dugu zertan datzan.

1.1.3 Garapen forma alternatiboak: desazkundearen eta post-hazkundearen proposamena.

Garapen jasangarriaren azpian taupatzen den arima desarrollistari, beste ikuskera batzuk kontrajartzen zaizkio, trantsizio ekologikoarekin lotura estuan. Horietan esanguratsunetakoa eta ezagunenetakoa desazkundearen proposamena da. André Gorz, Ivan Illich, Jaques Ellul edo Segei Latouche izan daitezke ikuspegi horren ordezkari intelektualak, guztiak ere eremu frankofonetik etorriak. 1972ko erromako klubeko txostenaren harira sortutako eztabaidetan izan zuen jaiotza kontzeptuak. Zehazki, André Gorzi esleitzen zaio berba hori erabili izanaren ardura, Herbert Marcuse eta beste kide batzuekin izandako eztabaidan, Georgescu-Roegenen lana (1971) eta *The Limits to the Growth* txostenari buruz gogoetatzen ari zirela (Parrique, 2019: 172). Dena den, gaur egungo akademian hartu duen oihartzuna eta esangura garaikidea 2000ko hamarkadatik aurrera hartu zuen; Frantziatik *décroissance* kontzeptua hizkuntza latinetan zehar zabaldu zen, bereziki Italian eta Katalunian, baina baita ere Quebecen, Espainian edo Mexikon, batez ere herri mugimendu antiglobalizatzailearen eskutik.

Pentsalari multzo hori batzen duen funtsezko tesia *grosso modo* modernitatea ezaugarritu duen lilura produktibistari guztizko emendakina ezartzea da. Diotenez, hazkundearen ideia erdigunean jartzen duen gizarte eredu produktibistak suntsipenera garamatza. Prozesu geldiezin hori iraultzekotan, argudiatzen dute ekoizpen ekonomikoaren desazkunde ordenatu eta kontrolatuaren aldeko hautua egin behar dela, giza jardueraren eta ingurugiroaren baldintzen artean oreka dinamikoa lortze aldera. Bestela esanda, justizia soziala eta jasangarritasun ekologikoa soilik hazkundearen ideiatik urrunduta lor daitezkeela defendatzen dute (D’alisa et al. 2015). Modu horretan, post-hazkundeko agertoki batera iritsiko ginateke, non ekonomiak forma ziklikoak

hartzen dituen. Hazkundera hazkunde hutsagatik beharrezkoa dela zalantzan jartzen du Latouche-k, eta munduan egoteko eta ekiteko bestelako modu jasangarriagoen bilakuntza ezinbesteko zaigula, bizirauteko baldintza ekologikoak izan nahi badira. Gizarte kapitalistari eginiko kritikan diote, eskasia, baliabide eta beharrezkoen arteko harremanetik eratorritako bada, baliabide gutxi baino, aspirazio gehiegi dituen gizartean bizi garela (Kallis, 2015: 29). Aipatu beharra dugu autore horien guztiengan taupatzen den arima libertarioa nabarmena dela, Kropotkinen printzipio ezagunaren oinarrian eraikitako ikuspegiak baitituzte: "oparotasunean daukaguna hartu, eta eskasian dagoena errazionatu, neurtu". Desazkundera, beraz, pentsamendu korrante politiko, ekonomiko eta soziala da, garapen jasangarriaren ideia alternatiba izan nahi duena eta indarrean dagoen garapen ereduaren zutabeetara doana bere kritikan, haren bideragarritasun eza agerian jarrita.

Pentsamendu libertarioaren eta ikuspegi desaztailearen arteko loturak nabarmenak badira ere, bestelako korrante politiko-sozialetan ere aurkitu dezakegu erreferentziazko autorerik. Esaterako, Wolfgang Harich-ek marxismoaren senetik pentsatu zuen muga biofisikoekin gertatzen ari zen talka, 1972ko Erromako Klubeko txostenaren testuinguruan. Hor koka dezakegu bere *komunismo homeostatikoaren* kontzeptua, arrazionamendu neurriak indarrean jartzea bultzatzen duena, haziko ez litzatekeen eredu ekonomiko komunista baten arkitekturan (Harich, 1978). Pentsalari marxista-ekologikoak proposatzen zuen beste funtsezko argudioetako bat egitura autoritario baten existentzia zen; hau da, baldin eta modernitate produktibistako ekoizpen eta kontsumo egiturak irizpide ekologikoetara lerratu nahi badira, estatu eko-sozialista indartsu baten neurri koerzitiboak ezinbesteko tresna izango dira prozesu horretan.

Desazkunderako bi hurbilpen horiek, modu ezberdinean eta zenbait zentzutan kontrajarrian, justizia soziala eta giza komunitateen jasangarritasuna uztartzeko helburuz egindako proposamenak dira. Gaur, ekintzaile sozialen eta politikoen esparruez gain, mundu akademikoan ere bere lekua egin du desazkunderari buruzko ikerketa-ildoak. Ikerketa-talde propioak sortu dira, *Institute for degrowth Studies* edo *Research & Degrowth* adibidez, aldizkari akademiko eta kongresu propioekin. Esan liteke, beraz, sozialki indarra eta eztabaidaren erdigunea hartzen ari dela.

Bada, bai automugapenaren bidetik, borondatez, gizarteek ekoizpen eta kontsumo material gutxiagorako bidea hartuta, edo bai, Harichen tesiei jarraiki, estatu indartsu batek legearen bidez hala behartuta, erronka da gaurko zibilizazioaren aztarna ekologikoa modu erabakigarrian murriztea. Noski, harreman geopolitikoetan eta gaurko mundu-sistemaren konfigurazioan pentsatuta, argudia liteke bide desaztailea hartu beharko luketen aurrenekoak gizarte ez-jasangarrienak direla, gizarte-elite globalaren kontsumo erraldoia murriztearekin batera. Erronka da, ez soilik gizarteko eliteek, baizik mendebaldeko klase ertainek zein prekarioek ere haien aztarna ekologikoa murriztea.⁸

Zentzu horretan, garapen eredu ekosozialak martxan jartzea da helburu jasangarrietara hurbiltzeko proposatzen den tresnetako bat, zeinaren oinarrietan dagoen muga biofisikoen barruan biztanleria guztia *ongi* bizitzeko baldintzak eraikitzea. Ekonomiaren

⁸ European eta Ipar Amerikan bizi diren herritarrek, aztarna ekologiko altua dute, gizarte fosiletan bizi diren neurrian. Beraz, auzia ez da konpontzen soilik elite globaleri euren eragina eta kontsumo maila murriztea eskatzen, kolektiboagoa eta klase-artekoa da soluzio posiblea. Ondorioz, geure gizartearen metabolismo sozialaren desazkundera orokortua planteatzea beste biderik ez dago ikuspegi ekosozialetik, nahiz eta herraldean eta klase sozialen arabera erritmo eta intentsitate desberdinetan egin.

birtokiratzearekin, komunitate lokalen berrindartzearekin eta materiala ez den aberastasuna hedatzearekin (zaintza, harreman sozialak, sorkuntza artistikoa, kirola etab.) lotzen dute gutxiagorekin *ongi* bizitzea lortzeko bidea. Bestela esanda, *sinpletasunaren bidea* (Trainer, 2017) hartzea eskatzen du, borondatez, norbere jardunari eta jardun kolektiboari kontsumo muga batzuk ipinita. Energia gutxiagoko, kontsumo material murrizteko eta mugikortasun mugatuko mundua da sinpletasunaren bidetik edo desazkundearen proposamenetik irudikatzen dena. Dagoen aberastasun soziala birbanatzearen printzipio sozialista bere egiten dute, behinola Thompsonen *multitudearen ekonomia morala* deitu ziona, hots, ekonomia printzipio moraletara azpiratzea elkarbizitza arrazoitsua posible egiteko. Honenbestez, azpimarratzen dute bizitza onak eta hazkuntza ekonomikoak ez dutela zertan txanpon beraren bi aldeak izan, ekonomiak beste forma bat har lezake, ekonomia estazionarioaren⁹ eran antolatuta adibidez.

Oparotasuna beste modu batera definituz, materialki kopuru gutxiagorekin bizi den gizarte bat emankorra eta aberatsa izan daitekeela defendatzen dute (Latouche, 2012), gizakiari ekonomiko-produktiboak ez diren beste alor batzuk garatzeko aukerak emanez, artean, harremanetan, zaintzan, kulturen, osasungintzan... Beste berba batzuetan, nahikotasunaren neurria bilatzea dela erronka nagusia argudiatzen dute; “honekin nahikoa dut” esaten asmatuko duen gizarte bat, dituen ondasunak partekatuko dituena eta akumulazio kapitalistaren gurpil-zorotik ateratzeko gaitasuna izango duena. Gizartearen printzipio gidaria hazkuntza ekonomiko amaigabea izan ordez, bere mugak ukitzen eta egonkortasun egoera asegarrian mantentzen asmatzen duen gizartearekin amesten dute desazkunde politikoaren sustatzaileek. Auzia ez litzateke, hortaz, pobrezia eta atzerakada ekonomikoko egoera desiratzea, hazkundean oinarritutako gizarte-sistemari osoko emendakina aurkeztea baizik. Parrique ikertzaileak esan bezala, hazkundera gaitasuna bada, desazkundera da sendagaia:

“if Growth is the disease, Degrowth is the cure. Degrowth is a conceptual scalpel to ablate a cancerous Economy from society and nature; it is an ideational divestment in the ideology of growth that sees the expansion of commodities as a measure of progress; it is a societal defibrillator to wake modern societies from their ideational coma and to revive a dormant utopian impulse. Degrowth is more than a solution to the crisis, it is an analytical frame to reconceptualise what is understood to be in crisis – from a crisis of not enough to a crisis of too much. It does not locate the problem within either a sickly biosphere or an impotent democracy, but rather denounces the normal mode of functioning of a specific economic system. (Parrique, 2019: 466)

Nola jarri martxan, ordea, gizarte *gainaberatsak* desaziko dituen norabide bat? Yves-Marie Abraham desazkunderari buruzko Quebec-eko ikertzaile ezagunak hiru oinarritzko printzipiotan laburtzen du hazkunde-gizartetik ateratzeko bidea: gutxiago ekoitzi, gehiago birbanatu, elkarrekin erabaki (Abraham, 2019). Funtsean *bizitza ona*-ren inguruko gogoeta ekartzen dute eztabaidara, bere birformulazio sakona behar dugula iritzita. Aro modernoan bizi patroi kontsumista nagusitu den bezala, dagokigun *kuota* ekologikoa kontsumituta denontzat bizitza asegarriak, zentzuz ondo hornituak eta

⁹ Proposamen garaikideetan adiera ezberdinak hartu baditu ere, aipagarria da John Stuart Mill filosofo eta ekonomialari liberal klasikoak ekonomia estazionarioaz egindako gogoeta. Pentsalariaren iritzian, ekonomia estazionario batek biztanleriaren eta kapitalaren hazkuntzarik eza luke ezaugarri, egonkortasuna bermatuz eta krisi egoerak ekidinez. Hedapen industrialaren aroak hazkuntza luze bati bide emango liokeen bezala, behin muga hori pasata gizateria zein egoeratan geratuko zen kezka zuen teoriko britaniarrak, horregatik aberastasun maila egoki bat bermatuko zuen ekonomia estazionarioa besarkatzearen premia.

askeak posible direla defendatzen dute, eta hor noski pisu erabakiorra du faktore kultural/espiritualak.

Zentzu horretan, ez dugu baztertu behar Thompson historialari sozialak gizarte baten ongizatea neurtzen duten adierazle kuantitatiboei eginiko kritika, modernotasunean gizartearen egoeraren norabidea neurtzeko erabiltzen dena. Besteak beste, bizi-itxaropenaren hazkundera, aberastasunaren gorakada, pobrezia gertatzea edo mugikortasun ahalmen handia eskuratzea izan daitezke datu kuantitiboak eskutan biziera modernoaren arrakasten berri emateko erabili daitezkeen argudioak. Thompsonek, ordea, oharra egiten du bizi-mailaren hobekuntza adierazle gainean, esanez horien atzean gordetzen diren esperientzia subjektiboak kontuan hartu behar direla egiazko bizi-mailaren hobekuntza gertatzen ari ote den frogatzeko. Bere kasuan, Ingalaterrako industrializazioak aberastasun nazionalaren hazkuntza ekarri zuela oinarritu badaiteke ere, langile askoren bizi-esperientziara miseria eta esplotazio bizipen gogorrak ekarri zituela forgozten du, baldintza materialetan oso gutxi aurreratzearekin batera. Horrez gain, lantegietako hilkortasun tasa altuek bizi-itxaropena klase sozialen arabera ezberdin hazten zela zehazten du, beraz, bizi kalitatearen hobekuntza erlatiboaz hitz egin beharko genuke.


Kritika horren begiradatik gaur egungo *bizimodu ona*-ren auziari ere heldu geniezaioke. Barne Produktu Gordinaren hazkuntzaz gain bestelako adierazleak kontuan hartu litezke bizi-estilo modernoaren berri ematerako garaian. Esaterako, kutsadura altuko guneeetan sortzen diren gaixotasun tasa altuak, osasun mentalaren desoreka gero eta nabarmenagoak edo lan istripuen tasa esanguratsuak aipatu genitzake. Era berean, gaurko langileen bizi-esperientzietara gerturatu diren ikerketa kualitatiboetan jartzen badugu arreta, nekea, antsietatea, depresioa, estresa, denbora falta eta etengabeko tentsioa dira lanaren soziologia garaikideak aipatzen dizkigun ezaugarrietako batzuk (Zafra, 2017). Thompsonen espiritua berreskuratuz, beraz, ondo bizitzearen gaineko hausnarketak ohiko adierazleetatik haratago doazen analisi soziologiko zehatzagoak eskatzen ditu, datu estatistiko neurgarriak eta bizipen subjektiboak nahasiko dituen azalpen soziologiko ahalik finenetan.

Gizarte zientzietan jakina da giza premiak asetzeko ekoizpen ekonomikoa bezain garrantzitsu direla giza harremanak (identitatea, zerbaiten parte sentitzea, hezkuntza, aitortza, afektua...). Are, pentsamendu ekologistatik gehituko da ingurugiroarekin dugun harremana ere (ekosistemen emaria) funtsezkoa dela giza ongizaterako. Ordea, ekoizpen ekonomikoen zentraltasunak gainerako biei itzala egiten die, giza harremanei eta harreman ekosistemikoei gain-jarri zaie (Azkarraga eta Altuna, 2012). Garapenaren ideien birformulazioak, beraz, berarekin dakar giza ongizatearen iturrien arteko oreka bilatzea, horietako batek gainerakoak desaktibatu ez ditzan eta hazkuntza materiala ez dadin izan bizi-baldintzen suntsitzaile. Bestela ere esan liteke, hazkunderaren ideologian bizi diren gizarteek ezinbestez emango diote beti lehentasuna eremu ekonomikoari, giza bizitzaren gainontzeko elementuen kaltetan.

Horrez gain, nabarmentzekoa da desazkunderaren proposamenak justizia sozialaren ideiarekin ez ezik ekonomia politiko feministaren ikuspegiarekin duen lotura. Aintzat hartu behar da erreprodukzio sozialaren eremua funtsezkoa dela lan-indarraren erreprodukziorako eta, ondorioz, kapitalaren akumulaziorako. Hala, teoria feministak defendatzen du eremu horretan eraginez gero, indarrean den eredu sozialean arrakala sakonak sortzeko potentzialitatea dagoela (Federici, 2012). Hortaz, ikuspegi

ekofeministaren arabera, lan erreproduktiboaren jabetzea oztopatuz gero kapitalari, ekonomiaren gaineko kontrol demokratikoa berreskuratu eta paradigma hazkundezaletik ateratzeko baldintza sozialak jartzen ariko ginateke.

Kate Raworth ekonomialariak (Raworth, 2017) planetaren mugak eta behar sozialak uztartuko dituen markoa proposatu du *Doughnut Economics* lanean. Bertan, herritar ororen beharrak asetuko dituen ekonomia jarduerak irudikatzen ditu, planetaren mugak gaindituko ez dituen oparotasun forma bat sortuz. Hala, gizarte baten ongizaterako beharrezkoak diren elementuak (ura, elikagaiak, osasungintza, hezkuntza, etxebizitza etab. zirkuluaren barnekaldean ikus litezkeenak), gainditu ezin diren bederlatzi muga planetariorekin gurutzatzen ditu. Bere ereduaren arabera, bi muga horiek kontuan hartuta (planetarioak eta sozialak), tarteko oreka forma bat bilatzea litzateke gakoa, ondorengo irudian ikus litekeen eraztunean alegia. Raworthen planteamenduan, eraztun horren barnean lortuko litzateke gizateriarentzako eremu seguru eta justua, biziberritzen dakien ekonomia forma batean.



1. Irudia: Raworth (2017) lanetik hartua, *Doughnut* ekonomia forma bat adierazten du, askotariko adierazleak uztartuz.

Eredu horretan, behar sozialak asetzeko eta gizartearen garabidea neurtzeko bestelako adierazle batzuk lehenesten dira, monetarioak ez direnak, eta beraz, jasangarritasun ekologikorako bidean gizartearen norabidea eta eginahala neurtzeko paradigma egokia izan liteke. Funtsean, gizartearen helburuak hazkundearen helburutik haratago berridazteko eta garapen jasangarriaren ideia birformulatzeko ariketa da oinarrian dagoena.

Kokapen politiko-sozialago batetik, Carlos Taibok (2009), desazkundearen paradigmarako modernitatea eusten duten zutabeak aldatzeko premia mahaigaineratzen du. Besteak beste, gizateriaren biziraupen ekologikoa bermatuko lukeen garapen eredu alternatibo horrek oinarritzko ezaugarri eta balio batzuk partekatu behar lituzke. Modu laburrean, gizarte jasangarriak lortzeko, ondorengo elementuak nabarmentzen ditu:

i) Automugapena eta borondatezko sinpletasuna. Gutxiagorekin bizitzeko hautu orokorra egingo duen gizartea, ardura hartuz egoera ekologikoaz eta horrek dakartzan ondorioez.

ii) Gehiegizko lanaren ukapena eta aisialdiaren defentsa, lana modu sozialki justuan banatu ahal izateko eta denbora askatzeko.

iii) Jabetza pribatu eta kontsumo mugagabearen aurrean, behar sozialak asetuko dituen oinarri soziokultural bat, norbanako modernoak beharrik izan ez dezan bere identitatea eta izatea kontsumo-praktikan eraikitzeko.

iv) Azpiegitura produktiboen murrizpena, eta baita administrazio zentralaren konplexutasun galera, erabakiak birtokiratzearen mesedetan. André Gorz pentsalariaren ildoan, gizarte zibila indartuz estatuaren eta merkatuaren aurrean.

v) Mugikortasunaren eta garraioaren murrizketa masiboa, garraio bide alternatiboak erabiliz eta giza giharren indarra probestuz (bizikletan, kasu).

vi) Ipar aberatsean klase sozialen arrakala murrizteko, etekinen banaketa justuago bat, langile klasea lanbide prekarioak hartzera behartua egon ez dadin. Oinarritzko errentaren proposamena egiten du.

Dena den, desazkundearen proposamenak kritika sendo ugari jaso ditu eremu ezberdinetatik. Nolabait, kontzeptuaren kritikariek argudiatzen dute, desazkundera desiragarri moduan aurkeztea atzeraldi ekonomikoa desiratzea dela, eta historiak erakusten du atzeraldi ekonomikoa sartzen diren gizarteetan gatazkak eta tentsioak nabarmen areagotzen direla. Kritika horien aurrean, desazkundearen pentsalariak defendatzen dute atzeraldi ekonomikoa tragedia bat dela gaurko ekonomian; ordea, desazkundera beste ekonomia forma bat eraiki gura du, hazkundearen derrigortasunetik kanpo, eta beraz, atzeraldiak eta desazkundera zentzu ezberdina daukate (Kallis, 2015). Alegia, BPG-aren atzeraldia, hazkunde gizarteetan, espero gabekoa eta desegonkortasun sortzaile da. Ordea, desazkundera ondo pentsatutako eta planifikatutako proposamen ekonomikoa den neurrian, ondorioak neurtuak eta kontrolatuak daude, etika birbantzailea aplikatzen baitu (Parrique, 2019). Metafora batekin esateko, ez da gauza bera pertsona batek gaixotasun edo istripu bat izan, organo bat galdu eta ondorioz argaltzea, edo dieta planifikatu, osasuntsu eta kontrolatu

baten bidez gorputz masa murriztea. Horrenbestez, atzeraldi ekonomikoa ekonomiaren kolpe zakar eta kaltegarria den bezala, desazkundera desiratua eta planifikatua da.

Nolanahi den, ager liteke mesfidantza legitimoa ikuspegi kulturaletik. Alegia, ez dirudi oparotasun kapitalista ezagutu duten gizarteek pobretze orokortuaren aldeko hautua egin gura dutenik. II. Mundu gerraz geroztik konfiguratutako mundu-sistemak eta eredu fosilistaren errotzeak, gizarte aberatsei zabaldu zien atea Mendebaldean, aurrez sekula ezagutu gabeko forman. Horra iristeko errezeta hazkundera bilatuz martxan jarritako politika ekonomikoak izan dira, hamarkadetan zehar landua eta gizartearen ikuskera kulturalean ongi barneratua. Testuinguru politiko eta kultural garaikidean, beraz, neurri desaztaileen aldeko adostasun kolektibo zabala lortzeko oztopo nabarmenak daude. Beharbada, Jorge Riechmannek esan bezala, ahalik eta hoberen porrot egiten saiatzea beste aukerarik ez dago. Izan ere, haren ustean arriskutsua dena ez da sistema sozial kapitalistaren amaiera bortitza, arriskutsua merkatuak agindutako logika sozial honetan jarraitzea da.

Taula 2. Ongizatea eraikitzeko proposamen ekonomikoak

| | Pentsamendu korrontekak | Ezaugarri nagusiak |
|---------------------------------|---|---|
| Hazkunde kapitalista | Liberalismoa Adam Smith, Ricardo | -Balio-sorkuntza helburu, joera akumulatiboa -Kapitala lanaren gain -Norbanakoaren eta familiaren gain funtsatutako pentsamenuda -Lan saiatua eta etika aurreztailea -Norbere ahaleginaren bidez eta aditu bilakatzeari esker, egoera ekonomiko armoniatsua sortuko da. |
| Hazkunde birbanatzailea | Keynesianismoa/sozialdemokrazia Kooperatibismo pragmatikoa | -Balio-sorkuntza helburu, joera akumulatiboa -Kapitalaren garrantzia onartu baina baita lanarena ere. -Talde sozialetan eta komunitateetan sustraitzen den pentsamendu forma kolektiboa -Desberdintasun sozialak murrizteko arima birbanatzailea. |
| Hazkunde sozialista estatuzalea | Marxismo-Leninismoa | -Joera akumulatiboa -Botere politikoaren lehentasuna -Hazkundera estatuaren zerbitzura -Egiturazko birbanaketa |
| Desazkundera | Georgescu-Roegen, Latouche, Gorz. | -Gizarte kapitalistari kritika sistemikoa -Kontsumo gizartearen amaiera -Lan abstraktu moderno eta alienazioa auzitan jarri. -BPGaren eta kontsumo adierazleen murrizketa sakona. |
| Post-hazkundera | Naredo, Kallis, Herrero, Riechmann. | -Hazkunde gizartea gainditu -Ekonomia estazionarioa, demokratikoa eta berdinzalea -Natur zikloen arabera gorabeherak ditu ekonomiak |

| | | |
|--|--|---|
| | | -Muga ekologikoen eta muga sozialen barruan |
|--|--|---|

Iturria: Egintza propioa

Zentzu ekosozialean norabidetuko den azpiegitura ekonomiko eta psiko-kulturalaren eraldaketa sakona ezinezko deneko premisa bere ginda, uste du talaia horretatik pentsatu behar dugula gizarteen kolpasoa. Zehazki, erronka ekosozialaren aporia ezaguna ondokoa da: *bizi dugun mendean ekologikoki beharrezko eta teknikoki bideragarri dena, politikoki eta kulturalki ezinezkoa da.* (Riechmann, 2019). Planteamendu horretan, argudia liteke gizartearen kolapsoaren aldeko hautua egitea bera ondoez soziala desiratzea dela, eta justizia sozialaren alde kokatua dagoen pentsalari batek kolapso hori ekiditeko formuletan lan egin beharko zukeela. Horren aurrean Riechmannen tesia da kolapso mota oso ezberdinak egon litezkeela eta edozeren gainetik ekidin behar dena kolapso bortitz eta traumatikoa dela, indarkeria sozialaren igoera eta mesfidantza sozial orokortua lituzkeena ezaugarri. Hortik kolapso arinago baten aldeko apustua, elementurik mingarrienak gainditzeko esperantzan.

Gure irudiko, kolapso sozial azkar bat desiratzea erretorikoki desafiatailea izan arren, pentsamendu sozial eta politiko arduratsu baten talaiatik oso problematikoa da. Hasteko eta behin ezin daitekeelako baieztatu horrek gizarte forma hobeagoei zabalduko dizkiela ateak, gutxienez teorian. Are, desgonkortasun sozial eta politikoa areagotu dezake, eta indarkeria soziala zein mesfidantza kolektiboa hazten diren agertokiak egin ditzake posible. Uste dugu, ikuspegi ekosozial kritikoak bere gain hartu behar duela XIX eta XX. mendeko historia sozial eta politikotik ateratako ikasgaiak eta aterabide landuak, eztabaidatuak eta adostuak proposatu behar dituela zentzu propositibo batean.

Bada, langintza horretarako funtsezkoa deritzogu gizarte zientzietatik egin daitekeen ekarpena. Gure errealitate sozialean modernitate industrialaren kalteak identifikatu eta bestelako dinamika zehatzen proposamenak biderkatzen dabilta, masa utopiak desagertu diren aroan (Buck-Morss, 2004; Castells et al. 2017). Euskal Herriaren kasuan esaterako, aipagarria da elikadura burujabetzaren bidean gertatzen ari diren birbaserriratze prozesuak (Bergara, 2021) edo Ekonomia Sozial Eraldatzailearen (ESE) baitan sortzen dabilzan ekimenak, ekintzailtza kooperatiboaren markoan (Begiristain et al. 2021). Iruditzen zaigu, ekimen horien inguruko ikerketak biderkatzea eta eremu horretako jakintza zabaltzea ekarpen aberatsa litzatekeela, trantsizio ekologikoa modu demokratikoan pentsatzeko. Jarraian sakonduko dugu gehiago hari horretan.

1.1.3 Ekonomia soziala, bestelako aterabide demokratikoak ehuntzen. Demokrazia ekonomikoa eta kooperatibismoa auzi sozio-ekologikoan.

Boaventura Sousa Santos soziologoak dio, sozialismo sobietarra erori eta planifikazio zentratean oinarritutako eredu ekonomikoek porrot egin ondoren, kapitalismoari alternatiba bideragarri bat eraikitzeke lekuko historikoa ekonomia sozialak hartu zuela (Santos eta Rodriguez, 2011). Ideia horretan diote, krisi ekologikoaren aroan, edozein proiektu emantzipatzailek bere praktikaren erdigunean jarri behar duela ekonomia soziala. Eguneroko praktikarekin, merkatu irizpideetatik haratago jardungo duten esperientziak gauzatzeak gizarte alternatiba bat eskaintzen duen neurrian, sare alternatibo hori zaindu eta elikatu behar diren premia aldarrikatzen dute. Izan ere, aterabide ekosozialak pentsatzerako orduan, funtsezko eremua da lanarena. Geure gizartearen konfigurazioan, ordea, lanpostuen sorkuntzak eta produktibitatearen areagotzeak hondamendi ekologikoan sakontzea dute ondorio. Horrenbestez, egin genezake galdera zentrala, nola eta nondik pentsatu dezakegu alternatiba ekosozial bideragarria, lanaren eta ekonomiaren eremuan?

Azpiatal honetan, erantzuna ekonomia sozialaren eta kooperatibismoaren lurraldean zentratzeko ariketa egingo dugu. Gure irudiko, ekonomiaren eta lanaren antolakuntza molde horiek baitira aterabidetik gertuen kokatu daitezkeenak. Bada, Sousa Santos eta Rodriguez soziologoaren arabera, ekonomia soziala egiazko alternatiba modura aurkezteko, gaitasun beharrezko lehen harresia bideragarritasun ekonomikoa da. Izaera emantzipatzailea eta bideragarritasun ekonomikoa uztartzen asmatzea litzateke formula, betiere, hazkunde helburuak bazterrean utzirik. Lan jardunaldiaren murrizpena eta dagoen lanaren banaketa estrategiak martxan jartzea eskatzen badu ekonomia ekologiko batek, pentsa liteke kooperatibak direla formularik egokiena zeregin horiek martxan jartzeko, interes kolektiboak interes ekologikoekin lotzen dituen formula litzatekeelako, teorian.

Arrasateko Kooperatibetara begiratuz gero, esan dezakegu, lehen unetik zeharkatu duen kezka izan dela bideragarritasun ekonomikoa bestelako eredu sozioenpresarial batekin uztartzea, txanpon beraren bi aldeak zirela garbi izanik. Krisialdi sozioekologikoak, ordea, hirugarren hanka bat txertatzen du galderan, gaur galdera ez baita soilik nola egin ekonomikoki bideragarri nortasun sozial eta demokratiko sendoko enpresa bat, baizik eta nola egin bideragarri materia urriko eta erregai fosilik gabeko agertoki argalduan.

Azkarraga eta Altuna kooperatibismoaren aztertzaileek esan bezala, Arrasateko Kooperatibismoa modernitate industrialari eta bere gatazka distributiboari nola-halako erantzun demokratiko bat ematea lortzen hasi denean, galdera aldatu diote (Azkarraga eta Altuna, 2013). Gaur, hazkuntzaren mugek eta metabolismo sozialaren ezinbesteko moteltzeak galdera eta erronka berriak planteatzen dizkio euskal kooperatibismoari, ezinbestez. Orain arteko kooperatibismoak pentsatu behar izan ez duen beste ardatz bat sartu da jokoan, egituraren, helburu ekonomikoaren eta izaeraren beraren sakoneko birplanteamendua eskatzen duena. Sistema soziala sistema biosferikoaren barruan ulertzeak ehun eta laurogei graduko bira kognitiboa ematea eskatzen du. Hala diote Azkarraga eta Altunak:

“El pensamiento cooperativista clásico inserta la economía en el sistema social (inserta la racionalidad económica en un marco axiológico más amplio y supedita el proceso económico a la consecución de fines sociales), pero no inserta necesariamente al sistema social en la biosfera. En el proceso de reproducción material de la vida humana, el modelo cooperativo en teoría no provoca la explotación y subordinación del trabajo con respecto a la forma inerte del capital (la práctica siempre es más compleja); sin embargo, la naturaleza sigue constituyendo un conjunto de recursos explotables y manipulables al gusto humano. Desde su característico humanismo antropocéntrico, el cooperativismo clásico no provoca una ruptura epistemológica con las teorías económicas que gobiernan el proyecto moderno, pues en sí mismo es parte de dicho proyecto. Es decir, la visión cooperativa tradicional también coloca la economía en un mundo ideal donde los recursos naturales son ilimitados y los servicios ambientales nunca se degradan.” (Azkarraga eta Altuna, 2013: 36)

Pentsa liteke, Sempere eta Garcia soziologoek ildoan, kooperatibismoak dituen printzipioei esker trantsizio sozio-ekologikoaren erronkari heltzeko oinarri estruktural egokiagoak dituela (Sempere eta Garcia, 2014). Kooperatibagintzan lehentasun nagusia lanpostuen sorrera eta horien mantenua izanik, bazkide-langileei iraunkorki mantentzea ahalbidetuko dien egitura sozioproduktiboa da intereseko zaiena. Aipatu liteke ere truke-balioaren gailentzea baino, ekonomia sozialean behar sozial eta komunitarioak asetzeko duela lehentasuna, eta ez balio-sorkuntza fiktizioak, espekulazio ariketen eta inbertsio arriskutsuen bidez. Alde horretatik, kooperatibismoak hazkunderik gabeko giro ekonomikora egokitzeko ez luke arazo larriegirik izango, teorian, baldin eta lanpostuak mantentzeko beste batego. Hala, Imaz eta Eizagirreren (2020) ikerketaren arabera, Ekonomia Sozial eta Solidarioan kokatuta dauden kooperatibak 2030 Agendaren markoan kokatuta dauden GJH-ak betetzeko posizio hobea lukete, ohiko enpresa moldeekin alderatuta. Izan ere, eragile ekonomikoak, talde sozialak eta antolakunde demokratikoak dira aldi berean, gertuko lurraldearekin eta komunitatearekin harremanean daudenak.

Ikuspegi marxistatik argudiatzen da, desazkunde prozesuak martxan ipintzeko ezinbestekoa dela ekoizpen prozesuaren gaineko bazkide-langileen kontrola. Modu horretan, irabazi burgesaren interesa desaktibatuta, beste enpresa eta produkzio forma batzuk aktibatu daitezkeela. Ikuspegi horretan esan dezakegu, enpresaren jabetza kolektiboa edukitzea edo ez edukitzea, beraz, desazkundera moduko prozesu arantzatsu bati ekiterako orduan kontuan hartu behar genukeen elementu zentraletakoa dela.

Ildo beretik, kooperatibaren nortasuna gehiago dago eremu defentsibora bideratuta merkatu lehiakor kapitalistetan, ofentsibora baino (Sempere eta Garcia, 2014: 43). Ideia horrek aditzera ematen du kooperatibetan zabalpen-estrategia batek erresistentziak izan ohi dituela; kooperatiba barnean, gehiago nagusitzen dira segurtasuna, egonkortasuna eta jarrera kontserbadorea. Horrez gain, lurraldean errotutako esperientziak izaki, bertako herrieekin lotura sakonak daukate, bazkide-langileak ere herritarrak diren neurrian. Baldintza horrek, lurraldeak dituen egiturazko arazoek aurrean konponbide jasangarriago, berritzaileago eta kooperatiboagoak abiarazteko moduan jartzen ditu, beste edozein enpresa multinazionalen egingo ez lukeen moduan behintzat.

Ez dago garbi, ordea, trantsizio ekosozialak eskatzen duen desazkunde fasean kooperatibek jokatu duten papera zein izango den, ez eta gizarteak nola erantzun dion eremu materialaren argaltze behartuari. Ekoizpen kooperatiba esperientzien biderkatzea posible egin zen bezala garapen industrial hedakorraren aro historikoan, galdera da ea ekonomia globalaren eta gizarte fosilisten uzkuak aroan zein kokapen izango duen kooperatibak, estrategia orokortua izango ote den eremu ekonomikoan edo gehiago nagusituko diren enpresa hierarkizatuak, ohiko merkatu jokabideekin. Pentsa

liteke, ekonomia kolpatu batean herritarrek ekimen propioz abiaraziko dituzten enpresamoldeak kooperatiba formakoak izan daitezkeela, lurraldean aberastasuna sortu eta banatzeko mekanismo onentsuena dela ulertuta.

Zein ekonomia molde gailenduko den, ordea, garaiko indar politiko-sozialen arteko borroka dialektikoaren bidez ebatziko da, orain aipatuko ez ditugun askotariko faktoreek determinatuta. Emanuele Leonardi soziologoak ohartarazten du zailtasun handiak daudela energia kopuru erraldoiak behar dituzten industriren baitan erabaki-sistema demokratikoak errotzeko: “Il gigantismo energetico- come quello industriale – mal si presta al controllo democratico e tende a richiedere una gestione tecnocratica” (Leonardi, 2017: 178). Kooperatibismo industrialak ere lege hori bera luke soziologoaren iritzian, gobernantza era teknokratikoetarantz hurbiltzekoa.

Kooperatibismoa auzi sozio-ekologikoan kokatzeko ariketarekin jarraituz, ezin dugu ekuaziotik atera langile klase industrialak eta borroka ekologistak XX. mendean elkarren artean izan zituzten gatazka eta ezinikusiak. Bai ezker marxistak bultzaturiko garapen produktibistatik¹⁰, keynesianismoak sustatutako hazkuntzatik edota posizio liberal-burgesetatik babestutako merkatu asketik ekoizpena ingurugiroaren zaintzarekin uztartzea bigarren mailako auzia zen, lehenik klase auziari, pobreziaren desagerpenari edo kapitalisten kasuan etekinari begiratzea lehenetsita. Langile mugimenduaren eta bere erakundeen ikuspegitik, eskasiarekin eta pobreziarekin bukatzeko modua gehiagora joatea zen, aberastasunaren banaketa oinarri zabalago baten gainean egiterakoan langile eta herri klaseentzat zati handiagoa izango baitzen, ongizate eredu keynestarraren ildoan.

Testuinguru horretan, 70eko hamarkadan sindikatuek eta langile mugimenduaren sektore batzuek errezelo handiz begiratu zioten ekologismoaren indartzeari, burgesiak botere sozial geroz eta gehiago biltzen ari zen langile klasea ahultzeko erabilitako elementu politikoa zela salatuz (Riechmann eta Buey, 1998). Arrasateko Kooperatibak lur historiko-sozial horretan sustraiak izanik eta industriaren kokapen estrategikoa kontuan hartuta, XX. mendea ezkerretik eskuineraino zipriztindu duen garapenzaletasuna ezaugarri izan ditu, garaiko taupadaren erritmoan. Bada, langile klasearen eta kooperatibismoaren identitatearen parte izan bada ekologismoarekiko nolabaiteko mesfidantza, korapilo kontraesankor batzuk sortzen dizkigu horrek, desazkunde koordinatu eta adostasun zabalekoari ekiterako orduan gaintu beharrekoa. Norabide horretan bultza egiteko galdera litzateke ea posible den jasangarritasunaren gaineko kezka kooperatibismoaren identitate elementu bilakatzea, edo kontrara, oraindik mesfidantza elementuen hariak mantentzen diren identitatearen eraberritze hori blokeatzen dutenak.

Ez da baztertu behar ere kooperatibisten jarrera edo borondatek haratago faktore determinanteak daudela desazkundean ardaztutako norabide kolektibo bati heltzeko. Besteak beste, desazkunde sozialki justuaren aldeko prozesu sozial eta politiko zabala sortzea (borondate hegemonikoarekin) edo botere politiko eta ekonomikoek hartuko

¹⁰ Zientzialari sozialen artean eztabaida dago Marx-en lanean bertan elementu ekologistak ba ote dauden edo ez. John Bellamy Foster pentsalari ekonomiko-ekologiko marxistak bere ikerlan entzutetsuena hain justu Marx-en pentsamenduan naturari buruzko ikuspegia ez-produktibista zeneko tesia sostengatzeko eraiki zuen, ingurugiro soziologia bat eraikitzeko funtsak hor daudela interpretatuz. Era horretan auzitan jartzen du Marxismoari atxiki izan zaion bulkada produktibista eta ingurugiroaren degradazioan duen ardura (Bellamy Foster, 1999).

duten posizioa. Irudipena dugu, Euskal Herrian egituratu den esperientzia kooperatiboa, estaturik gabeko nazio baten parte izaki eta ondorioz, babes-harresi funtzioak bete ditzakeen estatu-egiturarik gabe, nazioarteko ekonomia fluxuen menpekoagoa dela. Beste era batera esanda, kokapen periferikoak ekintza-tartea murrizten dio.

Alabaina, ekintza-tarte hori zabaldu asmoz, badaude kooperatibagintza tradizionalaren ikuspegia gainditu gura duten proposamenak, kooperatibagintzaren fase berri bati bideak ireki nahian dabiltzanak. Garapen ereduaren sakoneko berrikuspenera eginez bestelako antolakuntza ekonomiko-soziala ehundu gura duten eragile sozialek kooperatibagintza berritua proposatu dute. Nolabait, ekonomia sozial klasikoak laga dituen puntu itsu batzuk euren praktikan integratuta, auzi ekologikoa kasu. Hala, mugimendu altermundialistaren eta Munduko Foro Sozialaren arnasean, ekonomia solidarioaren edota ekonomia eraldatzailearen kontzeptuek praktika ekonomiko-sozial ugari zeharkatu dituzte (Laville, 2010), baita Euskal Herrian ere.

Mugimendu ekonomiko-politiko hori defendatzen duten autoreek, XIX eta XX. mendea zeharkatu duen ekonomia sozialaren oinordekotzat jotzen dute eremu *alternatibo* berria, pertsonen oinarri materialak asetzea helburu lukeena, irizpide eta logika demokratiko, ekologiko, ekitatibo eta elkartasunezkoekin. Jean-Louis Laville soziologo ekonomikoa da korrante hau defendatu duen autore esanguratsuenetakoa. Bere arabera, eskola polanyiarra jarraiki, ekonomia solidarioko ekimen horiek eremu ekonomikoa kontrol sozial ez-kapitalistaren bidez instituzionalizatzea du helburu. Birbanaketaren eta parekotasunaren printzipio ekonomikoetan sustraituta, jabetza eredu berriak artikulatzen dira logika berdinzaleago eta demokratikoagoak posible eginez. Horrez gain, elkarrekotasun printzipioa gailen dadin bilatzen dute, soziologo frantsesaren hitzetan, horrek ekarriko baitu lotura sozialaren sendotzea eta talde sentipena nagusitzea praktika sozioekonomikoan: *le lien precede le bien*.

Lavillek zerrendaturiko ezaugarriak erronka sozio-ekologikoaren testuinguruan kokatuz, forma kooperatibo berri horiek irizpide jasangarriak lehenesten dituzte, prozesu ekonomikoaren ziklo osoa kontuan hartuz, kate guztian zehar izan dadin ingurugiroarekin eta bizitzarekin jasangarri. Bestela esanda, ekonomia solidarioaren bueltan egituratzen den kooperatibagintzak, demokrazia zuzenaren premisak eta oinarrietatik hartzen diren erabaki kolektibo herritarrak ditu bere nortasunaren bi ezaugarri nagusiak. Ildo berean, jardun ekonomikoa kokatzen den marko politiko eta sozialaren begirada zabaltzen du, eta gizarte prozesuen baitan kokatzen ditu kooperatibak edo bestelako eragile ekonomikoak (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2014). Pentsatu liteke, beraz, krisi ekosozialaren marko historikoan kokatzeko heldulekuak bilatu dituztela.

Kooperatibagintza berritzailetzat jo dute autore batzuek, eta beste zenbaitek berdintasunaren eta anaitasunaren ideia errepublikarrak hartzen duen itxura garaikidea dela diote. Edozelan ere, bizitza soziala eta indibiduala merkatu logiketatik kanpoko mundu ikuskerekin interpretatzen dute. Enpresa forman osatuta egonagatik, ez dute euren burua ohiko enpresa kapitalistatzat jotzen; aitzitik, darabilten estrategia enpresariala jasangarritasun ekonomiko, ekologiko eta soziala lortzeko tresna litzateke, eta ez helburu bere horretan. Gainera, ehuntze kooperatibo berri horretan ernaltzen ari diren esperientzia askok krisi sozio-ekologikoarekin zerikusi zuzena daukate, esaterako, energiaren eremuan osatu diren kutsu eraldatzaileko kooperatibak Euskal Herrian edo Herrialde Katalanetan (Goiener edo Som Energia kooperatibak dira adibide).

Dobson autoreak (2010) uste du zibilizazio krisian zuzenean esku-hartzen duten kooperatiba eta ekimen sozioekonomikoen bidez *herritartasun ekologiko* bat eratzen ariko litzatekeela, zerikusi zuzena duena ondoren landuko dugun trantsizio ekosozialaren auzi psikokulturalarekin. Parra-ren (2013) arabera, Ekonomia Sozial eta Solidarioan mekanismoak garatzen dira erregimen soziometabolikoa mantsotzeko, justua izan dadin oraindik jaiotzeke dauden belaunaldiekin eta haiek euren beharrak asetzeko izango dituzten ondasun materialekin. Era berean, planetaren muga biofisikoekiko kontzientzia-hartze prozesu sendoa bizi da eremu eraldatzaile horretan, eta horrek auzi ekologikoarekin arduraz jokatzeko bideak zabaltzen ditu, gutxienez ekonomia sozial klasikoan gertatzen ez den modu batean. Gure irudiko, kooperatiba forma berri eta eraldatzaile horiek, krisi ekologikoa ardatzera ekartzeko ariketa modu integralean garatzen ari dira, eta ez bigarren mailako auzi bezala.

Erakunde eta autore ezberdinek leku horretan jartzen dute ekonomia sozial eraldatzaileak dakarren indarguneetako bat, gizarte jasangarrietarako trantsizioa nola egin beharko litzatekeen eztabaida mahaiganieratzen duela. Jada gaur praktikan jartzen ari dira trantsizio ekosoziala. Erakundetze forma berriak eta muga ekologikoak errespetatzea posible egingo duen erabaki kolektiboari ateak zabaltzen dizkiote, eta hor dago gizarte jasangarriak loratzeko lur ongarrirua: eragile sozial, kultural, politiko eta ekonomiko oro interpelatuko litzuzkeen eztabaida handi eta zintzo baten garapenean.

Hori esanik, komeni zaigu arreta jartzea ekimen horien guztien dimentsio soziopolitikoan. Hanka ekonomikoari bezainbesteko garrantzia aitortzen baitiote eremu politikoari, enpresa barneko antolamendua ez ezik, inguruarekin ezartzen duen harremana zorrotz aztertzen baita. Hain justu, hortxe legoke kooperatibagintza tradizionalarekin emandako ezberdintasun puntu nagusia (De la Fuente Cosgaya, 2020). Politikoki ekiteak eta eraldaketarako borondatea modu esplizituan agertzeak izaera berri bat ematen die biderkatzen ari diren esperientzia ekonomiko-politiko horiei, eta herri zein auzoetako herri mugimenduen sareekin, gizarte zibileko eragile ezberdinekin eta gizarteak behetik josten dituen ehundura ekintzailearekin zuzenean lotzen ditu. Are gehiago, herri mugimenduak eta haiei loturiko kapital sozial eta kulturala dira kutsu eraldatzaile horretako esperientzien loratzea posible egiten duten bi baldintzatzaile. Euskal Heriaren kasuan Olatukoop moduko ekimena litzateke horren erakusgarri, borondate hegemonikoa duen proposamen politiko bat artikulatzen saiatzen ari dena, bestelako kooperatibagintza itxuraberritu bat martxan ipinita, irizpide ekologiko eta sozialekin orekan (Fuente Cosgaya, 2020: 173.).

Nolabaiteko abangoardia izaera dutela esan liteke, izaera politikoago eta ideologizatuagoarekin. Kooperatiba guztiek euren ikuskera partekatu ez arren, sektore guztira taupatu dezakete euren begirada eta moduren batean ekonomia sozialaren erreferentzia markoa disputatzen ari dira. Kooperatibagintzaren senean jaiotzen ari den mugimendu horrek ere eragina du Arrasateko Kooperatibagintza trantsizio ekosozialaren paradigmaren kokatzerako orduan, izan ere, maila kuantitatiboan eta ekonomikoan pisu handia ez izan arren, kooperatibagintzaren marko ideologikoa definitzerako orduan eragina daukate. Era horretan, jada egituratuak eta errotuak dauden kooperatibak mugitzera bultzatzen ditu. Auzi ekosozialean pixkanaka urratsak eman eta erabakiak hartzeko akuilu modura interpretatu liteke, beraz, kooperatibagintza berriua.

Arrasateko kooperatibek, haien praktika ekonomiko eta sozialean auzi ekologikoa integratzeko ariketak, teoria ekonomiko berri baten eraikuntza ere badakar, hortaz. AKE ezaugarritu duen ideologia humanista antropozentrikoa gainditu, eta ekonomia ekologikoak teorizatu dituen zenbait ezaugarri barneratuta. Proiektu modernoak eraiki duten kontakizun produktibista eta garapenzale nagusietatik aldendu eta mundu ikuskera ekosozial kooperatiboak ardatzera ekartzea litzateke egiteke dagoen ibilbidea.

1.2 Ikerketa soziometabolikoak. Gizarte sistemak eta sistema biofisikoak harilkatuz.

“Ni naiz, historik gabe gelditzen
ari den, adaxka lehorra” **Xabier Lete**

1.2.1 Ekologia-mundu amarauna

Sozio-ekologiaren begiradatik abiatuko den ikerketa eraiki ahal izateko, zein begirada epistemologikoren gainean funtsatuko garen zehazteko ariketa egitera pasako gara jarraian. Ikerketa hau hasieratik bukaeraraino gurutzatuko duen begirada analitikoa zein zimendutik eraikiko dugun ongi argitzea beharrezko eginkizun intelektuala zaigu, oinarri hori izango baita ondoren eraikiko dugun eraikinaren koherentzia eta oreka intelektuala egonkor mantentzeko lanak egin beharko dituen.

Mead etnometodologiaren sortzaileak zioen, bere elkarrekintza sinbolikoaren teorian, “gauza fisikoak, ekintza sozialean txertaturik dauden objektuak dira, guk euren rola hartu dezakegu baina haiek gurea ez” (Mead, 1972: 22). Elementu ez-gizatiarrak analisi soziologikora ekartzen aitzindarietako izan zen, eta soziologia garaikideak naturaren eta teknikaren inguruan egiten dituen analisisiek lotura estua dute Mead-ek eginiko azterketa-planteamenduekin.

Mead-ek egin zuen ekarpenak dio organismo kontzientziadun oro, zuzenean eta sakonki murgildua dagoela elkarrekintza prozesu konplexuetan, bai elementu gizatiarrekin zein ez-gizatiarrekin. Giza esperientzia objektuei esker da posible, errealitate sozialaren etorrian ezinbesteko rola dauka materialtasunak, are gehiago, muga biofisikoak gordinki agertzen ari diren aroan.

Begirada sozioekologikoak, beraz, asko du materialtasunetik. Natura-gizartea arteko harremana gizarte zientzia modernoak modu dikotomiko kartesiarrean aztertu izan du. Nolabait XX. mendeko gizarte zientzietan nagusitu den paradigman (batez ere II. Mundu gerraren ondotik eta arrazismo zientifikoak eragindako arriskuagatik) autonomia handia aitortu izan zaio eremu sozialari, naturak ezarritako mugei entzungor eginda. González Molina eta Toledok (2011) metabolismo sozialaren kontzeptua fintzen dutenean gehitzen dute ikuskera soziokultural hori ez zela soilik arrazismo zientifikoa garaitzetik etorri, energia fosil merke eta itzulera-tasa altukoa edukitzeak gizarteei materiarekiko autonomia maila altua zuteneko uste fiktizioa ekarri zuela. Sostengatzen dute, *fikzio antropozentrikoko* aro bati eman zitzaiola bide, mozkorraldi energetiko betean, gizakiaren amets prometeikoak eta naturaren menderatzea bete zitezkeela iritzita. *Fikzio antropozentriko* horrek gizakia bera jainkotiarzteaz luke ezaugarri, naturaren indarrak kontrolatu eta azpiratuz. Modernitatea hasieratik ezaugarritu du natura gizarte eta ekonomia sistemen zerbitzura dagoeneko usteak, nolabait gizakia naturara eta lurrera lotzen zuten lokarriak ahuldu zirelako, eta bizimodu urbanoaren zabaltzeak natur ziklo eta erritmoekiko ezezagutza eta autonomia ustea garatu zuelako.

Bistan da, ordea, naturaren eta ekologiaren gaia indarrez agertu zaigula osterera ere. Bizi dugun dimentsio anitzeko krisialdi sozioekologikoak natura eta gizartearen arteko harremana sakontasun eta fintasun handiagoz pentsatzera behartzen gaitu.

Ekosistemen eta sistema sozialen uztarketa berriak irudikatu eta praktikara ekartzea beharrezko zaigu (Riechman, 2014) eta hori ezinbestez pasako da aro fosilistak ahalbidetu duen *fikzio antropozentrikoa* auzitan jartzetik.

Gizarte dinamikak eta prozesuak azaltzeko zein faktore lehenetsi behar ote deneko eztabaidak ibilbide luzea du soziologian eta gizarte zientzietan. Modu sinplean planteatzeko, ea dinamika sozialak autonomia propioa baduen, bere horretan aztertu edo azaldua izateko, edo ea faktore materialen menpeko ondorioztat jo litekeen. Hori eztabaidatu izan da XIX. mende eta XX. hasierako gizarte zientzietan. Eztabaida horri gehitu behar genioke marko filosofiko zabalagoen baitan emaniko eztabaidak direla, idealismoaren eta materialismoaren arteko polemikan kasu. Ez dugu auzi horretan sakontzerik, baina bai dagokigu gizarte zientzietan nagusitu ziren bi ikuspuntuaren ezaugarriak aipatzea.

Bi eskola soziologiko nagusi nabarmentzen dira: alde batetik, paradigma *naturalista* dago, soziala soziologikoak ez diren elementuen nahasketa dela defendatzen duena. Autore horien arabera, errealitate naturalak lehenetsia du eremu soziokulturalaren aurretik, eta bigarrena lehenak emandako baldintzetara egokitzen da. Paradigma horren eboluzioak Alemania nazian arrazismo zientifikoaren garapena ahalbidetu zuen, naturak eragindako bereizketa soziokulturalak onartu eta arraza bat besteari gailentzea *berez* emanik zatorrela irizita. Korrontearen beste aldean, paradigma kulturalistagoa izendatu dezakeguna dago. Ikuskerara horren arabera, gertakari sozialak soilik logika soziologikoetara eta berak abiarazitako dinamiketara begiratuta dira azalgarri. Eremu sozialak eta gizarte bizitzak autonomia ontologikoa dute, eta bereizgarri nabarmenak ditu gertakari naturalekiko, bestelako begirada eta kontzeptu-sortak garatzea ezinbesteko zeregin bilakatzen duena. Soziologiaren aita-tzat jotzen diren Durkheim eta Weber bigarren korrante honen defendatzaileak izan ziren; haien artean lege soziologikoak kualitatiboki ezberdinak eta propioak zirela eztabaidaezina zen, eta zientzia oso bat eraiki nahi izan zuten horren gainean, *sozialaren*-logika

Arrazismo kulturalaren porrot militarrek arrazismo zientifikoaren desagertarpenari bide eman zion, eta hortaz, aurrez aipaturiko autonomia soziologikoak bidea libre izan zuen akademia zirkuluetan eta zientzia sozialetan begirada legitimo posible bakar modura gailentzeko. Ordea, krisialdi sozioekologikoak autonomia sozialaren azalpena berrikustea eta birpentsatzea eskatzen du, bai sistema sozialak eta energetiko-naturalak elkarmenpekoak direlako eta baita trantsizio sistemikoa pentsatzeko zientzia sozial finduagoa behar dugulako, ezinbestez baitaratuko duena muga ekologikoen auzia bere azalpenetan. Jakin baitakigu giza jardunak natur baliabideak modu batera edo bestera bideratu ditzakeela, forma eta erabilera ezberdinak eman diezazkiokeela. Baina, erabilera horiek areagotu ahala jartzen dituen mugak geroz eta sendoagoak dira eta modu argiagotan erakusten du bere izaera mugatua. *Muga*-ren ideiatik pentsatzeko behar eta ardura historikoa dauka, hortaz, gaurko baldintzetan egin gura den gizarte zientzia zintzo eta erabilgarriak.

Eztabaida horretan hartuko dugun kokapena gizarte zientzia *kontinuista* (Santiago Muino, 2015: 108) deiturikoen baitan dago. Natura eta gizartea elkarri lotuak dauden eta elkarren arteko uztarketa ezberdinen bidez eraldatzen direla ulertuta, mugimendu eta kontingentzia etengabea. Análisi soziologikoan bazterrean utzi ezin daitekeen aldagaia da materialtasunarena eta horren determinazioa. Elementu gizatiarrak eta ez-gizatiarrak ikerlariaren lupapera ekartzean dago, hortaz, funtsetako bat, materiari *ekiteko*

gaitasuna aitortuz (Latour, 2017) eta sistema soziala berak ezarritako baldintzen arabera deskribatuz. Ezingo dugu sistema sozialaren guztizko autonomiaz hitz egin hortaz, baina era berean soziobiologiatik edo ikuskera *deterministetatik* urruntzea beharrezkoa zaigu. Defendatzen dugun paradigmatik soziologia egiteak giza portaeraren askotariko determinazioak kontuan hartzea eskatzen du, politikoak, kulturalak, sozialak, ekonomikoak eta ekologikoak. Ingurugiroak eta gizarteek bere baldintzetara egokitzeko premiak, beraz, ez du bere horretan azaltzen sistema sozial baten nondik norakoa, muga bat adierazi baizik.

Are, sistema sozialak bere logika eta egiteko modu propioak garatzen ditu garai soziohistorikoak emaniko baldintzen arabera, eta muga ekologikoak bezainbat baldintzatzen du indarrean dagoen eredu kulturalak edo gure kasuan, azpiegitura sozioekonomikoak. Felix Guattari filosofo eta psikoanalistak dio, sistema soziala bera ulertzeko ezinbestekoa zaigula kapitalismo garaikidearen analisi findu bat egitea (ikus 2.2 atala), osterantzean hankamotz geratuko baikara krisialdi ekologiko globala pentsatzerako eta ulertzerako orduan. Oinarri teoriko horiek onartuta erabiliko dugu *ekologia-mundu amaraunaren* kontzeptua, Jason Moore ekosoziologo marxistaren obrari keinu eginda, aurrerago azalduko dugun bezala. Kontuan hartuz giza-taldeen portaerak eta jokatzeko moduek ekosistemetan eragina dutela, eta aldi berean, entropiaren legeari jarriki, naturak mugak jartzen dizkiola geure existitzeko moduei eta praktika ekonomikoari (Georgescu-Roegen, 1971). Gonzalez Molina eta Victor Toledo (2011) ekologo sozialek ingurugiroaren historiaren eskola propioa sortzeko saiakeran proposatu bezala, ingurugiro historialariak prozesu sozialen berri eman gura duenean begiratu beharko du: aurrenik, azaldu gura duen errealitate sozialak sostengatzen diren harreman-sareak zer nolakoak diren; hori egin ondoren, sare horiek osatu eta elkar-eragiten duten faktore sozial, fisiko, ekonomiko eta politikoak deskribatzeko ariketan murgildu beharko da.

Giza jardunari buruzko ikuspegia eraldatzen zaigu, funtsean. Gizakia ez da izango naturatik kanpo kokatu daitekeen eragilea. Zerbait izatekotan, naturaren beraren parte da, eta ondorioz giza jarduera natur jardueratik deslotu ezin daitekeen faktorea da. Marx-ek esan bezala, *Gizakia naturatik bizi dela baieztatzeak natura gizakiaren gorputza dela esan nahi du, zeinaren beharrak asetu behar dituen ez hiltzeko. Gizakiaren bizitza fisiko eta espirituala naturaren mendekoa dela esatea, natura bere buruarekin harremantzen dela esatea da, gizakia naturaren parte den neurrian* (Marx, 1844: 61).

Sistema naturalen eta sistema sozialen arteko harilkatze epistemologiko honetan ezin dugu aipatu barik utzi Sare-Aktorearen kontzeptua. Bruno Latourrek *Reassembling the social* (2005) liburuan dio zientzia soziala egin nahi badugu, ezer baino lehen, gizartean zer dagoen eta zer ez hausnartzea funtsezkoa dela. Hala, dio Latourrek, ezin izango dugula soziologian emanda, aitorturik, bizirik, dauden zenbait kontzepturen existentzia “egonkorra” eta “banaezina” oinarri ontologiko gisa hartu; aitzitik, ez dago horrelako ezer, dena dago airean eta egoera kontingentean, ezin dugu geure analisisa abiapuntu horretatik hasi. Alderantziz jokatu beharko dugu, ez dago ezer emana; azter dezagun zer dagoen, eta bertan ikusi ahalko dugu nola eraikitzen diren eragileak, ze itxura hartzen duten, baldin badaude, eta ze harreman mota ezartzen duten beraien artean.

Kutsu erlatibista erradikal horrek eskatzen du ordea zuhurtzarik. Ikerketari begirada sozioekologikotik eusten diogun neurrian errealitate enpiriko sendoak onartzen ari gara, aldaketa klimatikoari, ozeanoen azidifikazioari, energia fosilaren aroaren gainbeherari

edota ekosistema eta biodibertsitatearen suntsiketari dagozkionak. Are, ez hori bakarrik, sistema sozialaren planoan ere nabaria da ordena patroia batzuk ezarri daitezkeela giza-taldeen jokabideen inguruan, eta mundu soziala botere eta indar-harremanez gurutzaturik datorrela. Harreman sozial eta ekonomikoak ez dira modu ahistorikoan eraikitzen, ibilbide historiko-sozial zehatz baten oinordetzan baizik. Eragile bakoitzak iturri materialetik bezainbat iturri sinbolikotik edaten duen botere-kokapena kontuan hartzea ezinbestekoa da ontologia sozial eta zientzia sozial zintzo baterako. Adibidez baliabide faltak zein energia eskasiak aterabide soziopolitiko autoritarioen atari izan daitezkeela ohartaraztea (Amery, 2002), gure iritzian, zientzia soziala egitea da.

Objektibotasun zientifikoari ezin diezaiokegu, horrenbestez, bizkarrik eman. Horrek ez du esan nahi, ordea, gaurko zientzia modernoan nagusitzen den jakintza sakabanatua (departamentu eta saila unibertsitario ezberdinetan) geure egiten dugunik. Santiago Muiñori jarraituz (2015: 94), gizarte sistemen konplexutasun maila sakonak zientzia positibistaren sailkapen klasikoak gainditzea eskatzen du, elementu ezberdinak analisisira ekarri eta euren arteko lotura-puntuak, urradurak eta sortzen dituzten sareak deskribatzea. Sare-aktorearen paradigma, bere eralitibismo arriskutsua tentuz hartuta, bai iruditzen zaigu ezagutzaren banaketa modernoari erronka botatzen dion begirada bat, eta jakintza bide berriei atea zabaltzen dien bide orijinala, natura-kultura dikotomia kartesiarra gainditzeko forma bat eskaintzen diona gizarte aztertzaileari. Bestela esanda, zentzu analitiko batean gizarte zientzien oinarri astindua ematea da, harreman sozialak bizitza zikloetan murgildurik daudela esaten ari baikara; hau da, giza harremanak ez dira sare ekosistemikoaren gainean eraikitzen, bere bitartez baizik (Moore, 2015).

Bruno Latourrek berak argudiatzen du zentzu horretan, natura eta kulturaren arteko bereizketa modernoak natur eremua materia hil eta pasibo modura tratatzea ekarri duela, mundu materialaren *desanimazioarekin* eta giza agentziaren *gainanimazioarekin*. Horregatik da garrantzitsu materialtasuna ostera ere berreskuratzea, naturari izaera aktiboa onartzea ontologikoki, gudan eragina duten indarrak mugiarazten baititu. Are, Latourrek defendatuko duenez, kontrara ere gerta liteke, modernitatearen bigarren zati honetan badirudi gizarteak direla material hil eta pasibo hori, ezer mugiarazteko gai ez direlako (Latour, 2017). Puntu honetan ikerlariaren lana beharrezko bilakatzen da sare-aktorearen teoriaren arabera; ikerlaria bera izan beharko baita elementu gizatiarren eta ez-gizatiarren arteko elkarketak jarraitu beharko dituen, loturak nola gertatzen diren, sareek zein itxura hartzen duten eta eragile ezberdinen arteko asoziazioak nola egituratzen diren zehazteko.

Enfoke post-estrukturalista hori begirada sozioekologikora aplikatzen badugu, ingurugiroa eta berak ezartzen dituen determinazioak gizarte eragiletzat jo ditzakegu. Ikusker horretan, kapitalismoa moduko sistema ekonomiko bat ez litzateke naturatik eraikiko, aldakorrak, koiunturalak eta tokian tokikoak diren harreman sozialetatik baizik, euren ingurune ekosistemikoekin duten elkarrekintza zehatzetatik. Bada, proposatzen dugun *ekologia-mundu amaraunaren* kontzeptura etorrita, harreman-sare hori guztia kontuan hartu beharra onartuko dugu. Hau da, gizarte prozesu eta egituren berri emateko, sistema energetikoekin, ziko ekosistemikoekin, berrikuntza teknikoekin edo materia fluxuekin ezartzen diren harremanak aintzat hartu beharko ditugu. Errealitate nazionalak, kulturalak, politikoak edota ekonomikoak, beraz, estuki harilkatuta daude ingurugiroak ezarritako muga eta aukerekin, eta guztien arteko elkareraginetik

abiaraziko dira aldaketa historiko eta sozialak. Bada, *ekologia-mundu* kontzeptuak, gure gizarteak naturarekin harremantzen diren modua pentsatzeko baliko digu:

“Esta es la transición desde una historia medioambiental de la modernidad a la modernidad como historia medioambiental. Conseguirlo implica una transición a fin de pasar de percibir el capitalismo como un sistema social a percibirlo como *ecología-mundo*, reuniendo el capital, el poder y la naturaleza en una rica totalidad con múltiples determinaciones” (Moore, 2020: 64).

Jason Moore pentsalari ekologiko marxistaren ekarpena ez zaigu soilik interesgarri zentzu epistemologikoan, bere zentzu kritikoaren esangura bera ere oso baliotsua dela irizten diogu. Kapitalismoaren eta sistema sozio-naturalen arteko harremanak aztertzeko marko berria proposatzen du, kapitalismoa *ekologia-mundu* modura irakurtzeko iradokizuna ekarriz, Giovanni Arrighi-ren mundu-sistema kontzeptuari keinu eginda (Moore, 2020: 54). Mooren analisiaren arabera, kapitalismoa ez litzateke soilik historiko-sozialki kokatutako ekoizpen eta banaketa modu bat izango, sistema sozio-natural ezberdinetan gorpuztu den eta berauek modu merke eta oparoan ustiatzeko gaitasuna izan duen ekoizpen eredu baizik (Moore, 2020). Bestela esanda, kapitalismoa bera natura antolatze modu bat da, *erregimen ekologiko bat*, gizarte bakoitzak fase historiko ezberdinetan modu propioan antolatu duena. *Natura historikoa*-z hitz egin dezakegu, beraz, Marx eta Engelsek *Alemaniarren Ideologia* (1972) liburuan erabilitako kontzeptua berreskuratuz. Horren arabera natura ez dago giza-ekintzatik bereizirik, giza-ekintza garatzen den ardatza bera baita.

Prozesu hori azaltzeko *mugako merkantzia* kontzeptuaren erabilera egiten du Moore-k, zeinaren arabera, kapitalak akumulazio fase progresiboa mantentzean ezinbestekoak ditu kapitalizazioaren mugatik haratago doazen lur ez-ustiatuak eta lan-indar esplotatu gabea. Alegia, kapitalaren barne birproduzioarako ezartzen dituen harreman sozialetatik (lana-kapitala) haratago, kostuen jaitsierarik handiena eta ondorioz balio sorkuntzarik oparoena ordainduak ez datozen lanak (erreproduktio lanak, funtzio ekosistemikoek betetzen dituztenak edo beren kabuz birproduzitzen diren espezieek eginak) jabetzearen bidetik dator. Horri *natura sozial abstraktua* deituko dio, Marx-en lan sozial abstraktuaren kontzeptua zabalduz, eta bere akumulazioa posible eginez (Moore, 2020: 33). Kontzeptu horren indarra ondokoa da: lan sozial abstraktua baliagarri izan dadin, bere produkzioarako kostuak kontrolpean egon behar dira (zaintza eta etxeko lan erreproduktiboak, naturaren funtzio ekosistemiko eta baliabide iturriak); bestela esanda, soldatapeko lana gorpuztea (eta ondorioz kapitala-lana arteko harremana bururaino eramatea) lortzeko, lan ez-ordaindu eta dohakoaren ekarpen agortezina behar da. Ingurugiro historialariak dakarren titularretako bat hori da hain justu, kapitalak bere birproduktioarako beharrezko dituen elementuak harreman kapitalistetatik haraindi topatzen dituela.

Ekologia-mundu sistemak, beraz, bere dimentsio ekonomikoan natura iturri agortezin eta dohako gisa erabili du metaketaren legea bizirik mantentzeko, nahiz eta balio-sorkuntza hori posible egiten zuen ingurugiro eta gorputzak higitu erritmo bizian. Pentsalari ekomarxistaren iritzian, akumulazioa eta hazkuntza posible egin duena ez da horrenbeste gainbalioa Marx-ek definitutako terminoetan, *gainbalio ekologikoa* baizik, bere baitan biltzen duena *natura sozial abstraktuaren* eta berau osatzen duten elementu erreproduktibo guztien erreferentzia.

Zentzu Moorezale batean esan dezakegu, horrenbestez, ekologia-mundu amaraunean gorpuzten dela gizartea eta sozialtzat jotzen dugun hori. Kapitalismoaren metaketa legeen arabera konfiguratzeko den *erregimen ekologikoak* baldintza estuak jartzen ditu, bultzatzen ditu gizarte-sistemak naturarekin oldarkor izango diren politikak abiaraztera. Ekologia-mundu horretan ezartzen diren determinazioen baitan ulertu behar dugu, beraz, Arrasateko kooperatibek naturarekin harremanetzeko izan duen modua, bere inpaktu ekologikoa eta ingurugiroari buruzko diskurtso ezberdinen eraikuntza. Nazioarteko merkatuetan lehiakor jokatzeak natura modu zehatz batean antolatzea esan nahi baitu, balio-sorkuntzaren legea lehenetsiz beste edozein irizpideren aurretik. Elementu ekosistemiko eta biosferikoetan txertatua dago, beraz, soziala den hori. Gure kasuan, eta Jason Mooren hizkeran esateko, kooperatibetan produkzio prozesuak posible dira *natura sozial abstraktua* ustiatzeari esker

Paradigma ekologikoak, hortaz, hiru bereizgarri garrantzitsu ditu gizarte zientzialariak kontuan hartu behar dituenak: i) Lehenbizi, ekologikoa izatearen garrantzia; ez dago sistemarik baldin eta ekosistemarik ez bada. Ezingo dugu sistema sozial baten analisirik egin baldin eta ekosistema zehatzarekin harremanean ez bada. II) Bigarrenik, globala da. Edozein ekosistema da ekosistema zabalago baten parte, eta beraz, batoren biziraupenak besteari baldintzatzen du. Zentzu horretan, derrigorrezkoa dugu errealitate zehatzak mundu mailako prozesu marko-estrukturalekin lotzea, ahaztu barik, Azurmendiren zentzuan, partikularitasunak unibertsalarekin duen harreman estua III) Hirugarrenik, konplexutasun maila altukoa da. Sinplifikazioaren paradigmatik konplexutasunaren paradigmara jauzi egiteko premia aldarrikatzen du. Faktore ekologikoak eta faktore sozialak elkarnahasi behar dira azalpen zehatzetan. Konplexutasunari aurre egiteak zera esan nahi du: desordena, kaosa eta etorria aztertzea, elementu bereizi eta bakan bakoitzetik abiatuz, ekosistema zabalekin harremanean jarri arte.

Historialarien artean inor gutxi jartzen du zalantzan klima aldaketa bat, izurriteren bat edo eraldaketa ekosistemiko bat historia sortzaile ere izan badela. Materialtasunak ezartzen digun bide estuan harreman sozialak zein modutan konfiguratzeko diren aztertzea, hori gizarte zientzialariaren erronka. Errealitate soziala deskribatu gura badugu, elementu *extra-sozial* horien eraldaketarako indarra kontuan hartzea ezinbesteko izango zaigu, edozein inperioren, elite sozialen edo nazioen jarduna bezainbeste baldintza dezake errealitatearen etorria ziklo naturalak. Mike Davis soziologoaren lana aipagarria da ikuspegi honetan, prozesu historiko-sozialak natur fenomenoekin lotzen zituen eraikin esplikatiboak sortu baitzituen. *Late Victorian Holocausts* (2001) lanean, aztertu zuen harreman-forma kolonialak izan zirela Indiako lurraldeetan egon ziren goseteak eragin zutenak. Bertako biztanleriaren ekonomia-formak suntsituta eta ekoizpen-harreman kapitalista/kolonialak ezarrita, gehiengo sozialak lurrera sarbide gabe geratu ziren. Ondoren lehortekak etorri zirenean, komunitateei erresilientzia gaitasuna kendu zieten, miloika hildako eragin zituen goseteak. Bi faktoreak dira, beraz, funtsezko, fenomeno horren azalpenean, kolonialismoaren prozesu historikoa, eta urte horietan egon ziren lehortek gogorak.

Bada, ikerketa sozio-metabolikoa egin asmo dugun neurrian, komeni zaigu zehaztea aztertu gura duguna, praktika sozial, material eta sinbolikoen emaitza dela, hiru dimentsio horiek gakoak izango dira edozein azalpen metaboliko sozialen eraketarako. Hor egongo da abiapuntua. Ezin diezaiokegu bati besteari baino garrantzi ontologiko

gehiago aitortu, elementu guztiak ordena hierarkiko berean kokatuko ditugu. Noski, plano epistemologikoan horrela aritzeak arrisku esanguratsua dakar ikertzailearentzat, metabolismoaren adarrak non moztu erabakitzeari dagokiona. Egitura metaboliko sozialaren deskribapena xehetasuneraino luzatu liteke eta hori denbora, gaitasun zein espazio aldetik gainditzeko gaituen ariketa litzateke. Horregatik, beharrezko deritzogu metabolismo sozialaren osaera zein planotatik azteruko dugun determinatzea, mapa teoriko nahiko simple bat proposatuz gure ikergaiaren azterketarako, gida moduan balioko diguna.

1.2.2 Metabolismo sozialaren indar analitikoa

60 eta 70ko hamarkadetan Europako gizarte zientzietan nagusi izan den estrukturalismoari leporatu izan zaio metafora mekanizistetatik pentsatzea gizarte sistema ezberdinak. Estrukturaren eta makinaren metaforatik azaldu eta pentsatu izan dira fenomeno sozial eta historiko ezberdinak, newtonen paradigma zientifikoaren baitan. Alabaina, pentsamendu sozioekologikoak agerian jarri du prozesu sozialek zerikusi gehiago daukatela organismo biziekin, bere izaera zabal, kontingente eta bukatugabeagatik. Esan liteke metaforen eraldaketa gertatzen ari dela gizarte zientzietan, metafora makinikoak alde batera utzi eta biologian oinarritutako metaforei bide emateko. Prozesu horren baitan ulertu behar dugu metabolismo sozialaren kontzeptua, geroz eta oihartzun handiagoa hartzen ari dena gizarte sistemen analisi ezberdinetan, eta ekonomiatik bezala soziologiatik edo antropologiatik lurralde epistemologiko berriak zabaltzen ari da.

Dena den, bere izaera metaforikoa kontuan hartzen badugu ere, paradigma mekanizistetatik eta makinaren metaforatik pentsamendu oinarri baliotsuak eraiki direla uste dugu. Metabolismo sozialaren kontzeptua ez genuke ulertu behar aurrekoa gainditu eta baztertzeko duen tresna-kutxa modura, aurreko belaunaldietako gizarte pentsalariek osatu dituzten teorizazioen eta garatu dituzten interpretazio eskemen joste prozesu modura baizik.

Azken hamarkadetan krisialdi sozioekologikoak bultzatuta interes berezia piztu da metabolismo sozialaren kontzeptuaren gainean, gizartearen eta ekonomien energia eta materia fluxuen elkarrekintza ikertu ahal izateko. Biologian erabiltzen den zentzuaren analogia modura jaio zen, gizarte zientzietara indar analitiko sendoko tresna modura aplikatzeko. Norbanakoaren konfigurazio biologikoan, organismoak biziraun ahal izateko ur, oxigeno eta bestelako materialak behar ditu, inguruarekin interakzio etengabea. Era berean, ingurutik jasotzen duen bezala organismoak CO₂a eta substantzia organiko ezberdinak kanporatzen ditu. Bada, mekanismo hori sistema sozialean ere aplikatzea da proposatzen dena metabolismo sozialaren kontzeptutik, gizarteek euren ingurugiroarekin zein harreman eratzen duten zehazteko, organismo sozialak kontsumitzen eta kanporatzen dituen energia eta materia fluxuak kontuan hartuta (Gonzalez Molina eta Toledo, 2011; Martinez Alier 2003). Bai sistema sozialeko metabolismoan sartzen dena zein hondakin modura produzitzen duguna luke kontuan kontzeptuak, kontuan hartuta bere forma, intentsitatea eta inpaktua aldakorra den arren,

bere existentzia aurre-soziala dela. Dena den, Joaquim Sempere (2009) soziologoak argudiatzen duen modura, behar biologiko eta psikosozialak edozein garai historiko eta giza-talderi dagokien ezaugarria den arren, behar horiek asetzeko modua aldakorra da, gizarte bakoitzak garatzen duen sistema sozio-teknikoarekin lotura duena. Inguru naturalek eta sistema sozialak harremantzeko duten moduari forma ematen dio gizarte bakoitzak aro historiko bakoitzean garatu duen azpiegitura teknikoak. Sempereren arabera, beraz, gizartearen eboluzioan sistema soziometaboliko bat edo beste nagusitu da, gizarte horiek zituzten ahalmen tekniko-sozialek estuki baldintzatuta.

Lehen aldiz Marx-ek erabili bazuen ere, ekoizpen moduen eta naturaren arteko harremanaren berri emateko, 1960. hamarkadara arte gizarte eta ekonomia politikoaren analisirako ez zen erabili metabolismo sozialaren kontzeptua (Gonzalez Molina eta Toledo, 2017). Ordea, gai sozioekologikoaren gaineko kezka hedatzearen ondorioz ugari dira gaur metabolismo sozialaren kontzeptutik abiatuta aurkitu ditzakegun ikerketak. Zehazki, metabolismo sozialaren gaineko erabilera modernoak "kontzeptu izar" bilakatzea eragin duela dio Fisher-Kowalski-k (1997). Edozein kasutan, gizarte sistemen oinarri materialaren gaineko analisisan sakondu duten ikerketak ugaritu ditu kontzeptuak, prozesu naturalen eta prozesu sozialen arteko elkarreraginak aletuz (Giampietro et al. 2011). Kontzeptuaren erabilera mundu anglosaxoiean hedatu bada ere, gehiago dira gazteleraz eta portugaldarrez aurkitu ditzakegun ikerketa metabolikoak (Infante-Amate et al. 2017), Hego-Amerikako akademiatik eginak gehientsuenak, kezka ekologikoa hedatu den seinale.

Euskarazko ikerketaren kasuan, urriak dira metabolismo sozialari egiten zaizkion erreferentziak, aipagarriena Urikidi, Garmendia eta Arto-ren (2015) ikerketa da, EAEko metabolismo sozialaren gainean egindakoa. Erkidegoko jardun ekonomikoak atzerrian sortzen dituen kalte ekologiko eta sozialak zehazten dituzte ikerketan, euskal enpresen atzerriko inbertsioak aztertuz hiru ikerketa-kasuren bidez (Urikidi et al. 2015: 189). Euskal sistema soziometabolikora hurbiltzen badira ere, materia eta energia fluxuetan zentratzen dute analisia, elementu kulturalak, sinbolikoak edo historiko-sozialak alde batera utzita.

Zentzu horretan, kontzeptuak gizarte zientzietan izan duen ibilbidea oso geratu da betaurreko ekonomizistei lotua (Santiago Muiño, 2015:114). Erregimen metabolikoa aztertzen duten ikerketa gehientsuenetan begirada elementu materialetan soilik zentratu da azken hogeita hamar urteetan, jasangarritasunaren adierazle kuantitatiboak zehaztuz batez ere. Esaterako, Urkidi eta kideen (2015) ikerketan, euskal ekonomiak atzerriko lurraldeetatik erauzten dituen baliabideetan jartzen du arreta, Indonesiako palma-olioan, Boliviako eztainuan edota euskal atun ontziek Indiako Ozeanoan duten jarduna ikertuta. Ordea, analitiko kanpo geratzen dira euskal gizarte sistemaren prozesu sozial eta sinbolikoak, ezinbestean elikatzen dituztenak fluxu energetiko-material horiek. Bestela esateko, metabolismo sozialaren jarduteko moduaren eta erabiltzen dituen mekanismo sozialen deskribapena bera azaldu barik geratzen da.

Aztarna ekologikoa, aztarna energetikoa, estraktibismoaren inpaktua eta bestelako adierazleak erabili izan badira ere ikerketa metabolikoetan, bigarren plano batean laga dute gure iritziz sistema soziometabolikoaren hezurdura nagusia dena, bere prozesu sozial eta historikoekin zerikusia duena. Jario energetiko-material horiek modu zehatzean egituratua dagoen gizarte eta ekonomia batean gertatzen diren neurrian, gizarte zientzialariarentzat funtsezko zeregin bilakatzen da martxan dauden prozesu

kultural eta sinboliko horien berri ematea, hizkera sozioekologikoan esateko, geure gizartearen erregimen soziometabolikoaren nondik norakoak azaltzea.

Tesi honen helburuetako bat prozesu kultural eta sinboliko horietan murgiltzea izango da, fluxu energetiko-materialen ezagutzaren garrantzia onartzen dugu baina betiere sistema sozialaren konplexutasunarekin harremanean bada. Sistema soziometaboliko arrasatearraren deskribapena ezinbestez etorriko da Arrasateko Kooperatibek lur hartzen duten terreno sozial eta kulturala arakatzetik eta gizartea egituratzen duten prozesu makrohistoriko batzuk errealitate horretan nola artikulatzen diren zehaztetik (azken 40 urteetako hegemonia kultural neoliberal, esaterako). Izan ere, jasangarritasun ekologiko eta sozialerako bidean ez da soilik ekoizpen eta kontsumoaren eredia eraldatu beharrekoa; geure sozializazio moduak, jokabide kulturalak, mundu ikuskerak eta zentzu-egiturak eraldatzea premiazkoa da. Gure irudiko, indarrean dauden balio-sistemen eta subjektibotasun prozesu garaikideen gaineko ezagutza izatea beharrezkoa da metabolismo sozial azeleratua mantsotu ahal izateko. Berregituraketa ekonomikoa bezain garrantzitsu da berregituraketa sinboliko-kulturala.

Argudiatu liteke funtsean metabolismo sozialaren ideiarekin "sistema" edo "egitura soziala"-ren metafora alde batera utzi eta beste bat erabiltzen ari garela, antzeko fenomenoak izendatzeko. Zergatik erabili, beraz, kontzeptu hori gizarte zientziak beste tresna kontzeptual batzuk, gihar teoriko eta ibilbide historiko luzea dutenak, eskaintzen dizkigutenean? Bada, metabolismo sozialaren kontzeptuarekin gizarte sistemen eta sistema naturalen arteko osagarritasuna ezinbestekoa dela adierazten dugu, eta krisi ekologiko betean, gizarte prozesuen berri emateko kontzeptu finagoa dela deritzogu. Horrez gain, ikerketari begirada horretatik heltzeak, berritasun dimentsioa ere ematen dio egingo dugun lanari. Zehatzago izateko, euskaraz ekarriko dugu Arrasateko Kooperatiben metabolismo sozialaren azterketa, arreta berezia dimentsio kulturalan jarrita.

1.2.3 Arrasateko Kooperatibismoaren erregimen soziometabolikoa aztergai.

Nola aplikatu dezakegu, ondorioz, gizarte analisi marko hori Arrasateko kooperatibismoa? Nola deskribatu dezakegu Arrasateko kooperatibismoaren metabolismo soziala?. Bada, lehenbizi Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren bueltan biltzen diren kooperatibak termino mugatueta pentsatu behar, egunerokoan produzitzen den kooperatibagintzan pentsatuko dugu. Bestela esanda, harreman sare soziokultural, ekonomiko eta energetiko-material zehatzetatik abiatzen diren praktikek eta diskurtsoek egiten dute posible egunero Kooperatiba bat produzitzea¹¹. Mapa teoriko honetan, Arrasateko kooperatibismoa termino horietatik pentsatzen saiatuko gara, etengabeko aldakuntzan dagoen sare aldakor modura, elementu ezberdinak konexioan jartzen dituen eta metabolismo sozial propio bat antolatzen duena.

Metabolismo sozial kooperatiboaren ideiak, beraz, *agencement*¹² edo elkarketa sozio-metaboliko jakin bati egiten dio erreferentzia, morfologia sozial eta tekniko propioa duena. Natura antolatzeko eta harekin harremanetzeko modu zehatz bat ezartzen du Arrasateko erregimen soziometabolikoak. Morfologia horren baitan topa dezakegu ordena sozial, ekonomiko eta politikoa jakin bat, autonomia dena, eta elementu ezberdinak konexioan jarriz, errealitate forma propioa ekoizten duena.

Termino metaboliko-sozialetan pentsatzeak, beraz, ezinbestean garrantzitsuak dira esperientzia ekonomiko edo sozioenpresarial batetik haratago begiratzera. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia dimentsio anitzeko fenomeno modura deskribatu behar dugu, inguruko ekosistemekin eta ekologia-mundu sistemarekin lotuta dagoena, eta lotura horien arteko nahastetik konfigurazio metaboliko sozial zehatz bat marrazten duena. Bertan nahasten dira errotutako praktika ekonomikoak, ikuspegi ideologikoak, nazioarteko merkatuak ezarritako erritmoak, bereizketa soziologikoak, adituen diskurtso teknikoak, sektore industrialetako teknologiak, herri jakintzak, kooperatibismoaren historiaren gain egiten diren irakurketak etab. Bada, sistema zabalagoekin dituen konexioekin (ekologia-mundua/harreman globalak) eta lurraldean ezartzen dituen harreman (lokala) amaraun nahasi horretan subjektibazio prozesuak jartzen dira martxan, eta subjektibotasun horiek euren eguneroko bizitzetan ekintza-patroiak marrazten dituzte. Arau horiek ez dira mugiezinak. Subjektu bakoitzaren praktika zehatzarekin egunero berrearikitzen dira muga horiek, zalantzan jarri eta berreraiki, Deleuze-k esan bezala, errealitate sozialaren izaera kontingentea.

Bada, Arrasateko kooperatibismoa gerturatzeko *Makina-Kooperatiboa*¹³ kontzeptua erabiliko dugu. Honekin esaten ari gara subjektu kooperatiboa aldi berean dela kontu

¹¹ Eguneroko bizitzaren soziologia analisi markora ekartzera garrantzitsuak dira esperientzia ekonomiko edo sozioenpresarial batetik haratago begiratzera. Garfinkel (2006), De Certau (1984) edo Latourrek (1993) lan interesgarriak egin dituzte geure eguneroko praktikek topatzen dituzten muga estruktural eta dilema soziologiko ezberdinei aurre egiteko estrategien gainean.

¹² Agencement-aren ideia Deleuze eta Guattarin aurkitu dezakegu. Elementu ezberdinen arteko konexioa da agencement-a jardun bateratu bat ezarri ahalko duena. Hau da, elementu bakoitzak bere barne-orden eta egiturak edukiko ditu, baina besteekin konexioa ezartzen duenean ordena eta antolakuntza berri bat eratuko da, funtzio zehatz bat ahalbidetuko duena. Deleuze eta Guattari (1980).

¹³ Produktibismoaren eta makinaren metafora gizarte zientzietan erabili izan da, garapenaren ideia jakin bati loturik. Modernitatearen etorreran, sektore sozial, kultural zein artistiko ezberdinetan makinaren mitoak zein errez hartu zuen lur kritikatzeko erabili zuten megamakinaren kontzeptua, bai sozialismo errealean zein mendebalde kapitalistan. Lewis Mumford-en lanak dira zentzu horretan argigarri. *El mito de la máquina*

instituzional, energetiko, sinboliko eta sozial bat, eremu bakoitzaren ezaugarriak xurgatzen eta itxuraldatzen dituen, beste ertz guztiekin oreka bat bilatzen saiatuz. Sistema soziometaboliko bezala osotasun bat ezartzen du, eta kooperatibetako errealitatea koordenada soziologiko eta antropologikoetan pentsatzeko aukera ematen digu. Bruno Latour (2005) filosofoaren sare-aktorearen kontzeptuari jarraituz, elementu heterogeneo askotarikoak konexioan jartzen dituen sare bat da Mondragon Korporazioa, errealitate ekonomiko, sozial eta metaboliko zehatza ekoizten duena. Beste modu batera esanda, Makina-Kooperatiboa eratzen duten osagai ezberdinek, bere barne-orden eta egitura propioa dute; ordea, gainontzekoekin konexioan jartzen direnean, itxuraldatzen dira eta sare zabal horrek ezartzen dituen arauak eta jardunbideak barneratu behar dituzte. Irudi hori geure egirik, krisi ekologikoaren auzia kanpotik datorren elementu indartsu bezala kontuan hartzen badugu, teorian esan genezako Makina-Kooperatiboarekin konektatu eta berau itxuraldatuko duela, forma berri bat emanaz kooperatiben praktika sozial, ekonomiko eta kulturalari.

Begirada teoriko honek sortzen dizkigu, ordea, korapilo teoriko konplexuak. Alde batetik, metabolismo soziala deskribatu eta definitzeko, berau osatzen duten elementu adierazgarrienen aukeraketa egin beharra dago, elementu batzuk nahitaez kanpoan utziz (luzeera eta baliabide arrazoiengatik). Bestetik, elementu bakoitzak erregimen soziometaboliko arrasatearra osatzen duten gainerako elementuekin zein harreman edo lotura ezartzen duen zehaztea ariketa amaiezina zaigu, konbinazio berrituak eratzen baitira etengabe, baina bai saiatuko gara iraupen luzeak direnak detektatu eta analisiaren lupapera ekartzen.

Hori esanik, *Makina-kooperatiboa* deituko dioguna aletzen saiatuko gara bere dimentsio soziometaboliko esanguratsuenetan. Zehazki errealitate sozialaren konplexutasunera gerturatzeko hiru dimentsio nagusi kontuan hartzea proposatzen dugu, gizarte zientziaren hiru dimentsioko azterketaren ildoan. Felix Guattari (1996) bera da hiru ardatzeko begirada horri oinarri filosofikoa eman ziona; hiru ekologiak analisi marko bezala proposatu zituen, *ingurugiro ekologia* (naturarekin dauden harremanen artikulazioak), *ekologia soziala* (harreman sozialak) eta *ekologia mentala* (geure buruekin eta subjektibotasunaren konfigurazioarekin zerikusia duena). Hala zehazten du psikoanalistak:

“Sin un cambio en las mentalidades, sin el ingreso en una era post-mediática, no es posible una incidencia duradera sobre el medio ambiente. Ahora bien, sin modificaciones en el medio ambiente, no habrá un cambio de las mentalidades. Nos topamos con un círculo, que me conduce a postular la necesidad de fundar una “ecosofía” que articula la ecología medioambiental con la ecología social y la ecología mental” (Guattari, 2004: 22)

Enrique Leff-ek (2005) egitura ekologikoak, ekoizpen-harremanak eta arau kulturalak bereizten ditu. Santiago Muiñok (2015) dimentsio ekologikoa, dimentsio soziala eta dimentsio sinbolikoaren azterketa hirudimentsionala proposatzen du edozein fenomeno sozial edo historikoren azterketarako, begirada sozio-metabolikotik betiere. Bada, geure ikerketarako begirada aproposa iruditzen zaigu hiru dimentsio horietan sakontzea eta euren arteko elkar-eraginak aletzea. Gizarte zientzia garaikideetan ohikoa den hiru dimentsioko banaketa honek, errealitate soziala ez sinplifikatzeko balioko digu. Jakinik analisia hiru planotan bereizita horietako bakoitzaren ertz guztietara iristea ezinezkoa

(1969) eta *Técnica y civilización* (1971) lanetan azaltzen ditu bere pentsamendu oinarriak eta megamakinaren indarra gizarte modernoetan.


dela, sakontasun aberats batera heldu gaitzkeela uste dugu. Zehazki, Arrasateko kooperatibismoaren izaera ekonomikoa kontuan hartuta (lanaren zentraltasuna nabaria den neurrian) dimentsio sozialak harreman sozioekonomikoen forma hartzen du, hortaz harreman sozial eta ekonomikoei dagokien ardatza sozioekonomiko modura definituko dugu. Bai azpimarratu behar dugu, ordea, tesi honen interes puntu nagusietako bat subjektibotasunaren azterketaren gainean jarriko dugula, edozein trantsizio sozioekologikorako funtsezko atala dela iritzita. Gizarte-sistema jasangarrietara bidean eraldaketa antropologikoa beharrezkoa den neurrian, pisu analitiko sendoena atal horrek hartuko du, gainerakoa (modu ezberdinduan eta oin-ohar askorekin) hortik eratortzen dela iritzita. Guattarik esan bezala:

“Conviene subrayar que la toma de conciencia ecológica por venir no deberá preocuparse solamente de los factores medioambientales como la polución atmosférica, las consecuencias previsibles del calentamiento del planeta, la desaparición de numerosas especies vivientes, sino que deberá referir también a devastaciones ecológicas relativas al campo social y al dominio mental. Sin transformación de las mentalidades y de los hábitos colectivos, sólo habrá un reajuste concerniente al entorno material.” (Guattari, 2015: 38).

Arrasateko Kooperatiben metabolismo sozialak hortaz, hiru ardatz nagusi antolatzen ditu bere jardunean, errealitate sozial propioa garatzea ahalbidetzen diotenak. I) ardatz metabolikoa ii) ardatz sozioekonomikoa iii) ardatz psiko-kultural subjektiboa.

- I) Ardatz metabolikoarekin Makina kooperatiboak duen erregimen metabolikoari egiten diogu erreferentzia. Ardatz horretan, bere inguru biofisikoarekin ezartzen duen harreman mota zehaztu nahi da. Bertan eratzen da kooperatibaren sistema sozioproduktiboa. Makina-kooperatiboak jario energetiko-material propioa jarriko du martxan, sostengatzen duen sistema produktibo guztia hornitu ahal izateko. Kate horretan elementu ugari jartzen dira konexioan, baliabideak eskuratzeko modua, energia-iturriak, beren eraldaketa, banaketa, garraioa edota kontsumoa. Ardatz hau fluxu energetiko-materialek eta jasangarritasun adierazleek eratuko dute.
- II) Bigarren ardatz nagusia sozioekonomikoa da. Bertan eratzen dira eremu kooperatiboko *habitus* zehatzak eta hari lotutako praktikak. Harreman-sare propioa ezartzen du ardatz honetan bere ekoizpenerako, banaketarako eta salmentarako gaitasuna handitzea helburu jarriarik. Merkatuak ezartzen dituen baldintzak, antolakundearen beraren inertziak, demokrazia industrialaren egoera edo beste kooperatibekin ezartzen den harremana sartzen dira metabolismo sozialaren dimentsio honetan. Halaber, nazioarteratze estrategiak eta globalizazio ekonomikoaren agertokian jokatu beharrak kooperatibagintzan izan dituen eraginak aztertuko ditugu.
- III) Ardatz psikokultural-subjektiboa da makina kooperatiboari itxura ematen dion hirugarren bektore nagusia. Bertan kode sinbolikoak antolatzen dira, kooperatibismoaren gaineko zentzua eraikitzen da (kontakizuna), auzi sozioekologikoen aurrean zein diskurtso agertzen diren zehaztu eta zein logika kultural gailentzen den erronka ekosozialaren aurrean. Ardatz honetan

eraikitzen da iruditeria kolektiboa, subjektibotasuna eta kooperatibismoaren gaineko definizioaren hegemonia. Funtsean, kooperatiban dihardutenek haien ekintzari erantzen dioten esanahi-trama erabakitzen da puntu honetan eta bertan konfiguratzeko langile kooperatiboaren patroia subjektibo eta psikokulturala.



2. Irudia: Arrasateko Kooperatiben metabolismo sozialaren banaketa. Egintza propioa.

Noski, hiru ardatz horiek ez dira autonomoak eta etengabe elkargurutzatzen dira, konbinazio forma berrietan. Bai euren artean lotura duten barne-elementuekin, eta bai estrukturalagoak diren kanpo faktoreekin, ibilbide luzeko prozesu historikoekin etab. Ikerlariaren eginbeharra da ardatz bakoitza geure garai historiko zehatzean nola konfiguratu den argitzea, beste faktore nagusiekin dituen loturak deskribatuz eta konplexutasunaren argazki ahalik osotuena marraztuz. Tesiaren zeregin izango da, beraz, Makina-kooperatiboa xehetasunez kartografiatzea, gure ahalmenak lagatzen digun punturaino.

Hiru ardatzen arteko elkarreraginak aletzeko, ordea, aipatu beharrekoa iruditzen zaigun korapilo teoriko batekin egiten dugu topo. Analisi zintzo batek ez du eusten hiru ardatzak ikuspegi epistemologiko ezberdinetatik aztertu eta euren arteko uztartze ariketa bat egitea. Ardatz metaboliko-energetikoa, sozioekonomikoa edo psikokultural-subjektiboa aztertzerantz sartzen bagara, faktore azaltzaileak bilatzerako orduan ardatz horietako batetik ateratako emaitzek eta interpretazioek izan beharko dute lehentasuna. Horregatik, kapituluan argudiatu bezala, gure kasuan eremu psikokulturalari emango diogu pisu esplikatibo altuagoa, ez beste biek garrantzi gutxiago dutelako, hurbilpen epistemologiko zintzo batek hala ekitea eskatzen digulako baizik. Bide horretan argipen gehiago behar direla iritzita, ondoren datorren azpiatalean kulturaren auziari helduko diogu, gaurko metabolismo sozial Arrasatearraren muinak ukitzeko zein begiradarekin hurbilduko garen zehazteko ariketa egin guran.

1.2.4 Kulturaren auzia, esperientzia kooperatiboaren arnas.

Dimentsio kulturalak izan dezakeen garrantzia eta jokatzeko duen papera, gizarte zientzien bestelako ikuspegi batzuetatik ere aztertu izan da. Zehazki, gizarte mugimenduen soziologian literatura aberatsa bezain emankorra dago, taldeen ekintza bideratzen edo oztopatzen duen esanahi-tramen eta zentzu eraikuntza prozesuen gainean arreta jartzen duena (Tejerina et. al, 1994).

Arrasateko kooperatibismo garaikidean identifikatzen den problema nagusietako bat "balio-kooperatiboaren galera" edo izaera kooperatibistaren ahultzea dela diote azken urteotako ikerlariak. Ez da atzo goizeko kontua, oinarri material-ekonomikoak talde kulturarekin nola lotzen diren eztabaidatzen bi mende luzez aritu dira ekintza kolektiboaren mugak eta korapiloak kezkatu izan dituzten intelektualak. Mugimendu kooperatibistan ere, bere bereizgarriekin baina beste gizarte mugimendu bat gehiago bezala, ikuspegi horretatik heldu diezaiokegu auziari.

Gizarte mugimenduen soziologiatik egiten den azalpen klasikoetako bat zera da: baldin eta mugimenduak biziraun gura badu dispositibo kultural ezberdinak jarri beharko ditu martxan, identitate sorkuntzan eragin, eta oinarri soziala ondo ehuntzeko. Langintza horretan garrantzi berezia dute sozializazioarako esparruak edukitzeak (tabernak,

kulturguneak), erritual kolektiboak sistematikoki burutzeak, oinarri material-ekonomiko sendo bat edukitzeak edota sare komunitario trinkoa sortzeak. Espazio publikoaren erreprodukzioa eta ehuntze komunitarioa prozesu ziurgabe eta konplexuak dira, Habermas moduko pentsalari sofistikatuek sakondu dituztenak (ikus epigrafea: *Oharrak ehuntze komunitario Habermasianoz*).

Arrasaten errotutako kooperatibismoa ulertu gura badugu, analitik atera ezin dugun faktorea da bertako dispositibo kultural eta kognitiboak zeintzuk izan diren, ze iruditeria, estetika eta diskurtso bateratzaile sortu diren. Iglesiasek (2008) esanahien eraikuntza prozesuan arreta jartzea proposatzen du, ekintza kolektiboaren arnas modura jarduten baitu. Bestela esanda, ekintza kolektiboak elementu ezberdinak elkarlotzea behar lituzke: i) aukera politikoa ii) antolakuntza eta ekintza iii) hori arautuko duen bitartekaritza kulturala. Azken puntu honek garrantzia berezia dauka, egoera bat sozialki definitzearen inguruan ari baikara. Norbanako ezberdinek egoera jakin baten aurrean hautemate prozesu berdintsuak garatzen badituzte, talde izaeran sakondu eta errazago garatuko dira kultura partekatu baten oinarrian ekintza-bide bateratuak. Geurera ekarrita, galdera da ikuspegi sozio-ekologikotik ea kultura partekatu hori loratu litekeen kooperatibagintzaren senean, produkzio prozesuak, bizi-estiloak eta lana egiteko moduak aldatzea bulkada kultural partekatu baten emaitza izan dadin, eta ez zuzendaritzetatik edo kanpoko erakunde batetik iritsitako agindu.

Bide horretan jarraitu aurretik, gainditu beharreko korapilo teorikoa azpiegituraren eta gainegituraren arazoa da. Nahiago bada, egitura ekonomiko eta kulturaren arteko arazoa. Krisi *sistemiko* ekologikoaren aroan, nabarmena da oinarri materialen pisuak errealitate kulturalaren gaineko begirada aldarazi diezagukela. Baina kontua ez da horrenbeste batari edo besteari lehenatasuna ematea, nola elkarelikatu daitezkeen asmatzea baizik. Mundu ikuskerek, iruditeria partekatuek eta kulturalki errotutako balio-egiturek pisu handia dute iraunkortasun kooperatiboan urratsak eman gura badira. Esaterako, elkartasun mekanismoak martxan jarri behar direnean edota erabakiak era deszentralizatuan hartu gura badira, konfiantzak, elkarrekiko errespetuak eta elkarlaguntzaren logikak paper berezia jokatzen dute. Ez da, beraz, gainegiturari dagokion kontua, bere ontologia propioa du, autonomoa dena neurri batean determinazio materialekiko. Mugimendu kooperatibista ezaugarritu duen dimentsio kulturala aztertzea funtsezkoa da esperientzia kolektibo horren analisisia egin nahi badugu, eta hor eraikiko dugu geure analisiaren bizkarrezur esplikatiboa.

Kulturaren azterketatik, hortaz, esangura berezia hartzen du kooperatibismoaren baitan jasangarritasunaren inguruan egiten den produkzio diskurtsiboak eta horren bueltan eratzen diren atxikimendu, konpromiso eta erritu ezberdinak. Hor ikusi ahalko dugu ea iraunkortasuna eta kezka ekosoziala bazkide-langile kolektiboaren identitate elementu bilakatzeke aukerak badauden, berdinzaletasunari eta pertsonarekiko ardurari beste zutabe-identitario zentral bat gehituz. Hain zuzen ere, Guattariren esaldia berrartuz, erronka horixe bera baita, zentzu ekosozialean gauzatuko diren jokabide kolektiboak eta mundu ikuskera kulturalen loratzea. Gure irudiko, hori egikaritzeko modu eraginkorrena, ardatz ekosoziala identitate eraikuntza prozesuaren parte bilakatzea da.

Arrasateko kooperatibismoaren gaineko azterketa akademikoan identitate kooperatiboaren gaiak garrantzia berezia izan du eta bere bilakaera azaltzeko ikuspegi ezberdinak landu dira. Identitatearen gaia gizarte zientzian horren zabala eta eztabaidatua izaki, kokapen kontruktibista egingo dugu geure, identitatea zerbait finkoa

eta errotua baino prozesu modura hautematen duena, kontingentea eta errealtate sortzailea. Gizartea prekariora eta aldakorra izanik, eraikuntza eta deseraikuntza faseak bizi ditu, ez dago ezer guztiz emana eta prozesu sozial ezberdinek zegoen ordena soziala itxuraldatu dezakete, beraz, kokapen sozio-ekologikoa kooperatibismo garaikidearen ezaugarri bilakatzea ez da itxirik dagoen bide historiko bat. Zehazki, E.P. Thompson historialari sozialaren lan entzutesua kontuan hartzen baidugu, klase sozialen eraikuntza bera ere identitate kolektiboaren eraikuntza prozesu kultural modura azaltzen du, norbanako ezberdinen artean egon daitezkeen lanbide eta diru-sarrera ezberdinduen gainetik, marko narratibo eta identifikazio iturri zehatzen bueltan gorpuzten dena. Autore horren lana bereziki intereseko zaigu identitatea prozesu sozial eta kultural baten eraikuntza modura ulertzeko, Louis Althusserrekin izan zituen eztabaidetan oinarrituta¹⁴.

Gizarte zientzietako kokapen konstruktibistatik jakin badakigu errealtatea hautemateko eta berau sailkatzeko ditugun moduak estuki baldintzatzen duela jardun praktikoa. Kooperatibismoa ikertzeraz gerturatzeko garen neurrian, horrek zera esan gura du: errealtatea (ekonomikoa eta soziala) ulertzeko eta sailkatzeko dauden modu errotuek, errealtatearen gaineko definizio partekatu bat nagusitzea duela xede, eta hori begirada politikoa da. Horrekin ez dugu esan nahi kooperatibismoan aurkitu ditzakegun diskurtso guztiak ideologikoak direnik, baina gatazkak daudenean eta kooperatibismoaren zentzuari eta eginbeharrari begiratzeko moduan agertzen diren posizio ezberdinek, bai dute hari-eroale politiko bat, kooperatibismoaren baitan identitate ezberdinak sortzera eramaten dituen eta auzi sozio-ekologikoaren aurrean kokatzerako orduan determinantea dena.

Berger eta Luckmanek (1996) eskema interpretatiboak eraikitzen dituzten prozesu modura definitzen dute identitatea, leialtasun partekatuak eraikitze gaitasunarekin. Eguneroko etorriaren arabera, taldeen arteko dialektikaren eta ekintzaren arabera moldatzen doa identitate hori, prozesu beti irekian. Alabaina, horrek ez du esan gura identitateak erro sakonak ez dituenik edo ibilbide luzeko prozesu historikoen baitan kokatzen ez denik. Are, identitateek denboran irauteko joera daukate, eta jasaten dituen eraldaketak geldoak izaten dira, gizartearen makroprozesuekin harremanean gehientsuenetan. Euskal gizartearen eraldaketa soziologikoei eragin ukalezina daukate Arrasateko kooperatibismoa bizi eta praktikatzeko moduan, ez da soilik barne elementuek eragindako emaitza, kanpo elementuak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Era berean, aipatu behar da identitate askotarikoak elkarbizi daitezkeela espazio sozial mugatu batean, eta elkareraginak nabarmenak direla jardun sozial eta ekonomikoan. Dena den, beti gailentzen da identifikazio prozesu hegemoniko bat, elementu material eta sinboliko jakinekin elkarlotzen dena, disputan dituen gainontzeko definizioen

¹⁴ Bi intelektual marxisten arteko eztabaidaren mamia ondokoa litzateke. Althusserren estrukturalismoan klase sozialak eta proletarioa objektiboki ekoizpen-harremanean norberak zeukan kokapenaren arabera definitu zitezkeen. Nolabait langilearen esperientzia subjektiboaren eta errealtatea hautemateko moduaren aurretik jada klase interes objektibo batzuk zituela finkatu zitezkeen teorikoki. Thompson-ek, aldiz, klasea bera eraikuntza soziohistoriko modura ulertzen du, prozesu produktiboan edukitako kokapenetik gain, langileen borondatea, kontzientzia eta sozializazio esparruak funtsezkoak direla azpimarratuz, baldin eta langile klasearen gorpuzte prozesu historikoa ulertu gura badugu. Hortaz, Thompsonentzat iruditeria eta marko narratibo batekin talde sozial batek identifikazio prozesuak abiaraztea da giltza talde sozialetik klase sozial izatera igarotzeko, *de clase en sí a clase para sí* termino marxiar ospetsuarekin esateko. Premisa teoriko horiek oso garbi laga zituen *Miseria de la Teoría* liburuan.

kaltetan. Baldintzak ba ote dauden identifikazio prozesu ekosoziala hegemoniko bilakatzeko euskal esperientzia autogestionario esanguratsuenean, hor galdera.

Arrasateko kooperatibismoan gailentzen diren identitate prozesuak teorikoki funtsatzerako orduan, beraz, ildo konstruktibistan kokatzen diren autoreen begirada egiten dugu geure. Horientzat, aberria, erlijioa edo klasea ez da zerbait emana, gordailu historiko modura hortxe egon badagoena. Aitzitik, eraikuntza prozesu etengabea daude, diskurtso sorkuntza modura, eta modu zehatzean konfiguratu dira, beste askoren artean. Hori kontuan izanik, talde identifikazioak aztertzerakoan begiratu beharko dugu mugimendu sozialak (mugimendu kooperatiboak gure kasuan) zein modutan ulertzen, sailkatzen eta ordenatzen duen errealitate sozioekonomikoa; edo Moore-kin esateko, zein modutan antolatzen duen *ekologia-mundua*. Agian gure kasuan zehatzago litzateke *ekologia-kooperatiboa* kontzeptua erabiltzea, natur-sistemak sistema soziokooperatiboarekin nola harilkatzen den ezaugarritzeko. Begirada horren erroetan diskurtso politiko eta kulturalak aurkituko ditugu, eta baita *kooperatibista* izaera eraikitzeke erabili diren iruditeriak, praktika komunikatiboak eta esperientziak. Funtsean, Arrasateko Kooperatiben kulturaren auziaren analisiari helduko diogu.

Dena den, modernitateak zabaldu duen aro historikoan, zentzu eta identitate krisiak esparru sozial orotara hedatu direla aspaldi esana dago gizarte zientzietan, Baumanek berak zioen modernitateak burdina eta hormigoiarekin eraikitzen zuen bezala eraikitzen duela post-modernitateak plastiko biodegradagarriekin (Bauman, 1996). Beraz, zailagoa zaigu identitateak lausotu diren aroan, identitate kooperatiboa eta horren baitan elementu sozio-ekologikoa zertan den identifikatzea, kasu bakoitzean eta pertsona bakoitzean faktore eta ezaugarri ezberdinak gurutzatzen baitira.

Edozein kasutan, kooperatibismoarekin loturiko identifikazio prozesuak prozesu historiko-sozial makroekin loturik badaude ere, identifikazio mekanismoak indartu daitezke egoera politiko-ekonomiko jakinetan, diskurtso propio bat eta erantzun propioa garatuz egoera larri baten aurrean. Esaterako Ortegak (2018) kooperatibek 2008ko krisialdiari emaniko erantzuna aztertzen duenean, kooperatibismoaren ezaugarri bereziak eta ezberdintze mekanismoak aipatzen ditu, gainerako enpresen aldean, kultura kooperatibo bati esker. Ikerketa horren bidez bereizgarriak nabarmendu eta egoera politiko eta ekonomiko jakin baten aurrean kooperatibagintzaren harrotasun puntu izan daitezkeen zenbait elementu aktibatzen ditu diskurtsiboki (erresilientzia gaitasuna, kooperatibisten arteko elkartasuna, berrikuntzarako prestutasuna edo lanpostuei eusteko ahalmena). Krisialdi sozio-ekologikoaren aroan ea elementu diskurtsibo horiek aktibatzen ote diren ikusi beharko dugu, edo baita elementu berririk agertzen den identitate eko-kooperatiborik eratzeko.

Bada, diskurtso politikoa eta identifikazio prozesua elkarri loturik agertzen zaizkigun bi elementu dira. AKE-ren ahultzea modernitatearen identitate lausotzearen baitan azalduagatik, irizpide konstruktibistetan pentsatzen badugu beti egongo dira berraktibatutako daitezkeen mekanismoak, eta identitatea indartzen lagunduko duten prozesu soziokulturalak, krisi egoera larri baten aurrean (ekologiko-klimatikoa kasu) abiatu daitezkeenak.

1.2.5 Kultura ekologistari buruz: Ingurumenari buruzko diskurtsoak eta uste sozialak.

Zer gertatzen da, ordea, ikuspuntu sozioekologikoaren eta ingurumenaren gaineko kezkekin? Sortu ote da AKE-ren baitan talka biofisikoaren gaineko kontzientzia eta horren aurrean ekin beharraren kultura? Soziologiatik modu desberdinetan jorratu izan da ingurugiroaren eta gizartearen arteko gaia. Dena den, larrialdi klimatikoaren eta higatze ekologikoaren etorrerak piztutako kezka ondorioz, asko hazi dira kirisialdi ekologikoa hautemateko dauden moduen eta horien definizio sozialen gaineko ikerketak. Larrialdi ekologikoarekiko dagoen pertzepzio maila, dauden diskurtsoak eta berau definitzeko modu kulturala funtsezko jakintza da trantsizio ekosozialaren bidean egin nahi den edozein proposamenerako. Trantsizio proposamenak zein lur soziokulturaletan hartu behar duen babes neurtzeko tresna baliagarria da.

Kezka sozioekologikoen jatorria arakatu denean, soziologo eta aztertzaile sozial gehienek XX. mendeko 70ko hamarkadan jartzen dute abiapuntua, sozialki eraikitako arazoa izateko jauzia eman baitzuen. Mugimendu sozial berrien arrastoan eraiki zen mugimendu ekologistak, auzia politizatu eta eztabaida politiko-sozialera ekarri zuen, muga biofisikoekin talka egiten ari zireneko mezua sozialki hedatu nahirik (Dobson, 2000). Enegia nuklearraren auziak, 1972an Erromako Klubeko txostenaren argitalpenak eta hirietako kutsadura gorakorrek kontzientzia ekologistari bide soziala ireki zioten, eta herri ekologismo baten lehen teorizazioak agertu ziren. Egin zituzten planteamenduak ordea, edozein ideia politiko-sozialen antzera ez ziren modu homogeneoan zabaldu gizartean, sektore batzuetan bestetan baino irismen altuagoa izatea lortu zuten, eta talkak izan zituzten orduan antolatua zegoen langile mugimenduarekin. Burgesiak langile mugimenduaren potentzial iraultzailea ahultzeko asmatutako kontutzat definitu zuten zenbait sindikatuk eta langile mugimenduko erakundek ekologismoa, eta helburu iraultzailetik aldentzea besterik ez zekarrela, burgesiaren mesederako. (Riechman eta Buey, 1994).

Hala, soziologia ekologikoa neurtu izan du errenta mailaren, eguneroko jokabideen eta kezka ekologikoaren arteko harremana (Van Liere eta Dunlap, 1980). Ikerketa horietan harreman adierazgarria identifikatu zen errenta mailaren eta kezka ekologikoaren artean, hau da, behar materialak ondo aseta dituzten sektore sozialetan loratzen da degradazio ekologikoaren eta krisialdi klimatikoaren gaineko ardura, batez ere inguru urbanoetan bizi diren klase ertaineko gazteengan. Soziologia mota hori egin denean, helburua zen aztertzea ingurugiroaren gaineko kezka sortzeko zein baldintza soziologiko bete behar ziren aurrez, aldagaiak identifikaturik, kezka horren eboluzioa zein motatakoa eta zein intentsitatekoa izan litekeen aurreikusteko. Ikuspegi horretatik eginiko ekarpenetan, ekologismoa sektore sozial nahiko zabaletan hedatua dagoela erakutsi dute, biztanleriaren %20 inguruan, eta iritzi hori baldintzatzen duten aldagai esanguratsuenak gazte izatea, hirian bizitzea, politikoki ezkertiarra deklaratzeko eta hezkuntza maila altua edo oso altua edukitzea da (Dunlap et al. 2000). Aldiz, ikerlari berberen arabera biztanleriaren beste %20ak modernitate produktibistaren paradigma klasikoa babestuko luke, ideologia liberaletik gertuago, industria eta finantza indartsuak edozein herrialderentzako mesedegarri direla iritzita. Gainerako biztanleri tartean erdibideko posizioak babestuko lituzke (Jones eta Dunlap, 1992). Hala ere, zehaztu behar dugu urteak igaro ahala, klima aldaketari buruzko kezka hedatu dela, eta maila

globalean herritarren %67k uste duela mundu mailako mehatxu nagusia dela; 2013an, %56ak uste zuen horrela, kezka zabaltzen ari dela baieztatu dezakegu beraz (Pew Research Center, 2019). CIS ikerketa zentroaren arabera, Espainiar Estatuko herritarren %72,1ak adierazten du klima aldaketarekin “oso kezkatua” edo “nahiko kezkatua” dagoela, eta %86,7ak onartzen du gizakiaren jarduerak eragina dela berotze globala (CIS, 2023).

Beste soziologo batzuk aztertu dute krisialdi ekonomiko eta sozialeko garaietan ingurugiroaren egoera eta suntsipenaren gaineko kezka asko murrizten dela sektore sozial eta ekonomiko ahulenetan (Buttel, 1995). Koiuntura horietan, berehalako behar materialak asetzea dute lehenbiziko kezka iturri, eta euren lehentasunen artean ez da agertzen natura zaintzeko edo inguru ekologikoa ez degradatzeko iritzirik. Alabaina, prozesu soziologiko horiek beste itxura bat hartu izan dute Euskal Herriaren kasuan. Ajangiz eta Barcenak aztertu bezala, 1970ko hamarkadan mugimendu antinuklear eta ekologista hauspotu zutenak frankismoaren aurkako borrokatik zetozen sektoreak ziren, eta tartean ez zegoen natur zientzietako elkarerik, kapital kultural handiarekin (Ajangiz eta Barcena, 2001: 29). Esan behar da hasieretako aldarri ekologista horiek langileen osasuna babestearekin eta bizi baldintza hobekuntzarekin zutela zerikusia, beraz, langile klasearen eta klase kontzientziaren penetrazioa handia zen euskal ekologismoan. Horrez gain, abertzaletasun iraultzailearekin eta autodeterminazio nahiekin bat egin zuen sarritan mugimenduak eta horrek beste sektore sozial batzuetara zabaltzeko aukera ireki zion, Lemoizeko zentral nuklearraren kasuan adibidez, berau eraikitzea Euskal Herriari bere erabakitze eskubidea ukatzeko tresna zela iritzita (Ajangiz eta Barcena, 2001: 30). Kezka ekologistaren konposizio soziologikoa aldatu daiteke, beraz, herrialdez herrialde, tokian tokiko errealitate politikoak eta borroka sozialak baldintzatuta.

Ingurugiroaren gainean dauden uste sozialen azterketara itzuliz, gizartean ekiten duten subjektuek natura eta gizartearen arteko harremanari zein esanahi emanen dioten da intereseko zaiguna soziologia kualitatibo kulturalaren ikuspegitik. Ingurugiroaren soziologiari egiten zaion kritika nagusietako bat eredu psikologizistak eta hautu arrazionalaren teoriakoak erabiltzea da (Cerrillo, 2010). Perez-Agote soziologoak (1979) ingurugiroaren gainean dauden diskurtso produkzioak ikertu zituen 1960ko eta 1970ko hamarkadetan mendebaldeko gizarteetan. Sachs (1971) soziologoaren lanak hartu zituen oinarritzat mendebaldeko gizarteek arazo ekologikoaren aurrean hartzen zituzten jarrerak ikertzeko. Honako sailkapen honetan bildu daitezke jarrera nagusiak:

Taula 3. Ingurugiroari buruzko iritzi korrontekak.

| | Diskurtso-kokapena | Larrialdi sozioekologikoaren gaineko definizioak eta esanahi sozialak. |
|--|------------------------------|---|
| | Kontserbazionistak | Ingurugiroa suntsitzen ari da gero eta azkarrago eta ondorioz herritarrak antolatzeke deia egiten dute. Ordea, proposatzen dituzten ekintzek kutsu kontserbadorea daukate eta ez dute errealitate soziopolitikoan eragin nahi. Ingurugiroaren mantenua balio kontserbadoreekin lotzen dute. |
| | Negoziotik eratorriak | Industria eta enpresa sektoreetatik eratorritako diskurtsoa da. Bi ikuspegi nagusi daude: batetik, ingurugiroaren suntsipena enpresen |

| | | |
|---|---------------------------------|--|
| Azalpen ez-kritikoak: Larrialdi sozioekologikoa ez dute sistema sozioekonomikoarekin harremanean jartzen. | | lehiakortasunerako eta irabazien mantenerako mehatxutzat hartzen da; bestetik, beortze globalak eta horrek berarekin dakarren eraldaketak negozio iturri berrietarako aukera ere badirela sostengatzen dute. |
| | Neomalthusiarrek | Argudiaketa honen arabera, kontraesan konponezina dago mundu mugatu eta hazkuntza ekonomiko infinituaren artean. Horrenbestez, baliabideen banaketa desorekatuak ezinbesteko dira. Hirugarren munduko herrialdeak ezingo dira sekula mendebaldearen garapen mailara iritsi. |
| | Erakunde-zaleak | Lege eta araudien premia aldarrikatzen da diskurtso korrante erakunde-zaleatik. Norbanakoaren ekintza gutxiegi izaki, mugak eta legedi zorrotzak aplikatzearen beharra nabarmenetzen da, degradazio ekologikoari aurre egiteko. |
| Azalpen kritikoak: Larrialdi sozioekologikoa ulertzeko testuinguru sozioekonomikoarekin lotzea beharrezko jotzen dute. | Langile klasea lehenbizi | Korrante honek bai jartzen du harremanean suntsipen ekologikoa garapen eredu batekin. Alabaina, klase ertain eta altuen kezkatzat jotzen dute, langile eta herri klaseek bestelako lehentasunak dituztela iradokiz. |
| | Herri ekologismoa | Azken korrante diskurtsiboaren arabera, lotura zuzena dago arrisku ekologikoen eta herri klaseen osasunarekin. Iraultza industrialaren hasieratik, langile klase ezberdinak arrisku ekologiko handiak jasan behar izan dituzte. Ekologismoa, beraz, eraldaketa sozialerako bide zuzena da. |

Iturria: Taula hau Requena i Mora (2015: 187) lanean oinarritu dugu.

Taulan agertzen den sailkapenak tipo idealak sortzeko balio diezaguke, betiere kontuan izanda aztertuko dugun errealitate sozialaren ezaugarriak oso desberdinak direla. Dena den, Sempere eta Riechmann-ek (2000) ohartarazi moduan, gabezia bat sortzen da mendebaldeko gizarteek ingurugiroarekiko adierazten duten kezka mailaren eta euren ekintzen artean. Horrek bi gauza iradoki ditzake: I) gizarteko sektore sozial eta politiko askotan adostasuna dago ekintza sakon eta eraldatzaileak premiazkoak direla gizarte jasangarrietara iristeko. ii) komunikazio gabezi bat sortzen da datu errealean eta horren itzulpen praktikoaren artean. Datu zientifikoek konsistentzia handiko errealitatea irudikatu arren eta horren gaineko *kezka* edo *ezinegona* adierazi arren, egiak ez dauka itzulpen politiko eta praktiko zuzenik.

Arrasateko kooperatibismoan ingurugiroarekin lotutako zein diskurtso korrante gailentzen den aztertzea dagokigu. Hipotesi bezala, negoziotik eratorritako korrantea bezainbat lerro kritikoa ere topatuko dugula aurreikusten dugu, komunitatean oinarritutako esperientzia sozioekonomikoa izaki. Dena den, ingurugiroaren eta kezka ekologikoaren gaineko diskurtso produkzioa Arrasateko Kooperatibismoan nola lurreratzen den aztertzeraz sartu aurretik (ekologiarekiko jarrera sensible batek asko erraztuko luke horren gainean *politikoki* ekiteko aukera), Riechmann eta Fernandez Buey-k (1994) ekologia ulertzeko moduen gainean egiten duten sailkapena aipatzea intereseko zaigu, zein ulerkera gailentzen den ikusi ahal izateko azterketa soziohermeneutiko batetik. Hiru ikuskera kultural handi bereizten dituzte: kontserbazionismoa, ambientalismoa eta ekologismoa.

Lehenak, naturaren babesak bilatzen du, jada emana eta egina dagoenaren mantenua. Paisaiak, ekosistema bizietan bizi diren espezieak eta naturgune handiak dauden bezala lagatzea eskatzen dute, bertan esku hartu barik. Ikuskera honetan parte hartzen dutenak, autoreen sailkapenaren arabera betiere, ez dira politikoki eragiteko jaio, tokian toki dauden babesleku ezberdinak gordetzea nahi dute, baina ez diote erreferentziarik egiten euren inguruaren higitze ekologikoa eragiten duen kausa ekonomiko eta politikoei. Bigarrenik, ambientalismoztat joko dituzte ikuskera antropozentriko batetik, bizi kalitate hobea baten alde mugitzen diren taldeak. Horien arabera, giza osasunarentzat kaltegarri izan daitekeen produktu naturalen eta lur, ur zein aire garbiaren defentsa egiten dute. Alabaina, ez diote kontsumo eta ekoizpen eredu nagusiari kritika estrukturalik egiten. Azkenik, ekologismoa daukagu, eta berotze globala, deforestazioa, ur edangarriaren murriztea eta abar eragiten duen garapen ereduaren osotasuna salatzen du. Horregatik da ekologia politiko, eremu politiko, ekonomiko eta sozialean berregituraketa sakona eskatzen duelako.

Bada, natura eta gizarte sistemen arteko harremana aztertu izan dituzten ikuspegi berrirakurketa hau, tesiaren beharrezko gertoki izateaz gain, begirada bestelako hurbilpen teoriko batzuetara zabaltzeko justifikazio ere bada. Doktoretza tesietan ohikoa ez den artefaktu teorikoa bilatu dugu, beraz, kokapen heterodoxo bat geure eginda, errealitatearen ertz ezberdin gehiagotara iristeko aukera emango digula iritzita. Modu horretan justifikatu nahi dugu marxismo autonomotik egindako ekarpenak (globalizazio ekonomikoak ekarritako klase sozialen egituratze berriari dagokionez, edo lan forma kognitiboen inguruan) edo subjektibotasunaren gaineko teoria psikosozialek, gaurko kooperatibismoan beratsen ari den errealitate soziokulturala ulertzeko funtsezko gakoak ekarri ditzaketela. Uste dugu, eraikitzen dihardugun marko interpretatiboari oinarri sendoagoak jariko dizkiogula horrela. Globalizazio ekonomiko neoliberalak gizarte formetan ekarritako eraldaketa sakonak, eta subjektibotasun produkzio garaikideak, egiturazko azalpen soziologikoak ekarritako dizkigu, Arrasateko Kooperatiben gaurko egoera eta hark krisi ekosoziala planteatzeko duen modua ulertzeko.

2. KAPITULUA

**Aro post-fordistaren etorrera,
soldatapeko gizartearen ketzea.
Subjektibotasuna balio sorkuntzari
emana**

2. Aro post-fordistaren etorrera, soldatapeko gizartearen ketzea. Subjektibotasuna balio sorkuntzari emana.

Kritika ez da buruaren pasio bat,
pasioaren burua baizik.
Karl Marx

Krisialdi sozio-ekologikora gerturatzea eginda eta kooperatibismoak bertan dituen erronketara hurreratzea gauzatuta, datorren kapituluaren krisialdi sozioekologikoak eta lan-harremanek jokatu behar duten joko-zelaiaren deskribapena egitera gatoz. Krisi ekologikoaren etorrera historikoa ulertzeko, bertan eragiten duten prozesu sozialen ezagutza edukitzea ezinbestekoa zaigu, modu horretan zehatzago marraztu ahalko dugulako planetaren suntsipenaren aurka doazen alternatiben mapa. Eginkizun horretan, beraz, bi prozesu sozial garaikideren ganean jarriko dugu arreta, aro post-fordista likidoaren etorreran eta subjektibotasun produkzio garaikideetan. Ikusiko dugun moduan, biek modu determinantean jarduten baitute krisi ekosozialaren labirintoa are gehiago estutzen. Ariketa hori egiteko lanaren soziologia italiar kritikoa¹⁵ eta neoliberalismoaren gaineko teoriko psikosozialetan oinarrituko gara.

Gaurko kooperatibismoak aurre egin behar dion testuinuguru globala eta bere eraginak ulertzeko, helduleku teoriko berriz hornitu beharra du mugimendu kooperatiboak. Premia horren funtsa, aro post-fordistak ekarri dituen lan moduen eraldaketa, mundu ikuskera berriak eta gizartearen klase-egituraren gertatutako eraldaketak azaltzeko dagoen beharra da, kooperatibismoak errealitate ekonomiko-politiko aldakor eta malgu horretan egin behar baitu igeri.

Esaten ari garenak baditu inplikazio batzuk, eta horien jakitun, argipen batzuk egitea ezinbesteko zaigu. Batetik, aro post-fordistari buruz ari garenean, gaurko ekoizpen eta kontsumo ereduak murgildua dagoen koiunturari egiten diogu erreferentzia non Arrasateko Kooperatibismoa txertatua dagoen. Bestetik, aro post-fordistaren etorrerak gizarte eta ekonomia bizitzan zein subjektu garaikidearen konfigurazioan aldaketa esanguratsuak dakartzala esaten ari bagara, aldaketa horiek AKE-n zein eragin zehatz duten azaldu beharko dugu. Gure irudiko, lanaren berregituratze sistemiko horrek inplikazio zuzenak ditu kooperatibismoaren egoeran, zor zaion komunitate sozialaren morfologia ere eraldatu baitu. Hala, sakoneko prozesu psikosozial horiek eragina dute kooperatibismoaren transmisioan, bere atxikimendu mailan, pentsamendu-oinarrietan, eta nola ez, erronka sozio-ekologikoari aurre egiterako garaian.

Bada, kapitulu honen lehen zatian, kapitalismoaren analisi garaikidean, lanaren eraldaketan eta fordismotik-postfordismorako jauzian zentratuko gara. Lanaren munduak bizi izan dituen eraldaketen marko historiko orokorra zehaztuko dugu horrela, Arrasateko Kooperatibismoak izandako bilakaera ulertzeko gako zentralak ipiniz. Zeregin horretarako, tesi honen apustu teoriko modura erabiliko ditugu *post-operaismo* italiarretik egindako ekarpenak, kapitalismoak hartzen dituen forma berrien eta bere eraginaren gaineko ikuspegi teoriko landua dutela iritzita. *Post-operaismoaren* eskolak

¹⁵ Pentsamendu oinarri horietan sakontzeko Università degli Studi di Bolognan egindako egonaldia baliatu dugu, lehen eskutik ezagutuz lanaren eta ekonomiaren soziologiatik formulatu diren teoria horiek. Italia izanik bereziki eremu horretan emankortasun intelektuala izan duen lurraldea, bertan ezagututako lan-ildoek eta Federico Chicchi irakaslearen laguntzak, artefaktu teoriko honen eraikuntza burutzea ahalbidetu du.

lanaren eraldaketaz eta kapitalismoaren jarduteko moduez egiten duten irakurketez bustita daude ondorengo orrialdeak. Alabaina, ez dugu testu nagusian haien teoriaren argipen sakonik jaso nahi izan. Eskola horren oinarriak hobeto ezagutzeko, eranskin teorikoetan *Pentsamendu emantzipatzaile autonomoa, kate-muntaiatik askatuz. Post-operalismoaren oinarriak* epigrafea irakurtzera gonbidatzen dut irakurlea.

Teoriko italiar *post-operaistek* azken hamarkadetako kapitalismoak eta ekoizpen eredu post-fordistak izan dituen eraldaketetan ekarpen aberats eta iradokitzaileak egin zituztela iruditzen zaigu, lanaren eta ekonomiaren soziologiatik batik bat. Aldi berean, Deleuze eta Guattariren pentsamenduarekin eginiko topaketarekin lanaren mundua beste koordenada batzuetatik pentsatzeko ariketa intelektuala egin zuten. Lurralde teoriko horretan arakatzeko balioko digu geure gizarteetan gaur bizi ditugun funtsezko prozesuen berri izateko. Ondoren, irakurketa horiek beste gogoeta soziologiko batzuekin osatuko ditugu. Arrasateko kooperatibetan konfiguratzeko diren praktika sozialen inguruko azterketarik ez da egin oraindik ikuspuntu teoriko horretatik, hortaz, aro garaikide post-fordistan eraiki den lan eremu kooperatiboaren ezaugarriak xeheago identifikatzeko, deskribatzeko eta ikertzeko balioko digu. Zehazki, fordismotik post-fordismora emaniko trantsizioaren gainean egiten duten irakurketan, lanaren eta bizitzaren arteko uztarketa biopolitiko gertatzen ari dela identifikatzea potentzia handiko gaia iruditzen zaigu, gaurko mundu kooperatiboa azaltzeko.

2.1 Fordismoaren egituratzea, masak lantegian.

Aro fordista ulertu gura badugu, lehenik eta behin soldatapeko lanaren etorrera historiko modernoan jarri behar dugu begirada, izan ere, garai modernoan industria kapitalismoari zutabe egonkor bat eman dion kontzeptua da soldatapeko lanarena, kapitala eta lanaren arteko gatazka nolabait arautu duena. Fenomeno erabat moderno horrek geure gizarteetan duen zentraltasuna nabarmena izan da. Marx-ek berak jada prozesu hori identifikatzen jakin zuen, hain justu, gizarte kapitalista elkarren artean lehiatu beharra zeukaten soldatapeko langileen gizarte gisa definitu zuenean. Kapitalismoa hedatu eta errotu aurreko gizartei begiratzean, garbi ikusi zuen sustengu materialerako giza taldeek erabiltzen zituzten egitura nagusiak ahaidetasun-egiturak zirela. Bestela esanda, ezkontzek eta beste egitura familiarrekin ezarritako harreman pertsonalek baldintzatzen zuten erreprodukzio sozialerako lana.

Zentzu horretan, Marx-ek XIX. mendeko gizarte irakurri zuenean jada soldatapeko lanak hartu zuen dimentsioaz jabetu zen, gizarteko arau behinena izatera iristeraino. Erreprodukzio sozialerako beharrezko lana ahaidetasun, kasta edota bestelako estratifikazio egituren bidez antolatu bazen, gizarte modernoaren erreprodukzio materialerako oinarritzeko egitura ekonomia kapitalistarena da, eta are zehatzago, soldatapeko lanaren bueltan antolatzen den arau multzoa:

“Aro kapitalista ezaugarritzen duena, beraz, zera da: langilearentzat, bere lan indarra merkantzia bilakatzen da, eta bere lana soldatapeko lan. Bestalde, une honetatik aurrera orokortzen da lana merkantzia forman saltzearena (...) Forma horren azpian xurgatzen zaio gainbalioa bere ekoizle zuzenari, hots, langileari; horrek bereizten du aurreko

formazio ekonomiko-sozialekiko, adibidez, gizarte esklabuekiko zeinaren oinarrian eraiki baiten soldatapeko lanaren gizartea.” (Marx: 1867: 207).

Lanaren ulerkera modernoaren aurrean gaude, beraz, jarduera bat burutzeko forma intuitibo batetik, arrazionalizazio ekonomikora igaroko dena eta soldata-harremanak arautuko duena (Gorz, 1995). Modernizazio kapitalistaren etorrera historikoak ekarri zuen ekoizpenerako harreman sozial forma ohikoena izan da, gizartea klase-egituretan bereizten duena, eta aro fordistaren forma sozialaren bizkarrezur izan dena. Robert Castel soziologoak definitu izan duen bezala, *Soldatapeko Gizartea* (Castel, 1997). Soldata harreman sozialerako forma nagusi bezala agertzean, tipologia soziologiko berri baten jaiotza ekarri zuen fordismoan, masa-langilearen kontzeptuarekin definitu dezakeguna. Masa-langileraren tipo ideala gizon gaztea litzateke, formaziorik gabea, fabrika zeregin errez eta errepikakorrak burutu behar dituena. Bere lanaren ezaugarri erraz horrek eta sektore sozial zabal bateko kide izateak ordezkagarri bilakatzen du masa-langilea, edozein unetan kaleratua izateko arriskua dauka. Kualifikaziorik gabeko lan-indarra saltzen zuen, beste milaka pertsonak bezala, bizitzeko oinarrizko bitartekoetara sarbidea edukitzeko.

Aipatzekoa da, besteak beste, 60ko hamarkadan gertatzen ari ziren gizarte eraldaketa erraldoiak, egitura sozioekonomikoan bereziki. Landa eremutik hirira joandako nekazariak, lan merkatuan murgiltzen ari ziren emakumeak edo gazte belaunaldi proletarizatuek kualifikatu gabeko eskulan kopuru erraldoia jartzen zuten enpresen eskura, kate-produkzioan erraz ordezkatu daitekeen pieza bailiran. Luckacs-en (1969) berbetan esateko “langilea ekoizpen prozesuan ez da zenbaki abstraktu bat besterik, tresna osagarri bat, mekanizatua eta arrazionalizatua dagoena”.

Masa-langilearen hedatze soziologikoa ez ezik, soldatapeko harremanaren egonkortzeak izan ditu ere beste zenbait ondorio kapitala eta lanaren arteko harremanetan. André Gorz-en arabera, itun sozial fordistan ezartzen den harremanean langileek negoziazio kolektiboa darabilte euren baldintzak hobetu eta aberastasunaren banaketan zati handiagoa irabazteko (Gorz, 1995). Ordea, harreman horren subordinazio kokapena onartzean langileak arrazoitzeko era kapitalistaren parte egin direla kritikatzeko du autoreak, euren egoera errotik aldatzeko baldintza oro deuseztatuko lukete horrela, bere iritzian.

Izan ere, gizarte fordista lantegiaren zabalpen modura ulertu liteke ondorengo zentzuan: lantegia zen gizartearen pultsua zeraman eragilea, eta bere egiteko modu dizipilinatua bizitza sozial eta ekonomikoaren gainontzeko esparruetara hedatzen ziren. Zentzu horretan, Henry Ford-ek (hortik fordismoa) ordezkatu zuen enpresari industrial modernoaren paradigma. Bere autogintza fabrika Lanaren Antolaketa Zientifikoaren bidez, produkzio eraginkor eta ordenatuagoa ezarri zuen, kate-muntaiaren metodoa erabilita. Eredu horretan, milaka langile fabrika berean aldi berean lanean egotea nahi zuen Ford-ek, bakoitzak ekoizpen-katearen alor zehatzaren gaineko ardura eduki zezan. Zeregin bakoitza eta denbora tarte bakoitza zehazki neurtua zegoen, erlojua bera fabrikaren taupadaren gidari bilakatzeraino.

Azterketa soziologiko ezberdinek erakutsi zuten, langilearen ulerkera makiniko horrek, alienazio prozesuan sakontzeaz gain, bere lanaren gaineko autonomia erabat ezabatzen zion langileari, erregimen diziplinario oso zorrotzaren pean. Ford-entzat, bere lantegian lan egiten zuten langileek beraiek ekoiztutakoa ondoren eurek erostea zen

egokiena, masa-kontsumoari eskerrak. Hala, autoak erosteko aukera ematen zuen soldata ordaintzen zuen Ford-ek, ekoitzi-kontsumitu-ekoitzi espiralean sartzeko langilea. Hor Robert Castel soziologoak *soldatapeko gizartea* deitu izan duenaren mamia: gatazka sozial baxua eskubide sozialen, ongizate estatuak bermaturiko erakunde publikoen eta kontsumo gizartera sarbidearen truke. Ezin da baztertu ordea itun fordista hori II. mundu gerra odoltsuaren eta blokeka banatutako geopolitikaren testuinguruan ulertu behar dugula, SESB-en eredia herri eta langile klaseentzat aukerra erreal modura aurkezten zen garaian. Josep Fontana historialariak defendatu duen bezala, hori izan zen Europa mendebaldeko klase agintariak langile eta herri klaseei eskuduntzak eman izanaren arrazoi nagusia (Fontana, 2017).

Espazialki, tenporalki eta subjektiboki bizi-ibilbide aurreikusgarriak diseinatu zituen horrela paradigma fordistak. Formatu, lanbidea ikasi, lan egin eta jubilazioa lortu. Itun sozial fordistan sinaturiko eskema horrek ahalbidetu zuen akordio soziala: langileek euren mendeko izaera onartu fabrikan, oinarrizko biziraupen materialaren eta zenbait ongizate zerbitzu publikoren trukean (Castel 1997: 369). Antolakuntza sozial horren baitan eraikitzen ziren subjektibotasun motek egonkortasuna eta babesa eskaintzeaz gain, bi klase ezberdinen espektatibak betetzen zituen lurzorua ondo goldatu zuela esaterik badugu. Soldatapeko langileak leudeke batetik eta nagusiak bestetik, biak ere ustez zimendu sendoak zituen egituraren gainean eraikitako identitateen jabe, ziurgabetasun gutxirekin eta ezarritako ordena lehertzeko mehatxu maila oso bazuarekin.

Izan ere, Robert Castel soziologoari jarraituz (1997) masa erregimenean sartzean desindividualizazio prozesuak jartzen ziren martxan. Langileak, bere egoera hobetzeko nahitaez hartu behar zuen parte taldean negoziatzen ziren akordioetan, eta enpresa jabeak ez zituen langile bakoitzarekin puntuz puntu lan-baldintzak negoziatzen. Masa gizartean orokortu zen praktika horri eskerrak, estatus kolektibo ondo zedarrituak egonkortu zirela dio autoreak, eta klaseak bereiziak egonagatik, lur ziurretan zapaltzea ahalbidetu zuela soldataren ideian ardaztu zen sistema sozial fordistak. Azpimarragarria da puntu honetan lanaren eredu fordistak langileak ordezkagarri, mendeko eta alienatu bilakatzen bazituen ere, matxinatze eta lantegia gelditzeko baldintzak ere sortzen zituela. Milaka langile toki berean pilatuta egotean interes bateratuak zituztela modu nabarmenean ager zitekeen, eta ondorioz, modu eraginkorrean eten zezaketen produkzioa bera, enpresari galera handiak eraginez. Are gehiago, kate guztiak elkarmenpekotasuna zuenez ezaugarri, katea puntu bakar batean etetea nahikoa zitzaien langileei ekoizpena oztotatzeko, eta horrek negoziazio kolektiborako giharra edukitzea ahalbidetzen zien.

Arrasateko kooperatibismoa marko horretan kokatuz, nabaria da lehen belaunaldiaren diziplina maila altua, beharraren etika, sakrifizioa eta austeritatearen ideia (Azkarraga, 2017). Jarrera aszetiko hori hurbilpen erlijiosotik azaldu izan bada ere (Azkarraga, 2007) gure irudiko, lantegi-erregimenaren bueltan antolatzen zen gizarteak izan zuen eragina lehen belaunaldiaren jokabide saiatu eta sakrifikatuaren sorreran. *Soldatapeko gizarteak* egonkortasun soziala eta hazkunde ekonomiko oparorako baliabideak jarri zizkien eskura Arrasateko Kooperatibei. Ordena, antolakuntza makinikoa zein modernitatea besarkatu nahi zuen masa gizartea, funtsezko erregai izan ziren kooperatiben loraldi ekonomikorako. Ez dugu ukatzen hurbilpen erlijiosoaren garrantzia (komunitatearen garapena azaltzen duena, begirada katolikotik), baina bai esan ordena sozial fordistan

jaiotako esperientzia izanik, produkzio molde eta erregimen sozial zehatz horrek eragina izan zuela diziplinamendu sozialean eta betebeharraren zentzuan. Hau da, Arrasateko kooperatibak sortu zituzten lehen belaunaldiek lana “Jainkoarekin kolaboratzeko” modu bezala ulertu bazuten ere, ordena sozial fordista ezartzen zien menderakuntza egoera materialak behartzen zituen lan jardunaldi luzeak eta alienanteak burutzera.

Izan ere, Federico Chicchi, Emanuele Leonardi eta Stefano Lucareli (2016) soziologo ekonomikoek proposatzen duten sailkapena aintzat harturik, kapitalismoaren garapen une ezberdinek, menderakuntza forma zehatz batzuk ahalbidetu dituzte. Marxek subsuntzioaren¹⁶ kontzeptuarekin egin zuen erabilera baliatzen dute beraien analisirako. Ikusekera horretan, bi subsuntzio mota bereizten dira, alde batetik subsuntzio formala eta bestetik subsuntzio erreala.

Subsuntzio errealaren kasuan, industrializazioaren aurreko garaiak aztertzeko erabili zuten. Industriaren eta egiteko modu fordistaren aurretik, ekoizpen prozesua artisauek gauzatzen zuten batik bat, hasieratik bukaeraraino euren produktuaren sorkuntzan murgilduta egonik. Hala, Marx-en aburuz, subsuntzio errealak plano horretan jokatu zuten bere papera, langile berbera oraindik ere lan prozesuaren une guztietan presente zegoen garaietan. Kasu honetan, kapitalak ez du lortzen langilea bere produktutik erabat aldentzerik eta etengabe borrokatu beharra dauka matxinada posibleen aurka, kontrola zailagoa zaio.

Bestalde, subsuntzio formalaren kontzeptua eraiki zuen, industria iraultzaren ondotik jaio zen lan egiteko erak ezaugarritze aldera. Subsuntzio mota formalean, errealean ez bezala, langile bakoitzaren jakintza eta lan egiteko gaitasuna makinan murgildua dago, kapital egonkorrean Marx-en berbetan. Langile bakoitzaren gaitasuna atomizatu eta makinarekiko menpeko bilakatzeari esker, kapitalak balio guztia xurgatu dezake. Langileari ez dio lan-indarra saltzea beste aukerarik lagatzen, bere lanak soilik balioa hartuko baitu baldin eta makina sisteman ekarpenen bat egiteko moduan badago (Marx, 1971: 54-55).

Bi subsuntzio moduek kapitalismoak hartu izan dituzten aurpegiera ezberdinak deskribatzeko saiakera egin dute, fase historiko bakoitzean izan dituen formak adierazten ditu alegia. Bietan ere, iraunkorki mantentzen diren ezaugarriak bi lirateke: gainbalioaren sorkuntza eta esplotazioaren erabilera. Bada, Chicchi, Leonardik eta Lucarelik (2016) kapitalismoaren garapena aztertzeko eskema hau bere eginik, hiru garapen fase ezberdin identifikatzen dituzte, non subsuntzio bat edo beste erabili behar izan den gainbalio sorkuntza bizirik mantentzeko zedin:

- i) Merkatarien kapitalismoa: Artisauek ziren batez ere ekoizpen prozesuan parte hartzen zuten eragile nagusiak, beren jakintzak ezinbestekoak ziren produktuaren azken emaitzarako. Langilea ez dago berau gainditzen duen

¹⁶ Kapitalaren VI. Liburuxka argitaragabea ekarri zuen kontzeptua izan zen subsuntzioarena. Pentsalari alemaniarrak, Kanten *Arrazoiari Kritikan* aurkitu zuen hitza lehenbizi; bertan erabiltzen zen esanahia *die subsumtion* zen, *subsumieren* aditzetik eratorria, zeinak sailkapen baten baitan kokatua izatea esan nahi baitu. Kantek erabili zuen zentzuan, *die subsumtion* horrek hitz batek bestelako termino batek xurgatua izateari egiten zion erreferentzia; nolabait A hitzak B hitzak ezarritako esanahiean murgiltzera behartzen zuten, jatorrian zuten zentzua galduz beste berri bat atxikitzeko. Marx-ek kontzeptuari karga historiko-soziala erantsi zion, filosofia logikotik eremu historiko-enpirikora ekarri berba, lanak kapitalarekiko zuten subsuntzio egoera deskribatu nahian (Chicchi et al. 2016: 17).

ekoizpen sistema batean murgilduta eta lana kontrolpean izateko gaitasuna dauka.

- ii) Industria kapitalismoa: Fordismoaren agerpenarekin batera sailka dezakegun fasea litzateke. Lan-banaketa zientifikoak ardatzen du produkzioa, langilearen “lan-bizia” makinaren “lan-hilean” txertatzen da, eta ekoizpen fase orotan makina sistemarekiko erabateko mendekotasuna izango du langileak.

Bada, aurrez zehazturiko kontzeptuarekin lotuz, industria kapitalismoaren baitan antolatu zen gizarte mota fordista eta keynestarrak soldatapeko lana izan zuen subsuntzio formala instituitzeko bidea. Mundu gerraren esperientzia dramatikoak emozionalki eta fisikoki kolpatutako testuinguru historikoan, lehian eta merkatu askean oinarritutako ekonomia jarduera zalantzan zegoen, gizartearen arazo nagusiei aurre egiteko erakutsi zuen gaitasun ezagatik (Hobsbawn, 1998). “Ongizate estatu” deitu izan zaion egituratzea izan zuen prozesu horrek ondorio nagusi, batez ere mendebaldea deritzan Europako estatuetan gorpuztu eta praktikara ekarri zena. Soldatapeko lanaren zabaltzearekin, subsuntzioa onartu zuten langileek, nolabaiteko bizi egonkortasunaren truke. Soziologo italiarrek, ordea, kapitalismo garaikidearen analisia egiten dutenean hirugarren fase batean sartuak gaudela diote, zeinetan soldatapeko gizartea eta bere erakunde nagusiak lehertu diren (Chichi et al. 2016: 20), ondorengo atalean azalduko dugun bezala.

Ikuspegi sozio-ekologikotik, aldiz, gehitu behar dugu ongizate estatuaren eta itun sozial fordistaren *hogeita hamar urte zoriontsuak* kostu sozial eta ekologiko handien oinarrian egin zirela. Garai fordistako hazkunde iraunkorrek energia oparo eta merkea zein ustiatu gabeko lur eta lehengaien erabilera suhartsua egin zuen bere, batez ere ipar globaleko langile klasearen eros-ahalmenean eta kontsumo aukeretan gaitasuna handituz. Arrasateko Kooperatiben lehen urte ekonomiko oparoak ere, energia merkeak ahalbidetu zuen hazkuntza jarraitu horren markoan ulertu behar ditugu. Ezin dezakegu berdina esan, ordea, mendebaldeko herrialdeak ez diren langile eta herri klaseen egoeraz, II. mundu gerra ostean politiko-ekonomikoki egituratutako mundu-sistemak mesede egiten baitzuen kapitalismoaren herrialde boteretsuenei, lehengai eta mineral preziatuak (balio ekologiko handikoak) inportatuz, eta ingurugiro kostuak esportatuz (esaterako zabor industrialak edo negutegi efektuko gasak). 1945aren ondoren Europa mendebaldeko herrialdeetan indarrean jarri zen akumulazio eredu fordistak, beraz, jatorri fosila zuten energia iturrietan funtsatu zuen bere hazkuntza (Malm, 2021). Azpimarratzekoa da, hortaz, neurri batean Arrasateko Kooperatiba industrialen bideragarritasuna eta arrakasta ekonomikoa energia fluxu merke eta oparo horretara sarbidea edukitzeari esker izan zela.

2.2 Postfordismoaren etorrera, ziurtasunen lausotzea.

70ko hamarkadaren etorrerak egitura produktiboan eraldaketa esanguratsuak ekarri zituen. Azaldu berri dugun soldatapeko harreman fordistaren itxuraldaketa gauzatu zen (Castel, 1997), ordura arteko ziurtasun material eta sinbolikoak ahulduz. Egitura produktiboak ez ezik, gizarte eraldaketa zabal baten hasierari eman zitzaion bide. Zenbait autorek gizarte postindustrialaren kontzeptua mahaigaineratu zuten, lanbide kognitibo eta ikasiek hartu baitzuten gizarte bizitzaren erdigunea. Aldi berean, langile industrial klasikoaren figura garrantzia galtzen ari zen Europako herrialdeetan, ekonomia globalaren eta neoliberalismoaren proiektu sozialaren ondorioz, besteak beste.¹⁷

a) Lan kognitiboa, ezagutzaren gizartea.

Post-fordismoaren aroa ezaugarritzeko, Chicchi, Leonardi eta Lucareliren (2016) sailkapenarekin segituz gero, kapitalismoak hartu duen hirugarren fase batean geundeke. Fase horretan, eredu fordistan horren arrakastatsu suertatu zen soldatapeko lanaren paradigma *welfarezalea* erori da (Chichi et al. 2016: 22.) *Kapitalismo kognitiboaren* garaia litzateke. Testuinguru garaikidean, lana-kapitala arteko gatazka jada ez luke soldatak arautuko. Lan-harremanek dimentsio berriak hartu dituzte, soldata jasolearen eta enplegatzailearen arteko eredu klasikoak gaindituz. Soldatak betetzen zuen bitartekari funtzioa lurrundu da, lanpostu prekarioen hedatzea eta langile klasearen desartikulazioa izan dituen ezaugarri (Chicchi, 2020).

Post-operaismotik datozen autoreek egin irakurketan, sistema sozial kapitalistak gaur gaitasun kognitiboetan jartzen du arreta, bertatik balioa atera nahirik. Ikuspuntu honetatik, ezagutzak eta ezagutza lortzeko bitartekoek zentraltasuna lortu dute, lanaren intelektualizazio geroz eta orokorragoari bide emanda. Balioa sortzeko prozesuak geroz eta gutxiago du lotura toki eta une berean beste lankide batzuekin burutzen den jarduerarekin. Fordismoa ezaugarritu izan duen kolektibotasun hori, espazio-denbora partekatze hori lurrundu dela aztertzen dute, operaismoak definitu zuen masa-langilearen figura desitxuratzearaino.

Are, masa-langilea osatzen zuten bi ezaugarri nagusik sakoneko eraldaketa jasan zuten. Alde batetik, ekoizpena antolatzeko modua aldatu zen, jadanik ez ziren horrenbeste langile behar fabrikari. Kapitalaren zabaltze globalak eta ekonomia-mundu kapitalistaren egonkortzeak balio-kateak eta prozesu produktiboak herrialde ezberdinetan saretzea ekarri zuen, ipar globalerako balio-erantsi altuko eta teknologia garatuko sektoreak

¹⁷ Besteen artean, aipagarria da globalizazioan nazio-estatuak jokatu duten papera, fordismoko hitzarmen sozialetik post-fordismoko sustatzaile izatera igaro baita. Segurtasunaren eta ongizate sozialaren berme bazen aro historiko-sozial fordistan, ekonomia globalaren etorrerarekin merkatu-eraikitzaile bilakatu da (Jessop, 2008). Desarautze eta pribatizazio politikak jarraituz, estatuak ekonomia lehiakorrek sortzeko hautua egin du, bere biztanleria proiektu enpresarial orijinalak abiatzera bultzatuz. Robert Jessop estatuaren teorialari ezagunak xeheki aztertzen du prozesu hori *El futuro del estado capitalista* (2008, Catarata, Madril) liburuan.

gordez, eta hego globalera jardun industrial kutsakorrenak bidaliz. Hain zuzen ere, lan-indar askoz merkeagoa eta natur baliabide oparoak eskaintzen zituzten herrialdeetara. Globalizazio ekonomikoaren bizkarrezur-tesia zen merkatu-integrazio globala bilatuta, herrialdeek elkarren artean kooperatiboago eta adiskidetsuago jokatuko zutelara, denen interesekoa zelakoan. Ekonomia kateak elkarmendekoago eginik, bazkide ezberdinek hazkunderako eta ongizate sozioekonomikorako baldintzak izango zituztela. Bistan da tesi horiek ez zirela errealitate historikoan gauzatu, Mendebaldeko herrialdeak desindustrializatu ziren eta langile eta herri klaseen egoera okertu zen. Alabaina, nazioarteko kapitalak negozio borobilak egin zituen haien kapitala eta enpresak garatze bidean zeuden herrialdeen ekonomietan kokatuta, estrategikoak ziren sektoreetan. Izan ere, gogoratu dezagun erritmo bizian hazten ari den ekonomia batek ematen dituela emaitzarik onenak, errendimendu ekonomikoaren ikuspegitik. Bada, gerraostean ezarri zen nazioarteko ordena ekonomikoan egiturazko eraldaketak gertatu ziren eta lantegiaren figurak hazkunde garai horretan izan zuen garrantzia nabarmen ahuldu zen.

Ekoizpen eredu fordistik post-fordistarako trantsizioak produkzioaren sailkatze zehatzagoa ekarri zuen enpresentzat, eta jada ez zegoen beharrik ekoizpenaren fase guztiak enpresa bakarrak bere gain hartzeko, garai fordistan bezala. Kostu altuko fase produktiboak kapital globalaren bidez Hego globalera esternalizatuz, fabrika industrial klasikoaren figurak indarra galdu zuen Europako ekonomian, prozesu produktibo horiek Txina, Brasil, Hego Korea edo Asiako hego-ekialdeko *garatze-bidean* zeuden herrialdeetara garraiatuta.

Bestetik, masa-langileak subjektu iraultzaile klasiko bezala izan zuen hegemonia politiko eta kulturala ere desegiten hasi zen. *Post-operaismoak* (Paolo Virno, Toni Negri, Franco Berardi, Christian Marazzi etab.) 70. Hamarkadan dakarren berritasunetako bat, beraz, masa-langilearen kontzeptutik langile-sozialaren kontzeptura jauzi egitea izan zen. Langile soziala, forma askotarikoak dituen subjektua litzateke, fabrikatik kanpo ere jarduten duena, sentimenduak dauzkana, gustuak, zaletasunak, behar afektiboak etab. Ikuspegi horretan, lan material produktiboak ekoizpen prozesuan zeukan nagusitasuna galdu du. Lan prozesuak birkonfiguratu dira, nolabait, subjektibotasun berriak eta bestelako harreman sozial zein politikoak eratzea ahalbidetu duena. Langile-sozialaren kontzeptuarekin, gizartean subjektiboki eta produktiboki diharduen pertsona deskribatu nahi izan zuten. Izan ere, langilea jada ez da lantegian soilik aritzen den herritarra. Ekoizpen-harremanean duen kokapenez gain beste faktore azaltzaile asko sartzen dira jokoan, horien guztien arteko nahasketa eta konplexutasuna bilduko du langile-sozial terminoak.

Gakoa, beraz, bada balioa sortzeko prozesua lantegietatik atera dela, geure subjektibotasunen barrunbeetaraino iristeko. Lantegitik "lantegi-sozialera" igaro garela diote. Zentzu horretan, lantegi soziala giza-praktika orotara iristen da eta balioa edonondik xurgatzeko gaitasuna dauka, bai jardun produktiboetatik zein erreproduktiboetatik. Horrenbestez, komuna den oro xurgatzen duela defendatzen dutenean autore post-operarioek, ez dira soilik lehengaien edota ondasun naturalen inguruan ari, ditugun harremantzeko moduez edo praktika sozial zehatzez baizik.

Analisi ildo horretan, alienazio prozesu garaikideak subjektibotasun produktiboak lituzke helburu, bizitzaren eta lanaren arteko muga geroz eta lausoagoa izatea (Sanchez Cedillo, 2001). Hori litzateke hain justu eredu sozial post-fordistaren ezaugarri nagusi, muga horren lausotzea. Ezberdintasuna, beraz, balio-xurgapen mekanismoak lantegian

eta bertan burutzen den jardueran ez ezik, hortik haratago ere iritsi izana da, bizitzaren gainerako eremuak ere zeharkatzen dituen. Modu horretan, aisialdiko denbora edo denbora ez-produktiboari geroz eta tarte murriztagoa lagatzen zaio, eguneko momentu orori eskatzen zaio produktibo izatea. Aro fordistan ez bezala, lantegia-etxea-aisia hirukoa osatzen zuen ordena hautsi da, guztia dago nahasiago. Eremu erreproduktiboa eremu produktibo bilakatu da nolabait, teoria feministak azken urteetan sakonki aztertu eta landu duen bezala.

Esaterako, lan kognitiboaren etorrerak gorputzak euren artean izan duten harremantzeko modua eraldatu du (Berardi, 2016). Giza gorputzen arteko harremana jada ez du horrenbeste baldintzatzen espazio fisiko berbera partekatzeak, makinaren arteko konexioak baizik. Ezaugarri horrek, ondokoaren presentzia ulertu eta barneratzeko ditugun moduak eraldatzen ditu. Hala dio Franco Berardi pentsalariak:

“La abstracción digital suma una segunda capa a la abstracción capitalista. La transformación y la producción ya no acontecen en el campo de los cuerpos, de la manipulación material, sino en el de la pura interacción autorreferencial entre máquinas informáticas. La información toma el lugar de las cosas y el cuerpo queda eliminado del terreno de la comunicación. Luego, hay un tercer nivel de abstracción, que es el de la abstracción financiera. Las finanzas se han desvinculado de la necesidad de la producción. El proceso de valorización del capital, es decir, aquel que incrementa el dinero invertido, ya no pasa por la instancia de la producción del valor de uso o, incluso, por la producción física o semiótica de bienes” (Berardi, 2016: 176-177).

Bada, langilearen gogo-arima bera itxuraldatzen da. Giharren eta eskuen indarra erabili ordez, indar intelektuala erabiltzen da gehienbat. Eraldaketa sozial horren funtsetako bat, eta guri Arrasateko Kooperatibismoa aztertzeko baliogarri zaiguna, lana-ren kontzeptuaren eraldaketa baten aurrean gaudela da. Hau da, modu kapitalistan lanari eman zaion definizioak beste esanahi eta itxura bat hartzen du aro post-fordistan. Lanaren ezaugarri fisikoak aldatu diren moduan, lanaren ulerkera kulturalak ere eraldaketak jasan ditu, jada ez da ibilbide egonkor eta segurua bermatuko duen eremu soziala (Castel, 2003). Industriaren gizaretik ezagutzaren gizartera pasa izanak, kate muntaian lan egiten dutenen zeregin errepikakorrak murriztuko lituzke bestelako lan forma kognitibo eta sortzaile batzuen mesedetan, Durkheimen definitutako “lan banaketa” klasikoa gaindituz.¹⁸

Richard Sennet izan da gizarte ikerlari aipatuenetarikoa zentzu horretan, sakonki aztertu baitu lana egiteko moduen “malgutasunak” pertsonaren izaeran bertan duela eragina. Soziologoaren iritzian, lanaren malgutasunak pertsonen bizitzaren oinarriko sostengu izan diren zutabeak zartzeko gaitasuna du (Sennet, 2006). Ingurukoekin ezarritako ibilbide luzeko harremanak, gogo-barruetan sakonki erroturiko balioak edota bizitzan ipartzat hartu izan diren erreferentziak lurruntzen dira, ez dute babes psikologiko eta soziala eskaintzeko ahalmenik, epe fordistan edo modernitatearen hasieretan nola.

Aditzera ematen denez, bizi ibilbideak lineala izateari utzi dio gizarte eredu post-fordistan, lanak hartu dituen forma berrien ondorioz batez ere; gaur konfiguratzeko ari den lan modu nagusiak ez du marko egonkor aurreikusgarri irudikatzea ahalbidetzen,

¹⁸ Durkheimen lan-banaketa kontzeptua klasiko bat da analisi soziologikoan: bere teorizazioaren arabera, industria modernoak joera du lan produktiboan dauden zereginak modu arrazional-eraginkorrean banatzeko, ia infinituraino. Horri esker, gizarte elkartasun organikoko egoera batera iritsiko litzateke, langile guztien mesedetan, lan banaketa *anomikoa* den egoeratik ateratzeko aukera emango lioke eta. E. Durkheim, *La división del trabajo social*.

geroz eta konplexuagoa da harreman sare solido eta epe luzerakoa eratzea lanaren esparruan. Bestela esanda, gizarte garaikideak zailtasun handiak ditu segurtasuna produzitzeko, norbanakoari leku egonkor eta asegarri bat eskaintzeko (bai sozialki zein psikikoki). Ekoizten den aberastasun sozialera sarbide egonkor bat edukitzea korapilatsua bilakatu da sektore sozial zabalentzat. Sistema sozialetik kanpo geratzeari beldurrak (lanaren prekarizazioaren bidez, etxegabetzeak, bizirauteko oinarritzko errentak lortzeko zailtasunak...) eta etorkizun laboralaren ziurgabetasunak ezaugarritzen du lanaren aro berria. Lanaren iturri egonkorretik deserrotze horrek, ibilbide alternatiboak bilatzera bultzatzen du langile garaikidea.

Sennet-en arabera, etengabeko trantsizioan dagoen eremu bilakatu da mundu profesionala, aurrez eskatzen ziren leialtasun eta errotze sozialez hustua. Harreman puntualek, behin-behinekoek hartu dute erdigunea, lege orokor gisa instituitu dira. Ibilbide biografikoa etenez eta urradurez osatzen dugu, komunitatea baldintza sendoetan garatzeko ez-gai. Horra hor Sennet-ek dakarren ohartarazpena, epe motzean eta berehalakotasunean eraiki den kapitalismoak, pertsonen izaera bera ezaugarri horien esanetara belaunikatzea ekar lezake. Are, inguruko kideekin lotzen gaituzten eta nortasuna eraikitzea ahalbidetzen diguten elementuak mehatxupean daudela aztertzen du.

Eraldaketa soziologiko zabal horretan, ulertu behar dugu, Arrasateko Kooperatiben baitan gertatzen ari den identitate krisia, aurrerago ikusiko dugun legez. Lanaren gaineko ikuspegi horrek, lotura sozialen eta leialtasun partekatuen haustura baditu ezaugarri, zailagoa izango zaio norbanakoari proiektu kolektibo batekin identifikatzea, zentzu integralean. Norbere interesak lehenetsiko dira, komunitatearenaren aurretik. Arrasateko Kooperatibetan lan egiten duen langile gazte berriak ez du bere burua kooperatiba batean epe luzean irudikatzen, behin-behineko lan modura interpretatzen da, seguruenik lan merkatu aldakorrek lanpostuz aldarazi beharko duela barneratuta. Kontua ez da kooperatiben gainean balorazio moral okerragoa daukatela, edo ez dituztela kooperatiben balioak gustuko, baizik eta ordena sozial fordistan bizitzak egituratzeko zeuden moldeak eta harek ezartzen zituen leialtasun markoak (familian, herrian, enpresan, alderdian...) urtu direla.

Konfigurazio soziologiko berri horretan, aipagarria da ezagutzaren eta lan ez-materialaren agerpenarekin osatu den klase konfigurazio berria. Berger soziologo entzutetsuak aztertu bezala, unibertsitateko ikasketetara sarbidea izan duen klase ertain berri baten agerpenaren aurrean gaude, komunikazioaren alorrean, sektore ezberdinetako aholkularitzan edota lanpostu teknikoetan dabiltzanak lanean (Berger, 1989). Klase ikasi horrek mendebaldeko gizartearen egitura soziologikoa itxuraldatu du, eta ongizate estatuaren balioekin zein klase zapalduetikiko begirunearekin jarduten dute Bergerren arabera. Era berean, aipagarria da sektore ikasi horrek langile industrial klasikoarekin izan duen tentsioen gorakada, helburuetan, bizi-estiloetan eta mundu-ikuskeretan, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan. Ezagutzaren eta lan ez-materialaren gizartean, beraz, langile identitatearen ahultze prozesua nabarmena izan da, mundu profesionalaren ezaugarri berriek eta nazioarteko lan banaketak eragina, besteen artean. Marxismoaren senean, Andre Gorz berak ere, langile subjektuaren gainbehera identifikatu ondoren, klase-borrokaren zentraltasuna ukatu zuen eta beste subjektu bat pentsatu behar zegoela aldarrikatu (Gorz, 1980). Post-fordismoaren

agertoki historikoan zentzua galtzen zuelako langile klase iraultzaileari buruz hitz egiteak.

Mendebaldeko gizarte garaikidea azaltzeko garatu diren teoria soziologiko horiek, ordea, merezi dute ikuspegi ekosozialetik ñabardura. Ezagutzaren gizartea edo ez-materiala analisirako kontzeptu bezala erabili badaiteke ere, materiagabetze hori ezin liteke ulertu kapital globalaren berregituraketa eta balio-kateen konfigurazio garaikidetik salbu. Geure gizarteen oinarrian dagoen kontsumo material altuak prozesu produktibo industrialen premia du, beste lurralde batzuetara garraiatua izan dena mendebaldeak ekonomia-mundu kapitalistan duen botere-posizio hegemonikoari esker. Zibilizazio krisiaren sintoma agerikoen aurrean, beraz, ezagutzaren gizarteaz aritzea analitikoki nahasgarria izan daiteke, berau posible egiten duen oinarri material erraldoiaren auzia estaltzen baitu nolabait. Esan gabe doa, azken hamarkadetan langile eta herri klaseen konfigurazioan eta geure gizarteen eredu sozialetan gertatu diren eraldaketa horiek balio-kate globalen eratzeari eta produkzio industrialak atzerriratzeari esker izan direla posible. Krisialdi sozio-ekologikoaren baitan balio-kate globalen uzkerdura edo desagitea aukera erreal modura irudikatzen dute autore ugari, eta ezagutzaren gizartearen oinarri materialaren auzia bere gordintasunean agertzeak lan kognitiboaren edo ez-materialaren kontzeptuen berrikuspen sakona eskatuko du nahitaez, produkzio materiala berlokaltatzearen bidetik.

b) Post-materialismoaren tesia.

Eredu sozial post-fordistaren analisiaren harrietatik tiraka, bere dimentsio kulturalen post-materialismoaren tesiarekin egiten dugu topo. Post-materialismoaren tesi ezagunak ordena sozial fordistaren desagiteak ekarri zituen munduan egoteko modu kultural berrien azalpena eman gura izan zuen. Bada, lanaren zentzu sozialaren bilakaera aztertzen saiatu ziren autore entzutetsuen arabera (Inglehart, 1991; Touraine, 1993) etxea, familia eta bizi ibilbide materialki hornitua nahi izatetik, autoerrealizazioa, esperientzia eta harreman asetzaileak nahi izaterako jauzia gertatu zen post-fordismoan.

Soziologo horien tesiaren arabera, bestelako sozializazio prozesuak garatzen dira balioen eskalan, eta lorpen materialak jada ez dira lehen mailako helburu izango, soldatapeko gizartearen garaian bezala. Nahiagoko da autonomia indibiduala izan, eta talde zein instituzio sozialekiko leialtasuna ez da horren zurruna izango. Oinarrizko lotura sozialen trinkotasuna urtzen da nolabait, familian, lagun-taldean edota aberri, klase, zein erlijioarekiko harremanean, Giddens-ek definitu zuen destradizionalizazio prozesuaren ildoan (Giddens, 1994:100). Giddens-en arabera, modernitate berantiarreko norbanekoek ez dute ohituren eta tradizioen lur segurua zapaltzen, dena lausoago bilakatu da, ez dago ziurtasun sendoak eskaintzen dituen azpiegitura sozial eta kulturalik. Gizarte postradizionaletan egiten diren hautuak, beraz, gehiago daude norbanakoaren behar inmaterialak asetzerantz bideratuak, tradizioen errepikapena gauzatzera baino. Hortik modernitate *experimental* batera emaniko jauzia (Giddens, 1994:79).

Esan behar da, hala ere, modernitateko gizarte ororengan ez duela eragin berbera izan; bizi-estilo eta balioen eraldaketa hori aztertu dutenean, eragin nabarmenena herrialde aberatsetan eta gazte belaunaldietan izan duela aztertu da. Inglehart-ek ondorioztatzen duenez, berehalako behar materiala asetzeko oztopo handiegirik topatzen ez duen sektoreetan hedatu da gehien post-materialismoa.

Nolanahi den, zalantza dugu tesi horiek euskal gizartearen egituretara bere horretan ekartzea posible den sakoneko prozesu soziologikoak azaltzeko. Azken urteetan egindako ikerketei begiratzen badiegu, lanak gazte belaunaldien kezketan pisu zentrala izaten jarraitzen duela nabarmena da, eta ondorioz lanari estuki lotua doan kezka materiala:

Taula 4. Gazteriari loturiko kezkak.

| | 2008 | 2012 | 2016 |
|-------------------------------|------|------|------|
| Lanarekin loturiko arazoak | %63 | %73 | %56 |
| Hezkuntza eta ikasketak | %15 | %15 | %22 |
| Arazo ekonomikoak | %19 | %32 | %15 |
| Osasuna eta osasungintza | %3 | %11 | %8 |
| Etxebizitza eta emantzipazioa | %67 | %18 | %8 |

Iturria: Eustat. Observatorio vasco de juventud, 2016.

2008. urteko krisialdi ekonomikoa tarteko, lanak gazteen kezketan toki garrantzitsuena hartzen duela nabarmentzen da datuetan. Gatazkatsua da, beraz, ikuspuntu soziologiko findu batetik, euskal gizartera tesi post-materialistak bere horretan aplikatzea, alderdi ekonomiko-materialak pertsonen bizi-ibilbidean, itxaropenetan eta kezketan eremu zentrala izaten jarraitzen baitute. Era berean, langabezia egoeran dauden gazteek lanpostu bat topatzeko duten itxaropen tasa %71koa izan zen 2022. urtean, eta %77ak uste zuen hautatu dituzten ikasketekin bat datorren lanposturen batera izango zutela sarbidea (Gazteen Euskal Behatokia, 2022). Aipagarria da ere, etorkizunean dagoen konfiantza maila 2017an %75koa izatetik, 2022an %54koa izatera jaitsi dela, etorkizun hobe, autoerrealizatu eta desiragarriaren ideia indarra galtzen ari den seinale.

Beste kontu bat da, ordea, lanaren burutze horretan ze lehentasun dituzten gazteek. Klase kokapenak, ibilbide formatiboak eta kapital kulturalak pisu handia dute horretan (Zubero, 1998). Bestela esanda, autoerrealizazioa, asebetea sentitu nahia eta post-materialismoarekin identifikatzen diren balio horiek aukera-ezberdintasunarekin dute zerikusia. Lan-banaketaren egituraren *white collar* kokapenerako aspirazioa duenak bere lanbideari baldintza materialetik haratago bestelako ezaugarri batzuk eskatu diezazkioke, baina ez da orokortua ez klase ez genero ikuspegitik. Imanol Zubero soziologo bizkaitarrak hala argudiatzen du:

“Hablando con claridad, hay muchos trabajos en relación con los cuales plantear la pregunta por la “oportunidad de autorrealización” se convierte en una burla. Si además tenemos en cuenta la actual situación de desempleo masivo que hace que el simple hecho de contar con un empleo (sea este cual sea) es experimentada como una enorme suerte, el razonamiento de

W. Korpi resulta aplastante: Cuando las presiones económicas son fuertes, los individuos se ven a menudo obligados a relegar el trabajo a un papel instrumental” (Zubero, 1998: 141).

Hau esanik, ezin dugu ukatu soziologia garaikidearen eta batez ere korrante post-estrukturalisten analisisiek lanaren zentzu sozialean eta lanaren kontzeptuan bertan eraldaketa esanguratsu bat deskribatzen dutela. Ñabardura hori egin nahi izan dugu, lanaren eraldaketak sektore sozial ezberdinetan ere eragin kokatu eta ezberdinak dituelako. Honek, noski langileen autonomia, identitate-sorkuntza prozesu eta kontzientzian eraginak dauzka, eta hor egongo da geure erronketako bat, prozesu horiek identifikatzen asmatu eta xeheki azaltzen. Hain zuzen ere, geure lurrera ekarrita, azaltzen ari garen eraldaketa kultural horrek guztiak Arrasateko Kooperatibetan zein lurreratze izan duen aztertzea dagokigu, ea gazte belaunaldiek balio post-materialistak besarkatzen dituzten; edo kontrara, bizimodu modernoa ezaugarritu duen kezka materialak oraindik ere pisu zentrala izaten jarraitzen duen. Aurreratu genezake hipotesia: industriak Arrasateko kooperatibetan duen pisu zentrala kontuan hartuta, ekoizpen molde fordistaren eta hari loturiko lanaren ulerkeraren arrastoak aurkituko ditugulakoan gaude.

d) Ekonomia digitalaren zabaltea.

Post-fordismoaren agertokia eta lan kognitiboaren etorrera aztertzen ari garen kapitulu honetan ezin dugu aipatu barik utzi eraldaketa hori hauspotu duen elementu zentraletako bat; ekonomia digitalaren zabalpena. Aspaldiko amets teknologikoa da garapen teknozientifikoari esker gizakiak lan zabar errepikakorrak egiteari utziko diola noizbait. William Morris XIX. mendeko britainiar sozialistaren obrak ordezkatzeko du agian amets horren taupada utopikoa (Morris, 2015): kapitalismo industrialaren sorreran uste izan zuen makinaren fabrikazio geroz eta konplexuagoari esker, ekoizpen prozesua automatizatuko zela, eta hala, langileentzako denbora askatuko zutela, denbora libre hori sorkuntzari edo jakintzari eskaintzeko. Keynes moduko ekonomialari ezagun klasikoak ere, bere garaiko indar produktibo eta teknologikoen garapena ikusirik, ildo beretik tiraka zeuden aurreikuspenak egin zituen (Keynes, 1930). 1930ko hamarkadan aurreikusi zuen mende bukaerarako gizarte industrial aurreratuetan (Erresuma Batuari eta Amerikako Estatu Batuei buruz ari zen) posible izango litzatekeela asteko lan jardunaldia 15 orduetara mugatzea, aberastasun materialari uko egin barik.

Ordea, Keynes-ek edo Morris-ek egindako aurreikuspenek ez dute itzulpen zuzena izan errealitate historikoan. Lan jardunaldi luzeek ezaugarritzen dituzte XXI. mendeko lan-merkatuan eskaintzen diren lanpostuetako asko. Saskia Sassen (2010) autoreak, teknologiaren garapenak lan prozesu luzeagoak ahalbidetzen dituela dio, egun eta gau, langilearen denbora are gehiago kolonizatzen dela.

Roberto Cicarelli irakasle italiarrak ere ildo bertsutik egiten du oharra, esanez egun kapitalismoak sustatzen dituen lan modu digitalak, urrun daudela sozialista utopikoek amestu zuten lanaren bukaera horretatik (Cicarelli, 2017). Are, automatizazio eta digitalizazio prozesuak lan-indarra oraindik gehiago estutzen du, ordainsari bajuekin eta lan-ordu kopuru gehiagorekin. Ikerketa eskola oso bat ari da ekonomia digitalak ekarri

ditzakeen hobekuntzen inguruan ikertzen. Hala, aipagarria da Van Ark (2016) ikerlariaren lana. Frogatu duen bezala, momentuz ezin da baieztatu ekonomia digital berriaren eta produktibitate-tasa gorakorren arteko harreman zuzena, nahiz eta autorearen ustean eremu horretatik produktibitate-tasan lorpen esanguratsuak etortzeko potentziala dagoela aipatu.

Datuek erakusten dutenez, ezin dugu esan lana desagertzen ari denik, lan-indarrak egunero dihardu ekinean (Cicareli, 2017). Baldintza oso desberdinetan bada ere, digitalizazioak ez dakar lanaren desagertzea edota jarduera-tasaren jaisterik. Lana, gizakiaren ekintza etengabeko eta aldakor gisa ulerturik, edonon eta edonoiz jarri daiteke praktikan, izaera aldakorra du. Ez da egitura trinko egonkor eta aldaezina, ekintza baizik, bukatu, berrekin eta itxuraldatzen dena baldintzen arabera. Ekonomia digitalaren aroan zabaltzen diren lan-harremanak aztertzen dituen ikuspegi honetatik, argi laga dute lanaren bukaera baino, lan eredu bat dela amaitu dena, soldatapeko lanaren paradigma hain justu. Azaldu dugun post-fordismoaren markoan, ekonomia digitalak eremu produktiboa eta erreproduktiboa bereiziazin egiteko tresnak jartzen ditu eskura, etxeko espazioa eta lan espazioa batuz, esaterako telelanaren bidez.

Roberto Cicarelli soziologoaren tesia da teknologiaren garapen maila sofistikatu berri horrek esplotazio modu berriak ahalbidetu dituela. Ikuskera horretan, lan digital pobrea errazago da balioa sortzeko makinerian txertatzeko, jadanik sarean baitago eta beharrezko konexioak baititu balioa sortzen jarraitzeko. Berrikuntza teknologikoaren paradoxa nagusia produktibitatea da, izan ere, gailu teknologiko berriak langileen eskura egoteak ez dakar zuzenki langile horien ekoizpen gaitasunen hobekuntza; bai, ordea, makinaren eta plataforma digitalen produktibitate igoera nabaria, datu basea etengabe hornitzen baitute eta makinek sofistikazioan eta zehaztasunean irabazten baitute. Aztertu duenez, joera ez da laneko zereginen erraztea edo sinpletzea, makinaren hobekuntzak informazioa behar du, datuak, norbait pantailaren beste aldean elikatze lanak egiten; joera, lan gehiago eta pobregoaren zabaltzea da. Kapitalismo digitalak indartu egiten du prozesu hori, soldatak edo ordainsariak murriztuz, aberastasunaren hazkuntza eta metatze azkarragoa ahalbidetzen du. Hala argudiatzen du:

“Teknologia askatzailearen mitoa, beraz, esplotazio eta mendekotasun harremanak ezartzen dituen forma oso aurreratua da. Esklabotza lauso bat sustatzen du, intentsitate baxuan, eta deterritorializazio botere izugarri handia du. Dispositibo horietan harrapatutako subjektuek ez dute alternatibarik: uneoro behar dute egon lana egiteko prest – edota edozein zeregin onartzeko moduan – noizbait jasoko dituzten ordainsariak hobeak izango diren itxaropenarekin. Lanik ez onartu nahia norbanakoaren errutzat jotzen da, lan-indar baztergarri gisa joz. Lan eremuan eratu diren teknologia berriek xantaia morala egin ohi diete langile digital horiei, etengabe aktibo izatera bultzatuz, energia psiko-fisiko kopuru izugarri handia erabiltzera behartuz, lan-indarraren gaitasun oro mobilizatuz.” (Cicarelli, 2017: 51).¹⁹

Lanaren soziologian, ekonomia digitalaren zabalpen hori *plataformen kapitalismo* gisa definitu da. Horren arabera, datuen sorkuntzan oinarritzen den ekonomia moldea eraiki da. Ezaguna da garai industrialarekin egiten den konparaketa: kapitalismo industrialarentzat petrolioaren zena dira gaur datuak kapitalismo garaikidearentzat: urte digitala. Hor sortzen den balioa, ordea, ez dator ordaindua, kontsumitzaile bakoitzak

¹⁹ Itzulpen propioa.

bere aisialdi-denboran emandako opari gisa interpreta liteke, hau da, balorizazio prozesu batean murgildutako ariketa egiten du, bere denbora produktibotik kanpo.

Azpimarratu dezakegu gobernuen, enpresa handien eta nazioarteko eragileen erabakiak geroz eta gehiago oinarritzen direla digitalizazio prozesuak ahalbidetzen dituen datuetan. Nork duen datu horietara sarbidea argitzea funtsezko aukeria da, hor erabakitzen baitira botere hori nork ezarri ahalko duen eta herrialdeen arteko botere-konfigurazio berriak nola zizelkatuko diren.²⁰

Alabaina, herrialdeen arteko lehiatik kanpo, enpresa txiki-ertain ugaritan zerbitzuak emateko aukera erraztearekin batera, esan beharrekoa da botere-metaketa esanguratsua gertatzen ari dela, eta horrek eragin zuzena duela Arrasateko kooperatibetan. Plataforma digitalen ekonomia nabarmen hazi da, datuen jabetzak eta haien erabilerak aurrez sekula eduki gabeko informazio kopuru erraldoia eskaintzen die konpainia horiei. Informazio-sare eta datuak biltegitzeko mekanismo ezberdinak uztartuz, datuen metaketa (big data) erraldoia egiten dute posible, herritar bakoitzaren joan-etorrien, kontsumo-ohituren edota harreman pertsonalen gaineko informazioa eskuratuta. Informazio horrek, botere kokapen batean ezartzen ditu, ondoren zerbitzu enpresa ezberdinei, gobernuei edota gizartean eragin nahi duen bestelako edozein eragileri salduz. Negozio-kuota altua lortu dute, perfilak zehaztu dituzte, baita bezeroen karakterizazioa egiteko algoritmo sofistikuak diseinatu ere.

Bestela esanda, plataforma digitalen ekonomiaren eraldaketa esanguratsuenetako bat da informazioa eta datuak jarri izana kapitalismoaren erdigunean. Arrazoi horregatik esan liteke plataformen kapitalismoa beste kapitalismo forma bat dela, ekonomiaren "materiagabete" horretan oinarritua, eta botere forma algoritmikoei bide ematen diena. Bada, ekonomia digitalaren indartze horrek, ziurgabetasun are gehiago ekotzen du gizarte postindustrialean. Jada, estatuak eurek ere arautu ezin duten botere digitalek gizarte bizitzan modu determinantean eragiten dutelako. Ondorioz, geure buruari egin beharko geniokeen galdera da: nola eragin du eraldaketa guzti horrek Arrasateko Kooperatiben konfigurazio sozialean?

Zenbait teorialari sozial eta ekonomikorentzat (Huws, 2014; Casili, 2017) digitalizazioak, plataforma digitalek eta gailu teknologiko berriek lan-indar intelektual kualifikatua sortzeko baldintzak jartzen dituzte. Nolabait, eta aurrez aro post-fordistan azaldu dugun klase konfigurazio berriarekin lotura eginda, kapitalismo digitalaren lorpena litzateke lan merkatuan bere lan-indarra saldu behar duen langileak informazioa prozesatu eta aletzeko tekniken jakitun izatea. Hartara, gizarte intelektual horrek balioa sortuko luke etengabe, datuen ordenazio, egituraketa eta interpretazio molde matematikoein. Nolabait, hizkera marxistan esateko, *general intellect-a*²¹ zukutzeko aukera historikoa irekiko luke plataformen garaiak. Lan kognitiboaren etorrerak gizarteari autonomia eman diola defendatzen dute, eta ondorioz, kapitalismoaren gaindipenerako baldintzak sortu

²⁰ Nazioarteko harremanen literaturan datuen gaineko teknologien arteko lehia nagusia AEB eta Txinaren artean gertatzen ari dela aipatzen da, bertan metatzen baitira mundo mailako teknologia enpresa ahaltsuenak. Horrek, teknologikoki aurreratuak ez dauden herrialdeek menpekotasun berriak garatzea ekar lezake, hegoalde-iparraldeko harremanak birdefinituz.

²¹ Marxismoaren senean eta bereziki teorialari operaisten aldetik, arreta handia jarri da general intellect-aren kontzeptuan. Horren arabera, gizartearen inteligentzia orokorra bilakatzen da indar produktibo nagusi, eta ondorioz, balioa sortzeko autonomia du, kapitalaren beharrik gabe. Zehaztasun gehiagorako, gai hau sakontasun handiagoz landu dugu eranskin teorikoetan. Ikus epigrafea: *Pentsamendu emantzipatzaile autonomoa: kate-muntaiatik askatuz*.

dituela (Hardt eta Negri, 2011). Ñabardura egin nahi genuke ordea, eta esan, aurreikuspen horiek betetzetik urruti, lanaren deserrotze fisikoak ekarri duen ondorio zuzenetako bat migrazio kopuru handiak, deslokalizazioak eta mugikortasun tasa altuak izan direla. Bai lan-indar ez kualifikatuan zein jakintza teknologikoak eskatzen diren lanpostuetan, metropoli handietan pilatzeko joera mantendu da, eta nolabait hiriak diren egitura sozio-tekniko erraldoiak baliatzen dira balioa-sortzeko makina eraginkor modura. Ikuspegi ekosozialetik, herrien eta landa-eremuaren hustuketa esan gura du lan kognitiboaren hedapenak. Beraz, zalantza dugu, Hardt eta Negri defendatu gisan, lan digitalaren zabalpenak espazio komun berriak irekitzeko baldintzak jarri dituen, edo kontrara, are gehiago sakondu duen krisi ekosozialean.

Plataforma digital berriek ekarri dituzten eraldaketen eta arriskuen inguruan idatzi den literaturak egiten duen beste ohartarazpen adierazgarri bat, tresna digital horiek sortzen duten kontrolerako gaitasun ez-ohikoan datza (Recio, 2019). Biopolitikaren kontzeptuarekin egiten dugu topo hemen, analisi historikora Foucaultek ekarri zuen begiradarekin, hain justu (ondorengo kapituluan landuko dena). Ikuspegi horretan, korrante foucauldianaren kokatzen diren ikerlariek gobernamentaltasun berriaz ohartarazten dute, ekonomia digitalaren hedatzea kontrol mekanismo berri eta sofistikuagoekin lotuta. Edozein kasutan, botere gailuen helburua berbera litzateke: biztanleria gobernatzea, norabide jakin baterantz lerratu dadin, funtzionalak zaizkion subjektibotasun jakinak ekoizita.

Lanaren munduan historikoki egon izan diren kontrolerako mekanismoak askotarikoak izan dira, orduak erregistratzen lantegian kamerak jartzeraino. Teknologia digitalak, ordea, sektore jakin batzuetan unean bertan egiten dabiltzan jarduerak telematikoki kontrolatzeko aukera dakar, adibidez garraiolari baten ibilbidea, lantegi bateko makinaren jardura etab. Zerbitzuen sektorean ere ezartzen dira kontrol mekanismoak, dendatik atera berri den bezeroari izan duen asebetetasun maila galdetuz adibidez. Enpresak berehala dauka bere langilearen errendimenduari buruzko informazioa eskura, horrek langilearentzat dakarren gainkostu emozional eta psikikoarekin. Foucaulten kontzeptu entzutetsuarekin lotura eginik *Panoptiko digitala*-z mintzo dira zenbait hurbilpen psikosozial kritikotatik.

Alabaina, esan behar dugu gizarte diziplinarioetatik beste botere-ezarpen errealtate batera jauzi egin izanak zerikusi handia duela nazioarteko kapitalismo globalak dituen korrante, jario eta sare digital ezberdinekin. Hau da, geure gizartean hezurdura digitala bizitzaren gaineko kudeaketan modu zuzenean parte hartzen duen mekanismo bipolitiko bilakatu da, bertan garraiatzen baitira datu eta informazio kopuru baliotsuak; esaterako, botikak osatzeko datuak, biztanleriaren osasun datuak edota elikagai transgenikoak ekoizteko moduak. Bestela esanda, gizarte industrial/fordistako kontrol moduak gainditurik (subjektu otzan eta esanekoa, gorputzean/lantegian zentratutako botere jardunaren bidez), gaurko kapitalismo digitalaren kontrola gorputzean ez ezik, eskura dituen tresna, objektu eta teknologien bidez gauzatzen du.

Ez hori bakarrik, digitalizazioa jada eraikia eta egituratua dagoen gizartean txertatzen den neurrian, bere erabilera ere ordena horren portaeren baitan murgilduko da. Bestela esanda, plataforma digitalek sarbide zuzena dute lan-indar ahul eta bazterrekora, joera estruktural hori erabiltzen dute une zehaztutan eskatzen den lan-esku kopuru esanguratsua mugiarazteko. Malgutasunari zor zaizkio Uber, Cabify edo Deliveroo moduko enpresak, baina ohar bat, euren arrakastaren giltza teknologia innobazioan

bezainbeste dago gizarte errealtate zehatz baten existentzian (Recio, 2019). Bezeroa, hornitzailea eta garraiolaria momentuan konektatzeko modua asmatuagatik, lan-baldintza higituetan lan egiteko prest dagoen talde soziala behar da ezinbestez jarduera arrakastaz burutzeko.

Eraldaketa sozial horien argitan, bi ohar nagusi egin behar ditugu geure ikerketaren bi ardatzen inguruan. Batetik, agerikoa denez, gizartearen digitalizazio prozesuak krisialdi ekosozialarekin duen lotura azpimarratu behar dugu. Zenbait teoria eta proposamen eraldatzailek ekonomia digitalean jarri badute ere eraldaketa sozialaren itxaropena, ikuspegi sozio-ekologikotik nekez ezkondu litezke digitalizazioa eta jasangarritasuna. Sakondu dezagun, labur, ideia horretan.

Hasteko eta behin, internetek, datu-baseen gordelekuek eta gailu teknologikoen kopuru erraldoiak mineral jakinen eta energia kopuruen beharra dute ekoitzi eta jardunean iraun ahal izateko (Durán eta Reyes, 2018). Bestela esanda, azpiegitura digitalean oinarrituko litzatekeen eraldaketa sozial global batek menpekotasun energetiko eta teknologiko handia luke. Desazkunde energetiko baten testuinguruan ezinezkoa izango da gizarte digitalen orokortzea (Riechmann, 2020).

Argudio hori funtsatzeko Felix Moreno ingeniariaren analisia ekar dezakegu. Gizarte teknologizatuek denboran eusteko ezintasun materiala egongo dela aurreikusi du, sare ultrakonektatuak dituen ahuleziak eta menpekotasun energetikoak hari batetik zintzilik daudela iradokiz:

“un ordenador o un móvil son prácticamente los objetos que más tecnología punta tienen de entre todos los objetos que un humano de nuestra era puede comprar con su trabajo. Tiene procesadores, memorias, pantallas, antenas, batería, todo tipo de sensores, dispositivos de posicionamiento por satélite, micrófonos y altavoces y sólo tienen sentido con internet funcionando para ellos. Y esto no implica precisamente poca energía: casi diría que hace falta extraer materia y energía de todos los rincones del planeta para fabricar un sólo móvil u ordenador (y los *gadgets* modernos que son básicamente ordenadores, como las televisiones, reproductores multimedia, videoconsolas, circuitería de coches, enchufes inteligentes y todo tipo de electrodomésticos que tengan la palabra *smart*).” (Moreno, 2019/11/06- Revista 15/15).

Zentzu berean, Antonio Aretxabala geologoak hala dio digitalizazio prozesuaren eta jasangarritasun ekosozialaren arteko bateraezintasunaz.

“La computación –solo en la nube– usa ya alrededor del 2% de la electricidad producida en el mundo por todos los sistemas de generación eléctrica. La enorme red de inmensos centros de datos en los que se basa la computación en la nube demanda 100 veces la electricidad por unidad de superficie que, por ejemplo, un rascacielos moderno como el de Iberdrola en Bilbao. El Departamento de Energía de EE UU ha calculado que el uso de energía de los centros de datos supera con creces el de toda la industria química de aquel país. El uso de energía en la última era digital se expandió el 90% entre 2000 y 2005, luego bajó sus espectaculares incrementos tras la crisis del 2008 con un 24% entre 2005 y 2010.” (Aretxabala, 2020/07/01)

Bada, ukaezina da Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiek abiarazten dituzten prozesu edo eraldaketa soziokulturalak bere alderdi materialean huts egiten duela. Ondorengo hamarkadetan digitalizazioak abiaraziko dituen aldaketak zein neurritakoak

diren zehazten hasia ariketa zentzugabetzat jo liteke, ondorengo hamarkadetan garatzea fisikoki ezinezkoa izango bada.²²

Antropologikoki eta sozialki garai digitalaren etorrera komenigarri izan litekeen edo ez eztabaidatzera sartu barik (eta noski horrek proiektu kooperatiboari mesede egingo ote liokeen zalantzarria izan liteke) alor biofisikoan planteatzen zaigun ezinezkotasun batzuk zerrendatuko ditugu segidan:

- i) Azpiegitura teknikoaren petromenpekotasuna: Sareak 3G, 4G eta 5Garekin behar dituen konexio azkarrak etengabe piztuta dauden potentzia handiko ordenagailuak martxan egotea eskatzen du. Zerbitzari horien ekoizpena, instalazioa eta mantenua erregai fosilek mugiarazten dituzten makinaren menpekota da (kamioiak, errepide asfaltatuak, gruak, eraikuntzako makina ezberdinak...). Hortaz, zerbitzaria energia berriztagarriek hornitzea %100ean lortuko balitz ere, hondatzen denean aldatzeko edo matxurak konpontzeko konbustio motorrak darabiltzaten ibilgailuak behar ditu ezinbestez.
- ii) Internet azpiegitura industrial erraldoia da. Ozeanoetatik doazen kable kilometrikoek konektatzen dute sarea, mundu mailan dagoen despliege material handienetarikoa da. Horrez gain, sateliteak orbitan uneroro eskuragarri egotea ezinbesteko da, ondoren gure gailuak konektatu daitezten. Horrek guztiak oinarri energetiko erraldoia eskatzen du, ez soilik gailuen eta sateliteen produkziarako, zerbitzarien hozte-sistemak martxan mantentzeko ere. Goi-teknologiako azpiegiturak mantentzeko oinarri energetiko merke eta eskuragarriak behar dira, hortaz digitalizazioa eta ekonomiaren deskarbonizazioa eskutik joan ezin diren bi faktore ditugu. Digitalizazioaren sakontzeak, negutegi efektuko gasen isurpenaren areagotzea dakar berarekin.
- iii) Mineral preziatuen urritasuna (Valero et al. 2021). Energia berriztagarrietarako (haize-errotak, eguzki-plaka fotoboltaikoak), smart mugikorretarako, gauzen interneterako edo bateria elektriko baterako beharrezko dira litioa, kobaltoa, teluroa edo indioa moduko mineralak. Guztiak daude agortze bidean eta biofisikoki ezinezko egiten dute digitilaziazio masibo baten gauzapena maila globalean. Horrez gain, lehengai horien erauzpen-prozesuek kalte ekologiko handiak eragiten dituzte inguruetan, batez ere egoera politiko ezegonkorrak dituzten herrialdeetan. Bestela esanda, irudikatzen den ekonomia berde eta digitalak mineralekiko menpekotasun estua garatuko luke, aro fosilistak erregai fosilekin izan duenaren parekoa.

²² *The Shift Project*-eko ikerlariek forgi ahal izan dute, 5G-aren etorreraren aurretik, jada geure gailu digitalen ekoizpen eta erabilerekin atmosferara isurtzen diren negutegi efektuko gasen %4 baino gehiago ari garela isurtzen. 5G teknologia ezarri eta zabaltzeko mugiarazi behar den baliabideekin kopuru hori oraindik gehiago haziko da: alde batetik, sare, sistema eta gailu berriak ekoizte beharko direlako, eta bestetik, orain arteko tresna digitalak zaharkituak geratuko direlako.

Huawei enpresak egindako aurreikuspenen arabera, 2025. Urtean Informazio eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) 2.800 terebatio kontsumituko dituzte orduko, mundo osoan ekoizten den energiaren %9 hain justu.

- iv) Birziklapen egitura ahulak: Mineral prozesuen urritasuna kontuan harturik, pentsa liteke jada fabrikatuak dauden gailu teknologikoen birgaitzearekin posible izan litekeela ekonomia digitalaren zabaltze masiboa. Maila teknikoan egon daitezkeen zailtasunetatik haratago, enpresei kostu handiak eragiten dizkien prozesuak dira eta negozioa errentagarri egiteko zailtasunak daude, borondate politiko faltarekin batera. Maila globalean Txina da gailu teknologiko zaharkituak hartzen dituen herrialde nagusia, baina bertatik berrerabili daitezkeen materialak errendimendu baxuak izan ohi dituzte. Horrez gain, kontsumo gizarte aurreratuan produktuen programatze zaharkiturako dagoen joerarekin desoreka sortzen da egon daitekeen birziklapen gaitasunaren eta gero eta eskari handiagoaren artean.

Bigarrenik, ekonomia digitalaren zabaltzeak Arrasateko Kooperatiben lurrean nola eragiten duen gogoetatu liteke; plataforma digitalen ekonomiarekin eta gobernamentaltasun digitalarekin zein lotura puntu dauden ikusteko. Lehenik eta behin, aipatu behar dugu, plataforma digitalek darabilten lan-indar kualifikatu gabekotik aldenduz, zail egiten zaigula lan etorkizun erabat digital, malgu, ziurgabe, gaizki ordaindu eta eskubiderik gabea irudikatzea. Hori da gizarte aztertzaile batzuk egiten duten aurreikuspena lan-merkatuaren bilakaerari dagokionez, baina Arrasateko Kooperatibismoaren kasuan, mekanismoak aurreikusita daude lanaren prekarizazio orokor bati harresiak ipintzeko. Haatik, oso kontuan hartzekoa da digitalizazioak itsatsirik dakarren eragin sozial nagusiena indibidualismoaren sakontzea izan daitekeela, hau da, lan jardunaren kontrolerako gaitasuna areagotzen duen neurrian gizartearen atomizazioa hauspotu dezake.

Horrenbestez, ikusi dugu lanaren forma sozialen bilakaerak egitura lausoagoetara egin duela bidea, ordena sozial fordistatik lan kognitibo eta post-materialaren garaira. Ekonomia digitalaren eta plataformen kapitalismoaren etorrerak norabide horretan sakondu du. Lanaren munduak eratzen duen arkitektura berri horretan, ibilibide ezegonkorragoak, mugituagoak, eskaintzen zaizkio norbanako langileari, nazioarteko merkatu global berriak dituen eskabideak onartu ditzan. Lanaren eraldaketa horrek, ordea, kapitalak balorizazio eremu berriak bilatzeko duen derrigortasunari erantzuten dio. Jada ez da soilik fabrikan ekoizten den produktua balorizatu nahi izango, baizik eta subjektuaren bizitza bera, bere adar guztietan. Operazio hori zein modutan gauzatzen den ulertu ahal izateko, jarraian kapitalismo post-fordistaren jardute moduen ulermenera egingo dugu jauzi. Ikuskera horretan, ikusiko dugu subjektibotasuna bera ustiatu daitekeen baliabide bezala darabilela kapitalismoak, desira sozialari jariatzen utzi eta merkatu bide berriak irekitzeko.

2.3 Kapitalismo post-fordista pentsatuz. Axiomatika sozialera hurbilpena.

Orain artean egin dugun ibilibide teorikoarekin uste dut nahiko argi dagoela kapitulu honen saiakera dela krisialdi ekologikoa eta Arrasateko Kooperatibismoa ulertzea lan munduaren eraldaketaren argitan eta kapitalismoaren jarduteko mekanismo soziokulturalen arrastoan. Zentzu horretan, garrantzitsua zaigu lanaren soziologia kritiko italiarrak postestrukturalismo frantsesarekin egindako topaketa ezagutzea. Desiraren gaineko teoriak, Deleuze eta Guattari-ren eskutik eta Foucault-en boterearen eta subjektibotasunaren gaineko formulazioak, beste autore batzuen artean (Lacan, Derrida...) testuinguru kontzeptual eta filosofiko berria eman zieten Italiatik zetozen teorizazio korronteei. Nolabait, 60ko eta 70ko hamarkadan produkzio filosofiko intentsoa ari zen gertatzen Frantzian eta Italia politikoki berritzailea izaten ari zen, esperimentazio politikoetarako laborategi. Michael Hardt-ek testuinguru horren harira dio, XIX. mendean Alemaniak metafisika eta Frantziak politika egin zuen era berean, XX. mendean Frantziak egin duela metafisika eta Italiak politika (Hardt eta Virno, 1996).

Zibilizazio krisiaren testuinguruan eta kolapso ekologikoaren mehatxuaren aurrean, uste dugu egokitasuna hartzen duela begirada honek, kapitalismoak dituen jarduteko moduen analisi orijinal eta iradokitzailea lortuko dugulako batetik, eta azken urteetan neoliberalismoaren proiektu politiko-sozialak sortu duen gizartearen irakurketarako baliagarri zaigulako, bestetik. Kontzeptu horiek giltzarri izango dira krisi ekosozialaren eta bertan kooperatibismoak jokatzen duen paperaren inguruan pentsatzeko.

1974. urtean Felix Guattari filosofo frantziarrari egin zioten elkarrizketa batean, sutzuki defendatu zuen kapitalismoaren gaineko analisi marxistak ezartzen duen ekoizpen-errepresentazio dualismoarekin hautsi beharra zegoela (Chicchi, 2016: 187). Oraindik ere epistemologikoki dialektika hegeliarrean oso txertatua zegoen irakurketa zen hura eta hori gainditu beharra proposatu zuen. Horretarako beste ikuspegi bat ekartzearen garrantzia mahaigaineratu zigun psikoanalista frantziarrak, prozesu ezberdinen ugaritasunari begiratu ahalko diona, plano materialak eta jario semiotikoak detektatzeko gaitasunarekin (Guattari, 1974). Post-fordismoaren etorrerarekin bat egiten du Guattarik ekarri zuen analisi marko berriak, forma berrietan eratzen ari zen gizarteari begiratzeko, teoria sozial eta filosofiko berriak behar zirela iritzita.

Hala, lehendabizi semiologiaren alorrean definitu zituzten kontzeptu zenbait azaltzea dagokigu, jarraian etorriko den kapitalismoaren axiomatika ulertzeko funtsezko azalpenak baitira:

Deleuze eta Guattarik ziotenez, gizarte garaikideetan erabiltzen ditugun zeinuek eta semiotikek beti dauzkate bi erregistro ezberdin. Horien arabera dihardugu gizartean. Alde batetik errepresentazio/irudikapen-aren erregistroa legoke, esanahia eraikitzen den esparrua alegia. Bertan, *semiotika signifikagarriak* antolatzen dira, hizkuntzaren bidez bereziki, subjektua, "ni"-a edo norbanakoa ekoizteko balio dutenak. Esanahi aitortu eta partekatua duten hitzen edo zeinuen bidez eraikitzen dugu geure burua gizarte bizitzan. Bigarrenik, erregistro makinikoa deritzona legoke, *semiotika a-signifikagarrien* arabera antolatua, ez duena esanahi zehatz partekaturik lortzen; izan daiteke musika diagrama bat, hizkera informatiko-matematikoa edo ekuazio-sorta bat. Bigarren erregistro honek,

Guattari eta Deleuze-n arabera, ez du lehenengoak bezala subjektuaren eraketa bilatzen, subjektuaren aurrekoak diren elementuen azaleratzea baizik, aurreindibidualak eta auresubjektiboak direnak, gizarteratze prozesuak ukitu ezin izan ez dituen horiek (barne-bulkadak, emozioak, afektuak...). Hala, ikuspegi honen aburuz *semiotika a-signifikagarrien* erabilera egiten da post-fordismoan, auresubjektiboak diren elementuei jariatzen utziz, subjektuak elkarren artean era borobilean uztartu daitezen, kapitalaren makina semiotikoaren pieza gisa.

Guattarik horri *semiologia dominantea* deituko dio. Semiotika orok behar du signifikante bat gizarteko kode partekatua izatera iristeko, eta hori nondik izendatzen den zehaztea da gakoa (Guattari, 2017). Gauzen eta zeinuen arteko harremana beti da aldakorra eta uneoro dihardu semiotika berriak sortzen, hitzez haratago doazen semiotikak. Haurrek, zoroek edo kultura indigenteako kideek ez dute semiotika signifikanteak menderatzeko ahalmenik, hortaz, dio Guattarik, *bigarren mailako semiotikak* darabiltzate: gorputz adierazpena, oihuak, edo beste kode komunikatibo batzuk. Ordea, komunikazio bide horren arazo nagusia da ez dela sekula gai izango iradokitzen ari den mezu hori hitzetara eramateko, nolabait, itzulpen ariketa bat egiteko kode linguistikoetara. Hortaz, signifikazio dominanteen ekoizlea kode linguistikoa denez, bertara iritsi ezin dena ezgaitua edo kultura maila baxukoa dela uste izango da.

Bada, post-estrukturalismo frantsesaren adar honek, Deleuze eta Guattariren sinadurarekin, errealitatea jario aldakor eta molekular gisara aurkezten digu, prozesu fluidoak daude gizartean, etengabe elkargurutzatzen diren jarioak. Lanaren eraldaketa ere horrela ulertu dezakegu, ordena sozial fordistik jaio ziren prozesu fluido, aldakor eta plastikotasun handikoen emaitza modura. Nolabait, fordismoak errepikapena, diziplina eta lanaren errutina bazituen ezaugarri, gizartearen bazterretik edo barrunbeetatik barreiatu ziren desira jarioek apurtu egin zuten gizartea kontrolpean edukitzeko modu horrekin, eta beste forma berri batez ordenatu. Hori da hain justu haien irudi nagusia; egiturak hautsi dira, multiplizatetaren eta diferentziaren garaia da.

Mille Plateaux liburuan, Deleuze eta Guattarik planteatuko dute geure bizitzak hiru lerro ezberdinez gurutzaturik daudela: Lerro molarrak, lerro molekularrak eta ihes-lerroak. Molarren kasuan, lurralde zehatz bat marraztu, planifikatu eta arautzen du; hau da, bizitzaren jarioa bera modu egituratu batean zatikatu eta antolatu dezake. Lerro molekularra aldiz, jariakorra eta aldakorra da, ez-estatikoa, etengabeko mugimenduan dagoen lerroa, lerro honen bidez ezartzen diren harremanak ez dira topatzeko eta definitzeko hain errazak. Azkenik, ihes-lerroak leudeke, territorializatu ordeztu erabat desterritorializatzen du dena, desarautu, erreferentzia barik utzi errealitatea, etorri hutsari ateak zabalduz.

“Organorik gabeko gorputza” kontzeptuak grafikoki nahiko garbi erakusten du pentsalari frantziarrek esan gura zutena. Hau da, gorputza ez da kontzientzia jakin bat, identitate jakin bat edo subjektibotasun zehatz ondo definitu bat, molekulen etengabeko jario aldakorra baizik, moldatu, birsortu, nahasi eta itxuraldatu daitekeena.²³ Ikusten dugun

²³ Faktore ezberdinen nahasketaren ideia hori XXI. mendeko gizarte zientziak ezaugarritzen dituen ideia da, sistema sozialak eta prozesu historiko *multidimentsionalak* azaldu ahal izateko. XX. mendean zehar garatu ziren zenbait teoria sozialek, norabide azaltzaile bakar bat edukitzea zuten bereizgarri, osotasun soziala teoria estatiko edo monoteista batekin azaldu zitekeeneko sinesmena. Bada, gaurko gizarte zientzietan modu zabalean onartua dagoen begirada da multikausalitatearena, etorriarena eta harreman sozialen aldakortasunarena. Deleuze eta Guattariren lanak ikuskera epistemologiko hori errotzen lagundu zuen.

legez, errealitate soziala desegin eta itxuraberritu daiteke, beti forma bakan eta errepiketzineta. “Organorik gabeko gorputza” kontzeptuarekin krisi ekologikoa pentsatzeko modua datorkigu burura; hau da, zibilizazio industrialak eta hari loturiko jasangarritasun eza modu zehatz batean *territorializatua* dago; krisi ekologikoak ordea, territorio horretan ihes-lerroak sortzen ditu, haustura puntuak, zerbait berriari, espero gabekoari, ateak zabaltzen dizkio. Bada, desterritorializazio mugimendu bezala ulertu dezakegu krisi ekologikoaren potentziala, dagoena desegin eta bestelako lurralde berri batzuk arautu eta diseinatzera behartzen gaituena.

Murgildu gaituzen, bada, Deleuze eta Guattariak findu zuten kontzeptuan. Oso baliagarri zaigu egungo lan-harremanen konfigurazioa, krisialdi ekologikoaren kudeaketa neoliberalak eta ondorioz, kapitalismoaren egitura eta bere itxuraldatzea ulertzeko. Bi filosofoek, ekarri zuten potentzia analitiko handiko kontzeptua *axiomatika sozialarena* izan zen zehazki (Deleuze, eta Guattari, 1973) kapitalismoaren jarduteko dinamika jakinak zein ziren argitzeko. Euren analisiaren arabera, kapitalismoak bere mugetara hurbildu ahala muga horiek oraindik gehiago urruntzeko joera du, horri esker irauten du denboran. Bere baitan bizi dituen krisi ziklikoak aukera modura definitzen ditu, bere buruari berregituratzeko denbora emanda. Mugak urruntze horren prozesua da, beraz, indarrean dauden gizarte kodeak *dekodifikatu* eta *axiomatizatzea*. Egiturazkoak diren krisiak aukera bezala ikusteak zerikusirik handia du, orain artekoa deseraikitzearekin eta gizarte esanahi berriak sortzearekin. Hala, Deleuze-k esango du “kapitalismoa gizarte axiomatika gisa definitu dezakegu”.

“Ocurre que el capitalismo, como hemos visto, es el límite de toda sociedad, en tanto que opera la descodificación de los flujos que las otras formaciones sociales codificaban y sobrecodificaban. Sin embargo, es su límite, o cortes relativos, porque sustituye los códigos por una axiomática extremadamente rigurosa que mantiene la energía de los flujos en un estado de ligazón al cuerpo del capital como socius desterritorializado, pero también e incluso más implacable que cualquier otro socius. La esquizofrenia, por el contrario, es el límite absoluto que hace pasar los flujos al estado libre de un cuerpo sin órganos desocializado. Podemos decir, por tanto, que la esquizofrenia es el límite exterior del propio capitalismo o la terminación de su más profunda tendencia, pero que el capitalismo no funciona más que con la condición de inhibir esa tendencia o de rechazar y desplazar ese límite.” (Deleuze eta Guattari, 1973: 253)

Nolabait, kapitalismoak aro ezberdinak bizi ditu, bere biziraupenerako ezinbestekoak zaizkionak. Alde batetik, de-kodifikazioaren une historikoak jartzen ditu martxan, zeuden egia sozialki onartuak desegiteko. Bestetik, beste espazio-denbora bat abiarazten du bir-kodifikazio prozesu bati bide emanez. Kontua, ordea, Deleuze eta Guattariaren pentsamenduan, bir-kodifikazio hori aurreko gizarte formetan ez bezala egitean datza. Kapitalismoan bir-kodifikazio hori axiomatika bilakatzen da, axioma berriak eraikitzen dira, guztiek jarraitu eta barneratu beharrekoak izango direnak. Hortaz, kapitalismoa *makina axiomatiko* gisa definituko dute pentsalari frantziarrek, etengabeko krisi eta berregokitze prozesu gisa. Muga elastikoak dauzka, nahieran luzatu daitezkeenak, balio xurgatze mekanismoak efektiboak izatea da helburua. Hortik, kapitalismoaren makina axiomatikoaren azken muga “eskizofrenikoa” deneko ideia, “esku batekin dekodifikatzen duena, bestearekin axiomatizatzen du” (Deleuze eta Guattari, 1973: 253). Itxuraldaketa plastikotasun izugarria du, beraz, etengabe eraberritzen den organismoa baita.

Makina axiomatikoaren irakurketa hori krisialdi sozio-ekologikoa pentsatzeko oso begirada iradokitzailea zaigu, kapitalismoaren beraren *mugen luzapena* era garbian azaltzen baita. Giza jardunak muga biofisikoekin talka egin duen honetan, ekonomia eta

produkzioa antolatzeko modu horren beraren erroetan pitzadurak sortzen zituen indar estrukturala axiomatizatu eta bere mugak luzatzeko erabiltzen du. Bestela esanda, mekanismo axiomatikoari eta mugen plastizitate horri eskerrak, krisialdi sozioekologikoa bere burua indartzeko erabiltzen du kapitalismo axiomatikoak, negoziarako aukera berriak zabalduz eta balio-sorkuntza prozesuan sartuaraziz zibilizazio modernoa mehatxatzen duen krisialdi sistemikoa. Puntu hau sakonago landuko dugu aurrerago (ikus 4.2 atala).

Zentzu beretik, lanaren eraldaketa interpretatzerako orduan, erabili dezakegu post-estrukturalismo frantsesetik datorren ikuspegia. Lan-harremanen eta kapitalismo garaikidearen funtzionamendu dinamikak ulertzeko marko berria zabaltzen zaigu. Bestela esanda, kapitalismoak zuen jarduteko era makiniko-fordistak diziplina, planifikazioa, lotura estua, hasieratik kontrolatutako automatismoak eta produkzio-era batekiko obedientzia itsua eskatzen zituen, hau da, jarioak territorializatuta eta oso zehatz kodifikatuta zeuden lantegian. Aldiz, fase territorializatutik desterritorializaturako jauzia gertatzean, oinarritzko segurtasun sozialak airean geratzen dira; indibiduoaren eta bere pulstioen asebetetzea jartzen da helburu bezala, hots, kapitalismoak desiraren produkzioa jartzen du balio-sorkuntzaren erdigunean. Desira balio-sortzaile izateko mugak luzatu beharra dauzka *axiomatika sozialak*, desioari jariatzen utzi, nolabait aurretik emana dagoena *desterritorializatu* eta ondoren merkatuak erabili ahalko dituen lurralde berriak bilatu. Soilik era horretan, desirak parean topatzen duena eraldatuko du, gauza berriekin kontaktuan jarri eta berrikuntzak ekarriko ditu, harremanak, subjektuak, edo ekoizpen moldeak itxuraldatuko dira. Etengabe birsortu eta berregingo du bere burua. Horregatik diote, kapitalismoa horren arrakastatsua dela, giza desirarekin konektatzen asmatzen duelako.

Bada, Italiar soziologo kritikoek, lanaren eraldaketaren analisisira ekartzeko, Deleuzengandik hartzen dute mugen luzapen eta desioaren askapenaren kontzeptua. Nolabait deskribatzen duten mugimendua honakoa da: kapitalismoak desioaren askapena laguntzen du, mugetara gerturatzeko eskatzen dio, inobatu dezan, gauza berriak topatu ditzan, aurkitzen dituen sare eta dinamiken eraldaketaren bidez balioa sortu dezan. Behin hori eginik, kapitalismoak berak mekanismo ezberdinak abiaraziko ditu, sortutako balio hori ondoren bereganatzeko, kontrolerako metodo sofistikatu bidez. Aurrez aipatu dugun *panoptiko digitala* izan liteke adibide on bat.

“Del capitalismo decimos a la vez que no tiene límite exterior y que tiene uno: tiene uno que es la esquizofrenia, es decir, la descodificación absoluta de los flujos, pero no funciona más que rechazando y conjurando este límite. Además, tiene límites interiores y no los tiene: los tiene en las condiciones específicas de la producción y la circulación capitalistas, es decir, en el capital mismo, pero no funciona más que reproduciendo y ampliando estos límites a una escala siempre más vasta. Ahí radica la potencia (y el poder) del capitalismo: su axiomática nunca está saturada, siempre es capaz de añadir un nuevo axioma a los axiomas precedentes.” (Deleuze eta Guattari, 1973: 258).

Aro post-fordista oinarri horietatik ulertuta, esan liteke mugen luzapenak ezaugarritzen duen aroa dela. Desira sozialari jariatzen lagatzen diona, malgutasunak eta plastizitateak zizelkatzen duena, balioa sortzen jarraitzeko. Kontua ez da esatea ekoizpen eredu post-fordistak aurreko produkzio ereduak ezabatu dituela edo jada industria lantegiak desagertzen ari direla malgutasunaren izenean; aitzitik, eredu produktibo ezberdinak elkarbizitzen jartzen ditu, elkarren artean nahasten dira. Marxismo klasikoak ekoizpen aro ezberdinak ulertzeko izan duen begirada gaudituta, kapitalismoaren itxuraberritze Deleuziar horretatik pentsatzean legoke gakoa. Post-

fordismoan ez da, beraz, ekoizpen aro berririk zabaltzen, aurrez historian egon diren ekoizpen-moduak bere baitan biltzen ditu, modu berri batez ordenatu eta itxura berritua eman. Nolabait, desterritorializazio mugimendu horrek balio izan dio kapitalismoari ordena sozial fordistan territorializatuta zeuden bizimoduak, balioak, leialtasunak edo balio komunitarioak desegiteko. Bestela esanda, lantegia-etxea-aisia hirukoa hautsi eta beste molde batez birordenatzen du bizitza sozial eta ekonomikoa, non merkatuak eta irabazi asmoak pisu gehiago daukaten. Ez dago, ordea, zentzu-apurketa edo aurreko aroarekiko hausturarik, historian zehar egon diren esplotazio modu ezberdinen *integratio* prozesu bat baizik. Kapitalismoaren garapen arrakastatsuen zentzua, hortaz, itxuraberritzeko duen gaitasunean oinarrituko da.

Are gehiago, horrenbestekoa da haren erresilientzia gaitasuna, ezen elkarlan soziala bere alde ekoiztera bultzatzen baitu (Hardt eta Negri, 2004: 2011). Bestela esanda, lan prozesu autonomoen mesedetan kapitalistak zeukan zuzendaritza funtzioa urtu egin den sasoian, kapitalak lortzen du balantza bere alde orekatzea. Lanak gaur hartzen duen forman garrantzia handia du komunikazioak, jakintza partekatzeak, antolaketa gaitasunak, ideia originalak edo potentzia sortzaile kolektiboak. Bestela esanda, balioa ez da sortzen horrenbeste lan-katean bakoitzak produktu jakin bati ekarpen txiki bat eginda, kate fordistetan bezala. Bakoitzak bere gaitasun sozial oro produktu edo zerbitzu horren sorkuntzara bideratzen du.

Bada, ikuspegi Deleuziarra lan-harremanen analisisira aplikatuta, gizarteak komunean duen jakintza hori da balio-sorkuntzarako aurrebaldintza, bertatik abiatuko baitira ezagutza berriak. Ditugun harreman sozial gertukoenetatik hasita (bertan eratzen baitira gure gaitasun afektiboak eta elkarlanerako kompetentziak), gizartean komunak zaizkigun espazioak eraikitzen ditu, eta soilik espazio horietan gauzatuko dira ekoizpen-prozesuak. Ikuskera horretan, komuna zaigun hori, ez da ekoizpen prozesuan une bat soilik, produkzioaren bihotza bera da. *Post-operaisten* ikuspegian, ekoizpen prozesu oro da kolaboratiboa, komuna eta komunikatiboa, beraz, oinarri komun bat eduki ezean ezinezko lirateke. Pentsamendu korronte horren arabera, lankidetzaren sozialaren aroan gaude, eta balioa sortzeko gaitasuna kapitalean baino lan-harreman kooperatiboetan dago (Hardt eta Negri, 2011). Are, kapitalak fordismo osteko aroan jokatzen duen papera lankidetzaren sozial orokortu horretan sortu den balioa xurgatzekoa izango da.

Arrasateko kooperatibismoa ere irakur liteke betaurreko horietatik. Komuna den erakunde instituzionalizatu modura ulertu dezakegu, bazkideen arteko lankidetzaren orokorra duena motore. Balioa kanpo-eragile batek xurgatu ordez, kooperatibek eurek euren arkitekturari esker modu nahiko berdinezalean eskuratu eta banatzen dute. Argudia lezakete, beraz, kooperatibek, elkarlan soziala eta komunitatearen garapena balio-iturri dela aspaldu identifikatu eta praktikara ekarri zutela. Erronka da, lan eremuaren eta prozesu produktiboen eraldaketa horien argitan, eraikin kooperatiboa zutik mantentzea, nolabait inguruan izan ditzakeen balio-xurgapenerako indarren aurrean kontrapisu kultural eta sinboliko sendoak garatzea. Izan ere, geroago aztertuko dugun bezala, Deleuze eta Guattarik identifikatu zuten kapitalismo berriaren itxuraldatzeko gaitasun horrek, kooperatibei eskatzen die sendotzea, gehiago erakundetzea, arau-multzo eta burokrazia gehiago garatzea, malgutasunak eta plastizitateak likidotu ez ditzen.

Deleuze eta Guattariren kapitalismoaren gaineko teoria horiek lanaren munduan aplikatzeko trebetasuna izan zuten teoriko italiarrek. Zentzu honetan, Deleuze eta Toni Negriren arteko lotura edo Felix Guattari eta Franco Berardi "Bifo"ren harreman

intelektuala da aipagarrietakoa. Kapitalismo garaikidearen gaineko analisisa ez ezik, subjektibazio prozesuez, diziplinamendu garaikideaz, semiologiaz edo kapital-jarioaren aurrean antolatzen den lanaren antolakuntza molekularraz teorizatzen dute. Luze eta zabal emango luke pentsalari horien arteko harremanaren konplexutasunean sakontzeak. Dena dela, guri interesgarrien zaiguna autore horien arteko elkareraginaren jatorria da, euren obra zeharkatzen duen bulkada nagusia, batez ere kapitalismoa eta bere dinamikak ulertzeko betaurreko berriak ekarri zizkigutelako.

Aurrez aipatutako errealitatearen izaera ez-bukatu, nahasi, kontingente horretatik aztertuko dute gizarte eta lan eremuko errealitatea: hortxe post-estrukturalismoaren ekarpena, sare moldagarriaren, kontingentearen irudia ekartzearena. Anti-Edipon kapitalismoaren sorrera deskribatzen duen moduak ilustra dezake azalpena:

“Flujos descodificados ¿quién dirá el nombre a este nuevo deseo? Flujo de propiedades que se venden, flujo de dinero que mana, flujo de producción y de medios de producción que se preparan en la sombra, flujo de trabajadores que se desterritorializan: será preciso el encuentro de todos estos flujos descodificados, su conjunción, su reacción unos sobre otros, la contingencia de este encuentro, de esta reacción, de esta conjunción, que se producen una vez, para que el capitalismo nazca y para que el antiguo sistema muera esta vez desde fuera, al mismo tiempo que nace la vida nueva y que el deseo recibe su nuevo nombre. No hay más historia universal que la de la contingencia.”²⁴ (Deleuze eta Guattari, 1973: 230).

Artefaktu teoriko hori guzti hori geure iker-objektura ekarriz, Arrasateko kooperatibismoaren ere lanaren eraldaketa eta mugen zabalpenaren ideiak balio digu nerbio analitiko batzuk ukitzeko, askatzen diren energia sozial kooperatibo ezberdinak nola antolatzen diren eta zein norabidetan kanalizatzen diren ikusteko. Deleuze eta Guattariren terminoetan, agian posible da *makina-kooperatibo* bati buruz hitz egitea, bere jario eta axiomatika propioarekin diharduena. Sarearen edo makinaren metaforatik pentsatzean legoke gakoa, hau da, elkarrekin konektatzen diren askotariko elementuen makina edo *agencement* bat litzateke Mondragon.

Ondorengo kapituluan, pentsamendu oinarri post-estrukturalisten arrastoari segika, *produkzio biopolitikoaren* aroaren ideia landuko dugu, lan prozesuak eta bizitza bera banaezinak bilakatu diren zentzuan. Bizitzaren alor produktiboa eta erreproduktiboa txanpon beraren bi aldeak izaki, bizitza soziala bera bilakatu dela balioaren lantegia iradokitzen da ideia horretatik. Ikuspegi sozio-ekologikotik gehitu behar genuke, erreprodukzio sozialaren eremuan sartzen direla giza bizitza posible egiten duten oinarri materialak, bizitzaren erreprodukziorako ezinbestekoak, eta Mooren hizkera erabiliz, *natura sozial abstraktua* dela balio-sortzaile. Beste hitz batzuetan, balio-sorkuntza logikan txertatzen dira zaintza eta etxeko lanak, harreman sozial eta afektiboak, lan ez-ordainduak baina baita natur baliabide *dohakoak*, zerbitzu ekosistemikoak nahieran erabilia. Bada, krisi ekologiko betean, subjektibotasun molde berriek eta bizitza ona-ren gaineko ikuspegi berrituen premia dugula onarturik, datorren kapituluan subjektibotasun garaikidearen gaiari helduko diogu.

²⁴ Azpimarra nirea da.

3. KAPITULUA

Subjektibotasuna post-fordismoan: Kooperatibagintzaren erreprodukzioa kolokan

3. Subjektibotasuna post-fordismoan: Kooperatibagintzaren erreproduzioa kolokan.

«Inork ez du zigorrik irabazten, inork ez du saririk irabazten. Askatu ezazu zure burua merezi izatearen ideiatik, irabaztearen ideiatik, eta orduan hasiko zara pentsatzeko gai izaten.» **Ursula K Le Guin**

Lan eremuan osatzen diren subjektibotasunen gaineko azterketak merezi du tesi honen arreta, lanaren gaineko etika jakina baita krisi ekosozialaren bultzatzaileetako bat. Weberren azterlanetatik dakigu bizitzeko eta munduan egoteko modu jakinak gauzatu zirela XVIII-XIX. mendeetan, kapitalismo industrialaren behar berehalakoak hornitzeko baliagarriak zirenak. Era borobilean egokitu zitzaion *Ethos* aszetiko-arrazionala eskala handiko produkzio sistema kapitalistari, portaera ekonomiko modernoaren etorrera posible eginda (Weber, 1983). Jainkoaren salbazioa etika safrifikatutik iritsiko zela sinetsirik, nork bere izatea lanari emanik bizitzea sistema ekonomiko modernoa egituratzeko funtsezko osagaia izan zen. Ordura arteko gizartearen jokaeretan eta antolatze moduetan erroko eraldaketak ekarri zituen, antzinako ordena sozial eta ekonomikoak eta haiek ezarritako klase-egiturak irauliz. Nolabait, kapitalismoaren jaiotza eta hedapen globalak bere neurrira eginiko subjektibotasunak ere behar zituen, bizitza ulertu eta bere gainean ekiteko modu zehatzak alegia. Era honetan deskribatzen du Azkarragak (2007) Weberren obra, modernizazio eta arrazionalizazio prozesuei buruz ari denean:

“...Arrazionalizazio kultural (mundu-ikuskera erlijioso berriak eta zientzia) eta sozialaz (burokratizazioa) gain, esfera subjektiboan bizitzaren arrazionalizazioa dugu: Mendebaldeko arrazionaltasun modernoa pertsonalitate sisteman ere gauzatuko da, bizitza estilo metodiko-arrazionala ageri zaigu, ekintzarako jarrera eta dispozizio multzo bat.

Ondokoak dira bizitza estilo modernoaren oinarritzko ezaugarriak:

-Denbora kategoriaren araberako diziplinamendu zurruna

-Bizitzaren aurrean jarrera aszetikoa, hainbat norabidetan: kanpo naturarekin ezartzen den harremanetan, pertsonen arteko harremanetan, eta nork bere buruarekin ezartzen duen harremanean.” (Azkarraga, 2007: 41).

Beraz, Weber soziologiaren aitak ikertu zuen lanaren subjektibotasunean gertatu eraldaketak garrantzi berezia dute ezein gizarte lupa soziologikoz begiratzeko orduan. Soziologia etengabe interpelatu duen gaia izan da honakoa, bere jaiotzatik bertatik eztabaidatu izan dena. Horren erakusgarri da 1914. urtean Henry Ford-ek soziologia saila sortu izana bere autogintza enpresa erraldoian. Sail horren helburu berehalakoa izango zen beste lurralde batzuetatik bestelako kultura eta bizi ikuskerekin lan egitera etorritako langileak enpresari leialak, eraginkorrak eta zintzoak bilakatzea. (Domenech, 2019: 190). Besteak beste, sustatzen zituzten neurrien artean, klase ertainarekin lotzen zituzten jokabideak hartzeko egunean bost dolarreko pizgarriak ematen zituzten. Langile bakoitzaren familia giroa ikertzen zuten, emaztea, seme-alabak... familia “errespetagarria” izan zezaten hartzen zituzten neurriak, aldaketarik beharko balu, langileari iradokizun zuzenak egiteko. Funtsean, enpresak langileari ez zion soilik

esaten nola egin behar zuen lan enpresan egongo zen orduetan, baizik eta zein modutan bizi beharra zeukan (Domenech, 2019: 191)²⁵

Lan prozesuak eta bertan eraikitzen diren subjektibotasunak, bizi ditugun gizartearen pulsuaren eta ezaugarrien berri zehatza eman diezaguketela uste izan dute gizarte aztertzaileek hamarkadetan zehar, eta guk ere hala uste dugu. Gaurko gizarte prozesu esanguratsuenen berri ematerako garaian, ezinbestean arakatu beharreko eremua da, are gehiago gizarte industrialetatik post-hazkundeko gizarteetaranzko trantsizio ekosoziala pentsatu nahi badugu.

3.1 Subjektibotasuna argituz.

Geure ikerketa subjektibotasuna moduko kontzeptu zentral bezain mamitsuan ardaztuko dugunez, zeri buruz ari garen zehazki argitzea komeni da, oraindik orain kontzeptu argitugabe eta nahiko nahasia suerta baitaiteke. Arrasateko Kooperatibetan eratzen diren subjektibotasunei buruz ariko garenez, merezi du kontzeptuak gutxieneko sakontasun teorikoa. Subjektuaren gaineko teoria mekanizistetaik aldenduz, ezinbestean kokatu beharko gara gizarte zientzietan egon den eztabaida nagusietako batean, egitura sozialari eta subjektuen ekimenari dagokiona.

Eztabaidaren mamia, Santiago Muiño antropologoari jarraituz, modu sinplista batean planteatuta, honakoa litzateke: zenbat eragiten du egitura sozialak subjektuaren eratzean eta ekintzan? XIX. mende bukaeran eta XX. hasieran garaiko gizartea interpretatu zuten soziologoek, egiturari eman zioten lehentasuna (Santiago Muiño, 2015: 136). Hor dago Weberren burokratizazioaren eta arrazionalizazioaren teoria, subjektuaren ekimena desagertzen dena. Ildo beretik, Frankfurtoko eskolako Teoria Kritikoak Weber eta Marx erkatzeko saiakeran (Adorno eta Horkheimer), masa gizarteaz hitz egin zuten, *dimentsio bakarreko gizakiaz* (Marcuse), modernitateak berak sortzen zuen izaki makiniko eta esanekoaz. Izan eremu sobietarrean edo mendebaldean. Gerora etorri zen estrukturalismoak ere subjektuaren ekimenerako tarterik eza izan zuen pentsamendu oinarrietako bat, egiturari garrantzia erabatekoa aitortuz, edozein prozesu historiko-sozial aztertu eta deskribatzerako orduan. Esaterako, Althusserren estrukturalismoan ez du esaten eraldaketa posible ez denik, baina etorriko bada, egituren joera autosuntsizaillearen bidez etorriko da, ez subjektuen ekintza kontziente, antolatuta eta koordinatuaren bidez.

Tesi honen helburua ez da eztabaida honen korapiloa askatzea, geure gaitasunetik eta helburuetatik haratago doan corpus teorikoa garatzea eskatuko bailuke. Dena den, eztabaida horretan kokatzera behartuak gauden neurrian, subjektibotasunari garrantzia interpretatibo altua eskaintzen diogu, azken urteetan garatu diren zenbait teoria psikosozialen arnasean. Historiak erakutsi badu ere gizarte eraldaketa ezin dela plan zehaztu baten arabera gauzatu, eta harreman historiko-sozialen joan-etorri, tentsio eta harreman dialektikoek edonondik salto egin badezakete ere, subjektuaren ekimenak

²⁵ Kirk ikerlariak politika horien ondorioak aztertu ditu, langile etorkinak "amerikartzeko" prozesu enpresarial horrek Estatu Batuetako lehen langile mugimendu errepublikar-sozialista txikitzeke funtsezko ekarpina egin zuela iradokiz. Langileen autonomia aldarrikatzeari uko egin zioten ongizate materiala eta kontsumora sarbidea izatearen truke. Ikus "The Working class In The United States: Between radical republicanism and the American Standard" in Domenech 2019, 191. orrialdea.

bere pisua izan baduela azpimarratzen dugu. Ibilbide luzeko prozesu historiko sakonek eta gizartean martxan dauden joera estrukturalak subjektuen eratzea eta ekintza indartsu baldintzatzen badute ere, subjektuari ekintzarako tarte txiki bat geratzen zaiola defendatuko dugu, eta ipar hori jarraituz osatuko dugu tesia. Santiago Muiñok dioen bezala *ni sometidos a la fatalidad de la historia como un oráculo, ni superhombres capaces de replantearlo todo desde la ingeniería social: el lugar propio de lo humano es un pequeño margen para el equilibrio entre nuestra frágil libertad y nuestras fuertes determinaciones*. (Santiago Muiño, 2015: 143).

Kokapen hori geure eginik, jarraian subjektuaren ulerkera horretara hurbiltzeko psikoanalitik subjektuaren inguruan egin diren interpretazio batzuk jaso ditugu. Subjektuaren eratzeari eta ekimenari garrantzia interpretatiboa aitortzeak bere eraldaketarako gaitasunen aukerei ateak zabaltzea esan gura baitu. Arrazoi hori medio marraztu dugu kontzeptuaren inguruko ibilbide hau, baldintzatzaile sendoak zerrendatzen dituen, baina aldi berean ihes egiteko lerroren bat beti zabalik uzten duena, Deleuzekin esateko.

Bada, geure ikuskeraren arabera, ikerketa objektu arkeologikoa ez bezala, subjektibotasuna ez da hautsa kendu eta bere garbitasunean topa dezakegun aztarna. Ezin daiteke subjektibotasunaren arkeologia egin, ez baita sustantzia aldaezin eta beregaina, ez dago estali dezakeen inongo geruzaren azpian; Are, subjektibotasuna sakonki lotua dago garaian garaiko errealitate sozialarekin, berak baldintzatu eta egiten du posible. Ikuspegi soziologikoak aztertu du gizarte bakoitzak hari baliagarri zaizkion izaerak ekoizten dituela, gizarte bateko eliteen beharretara egokitzeko estrategiak jarriko dira martxan, biztanleriak jokabide batzuk hartu ditzan.

Uneoro eraikitzen eta itxuraldatzen duten prozesuen arabera izango da subjektibotasuna, moldagarria, aldakorra. Hortaz, subjektibotasuna eraiki egiten den zerbait da, eraikuntza aldakorrekoa izango dena, testuinguru soziohistoriko zehatzaren arabera. Bada, subjektibotasuna norbanakoaren eta gizartearen artean ezartzen den harreman dinamiko aldakorrean txertatua dagoen eraikuntza prozesu modura ulertuko dugu. Hitzaren etimologiari berari begiratzen badiogu, zerbaiti lotua edo *subjektua* egoteari egiten dio erreferentzia; hortaz, norbanakoaren izaera eta bere subjektibotasuna bi termino ezberdin dira. Nolabait, norbanakoa menpeko bilakatzen duen zerbait definitzen du subjektibotasuna terminoak, kontuak eskatuko dizkion zerbait izendatzen du. Agian zintzoagoa da subjektibazio prozesuei buruz hitz egitea, subjektibotasuna jario etengabearen eraikitzen baita, harreman sozial orotan, dinamika historiko ezberdinetan, gizarte joera nagusiekiko loturan etab. Hori da interesatuko zaiguna bereziki ikerlariaren begiradatik, subjektibazio prozesuak zertan diren identifikatzea, garaiko korrante kultural nagusien arrastoan.

Ezinbestekoa da zehaztea subjektibotasunari buruz ari garenean, gizarte harreman dinamiko eta aldakorretan eraikitzen den zerbait izanik, une jakin horretan dauden botere eta kontrabotere sareetan murgildua dagoela. Sareok baldintzatu eta mugatuko dute. Honenbestez, aztergai dugun kontzeptua topaketa baten emaitza dela esateko moduan gaude, elementu psikiko-indibidualak eta elementu aurreindibidualak edo subjektuaren eraikuntza sozialaz aurretikoak elkartzen diren lekuan eratuko da subjektibotasuna.

Psikoanalitik dator subjektua ulertzeko modu honen hedapena gizarte zientzietara; korrante horrek dioenez, egon badaude norbanako bakoitzari dagozkion elementu

identifikaezinak, mundu sozialean murgildu aurretikoak liratekeenak; sozializazio prozesuaren galbahetik pasa gabeak. Hizkuntzarekin gertatzen dena erabiltzen dute prozesu horren adierazpen borobil gisara: norbanakoa bere bulkada eta jario askotarikoekin murgiltzen da hizkuntzaren mundura, arautua, mugatua eta egituratua dagoena. Bestela esanda, haurrak hizkuntzaren eremuarekin topo egiten duenean subjektibazio prozesu nagusi bati ematen dio bide; *subjektibatu* ahal izateko ezinbestez onartu behar du haurrak gizarteko beste kideekin izango duen harremana formula linguistikoen arabera izatea, ez dauka bide alternatiborik. Subjektu bilakatzeko, beraz, psikoanalisiak esango digunez, norbanakoak mozketa edo *jatorrizko kastrazioa*²⁶ onartu beharra dauka. Mundu sinbolikoan murgiltzean subjektua banatu egiten da, izatearen potentziaren zati bat ezkutuan geratzen da nolabait. Horra izatearen falta edo *manque-a-etre* Lacaniar ospetsua, beti faltako dugu zerbait, eta hortik eratorriko zaizkigu geure desira-bulkadak (Lacan, 1949).

Beste hitz batzuetan, subjektuak barneratu beharko du egon badaudela bere bizitzan elementu zenbait, kontrolatu ezinak eta nahitaez bere egin beharko dituenak. Hitz egingo du, hitz egingo diotelako, subjektibatuko da, subejktibaraziko dutelako. Egitura sintaktiko eta gramatikal zehatzera lotuko da. Bere izaera partikularra soilik egituratutako hizkuntza baten bidez adierazi ahalko du. Hortaz, mundu sozial-sinbolikoan murgiltzea etengabeko negoziaketa eta birkokatze prozesu bat izango da, geure *berezko* elementu aurreindibidualen eta eraikia zein egituratua topatuko dugun munduaren artean. Dialektika horretan eratuko ditugu bizi-estiloak, jarrerak, desirak, pentsamoldeak eta mundu ikuskera jakinak.

Bada, zergatik interesatzen zaigu subjektuaren eraketaren azalpen deskriptibo psikoanalitiko hau? Subjektuak (subjektu bilakatzeko prozesuan) besteekin izango duen harremantzeko modua azaltze hutsa ez da bilatzen duguna, interesekoa zaiguna zera da: deskribatutako harreman aldakor eta tentsionatu horrek (elementu aurreindibidualak – mundu sozial egituratua) zein modutan baldintzatzen eta posible egiten duen subjektuaren ekintza.

Gizartea ardazten eta erreproduzitzen duen egitura kapitalistaren berri emateko subjektibotasunaren garrantzia (aurrez azaldu dugun ulerkeran) beste behin azpimarratzea ezinbesteko zaigu. Izan ere, kanpokotasun eta barnekotasun horren baitan konfiguratzen dela onartzen badugu, kapitalak bizitzaren adar gehientsuenak nahieran subjektibatzen dituen toki hori bera izango da subjektibotasun erresistenteak sor daitezkeen lekua. Subjektua, aldi berean da kapitalak harrapatu edo *territorializatu* duen barne eta kanpo elementu. Subjektibotasuna jarioan dago, modu zehatz batean konfiguratuta daiteke baldintza historiko-sozialek hala behartzen badute, baina sekula ez da osotasun bukatua izango, dinamikoa izango da, konfigurazio modu berri posibleen aukera beti zabalik izango duena. Garrantzistua zaigu ideia horretan azpimarra egitea. Subjektibotasuna historiko-sozialki zizelkatua dela onartzen badugu, subjektibotasun-itxura jakin batera behartuak ez gaudela onartzen dugu, eta beraz, eraldaketetara zabalik gaudela.

²⁶ Psikoanalisian, eta Lacan-en lanean bereziki, jatorrizko kastrazioa amaren gozamenetik urruntzean haurrak bizi duen prozesua da, ordena sinbolikora murgiltzeko urratsa emanaraziz. Sainte-Anne-ko mintegia, *Le savoir du psychanaliste*, 1972ko urtailak 6an emana.

3.2 Subjektibotasuna soziologiatik

Psikoanalisitik egindako ekarpenean jada jaurti ditugu teoria soziologikoari loturiko zenbait ezaugarri, eta tesi honetan subjektibotasunaren gaineko kezka hartzen duen pisua ikusita, ezinbestekoa zaigu betaurreko soziologikoetatik ikertzeak daukan balioa aldarrikatzea. Subjektibotasunak ikertzeko proposamen soziologikoen artean, intereskoa zaigu Danilo Martucelli soziologoak egiten duena (2007). Gaurko gizarte prozesu, joera eta egiturak aztertzeo, norbanakoaren soziologia bat planteatzen du, subjektibotasuna soziologiari dagokion esparru modura aldarrikatuta.

Subjektibotasuna, Martucelliren arabera, soziala den horri ihes egiten dion norbanakoaren arloa da, baina aldi berean estuki baldintzatua dagoena historiko eta sozialki. Ezin dugu subjektibotasunean pentsatu eremu pribatuari soilik dagokion esparru modura edo rol sozial jakin bat jokatzeo estrategia modura; aitzitik, badago zerbait norbanakoan egitura hertsagarrienak ere harrapatu ezin duena, eta beraz, emantzipazioarako aukerak zabalik lagatzen dituen.

“Pero ¿qué quiere decir la subjetividad? Cómo en los casos precedentes, existe una pluralidad de definiciones. Sin embargo me parece que es posible dar con una definición relativamente consensual: a saber, la subjetividad es la voluntad o la vivencia de poseer un dominio personal sustraído a lo social. Es una experiencia particular de sí mismo; la sensación –validada social y culturalmente– que tenemos “algo” en nosotros mismos que escapa a lo social. La paradoja fundadora de la subjetividad es pues de circunscribir un dominio personal que se concibe como sustraído a lo social, y al mismo tiempo, y por supuesto, esta caracterización de un dominio interno fuera de lo social es una definición profundamente social e histórica. Así definida, la subjetividad abre pues la sociología a un estudio existencial, de otra índole que la propuesta por los soportes.” (Martucelli, 2007b: 54).

Subjektibotasuna adar soziologikotik begiratu gura badugu, norbanakoak bere buruarekin eta bere inguruarekin ezartzen duen harremanean jarri beharko du arreta. Martucellik subjektibotasunaren prozesu izaera azpimarratzen du, etengabe eraberritzen dena, norbere sentimentu, esperientzia eta aurkitzen duen mundu objektibatuaren artean. Mundu objektibatu horretan nola murgiltzen den, zein subjektibazio prozesuren bidez *objektibatzen* den aztertzea interesatzen zaigu.

Norbert Elias soziologo alemaniarraren (1993) lan ezagunak, esaterako, modu originalean aztertzen du autokontrolerako mekanismoak (hots, subjektibazio moduak) nola garatu diren estatu modernoaren etorrerarekin. Bere tesiaren arabera, estatuaren indarraren monopolioak harreman estua du norbanakoaren diziplinatzeo erekin, eta horren adibide dira otorduetan mahaiaren bueltan garatzen diren praktika *zibilizatuak*. Estatuak geroz eta legitimazio gehiago irabazi ahala, norbanakoak bere segurtasunaren ardura ere estatuari onartzen dio eta horrek jokabide zabarrak kontrolatzeko bide ematen duela aztertzen du Eliasek. Esaterako, mahaiaren eskuekin jan ordeza eta animaliak ezpatekin moztu ordeza, zibilizazio prozesuak ahalbidetuko du sardesken eta labanen erabilera orokortzea, hots, jokabide sozial jakin bat errotzea. Eliasek zibilizazio prozesua, beraz, subjektibazio prozesu jakina da, arrazoi historiko eta sozialei lotua, subjektua modu zehatz batez arautzen duena.

Bourdieu-ren *habitus* kontzeptuak ere, nortasun eta praktika egitura zehatzei egiten die erreferentzia, eta teoria soziologikoan norbanakoaren jokabide sozialak aztertzeo dagoen kontzeptu indartsuenetarikoa da. Norbanakoak bere inguruarekin harremanean *habitus*

zehatz bati ematen dio forma, gaitasun eta jokamolde batzuk zorrozten ditu, bere nortasunari eta subjektibotasunari molde zehatz bat emango diotenak. Bere jatorri latindarrari lotzen bagagozkio, *Habitus* berbak kanpoko itxura esan gura du, hau da, aspektu fisikoa, janzten ditugun arropak, orrazkera etab. Bourdieu-ren formulazioaren arabera, itxura edo molde hori praktika zehatzen bidez berreraikitzen dugu etengabe, izan besteekin dugun harremantzeko moduetan, gustu sozial eta kulturaletan edota hizkeran bertan. *Habitus*-a aldi berean da itxura eta itxura horri loturiko praktika. Geure hizkerara ekarriz, *Habitus*a molde subjektibo zehatza da, historia barneratua, hautemate eskemetan edo jokabideetan azaleratzen dena.

Are, *Habitus*-ak gizarteko kideei errealitatea sortzeko gaitasuna eskura jartzen die. Bearnoko pentsalariak esango digu errealitate soziala ekoizteko gaitasun hori, sozialki eraikia, ez dela subjektu transzendente batena, gorputz sozializatu batena baizik. Gorputz horrek, aurretik jaso izan dituen ezagutzak (harremantzeko moduak, antolatzeak eta abarrak...) erabiltzen ditu egunerokoan errealitate soziala eraikitzen jarraitzeko. Beraz, Bourdieurekin esateko, egituratua eta egituratzailea da aldi berean. Gizarteko eragile den orok *Habitus* zehatza du barneratua, gorputzera ekarria, euren bizipen eta ibilbide biografikotik eraikia izan dena. Hautemate, aitortza eta ekintza eskemak geure gogoan antolatuak dauzkagu, eta egunerokoan burutzen dugun ekintza oro eratorriko da aurrez metatutako ezagutza praktikotik. Bestela esanda, gizartean jarduteko ez dugu zertan etengabe kalkulu arrazionalak burutzen jardun, barneratutako egitura kognitiboetatik automatizaturiko ekintzak jaurtitzen dira uneoro. Modu horretan garatzen ditugu jokabide sozial zehatzak, besteekin egoteko moduak. Modu zehatzean subjektibatzen gara, alegia.

Eliassen eta Bourdieu-ren ekarpenekin, subjektibotasuna eta subjektibazio prozesuak ikertzeko soziologiak eskaintzen duen aukera interesgarria azpimarratu nahi dugu. Harreman estua dago norberaren subjektibotasun eratze prozesuaren eta subjektibatzeak aurkitzen dituen moduen artean. Dena dela, kontzeptu horiek apur bat argiago gera daitezten, subjektibazio prozesuen ikerketaren bulkada nagusietakoa emantzipaziorako baldintzak zein diren ikertzea izan da. Bestela esanda, ikerketa bide horiek gidatu dituen galdera ondokoa izan da: erabat arrazionalizatutako gizarteetan, geratzen ote zaio oraindik subjektuari emantzipaziorako tarterik? Subjektibatzen den espazioak beti lagako du espazio bat biluzik, arrazionalizatu eta egituratu gabe, eta hor leukake subjektuak ihes egiteko bidea.

Esan beharra dugu, subjektibazio prozesuen gaineko ikerketaren *corpus* teoriko eta enpiriko aberatsenak marxismoaren bueltan egin diren ikerketetan topatu daitezkeela. Martucelliri jarraituz, eremu teoriko horretan pentsatu eta landu da gizarteko menderatze eta *sujezio* moduak nola gauzatzen diren eta emantzipazioak zein leku daukan hor. Alde batetik, subjektu indibidualaren eta subjektu kolektiboaren arteko dialektikatik pentsatu da harreman hori. Tesi horietako oinarrizko argudioa ondokoa da: Soilik subjektu kolektiboaren indarretik zabalduetako espazioan du subjektu indibidualak emantzipaziorako atea zabalik (Martucelli, 2007). Bestetik, gizarte menderatze-sistemak subjektua zein ertzetatik heltzen duten (sujezioaren ideia) pentsatu eta teorizatu dute, prozesu horretan subjektuari emantzipaziorako zein tarte geratzen zaion zehaztu nahirik.

Bada, lurralde teoriko horretan eraiki diren marko kontzeptualek balio digute hobeto ulertzeko gizakia nola bilakatu den subjektu moderno, zeintzuk diren bere

determinazioak eta zeintzuk arrazionalizazio prozesuak xurgatu gabeko espazio subjektiboak. Oso nabarmen lagatzen du Martucellik subjektibotasunaren izaera eraikia, kulturala:

“Pero ¿de dónde viene la subjetividad? Si se acepta lo anterior, el “misterio” empieza a disiparse. La subjetividad es una construcción cultural. En este sentido, no tiene nada de mágico, de no social, de profundo... Es la cultura, ayer la matriz religiosa de la civilización, hoy esencialmente la cultura del modernismo la que entretiene y entreteje el sentimiento de la subjetividad.” (Martucelli, 2007:55)

Felix Guattarik (1996) berak ere, psikoanalitik etorriagatik, subjektibotasuna eremu soziologikotik ikertzeko premia azpimarratzen du. Pentsalariaren arabera, subjektibotasuna eremu indibidual, kolektibo eta instituzionaletatik zizelkatu daiteke, eta hor oinarri gehien eskaini dezakeen jakintza esparrua soziologiarena da. Noski, bere kutsu post-estruturalista ekarriz, aipatzen du subjektibotasuna ez dela sujezio modu bakar batek edo menderatze batek determinatua, askotarikoa eta aurpegiera ezberdinetakoa baizik, plastikotasun handikoa. Hau da, subjektuaren itxituraren ezaugarria kanpokotasunera zabalik egotea da, egokitzeko, ikasteko eta berregiteko gaitasuna dauka. Bere barne-organismoa berrantolatu dezake nolabait.

Subjektuaren konposizio plastiko horrek, beraz, balio digu erakunde sozialetatik garatu daitezkeen bestelako subjektibazio-dispositiboetan pentsatzeko, bestelako moldez antolatzeko subjektibazio eta sujezio prozesuak. Felix Guattarik garbi lagatzen du, Martucellik egin bezala, subjektibotasunaren izaera eraikia, moldagarria eta kulturalki baldintzatua. Funtsezko baieztapena da hori, guretzat, erronka ekosozialak zabaltzen duen agertoki historikoan.

“El sujeto, según toda una tradición de la filosofía y de las ciencias humanas, es algo que encontramos como un *être-là*, algo del dominio de una supuesta naturaleza humana. Propongo, por el contrario, la idea de una subjetividad de naturaleza industrial, maquinica, esto es, esencialmente fabricada, modelada, recibida, consumida” (Guattari eta Rolnik, 2005: M. Uicich, 2012-n aipatua, 102. orrialdea.)

Laburbilduz, subjektibotasuna esparru soziologikotik ikertzeko egokitasunak geure gizarte (post)-modernoetan laneko esparruan eratzen diren subjektibotasunak begirada soziologikotik ikertzea jutsifikatzen du. Bere izaera plastiko, moldagarri eta eraikitik begiratzeak, ortzimuga berriak irudikatzea ahalbidetzen digu, eta beraz, instituzio kooperatiboaren birmoldatze bat planteatu daiteke, ekologikoki funtsatutako ikuspegieta oinarritu litekeena.

Gizarte garaikidera begirada luzatuz, zein da bada, baldintza horietan ahalbidetzen diren subjektibotasunak lanaren esparruan? Zein subjektibazio prozesu jartzen ditu martxan *makina-kapitalistak*? Lanaren esparruan eta hedaduraz Arrasateko Kooperatibetan eratzen diren subjektibotasun formak ulertzeko, gaia sakonki pentsatu duten autoreetara joko dugu jarraian. Foucaultek subjektu neoliberalaren egindako gogoetekin hasi eta gaurko gizarte zientzietan egiten diren ekarpen psikosozial ezberdinekin amaitzeko.

3.3 Biopolitika eta subjektu diziplinamendua:

“Denda itxi behar al duzu? Negozioak itxarongo du, orain, ezagutu berri dudan lagunarekin tea hartzeko unea dut. Tontokeria litzateke gustuko solasaldiari uko egitea.” **Joseba Azkarraga Etxagibel**

Egun gizarte zientzietan dauden definizio ezberdinetara hurbiltzeko, ezinbestekoa zaigu lehenik kapitalismoan gertatzen diren subjektibotasunen ekoizpenen gaineko analisiak duen tradizio teorikoari begiratzea. Horretarako, badago kontzeptu zentral bat, biopolitika, derrigorrean azaldu beharrekoa, eta Michel Foucault autoreak (1975, 1977 eta 1991) egindako ekarpena aipatzea.

Autorearen arabera, XVII. Mende bukaeran gobernu arrazionaltasun berri bat eratu zen, bizitza eta bizia den oro kudeatzeko gaitasuna. Hori izango da hain justu, biopolitikaren oinarria. Ekonomiaren eta gizarte portaeren analisia egin zuenean findu zuen, XVIII. mendetik aurrera garatu zen ekonomiak, biztanleriaren kontrola eta portaeren bideratze jakina zutela helburu. Teknika estatistikoen garapenarekin biztanleria multzokatu eta aurreikusgarri bilaka zitekeen, mundu ikuskera zehatzak sustatzen ziren langile klaseetan bereziki. Prozesu horri *biopolitikaren jaiotza* deituko dio Foucault-ek (2004). Antza, prozesu horren zutabe nagusietako bat ekonomia produktiboago bilakatzea litzateke, langileen psikeak moldatuz lehiakor eta eraginkor izan zitezela lanaren esparruan. Lanerako diziplinamendu-teknologiak diseinatuko dira, Foucault-en hitzetan.

Praktika horiek nola garatzen diren *Vigilar y Castigar* (Foucault, 1975) liburuan aztertzen du sakontasunez. Bertan, xeheki aztertzen ditu gorputzaren gainean zein motatako teknikak eta jakintzak aplikatu ziren, gorputz otzanagoak bilakatu eta euren errendimendua hobetzeko, makinak bailiran. Diziplina ezartzeko moduetan jauzi kualitatibo bat gertatu zela azpimarratzen du autoreak; lana kontrolatzeko moduak ikuskatzeak, txostenak, hierarkiak edota bigilantzia etengabekoak antzekoak baziren ere, XVIII. mende hasieran jaioko den botere teknologik berritasuna dakar. Aurreko kontrol-sistemen diziplinari uko egin gabe, berau sofistikatu du, urrats bat haratago eramanez. Barreiatzen den diziplina modu hori ez da soilik lanaren esparruan ezinbestean erabili beharra dagoen giza gorputzera zuzentzen, bizitzara baizik. Gorputz eta izate produktiboak behar dira.

Bioboterea deituko dio une historiko horretan jaioko den botere-teknologia berriari, zeinak dispositibo edo botere-gailuen bidez biztanleria gobernatuko duen. Egitura edo erakunde antolatuetan dira botere-gailuok eraginkor, lantegietan, eskoletan, zoro-etxeetan, kartzoletan, armadan... Pertsonaren barrunbe psikosoziologikoetan murgiltzeko gaitasun aparta dute leku horiek, jarrerak, izaerak eta pentsamoldeak nahieran marrazten dituzte. Erakunde itxi bakoitzak, diziplinaren bidez, norbanakoak ekoizten ditu, hau da, gaitasun eta trebetasun zehatzez hornitutako gorputzak, hots, subjektibotasun zehatzak.

Helburu nagusia, bizitzaren jardueraren gainean kontrol neurri zehatzak indarrean jartzea litzateke. Alabaina, bioboterearen botere-gailu edo dispositibook ez dute zertan erakunde antolatu-itxien baitan jardun, gizartean edonon topa dezakegu bere oihartzuna. Diskurtso filosofikoak, akademikoak, judizialak, zientifikoak, erlijiosoak...

guztiak daude mundu ikuskera zehatza transmititzeko borondatez ziprztinduta, ikuspegi Foucauldiarrean. Are, ez soilik eremu diskurtsiboan, geure hirietan nagusi diren egitura arkitektonikoak, bitarteko teknikoak etab. ere diskurtso jakin horiek irismen handiagoa izan dezaten diseinatu dira.

Bestetik, gorputzaren praktikak bideratzen dituzten jakintzak nola garatzen diren aztertzen du *Historia de la sexualidad* (1977) liburuan. Bertan jakintzak eta egia nola ekoizten diren azaltzen du, eta azalpen horren adibide paradigmaticoena sexualitatea litzateke. Izan ere, sexualitatearen bidez aurrez aipatutako jakintza demografiko-estatistikoak moldeatu litezke, jaiotza-tasa, heriotza-tasa, bizitzako iraupena, osasuna edo garbitasun neurrien bidez. Modu horretan, gorputza ez da soilik erabilgarritasun helburu batera mugatzen, espezie modura definitzen da.

Bi eremu horien arteko uztarketak (espezie-makina), botere-diagrama zehatz batez gurutzatua egonik, arrazionaltasun politiko jakina ekoizten du, *giza bizitzaren kudeaketa erabatekoa* lortzea helburu lukeena. Diskurtsoek, finean, unibertso moralak eraikitzen dizkigute, subjektibotasunari forma ematen dihardute etengabe. Foucaultek boterea eta jakintzaren arteko harremanaren azterketa xehea egiten du, harreman horretatik ekoizten da *egia*. Egia eraikiz, egia eta faltsua dena eraikitzen baita, jakintzak diseinatzen dira arrazionaltasun zehatz baten baitan.²⁷ Bi hankako harreman elkar-osagarria da planteatzen duena, boterea da jakintzaren egilea.

“No existe relación de poder sin constitución correlativa de un campo de saber, ni de saber que no suponga y no constituya al mismo tiempo unas relaciones de poder. Estas relaciones de “poder-saber” no se pueden analizar a partir de un sujeto de conocimiento que sería libre o no en relación con el sistema de poder; sino que hay que considerar, por el contrario, que el sujeto que conoce, los objetos que conocer y las modalidades de conocimiento son otros tantos efectos de esas implicaciones fundamentales de poder-saber y de sus transformaciones históricas.” (Foucault, 1976: 28)

Horrenbestez, egia, edo egia gisa sozialki onartua denak botere efektu zuzenak dauzka. Subjektua bera bilakatu da botere efektu horren produktu, botere diziplinario eta biopolitikoek zizelkatuko dute indar eta erritmo ezberdinez, “egiaren” erregimen zehatz baten pean. Hori da hain justu, bere azterketa genealogikoarekin aztertzen duena, modernitatean ekoizten diren sujezio moduak, subjektu garaikideak bere bizitza produkziara bideratu dezan.

Ibilbide teoriko hori eginda formulatzen du intereseko zaigun *norbere enpresariaren* ideia (Foucault, 2007). Funtsean, kontzeptu horrekin zera adierazi nahi du: neoliberalismoak *homo economicus*-aren itzulera ahalbidetu duela²⁸, baina bestelako zentzu batean. Ekonomia neoklasikoaren garaian erabaki arrazionalaren printzipioari jarraiki ekiten zuen *gizaki ekonomikoa* formulatu zuten, truke-harremanetarako bazkideak bilatuko

²⁷ Foucault-ek *La voluntad de saber* lanean xeheki fintzen du jakintza eta boterearen arteko harremana. Egiaren genealogía ariketa bat planteatuz, garai historiko bakoitzean ekoizten diren egia deseraikitzen ditu, gizarteak egia produzitzeko dituen mekanismoak agerian jarriz.

²⁸ Gorago erreferentzia egin diogun arren, norbanako garaikidea lanari begirako subjektu gisa deskribatzea ez da Foucaultek dakarren berritasuna, Weberren lanean topa dezakegu ildo horretako azterketa, batez ere profesioa bokazio modura deskribatzen duenean. Horren atzean, norbera eta ingurua ulertzeko etika puritanoa, autokontorla, sakrifizioa eta lanerako borondate itsua identifikatzen ditu, mundu honetako bidean jainkoari eskerrak emanik bizitzeko modu gisan.

zituen. Aldiz, neoliberalismo garaiko *homo economicus*-ak bestelako moldez dihardu, bere buruaren enpresaria bilakatuz:

“En el neoliberalismo –que no lo oculta, lo proclama- también vamos a encontrar una teoría del *homo economicus*, pero en él no es en absoluto un socio de intercambio. El *homo economicus* es un empresario, y es un empresario de sí mismo. Y esto es tan cierto que, en la práctica, va a ser el objetivo de todos los análisis que hacen los neoliberales: sustituir en todo momento el *homo economicus* socio del intercambio por un *homo economicus* empresario de sí mismo, que es su propio capital, su propio productor, la fuente de [sus] ingresos” (Foucault, 2007: 264-265)

Funtsezkoa da Foucault-ek emaniko bira teoriko hori gaurko subjektibazio prozesuen azterketak ulertzeko. Pentsalari Paristarraren arabera, neoliberalismoak asmatu du *giza kapitalaren* osaketa eta metaketa zein elementuz egina dagoen aztertzen. Beraz, jada ez da soziologiak bereizi izan duen kontsumitzaile eta ekoizle arteko bereizketa egin behar, gaurko subjektuak bere burua asetzeko baldintzak ekoizten baititu kontsumitzen duenean:

“En la medida que consume, el hombre del consumo es un productor. ¿Y qué produce? Pues bien, produce simplemente su propia satisfacción. Y el consumo debe considerarse como una actividad de empresa por la cual el individuo, precisamente sobre la base de un capital determinado del que dispone, producirá algo que va a ser su propia satisfacción. Por consiguiente, la teoría, el análisis clásico y cien veces reiterado de quien por un lado es consumidor, pero también es productor, y en la medida que es productor por un lado y consumidor por otro está de algún modo dividido respecto a sí mismo, todos los análisis sociológicos (pues jamás han sido económicos) de consumo masivo, de la sociedad de consumo etc. No se sostienen y no valen nada en comparación con lo que sería un análisis del consumo en los términos neoliberales de la actividad de producción.” (Foucault, 2007: 265-266)

Bada, norbere izate sozialaren ekoizpenaz mintzo da Foucault, ez soilik bere burua asetzeko baldintza ekonomikoak ekoizten dituen, ezpada baldintza subjektiboak ere. Bestela esanda, neoliberalismoaren aroan ekoizten den subjektua bere izatearen kontsumitzaile bilakatzen da. Eguneko hogeita lau orduetan *norbanako-enpresa*²⁹ izango da, bere aisialdia, atsedena eta harremanak ere planifikatuko ditu, errendimendua hobetu eta satisfakzio maila altuagoa lortzeari begira. Hor datza Foucaultek *subjektibazio prozesuen* azterketarekin dakarren potentzia analitikoa, norberak bere buruarekin ezartzen duen harremana arakatzean. Geure gorputzean eta *izateko eran* txertatuak dauzkagun jakintzak eta botereak identifikatzeko ariketa egiten du, berauek berrikusi eta bestelako moldez ekiteko. Bestela esanda, Foucault-en sujezioaren ideia potentzia norbere buruak garatu dezakeen erresistentzia *mikrofisikoan* oinarritzen da, *izateari lagatzeko* eta *beste modu batez* izaten hasteko. Aurrez aipatu dugun subjektibotasunaren elementu askatzailea ageri zaigu puntu honetan, bere izaera eraiki eta moldagarria.

Zentzu horretan, Pierre Dardot eta Christine Laval Foucaulten eskolari jarraitzen dioten teoriarari sozialek diotenez, lehiakor izateko eskaria, printzipio politiko orokor bilakatu da bizimodu garaikidean (Dardot eta Laval, 2013). Bizitzaren esparru ia orotara hedatu da arrazionaltasun neoliberal, errealitate sozial eta subjektiboak lehiaren

²⁹ Foucaultek neoliberalismoaren gaineko azterketan dio neoliberaliek gizartea aztertzean ez dituztela norbanakoak, prozesuak edo egiturak ikusten, enpresak baizik. Oro da empresa-unitate, gizartea bera enpresa-unitatez osatua dago, hori bihurtzen da gizarte antolakuntzaren bizkarrezur, eragile oro enpresa bilakatzea eta hari loturiko arrazionaltasuna bereganatzea, hain justu.

printzipiotik abiatuta eraikitzen dira. Arrazionaltasun zehatz horrek, egungo subjektuen barne eta kanpo psikearen eraketan du eragina, biztanleria gobernatzeko modu zehatzen ondorioz, hots, *gubernamentalitasun* jakin baten ondorioz, biztanleriaren eta norbanakoen jokatzeko moduak bideratu nahiko dira (Foucault, 2002). Ekoizpen antropologikoa da funtsean, eta Marx-ek esan bezala, ekoizpen egitura ekonomiko oro da ekoizpen egitura antropologiko lehenbizi.

Lan-jarduna derrigorrezko zeregina izatetik ekintza erakargarria izatera pasatzeko jauzia da planteatzen den gatazka. Bourdieu-k ere aztertu zuen, hasierako kapitalismo industrialerako trantsizioan oso garbi zegoela garaiko gizartearentzat eraikuntza sozial berri-artifizial batean murgiltzen ari zirela. Ordea, urteak igaro ahala, eta industria kultural oso baten eraginaren bidez³⁰, errealitate sozial eraikiaren ideia baztertu eta errealitate *naturalizat* hartzen hasi zen, *berezkoa*. Nolabait, mundu sozialaren egitura objektibo berriak, egitura kognitiboen ordena sinbolikoarekin uztartu ziren, (Bourdieu, 1997). Prozesu horri esker, ezarritako ordena sinboliko-sozial berriaren onarpen *doxikoa* gauzatu zela dio pentsalari frantziarrak.

Subjektibotasun garaikideak, beraz, merkatuan hartzen du itxura, merkatura begira konfiguratzen da. Horrek kontraesan eta tentsio antropologikoak sortzeaz gain, helburu instrumentalei begirako harremanen hedatzea dakar, behinola Weberrek planteatu zuen bezala. Subjektibazio prozesu garaikideak merkantzia-forman hartzen du lur, eta hortik jaiotako prestutasunak, trebeziak zein mundu ikuskerak garatu nahiko ditu. Hardt eta Negirekin esateko, inperioak behar duen mundu-ordena berriari langileari etengabe eskatuko zaio ekoizle, kontsumitzaile edo bere buruaren esplotatzaile izatea, bizi-denbora guztia zurrupatzeraino (Hardt eta Negri, 2017). Biopolitika modu horretan aplikatuta eta subjektibotasun forma neoliberala ekoizita, kapitalismoak bere burua birsortuko du etengabe, balioaren eraikuntza bizitza sozialaren eta norbanakoaren eginbeharraren erdigunean jarrita, jarraian ikusiko dugun moduan.

³⁰ Theodor W Adornoren pentsamendua eta lana zaigu hemen aipagarri. Filosofoak ikertu zuen nola logika sozial kapitalista orohartzaile bilakatu zen fordismoaren aroan. Adornok deskribatu zigun nola industria kulturalaren bidez soldatapeko langileengan ametsak, desirak eta munduan egoteko moduak ekoizten ziren. Nola pelikulen, telesailen edo irratiaren kontatzen ziren istorioen bidez eragiten zuten pertsonen pentsatzeko eta harremantzeko moduetan, nola eraikitzen zen sozialki sozializazio kapitalistan erabat murgildutako subjektu molde bat. Ohartarazpena egin behar dugu noski, Adornok ezagutu zuen kapitalismoa fordismo betean zegoen, estatu-zuzendaritza nabarmenarekin eta bizimodua antolatzeke irizpide industrialen nagusitasunarekin. Gaurko botere-ezarpen moldeak aldatu dira, eta beste leku batzuetatik bideratzen da subjektibotasunaren eraikuntza. Dena den, ezin dugu gutxietsi Adornok egindako ekarpena, subjektibotasun kapitalista modernoaren oinarri antropologikoak maisutasunez identifikatu eta deskribatu zituelako.

3.4 *Ethos* enpresariak, subjektuaren balio eraikuntza.

Jarraian, bai Foucault zein Bourdieuren lanaren jakitun diren autoreek irakurketa psikosozial garaikideagoak proposatu dituzte, gaurko lan-merkatuaren baitan konfiguratzen diren subjektibotasunen, etikaren eta praxiaren gainean. Askotarikoak dira lanera begirako disposizio horien ertzak, ondorengo orrietan horietako batzuk zerrendatuko ditugu.

Free work-arekin, digitalizazioren etorrerarekin eta soldatapeko lanaren paradigma erori dela identifikaturik, lan subjektibotasunaren inguruko analisisan ondorengo ezaugarri hauek nabarmendu daitezke (Dardot eta Laval, 2013; Cocco eta Szaneki, 2015): *Self management* edo norbere kudeaketa enpresarialaren paradigma hazi da eta ondorengo ezaugarri bereizi hauek hartu ditu; i) lan jardueraren autonomia garatzen da, hierarkiak ez du horrenbesteko pisurik eta langileak bere lan produktuarekiko duen kontrola handia da ii) Emozionalki murgiltzen da langilea bere zereginen, bere lan gaitasuna ez ezik, pasioa jartzeko mekanismoak garatzen ditu. iii) Sakoneko autoarauketa prozesua burutzen du langileak, ekoizpenari gehien komeni zaizkion bere izaeraren aldeak indartuz iv) Erantzukizunaren pisua norbere arrakastaren gain, langileak du ardura erabatekoa bere lan-ibilbidearen kokapen arrakastatsu edo prekarioari dagokionez. v) Sormena eta berritasunaren gorestea, uneoro ezberdintzeko tresna gisa. Bost ezaugarri horiek, eredu soziolaboral berri baten trama josten ariko lirateke.

Foucault erreferente teorikotzat badaukate ere, “gorputz diziplinamenduez” baino “gogoen kudeaketa”ra pasa garela sostengatzen dute (Dardot eta Laval, 2013: 418). Bestela esanda, gorputza diziplinatze ariketa, Foucaultek ikertu eta deskribatu zuena, molde subjektibo baten eraikuntzan parte hartu duen beharrezko fasea izan da, bere ekarpena egin duena. Ekonomia politiko klasikoak ekoizpenean eta prozesu produktiboa hobetzeko eginkizunean hartu behar ziren elementu fisikoetan jarri zuten arreta. Ordea, iraultza marginalistarekin³¹ ohartu ziren elementu psiko-soziologikoak prozesu produktiboaren mesedetara bideratuz gero, produktibitatearen hazkuntza nabarmena gertatuko zela.

AKE-ko kooperatiben baitan lan mundura hurbiltzen diren gazte belaunaldietan, zerrendatu berri ditugun alderdiak zein neurritaraino betetzen diren ikertzea dagokigu. Lanaren soziologiatik definitzen den sailkapen garaikide horrek esperientzia kooperatiboan zein forma hartzen duen aztertzea bereziki da interesgarria. Ariketa hori egiteari esker, lanaren eraldaketak eta berari estuki lotua dagoen subjektibotasunak nola

³¹ Ekonomia politiko klasikoan aritu ziren autoreei argudio edo jakintza psikologikoak ez zitzaizkien interesatzen, ikuspuntu material-fisikotik teorizatzen zuten, helburua aberastasuna sortzea zelako. Lan-indarra, kapital finkoa, lurra, makinak... ziren euren ikerketetara ekartzen zituzten ikergaiak. Bestela esanda, ekonomiaren arazoak mugatzen ziren soilik naturaren indarrak nola gainditu edo kontrolatu asmatzera. Behin hori lorturik, konponduko ziren ekonomia zientzien gatazka gehientsuenak (Davies, 2016). Ordea, ekonomia psikologiara zabaldu zuten autoreak etorri ziren “**iraultza marginalista**” deitu izan den prozesuan. Marginalistak ohartu ziren, modu matematikoen bidez ekonomia eta psikologia elkarnahasi zitezkeela. Merkantiaren kontzeptua harremanean jarri berak erakartzen zituen emozioekin, produktu salgarria jada ez zen ondasun jakin bat soilik; are, sufrimendua ekidin zezakeen edo plazerra sorrarazten zuen edozer izan zitekeen merkatuan saltzeko tamainako produktu.

uztartzan ari diren gertutik ezagutu ahalko baitugu. Horrez gain, ohiko enpresa kapitalistetan lanean diharduten langileen kasu enpirikoak oinarri hartuta egin da sailkapena, eta beraz, zimendu sakonak autoeraketaren pentsamenduan dituen esperientziak bestelako ezaugarritzea behar lukeela pentsatzerik badugu, nahiz eta nazioarteko lan prozesu orokorretatik salbu ez egon.

Geurera itzuliz, korrante *foucauldiarraren* baitan kokatu ditzakegun ikerlariak kokatzen dira batez ere neoliberalismoan subjektibotasun mota zehatz bat eratzen dela dioen tesian. Haien arabera, bizitzak gobernatzeko modu neoliberalak etengabe krisi edo arrisku egoerak sortzean datza. Krisia bera baita biziera garaikidea ezaugarritzen duen egoera, ziurgabetasunaren etxea du bizileku neoliberalismoaren garaiko langileak. Lan egonkor eta iraunkorra mantentzeko zailtasunaren bidez eta etengabe ebaluazio prozesuen galbahetik igaro beharrak, egokitze zein hobekuntza etengabekoa eskatzen du. Ikuspegi horretatik, biztanleria gobernatzeko modu neoliberalak lortuko du norbanakoak bere helburuak enpresaren helburuekin bateratzea. Izan ere, enpresaren onspena edukiz gero, autoestimua eta norbere kokapenarekiko segurtasuna haziko dela defendatzen dute.

David Harvey geografo ezagunak kapitalismoak bizi duen aro honi *desjabetzearen metaketa* deitu dio (2007, 2012). Kapitalak bere ekoizpen-banaketa-kontsumo ziklo klasikoarekin nahikoa ez eta eremu berriak bilatzen ditu balioa xurgatzeko, izan mundu birtuala, izan ingurugiroa, izan giza psikologia, lan merkatu malgua edota finantza eremua. Gizarteak sortzen duen oro balio zikloetan murgiltzea luke helburu. Termino foucauldiarretan esateko, biobotere liberalaren gobernatzeko modua biztanleriaren eta pertsonen bizi-ibilbidearen gainean geroz eta dominazio, kontrol zein botere forma sofistikatuago eta orohartzaileagoak ezartzean datza.

3.4.1 Errendimendua eta gozamina, subjektu neoliberalak:

Dardot eta Laval soziologo frantziarrek *errendimendu-gozamen gailu* gisa definituko dituzte enpresetan eta *managment* munduan martxan jartzen diren estrategia psikosozial horiek. Autoreon arabera, hor legoke subjektibotasun neoliberalaren ekoizpen arrakastaturako gakoak: subjektuari modu jakin batean ekitea eskatzen zaio, joko arau zehatzen arabera, baina kanpotik etorritako inposaketa gisa interpretatu ordez, subjektuak bere borondatez diharduela ulertzen du. Hor legoke errendimendu-gozamen gailu-aren eraginkortasuna, langileak bere enpresan edo lanaren esparruan errendimendua uneoro hobetu beharra gozamen iturri dela sinestean.

“Subjektu berriari eskatzen zaiona zera da: ekoitz dezala aldiro gehiago eta gozatu dezala aldiro gehiago (...) Bizitza bera, bere adar guztietan, errendimendu eta gozamen dispositiboen objektu bilakatu da. Horrelakoxea da enpresa zuzendaritzen diskurtsoa, errendimendua eginbehar ukaezintzat jotzen du, eta gozamina lortzea agindu inperatibo” (Dardot eta Laval, 2013: 360)³².

³² Itzulpen propioa.

Nolabait, Dardot eta Laval ikerlari sozialek defendatuko dute, merkatu ekonomiaren arrakasta dogmatzat hartu den nazioarteko testuinguru garaikidean, enpresa nagusitu dela erakunde arau-jartzaile goren gisara. Ikuspegi horren arabera, gaur egungo gizartean diharduen beste edozein erakunde sozialen aurretik, enpresa da gaitasun handiena duena norbanakoarengan arauak jarri eta enpresaren irudiari loturiko identifikazio sozialak eraikitzeko. Lehia eta eraginkortasun ideien itzalpean burutuko da subjektuaren jarduna, arrakastaren ardatzean neurtuko du bere burua. Era horretan konfiguratuko da *subjektu-enpresa* izendatzen dutena (Dardot eta Laval, 2013: 363), errendimenduaren hobekuntzari emana; subjektu horrek “egia”-tzat hartuko du enpresaren eta bere lanpostuaren errendimendua; bere eguneroko jardunaren zentraltasuna hartuko du egia horrek; *management* diskurtsoetik eratortzen denak indar sozializatzaile handia izango du.

Inplikazio erabatekoak du garrantzia, subjektuaren barne-gogo eta izaera bera jartzea lan esparruko proiektu, ekimen edota motibazioen esanetara. Byung-Chul-Han filosofoak dio, Foucault-en ikerketa ildoak eta historiaren irakurketa diziplinarra bere eginik, debekua, agindua eta legea baziren modernotasuneko ezaugarri behinenak, orain ustez geuretik ateratako proiektu edo ekimenak direla (Chul Han, 2012). Filosofoaren iritzian, jarrera positiboak gainezka egin duen egoerara iritsi gara. Gaurko gizarteak, duela hamarkada eta mendeetakoak ez bezala, ez ditu zoroak edo kriminalak ekoitziko, jende depresiboa eta bizi-ibilbidean porrot egindakoa baizik. Gizarte analisirako korrante teoriko honentzat, frakasatuen produkzioa gora eta gora doa laborategi neoliberallean:

“Gaurko gizarteetan gaixotzen duena ez da ardura gehiegi edukitzea, errendimenduaren inperatiboa baizik: horixe bera da modernotasun berantiarreko lanaren gizarte honek ezartzen duen agindua (...) Gizaki deprimitua bere burua esplotatzen duen hura izango da, *animal laborans* gisa, borondatez eta kanpotik ezarritako agindu espliziturik gabe, errendimendua ahalik gehien maximizatzeko derrigortasun askearekin.” (Chul-Han, 2012: 29-30)³³.

Subjektibotasun neoliberalak, bere buruarekin aseta sentitzeko merkatuan lehiakor izateko gaitasuna erakutsi beharko du. Alegia, bere buruaren produktuak saltzeko gaitasuna izatea exigituko zaio, askotariko merkatuetan saltzen asmatzea. Nolabait, harreman estua dago arrakasta ekonomikoaren eta *benetakotasun* subjektiboaren artean (Bueno, 2020: 106). Norbere enpresariak, bere buruaren benetakotasuna topatuko du, merkatuan zerbait berria eta monetizagarria saltzeko gai agertzen den neurrian. Emozio positiboak, atseginak, mobilizatzea eskatzen zaio norbanakoari. Hori lortzen ez duenak, porrot egingo du bere ibilbidean, frustrazioan eta depresioan erorita. Esan liteke, beraz, subjektu deprimitua dela subjektu neoliberalaren ifrentzua.

Errendimendu-gozamen eta enpresa kudeaketatik datozen bestelako botere-gailuek, beraz, afektuen gaineko ustiaketa dute helburu. Afektuok kudeatzeko moduak egiten du posible subjektu-enpresaren osaketa, sinesmen-multzo zehatza baita elikatzen dena azken finean. Franco Berardi Bifo pentsalari eta analista italiar kritikoak, esango du, zorientasunaren ideologiaren bidez iristen dela langileen gogo-arimetara; esplotazioa alor kognitiboan gertaraztea posible denetik, sekulako arrakala sortu da aro

³³ Itzulpen propioa.

“euforiko neoliberalak” eraiki zituen itxaropenen eta langile-subjektuak egunerokoan zapaldu behar duen lur errearen artean:

“Zoriontasuna eta arrakasta lortzeko itxaropenak bultzatuta, formazio maila oso altuko milioika langile gaztek onartu du estres izugarria jasan behar den lanpostuetan lan egitea. Ez hori bakarrik, ginesplotazioa eta soldata baxuak ere dira lanpostuon ezaugarri. Gazte langile horiek liluratuta egon dira norbere enpresari gisa deskribatzen den langilearen irudiarekin, eta horri esker lortu da lehia bilakatzea giza existentziaren arau unibertsal.” (Berardi, 2015: 19-20)³⁴.

Azaltzen gabiltzan lan-eremuko ezaugarritze honetan, askatasunaren ideia langilearen autonomia, sorkuntza gaitasuna edo erantzukizuna interpelatzeko modu gisa erabiltzen da. Afektuen gaineko kudeaketak, subjektuen nahiak, desirak eta gaitasunak norabide batean edo bestean lerratzeke boterea du. Langileak, askatasunez erabakitzen duela sinetsita, nahiko du errendimendua bere adierazpen perfektuenera hurbildu. *Marketing*-aren, publizitatearen edota *coaching* diskurtsoen bidez moldeatzen dira subjektibotasunak, bizi-estiloak erregulatuz ez soilik eremu instituzionalean, espazio irekiagoetan ere (Lazzarato, 2006). *Management*-ak enpresaren izatea antolatzen duen era berean, *marketing*-a subjektibazio indar gisa ageri da.

Ildo beretsuan, Robert Bellah soziologo estatubatuarrek bokazioaren ideiak jasan duen eraldaketan jartzen zuen arreta (Bellah, 1989). Landu zuen teoriaren arabera, balio *espresiboa* zuten ogibideek (irakasleak, abokatuak, sendagileak, kazetariak...) jada ez dute bokazioa zentzu Weberiarrean praktikitzen. Haren irudiko, Weberrek deskribatu zuen gizartean, bikaintasuna lortzeko zereginean murgiltzen zen profesional protestantea, bere lanbidea zorrotz eta kalitatez burutzeko alde batetik, eta komunitateari ekarpena egiteko bestetik. Ordea, bokazioaren ulerkera modernoak, jainkoaren salbazioa desiratzetik urruti, zerikusi gehiago du norbere ibilbide profesionalean postuz igotzeko asmoarekin, lanaren identifikazio zorrotz eta diziplinatu batekin baino. Bestela esanda, bokazioaren ulerkera klasikoan norbanakoa bere ogibidearekin eraldatzen zen, bere praktikak zentzu soziala baitzeukan; gaur ordea, profesionalen jarduna ni nartzisista bat asetzeari begirakoa litzateke. Bellah-ren interesgunea publizitate, management eta finantza mundutik datozen perfilak dira, ni-a besteengandik desberdindu eta merkatuan arreta deituko duten izaerak sortzen dituztelako, eta horrek agertoki soziologiko oso arriskutsuan jartzen gaitu, Bellah-ren iritziz. Komunitatearen lotura galera, norbanako bakartia eta *business*-aren etika hedatzen direlako sektore sozial geroz eta zabalagoetara.

Finantza ekonomia eta digitalaren testuinguruan gainera, ni-aren errendimenduaren inperatiboa areagotzen da, *entusiasmoa* jartzea eskatzen zaio langileari (Zafra, 2017). Emozioen kudeaketa sistematizatu batek ekoizpena maila batzuetan mantentzea ahalbidetzen duela frogatu dute, eta Eva Illouz soziologoak aztertu duen gisan, gaurko produkzio sisteman, puntako teknologia baino, langileen egoera emozionalak egiten du ekoizpena produktiboagoa izatea (Illouz, 2014). Hortaz, *talentua* edo *marka profesional* moduko berbek pertsonaren izaera bere merkatu adarrera mugatzen dute. Pertsonen arteko harremanak merkatu logika klasikoan (eskaintza-eskaera) txertatzen dira horrela. Alonso eta Fernandez soziologoek harreman estua detektatzen dute talentuaren inguruko diskurtsoen hedatze eta izaera neoliberalen sustapenaren artean:

³⁴ Itzulpen propioa.

“la exhortación del talento se ha convertido en uno de los ejes centrales de la construcción de la personalidad neoliberal. Pero esta exhortación es discursivamente contradictoria y ambivalente. Encierra además una paradoja pragmática: se celebra la vocación, la libertad creativa y el anticonservadurismo, pero, a la vez, se ensalzan los valores dominantes, el máximo ajuste a los objetivos empresariales y el seguimiento acrítico de los valores mercantiles más convencionales (empezando por el canto de la conversión automática del talento en dinero puro y duro). La capacidad crítica o las prácticas no estrictamente sancionadas por el éxito empresarial se quedan fuera del discurso convencional del talento, y con ello, la idea de libertad creativa es sencillamente una trampa semántica.” (Alonso eta Fernandez Rodriguez, 2020: 536).

Errepikatzen zaigun ideia da, giza alderdi emozional-afektiboak merkantilizagarri eta ekoizpenera begirako bilakatu dira. Kontsumo eta produkzio eredu post-fodistaren malgutasunak bizi-estiloak egiten ditu balio sortzaile. Bizitza intimoa bereganatzen du balio-sorkuntza mekanismoen bidez (Illouz, 2019). Horri loturik, *talentuaren* diskurtsoa da adibide egokia kontrol mekanismo biopolitiko hori azaltzeko. Izan ere, kontzeptu horren atzean ezkututzen diren aldagai soziologikoak ez dira kontuan hartzen: alegia, *talentua* posible egin ditzaketen baldintza objektiboak ez dira aipatzen, pertsona bakoitzak *berez* eta *naturalki* garatzen duen gaitasuna litzateke, jatorri sozialarekin, klase kokapenarekin edota generoarekin zerikusik ez balute bezala (Alonso eta Fernandez, 2020). *Talentua* dinamika historikoen eta prozesu sozialen baitan eratzen da, baldintza estruktural jakinetan eta estratifikazio sistema zehatzen testuinguruan. Hortaz, kontuan hartu beharko dugu *talentua*-ren ideiak lotura duela norbanakoak bere burua promozionatu eta autobalorizatzeko aktibatzen diren narratiba neoliberalarekin. Prozesu hori erakunde publikoetatik ere hauspotzen da, soldatapeko gizarteak bizi duen enplegu krisiari aurre egin nahian ekintzailatza planak sustatzen dituzte, ardura subjektuen bizkar gainean jarrita (Alonso eta Fernandez Rodriguez, 2020).

Crespo eta Serranoren (2012) aburuz, subjektibazio-indar horrek indibidualizazio eta psikologizazio prozesuei bide ematen die. Mekanismo subjektiboak errendimenduari begira egon daitezten aktibatzen dira, pertsonak *baliabide* edo *giza kapital* moduko terminoetan sailkatuz. Analisi-korronte horren arabera, norbanako bakoitzak hartu beharreko jokabideak balorizazio eta kapitalizazio prozesuetan murgildurik beharko dute egon, ondoren lan-merkatuan kokapen hobea izan eta lehiakortasun maila altua eskuratzeko. Nolabait, lan arloan egon izan diren berme, erreferentzia eta segurtasun kolektiboaren haustura praktikoa hauspotu du indibidualizazio prozesuak, merituak eta sariak soilik indibiduoaren lorpen edo porrotzat jotzen dira. Era berean, psikologizazio prozesuak arrisku sozioekonomikoak indibiduoaren gain jartzen ditu, desberdintasun sozialak edo klaseen arteko mugikortasunak bakoitzak bere bizi-ibilbidean zehar hartu izan dituen erabakien ondorio zuzena lirateke, eta ez ezaugarri soziologiko klasikoek (klase soziala, generoa, etnia, hizkuntza, kultura, arraza...) aurre-determinatutako emaitza estrukturala. Ulrich Beck-ek (2003) esan bezala, konponbide biografikoak bilatzen zaizkio sistemikoak diren kontraesanei.

Langilearen barne konfigurazioa subjektiboa da horrenbestez, hurbilpen psikosozial hauen arabera, enpresa garaikideak bilatzen duen aktibo nagusia. Puntu honetan aipatu beharra dugu langilea korapilo kontraesankorrean murgiltzen dela prozesu subjektibatzaile horietan, bere inplikazio eta ahalegina areagotzea eskatzen baitzaio lan baldintzen prekarizazio eta sektore publikoen liberalizazio garaian. Langileen negoziaketa kolektiborako gaitasuna ahuldu da enpresarien mesedetan, eta

langile bakoitzarekin negoziaketak burutzeko estrategiak bere fruituak eman ditu, soldaten jaitsieran, kaleratzeen areagotzean edota herri zein langile klaseen pobretzean. Paradoxikoa dirudi, beraz, langileak eurak *subjektu-enpresa* bilakatuta, izatea langile eskubideen defentsa eta ehundura soziala arrakalatzan ari direnak, euren jardun bakartu eta lehiakorraren bidez. Langilearen barne psikismoan zeregin berri bat aktibatzen da, bezeroak lortzera, bere gaitasun komertzialak hobetzera eta malgutasuna handitzera bultzatzen duena, logika eta babes forma kolektiboen kaltetan.

Dena den, ñabardura bat egin behar dugu. Izate enpresari eta norberaren produkziara begirako horrek ez baitu sektore produktibo orotan eragin berbera. Richard Floridak aztertu duenez (Florida, 2010), *management* alorretik datozen diskurtso horiek eragin gehien dute *ezagutzaren ekonomia*-tzat jotzen den esparruan, non klase sortzaileek marka propio bat eraikitzeke beharra duten. Kazetariak, artistak, arte diseinatzaileak, adierazpen kultural ezberdinetako sortzaileak, enpresa zuzendari eta kudeatzaileak... dira batez ere *norbere promozioaren* ideiak barneratu eta praktikara ekarri dituztenak. Ñabardura hori egitea interesgarri zaigu gure kasuan, Arrasateko Kooperatibetan sektore produktibo ezberdinak badaude ere, industria produkzioak pisu nabarmena izaten jarraitzen du eta lantegietan lanari begirako bestelako logika batzuk aktibatzen direla pentsa genezake, zerikusi gehiago izan lezakeena langile fordista industrial klasikoaren oinordekotzarekin.

Izan ere, Arrasateko kooperatibismora begiratuta, lana diziplina eta arau zorrotzen pean praktikatzetik XXI. mende hasiera honetan hartu duen forma berrietara zein neurritaraino igaro ote den aztertzea dagokigu. Proiektu kooperatiboak eskatu du sormen gaitasunetik, eta baita norbere trebetasunik onenak esperientzia kooperatiboaren biziraupen eta arrakastara bideratzerik ere. Euskal kooperatibismoa ezaugarritu duen militantzia historiko hori errendimenduaren inperatibo bilakatu den edo daitekeen aztertzea funtsezkoa da, ezingo baita bermatu proiektuaren etorkizunik frustrazio eta porrotera bideratutako *marketing* eta *coaching* estrategiak aplikatzen badira sistematikoki. Errendimendu-gozamen gailuak Arrasateko kooperatibismoan nola hartu duen lur ikertzeak, beraz, interes berezia pizten du ikerlariaren begiradatik.

Era berean, gehiago ekoitzi eta etengabe errendimendua hobetu beharrak krisi ekosozialaren muinean dagoen hezurdura kulturala ekartzen du argitara. Harmut Rosaren azelerazioaren ideia itzuliz, norbanako enpresariak kokatu ditzakegu gizarte azeleratuaren ernamuinean. Alegia, euren kultura ekonomikoaren arrakasta bermatzeko, bizitza azeleratuak behar dira, gehiago ekoitzi eta salduko dutenak, balantze hobea izango dutenak, *aditu* bilakatuko direnak eta kapital sinbolikoa etengabe metatu nahiko dutenak. Harmut Rosaren estabilizazio dinamikoaren kontzeptua berhartuz, mendebaldeko klase ertainek daramaten norabide kulturalaren irudia eraiki dezakegu; bere burua zutik mantentzeko abiadura bizian joan behar den objektuaren metafora erabilia. Uste dugu subjektibotasun neoliberalaren diagnostikoa jarri dezakegula krisi ekosoziala ulertzeko faktore garrantzitsuenen artean. Izan ere, klase ikuspegitik bere kokapena galtzeko beldurra duen kolektibo sozial ertain-altuak, are gehiago estutzen du bere burua, errendimendua hobetzen saiatzen da eta bizi-abiadura azkartzen. Modu horretan zizelkatutako subjektibotasunek, ekologikoki, sozialki eta psikologikoki iraunkorrak izatetik urruti dauden bizi formak hautatzen dituzte.

3.4.2 Subjektu zorpetua.

Baina sakondu dezagun gehiago norbanako garaikidearen subjektibazio moldeetan. Errendimenduaren hobekuntzari segika, zorraren ideia ere kontuan hartu beharreko elementu esanguratsua da kutura neoliberalak zipriztindutako subjektuan. Etxe hobia, kotxe hobia edo luxuzko oporrak dituela performatu gura duen norbanakoak, bere kapital sinbolikoa elikatu duela uste izanda, zorraren mekanismora jo du azken hamarkadatan. Antoni Domenech ekonomialari eta historialari sozialak dioen bezala, nolabaiteko “herri kapitalismo” bat jarri nahi izan zen martxan 90ko hamarkadatik 2008ko krisira arte. Langile eta herri klaseei soldatak igo orde, zor merkea jarri zitzaien eskura, horrekin etxeak, kotxeak, oporrak etab. finantzatu zitzaizen. Beste hitz batzuetan esanda, kontsumoa berotu nahi izan zen zor merkearen bidez, herri klaseek zein ertainek luxura sarbidea zutela uste izan zezaten. Hortik, bere iritzian, gizartearen atomizazioa eta trinkotasun sozialaren ahultzea. Hala argudiatzen zuen ekonomialariak:

“El truco básico del neoliberalismo, en Europa y América del Norte, fue sustituir el incremento del salario real por el crédito barato; la inflación de activos inmobiliarios y financieros fue el medio. Esa política contribuyó a la idiotización (es decir, al encapsulamiento particularista en lo propio) de la población trabajadora, la hizo más individualista, desbarató a las organizaciones obreras reformistas tradicionales al arrebatables el propósito central que es la lucha por la subida de los salarios reales. Muchos se creyeron ricos a base de una creación de dinero ficticio por parte de las entidades bancarias mal reguladas, y cuando la pirámide fraudulenta se desplomó en 2008, fue la muerte del “neoliberalismo” (Domenech, 2013).

Beste ikuspegi batetik, Ikerketa foucauldianaren bideari jarraituz, Maurizio Lazzarato gizarte ikerlariak zorra atomizazio sozialareako baino, kontrol sozialerako dispositibo modura erabiltzen dela dio, bizimodu ekonomiko eta sozial garaikidean eragiteko gaitasun handia dauka. Lazzaratorentzat, zorrak subjektibazio indar handia dauka, norbere jokamoldeetan, pentsabidean eta harremanetan modu zuzenean eragiten baitu. Pertsona zorpetuak, zor morala ere garatuko du zordunarekiko, ezinegona sortzen dion kokapen psikologikoan ipiniko du. Zorraren arabera diharduen ekonomiak lana bikoiztu egiten baitu, lan produktiboa ez ezik norbere buruarengan ere aplikatu behar baita lana; soziologoaren ustean, mekanismo horri esker lortuko du kapitalismoak balioaren ekoizpena eta subjektibotasuna era borobilean egokitzea elkarri.

Ondoko galdera luzatzen du: Nola lortu dezake sistema sozial kapitalistak, zorpetzearen etika gizartearen luze-zabalean hedatzea? Zein prozesu jarri beharko du martxan kapitalismo garaikideak, jendearen borondatea maileguren bat eskatzera bideratzeko? Bada, Lazzaratoren tesia ondokoa da: ekonomiaren eta gizarte harremanen finantzarizazio prozesuan du lurzoru ongarrirua zorpetutako gizakiak bere molde subjektiboak balio-katearen interesetara lerratu ditzan. Zergatik finantziarizazioa? Bada, soziologiatik, historiatik, ekonomia ortodoxotik eta oro har gizarte zientzietatik kontzeptu hori erabili izan da zenbait prozesu garaikideren berri emateko (Knor-Cetina eta Preda, 2012). Batez ere bi modu nagusitan interpretatu da: batetik, finantza sektoreak (banketxeak, aseguruak, higiezinen merkatuak...) Barne

Produktu Gordinean duen pisuan izandako hazkuntza gisa; eta bestetik, finantza merkatuek gizarte bizitzaren eremu ezberdinetara iristeko duten gaitasunaren prozesu bezala.

Deleuze-k berak aipatu zuen jada zorraren hedatzeak zekarren kontrolerako gaitasuna dispositibo historiko berri indartsua zela. Filosofo frantziarrak zioen modernitate berantiarreko gizakia giltzapetutako gizakitik zorpetutako gizartera pasa dela. Kontrolerako dispositibo horiek ordea (giltzapetzea eta zorpetzea), askatzen zaila zitzaien korapilo historikoa izan dute oraintsu arte, gizartearen laurden bati soilik aplikagarriak baitziren. Izan ere, gainontzeko hiru laurdenak kopuruz gehiegitxo izan dira denak giltzapean sartzeko eta pobreegiak zorpetzeko. Alabaina, Lazzaratoren tesiak defendatuko du, azken hamarkadetan geure gizartearen adar ia denak bere egin dituen finantzarizazio prozesuaren bidez, edonorengana iritsi dela zorraren kontrol dispositiboa ezartzeko ahalmena. Izan langile klaseko, langile kooperatibista, estatuko funtzionari edo eliteko kide, zorraren ekonomiara sartzeko ateak edonori zabaldu zaizkio, kontsumo kreditu, oporretarako mailegu edo epe luzerako hipoteken bidez.³⁵ Ordaintzeko premia larri horixe bera da hain justu, subjektibotasun enpresariaren eraketa indartzen duena, norberak bere burua enpresa kudeatzaile gisa hauteman eta ondorioz jardutera daramana. Norbere irudia, ondasunak, kokapen sozial eta ekonomikoa, familia edo lagunak, enpresariaren irizpideekin hautatzera bultzatzeko indar soziala aktibatzen da, nolabait.

“...Gaurko harreman sozialen arketipoa zorraren prozesuan ikusteak esan nahi du, alde batetik, ekonomia subjektiboa dela; harreman ekonomiko hori bete dadin, subjektibotasunaren gaineko moldatze eta kontrol zehatza eskatzen baitu (...) Ekonomia garaikidean, subjektibotasunaren ekoizpena da lehendabiziko ekoizpen iturri eta baita garrantzitsua ere. Beste merkantzia guztien produkzioan parte hartzen duen ezinbesteko merkantzia baita.” (Lazzarato, 2012: 40-42).

Zentzu honetan, kapitalismo kognitiboaren teoria hankamotz geratu dela dio autore italiarrak, bigarren buelta kritiko bat merezi lukeela. Bere kritikaren arabera, zientziak, ezagutzak eta antolakuntza modu berritzaileek indar produktiboen funtsezko osagai direla esatea ez omen da aro garaikideari soilik dagokion zerbait. Marxek berak identifikatu zuen hori XIX. mende erdialdean. Ezagutzaren gizarteak edo gaitasun kognitiboetan oinarritutako kapitalismoak, ezingo luke klaseen arteko bereizketa eta teoria soziologiko orokorrik azaldu, ez baita sistema oso baten ernamuina; aitzitik, beste jardun bat gehiago da, martxan dauden gainontzeko botere-sare, jardun produktibo eta klase konfigurazioekin elkarlotuko dena. Inondik inora ez da izango gaurko kapitalismoa ardazten duen hegemonia, bera ere zorraren ekonomiaren aginduetara jarri beharko baita. Lazzaratoren ustean, kapitalismo kognitiboak eta hari loturiko subjektu neoliberalak zor mekanismoenganako erabateko menpekotasuna dauka, ekonomia eta gizartearen alor gehientsuenek bezala.

Horregatik esango du gaur egungo ekonomia zeharkatzen duen baldintza ez dela ezagutza aurreratua, subjektu ekonomikoaren eraketa baizik, “giza kapitalean” edota “norbere enpresari”-aren ideian sakon sustraituak. Horrek arrisku nabariak dakartzala

³⁵ Suzanne de Brunhoff-ek (2003) aztertu du langile klasea finantzarizazio prozesuetan sartu izanak bere konposizioa erabat aldatu duela, bai ertz subjektiboan zein objektiboan. Etxea, autoa edota opor apetatsuak finantzatzeko ahalmena edukita (mailegu merkearen bidez), sindikatuetoako afiliazioa erori da, klase kontzientzia ahuldu eta antolatze borondatea zapuztu. D. Brunhoff (2003) “Value, Finance and Social Classes” *Value and the World Economy today*. Palgrave Macmillan, London. 40-56. In Domenech, 2019.

diosku, giza kapital bilakatzeak esan nahi baitu, ekonomia malgu, aldakor eta ziurgabearen kostuak norbere gain hartzea. “Prekariatatea, pobrezia, langabezia, osasungintza zerbitzuen gainbehera, etxebizitzaren eskasia” (Lazzarato, 2012: 58), bere ardua bailiran hartu beharko ditu norbanakoak, gaizki egindako inbertsio baten emaitza gisara edo norbere kapitalaren kudeaketa kaxkarraren ondorio modura.

Subjektibotasun neoliberalaren elementu eratzaille modura ulertuko dugu, beraz, zorra eta hari atxikirik datorren balio-sistema. Merkatu gizarteetan, enpresen eta norbanakoen arteko praktika ohikoa bilakatu bada ere zor mekanismora jotzea, praktika horren hedapena kulturalki aro neoliberal bateri loturik irakurtzen dugu. Giza subjektibotasuna modu zehatzean diziplinatzeko balio izan duela esaterik badugu, kontsumo gizartera sarbide oparoa edukitzearen truke.

3.5 Subjektu prekarioa, salbuespenetik normara.

Lanaren soziologiatik subjektibotasunaren teorietan arakutzen ari garen honetan, aipatu beharrekoa da prekariatatearen kontzeptua, pisu berezia hartzen baitu geure garaiaren ezaugarri gisa eta zentzu Foucaultiarrean esateko, biztanleria kudeatzeko tresna gisa (Alonso eta Fernandez Rodriguez, 2009). Are, prekarizazio prozesuez mintzo da soziologia garaikidearen adar foucauldiarra, zeinaren arabera diziplinamendu forma bat ez ezik, subjektibotasun jakinak ekoizteko modua ere baden (Lorey, 2011, Serrano et al. 2012).

Europako gazte belaunaldien lan esperientziaren parte da prekariotasuna. Sozialdemokrazia europarraren eta langile mugimenduaren bueltan sendo antolatutako sindikatuen arteko lankidetzaren eteteak alde batetik, eta neurri neoliberalak martxan jartzeak bestetik, ongizate estatuaren eta berak ahalbidetzen zituen babes sozialerako mekanismoen desegitea ekarri du, post-fordismoaren etorreraren kapituluan ikusi dugun bezala. Ideia horretatik abiatuta, ikerketa soziologiko kopuru esanguratsua dago desberdintasun sozialen instituzionalizazio bat gauzatzen ari dela diotenak (Bauman, 2005, 2006). Bestela esanda, estatuak hiritarrak ekoizteko lukeen gaitasuna galdu du, edo besterik gabe funtzio hori betetzeari utzi dio, bazterketa sozialaren forma zahar eta berriak ahalbidetuta. Joan Subirats politologo Bartzelonarrak identifikatzen duenez, Europako lan-harremanen konfigurazioan gertatzen ari diren aldaketak, lanpostu finkotik, lanpostu prekarioetara, fabrikatik zerbitzu ekonomiara, ez du modu berean eragiten herritar guztiengan (Subirats, 2010). Lanaren eraldaketa prozesu horrek, batez ere, kokapen soziologiko ahulenetan kaltetzen du gehien; emakumeak, gazteak eta etorkinak bereziki, haiek direlako zerbitzu sektoreetan biderkatu diren lan prekarioetan aritu behar dutenak.

Dena den, lan legeetan egon diren malgutzeak, lan-harremanen merkantilizazioak eta hizkera foucauldiarra erabiliz, *produktzio molde biopolitikoak*, eragin kaltegarria izan du ez soilik gizartearen bazterretan zeuden sektore sozial klasikoetan, gizarte modernoaren ardatz zen hiritar-langilearen figuran bertan ere. Zenbait teorialari sozialen arabera, norbanako “osoaren” artikulazioa posible egiten zuen estatuak lanaren bitartez, ogibide zehatza, estatus zehatza eta gizarte ondo artikulatua, nazio-estatuaren gidaritzapean (Dubet, 2006). Zeregin hori gauzatzeko gaitasuna

ahultzean ordea, krisi sozio-estruturalak agertu dira, instituitzeko ahalmen faltak biziera prekarioak areagotu ditu, estatuak zentzu-artikulatzaile izateari laga baitio, edo behintzat askoz neurri baxuagoan dihardu (Lewkovicz eta Cantarelli, 2003).³⁶

Danilo Martucelli soziologoak desinstituzionalizazio prozesuez hitz egingo du, ziurtasun gabeziez eta horrek hiritarren bizitzetan etengabeko egoera prekarioa sortzeko gaitasunaz. Zentzu horretan instiuitzetik *extituitzera* pasa dira gizarteak, nomadismotik mugimendura:

“Exituciones y redes no tienen ni «dentro» ni «fuera», son sólo límite, elementos que pueden conectarse o no. Una extitución es una super-ficie imposible de geometrizar, más bien es una amalgama de conexiones y asociaciones cambiantes. Su materia son las posiciones, los vecindarios, las proximidades, las distancias, adherencias o acumulaciones de relaciones. A diferencia de lo que ocurre en la institución, dispositivo que combate el nomadismo, la extitución se caracteriza por la potenciación del movimiento y el desplazamiento. No más encierro, no más reclusión, el control continuo y abierto permite que el movimiento deje de ser un problema.” (Tirado eta Doménech, 2001: 201).

Bizi-ibilbidea *extituitze* horrek subjektu garaikidea kontrolatu ezina zaion mugimendu uholdearen erdian jartzen du. Giddens (1995) Beck, (2003) edo Bauman (2001) moduko erreferentziak autoreek ere prozesu horiez dihardute. Belaunaldi berriak gaztarotik helduarorako jauzi hori eman beharra dutenean aukera amaigabeak dituzte ibilbide bat edo beste hartzeko.³⁷ Hortaz, garai batean kolektiboki negoziatua zena modu indibidualagoan negoziatzen da gaur. Maila subjektiboan kudeatu behar da norbere ekintzen erantzukizuna. Garai fordistako ibilbidea zatikatzen da, subjektu bakoitzaren gain forma ezberdina hartzen du, joan-etorriekin eta izaera beti aldakorrekarekin, prekarioarekin.

³⁶ Luze emango luke prozesu guzti honetan nazio-estatuak jokatzen duten paperaz aritzeak. Dena den aipatu autoreek (Lewkovicz eta Cantarelli, 2003. *Del fragmento a la situación. Notas sobre la subjetividad contemporánea*. Buenos Aires. Altamira) nazio-estatuaren papera jartzen dute sistema sozial artikulatua desegitearen erantzule gisa. Euren tesiaren arabera, nazio-estatuak erakunde diziplinarioen gainean eraiki izan dira, familia, eskola, hospitalea, armada, lantegia etab. Erakunde diziplinatzaile horietako bakoitzak nazio-estatuaren ideian hartu du babes, nolabaiteko zentzuz hornituz beraien eginkizuna eta izatea. Hala, erakundeok azterna subjektibo zehatzak lagatzen zituzten norbanakoengan, erakunde batetik bestera pasatzean kode eta komunikazio-modu antzekoak egongo zirela ziurtatuz. Horrek posible egiten zuen nazio-estatuak erakunde horiei esker bere sistema soziala, bere lurraldearen mugen barruan, koordinatu eta gutxi-asko biziraupen material arrakastatsua bermatzea. Nolabait, erakunde diziplinatzaileek nazio-estatuak behar zuen oinarri subjektiboa eskaintzen zuten, norbanako-langile/ norbanako-hiritar eskeman laburbildu litekeena. Estatuak berriz, “erakundeen erakunde” edo “metaerakunde” gisa, instituzio diziplinatzaileak legitimatzen zituen. Lewkovicz-ek dio ordea, fordismotik post-fordismorako jauziak, erakunde diziplinatzaileak zartatu dituela modu batean eta nazio-estatuak behar duen sare instituzional sendoa ahuldu dela. Horregatik esan liteke erakunde diziplinatzaileen eragin-eremua, ahalmena eta zentzua bera eraldatu dela, eta ondorioz, estatuarena (Lewkovicz, I 2004. *Pensar sin estado: la subjetividad en la era de la fluidez*. Buenos Aires, Paidós.) Ez da tesiaren helburua estatuaren paperaren inguruan gogoetatzea edo Lewkovicz eta kideen tesiekin eztabaidan sartzea. Alabaina, nazio-estatuak nazioarteko paperean eta biztanleria “nazioaletan” duen eragina gutxiesten du zentzu batean, oraindik ere sistema sozialaren artikulatzaile nagusi izaten jarraitzen baitu eta baita zentzu, ordena eta jokabide eraikitzaile ere, Covid19aren krisiak erakutsi duen bezala.

³⁷ Gazteen ibilbide biografikoan gertatzen ari diren prozesu esanguratsu batzuk aipatzea interesgarri zaigu hemen. Izan ere, ikasketen mundutik lan mundura modu egonkorrean jauzi egiteko zailtasunak eta etengabe norbere kokapena negoziatzen aritzeak osasun efektu zuzenak dauzka gazteengan. Oso aldakorra den testuinguru soziolaboralean gazteak bere burua ibilbide ordenatu batean egonkortzeko zeregina du. Arrisku berri horiek kudeatu beharrak estresaren areagotze orokorra, elikadura arazoak, buru gaixotasunak eta beste kalte dramatikoago batzuk ere eragin ditu Furlong eta Cartmelek aztertu duten bezala. Furlong, A eta Cartmel, F (2007) *Young people and Social Change*. New York. McGraw Hill.

Zentzu horretan, Isabel Lorey-k ongizate estatuaren eta fordismoaren garaia salbuespenezko aro modura definituko du (Lorey, 2011). Bestela esanda, Lorey-k prekariotasuna maila sozio-ontologikora ekartzen du, botere-harreman eta baliabideen banaketa zehatzek eragiten dutena. Prekariotasuna ez da berez agertzen den zerbait, harreman sozialak era zehatz batean antolatu eta egituratzearen ondorio baizik, hortik bere izaera sozio-ontologikoa. Prekariotasun sozio-ontologiko hori, beraz, nolabait kudeatu beharra dago totalitarismoaren besoetan erori ez dadin: masak *inmunizatu* beharra zegoen bigarren mundu gerraren esperientzia eta gero. Lorey-ren arabera, nolabaiteko *inmunizazio* hori lortu zen bere argi-ilunekin klase ertaina hauspotzeari esker, soldatapeko gizartearen mekanismo erregular eta egonkorren bidez. Irakurketa horretatik, Arrasateko Kooperatibak ere koka ditzakegu ongizate estatuak txertatutako eragile bezala, garapen frankistan sortutako aberastasunean parte-hartu baitzuen, eta nolabait klase-ertaina produzitzen zuen eragile ekonomiko bilakatu baitzen.

Loreyren ikuskeran, ordea, sektore sozial zabalak babestuagatik, ongizate estatuaren esperientziak frogatu du zaku unibertsala sortzea ez dela oraingoz posible izan. Batzuen babesak beste batzuen ez-babesa edo arriskua zekarrela. Hau da, ongizate estatuak klase ertaina egiten zuen era berean sortzen zituen baztertuak, prekaritatearen baldintzetan aritzera behartuak. Zentzu horretan, mehatxu modura ulertutako prekariotasunak *arrotzen* edo ez-integratuen kategoriak eraikitzen lagundu zuen, ordena sozial eta politikotik kanpo kokatuak. Loreyren arabera, eta hemen dator gure interesgunea, garai post-industrialean alderantzizko prozesua gertatzen ari da: lan egonkor-soldatapeko eta egituratuak salbuespen bilakatzen ari dira, baztertuen kategoriak ezaugarritzen zituen prekariotasuna gizartearen norma bilakatzen ari den bitartean. Eskema horretan, Arrasateko Kooperatibak salbuespen bezala definitu ditzakegu, lan egonkorra eta bizi-proiektua garatzeko aukera sendoa eskaintzen duen eremu geroz eta urriago modura. Bazterretik erdigunera etorri da prekariotasuna:

“En el neoliberalismo la función de lo precario se desplaza ahora al centro de la sociedad y es normalizado. Esto significa que ahora la función de la libertad burguesa puede también transformarse: de la disociación con los precarios otros, a una función de subjetivación en la precarización normalizada. Mientras que la precariedad de los marginados conserva su potencial amenazador y peligroso, la precarización se transforma en el neoliberalismo en un instrumento político-económico normalizado.” (Lorey, 2011: 51).

Prekarizazioa, hortaz, Lorey-ren tesiei jarraiki, prozesu modura ulertu beharra dugu, gizarteak kudeatzeko modu jakin bati erantzuten diona. Autoreak prekariotasuna harreman sozial jakinetatik jaiotzen dela baieztatzen duenean, prekariotasuna esperientziaren parte dela esaten ari da (Carbajo, 2014). Bestela esanda, prekariotasuna prozesu gisa ulertzeak, dinamika, harreman eta egitura aldakorren bidez sortzen den zerbait dela ulertzea dakar; hortaz, sufrimendu eta ziurgabetasun iturri bada ere, aldi berean da ekoizle, desirak, bulkadak, egiteko formak eta aldaketak ekoizten ditu (Carbajo, 2014).

“Los procesos de precarización son un campo de debate social en el que se articulan las luchas de los trabajadores y los deseos de otras formas de vida y de trabajo. Pero estos procesos no son solo productivos en el sentido de explotación económica. En las condiciones de trabajo precarias post-fordistas los procesos de precarización también son productivos en el sentido de que se desarrollan y se reinventan novedosas formas de vida y relaciones sociales” (Lorey, 2010, Carbajo, 2014an aipatua: 80).

Bizitza forma prekarioak ekoizteko prozesu horrek, beraz, molde subjektiboaren beraren konfigurazioa itxuraldatuko du modu zehatz batean. Paolo Virnok dio hegemoniko bilakatu den produkzio moldeak dela bizi forma prekarioena (Virno, 2003).

Laburbilduz, garaikidetasunaren ardatzetako bat bilakatu dira prekarizazio prozesuak. Prozesuak ez dira soilik lan-merkatutik eratorritzen diren desoreken ondorio, post-fordismoan nagusitu den diziplinamendu modua dira. Prekarizazio prozesuen bidez, gizartean integratzeko saiakera gehigarri bat eskatzen zaio norbanakoari, hobetu ditzala bere gaitasunak, eskaini dezala erabilgarria izango den zerbait. Alegia, norbanakoari geroz eta leku estuagoa lagatzen zaio identitate eta zentzua eraiki ditzan gizarte baten senean. Lotura sozial sendoak izatea, egitura komunitario trinko batean integratua egotea eta lan ibilbide koherentea edukitzea nolabait kontraesankor bilakatzen dira. Subjektu prekarioak bizi-ibilbide asegarri bat eraikitze baliabide eskasia izango du. Modu horretan, biztanle "soberakinak" ekoizten dira kapitalismo aurreratuan, merkatu gizartean toki propio bat lortzeko gai ez direnak. Gizartetik kanpo geratzeko beldurra zabaltzen da, eta ondorioz biztanleria esanekoago bilakatzen. Igarri bedi teorizazio hauen oinarriak Deleuze eta Foucault-en pentsamenduak zipriztindurik daudela, gizartearen gaineko kontrolen teoriak formulatu zituztenetik. Prekarizazioa ez da izango salbuespenezko egoera, normaltasuna egituratzen duen prozesua baizik. Fordismoan ez bezala, ez da posible sektore sozial batzuk immunizatu eta beste batzuk kanpo uztea. Norbanakoaren gainean amiltzen den prekarioritasun instituzionalizatua litzateke (Lorey, 2011), diziplinamendu forma gaurkotu eta eraginkorra.

3.6 Azken argipenak garai moderno post-fordistaz

Azkenik, ikuspegi horri guztiari egin diezaiokegu kritika funtsatua. Eredu sozial fordistatik post-fordistara emaniko jauziak kualitatiboki zerrendatu badaitezke ere (inpaktu subjektibo eta objektibo nabarmenekin), modernitate industrialeko prozesu sakonek bere horretan dirautela, itxura berriarekin bada ere. Hau da, ikuspegi ekosozialetik heltzen badiogu gizarte garaikidearen analisiari post-fordismora eginiko aldaketak ez ditu zalantzan jartzen balio-sorkuntzaren lege zorrotzak, hazkundezaletasuna edo ardatza ekonomia jardunean jartzen duten gizarteak izatea. Moduak aldatzen dira baina bizi-estilo modernoaren sakoneko joerek indartsu mantentzeko gaitasuna dute, baita suntsipen ekologikoaren gaitasunek ere.

Bada, modernitateko sistema sozialak merkantzia eta subjektibotasun jakinen produkziarako barnebiltzen dituen ezaugarriak askotarikoak dira. Horietako batzuk zerrendatuko ditugu sintetizatze lan modura, mekanismo horien bidez posible baita balio-sorkuntza prozesuak bizirik jarraitzea, eta paradigma hazkundezaleak oinarri sozial eta kultural sendoetan gotortzea:

- 1) *Eremu erreproduktiboaren kolonizazioa:* Gorago azaldu bezala, gizarte fordistetan tradizionalki soldatari loturiko esparruan gainbalioa xurgatzen jarraitzen du (ohiko industria-lantegietako lanaren bidez bereziki). Ordea, bizi-denbora erreproduktiboetara ere iritsi dira balio-sorkuntza logikak, balorizazio zikloetan antolatzen gizarte harremanak (harreman

afektiboak, geure gaitasun kognitiboak, komunikazioaren esparruak, hezkuntza-formakuntzarenak...). Teoria feministak gai hau sakon jorratu du azken hamarkadetan.

- II) *Lan kognitiboaren azelerazioa:* Lanaren jardun nagusia fabrikatik atera izanak eta gailu teknologikoen hedatzeak lan-orduak eta aisialdiaren denbora-bereizketa klasikoa lausotu du. Lan ez-materialak ideien, proiektuen, irudien edo ekimenen etengabeko sorkuntza eskatzen du, informazioa uneoro ekoitzi beharra nagusitzen da inperatibo moral gisara. Ordu gutxi kontratatua egonagatik, ekoizpenaren oinarriak, ezagutzak eta bestelako ahalmen kognitiboak direnez, langabezian egon arren balioa sortzen dihardugu. Baldintza prekario azeleratu horrek, lanaren kalitatea ahuldu ez ezik, gaixotasun psikologiko-emozionalen sorkuntzarako bidea marrazten du.
- III) *Ustiatze sozio-semiotikoa:* Fran Berardi Bifok aipatzen duen ezaugarri hau gakoa da prozesu sozial post-fordista garaikidea ulertzeko. Mekanismo sozio-semiotiko ezberdinak garatuz lanera begirako gorputzak ekoizten ditu gaurko gizarteak, lana jarduera erakargarritzat jotzen duen definizio soziala gailentzen da. Honen arrisku nagusia ondokoa litzateke: gizarte fordistan ez bezala, langileak ez ditu horren garbi bere zapalkuntza identifikatzeko eskemak. Fabrikan lan ez-egiteak instituzio fisikoaren galera dakar, modu autoritarioak gorputzean ez sentitzea. Bada, lanaren materiagabetze horrek langilearen begirada kritikoa garatzeko oztopoak dakartza, lanera begirako estimulu mediatiko eta politikoz josia baitago.
- IV) *Langile identitatearen lurruntzea:* Fabrikako hierarkia klasikoak bestelako moldez antolatzeak, lan kognitibo eta ez-materialen hedatzearekin batera langileak bere burua klase sozial horretako kide modura identifikatzeko oztopoak dakartza. Bestetik, kontsumo patroio sendoak errotzean identifikazio iturriak kontsumo jardueran bertan topatzea ahalbidetzen du, estatus eta kapital sinboliko jakina bilatuz marka handietako edo bereizmen handiko produktuetan. Zentzu horretan, identifikazio iturriak produkzioan baino kontsumoan bilatzeak artikulazio politikorako hesi nabarmenak ezartzen ditu, klase antolatu gisara jarduteko, *clase para sí* Marxista ospetsua gogora ekarriz. Are, langile klase klasikoa birdefinitzeko ariketa egingo dute post-operarioek, esanez, post-fordismoan lanak hartzen duen itxuran *moltitudinea* bilakatu behar dela eragile politiko nagusi. Nolabait, multitudinea ezagutza, afektuak eta gaitasun linguistikoak ezaugarri nagusi dituen langile klasea da. Bestela esanda, industriaren bueltan antolatutako proletalgora gainditzen duen kategoria da moltitudinarena, post-fordismoan dauden indar produktibo eta sortzaile guztiak barnebildu gura dituen. Post-operarioen helburua, beraz, moltitudine hori artikulatu eta ekintza politikora eramatea litzateke (Hardt eta Negri, 2004).

- V) *Kontsumo-ohitura zabalaren errota*: Prozesu honen arrakasta eta geure gizarteetan hartu duen zentraltasuna bi ertzetatik azaldu daiteke. Batetik, baldintzatzaile estrukturalak daude, non kontsumoa ekonomiaren hazkuntzarako faktore determinantea den, eta beraz, estrukturalki beharrezko. Bestetik, kontsumo praktiken dimentsio subjektiboa dago, publizitatearen bidez sustatua kontsumo oparo eta erreparorik gabearen parte izatera. Hau, fordismoarekin partekatzen duen antzeko ezaugarria da, diferentzia bakarrarekin, modu azkarragoan gertatzen da paradigma post-fordistan. Izan ere, subjektuaren krisia modernoon eguneroko ogi izateko diseinatua dago paradigma modernotik (lan alienatua, prekarizazioa etab.), hortaz kontsumoan bilatu behar oinaze *espiritual* hori arintzeko botika.
- VI) *Esperientzien intentsifikazioa*: Aro moderno post-fordistaren beste ezaugarri aipagarrietako bat da *esperientzien kapitalismoa* deitu izan zaiona. Kontsumo patroia indartsuak ez dira soilik oparotasun materialera bideratzen, esperientzia berezien, eksklusiboen eta bakanen bilaketara baizik. Giddens-ek azaldu bezala, kapitalismo garaikidean gizarteko kide arrakastatsua ez da materialki oparotasuna laztantzera iristen den hura; norbere irudiaren eraikuntza estetiko mirezgarria lortzen duena baizik. Fordismoan eratutako subjektibotasunen azterketa konplexua izanagatik, era argiagoan bereiz zitezkeen lan-indar formaren azpian subjektibatutako bizierak eta bestelako moldeak subjektibatuak zirenak. Gaur, ordea, esperientziaren intentsifikazioa bizi dugula definitu da gizarte zientzietan, nolabait garai fordista-industrialeko arrakasta materialak bere tokia izaten jarraitzen duen arren, horren osagarri ezinbesteko bilakatu da ni-aren irudi inbidiagarria sortzea. Geure buruaren enpresari bainoago, geure buruaren artista bilakatu gara (Renduéles, 2014). Aipatu beharra dugu azken puntu honetan auzi sozioekologikoarekin dagoen lotura estua, kontsumoa jadanik ez baita behar materialak asetzeko esparru soil, norbere identitatea eraikitze mekanismoa baizik. Hortaz krisialdi sozioekologikoak ezinbestez eskatzen duen kontsumoaren borondatezko automugatzeko batek korapiloa txirikordatuagoa du testuinguru soziologiko horretan, auzia ez baita soilik kontsumo kantitate materiala murriztea, identitatea eraikitze garatu ditugun mekanismo sozialen sakoneko eraldaketa baizik. Bestela esanda, ez da nahikoa izango identitate ekologistak, edo haraino iritsi barik, *green* kontsumozko identitateak hauspotzearekin. Jakin badakigu kapitalismo axiomatikoak bereganatzen dituen subjektibotasun erak hauspotzen dituela *green* kontsumo bereziak (Bergara Eguren, 2018), identitate eraikuntza prozesuen norabidea errotik aldatu beharko da borondatezko automugatzeko posible izan dadin.

4. KAPITULUA

Subjektibotasun ekosozial kooperatiboa merkatu gizarte bakartietan

4. Subjektibotasun ekosozial kooperatiboa merkatu gizarte bakartietan.

“Al fin y al cabo, se trataba de un ingeniero, de un futuro constructor de buques, de un hombre del comercio mundial y de la técnica. Era, pues, posible que Hans Castorp se uniera a los radicales, que se presentara como un hombre de acción, como destructor profano de viejos edificios y de bellos paisajes, libre de lazos como un judío, sin piedad como un norteamericano, prefiriendo romper sin contemplaciones con la tradición dignamente transmitida y precipitar al Estado por la pendiente de peligrosas experiencias, que aceptar un desarrollo circunspecto de las condiciones de vida básicas y naturales.”

Thomas Mann

Tesiaren eraikuntza teorikoaren bigarren zutabe nagusira pasako gara jarraian. Aipatu bezala, elkarren artean osagarriak diren bi eredu teoriko heterodoxoren aldeko apustua egin dugu. Alde batetik, *post-operaismo* italiarraren eta bere inguruan taupatu diren begirada Foucaultiar post-estrukturalista batzuk bildu ditugu tesian, gaurko subjektibotasunaren eta kapitalismo post-fordistaren ertz ezberdinetera hurbiltzeko, krisialdi sozioekologikoari gizarteek eman diezaioketen eta ematen ari diren erantzuna prozesu horien argitan ulertzeko. Bestetik, Karl Polanyi ekonomialariak zabaldutako begiradari heldu nahi diogu, merkatu libre autoarautuaren, komunitateen ahultzearen eta giza antropologiaren desbideraketaren gainean dituen analisi kritikoak tesira ekarrita.

Bigarren helduleku teoriko honekin, kapitalismo garaikidearen desarautzearen gaineko tesia oinarri teorikoz hornitzeaz gain, azken hamarkadetako neurri neoliberalek marraztu duten botere-harremanen diagrama ulertzeko gakoak eman asmo dugu. Diagrama horretan komunitateek duten rol subalternoa ulertzeko (AKEren ahultze komunitarioa horrekin azaldu liteke, aurrerago ikusiko dugunez) gaitasun azaltzaile handiko irakurketak eskaintzen dituelakoan gaude. Era berean, modernizazio prozesua zeharkatu duten sakoneko korrante ekonomiko eta kulturalen berri eman asmo dugu Polanyiren obrara hurbilduta, gaurko zibilizazio krisia pentsatzeko ezinbestekoa.

Modu horretan, krisialdi sozioekologikoak gaur hartzen dituen formak *green* gobernantza eran ulertzeko moduan egongo gara, eta baita merkatu auziaren eta auzi sozioekologikoaren artean dauden korapilo teorikoetan murgiltzekoa. Ondoren, Polanyiren irakurketa beste soziologo batzuen ekarpenekin osatzen saiatu gara, desarautze orokortu horrek eragindako kalteak neutralizatzeko aldera proposamenak egin dituztenak, subjektibotasun berri ekosoziala eraikitzeke eginkiziunean. Komunitate zein herriei agentzia gehiago emateko saiakeran egindako ekarpenak dira, merkatuaren indar zentripetoaren aurrean burujabetza dosi altuagoak lortzera begira egindakoak. Besteak beste, Robert Bellah, Jorge Riechmann, Joxe Azurmendi edo Dona Harawayren gogoetak bildu dira.

4.1 AKE esperientzia ekonomiko edo garapen komunitario? Polanyi Arrasaten.

Badira urteak pentsamendu sozial modernoan komunitatearen kontzeptuak pisua hartu zuela. Ferdinand Tönnies soziologo alemaniarra izan zen komunitatearen gainean begirada soziologikoa jarri zuen aurrenetakoa (Tönnies, 1887). Komunitatea borondate partekatatu batetik eraikitzen den lotura soziala dela esan zuen eta erro emozional-afektiboak, memoria partekatua, gertutasun geografikoa eta kode komunikatibo propioak dituela ezaugarri. Arrazionaltasun instrumentala nagusitzen den aroan sortu daitezkeen giza talde *interesatuak* ez bezala (alegia, kalkulu arrazionalaren ondotik eraikitako lotura sozialak), komunitateak erabaki eta aldatu ezin duen historia bat dauka atzetik, norbanakoa ezaugarri soziologiko batzuen ondorioz komunitatearen sareetan biltzen duena.

Merkatuaren eraketa eta zabaltze historikoak, ordea, komunitatearen aurka egin du, bere aurka eraiki da. Merkatuak bere prezio-sistemak eta jabetza pribatuko konfigurazioak ezartzen dituenen, dohaintzan oinarritutako, edo lotura afektiboetatik abiatutako elkartrukeak ezabatzen ditu, hau da, kontsumo soziala modu berri batez ordenatzea lortzen du. Arrasateko kooperatibismoaren dimentsio komunitarioa eta merkatuaren pisua horren nabarmenak izanik (Azkarraga, 2007), pentsamendu sozialean erreferente bilakatu den Polanyirarengana jotzea zinez intereseko zaigu.

Azkarragak jadanik 2007. urtean planteatu zuen "Arrasateko Kooperatiba Esperientzia ez ote den pasa komunitate kooperatiboa izatetik interes talde izatera. Ikuspegi instrumental batetik, kooperatiba eta kooperatibista bakoitzari baliagarria zaion korporazioa, hain zuzen" (Azkarraga, 2007: 431). Planteatzen duen jauzi horretan, komunitate kooperatiboa izatetik interes talde izatera emanikoa alegia, teoria ekonomiko garaikideak zabalduko ulerkeraz zurrunaren barneratzea identifikatu dezakegu. Kooperatibagintza, garapen sozio-komunitarioarako tresna eta hauspo gisa ulertu ordez, merkatuan kokapen pribilegiatua edukitzeko tresna gisa ulertzera pasatzeko arriskua luke jauzi horrek. Bestela esanda, kooperatibismoa soilik ekonomiaren alorrera mugatzen den ekimena litzateke, ekonomia merkatuaren formapean burutzen den jardueraren modura ulertuta.

Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi (2009) ekonomialariek ere, XX. mendetik Arrasateko kooperatibismoak jaso duen oinordetza (kooperatibismoa ulertzeko zentzuan) kolokan legoakeela planteatzen dute. Nazioarteratze prozesua jartzen dute "merkatu isomorfismoa" eta etekinaren bilakuntzan oinarritutako eredura pasa izanaren adibidetzat (2009:16). Interkooperazio eredu nazioarteratzeak dakartzan zailtasunei aurre egin ezinik, kapital publiko eta pribatuetan oinarritutako filialak erabili ditu nazioartean zabaltzeko eta horrek kooperatibismoaren izaeraren gaineko eztabaida mahaigaineratzen duela planteatzen dute autoreek.

Labur eta modu nahiko sinplifikatuan esateko, puntu honetan soziologia ekonomikoan egon diren bi korronte nagusiekin egiten dugu topo. Alde batetik, teoria marxista dago, zeinak bere teoria soziala ekonomiaren alorrera luzatzen duen, bertan gertatzen diren fenomenoak azaldu ahal izateko. Bestalde, ekintza arrazionalaren teoria daukagu, ekonomia neoklasikoaren eremuarekin oso lotua, gaurko paradigma ekonomiko nagusiaren zutabe teorikoa dena. Lehenak, kritika sistemikoa egiten dio antolatze, ekoizteko eta kontsumitzeko modu kapitalistari, besteak berau sustatzen du. Luze eta

sakon emango luke hauen bien erraietan sartzeak (aurrez aipatu dugu marxismoari loturiko zenbait alor), intereseko zaiguna da soziologia ekonomikoan bi eskoletatik kanpo kokatu den begirada original eta iradokitzaile bat, Karl Polanyi hungariarrerana, hain justu.

Arrasateko kooperatibismoaren fenomenoaz azaldu ahal izateko beharrezko zaigu begirada ezinbesteko hori ikerketara ekartzea, duen arkitektura insituzionalaren, helburu estrategikoen eta izandako bilakaera ulertzeko gako interesgarriak ematen baitizkigu. Azkarrak jaurtitako zalantza ipar hartuta eta kooperatibismoaren fenomenoaz sakonago ulertzeko asmoz, honako galdera hauek luzatu ditzakegu: Ba al du, ordea, ekonomiak ekoizpena mugatzen ez den alde ekonomikorik? Ba al dago merkatuaren formatik haratago diharduen ekonomiarik? Galdera horiei eta Arrasateko Kooperatiba Esperientziari begiratu ahal izateko, ezinbestekoa zaigu Polanyi-ren geltokian tarte batez gelditzea.

4.1.1 Merkatuari buruz, anomalia historikoa:

Ez da gaur goizeko kontua, pentsamendu sozialean erreferentziazko figurak izan diren autoreek defendatu dute ekonomia ez dela merkatuko elkarrekintza huts, bere arau propioekin diharduena, sustenguaren bilaketa bat baizik (Polanyi, 2009), erakunde sozial zabalagoen baitan kokatua. Marx-ek ñabarduraz ñabardura aztertu zuen nekazal komunitateak nola kanporatu zituzten euren bizimodu naturaletik eta euren antzinako ekonomia formatatik dinamika kapitalistak XVIII. eta XIX. mendeetan. Zehazki, *hasierako metatze kapitalista* izena jarri zion desjabetze prozesu masibo horri. Robespierre pentsalari eta ekintzaile iraultzaileak ere, desjabetze dinamikari eta egiteko modu kapitalistari *ekonomia politiko tiranikoa* deitu zion, horren aurrean *herriaren ekonomia politiko* bat proposatuz, programa demokratiko sakon bat ardatz izango zuena. Polanyi berak ere oso ekarpen interesgarriak egin zituen prozesu hori aztertzerako orduan, eremu antropologikora joz behin eta berriro, ekonomiaren gaineko ulerkera osotuago eta integralagoa helburutzat harturik.

Aipatu autoreentzat (bereziki Marx eta Polanyiengan ikus dezakegu hau) merkataritzaren jarduera bazterrekoa zen gizarte tradizionaletan, ekoizpena harreman sozial zehatzetan murgildua zegoen alegia. Ikuspuntu antropologikoa da batez ere Polanyi-ren lan ezagunetik interesekoa zaiguna. Ekonomialariak zioenez, giza antropologia ezin da bere osotasunean kapitalismoaren eskakizunetara egokitu, merkatuak eta ekonomia jardunak forma ezberdinak hartu arren, gizakiaren egitura antropologikoa berdintsu mantentzeko joera du historian zehar.

Polanyik, Aristotelesengana jo zuen bere testuinguru historikoan jaiotzen eta errotzen ikusi zuen ekonomia ortodoxoaren zutabeak zalantzan jartzeko (Renduéles, 2008: 218). Giza zientzietan ekonomiak izan dituen bi ulerkera nagusiak zein diren argitzeko ariketa egin zuen. Alde batetik, definizio formala legoke, zeinak geure desira, nahi edota borondatearen lehentasunekin zerikusia daukan; ekonomia ulertzeko modu hori oinarri historiko eta antropologiko oso ahulen gainean eraiki da. Bestetik, ekonomiaren zentzu erreal edo enpirikoa legoke, zeinak dioen gizakiak naturarekiko eta inguruko

komunitatearekiko menpekotasuna duela, baldin eta sostengua lortu gura badu; bestela esanda, inguru sozial eta naturalarekin ditugun loturetan ardaizten da ekonomia, lotura horiek baitira bizitzaren oinarrizko behar materialak asetzera garamatzatenak.

The Great Transformation liburuan Ingalaterrak bizi zituen eraldaketa izugarrien berri eman zuen, faktore horiek guztiek ekonomiaren gaineko ulerkera berrian nola eragiten zuten azalduz. Ekonomiaren eremua esparru politikotik erabat berezita eta autoarauturik egotea fenomeno modernoa zela frogatu zuen, XIX. mendean gertatutako berrikuntza hain justu. Bi eremu horien arteko banaketa gizakiaren historia guztian zehar gertatu ez den prozesua litzateke. Ondorioz, salbuespen egoera bat da gizarteko ondasunen ekoizpen eta banaketa jarduna inolako arautze politikorik gabe gauzatzea:

“Es cierto que ninguna sociedad puede existir sin que exista un sistema, de la clase que sea, que asegure el orden en la producción y en la distribución de bienes, pero esto no implica la existencia de instituciones económicas separadas, ya que, normalmente, el orden económico es simplemente una función al servicio del orden social en el que está operativamente integrado. Como hemos mostrado, no ha existido ni en el sistema tribal ni en la feudalidad o en el mercantilismo un sistema económico separado de la sociedad.” (Polanyi, 1989: 178).

Bada, Polanyiaren ikerketa enpirikoan jarriko dugu arreta, ariketa horren bidez azaltzen baitu, kapitalismoa ez dela gizartearen bilakaera natural “berezko” bat, merkatuaren zentraltasun erabatekoa ekarri duena; aitzitik, herritarrei guztiz arrotza zaien bizierak ekarri ditu, gizarte joera eta harreman molde historiko nagusietatik erabat aldendua. Aipuan azaldu bezala, kapitalismo aurreko gizarte ez-industrialetan, ekonomia bestelako harreman sozialen baitan murgildua zegoen, ez zen jarduteko eremu autonomo bat, bestelako egituretan txertatua baizik (ahaidetasun harremanetan edota erlijiosoetan batez ere). Elkartruke ekonomikoak kamuflatzeko modu horri esker, ikusezin bilakatzen da nolabait, ez da helburu bere horretan, norbere eta ingurukoaren asebetetze materiala ez dator enpresa arrakastatsu baten jabetza izatetik edo merkatuan kokapen ona lortzetik, harreman sare zehatzetan kokatzetik baizik, ezkontza bidez edo errito erlijioso bidez. Marshall Sallins-en aipua ekartzearen “orokorrean, salerosketa material bat harreman sozial iraunkor bateko une zehatza besterik ez da” (Shalins, M. Renduéles 2008-n aipatua).

Aldiz, kapitalismoaren etorrerarekin, harreman sozial iraunkorrak ezartzeko eta bizitzeko moduak iraultzen dira, merkatua gainerako instituzio sozialetatik at kokatzen da, autonomia da guztiz halako boterez ze, gizartearen osotasunari bere legeak ezartzeko gaitasuna garatzen baitu. Nolabait, ekonomia murgildurik, mozorroturik edo estalirik egon zen egiturekin hautsi zuen, bestelako harreman sozialek ez zeukaten ekinbide ekonomikoa barnerratzeko ahalmenik. Ondorioa, ordura arte bizitzaren sostengagarri nagusi izan ziren baliabideak merkantzia bihurtzea izan zen, lurra, lana eta dirua kasu.

“... el error estuvo en igualar la economía humana general con su forma de mercado (un error que puede haber sido facilitado por la ambigüedad básica del término económico). La falacia es evidente en sí misma: el aspecto físico de las necesidades del hombre forma parte de la condición humana, ninguna sociedad puede subsistir si no posee algún tipo sustantivo de economía. Por otra parte, el mecanismo oferta-demanda-precio (al que popularmente se denomina mercado), es una institución relativamente moderna con una estructura específica, que no resulta fácil de establecer ni mantener. Reducir la esfera del género económico, específicamente, a los fenómenos del mercado es borrar de la escena la mayor parte de la historia del hombre.” (Polanyi, 2009: 58).

Polanyik garbi lagatzen du puntu honetan merkatua eta ekonomia borondatez nahasi diren kontzeptuak direla zientzia ekonomiko nagusian. Iraganeko pentsalariengana jotzen du beraiek ekonomia ulertzeko zein modu izan zuten argitzeko asmoz eta ondorioa garbia da: modernitateko pentsalari ekonomikoak ez bezala, garbi bereizi zituzten ekonomia eta har ditzakeen merkatu formak, bi gauza ezberdin direla. Ekonomia bere alor substantiboan ulertu zuten, hau da, industriari begiratu zioten negozioei baino gehiago, bere tripei begiratzen zieten, ez horrenbeste ondoren gizarteratuko zen moduari.

Zehazki, kapitalismoak izan dituen krisiei erreparatzen badiegu, hiru ondasun ezberdin merkantzia bilakatzearen ondorioz datoz krisi horiek: dirua, lan-indarra eta lurra. Historikoki merkantzia forman ulertu ez diren arren, merkatuan saldua izateko produktu gisa hain justu, modernitatearen etorrerarekin merkatuan salerosteko merkantzia modura erabilia izan zitekeela ulertu zuten ekonomialari neoklasikoek, hiru merkatu berri erraldoiri hasiera puntua jarriz: Batetik, pertsonen lan egiteko gaitasuna merkantilizagarri bilakatu zen, gatazka sozial eta politikoei bide emanez (kapitalismoaren krisi iturrietako bat); bigarrenik, diruaren merkatuak edo finantza merkatuak ireki ziren (finantza porroterako aukerak biderkatuz, 1929an edo 2008an bezala); azkenik, lurra edo higiezinaren merkatua ahalbidetu zen ere, espekulazioaren jardunari eta desjabetze prozesu masiboei ateak zabalduz. Hiru merkatu eremu horiek zeukaten arazo nagusia "fikziozko merkantzia" izatea zela azpimarratu zuen Polanyik, benetako merkantziak ez bezala lurra, lan-indarra eta dirua ez baitira pentsatuak izan ondoren merkatuan saltzeko.

"El punto fundamental es el siguiente: trabajo, tierra y dinero son componentes esenciales de la industria; dichos componentes deben de estar también organizados en mercados; estos mercados forman en realidad una parte absolutamente fundamental del sistema económico. Es evidente, no obstante, que trabajo, tierra y dinero no son mercancías, en el sentido de que, en lo que a estos tres elementos se refiere, el postulado según el cual todo lo que se compra y se vende debe de haber sido producido para la venta, es manifiestamente falso. En otros términos, si nos atenemos a la definición empírica de la mercancía, se puede decir que trabajo, tierra y dinero no son mercancías." (Polanyi, 2009: 180).

Ekonomialariaren arabera, hiru fikziozko merkatu horiek sortzeak baimendu du merkatu ekonomiaren hedatzea, nolabaiteko antolakuntza printzipio bat ezartzea ahalbidetu diolako. Ordea, merkatu ekonomia bizitza sozialaren erdigunean jartzeak gizarte-harreman sendoen eta inguru naturalaren suntsiketa oso gertaera probable bilakatzen du. Merkantzia moduan saltzeko pentsatua izan ez den lan-indarra adibidez, ezin da edozein modutara erabilia izan beraren jabe den pertsonarengan ondorio zuzenik eragin gabe.

"Al disponer de la fuerza de trabajo de un hombre, el sistema pretende disponer de la entidad física, psicológica y moral «humana» que está ligada a esta fuerza. Desprovistos de la protectora cobertura de las instituciones culturales, los seres humanos perecerían, al ser abandonados en la sociedad: morirían convirtiéndose en víctimas de una desorganización social aguda, serían eliminados por el vicio, la perversión, el crimen y la inanición" (Polanyi, 2009: 183).

Lurraren eta diruaren merkatuarekin ere berdintsu. Lur planetako bizitza sarea merkatuan salerosi daitezkeen merkantzia modura ulertzen baditugu, eta gainontzeko espeziek gu zerbitzatzeko daudela iruditzen bazaigu, baliabide naturalak inolako orekarik gabe ustiatzeko, eta bizitza-sarearen aurkako suntsipen masiboa eragiteko dinamikan sartuko gara. Izan ere, baliabide naturalak ez dira merkantzia, alegia, ez dira sortuak izan merkatu batean saltzeko helburuz. Diruaren kasuan ere, oreka falta eta jario

kontrolaezinak izango lirateke merkatu horren ezaugarri, banka-porroterako eta likidazio krisietarako baldintzak jarriko lirateke behin eta berriro, Polanyiaren esaldi honek figura indartsuekin azaltzen du hau:

“...la administración del poder adquisitivo por el mercado sometería a las empresas comerciales a liquidaciones periódicas, pues la alternancia de la penuria y de la superabundancia de dinero se mostraría tan desastrosa para el comercio como lo fueron las inundaciones y los períodos de sequía para la sociedad primitiva” (Polanyi, 1989: 127-129)

Modernitatearen etorrerarekin eta ekonomiaren gaineko ulerkera jakin batekin, hortaz, merkatu-ekonomia kontzeptuen definizioak batu egin zirela esango du ekonomialariak. Are, ez hori bakarrik, ekonomiak merkatu forma ezberdinak har zitzakeen arren, gizarte bizitzaren gainerako alderdiak ere parametro horietan ulertzen hasi ziren, oro zen merkatuaren formara aplikagarri. Hori da Polanyiaren tesi nagusietako bat, lurra, dirua eta lan-indarraren merkatu autoarautu bat sortzeak gizartea merkatu-ekonomiaren mende ipintzea ekarri zuela, bere dinamikaren arabera jardutera behartu ditu pertsonak, esparru orotan. Hortxe dago paradoxa, fikziozko merkantziak izanagatik, merkatua eraikitzeke bidea zabaltzen du fikzio horrek. Bestela esanda, fikziozko merkantzia horiek sortzea kapitalismo antolatu eta neurri batean koordinatua egoteko aurrebaldintza da.

“La ficción de la mercancía proporciona por consiguiente un principio de organización de importancia vital que concierne al conjunto de la sociedad y que afecta a casi todas sus instituciones del modo más diverso. Este principio obliga a prohibir cualquier disposición o comportamiento que pueda obstaculizar el funcionamiento efectivo del mecanismo de mercado, construido sobre la ficción de la mercancía... Los mercados de trabajo, tierra y dinero, son sin ninguna duda esenciales para la economía de mercado” (Polanyi, 1989: 128)

Gakoa da merkatuaren bueltan antolatutako gizarteak ulertzeko Polanyik egiten duen ekarpen hau. Ekoizpen guztia saldu eta erosteko helburuaren baitan antolatuz gero, merkatarien gizarte bat sortuko da, non merkatua den gizarte horren dinamika eta prozesuen bizkarrezur nagusi. Merkatuaren logika orokorra hedatuko da gizarte praktika orotara, hain justu. Horrenbestez, gizarte moderno industrialen sorrerara begiratzen badugu, ezinbestekoa da berritasun teknologiko eta organizatiboak izan zuten pisua aztertzea (Marx-ek egin bezala), edo garaian zabaldu zegoen *ethos* calvinista-ren berri izatea (Weberrek azaldu zuen moduan), bere diziplinamendu aszetiko zorrotzarekin. Alabaina, badago hirugarren puntu bat, merkatuen hedatzeari dagokiona, fikzio edo idealizazio jakinen ganean eraiki zena, eta merkatuari erakunde sozial nagusi bilakatzen laga ziona. Polanyik behin eta berriz jartzen du arreta merkatua horren boteretsu egiten duten irudikapen sozialen mitikotasunean, bere fikziozko izaeran.

Bada, garai modernoan ezartzen diren harreman, sare eta lotura sozialek sinesmen horietan hartzen dute lur, gizartearen antolakuntza printzipio bilakatzen dira. Irudikapen sozial horiek (fikziozko merkantziak tartean) geure gizartearen ordena sozial eta politikoa konfiguratzeko dute. Ekonomia modernoaz edo kapitalismoaz ari bagara, beraz, bere ganean eraiki den kultura bati buruz ere badihardugu, zentzu Weberiarrean ez ezik, zentzu antropologikoan ulertu dezakeguna: irudikapen, diskurtso korrante eta esparru sinboliko modura, geure egiteko eta harremantzeko modu sozialak baldintzatuko dituztenak.

Ezaguna da liberalismo ekonomikoak sortutako eredu teorikoak eragin zituen ondorez sozial eta gatazka politikoen erdigunean sortzen dela kooperatibagintzaren

idea. Polanyik deskribatutako fikziozko merkantzien arrazionaltasun ezak ondorio larriak laga ditu kapitalismoaren historia laburrean, besteak beste, bi mundu gerra eta aurrekari historikorik gabeko krisi ekonomikoa XX. mendean. Egonezin antropologiko horrek berak, beraz, gizarte zibil antolatuaren bidez bestelako ordena sozial eta ekonomikora iristeko bideak asmatzearen premia ekarri zuen, eta hor ulertu ditzakegu kooperatibismoaren hasierako teorizazioak, utopia komunitarioarekin lotuak gehienbat (Owen, Buchez, Fourier...) (Azkarraga, 2006: 621). Bourdieu berak ere adierazi zuen ezinezkoa dugula ekonomia bestelako erakunde eta prozesu sozialetatik salbu aztertzea: hau da, bi eremu ezberdinetan kokatzea ekonomia batetik (bere lege eta arau "natural" propioekin diharduena) eta soziologia bestetik (ekonomiarekin zerikusirik izango ez balu modura) hanka-sartze larria da (Bourdieu, 2003). Gizarteak eta politikak *etxekotuko* ez duten ekonomia indarrak askatzen badira, beraz, bizi baldintzak suntsitzeko joera izango dute horiek, merkatuan errentagarritasuna ateratzera behartuta ikusiko baitute euren burua, epe luzeko ondorioetan pentsatu gabe.

Nolanahi den, Arrasateko Kooperatiba Esperientziara begiratuta, Arizmendiarietaren pentsamendu oinarrietako bat bada arrazionaltasun ekonomikoa proiektu etiko-demokratiko zabalago baten baitan ulertzeko joera (Azurmendi, 1992), eta Polanyiren tesi nagusia ere hori esatera dator, ezin daitekeela ekonomia politikoa merkatu forma hutsera mugatu, bestelako harreman sozialetan txertatua egon behar duela, ekoizpen zein banaketa jarduna bestelako arrazionaltasun baten baitan antolatu ahal izateko. Kooperatibagintza pragmatiko-instrumental horren jardunak arrazoiaketa bide hori irauliko luke, harreman sozialak merkatu ekonomiaren normatibotasunaren arabera ehunduta, eta arrazionaltasun ekonomikoa erdigunean ipinita. Lehenbizi etorriko da balantzearen emaitza ona eta etekina, eta ondoren, gainerako guztia (balio demokratiko-igualitarioak kasu).

Polanyi-ren azalpen eta definizio ezagun honekin azaldu dezakegu, hortaz, modernitate kapitalistari aurre egin dion esperientzia kooperatiboa: sozialismo oro azaldu daiteke ekonomia etxekotzeko saiakera bezala. Merkatuek ondasun eta materialen hazkuntza sustatu dezaketen arren gizarteak lurralde arriskutsuetara eramaten ditu, Tom Bottomore soziologoak dioen moduan:

"La competencia y los mercados pueden conllevar algunos beneficios para los consumidores, el incremento de la eficiencia de los productores y la estimulación del crecimiento económico, pero al mismo tiempo pueden ocasionar una mayor inestabilidad y un aumento de la desigualdad económica y, posiblemente, un deterioro del aprovisionamiento colectivo y del sentido de comunidad." (Bottomore, 1990: 102).

AKE-n oso nabarmena izan da hori, helburu ekonomikoa bestelako helburu sozial, kultural eta espiritualen azpitik jartzea lehentasunen hierarkian. Polanyiren definizioari segiz gero, sozialismo mota baten aurrean geundeke, bere arrisku eta akatsekin, baina ekonomia kapitalistaren indar zurrupatzailea nolabait etxekotzen asmatu du (5. kapituluaren landuko dugu sakonago).

Ordea, puntu honetan planteatzen den eztabaida teorikoa den arren, inplikazio praktikoa zuzenak dauzka. Kooperatibismoa praktika kapitalista ohikoetan murgiltzea beti egongo den arriskua da, hari fin batek bereizten baititu, merkatu jardunari soilik begiratzen badiogu. Nazioarteko testuinguru lehiakorren diharduen esperientzia ekonomikoa izaki, kooperatibaren baitan eratzen den metabolismo soziala beti egongo

da logika kapitalista hutsetan murgiltzeko joeratik gertu. Bestela esanda, harreman komertzialak, saldu beharra eta negozio kokapen sendoa irabaztea kanpotik ezarrita datorren egiturazko araua da, moduren baten edo bestean erantzuna eman beharko zaiona. Marx-ek jadanik definitu zuen hori, bizimodu modernoaren ezaugarri objektiboa dela merkatarien jardun orokortua. Bizitza ekonomiko eta sozialaren alderdi hori ukatuz gero, bere adar material gordinena alegia, noraezean galtzeko eta eraikin kooperatiboa erortzeko arrisku handia legoke.

Ziur aski gaurko euskal kooperatibismoan bi bulkadetatik datozen arrastoak aurki ditzakegu. Enpresa eraginkor, moderno eta nazioartean lehiatzeko moduko joera batetik, eta aberastasuna banatzeko zein erabakiak hartzeko modu demokratikoagoa bestetik. Jarraian luzatu daitekeen galdera, beraz, automatikoa da. Egoera sozioekonomiko larria behar al du komunitate batek lankidetzaz eta elkartasuna indartzeko? Zergatik oparotasun materialeko egoera batera iristean elkarlanaren kontzientzia, antolatze jokabidea eta konpromiso sozialaren mailak ahultzen dira? Nola haragitzen da hori kirisialdi ekosozialaren bidegurutze historikoan? Jarrera kontu moral-espirituala ote da, edo oinarri materialek eragiten dute gehiago?

4.1.2 Giza jarrera kooperatiboari buruz:

Kooperatibismoari loturiko etikak izan du eztabaidarik esperientzia kooperatiboan eta baita eremu akademikoan ere. Azurmendiren iritzian, kooperatibista izatea ez da soilik lanean egitura juridiko baten parte izatea, munduan egoteko modu bat adierazten du, besteekiko elkarmenpeketasunean bizi garela onartzetik abiatzen dena (Azurmendi, 2016). Bada, kooperazioak berarekin atxikirik dakar erantzukizuna, komunitatetik jasotzen dugun neurrian harekiko betebeharrak batzuk garatzen baitira. Gizabere kooperatibo bilakatzeko, beraz, borondate onetik haratago doazen konpromisoak hartu behar dira, ezinbestean loturik daudenak sakrifizio puntu batekin, elkartasunarekin eta biziera aurreztailearekin.

Alabaina, egin dezakegu galdera, zergatik kooperatzen dute gizakiek eta giza taldeek euren artean? Giza kooperazioari buruzko pentsalari multzo esanguratsuak defendatu izan du elkarlanerako eta elkarrekin komunitatean bizitzeko prestutasunak giza esentziaren parte direla: hor daude XIX. mendeko sozialista utopikoak edo anarkismoaren sortzaile intelektualak. Gaur egun ere, geroz eta ikerketa gehiagotan frogatzen da kooperazioa giza bizitzaren oinarritzeko indarra dela. Alabaina, eraldaketa sozialaz ari bagara, bereizi egin beharko genuke gizakien arteko kooperazioa eta gizartearen eraldatzeko borondatea. Izan ere, Azurmendik gizabere kooperatiboaz egiten duen definizioak enpirikoki aztertu izan direnean, ez dira espiritu kooperatibistari loturiko balioak hain argiki agertu (edota edozein tradizio kritikori, izan sozialismoa, komunismoa edo sindikalismoa). Gauzen ordena alternatiboa eraikitzen saiatu diren esperientzia horietan, mugimendu horietako bakoitzari atxikitzen zaizkion balioak nukleo murriztutako batean identifikatu izan dira, masa zabalengan baino. Bestela esanda, arazo politiko-materialak eraldaketa moral-espiritual baten bidez konponduko direla pentsatzea,

korrante minoritarioa izan da edozein esperientzia emantzipatzailetan. Gerald Cohen-ek pasadizo honen bidez nahiko modu argian ikustarazten du hori:

“1964ko abuztuan, Txekoslovakian bi aste pasa nituen, Pragan zehazki, nire aitaren arrebaren eta bere senarraren etxean, Jennie Freed eta Norman. Azken hau, *World Marxist Review*-ko editorea zen eta horregatik zeuden Pragan garai hartan. Halako arratsalde batez, galdetu nion ea zein harreman zegoen printzipio moralen eta praktika politiko komunistaren artean. Hala erantzun zidan “Ez gero hitz egin niri moralitasunaz, ez zait interesatzen”. Bere hitzen testuinguruak eta erabilitako ahots-tonuak indarra eman zioten “Moralitasuna ipuin ideologikoa besterik ez da; ez dauka inolako zerikusirik kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko borrokarekin”. Hori entzutean, esan nuen “Baina osaba Norman, bizi osoko komunista zara zu. Ziur naiz zure jokabide politikoak konpromiso moral handia adierazten duela” Ahotsa altxatuz, bukatu zuen “Ez dauka moralarekin zerikusirik! Ni nire klase sozialaren alde ari naiz borrokan!” (Renduéles, 2014: 137).

Pasadizoan Cohenek aditzera ematen du printzipio moralaren eta praktika politikoaren artean lotura oso ahula dela eta zerikusi gehiago duela interes material errealekin, horregatik materialismo historikoaren garrantzia, diote marxistek. Giza kooperazioak ere oinarri materialak dauzka berau ahalbidetzeko, faktore kulturalak bezainbesteko garrantzia hartuko du edozein kooperazio prozesu azaltzeko.

César Rendués filosofo eta soziologoaren arabera, Marxek berak ere, kooperazioak oinarri materialak dituela esatean, ekoizpenaren bueltan ardatzen den kooperazioaz ari da. Ekoizpena ez da izango norbanako isolatu baten ekintza instrumental hutsa, ezinbestez egon beharko da lotua norbanako ezberdinen arteko kooperazio sozial formaren batekin. Kooperazioa, beraz, edozein epai edo interpretazio moralen aurretik, indar produktiboa izango da:

“La producción de la vida, tanto de la propia en el trabajo como de la ajena en la procreación, aparece ya como una relación doble- por un lado, como relación natural; por otro, como relación social-; social en el sentido de que, en esta relación, se comprende la cooperación de varios individuos, con independencia de las condiciones, la forma y los fines. De aquí se sigue que un modo de producción o una etapa del desarrollo industrial determinados siempre vinculados a un modo concreto de cooperación o una etapa del desarrollo social, y este modo de la cooperación es , por sí mismo, una fuerza productiva (Marx eta Engels: 1973: 30.)”

Bi kontzeptu ezberdin dira, beraz, kooperazio soziala eta baldintza igualitarioetara iristeko borondatea duen elkarlana. Baldintza historiko zehatzak egonez gero, gizakiaren portaera kolektiboagoa edo indibidualagoa zela defendatu zuen Marx-ek, esanez, krisi garaietan jarrera kooperatiboagoak ernaltzeko aukerak biderkatzen direla. Lehiak indarra galtzen du eta gizarte kapitalista osatzen duten kideak talde bereko sentitzen dira, arriskuan dagoen eta suntsipen mehatxua gainean duen taldeko kide hain justu. Hortaz, taldetasuna eta kooperaziorako jarrera ere egon badago egiteko modu kapitalistaren barruan, baldintzak badaude horretarako. Aipu honetan biltzen du ikusmolde hori:

“Lehengaien garestitze garaietan kapitalista industrialak batu egiten dira, elkartek osatzen dituzte ekoizpena erregular bilakatzeko xedez (...) Alabaina, hasierako kolpea arintzen denean, lehiaren printzipio orokorra gailentzen da ostera ere (...) beste behin onartzen da prezioak izan daitezela eskaintza arautuko dutenak. Kontrol komunerako ideia, lehengaien beharren aurreikuspena egin eta arautuko duen ideia hain justu, eskaria eta eskaintza berez erregulatzen direneko sinesmenari bide ematen diona da.”

Ez Marx-ek soilik, bere arerio inetelektual eta kulturala izan den liberalismo ekonomikoak ere “borondatezko kooperazioa” moduko kontzeptuak defendatu izan ditu. Spencer (1857) pentsalari liberalak berak ere zioen gizakiak ez duela bere jokabideak arautzeko beharrik, merkatuak elkar-menpekotasuna sortzen duen neurrian, kooperaziorako jarrerak agertuko dira ezinbestez. Nolabait, liberalismo ekonomikoaren

tesi nagusienetakoa da Spencerrek giza jarrera kooperatiboaren inguruan planteatzen duena. Soilik lehiarako baldintza egokiak jarriz gero, etorriko da elkarlana, garapena eta zibilizazioa. Alperrik da, hortaz, lehiari oztopoak jarri nahi izatea, lehia edozein sistema ekonomiko eta sozialerako erregai zentrala baita.

Spencerren formulazioaren aurretik ere, Smith³⁸ edo Ricardo moduko pentsalariek euren kooperazio-liberalaren ulerkera propioa teorizatu zuten. Liberalismo klasikoaren ordezkari ezagunenetako gisa jo ditzakegu bi horiek, eta espezializazioaren ideia zuten elkarlanerako funtsezko baldintzat. Nolabait, merkantziak modu askean salerosi ahal izateak sektore jakinen espezializazioa ahalbidetuko luke, nazio bateko produkzioa era egoki eta dibertsoan orekatuz edo lantegiko zereginak modu eraginkorrean banatuz. Liberalismoaren formulazio klasiko horren arabera, ekoizpenaren batz bestekoa (nazionala eta nazioartekoa) areagotuko da espezializazioari esker, eta ondorioz produktu aurrerratu eta sofistikatu horien salerosketarekin guztiek irabaziko lukete. Logika *osagarria* da darabiltena, ondokoak ere kalitatezko produktua ekoizten badu bere alor jakinean, bi produktu on ekoitzi dira aldi berean, ondorioz, garapen eta oparotasun orokorra bermatua legoke. Bestela esanda, norbera bere esparruan buru-belarri aritzeak ustezko ongizate kolektibo bati egingo lioke mesede, eta hori da kolektibotasunarekin kooperatzeko dagoen modurik zuzenena, aditu bihurtzea.

Zentzu horretan, nabarmentzekoa da kooperatibismoa eta eskola liberala bateragarriak direla defendatu duen autore sorta. Ikuskera horretan, ordena sozial eta ekonomiko kapitalistaren aurkakotzat jo baino, berau errotzen laguntzen du, gizarteko sektore ahulenen ahalduntzea ahalbidetzen duelako, eta beraz, lehia ekonomiko justurako baldintzak sortzen dituelako (Lambert, Ortega, 2021-en aipatua). Kooperatibek, indar produktiboak eraginkortasunez zuzentzeko baldintzak jartzen dituztela defendatzen dute, eta ondorioz, gizarteari ekarpena egiten dio enpresa eredu horrek, ordena liberalarekin kontraesanean sartu gabe. Gainera, ikuspegi liberalean, kooperatibismoa hobekuntza sozialerako bide baketsu modura ulertzen da, eta bide batez, langile eta herri sektoreek izan zezaketen borondate iraultzailea makaltzen laguntzen du (Ortega, 2021).

Horrenbestez, ez dago garbi kooperazioaren jatorria nondik datorren. Helburu instrumental hutsera bideraturiko ekintza izan daiteke edo proiektu etiko-demokratiko zabalagoari begira dagoena, oinarri moral sendo baten gainean aurrera eramana; baina bi ekintzak dira kooperazio formak. Hobbes edo Rousseau-ren arteko eztabaida amaigabe klasikoan murgildu beharko ginateke korapilo teoriko hori askatzeko, kooperazioa gizakiari berezkoa zaion edo interes batzuei jarraiki lortzen ote duen. Esaterako, hautaketa arrazionalaren teoriak horixe defendatuko du hain justu, norbanako batzuen interes instrumentalak betetzeari begira jarraitzen den estrategia

³⁸ Smith, A (1776) *The Wealth of Nations*. Dena den, Adam Smith pentsalari ilustratuaren kasuan zehaztu behar da pentsamendu liberalaren aitzindarietako modura hartu izan bada ere, sistema moral baten premia aldarrikatu zuela, ondasun eta zerbitzuak gizalege eta mendekotasun-harremanik gabe elkarbanatzeko funtsezkoa zela iritzita. *Theory of Moral Sentiments* (1759) liburuan idazten du neurritasuneko eta soseguzko bizimodua eramatea, edo ongi egindako lanaren gozamina bertutezko bizitzaren ezaugarri zirela. Horrez gain, merkatuak eta lanaren banaketa sozialak ongi jardun dezan sare moral partekatu baten existentzia ezinbesteko aurbaldintzat zeukan, hitzarmenak sinatzeko, konpromisoak hartu eta betetzeko edo ekoizpen prozesuak aurrera eramaterik ez zegoelako kode moral erroto jakinik gabe. Smith-en gogoetek gaurkotasan handia hartzen dute krisialdi sozio-ekologikoaren koituntura historikoan, neurritasunaren eta sosegua indar moral berreskuratzeko zeregin baita zibilizazio erronkaren zutabe nagusietako bat.

litzatekeela kooperatibismoa, ordena moral batean baino, behar materialetan sustraitzen dena.

Dena den, moral kooperatiboaren auziak badu garrantziarik, Azurmendik azpimarratzen duen bezala (Azurmendi, 2016: 65). Pentsalari zegamatarraren arabera, ezin liteke oro lehia orokortu baten printzipioetatik ulertu, ongiaren eta gaizkiaren artean bereizteko ditugun mekanismoak edota zereginen bat betetzeko sentitzen dugun derrigortasuna azaldu barik geratuko litzateke eta. Hala, Azurmendiren arabera, morala giza-esentzia bera eratzen duen elementu da, eta hortik eraikitzen ditugu kidetza sentipenak eta elkarlanerako oinarriak. Auzia ez da gizartean lehiarik dagoela ukatzea edo elkarren arteko borroka gizakiari arrotz zaion ezaugarri bezala definitzea; auzia, lehiatik bezainbat kooperaziotik eginak gaudela onartzea litzateke (Azurmendi, 2016: 69).

Marx-en iritzian ere, gizarte modernoa gizarte indibidualago edo komunitarioagoa izan daiteke berau aztertzen den garai eta testuinguru historikoaren arabera. Autorearen aburuz, kapitalismoaren edozein garai dago krisiaren etorrerak mehatxatua, aukera estrukturala baita sistema arrakalatzea, kontroletik at geratzea. Beraz, krisi garaietan gizartean martxan jartzen diren neurriak gizakiaren jarrera kooperatibo gisa ulertzea arriskutsua da, ongi sostengatu gabeko iritziei bide ematen baitie. Marx-ek ez du, Azurmendik egin bezala, moralitasun *berezko* batera jotzen gizakiaren kooperazioa azaltzeko, erro materialetan bilatzen du bere arrazoia. Ez dugu ukatzen ez bataren ez bestearen potentzia analitikoa, eta bien arteko uztarketa josi beharko luke edozein azalpen zientifiko sozial finduk.

Arrasateko Kooperatiba Esperientziara begiratuta, gerra zibil gordin baten lehertzeak ekarritako gizarte errealitate oso behartsu eta hondoa jotako batetik eratorri da. AKE-ra hurbiltzeko ezinbesteko azalpena da krisi ekonomiko, sozial eta moral bortitza baten lurzoruari lotuta hazi den esperientzia izan dela, ezer baino lehen. Are gehiago, Arrasateko kooperatibagintzan gailendu den kooperazio forma ulertzeko, ezinbestekoa zaigu ordena moral katoliko zurrunak ezarritako markoa ulertzea lehenbizi, elizak pisu politiko eta sozial esanguratsua zeukan garaian³⁹.

Auzian sakontzeko, Arrasateko kooperatibetan gailentzen den kooperazio forma zein den zehaztea dagokigu, bai liberalismotik zein marxismotik azaldu ditugun kooperazio formen ezaugarriak baititu: i) ekoizpen produktu baten bueltan antolatzen den kooperazio forma da, hau da, indar-produktiboa. Alabaina, indar-produktibo horrek sorturiko balioa ez da interes-egitura ezberdinduan murgiltzen, kooperatibetan antolatua dagoen ekoizpen-harremanen egiturak ez baititu interes bateraezinak dituzten klase antagonikoak sortzen, Marx-en hizkera erabiliz. ii) Spencerrren interesen banatze eta espezializazioaren teoriari jarraiki, Arrasateko kooperazio formak produktu berezi, landu,

³⁹ Arrasateren kasuan gainera, nabaria da krisi testuinguru batean estatua edo merkatua ez diren bestelako erakunde sozialek gizarte bizitzan jokatu zuten papera. Egoera anomikoa (zentzu durkheimdarrean) ekiditeko, eta berme material zein psikosozial gutxienekoak egon daitezen, familiak, eskolak edota erlijioak protagonismoa hartzen dute, eta nolabaiteko ordena berrezartzen saiatzen dira arau-falta eta noraeza gailentzen diren lekuan Zehazki, Arizmendiarrietaren pentsamenduari eta agian gehiago praktikari begiratzen badiogu, ekonomian parte hartu zuten bestelako erakunde sozialez gainezka daude 40. eta 50. hamarkadak Arrasaten. Bere pentsamenduan erabat erroturik zegoen "hezkuntzaren garrantziaren" ideia tiraka, 1943. urtean landatu zuen ondoren AKE-ren dimentsioa hartuko zuen esperientziaren hazia, Lanbide Eskola. Hezkuntza eta lana uztartzeko aukera ematen zion horrek, ikasleei prestakuntza teknikoa eta sozial-espirituala emateaz gain enpresaren berehalako ezagutza praktikoa lortzen zuten. 14 eta 16 urte bitarteko 20 mutiko hartu zituen lehen eskola horrek, guztiak ere herri klase xumeetakoak.

balio-erantsidun eta espezializatua sortzeko aukerak eskaintzen ditu, hortaz bertan parte-hartzen duten kideen interes instrumental-utilitarioa izango da produkzio prozesu horretan parte-hartzea, irabazien hazkuntzaren logika liberaletik.

Elkarlanerako bulkada-indar horien jatorria zehazteko ariketa da aurrez aipatu ditugun bi korranteetatik egina. Jokabide patroi unibertsala ezartzeko xedea dute biek gizakiaren edozein elkarlan prozesu azaltzeko, behar materialetatik abiatuta. Badago, ordea, kooperazio formak azaltzeko ikusmolde horri egiten zaion kritika klasiko bat, determinismo ekonomikoan erori izana leporatzen diona. Nolabait, bai liberalismoak zein marxismo ortodoxoak gizartea irakurtzeko betaurreko ekonomizistak soilik jantzi dituztela diote, bizitza sozialaren eremu oro esparru ekonomikotik azalgarri izan liteeneko premisa bere eginda, eta bazterrean utzita prozesu sozial eta ekonomikoak azaltzeko dauden bestelako faktore batzuk; kulturalak, moralak, psikologikoak.... Gorago azaldu ditugun kooperazio formak ere, oinarri material batetik abiatutako ekintzat azaldu dira. Bestela esanda, giza ekintza azaltzerako orduan ez dituzte kontuan hartu normatibotasun komunitarioak jar ditzakeen mugak edo Azurmendirekin azaldu dugun moduan, moralitasunak ezar ditzakeen baldintzak. Garapen tekno-ekonomikoa prozesu erabat independente eta autonomo gisara ulertu izan dute.

Faktore ekonomikoa giza portaeraren azaltzaile gorena deneko ideia, eta ondorioz giza kooperazioa azalduko lukeena, zalantzan dago Polanyi beraren obran. Vienen jaiotako zientzalari sozialak garbi dio agian gizarte modernoak ezaugarritu dituen determinismo ekonomiko horiek historian zehar egon izan den patroi antropologikotik egon den desbiderapen gisara ulertu behar genukeela. Bestela esanda, gizarte historikoen berezko joera merkatua gizarte bizitzaren bazter batean, ondo definitutako arauekin eta espazio mugatuarekin mantentzea izan da.

Historian zehar talde sozial ezberdinek eraman dute herri eta komunitateen gidaritza, ordena erlijiosoetan, militarretan edo aristokratikoetan antolatuta, baina merkatarien boterea beti egon da botere politiko nagusiak estuki kontrolatua. Modernitateak eta kapitalismo globalak ekarri duen egituraketa historiko-sozialarekin ordea, merkatuak eta horri loturiko borroka-lehiak nagusitu dira gizarte bizitzaren alor gehientsuenetan, burgesiaren eskutik indar ekonomiko eta finantzarioa erdigunera ekarri baita sistema politiko garaikideetan. Gizarte aurremodernetatik gorde zitezkeen sistema moral indartsuak ez dira gai izan indar ekonomikoaren zabaltzeari harresiak ipintzeko, eta hor gizarte moderno kapitalisten egituratze-modua salbusepen historiko modura interpretatzeko beharra. Kapitalismoaren egituraketa sozialean, gizartearen goikaldean daudenak inbertsioak hoberen kapitalizatzen dituzten horiek dira; alegia, gizarte kapitalistan kokapen sozial pribilegiatua eduki nahi duenak, joko-zelai ekonomikoan –merkatuan- erakutsi beharko du bere gaitasuna. Boterera ekonomiaren bidetik iristeko modu horrek, gizarte bizitza eta botere-harremanak ekonomiaren dimentsiotik eta lehia orokorraren printzipiotik irakurtzeko joerara eraman gaitzake, baina esan bezala, askotariko dimentsioak bildu behar dira. Alegia, gizakiak elkarren artean leihan daudela *berez*, diskurtso kultural jakin bat da, sistema ekonomiko kapitalista legitimatu gura duena. Eraldaketa historiko horien argitan ulertu behar dugu, hortaz, giza kooperazio formak betaurreko ekonomizistekin irakurtzeko hautua.

Edozelan ere, marxismoaren tradizio intelektualean badago eztabaida ea pentsalari alemaniarra determinismo ekonomiko horretan erori zen edo ez argitu gura duena.⁴⁰ Marxismo kultural dei dezakegun eremutik autorearen obra aldarrikatzen da gizarte zientzien azalpen osotu modura eta ez soilik eremu ekonomikora mugatzen den alde bakarreko azalpen gisa. Esaterako, *Soldatapeko lana eta Kapitala* lan ezagunean Marx-ek argi laga zuen gizakiaren behar eta desirak gizartetik jaioak zirela, hortaz, dimentsio kulturala izan bazutela (Marx, 1849). Hortaz, marxista kulturei jarraitzen badiegu, esan liteke Marx-ek modernitate kapitalista lanaren zentraltasunetik azaldu bazuen ere, bere kezkarik sakonena gizakiaren alderdi antropologikoak gizarte kapitalistaren ze forma hartzen zuten azaltzea izan zela (Rendués, 2008: 226).

Dena den, behin puntu honetara iritsirik, gaur egungo kapitalismoaren analisia egitean Polanyik eta Marx-ek zehaztu zutenetik haratago joan beharra dago. Nancy Fraser teoriarari estatubatuarrak dio, kapitalismoaren ulerkera eremu ekonomikotik haratago eraman behar dugula, era horretan krisi sistemikoaren ulerkera osotuagoa izateko. Azalpen horretan, natura eta erreproduzio sozialaren dimentsioa diagnostikoaren lehen planora ekartzea aldarrikatzen du. Hala dio teoriarari feministak:

“Hausnarketa horien argitan, kapitalismoaren ulerkera zabalago bat begiztatzen dugu: kapitalismoa ez dagokio ekonomiari soilik, hori baino handiagoa da. *Ordena sozial instituzionalizatu* bat da, hain zuzen. Azpistema ekonomikoaren gainetik eta horretatik harago, gizarte kapitalistak bere baitan biltzen ditu ekonomiari eusten dioten beste eremu ez-ekonomiko batzuk, besteak beste, erreproduzio soziala eta natura. Beraz, kapitalismoak era askotako krisi-joerak biltzen ditu, ez bakarrik ekonomiaren baitako kontraesanetatik datozenak, ezpada eremuen arteko kontraesanean sortzen direnak ere: batetik, ekonomiaren eta gizartearen artean eratzen direnak; bestetik, ekonomiaren eta naturaren artean sortzen direnak. Gizarte kapitalistaren barruan daude bi-biak, Marx-en zein Polanyiren kontraesanak.” (Fraser, 2021: 130).

Fraserren lanean kritika egiten zaio Polanyi-ren eta Marx-en obrari, gaur egungo analisi sozialerako baliagarriak diren arren haien maisutasunez detektaturiko prozesuak, merkantizifikazio prozesuetatik haratago dominazio prozesuak nola gorpuzten diren aztertu behar dugula irizten dio (Fraser, 2021). Kapitalismo kognitibo post-fordistaren aroan lanaren merkantizifikazioak eta bizitzaren finantziarizazioaren (zorpetze mekanismoen bidez) sakontzea bizi duten arren, lan erreproduktibo ez-ordainduak edo *natura merke*-ak kapitalaren azken akumulazio faserako ezinbesteko birika direla azpimarratzen du. Egokitasun handia hartzen du krisialdi sozioekologikoaren testuinguruan Fraserren kritika hau aipatzeak, Marx-ek eta Polanyik garaiko marko kontzeptualetan eztabaidan ez zeuden menderakuntza sistemak jasotzen baititu, eta sistema horiek nola elkarelikatzen diren ezaugarritzen du, azken finean kapitalaren

⁴⁰ Marx-en lan soziala-ren kontzeptuak hain justu, azalpen *kulturalista* horretan egiten du azpimarra. Gizakiaren antropologian bertan txertatua dagoena giza-eboluzioaren hastapenetatik. Lan sozialaren kontzeptuak funtsean erreferentzia egiten dio giza bizitzaren erreproduktiborako dugun modu antolatuari, neolitikoa edo ehiztari-biltzaileetan identifikatu dezakeguna. Hiru funtsezko ezaugarri lituzke. i) inguruko errealitate materialean esku-hartzeko tresnak eta armak garatzen dira, teknikaren ideia. ii) lan-banaketa printzipiotik abiatuz koordinatzen dira, egitura kooperatibo batean, produkzio-antolaketaaren ideia. iii) Ekoizpenaren edo ehizaren saria kolektibo osoari banatzen zaio, distribuzioaren ideia. Bada, ekoizpen-bitartekoen sorkuntza eta beraz koordinatuko duen antolakuntza soziala izango dira lan soziala kontzeptuaren bi zutabe nagusiak. Hori izango da bere Feuerbach buruzko tesietan adierazten duen giza esentziaren adarretako bat, molde horretan egituratu baitira harreman sozialak garapen historikoaren estadio gehienetan. Gizakiaren historian behin eta berriro errepikatzen den patroia antropologikoa izan da harik eta, Marx-en arabera, praktika kapitalistek alienatzen duten arte.

metaketa gorpila ez eteteko, gorputz, lurralde, herri eta izaki bizidun boteregabetuak zapalduz.

Gizakien jarrera kooperatiboa testuinguru historiko zehatzean modu ezberdinez izango da, beraz, azalgarri, unean unean faktore batzuk gaitasun espilkatibo altuagoa izango dutelarik besteen aldean. Gure gizarte garaikdeei begiratzen ari garen neurrian, eta Polanyiren tesien merkatu-zentraltasunaren azalpena eginda, bai esan dezakegu gaurko kooperatibismoa azaltzerako orduan funtsezko faktorea dela eremu ekonomikotik eta merkatuaren logikatik datorkiguna, prozesu kooperatiboen bizkarrezur garaikidea ulertzeko. Izan ere, lanaren ideia izan da proiektu kooperatiboaren balio kohesionatzaile nagusia. Horrek ez du ukatzen bestelako faktore kultural edo subjektiboak sartzen ez direnik azalpenean, baina sistema sozial modernoa merkatu ekonomiaren soinuaren erritmora egituratzen den nuerrian, oinarri horretatik begiratzen hasi beharko gara. Are gehiago, krisi ekosozialean sakontzen dugun neurrian, gizakien elkarmendekotasuna eta taldearen premia geroz eta era nabarmenagoan agertuko dela pentsa liteke. Giza jarrera kooperatiboak, hortaz, bizitza sozialaren erdigunera itzultzeko baldintza historiko materialak sor litezke horrela, subjektu neolibelal *norbere enpresariak*, baldintza gutxiago izango dituelako, bere ekimen propioz soilik, bidea irekitzeko. Ezinbestean egon beharko da lotua bizi forma komunitarioren batera, bere beharrak asetu gura baditu. Baina, aurreko azalpenarekin lotuz, esan genezake, dimentsio komunitario baterako itzulera hori demokratikoa eta unibertsala izan dadin, kooperazioaren, berdintasunaren eta zaintza kolektiboaren ideia erdigunean jarriko duen indar kulturala ezinbestekoa dela.

Hori esanik, eta Polanyiren planteamenduetatik esateko, merkatu gizarteak eta subjektibotasun neoliberalaren hedapena gizakiaren oinarri antropologikoetatik egondako desbiderapena izan dira; nolabaiteko salbuespen historikoa. Bada, erregai fosilek bultzarazi duten modernitate industrialaren agorpena, izan liteke aldi berean, giza jarrera kooperatibo *ohikoetara* itzulera; salbuespen antropologiko baten bukaera. Faktore materialak badakigu norabide horretan bultza egingo duela, ekonomia forma sinpleagoetara, lurraldekoagoetara. Hornidura eta produkzio kateak ez dira globalak izango, ekonomiek burujabetzan irabazi beharko dute. Ekoizpena eta kontsumoa lurralde berean edo geografikoki gertu dagoen eremu batean gauzatu beharko da, ustez ekonomia forma komunitarioago eta errotuagoak loratuko dira; zalantza nagusia, faktore kulturalaren norabidea da.

4.2 Merkatua eta auzi sozioekologikoa

Honetara ezkerro, azaldu dugu merkatuak auzi sozioekologikoari eman diezaiokeen erantzuna derrigorrez mugatua eta ez-nahikoa dela, gailentzen den logika kulturala eta joera sistemikoak medio. Horren adibide garbi, esaterako, klimaren goi-bileretan hartu izan diren neurriek edo karbono merkatuak erregulatzeko egin diren saiakerek isurpen murrizpenetan emaitzarik eman ez izana da. Aitzitik, bigarren mailako merkatuetan isurpen eskubideak salerosteko aukera egonik, negozio bolumena handitu eta isurpenak areagotu egin dira.

Deleuze eta Guattarirekin azaldu dugun bezala, kapitalismo axiomatikoak lortzen du bere aurka oldartu zitezkeen indar antisistemikoak (ekologismoa) birterritorializatzea, hasierako zentzuak hustuz eta bere markoan baliagarri diren berri batzuk emanez. Kapitalismoaren indar dinamikoak gaitasuna du itxuraberritzeko eta bere egitura antzeratsu mantentzeko koiuntura historiko ezberdinetan, baita krisi sozioekologiko larriarenean ere. Hala, kapitalismoari berezko zaizkion ezaugarriak (harreman ekonomikoen autonomia, merkatuaren ardatza, esplotazioa, logika instrumentala, subjektu sozial fetxista, enajenazioa...) berdintsu mantentzen dira euren gizartea arautzeko gaitasunean, zutabe zentralak ukitu barik jarraitzen duten neurrian.

Bada, krisi sozioekologikoari aurre egiterako orduan, emisioak arautzeko eta, aldi berean, egitura ekonomikoa larriki ez kaltetzeko, merkatuko mekanismoen bidez jardutea proposatzen du pentsamendu ekonomiko ortodoxoak. Beste hitz batzuetan, merkatuaren legeak ukitu barik auzi sozioekologikoari heltzerik badagoela defendatzen du pentsamendu liberalak. Sakondu dezagun korapilo teoriko honetan.

Lehenik eta behin, krisialdi ekosozialaren bi ardatz nagusiak kontuan hartzen baditugu, hots, *soziala* eta *ekologikoa*, ezin esan liteke merkatua bien arteko oreka lortzeko gai izan denik esperientzia historiko errealean. Interes indibiduala ongizate kolektiboaren aurretik lehenesten baitu, eta horrela interes kolektiboen aurka doazen jokabide antisozialak hauspotzen ditu. Are, merkatuaren bidez interes indibidualak edonora iritsi gura izaten du, harik eta harresi sozial batzuk jartzen zaizkion arte, legeen edo arau moralen bidez. Bigarrenik, inbertsioak kapitalizatzeko beharrak merkatuko eragileak kostuak kanporatzeko erabakiak hartzera darama; alegia, kutsadura beste lurralde batzuetara garraiatzera, edo ondoren etorriko diren belaunaldiei funtsezko baliabideak

erabiltzera. Horrek, krisialdi sozioekologikoan sakontzea du azken emaitza; norbere lurraldean agerikoak ez izanagatik, hemengo enpresa, planetaren beste espazio batzuen kontura suertatzen baita errentagarria.

Ongi azaldu du hori David Harvey geografoak “dejabetzearen bidezko metaketa” prozesuen baitan. *Spatial fix* modura definitzen duen prozesuan (Harvey, 2004) kapitalak espazio globala erabiltzen du *gainezkatz*e krisiak atzeratzeko, eremu berriak errentagarri bilakatuta. Bada, merkatuak klima aldaketaren auziari erantzuteko estrategia gisa, merkatu eremu berriak sortzen dira, mundu-sisteman iparrean kokatzen diren enpresek negozio bide berriak izan ditzaten Hego globalean. Horrek ez du krisi sozioekologikoa iraunarazi besterik egiten, planetako lurralde gehiagotara zabaltzen delako modernitate kapitalistaren abiadurari eustekak dakarren kostua. Azkenik, gehitu behar genuke, azken bi mendeetako historiak erakutsi duen bezala, merkatua desberdintasun sozialak sortzeko dagoen erakunderik eraginkorrena dela, ez soilik klase sozialen artean, ezpada lurralde ezberdinen artean ere. Horrek, bistan denez, aterabide ekosoziala modu berdinzale batean martxan jartzeko bidea korapilatzen du; egiturazko desberdintasunak sortzen jarraituko bada, zailagoa izango da adostasun ekonomiko eta politiko zabala lortzea eragile ezberdinen artean, inork ez baitu nahi izango ondokoak baino gehiago deskarbonizatu.

Nolanahi den, argudiatu liteke ere XX. mendeko planifikazio sozialisten emaitzak eskasak izan zirela, eta ekonomia planifikatuak arazo ugari sortu dituela, baita suntsipen ekologiko nabarmena ere. Bada, merkatu askearen ideologia eta planifikazio zentralizatuaren zurruntasuna gainditu nahirik, merkatu sozialismoaren aldeko pentsalariek defendatzen dutenez, gaurko gizarte konplexutasuna mantentzeko ezinbestekoa da merkatuak bere tokia edukitzea. Kalkulagarritasunari, efikaziari eta produktibitateari dagokionez ez dago erakunde sozial hoberik. Bestela esanda, merkatu-sozialisten tesietan merkatuak desberdintasun sozialak, ingurugiro kalteak eta osasun arazoak sortu baditzake ere, arazo konpontzaile ere bada neurri batean. Trebetasun enpresarialek herrialde batek behar dituen lehengaiak lortzen laguntzen dute, eta gobernu bat baino gehiagoren arnasa izan daitezke koiuntura zehatzetan.

David Schweickart ekonomialariak, bere “Demokrazia Ekonomikoaren” proposamen ezagunean ekonomia sozialista merkatu-ekonomia izateko proposamena luzatzen du bi arrazoiengatik bereziki (Schweickart, 2006: 12): i) batetik, eskaintza eta eskariaren legea joko-arauetatik kanpo lagaz gero, ekoizle batentzat oso zaila da jakitea zer eta zenbat ekoitzi behar duen eta horretarako zein bitarteko diren aproposenak ii) bigarrenik, planifikazio ekonomikoan ez bezala, norbanakoaren interesak eta kolektiboarenak uztargarriagoak dira, merkatuak interes horiek modu ez-autoritario eta ez-burokratikoan konpontzen baititu. Merkatuaren kalteak arintzeko eginkizuna, beraz, kapitalaren hegemonia ezabatzea litzateke haien ustean, irizpide sozial eta ekologikoetan ardaztuko den ekonomia sistema bat eraikita.

Eztabaidaren mami nagusia, hortaz, merkatua non eta ze produktu eta zerbitzu eskaintzeko egon beharko litzatekeen da marko horretan (Riechmann, 1999). Alegia, oinarrizkoak ez diren produktu eta zerbitzuak izan litezke merkatuek ase lezateken esparru, bakoitzaren nahi bereziak betetzeari begira. Aldiz, oinarrizkotzat jotzen diren ondasun eta zerbitzuak ekonomia publiko indartsu eta eraginkorrak bete beharko lueketela defendatzen dute, norbanakoaren maila ekonomikoa jokoan sartu barik. Merkatu ekonomia sozialistaren proposamenean, gobernuak aukera izango luke esku-

hartze selektiboak egiteko merkatu mekanismoek helburu sozialak betetzen ez dituztenean (Schweickart, 2006). Merkatua, beraz, behar sozialak asetzeko erabilgarri suerta daitekeen tresnatzat jotzen da, eta ez bizitza sozial eta ekonomiko guztia arautuko duen erakunde arau-jartzaile modura.

Hari horretan, desberdintasun kontzeptual nagusia Polanyi-k definitua da, *merkatuak dituen ekonomia* baten eta *merkatu-gizarte* baten artean. Tesiak errealismo pragmatiko dosi altua badarabil ere, merkatu kuota altua mantenduz gero kapitalaren hegemonia eztabaidatu litekeela pentsatzea ez da egia historikoarekin lerratzen den argudioa (Santiago Muiño, 2016). Are, merkatua zokoratuta zegoen lekuetan hazi denean, ez dio hazteari utzi eta gainerako erakunde sozial eta politikoetara iritsi da, kapitalismo axiomatikoaren indar dinamikoak bultzatuta. Esan genezake, beraz, merkatuak baduela bere burua erreproduzitzeko joera, eta muga politiko nabarmenak jarri ezean joera haztaileari ez dio utziko, bere diseinuaren logika sakonean zizelkatua baitu haztearen premia.

Polanyirekin ikusi dugun bezala, gizakiaren izaera antropologikotik aldentzen den aroa da modernitate kapitalistak ekarri duena. Robert Kurz filosofoaren iritzian modernitatea da *egitura ekonomikoa* duen lehen gizartea, hau da, harreman sozial zehatz batzuk autonomia hartu duten eta gizartea ardazteko bizkarrezur bihurtu diren lehen aldi historikoa litzateke (Kurz, 1991). Hor legoke kapitalismoaren indar historikoa, klaseetan bereizitako gizarte bat baino, menderakuntza forma itsu bat sortzean. Modernitatean ekonomiaren lurraldeak autonomia indartsua garatu izanak bizitza soziala haren arauetara subordinatzea ekarri du. Gueure gizartearen formak oinarri horietatik abiatuz egituratzen dira, alegia. Horrek baditu bere inplikazioak krisialdi sozioekologikoan. Berresten du harreman sozialak harreman ekonomikoen menpe jartzen diren honetan, kapitalaren jabeek berrinbertsioak egingo dituztela euren etekinak areagotzen jarrai dezaten, merkatu posizioa mantentzearekin batera.

Ez dugu esan gura dimentsio etikorik ez dutenik, edota krudelkeriaz betetako subjektuak direnik, egitura axiomatikoak berak behartzen ditu jokabide horiek hartzera. Santiago Muinok defendatu gisa, borondatea erakutsiagatik urratsak emateko krisialdi sozioekologikoaren aurrean, egitura ekonomiko kapitalistak gidatutako gizarteetan indar koerzitibo handiak izango dituzte inbertsio berriak egin eta euren kapitalak baliorik gal ez dezan (Santiago Muino, 2016: 564). Marx-ek berak, *Kapitala-ren* lehen liburuan aztertzen du merkantzia-forma bera dela kapitalismoa elikatzen duen oinarritzko zelula, itsua den mekanismo automatiko bati erreferentzia eginez, non ez dagoen erabaki subjektibo autonomo kontziente bat atzean, egituraren beraren indarrez emana dator.

Aztertu dugun pentsamendu autonomo italiarraren koordenadetan ere, harreman sozial kapitalistak bizitza sozial eta politikoaren tolesdurarik sakonenera iritsi direla defendatzen da (Hardt eta Negri, 2000), eta beraz, edozein estatutako egitura politiko oro kapital globalaren nahietara subordinatua legokeela, ekintza-tarte oso laburra lagata inperioz kanpo jardun nahi duenari. Norabide ekosozialean urratsak emateko aukera politikoa, hortaz, blokeatuta legoke arkitektura politiko horretan. Are Hardt eta Negrik gehituko dute ez dagoela lekurik gizartean neoliberalismotik haratago iristen denik, dena xurgatzen du bere indar zentripetoak, eta noski, krisialdi sozioekologikoa indar korrante horien baitan ulertu behar dugu. Galdera, beraz, zuzena da, nola irudikatu merkatu neoliberaletik haratago joan diren praktika sozial eta ekonomikoak, irizpide ekologikoetara lerraturik, neoliberalismo orohartzailearen garaian?.

Kapitalismoaren eratze historikoan lehia antolakuntza sozialaren bizkarrezur modura errotzeak nahitaez eragin du sozialki determinatutako interesa etekina handitzearena eta akumulazioa mantentzearena izatea. Globalizazio prozesuarekin, gainera, ekonomia industrialak elkarren lehian aritzera behartu ditu, merkatuari loturiko jokabideei are lehenetasun gehiago emanda. Krisialdi sozioekologikoa gainditzeko, merkatuaren gaindipena eskutik joan beharko dela ondorioztatzen du Santiago Muiño antropologoak, hori da konponbidea proposatu gura duen edozein proposamenerik kontuan hartu beharreko merkatu tragedia:

“La tragedia va adquiriendo sus verdaderos tintes cuando se comprende casi la total imposibilidad de desconectar al sujeto automático capital convierte una quimera cualquier hipotética solución al problema socioecológico, al menos en sentido fuerte” (Santiago Muiño, 2014: 620).

Merkatu harremanetan ardaztutako edozein gizarte sistemak ezinezkotasun estrukturala izango du auzi sozioekologikoari aterabide bat emateko merkatuaren bidetik. Egokitzapen txikiak egiteko tartea egon daitekeela ukatzen ez badugu ere, gaitzari birika nagusian erasotu baino, sintoma arintze soil bat da egin litekeen bidea, gizarte kapitalisten metaketa joera estrukturala ukitu ezean. Horrek kapitalismo axiomatikoaren indar dinamikoari aurre egingo dion bestelako axiomatika bat sortzeko premia jartzen du mahai gainean, bestelako ehundura sozialak josi ahalko dituenak, arriskuan jarri barik gizakiaren planetako bizi-baldintza oinarritzkoenak.

Merkatu-gizartearen gaindipen prozesu horretarako eremu marxistatik egiten zaigun proposamena planifikazio ekonomimo sozialista demokratikoarena da (Löwy, 2009). Eredu horretan, herrialde baten ekoizpen helburuak zeintzuk diren erabakiko duena eremu politikoa izango da, modu demokratikoaren bidez, eta ez merkatu instantzia. Planifikazioaren ulerkera horretan, ekonomiaren demokratizazio orokorrari emango zaio bide eta zer ekoitzi eta norentzat ekoitzi galderari erabilera-balioko logikan erantzungo zaio, truke-balioaren logikaren ordean. Löwy-ren proposamenean, gizarte ekosozialista baterako trantsizioan merkatuak hasieran leku garrantzitsua izango badu ere, pixkanaka kontrol demokratiko zorrotzagoaren menpe jartzea posible litzateke, kultura demokratiko errotuago bati esker, alde batetik, eta langileen denbora librearen ugaritzeak beren parte-hartze politikoan sakontzeko baldintzak ezarriko dituelako, bestetik.

Proposamen horren aurrean begirada ekosozialetik luzatu dezakegun galdera ondokoa da: ekonomiaren demokratizazioa gertatu arren, zerk eragingo du kontzientzia ekologikoa zabaltzea eta horren arabera erabakiak hartzea? Merkantziaren fetixismoan eta kontsumo-gizarteetan oinarritutako koiunturan, zergatik pentsa dezakegu herritarrek desaziko den ekonomia baten aldeko apustua egingo luketela? Löwy soziologoak, hutsune teoriko horretaz jakitun, ondoko erantzuna plazaratzen du:

“Esta “garantía” no existe más allá de la razonable expectativa de que las decisiones democráticas prevalecerán, una vez roto el poder del fetichismo por el lujo. Por supuesto, existirán errores cometidos por decisión popular, ¿pero quién dice que los expertos mismos no los cometen? No es posible imaginarse el establecimiento de esta nueva sociedad sin que la mayoría de la población haya alcanzado, mediante sus luchas, su educación y experiencia social, un alto nivel de conciencia socialista/ecológica, y esto hace razonable el suponer que los errores (incluidas las decisiones inconsistentes con las necesidades medioambientales) serán corregidos. En cualquier caso, ¿no son acaso las alternativas (el mercado ciego, o la dictadura

ecológica de los “expertos”) mucho más peligrosas que el proceso democrático con todas sus limitaciones?” (Löwy, 2009: 172).

Jardun demokratikoak dituen mugak onartzeko, gainontzeko ereduekin egiten du konparaketa. Alternatibarik onena deneko ideia jaurti gura du, baina era horretako onarpen teorikorik egiteko berme empirikorik ez dagoela iruditzen zaigu. Gizarte antolakunde autoritario bat eraginkorrago izan daiteke irizpide ekologikoetara lerratzen, botere zentralak hala erabakiko balu. Intentsitate altuko gatazka sozialak abiarazi daitezke dimentsio ekologikora egokitzeko prozesuan, eta boterea duten talde sozial askoren interesak kaltetuak izango dira. Ekonomiaren demokratizazio batek ez du esan gure talde sozial ezberdinen interesen bateratzea gertatuko denik, ez eta gatazka soziala neurri baxuetan mantendu ahalko denik.

Era berean, interes ekonomikoetatik haratago faktore kulturelek eragindako gatazkak sor daitezke, sustraitutako kontsumo-ohitura batzuen eta ingurugiroaren mantenuaren artean (haragia jatea taldean, herrietako festak, plastikoaren erabilera, modako produktuen erosketak...). Funtsean, gizarte batek bere buruaren jardunari muga nabarmenak jartzeak ezinbestez dakar galera mingarria, eta horren gaineko adostasun zabalak eraikitzeke prozesua ez da egongo tentsio eta gatazkaz salbuetsita; are gutxiago erregimen politiko demokratikoetan.

Dena den, ikuspuntu berdinak batetik ezin dugu ukatu trantsizio ekosozialak ekarriko dituen tentsioen gorakadak kudeatzeko desiragarriagoa dela mekanismo demokratiko ondo errotuak edukitzea, talde teknokrata edo elite erabakitzaile murrizta baino. Merkatuaren gaindipenerako prozesua, beraz, (auzi sozioekologikoa konpontzeko ezinbesteko) ezin dugu irudikatu interesen armonizazio batetik, edo egitura politikoaren berrindartze batetik (merkatua etxekotuko duena nolabait), gatazka soziala bidelagun izango du, eta subjektibotasun alternatibo indartsu baten eratzea, oinarrizko baldintza.

4.2.1 Green gobernuak, krisi sozioekologikoaren kudeaketa neoliberala.

Merkatuaren eta aro neoliberalaren zabaltze historikoaren gainean egin dugun bide teorikoaren ondoren, jarraian arreta jarriko dugu auzi sozioekologikoaren bueltan ardazu diren eztabaidek hartu duten forma garaikidean eta berau kudeatzeko garatu diren gobernantza moten inguruan.

Foucaulten gobernantzasunaren gaineko gogoetak jarraituz, Pellizoni autoreak ingurugiroaren gainean ezarri diren politika posibleen artean hiru kategoria ezberdintzen ditu: Lehenak, informazioaren gardentasunera derrigortzen du, etiketa eta erregistro ezberdinen bidez emisioen eta ingurugiro inpaktuaren berri emateko. Bigarrenak, gobernuen eta industria sektoreen arteko bazkidetzari egiten dio erreferentzia, ingurugiroaren gaineko araudiak sortzerako orduan. Hirugarrenak, aldiz, enpresa bakoitzaren ekimen propioarekin du zerikusia, eragile bakoitzak autonomoki hartzen dituen erabakiekin (Pellizzoni, 2013: 33). Ikerlariaren arabera, krisi klimatikoaren gainean eratzen den gobernantza ereduak interes konplexuak harilkatzen dira, merkatuaren eta estatuaren arteko aliantza batean, non erabaki koerzitiboak interes enpresarial erakargarriak eskaintzearekin nahasten diren, edo jokabide moralari dei

eginez jarduten duten (Pellizzoni, 2013: 37). Bestela esanda, derrigortasunaren orde z pizgarriak ematen saiatzen dira gobernu ezberdinak, enpresak negozio bide berriak ireki ditzaten eta euren jarduna dibertsifikatzearekin batera ingurugiro inpaktua murriztea lor dezaten.

Foucaultekin esateko beraz, *Green* gobernantaltasunaren kontzeptua erabili dezakegu, naturaren neoliberalizazioaren berri ematen duena, natura bera merkantzifikatuz eta merkatu neoliberaletan sarraraziz. Hipotesi neoliberalaren arabera, hazkunde ekonomikoa da ekonomiaren birika, hortaz, ezinbestez zaindu beharreko prozesua genuke, nahiz eta materia eta baliabide naturalak finituak izan. Gauzak horrela, merkatu mekanismo berrien bidez neoliberalismoak lortzen du natura kapital globalaren akumulazio fasean murgiltzea, eta bertan ezartzen diren logika eta jokoa arauetara lerratzea. Zeregin hori posible izan dadin, beharrezkoa da *ingurugirorako merkatu askeak* sortzea, botere publikoek gutxiago kontrola ditzaten ekosistema-sareak eta balio natural altuko lurraldeak (Leonardi, 2011).

Ekonomiaren finantziarazio eta zorpetze geroz eta zabalagoaren aroan (Lazzaratorekin ikusi dugun bezala), ingurugiroaren gainean ezarritako arauak eta baimenak finantza merkatuen parte bilakatu dira. Leonardi-k aztertzen duenez, *Carbon Trading Dogma* delako prozesuarekin egiten dugu topo, non enpresek estrategia ezberdinak jartzen dituzten martxan aurkeztu beharreko txosten ofizialetan CO2 isurpen gutxiago eta ingurugiro inpaktu baxuagoa edukitzeko. Esaterako, produkzioa atzerrira eraman dute enpresa ugari, beste arrazoi batzuen artean bertan kutsatzen dena ez delako enpresaren jardueran konputatzen edota bere produktuen garraioak dakarren isurpena garraio-enpresaren gain lagazen delako.

Nazioartean onartu diren *green* politikek asko kutsatzen duten enpresei ahalbidetzen die garapen bidean dauden herrialdeetan inbertitzea, modu horretan beraien Co2 isuriak orekatuko dituztelakoan. Esan behar da inbertsio horiek merkeagoak direla enpresa multinazionalentzat euren ingurumen inpaktua murriztea baino, garatze bidean dauden herrialdeen energia, lur, eta lan kostuak kontuan hartzen baditugu. Era berean, karbono isurien merkatuen sorrerak isurpen eskubideak salerosteko aukera irekitzen du; horrek eskubideak dituen enpresak isurpen-faktoreak zorrotz zaintzera bideratu baditzake ere, bigarren mailako merkatuetan eskubide horiek salerostea ahalbidetzen du, finantza bitartekarien bidez.

Esan liteke, beraz, azken hauek irabaziak ateratzen dituztela merkatu horien kudeaketatik eta azken emaitza negutegi efektuko isurien metaketa handiagoa dela atmosferan (Leonardi, 2012). *Green* gobernantzaren harira egindako irakurketa horren arabera, ondoriozta liteke akumulazio fase berritu bat bilatzea dela helburu, ekonomiaren deskarbonizazioa probestu gura lukeena bere adarrak beste norabide batean zabaltzen jarraitzeko. Bestela esateko, krisi ekologikoa modu axiomatikoan birdefinituta kapitalismoak gaitasuna izango luke bere mugak zabaltzeko eta bere egite-moduen aurka zuzenean zetorren indar suntsitzaille bat bere burua are gehiago sendotzeko erabiltzeko. Jasangarritasun ekologikoaren eta hazkuntza ekonomikoaren arteko adiskidetze zorientzua bilatuko litzateke horrela, garapen jasangarria enpresen etekin helegarriekin uztargarri deneko ideian.

Green kudeaketa neoliberalaren beste ezaugarri adierazgarri modura, aipagarria da arrisku klimatikoaren finantziarizazio prozesua. Emisio eskubideen logiken ildoan,

arrisku klimatikoen gaineko aseguruak etekinerako aukera berri bilakatu dira finantza merkatuetan (Keucheyan, 2019). Sarraski natural bat gertatuz gero, aseguruaren konpainiak bermatuko luke gertakari horrek eragindako kalteen gastua. Hala, kreditu titulu edo zor titulu salerosgarriak jaulkitzen dira, eta beren balioa sarraski natural bat gertatzeko edo ez-gertatzeko probabilitatean oinarritzen da, hau da, giza portaeratik haratago, natur indarrek zuzenean determinatzen duten finantza-produktuak dira. Polanyirekin gizartearen merkantizifikazio prozesu geroz eta oldarkorragoak azaldu baditugu, kapitalismo finantziarioaren aroan, krisialdi sozioekologikoa bera ere merkantizifikatua ageri zaigu, finantza-produktu eran.

Krisialdi sozioekologikoaren ertz horiek guztiak Arrasateko Kooperatibagintzan lurreratuz, galdera automatikoki emana datorkigu: zein kudeaketa mekanismo jartzen dira martxan kooperatibagintzaren senean, krisialdi sozioekologikoaren aurrean? Garatu al du bide propiorik edo nazioartean martxan jarri diren *green* gobernantza eretan kokatu da?. Galderaren erantzuna zedarritzen hasi aurretik zilegi bekigu esatea funtsean kooperatibetako ardura postuetan nagusi diren printzipio etikoek ahalbidetuko dutela kooperatibak merkaturan sakonduko duen bide batetik eramatea, edo osterantzean, bere tradizio kultural-ideologikoarekin leialago jokatzeko. Kooperatibismoaren jatorrizko balioen gainean egiten den irakurketak baldintzatzen du gaur auzi sozioekologikora hurbiltzeko modua.

Interesgarri zaigu, beraz, AKE-ren baitan hegemonikotzat jo dezakegun ideologia ezaugarritzea, hamarkadetan zehar izan dituen gatazka sozial-laboralen eta praktika politiko-ekonomikoen bidez eratu dena. Harreman dialektiko horietan konfiguratu da merkatuari buruzko pentsamendua, eta AKE-ren oinordetza intelektual-kulturalarekin diskurtso koherente bat eraikitzeke premia. Galdera da, beraz, ea krisialdi sozioekologikoaren aurrean AKE-ko zuzendariak, eta kooperatiba ezberdinetako arduradunek zein iturri bilatzen dituzten auzia enfokatzeko orduan, nazioarteko *green* kudeaketaren koordenadetan jartzen diren, edota bestelako oinarri moral-ideologikoetara hurbiltzen diren.

4.3 Komunitatearen haustura eta trantsizio ekosozialaren auzi kulturala.

4.3.1 Lotura komunitarioen ahultzea, norbanakoa esparru pribatura bultzaka.

Modernitatearen berezko drama eta soziologo zein historialari ezberdinak kezkatu dituen da eremu pribatu eta publikoaren arteko oreka prekario bezain zaila. Christopher Lash, Richard Sennet, Charles Taylor edo Robert Bellah soziologoek norbanakoaren oinarri etiko-moralaren desegitea identifikatu zuten, eta ezkerreko erreakzionario moduan etiketatu izan dituzte (Rendués, 2017: 86). Ezker pentsamendua urteetan deslotu baita komunitatearen teorizazioetatik, tradizio usaina zeukan gizarteko elementu oro alboratuta. Egitura antropologiko sakonek ezartzen zituzten baldintzen gainean ez du teoria landurik garatu, zeregin hori gizarte sektore kontserbadoreena zela iritzita.

Alabaina, aipatu soziologo multzo horrek, bira eman zion gogoetari. Esaterako, bizitza publikoaren mehetzea identifikatzen du Richard Sennet soziologoak. Modernitate berantiarrean norbanakoa esparru pribatuan gorde deneko tesia defendatzen du, eta eremu publikoan agertzen bada, periferietan egotea nahiago duela, bere moduko bizi-estiloak, jokabideak, eta gustuak dituzten talde sozial zehatzekin (Sennet, 1983). Figura publikoaren gainbeheraren aurrean geundeko (Sennet, 2008), beraz, zentzu eraikuntza komunitatetik edo bestelako bizi eremu publikotatik jaso ordez, esparru pribatuari laga diogu zentzu-oinarriak eraikitzeko zeregina. Robert Putnam soziologoak ere bere *Bowling alone* lan klasikoan modernitatearen lotura sozialen ahultzea du hizpide, eta horrek norbanakoaren izaeran eta nitasunean desorekak sortzen ditu, noraez eta bakardade sentimendu orokortuarekin. Bada, esparru publikoaren eta lotura sozialen higatze hori, ez da albiste ona krisi ekologikoari aurre egin behar dion gizartearentzat, aurrerago ikusiko dugun gisan.

Erakunde erlijioso, komunitario edo politikoek instituitzeko zuten gaitasuna ahultzean, norbanakoak esparru pribatuan bilatzen ditu modu batera edo bestera gidatuko duten arauak. Luckmannek (1973) erakunde erlijiosoak eremu publikotik pribaturako trantsizioa egin zuela aztertu zuen, bere zentzua itxuraldatuz eta horrekin batera gizarteak erlijioarekin eta bere arauarekin zuen harremana ere. Bestela esanda, osotasunari zentzua ematen dioten markoak modu indibidualean eratzen dira gaur,

norbanakoaren hautu gisa⁴¹. Esparru pribatuak, ordea, ez ditu nahikoa erakunde sozial bizitzaren osotasuna antolatzeko eta norbanakoa behartua sentitzen da eremu publikora jotzera bestela ase ezin dituen beharrak betetzeko (lanaren kasuan da agerikoena, tesi guztian zehar aztertzen gabiltzan eremua). Agerikoa da ere, krisi ekologikoari soilik eremu pribatutik ezin zaiola aurre egin eta eremu publiko berrindartu eta legitimatu bat premiazkoa dela egiturazko eraldaketak gertarazteko.

Robert Bellah soziologo eta komunitatearen pentsalari ezagunak, *The Habits of Heart* (1989) liburuan mundu publikoaren erretiro horren ondorioz indibidualismo modernoak zabaltzen ari dela aztertzen du. Autore estatubatuarrek defendatuko duena da, komunitate tradizionalak alienagarriak edo patriarkalak izan arren, ordena moral zurrun baten gainean eraikiak zeudela. Zuzenaren eta okerraren, ongiaren eta gaizkiaren eta jokabide-arau zehatzen barneratze sakona zuten ezaugarri komunitate tradizionalak. Mundu modernoaren etorriarekin ordea, ni-a eta bere unean uneko barnebulkadak zein emozioak bilakatu direla gidari moralak dio Bellahk. Zehazki lau indibidualismo mota bereizten ditu, horietako bakoitzak eremu pribatu eta publikoaren arteko banaketa zehatz bat marrazten duena. Indibidualismo mota biblikoa eta errepublikarra bereizten ditu alde batetik, baina gaurko AEBtako diskurtso moraletan nagusitzen diren bi indibidualismo motak indibidualismo utilitarioa eta indibidualismo espresiboa direla zehazten du.

- I) Indibidualismo utilitarioak Foucaultekin azaldu dugun *homo economicus*-aren perfila beteko luke. Ikuskera honetan, giza bizitza norbere interesa elikatzeke eta etekinak irabazteke jardun modura irudikatzen da. Gizartea ulertzeko duten era liberala gailentzen da, norbanako arrazionalak bakoitzak bere interesari jarraiki sinatzen dituzten itunen multzo modura ulertuta. *El individualismo utilitario tiene afinidad con una concepción básicamente económica de la existencia.*
- II) Bigarrenik, eta hau egiten zaigu interesgarriago, indibidualismo espresiboa deituko diona dago, "ni" estetikoki miresgarria sortzeko bokazioa duena. Norbanakoaren sentimenduetan arakatuko du indibidualismoaren ertz horrek; bere ekintza oro autoerrealizaziora, bizipen aberatsak edukitzera eta bere buruaren ezagutzan sakontzera bideratua egongo da, hau da, bere buruan etengabe inbertituko duen gizabanakoa dugu. Benetakotasun pertsonala bilatuko du norbanako espresiboak, autosorkuntza, norbere gaitasunen autoikertze eta nortasunaren loraldi baten esperoan. Bellah-k kontzpetu honen erabilera egiten du batez ere bizi-estiloak, maitasun-harremanak edo lan munduko izaerak aztertzen dituenean.

Bi indibidualismo motek, komunitatea zatikatzeko eta ahultzeko ahalmen handia dutela sostengatzen du Bellah-k. Esaterako, bizi-estiloak aztertzerako orduan, *bizi-estiloen*

⁴¹ Interesgarria da puntu honetan Durkheimen pribatizazioaren tesiak ekartzea. Soziologo klasikoak gizarte sekularretan erlijioak desagertu baino itxuraldatzen zirela defendatu zuen, bere funtzio sozialagatik. Durkheimen tesiaren arabera, erlijioaren baitan badago zerbait eternoa, zientzia eta teknologiaren gizarteak ordezkatu ezin duena, beraz, ez da desagertuko, berau bizitzeko eta praktikatzeko modua aldatu baizik. Gizarte sekularren kasuan, eremu familiar eta pribatuan. Ikus: Durkheim, E. (1912) *Las formas elementales de la vida religiosa*. Akal, Madril.

lurraldea izendatzen duen kontzpetua erabiltzen du, indibidualismo espresiboak loratzeko lur ongarrtua duena. Komunitatea zegoen tokian, gustu kulturalaz, jantzi estetikoaz eta praktika sozial antzekoez osatutako talde ezberdinak ageri dira, eta horrek komunitatearen eraketa prozesua zailtzen du, esparru sozialaren zatiketari ematen baitio bide:

“*Bizi-estiloaren lurralde* bat ezaugarri batzuk partekatzen dituzten pertsonaz osatua dago. Bere kideek euren identitatea itxura, kontsumo eta aisialdi eredu partekatuen bidez adierazten dute. Horri esker, beste bizi-estilo batzuk dituztenekiko ezberdindu daitezke. Lurralde horiek ez dira elkarmenpekoak, ez dute jardun politiko bateraturik eta ez dute memoria berdina partekatzen.” (Béjar, 1996: 89 itzulpen propioa)

Komunitateak ez bezala, lurralde horiek ez dute osotasuna bilatzen, norbanakoaren esparru pribatura soilik mugatzen dira. Horrez gain, bestearekiko aitortza mugatu bat soilik gertatzen da, ez da eskubide osodun herrikide berdina ikusten parean, antzeko ezaugarriak dituen gertuko pertsona baizik, kide denaren eta ez denaren arteko muga sendoa jartzen duena. Auzo edo urbanizazio berean bizitzea, antzeko janzkera izatea edo musika mota berdintsua entzutea izan daitezke *lurralde* horiek osatzeko bide (Béjar, 1996). Lurralde horiei esker, dio Bellah soziologoak, norbanakoak mundu publikoak eragindako hustasun sentipena bete dezakeela, balibide kultural eta ekonomiko batzuk mobilizatzearen ondorioz. Bada, talde ezberdindu ugari sortzeko bidea mozten dio gizartean elkarmenpekotasuna eta dibertsitatea garatzeari, komunitate modernorako aurrebaldintzak desegiten ditu.

Maitasunaren kasuan ere, indibidualismo espresiboa bikote-harreman garaikideen jokabide patroia nagusi modura nagusitzen da. “Norbere maitasunean” sakontzea eskatzen duen garai psikoterapeutiko batean, “honek ez nau asetzen”, “jada aspertu naiz” edo “beste zerbait bilatu nahi dut” moduko esaldiak formulatzen dira. Pentsabide horrek asko zailtzen du zentzuz ondo hornitutako harreman afektibo esanguratsuak sortzea; are, harremanen ulerkera kontraktual eta autointeresatua dute bikoteko *partner* bakoitzak, bestearekiko leialtasun eta derrigortasun moraleko lotura bat duela uste ordez, bere beharrak asetzeko eta bere identitatea adierazteko bazkide egokia ote den edo ez interpretatzen du. Indibidualismo utilitario eta espresiboaren nahasketa bihurri horri buruz, hala dio Bellahk:

“Giza harremanen bi mota horiek (espresiboa eta utilitarioa) ez dute kontuan hartzen badagoela harremanaren gaindi doan ordena normatibo bat, harremana bera arautzen duena. Bikotean dauden norbanakoen borondatek haratago iristen den leialtasun transzendente bat. Izan ere, azaleko sentimenduan eta kontratuzko negoziazioan oinarritutako harremanak oso hauskorak, frustragarriak eta mantentzen oso zailak dira.” (Béjar, 1996: 92)

Kezka horiek bere eginda eta indibidualismo espresibo eta utilitarioa hizkera moral garaikidean nagusi direla aztertuz, Bellah-k komunitatearen ulerkera modernoa definitu eta berreskuratu nahiko du, erroak errepublikanismo zibiko batean izango dituen, eta derrigortasun moralak ekoizteko gai izango dena. Kontua ez da ere komunitate tradizionalak sortu izan dituzten egitura itxi eta ilunetara itzultzea, jakin badakigu ezberdina zapaltzeko egitura sozial eraginkorrek izan direla komunitate ugari. Nolabait, esparru publikoaren, pribatuaren eta komunitatearen artean hibridazio egokiak bilatzea litzateke erronka, bizitza materialki asegarriak bermatzeko helduleku sinboliko sendoekin batera. Alabaina, Bellah-rengandik bere komunitatearen kontzeptualizazioa

baino, komunitate hausturaren eta gailentzen diren indibidualismo moten bereziketa da interesekoen zaiguna⁴².

Gogoeta Bellah-tiarrak auzi sozio-ekologikoaren lurrera ekarrita, lehenik eta behin zibilizazio krisiari aterabide kolektibo bat eraikitzearen zailtasunarekin egiten dugu topo. Komunitate ehundura ahulak dauden gizarteetan, botere publikoen gidaritzza garbi eta inplikazio kolektibo sakona behar duen prozesu politiko-soziala abiaraztea oztopoz beteriko langintza da. Indibidualismo espresiboak pareko hautu moral gisa jotzen ditu krisialdi sozioekologikoaren aurrean antolatu eta ekiten duen herritarra edo beste edozein aisialdi praktikari eskaintzen diona bere denbora libre. Horrez gain, kontsumo gizarteak indibidualismo espresiboari nahieran moldatu eta itxuraldatzeko aukera amaigabeak eskaintzen dizkio, bere identitatea, jantzi, estetika edo kontsumo hautu ezberdinekin hornitzeko. Gogoeta ildo horretan, esan dezakegu subjektibotasun ekosoziala kapitalismo garaikideak eskaintzen dituen milaka izaeren artean beste bat gehiago izan litekeela, ez besteak baino hobea edo okerragoa zentzu moral batean, ezberdina baizik.

Luzatu litekeen galdera, beraz, bada nola jokatu indibidualismo espresiboaren indar kulturala makaltzeko, eta kontsumo aukeren bidez ditugun identifikazio prozesuen hegemonia zokoratzeko. Pareko balorazio moral hori iraultzeko prozesu sozial eta historikoeekin lan egin behar den eremu ziurgabe horretara egin behar dugu jauzi, hegemonia ekosozial berri baten eraikuntzan alternatiba zibilizatorioa eraikitzeko moduan egongo den bloke historikoa sortuz, zentzu gramsciarrean planteatzeko. Bide horretan uste dugu subjektibotasun produkzio garaikidean arreata jarri dugun bezala, bestelako subjektibotasuna sortzeko mekanismoetan begirada jartzea funtsezkoa zaigula.

4.3.2 Subjektibotasun ekosozialaren arrastoan, ekonomia-politiko alternatiboa.

Bellah-ren, Habermansen edo Polanyiren lanak, modernitateak eragindako arrakalak modu batean edo bestean josteko bulkada du oinarrian. Gure aldetik, arrakala hori batez ere krisi ekosozialaren ardatzean gauzatzen ari dela onarturik, subjektibotasun berri baten premian gaudela onartzen dugu, bestelako praxi ekonomiko-politiko eta kulturala gorpuzteko gai izango dena, lanaren, kontsumoaren eta bizi-estiloaren eremuetatik begiratuta.

Eginkizun horretarako, subjektibotasun ekosozialaren eta Arrasateko Kooperatibismoaren arteko sinergiak eta lotura puntuak pentsatzera behartuak gaude. Nondik eraiki, bada, bizi-estilo kontsumozale modernotik aldenduko den langile kooperatibista? Lana eta hari loturiko balioak irizpide sozial eta ekologikoeekin erresonantzian ulertuko dituena?

⁴² Modernitateak eragindako gabezi kulturalen diagnostikorako eta esparru publikoaren berehantze baterako Jürgen Habermas pentsalari polifazetikoaren lana ezin dugu aipatu barik utzi. Dena den, Arrasateko kooperatibagintzaren esparru sinboliko-kulturalaren bilakaeraren azterketa egina egonik, ez gara tesiaren memoria testuan bere pentsamenduaren garapenarekin hasiko. Tesian alor kulturalak hartzen duen pisu nabarmenagatik beharrezko irizten bada Habermasen postulatuen azalpen pausatua egitea, eranskinen atalera gonbidatzen dut irakurlea (epigrafea: Oharrak ehuntze komunitario Habermasianoz).

Galdera horien erantzunean murgiltzen hasteko, lehenik azpimarratzekoa da, lana bera, gizarte kapitalistaren osagai nagusietakoa den neurrian, bestelako gizarte alternatibo baterako giltza ere izan badela. Modernitate kapitalistak zerbait ekarri badu erdigunera, bai pentsamenduan zein eguneroko praktikan, lana izan da. Eredu produktiboa sustraitu da bizitza sozial modernoaren eremurik garrantzitsuen modura. Marx-ek berak jartzen du lana gizakiaren osaketa antropologikoaren bihotzean, sozialista utopikoek edo estatu sozialistek jarri izan duten bezala. Nolabait, lanaren ulerkera zentral horrek dio gizarteak dituen zapalkuntza eta menderatze prozesu gehientsuenak alor produktiboan gertatzen direla; horrenbestez, baldin eta lanarekiko dugun harremana aldatzen bada, gizarte ordena berrirako oinarriak ezarri ahalko dira. Kooperatibagintzaren esperientziak ere asko du lanari buruzko ulerkera zentral horretatik, Azkarragak aztertu bezala:

“Kooperatibagintzaren inspiraziorik garrantzitsuen horixe bera da, lanaren utopia: gizakiak lanarekiko eta lanean bizi duen harremana aldatuz gero, gizarte berri baten atarian izango gara. Edo beste modu batera esanda: enpresaren erreforma sakona gauzatzuz gero, lanaren subiranotasuna eta jabegoa langileari emanez, gizartea eraldatzeko bidean izango gara. Jakina da aro modernoko sistema ideologiko gehienek izan dutela lana erreferentzia zentral gisa, bai marxismoak nola bere antitesiak, liberalismoak.” (Azkarraga, 2006: 204).

Bizitza modernoan lanak duen ulerkera zentral horrek merezi du, baina, ñabardura. Ikuskera marxista ortodoxoak uste izan du, lan-harremanak eta gizartearen azpiegitura ekonomiko-materiala eraldatuz gero, gainerako gainegiturazko arloak ere (soziopolitikoak, psikokulturalak, erlijiosoak...) eraldatuko direla. Lehenik ekonomia; ondoren, gainerako guztia. Errealitate historikoak eta egiten ari garen ibilbide teorikoak, ordea, garbi laga du auzi kulturalaren garrantzia. Alegia, ekoizpen bitartekoak langileen esku egonda ere, horrek ez du bermatzen kooperazioa, berdinzaletasuna eta praktika demokratiko sakonak garatuko diren eremu soziala sortu denik. Bestelako osagai batzuk ere sartu behar dira jokoan, sozialak, kulturalak, historikoak, generozkoak... Emantzipazio prozesu sozialetan ekoizpen bitartekoak eta produkzio eremuak duten garrantzia, hortaz, ez da sakralizatu behar.

Horren jakitun, eta kontraesankorra badirudi ere, lanaren bueltan ardaztu den esperientzia kooperatibotik pentsatu dezakegu subjektibotasun ekosoziala eraikitzearen erronka, jakinik beti izango dela hurbilpen mugatua eta bizitza sozialaren alor jakin bati (produktiboari) dagokiona. Italiar pentsamendu autonomoaren baitan aipatu dugu produkzio molde biopolitikoak bere arau eta komenentziarako baliagarri zaizkion subjektibotasunak ekoitzen dituela (Hardt eta Negri, 2004). Aldiz, neoliberalismo orohartzalearen gobernantaltasunak beti lagatzen duela ihesbideren bat esatea dagokigu, krimena ez dela perfektua alegia. Subjektibotasun alternatiboaren ekoizpena pentsatzean, paradigma neoliberaletik haratago iristeko gaitasuna duena, subjektibotasuna izatearen potentzia gisa ulertu behar dugu, gizarte eraldaketaren birika nagusi gisara. Lan bizia denez subjektibotasunaren oinarri, etengabe eraberritzen den prozesua izaki, ondorioztatu daiteke subjektibotasun ekosozialaren eraikuntza prozesu posiblea dela. Garaikidetasunak ekoitzen duen subjektibotasun zauritu eta kolpatu horretan bertan dago, sozializazio molde berri eta alternatiboak eraikitzeke lehengai. Jordi Maisó pentsalariak argudiatu bezala:

“Cuando lo que se perfila en el horizonte es el peligro real de regresión resulta imprescindible volver la vista a ese “lado oscuro” de la civilización, a las dinámicas de represión

y de formación de los instintos. Mucho de lo que está hoy en juego depende precisamente de lo que pase con esas cicatrices y heridas en el sujeto: si se coagulan en forma de ciego resentimiento o si se puede enlazar con ellas para articular formas de crítica que permitan ir construyendo un más allá de las formas de socialización vigentes.” (Maiso, 2013: 149)

Foucaultek berak egin zuen azpimarra, produkzio biopolitikoaren garaian eratzten diren subjektibotasunen inguruan; subjektibazio prozesuak autonomoak izan daitezke, kapitalak ezartzen dituen sareetatik kanpo garatu daitezkeenak, zerbait berria ekarrita. Produkzio biopolitikoak berak dauka, funtsean, historia beste norabide baterantz eramateko sortu beharreko indar poetntziala (Foucault, 1976). Deleuzekin ere antzeko ideia plazaratu dezakegu, posible zaigu kapitalismo axiomatikotik ateratzeko ihes-lerroak sortzea, eta lurralde berriak axioma ekosozial berriz *birterritorializatzea*.

Zibilizazio moderno kapitalistak planetaren muga biofisikoekin egin duen talkak subjektibotasun alternatiboaren auzia urgentziaz pentsatu eta eratzera behartzen gaitu. Jorge Riechmann pentsalariak, André Gorz-en ildo beretsuan, trantsizio sozio-ekologikoak subjektibotasunaren gaiarekin duen lotura estuan azpimarra egin du, borondatezko automugapenik gabe korapilo ekologikoari (bere dimentsio guztietan) aterabidea ematerik ez dagoela (Riechmann, 2019). Modernizazio ekologikoaren edo berdez koloreztatutako kapitalismoaren ezinezkotasuna kontuan hartuta, geure gizartearen azpikorranteetan sakon eragingo duen eraldaketan beharra dugula planteatzen du, kolektiboa eta indibiduala uztartuko dituen.

Riechmannen iritzian, ezin dugu trantsizio ekosozialik pentsatu erakundearen eraldaketa eta norbanakoaren patroia piskokulturala norabide berean lerratu ezean. XX. mendean emantzipaziorako bideak autokudeaketa eta autogobernua izan baziren, automugapenaren beharrak aurreko guztia hankaz gora jartzen du. Modernitateak emantzipazioa pentsatu duen modua erabat aldatzen da materialki gutxiagora joan beharra onartzearekin, ez da soilik Habermasek proposaturiko berregituratze kultural eta sinboliko baten premia dagoela, baizik eta berregituratze sinboliko eta psikokultural hori oparotasun material mugatuko lurzoruan pentsatu beharra dagoela.

Riechmannek trantsizioaren ikuskera horren gauzatzean arazo estruktural larriak antzematen ditu, eta gaurko koiunturan nekez irudikatu liteke automugapenaren hedatze orokorturik, bizitza politikoaren, ekonomikoaren eta kulturalaren inpuñazio orokorrik barik. Hegemoniko diren bizi-estiloen, iruditeri kolektiboen edo desioen errotze sakonak, zaildu egiten du *desazkunde* kutsua duen edozein mugimenduk arrakasta izatea. Bizitzaren sostengua bilatuko lukeen mugimendu zabal batek hamarkadetan zehar zizelkatutako subjektibotasun neoliberalak desagitea du lehen eginkizun, Dardot eta Laval-ek (2013) esan bezala, mundu-ikuskera eta praxi neoliberalak gizaki modernoaren konfigurazio psikiko eta sozialeraino iritsi baita. Etengabeko asegabatasunean bizi den molde subjektiboak nekez egin lezake automugatze kolektiborako trantsizio ordenaturik, bere barne eta kanpo subjektibotasuna gurutzatzen duen hezurdura psiko-kultural nagusia itxuraldatu ezean.

Ildo horretan Sousa Santos soziologoak trantsizio paradigmakoaren kontzeptua plazaratzen du (Sousa Santos, 2003, 2005). Trantsizio hori momentu historiko zehatza litzateke, non hegemonikoak diren bizi-estiloak desagiten diren eta gaur bazterrekoak diren biziera zein ekiteko formak erdigunea hartzen duten. Soziologoaren arabera, praktika horiek, logika kultural hegemonikoetan arrakalak sortzeko potentzia lukete, eta

arrakala horietan eragiteak potentzia sortzaile handia du. Transizio paradigmaticoaren aroak hortaz, lur ongarrtua eskainiko luke giza-esperientzia alternatiboak eta askotariko bizi-ezperientziak loratu daitezzen. Termino Deleuziarretan esateko, desterritorializazioaren bidez ihes-lerroak bilatzea litzateke ariketa, ondoren axiomatika ekosozial berri baten gainean birterritorializatzeko subjektu garaikidea.

Subjektibotasun ekosozial horrek ezugarri ugari barnebildu behar baditu ere, funtsetako bat bada pentsamendu liberalak hauspotutako adituaren figuratik aldentzea. Jakintza sozial aurreratuak beharko diren arren⁴³, zeregin zehatz batean trebatu baino gehiago, jakintza eta trebetasunak dibertsifikazea da erronka. Nolabait, koordinazio sozial orokorra murriztea, *aditu* izateari uztea. Alegia, norbanako bakoitza sektore ikasketa eta formakuntza ibilbide oso sailkatu eta berezia izan beharrean, trantsizio ekologikoak eskatzen dituen zeregin ezberdinetan trebatzea, gai izatea aldi berean bizikletak konpontzeko, kooperatibaren kudeaketan parte-hartzeko edo programa teknologiko ezberdinekin lan egiteko. Ivan Illich-ek esan bezala, gainespezializazioak norbanakoa sistema sozialarekiko mendekoago eta esanekoago bilakatzen du (Illich, 1971); alternatiba, beraz, burujabetzetan sakontzea litzateke, norberak eta gertuko komunitateak beharizanak asetzeko gaitasunak biderkatuta. Arrasateko Kooperatiba Espereintziak asko edan du ikuskera horretatik, nolabait izan dadila subjektibotasun ekosoziala gaiatsun-anitzeko pertsona, prest egongo dena jakintza eremu zehatz batean *desespezializatzeko*, baina aldi berean, beste eremu batzuetan gaitasunak biltzeko.

Barne-egiturak kontuan hartzea, horrenbestez, ezinbesteko ariketa zaigu, ekonomiaren, teknologiaren edota politikaren arloan aldaketak bultzarazteko. Borondate hori sozialki eta kulturalki eraiki ezean, zail da bestelako praxi ekonomiko edo politikoen hedatzerik imajinatzea. Haratago joanda, Riechmannek berak egingarri dauden aukeren artean, ahalik hoberen *kolapsatzea* dela planteamendu ekosozialistetatik landu beharreko ildo dio, krisi klimatiko eta energetikoaren ertz mingarrienak sahiesteko.

Amaraun nahasi eta korapilatu horretan hartzen du gorputz *herritartasun ekologikoaren* proposamenak (Dobson, 2005). Planteamendu horren arabera herritar ekologikoa litzateke interes orokorra ulertzen duena ez soilik pertsonen interesen bateratze modura, ezpada gizaki ez diren bizidunen interesak ere barnebiltzen ditu interes orokorraren baitan. Herritarra modu errepublikar Rousseautarrean ulertuta, komunitate sozial eta politikoarekiko betebeharrak eta ardurak dituen herritartzat jotzen da, hortaz, *herritartasun ekologikoaren* ideiak bere azterna ekologikoaz eta giza jardunaren mugez kontziente den herritar eredua defendatuko luke, eta horren ondorioz jarduten duena. Identifikazio soziala bizitza forma ezberdinetara hedatzea litzateke zeregina. Bizi-era aurre-modernoetan pertsona familiarekin edo norbere herriarekin identifikatu zen; ondoren, aro modernoaren etorrerarekin identifikazioa nazio/aberrira eta klase sozialera zabaltzen zen; bada, krisi ekosozialaren aroan, jauzi bat haratago eman eta animaliekin, ekosistema ezberdinekin eta oro har lur planetan bizitzaren sostengu diren sistema naturalekin identifikatzea proposatzen da. Nolabait, *gutasun* sozialaren parte egitea bizi-forma ezberdinak. Gure esfera morala zabaltzea, baita ondorengo belaunaldiarekin ere. Subjektibotasunaren ertz ezberdinak ukitzen dituen moralaren operazio sakon horretan, justizia sozialaren ulerkera aberatsagoa barneratu beharko

⁴³ Energiaren alorrean, esaterako, desazkundera bezain garrantzitsua izango da ere teknologia berriek jokatu dezaketen papera edota ingeniariaren innobazioa, herritarren bizitza materialki asetzeko parametro batzuen barruan.

genuke: justizia soziala ez genuke ulertuko soilik gizarte bereko pertsonen parekotasunetik, are, bizitza tramaren sare osoarekin baizik. Eraldaketa erradikal horrek ikuskera moderno klasikoa irauliko luke: natura ez dago hor menderatua eta nahieran erabilia izateko, ezpada *gu gara* natura, bizitza-sare zabal horren parte gara. Bera suntsitzea geure burua kolpatzea da.

Eginkizun kultural horretan, erreforma moralaren auzi durkheimdarrak pisu berezia hartzen du trantsizioaren eztabaidan, hau da, milioika pertsonen patroï subjektiboan modu erlatiboki azkarrean gertatuko den eraldaketa sakona. Erreforma horrek materialki *nahikoa* deneko muga ezartzeko gaitasuna izango luke, abusu ekologikoari aurre egingo dion *kontrapisu* kultural sendo bat eraikiz. Santiago Muiño antropologo eta ikerlari ekosozialak dio, maila historikoan esanguratsuak izan diren erreforma moralak kolapso aurreko egoeretan gertatu direla bereziki (Santiago Muiño 2015: 767). Hala gertatu zen kristautasunarekin eta erromatar inperioarekin; horregatik, haustura sozioekologikoaren ateetan den gizarte sistemetan kutsu erlijiosoko balio-egitura indartsuak berreskuratzeko nahia piztu da, subjektuen autokontrolerako eta jokabide zenbaiten ukapen moralerako baligarri suerta daitekeena. Max Weberren adierazpen ezagunean kapitalismoaren etorrerak munduaren *des-liluratzea* esan gura zuen bezala, zenbait autorerentzat, erromantizismo antikapitalista Benjamindarraren arnasean, munduaren *biriluratzea* martxan jartzea da emantzipazio mugimenduen zeregina, erlijioa langintza horren elementu zentral modura irudikatuz.

Gure irudiko arriskutsua eta zalanatagarria da erlijioaren itzulera masiboak abantaila nabariak izan ditzakeela esatea trantsizioaren ikuspegitik. Are gehiago, kristautasuna moduko erreforma moral zabala ez zitzaion zuzendu gizarte modernoek ezaugarrietako biztanleriari, eta azken hamarkadetan arrakasta izan duten erreforma moral modernoek (neoliberalismoa da agian adierazgarriena) ez dute izaera teologikorik bere egin. Era berean, kontuan hartu behar da dimentsio horretako ariketa bat estatuaren boteretik bideratzea akats larria dela, XX. mendeko bi esperientziek (*Hombre Nuevo* Kuban eta Txinako iraultza kulturala) hala erakutsi digutelako. Santiago Muiño antropologoak Kubako iraultza berdeari buruzko azterketa liliuragarrian modu argian jasotzen du tamainako asmoaren porrota.

“El proyecto del Hombre Nuevo impuso un patrón de vida buena como vida desvelada por el proceso revolucionario y su defensa, en un contexto de agresión permanente que terminó cuajando en lo que Ramón García Guerra denominó el modelo de sociedad espartana de los años sesenta: una sociedad cuartelaría e igualitarista, en la que la felicidad era la adecuación personal a una actitud épica y viril, sin fisuras ni vacilaciones, al servicio de los nobles intereses colectivos que harían parir la transición socialista. García Guerra afirma, con cierto humor, que durante los sesenta los cubanos “vivieron al límite de lo posible”: caída de Batista, invasión de Playa Girón, Crisis de Octubre, lucha contra bandidos, conflicto sino-soviético, impulso guerrillero latinoamericano, Ofensiva Revolucionaria, y coronando una década prodigiosa, la Zafra de los 10 millones de 1970. Pero esta gigantesca universidad de formación intensiva en el esfuerzo comunista para las masas en que se convirtió la sociedad cubana de los años sesenta, como quería Guevara, no condujo al advenimiento del Hombre Nuevo. Sencillamente, el ardor se agotó.” (Santiago Muiño, 2015: 732).

Jorge Riechmannek erreforma moralari buruzko gogoeta egitean ondorioztatzen du agian gizaki berririk ez dagoela, gizaki zaharra dela egoera berrien aurrean (Riechmann, 2008). Joxe Azurmendik berak ere, lerro beretik egin zuen azpimarra hamarkada batzuk lehenago, 60ko hamarkadan Euskal Herriak bizi zuen loraldi kultural eta soziopolitikoan. Belaunaldi gazteengan lilura sortzen zuten nazioarteko mugimendu

iraultzaileek eta “gizaki berriaren” ideiak, baina prozesu horri mesfidantzaz begiratu zion Azurmendik:

“Zuek iraultza egin ezazue, baina kontu egin ezazue gizonak gizon izaten jarraituko duela gero ere. Elizak ez du lortu bi mila urtean gizona kanbiatzea eta zuek ere ez duzue lortuko. Beno, aberetxo bat haiz eta orain kontuz. Orain saiatu hadi bidean ibiltzen. Baina ez hadi saiatu aingeru izaten, ze estupidokeria bat duk (...) gizona abere hutsa da, eta errespetu iezaiozue hori mesedez, ze hortik hasi behar du gizakiarekin egin nahi dugun edozein proiektuk.” (Azurmendi, 1991:143).⁴⁴

XX. mendeko esperientzia horietatik jakin badakigu, hortaz, ez dagoela sahisbiderik, kristautasunak hirureun urte iraun zituen erromatar inperioan errotzen eta kapitalismoak berari moldagarri zaion subjektibotasuna sortzen mendeak igaro ditu, bi mundu gerra odoltsu tartean, eta zenbaezinak diren bestelako gatazkak langile mugimendu antolatuaren eta klase zuzendarien artean. XX. mendeko tiroen keak oraindik sentitzen diren gizarteetan ildo eta kolore berri bateko erreforma moralik planteatzea zinez ariketa konplexua bilakatzen da. Are gehiago, Azurmendik ohartarazitako ildoan, gizakiaren berezko *aberekotasuna* onartzen badugu⁴⁵. Erreforma moral eraginkor eta zabala finkatzea lortu arren, beti geratuko dira gizakiari “giza” aurrizkia eransten dion esanahaiaren zantzuak, gure izaki bizidun eta animalia osatugabe baten baldintzan. Hori onartzea, edozein emantzipazio prozesuk bere egin beharko lukeen elementua da.

Gainera, irakurketari begirada soziologikoagoa eransten badiogu, bizi-estiloak eta kontsumo joerak pizteko dauden mekanismo antolatu eta instituzionalak ere kontuan hartu behar ditugu. Sege Latouche desazkundearen teorikoak publizitate-agentziak, produktuen zaharkitze programatuak edota finantza-maileguak (Ikus Lazzaratoren zorpetutako bizi-estiloa atala) zerrendatzen ditu, subjektua kontsumoaren espiralean murgiltzera behartzen duten elementu egituratzaile modura. Ikus-entzunezko produktuek, zinemaren industriak edota komunikabide nagusiek jaurtitzen dituzten irudiek eragina dute geure gizartearen bizi-estilo nagusiak sustraitzerako orduan. Zein diren jarraitu beharreko jokabideak hein handi batean publizitate-agentzien lanaren bidez definiturik dator. Ezin dugu gutxietsi, beraz, maila soziologikoan hedatzen diren kontsumo-jokabideetan egitura mediatiko handiek duten indarra. Gizartean ondo errotuta dagoen sare insituzionalak joera estrukturalak sortzeko gaitasuna dauka, makina produktiboaren motorrak martxan jarrai dezan.

Publizitate-agentzietatik eta beste instituzio sozial batzuetatik sortzen diren kontsumo-desiren indarra onarturik, bestelako bizi-estiloak eta mundu ikuskerak eraikitzea eginkizun *politiko* urgentea da ildo sozioekologikoan kokatzen diren autoreentzat. Are, hor kokatzen da agian trantsizio ekosozialaren nerbiorik garrantzitsuena, azpiegitura soziokulturalaren moldaketan. Sinpletasunaren bidetik,

⁴⁴ Azurmendi, J (1991) *Gizaberearen bakeak eta gerrak*. Donsotia, Elkar. Urdangarin (2019)-tik hartutako aipua. “Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa:zaugarritasuna, interdependentzia eta erantzukizuna”, Jakin, Ur-jauzia kongresua 2019ko abendua.

⁴⁵ Azurmendiren gizakiaren ulerkeran, bere animalia izaera onartzea funtsezkoa da. Mendeetan zehar nagusitu den ulerkeran ordea, gizakia animaliangandik erabat bereizten zen arrazoidun subjektu modura interpretatu da, eta horrek eragin du gure kulturaren egituraketa historikoa sinesmen horren gainean eraikitzea. “Problema da gure kultura guzia, beraz, juzkaerak eta problemak planteatzeko moduak berak ere,gizona animalia zenik edo animaliatik datorrenik ez zekiten mendeetako eta mendeetako tradizioek moldaturik dagoela.” (Azurmendi, 1991).

azpiegitura kultural eta psikosozial deskonplejizatuagoa josi ahal izango duen gizartea, kontsumo taupadak gaindituko dituen, bestelako desira lurralde batzuetara jauzi eginez. Arrakastaren, ospearen edo *bizitzan ondo joateraren* definizio sozialak dira disputan daudenak, gizartearen espektatiba kulturaletan jokatzeko da, beraz, trantsizio ekosozialaren partida. Funtsetako bat *nahikotasunaren kultura* berreskuratzean dago, burujabetza dosi altuak eskuratuko dituen subjektibotasun autoeratzaileraren sortzean, bestelako praxi ekonomiko-politikoarekin jardungo duena gizartean eta ingurugiroarekin harremanean.

Ezin da baztertu eskala horretako eraldaketa kultural batek bere itzulpena izan beharko lukeela eremu politikoan. Maila kulturean gertatu eraldaketak erabaki material estrukturaletan itzuli gura badira, ezinbestekoa da botere politikoan gorpuztea, eta hor oso bestelako logika, joko-arau eta disposizioekin egiten dugu topo. Beste "eremu" bat da zentzu Bourdiearrean. Adibide praktikoa bat jar genezake: lan jardunaldiak murriztu eta jende gehiagoren artean banatzea ekologikoki desiragarria baina sozial eta politikoki arriskutsua izan daiteke. Soldadak murriztea ez da begi onez jasotzen den erabaki bat, pobreziatik gertuago kokatzea eta eros-ahalmena galtzea esan nahi baitu. Hortik, beraz, *nahikotasunaren kultura* zabaltzearekin batera gehiengo sozialak artikulatzearen eginkizun politikoa, hegemonia borondatea izango duen estrategia irabazale baten ildoan. Alabaina, aipagarriak dira azken hamarkadako analisi politikoetan zantzu autoritarioen gorakadari egiten zaizkion erreferentziak, gotortze identitarioaren bidetik.

Gauzak horrela, kultura neoliberal eta indibidualista errotua egoteak ez du esan gura subjektibotasunen eraldaketan urratsak eman ezin direnik. XX. mendeko komunismoak eta anarkismoak auzi sozialari behin betiko konponbidea eman nahi izan zioten bezala, onartu beharko dugu prozesu irekiak direla eta ezingo dugula oinarri kultural sendo, berri eta definitiboaren ezarpenean pentsatu. Kutsu post-estrukturalista nabarmena duen baieztapenarekin itxiko dugu, beraz, atal hau: emantzipazio sozialaren helburuak, berez, izaeraz, ez dira bideorri planifikatu baten ondorioz etorriko, ustekabekotik, eraldaketa moteletatik eta etorriaren bideratze nola-halako batetik baizik.

4.3.3 Molde subjektibo digitala, autoeraketarako eragile?

Badago subjektibotasun ekosozialaren hausnarketara ezinbestez ekarri behar dugun beste elementu bat, subjektibotasun garaikidean eraginak izan dituelako batetik, eta lan eremuan gertatzen ari diren eraldaketa digitalek, auziaren inguruan gogoetatzea eskatzen duelako bestetik. Digitalizazio prozesuaz ari gara, eta horrek autoeraketara begirako nortasunen konfigurazioan izan ditzakeen eraginez, sortu daitezkeen aukerez eta mugez.

Teknologia digitalaren etorrerak eraldaketa antropologiko sakonak eragiten ari dela dioen gizarte zientzialarien kopurua geroz eta handiagoa da. Geure garaia pentsatzerako orduan, nabariak dira teknologiarekin loturiko metaforak, bai maila makroestruturalean zein geure eguneroko bizitzetan osatzen ditugun jarduera mikrosozialagoetan ere. Haien irudiko, teknologiak, ditugun ekiteko, harremantzeko edo pentsatzeko moduak aldarazi ditu neurri batean. Aldaketa horiek zein puntutaraino gertatu diren eta bai gizarte egitura makro zein mikroetan ze eragin izan duen aztertzea

gizarte ikerlarien kezka izan da XX. mendearen azken hamarkadetatik hasita. Alabaina, gizarte zientzien ikuspegitik, ezin daiteke esan teknologiak gizarte bizitzan dituen eraginak neurtzea eta ikertzea kontu garaikidea denik, soziologiaren fundatzaileek (Durkheim, Weber, Marx...) euren jada ikertu zuten kezka horren gainean lehen iraultza industrialaren aroan.

Gizakia eta teknikaren arteko harremanean gogoetatu den pentsamendu korronteak, Heidegger filosofoaren formulazioetan hartzen du oinarri. Heideggerrek teknikaz egindako gogoetak teknika bere izatearen-zabalpen gisara hartzen du, hau da, geure garairen izate-zabalpena da teknologia modernoa. Filosofiaren eginkizuna bera da teknika ulertzea, hortik aurrera ezer gehiago ez. Esaldi horrek ematen digu teknikaren inguruko gogoetaren garrantzia, teknikaz galdetzen dugunean, geure buruaz, gizakiaz, gizarteaz, izateko ahalmenaz eta egiaz ari baikara.

«Veo la esencia de la técnica en aquello a que llamo Ge-stell. Palabra a menudo ridicularizada y quizá desafortunada. El imperar de Ge-stell significa que el nombre es emplazado, solicitado y provocado por un poder que se hace patente en la esencia de la técnica y que él mismo no domina. Contribuir a la comprensión de esto: más no se puede pedir del pensar. La filosofía llega a su fin»

Heideggerrek zioen teknika ez dela gizakiaren borondatearen emaitza, giza potentziaren eta dituen aukeren arteko oreka bat baizik, oso arriskutsua. Iraganetik datozen tradizioen eta munduan aurkitzen ditugun aukera errealean arteko uztarketari esker garatzen dugu teknika, inguratzen gaituena eraldatuz, "egiaren lurralde" berriak sortuz, aurretik zeuden elementuak elementu berriekin konexioan jarritz, Ge-stell. Teknika ez da ez bitarteko ez helburu, ilunpetik ateratzeko modu bat baizik, egiaren lurralde bat.

Ordea, dio teknikaren inguruan sakon eta luze gogoetatu zuen filosofo alemaniarrek, gizakia ez dela ingeniari orojakile bat, teknika nahieran menderatu dezakeena, aitzitik, multiplizitate ezberdinen saretzeak eta elkartzeak egingo du posible lurralde berrietara bidaiatzea. Alabaina, ohartarazpen garbia egiten du Heideggerrek teknikaren arriskuaz. Gizakiaren nahia da inguratzen duen errealitate guztia izatea kalkulagarria, neurgarria, ezagutgarria. Ezjakintasunaren itzalpetik atera eta teknikaren bidez ulergarria egin gura du. Ordea, antsietate horretan ahaztu egiten zaio bere izatea zein den. Teknikak gizakiaren alde arriskutsuena gorpuztu dezake.

Bada, pentsamendu filosofiko-soziologiko horretan oinarri harturik, gaur egungo gizarte zientzietan bolo-bolo dabiltzan Sare Aktorearen teoria edo Ziborg-aren ideia Harawayarra eraiki ziren 80 eta 90eko hamarkadan, gaurko ikerketa soziologiko ugariaren marko epistemologiko eta teoriko gisa erabiltzen direnak. Haraway-k egindako analisisian dio Ziborg-ak berak gizarte zientziek makina kontzeptuaren inguruan izan duten gogoeta ildoak eraldatzen duela, eta baita makinek gizakiarekin eta gizartearekin duten harremana ere (Haraway, 1985). Gorputza makinarekin konektatzen denean osotasun berri bat sortzen da, elementu ezberdinen konexio berri bat, giza gorputzaren ahalmenak gainditzeko dituenak. Hortaz, konexio-multzo hori da gizarte aztertzaile orok aztertu beharko lukeen iker-objektua, ezin baita irizpide garbi bat markatu makinaren eta organismoaren artean, denak osatzen du osotasun simbiotiko berri bat.

Ziborg-aren analisiak erakutsiko du, subjektua ez dagoela emana edo aldeztu aurretik determinatua, beti dago konexio berri posibleetara zabalik, berrosaketa etengabe batean. Elementu berri batera konektatzeak egitura guztiaren itxuraldaketa dakar, bere

mugimendua eraldaketa-mugimendua da, jario etengabea da Ziborga. Organismo-makina bateratua, Ziborg-aren ideiak giza bizitzaren konbinazio eta uztartze estrategiez hitz egiten digu, makinaren teorizazioetatik haratago doana:

“La lógica del Cyborg exhibe una lógica que requiere, tal vez, nuevas conceptualizaciones. En ella, ni los sujetos humanos ni los objetos materiales son ya concebibles en su singularidad, aislamiento o al margen de las formaciones o sistemas dinámicos, polimorfos, dentro de los que aparecen, desarrollan su actividad y definen su identidad. Todas las cosas y todos los individuos surgen y desaparecen incorporando, ensamblando, o siendo ensamblados por otras entidades o estructuras que surgen, se desarrollan o se desintegra en torno a él y difundiendo a través y gracias a ellos.”(Tirado, 2011: 98).

Zergatik zaigu, beraz, Ziborg-aren ideia, subjektibotasun automugatu baten talaiatik interesgarri? Bada, Ziborg-aren ideiak subjektibotasun ukatu bati egiten dio erreferentzia, izaki osatugabe eta normaltasunetik kanpo kokatzen denari. Aparatuen beharra dauka nor izateko, matxuraturik dagoela onartzen duen izaera bat eratzten du, inguruaren beharra dauka, teknomenpekoa eta ekomenpekoa (zentzu Riechmaniano batean) den subjektua da. Bestela esateko, Ziborg-ak dira gizaki kategoria ukatzen zaienak, eredu normatibora egokitu ezin direnak eta, beraz, arrotz moduan jardungo dutenak gizartean. *Mugako jokalaria* moduan definitu izan dira, eta horri esker, eredu normatiboaren esferatik kanpo kokatzeari esker, bestelako subjektibazio moldeetara zabalik daude, subjektuaren eredu arrunta zalantzan jartzeko gaitasunez. Euren izaki osatugabeen baldintzan, ezinbestekoa zaie protesi edo aparatu ezberdinen erabilera egitea beraien jarduteko gaitasuna edo agentzia eskuratu ahal izateko, hau da, soilik euren protesiekin osatutako aktorearen baldintzan bilakatzen dira agentziadun subjektu. Protesirik gabe, osatugabe geratzen dira, gizartean eta egunerokoan ekiteko gaitasun mugatuarekin. Hala zaltzen du Pinto Freyre filosofoak:

“Ellos son los seres que dibujan las fronteras de la agencia y los que inventan artefactos para traspasarlas. Ellos son la vía por la que se abrirán al reconocimiento todas las formas de configurar una identidad. Son los seres de frontera los que disiparán las limitaciones que los otros seres han producido sobre la agencia, de tal forma que es por su emancipación por lo que se abrirá un nuevo espacio de agencia y una nueva identidad.” (Pinto Freyre, 2019: 35)

Ziborg-a beti dago agentzia gaitasun gehiago eskuratzeko aukerarekin, izaera sortzailea du, gailu berriekin ekintza ildo berriak zabaltzeko joera *metodikoa* duela ondorioztatu dezakegu. Agentzia eta subjektibotasun berritu baten ideia darama erantsita Ziborg-ak, eta garai digitalak zabaltzen dituen ekintza edo programaziorako aukerakin lotura estuan, materialki gutxiagora joanda ere agentzia handiko subjektibazio prozesuak jarri daitezke martxan. Extralimitazio ekologikoa gaindituko ez duen subjektibotasuna, bere izate *matxuratuaren* eta osatugabearen onarpenean *inguruaren beharra* eta bere gorputzeko atal ez diren gailu/aparatuen premia duela barneratzen baitu. Hardt eta Negrien obran ere mundu-ordena inperiala arrakalatu eta autonomiatik gizarte konfigurazio berriak sortuko dituen subjektua deskribatzeko ziborg-aren irudia erabiltzen dute (Hardt eta Negri, 2000). Bi autore post-operaista horien iritzian, biopolitika berri batez zizelkatu ahalko litzatekeen subjektibotasuna pentsatzeko aukera zabaltzen digu ziborg-ak, neoliberalismoaren kontrol diziplinetatik nolabait ihes egin eta gorputz berriak eraikitzeke gaitasuna lukeena.

Ziborgaren irudiak, gainera, munstro gorputzak eraikitzen dituen neurrian, menderakuntza sistema politiko eta ekonomikoari aurre egiteko potentzial politikoa duela defendatzen dute Hardt eta Negri. Lan post-fordista inmaterialaren garaian ziborg-subjektua litzateke mundu birtualean eragin subertsiborik handiena sortzeko gaitasuna

lukeena, subjektu *zikina, kutsatua*, nor izateko hibridazio eta konbinazio berriak bilatzen dituen etengabe. Alba Garmendiak bere doktoretza tesian aztertu duen bezala, *identitate hibrido eta munstroakara da ziborg-a, talde baino norbanakoago* (Garmendia, 2021: 277). Kapitalismo garaikidearen garaian zizelkatu litekeen subjektibotasun ziborgtatu partikular horrek du, beraz, Hardt eta Negriren iritzian, gizarte alternatibo komunista eraikitze indarra eta eginbehar historikoa, multitude bezala antolatuta, baina bakoitzaren bereizgarritasun banaezina zainduz eta mantenduz. Laburrean, Garmendiak ondorioztatzen du Ziborga ez dela Hardt eta Negriren obran gizarte garaikidearen aurka oldartuko den izaki mehatxagarri bezala aurkezten (Garmendia, 2021: 279); aitzitik, gizakia bera inperioaren kateetatik askatuko lukeen subjektu bilakatzen da, gizateria ortzimuga utopikora hurbilduko lukeena.

Geure izate sozialak konfiguratu dituzten sakoneko korranteetara hurbiltzea eskatzen du ariketa horrek, geure buruekin eta inguruarekin nola harremantzen garen eta zein mekanismo teknosozial garatzen ditugun irakurtzea. Muga biofisikoekin talkak eta trantsizio sozio-ekologikoari egokituko zaion molde subjektiboak bizi-estilo berriak bultzatu behar ditu, jakintza ekologikoan sustraituriko ekimen-ildoak martxan jarriko dituen. Ziborg-aren izaera moldagarri eta osatugabe horrek, beraz, pentsamendu bide berriak eskaintzen dizkio subjektibotasun garaikidea parametro termodinamikoaren barruan pentsatu gura duenari.

Alabaina, Ziborg-aren ideiak kritikak jaso ditu begirada ekosozialetik. Jorge Riechmanek (2008) berak dio proposamen post-moderno transhumanistatik abiatzen dela Ziborg-aren ideia, eta errazegi onartzen dela programa teknozientifikoak izan ditzakeen potentzialtasunak. Garapen teknologikoari esker gizakiak bere eboluzioa kontrolatu dezakeeneko ideia, guztiak Ziborg bihurtuz, ez dirudi oso egingarria ekologikoki gainezka egiten ari den planeta batean.

Nolanahi den, Ziborg-aren ideari muga ekologikoaren auzia eranstea egingarria den ariketa iruditzen zaigu, eta izaki ahalguztidunaren bilaketatik ulertu ordez, geure izate hauskor eta ekomenpekotik pentsatzeko parada ematen digula. Are gehiago, lanaren munduan trantsizio digitalak ekartzen dituen erronkekin, komunikatzeko modu berriekin eta geure gizarteek bizi duten mundu analogikoaren bukaerarekin harremanean jartzen badugu. Horrek guztiak mineral eta baliabide ezberdinen erabilera masiboa eskatzen duela jakinda, Ziborg-a, hortik haratago, izan liteke aukera leiho berriak zabaldu ditzakeen subjektibotasun moldea, geroz eta digitalagoa den aroan.

5. KAPITULUA

Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, modernitatearen alaba

5. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, modernitatearen alaba.

“XIX. mendeko esklabistek ere antzera arazoitzen zuten, esklaboek ez zutela jakingo zer egin askatasunarekin. Hobeto zeudela esklabo, euren bizimoduaren kudeaketaz arduratu beharrik gabe, buruhausteak jabeari utzirik.” **Joseba Sarrionandia**

Debagoienako bailaran, 1940ko hamarkadatik gaur arte iraun duen esperientzia kooperatibo aberatsa daukagu, nazioartean erreferentzia izatea lortu duena. Garapen sozioekonomikoa eta autoeraketaren ideia ipar, modernitateak eskaini duen esperimentu arrakastatsu modura interpretatu izan da, lana-kapitala arteko gatazkari modu kolektiboan konponbidea eman izan dion esperientziatzat joz⁴⁶. Ordea, gerraostean hasi eta gaur arte iraun duen esperientzia hau ez da hutsetik sortua izan, eta berau ulertu nahi badugu ibilbide luzeko prozesu historikoekin jarri behar dugu loturan. Argi gera bedi datozen orriotan egin asmo duguna ez dela azterketa historiko zehatza, edo Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren ingurugiro historia egitea *ekologia-mundu*-aren ikuspegitik, AKE ulertzeko oinarri historiko-sozial batzuk ezarri asmo ditugu.

Eginkizun analitiko horretan, ezin dugu bazterrean utzi bere mugimendu izaera, mugimendu kooperatiboarena, prozesu soziologikoekin harremanean jartzera behartzen gaituena ezinbestez. Izan ere, Herbert Blumerrek esan bezala, “mugimendu batek beti ireki behar du bidea kontrakoa zaion mundu batean, erresistentea edo gutxienez indiferentea” (Blumer, 1957: 147). Gaurko kooperatibismoa ulertu ahal izateko, beraz, ezinbestekoa da argitzea zeintzuk diren bere zutabe soziokulturalak, zein oinordekotza jaso duen euskal gizarte aurre-modernotik eta zein dinamika eta prozesu soziologiko abiatu diren esperientziaren garapenean bertan. Bi dira, batez ere, esperientzia azaltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak: Modernitate industrialaren etorrera batetik, eta euskal gizarte tradizionalaren pisua, bestetik.

Arizmendiarietaren gidaritzapean XX. mendeko erdialdean eratu zen esperientzia kooperatiboak erro historiko sakonak dauzka nazioarteko langile mugimenduan. Antoni Domenéch-historialariak aztertzen duenez, demokrazia iraultzailearen tradizioetik lehenengo eta sozialismoaren garapenarekin ondoren, kooperatibismoa neurrigabe garatzen ari zen kapitalismo industrialean balore errepublikar-demokratikoak mantentzeko modu arrakastatsu gisa ikusten zen (Doménech, 2019). Ideal errepublikar demokratikoa gauzatzeko mendeetan egon zen oinarri sozialak zerikusia zuen jabetza pribatu txikiarekin eta lan pertsonalarekin. Artisauak, merkatari txikiak, nekazariak, ingurune urbanoetan soldatapean lan egiten zuten biztanleak eta oro har euren eskuekin lan egiten zuten herritarrak ziren ekoizle aske eta berdinen arteko gizarte zibila eraikiko zutenak, antzinako erregimenaren kateetatik askatuz. Alabaina, kapitalismo industrialaren garapenarekin osaera soziologiko hori deuseztatu egin zen, hirietako industrietan lanean ziharduten soldatapeko langileen hazkuntza masiboak bestelako baldintza sozial eta ekonomikoak ekarri zituelako. Merkatari txikiak, artisauak edo euren eskuz lan egiten zutenen gehiengoa desjabetua izan zen dinamika kapitalistaren

⁴⁶ Mondragon taldearen gaineko datuak, kopuruari eta bolumenari dagozkionak 7.1.1 atalean ekarriko ditugu.

ondorioz, langile klasearen eraketa prozesua abiaraziz.⁴⁷ Euren biziraupen materialerako oinarritzko bitartekorik gabe geratze horrek, herrialde industrializatuen osaera soziologikoa batez ere industria langileez osatua egotea ekarri zuen. Marx-en hizkeran, klase sozial berri bat ekarri zuen desjabetze prozesu horrek, proletalgoa. Klase sozial berri horren agerpen historikoan, aipagarriak dira historialari sozialek deskribatu dituzten egoerak, miseria, txirotasunez, higiene baldintza eskasez, lan-istripuen protzentaia altuz edota 15-16 orduko lan jardunaldi amaigabez osatuak (Hobsbawn, 1987).

Langile eta herri klaseen ugaritze horretatik sortuko dira, hortaz, lehen adierazpen kooperatibistak, antolakuntza sozial moderno industrialari erantzun antolatua eman gura diotenak. Domènechen azterketa historikoaren arabera, demokrazia errepublikarraren balio historikoak (anaitasuna, berdintasuna, askatasuna) beste molde batez adierazi behar ziren industria eta finantza handiek ezaugarritutako garai historiko-sozial berrian, langile mugimendu antolatuaren eta sozialismoaren bitartez, hain justu. Horratx kooperatibismoaren hazia. XIX. mende bukaerako sozialistek aurreikusten zuten, dinamika kapitalistak ekoizpen bitartekoen jabetza pribatua pilatzen eta zentralizatzen jarraituz gero, iritsiko zela une bat non bizitza produktibo moderno hori kudeatzea ezinezko egingo zitzaien. Hortaz, korrante horren arabera, esku pribatu gutxi batzuetan jabetza erraldoiak metatzeko prozesua aukera gisa ulertu beharra zegoen, ekoizteko modu sozialistara zuzenean hurbiltzen zihuan joera historiko modura. Kontraesanak horren handiak bilakatuko ziren ze sahiestezina izango baitzen indar produktiboak bestelako harreman sozialen bidez antolatzea. Ekoizpen bitartekoen jabetze kolektibora iristea denbora kontua zen sozialista baikorrenentzat, ekoizle aske eta berdin gisara modu demokratikoan elkartzeko aukera historikoa zabaltzen ari zela iruditu zitzaien (Domenech, 2019).

Mugimendu kooperatibista kezka eta itxaropen horien guztien adierazpenetako bat izan zitekeen, beraz. Langileak borondatez elkartuz, gorpuzten ari zen kapitalismo monopolistari eta ekoizpen bitartekoen jabetze pribatuari erantzuna emateko modu eraginkorra suertatu zen. Marx-ek berak, Langile Internazionalaren hasiera ekitaldirako prestaturiko testuan hala hitz egin zuen mugimendu kooperatibistaren inguruan:

“Un triunfo todavía más grande de la economía política del trabajo sobre la economía política del capital. Estamos hablando del movimiento cooperativista, esto es, de las fábricas cooperativas, esta obra de unas pocas manos sagaces. Con los hechos en vez de con argumentos, probaron que la producción a gran escala y en consonancia con el progreso de la ciencia moderna puede funcionar sin la existencia de una clase de maestros que se sirven de una clase de manos; probaron que, para rendir frutos, los medios de trabajo no necesitan ser monopolizados como medios de dominación sobre, y de explotación contra, el trabajador mismo. Y que lo mismo sobre el trabajo esclavo, lo mismo el trabajo del siervo de la gleba, el trabajo asalariado no es sino una forma social pasajera y secundaria, llamada a desaparecer frente al

⁴⁷ Prozesu hori nola izan zen maisuki aztertu zuen E.P Thompson historialari sozialak, zorrotasun analitiko handiz. Agerian jarri zuen industriaren garapenak eta herri klaseen desjabetze masiboak nola ekarri zituen askatasun falta eta estatus galera. Horrez gain, historia soziala egiteko begirada marxista berritua ekarri zuen, eragin handia izan duena ondoren egin den historiografian. Langile klasea ekoizpen-harremanetan kokapen zehatz bat daukan pertsona taldea baino, prozesu dialektiko eta historiko baten baitan eratzen dela aztertu zuen. Marxismo ortodoxoarekin apurtuz, azalpen gaitasun handia aitortu zien elementu kulturelei eta langileen euren esperientzia subjektiboari, langileen sozializazio eremuetan, errituetan eta bestelako jardun soziokulturaletan arreta jarrita. E.P. Thompson (1963) *La formación de la clase obrera en Inglaterra*. Capitán Swing. Madrid.

trabajo asociado, el cual organiza su trabajo con mano presta, espíritu vigoroso y corazón alegre.” (Marx, 1864)⁴⁸

Aipu honetan zehazki, Marx Frantzian eta Ingalaterran jaio eta garatu zen mugimendu kooperatibistaren inguruan ari da. Bere terminoetara ekarriz, lantegi kooperatibo horiek erditzeaz dagoen sozialismoaren enbrioi forma bat lirateke, pixkanaka indartzen eta forma hartzen ari dena harik eta ekoizle aske eta berdinen arteko elkartze errepublikarra gauzatzea edonorentzat posible izango den arte. Jabetzaren ideia da erdigunera datorrena, gutxi eta handiak izan ordez, jabetzak txikiak eta banatuak izan behar dutela defendatzen zuen.

Domenéch-entzat, pentsamendu korrante hori tradizio errepublikar-demokratikotik egin den teorizazioaren alaba zuzena da, giza askatasunaren ulerkera zehatza partekatzen baitu. Errepublikanismo historikoan ditu erroak jabetzaren inguruko eztabaida teoriko horrek, esanez, norbanakoaren independentzia materialak dakarrela askatasun erreala, lan egiteko beste inori baimenik eskatu beharrik ez duen hori izango da aske eta herritar oso. Domènech-en lanean era argian azaltzen da jabetza txikiak biderkatzearen eta askatasun errepublikarraren arteko lotura:

“El sueño democrático-republicano por excelencia de finales del XVIII y comienzos del XIX fue, en los dos lados del Atlántico, una sociedad basada en la pequeña propiedad agraria más o menos universalmente distribuida (Jefferson, Robespierre). O, en su defecto, una especie de derecho de existencia social públicamente garantizado (Robespierre) o aun de ingreso material incondicionalmente asignado a todos los ciudadanos, por el solo hecho de serlo (Tom Paine), lo que ahora llamamos renta básica... La libertad política o republicana era eso, y nada más que eso: no tener que pedir cotidianamente permiso a nadie para poder subsistir.”⁴⁹

Nazioarteko langile mugimenduak demokrazia-errepublikarraren oinordekotzat zeukan bere burua XIX. mendearen bukaeran, eta beren gogoetak jabetza txikiaren eta independentzia materialaren kontzeptuekin zipriztinduta zeuden. Hortaz, guri dagokigun galdera ondokoa litzateke, nola hartzen du lur ideia honek euskal kooperatibismoan? Egin al daiteke loturarik Domenéch-ek aipatzen duen tradizio errepublikar-demokratikoaren eta Arrasaten errotutako kooperatibismoaren artean?

5.1 Euskal kooperatibismoaren haziak

Lehenik eta behin, euskal kooperatibismoa lehen modernitatearen testuinguru historiko-sozialaren adarretako bat dela azpimarratu beharra daukagu. Eztabaida teoriko-akademikoa egon da bulkada nagusia sozialismotik edo elizaren doktrina sozialetik etorri ote den, katolizismoak eta langile mugimendu emantzipatzaileak zein pisu eduki duten kooperatibak egin eta kooperatibagintza gauzatzeko orduan. Oraindik itxi ez den eztabaida izanik, funtsezkoa da ulertzea Domènech-ek deskribatzen dituen lanaren munduko eraldaketa horiek gabe (kapitalismo oligopolikoa, monopolio handiak, jabetza industrial handiak esku gutxitan pilotuta) XIX. eta XX. mendeko langile mugimendu

⁴⁸ MEW, vol. 16, 14. Orrialdea: in Domenech, A. (2019) *El eclipse de la fraternidad. Una revisión republicana de la tradición socialista*. Akal. Madrid. 155. or.

⁴⁹ “El socialismo y la herencia de la democracia republicana fraternal”, *Sin Permiso*, 2005. In: Domènech, 2019. Ibid.

antolatuak ez lukeela biderik egingo, beste erantzun emantzipatzaile bat eskatzen baitzuen errealitate ekonomiko eta sozial berriak. Era berean ezin dugu begibistatik galdu, Elizak indar des-kristianizatzaileen (anarkismoa, sozialismoa...) aurrean esku-hartzea erabaki zuela, geroz eta sekularizatuago zegoen langile klaseari balio kristauak birezartzeko. Bada, euskal kooperatibismora oro har eta Arrasaten errotutakora zehazki analitikoki hurbiltzen garen neurrian, sozialismoaren eta komunismoaren ideiarenean bueltan ardaztu zen langile mugimendu antolatu horren magma zabalaren baitan ulertu behar dugu ezinbestez, baina baita ere, Elizak auzi sozialean esku-hartzeko egin zuen apustuan.

Alabaina, Arrasatek baditu bere berezitasunak, eta ezin daiteke Ingalaterrako edo Frantziako esperientzia kooperatiboaren erantzun azaladu, besteak beste euskal gizartearen berezitasunak ere bereak badirelako. Euskal Herrian industrializazio prozesua gauzatu zen moduak bere ezaugarri propioak ditu, Espainian edo Frantzian gauzatu zen modutik ezberdintzen duena. Gipuzkoaren kasuan, metropoli handi batean ez bezala (Bilbo) erdi tamainako herriak industrializatu ziren familien jabetzan oinarritutako enpresa ertain eta txikien bitartez. XX. mende hasieran egin zen espazio antolaketan, hiriburua, Donostia, burgesiaren entretenimendurako eta *ezberdintze* aristokratikorako leku pribilegiatutzat gorde zen, lurraldearen barne-eremua industrializatuz. Hala, Arrasate, Eibar, Azpeitia edo Zumarraga-Urretxu moduko herriek ehungintzari, armagintzari edo papergintzari toki egin zioten beren konfigurazio urbanoan, herrietako konposizio soziologikoa itxuraldatuz, baina ez metropoli handietan bezainbeste. Lan industrialia aurrera atera zutenak, beraz, herri horietan errotutako langile kualifikatuak izan ziren, inguruko baserri-giroarekin loturak mantendu zituzten eta baita bertatik eratorritako balio-egiturak. Horrek azaltzen du neurri batean herri industrial ertainetan berdintasunaren ideiak hedatzeko izan zuen abagunea.

Dena den, azpimarragarria da itxuraldaketa industrial horrek landa giroko komunitate-egituretan antolatutako herritarrengatik ukoa eta mespretxua jaso zuela. Sarrionandiak dokumentatu duen bezala, Euskal Herrian bizimoduaren kaletartzeari erresistentzia handiak agertu zitzaizkion, baserriak eskaintzen zuen autonomiatik patrioak kontrolatutako industriara menpeko izatera igarotzea esan gura zuela interpretatuta (Sarrionandia, 2010: 369). Proletarizazio prozesuari mesfidati begiratu zion euskal nazionalismoak eta baserriaren iruditeriari lotutako gizarte egiturari eutsi gura zion, erlijio katolikoa, familia eta ahaidetasun egituretan antolaturiko komunitate txiki-ertainetan. Joan Antonio Mogelen idatziak dira horren erakusgarri, baserria jotzen baitu gizalegea eta hizkuntza garbia gordetzen diren eremu bezala, kalean “zabarkeria” eta “ganora eza” nagusitzen diren era berean (Sarrionandia, 2010: 638). Euskal herrietan hainbesteko indarra izan zuen Karlismoak ere, ez zuen gura industria handien errotzerik ez eta burgesiaren garapen gorakorrik, euren agintea disputatzeko moduko kokapenean jarriko zituelako, egituraketa sozial berri baten bidez. Jokabide erreazionario horietatik haratago ordea, erronka atzerazinezko prozesua zirudien horretan egitura komunitarioak nola mantendu izan zen, arau moral sendoei eusteko bide berri bat irekitzearen premia mahai gainean jarririk.

Arau moral sendo horiek *baserritik kalera* jaisteko operazio moduan uler liteke, zentzu batean, euskal kooperatibismoa lokarri komunitario sendoa mantendu duena, berdintasunaren ideia praktikara ekarrita industria modernoan. Izan ere, esperientzia kooperatiboaren funtsezko ezaugarrietako bat lokarri komunitario sendoa edukitzea izan

da. Domènech historialariak funtsatu duenez, lokarri komunitarioa eta gizarte mugimenduen arteko lotura langile mugimenduari loturiko korrante politiko-sozial ezberdinetan gorpuztu izan da, Kataluniako anarkosindikalismoan, Alemaniako sozialdemokrazian⁵⁰ edota geuri dagokigunez, euskal kooperatibismoan⁵¹.

Metropoli handietan eta Europako hirigune industrial nagusietan antolatu zen langile mugimenduan ez bezala, euskal industrializazio prozesuak, izan zuen bilakaera historiko propio eta bereziagatik nolabaiteko konsistentzia komunitarioa mantendu ahal izan zuen modernitate industrialaren etorreran. Arrasateko Kooperatibismoaren jaiotza posible egin zuen kapital sozial eta komunitarioa ez zuen soilik klase sozial menderatu bateko kide izateak artikulatzen, landa eremuko euskal mundu tradizionalako oinordeko izateak ere bazuen bere pisua. Katolizismoak, abertzaletasunak, herrian zegoen tradizio industrialak edo lanari lotutako etikak ere jarri zituzten baldintza erabakiorrak.

Halaber, euskal probintzietan antzinako erregimenaren garaian ezarri zen kaparetasun-unibertsalak, euskal herritarrak noblearen kategorian jarri zituen, denak parekotzat joz eskala sozialean. Guztiak goitik parekatzeko ariketa horrek ere, euskaldunen berdinaletasunean eragina izan zuela pentsatzerik badugu (Azkarraga, 2017: 227). Nobletza orokortuak, euskaldunek euren burua hautematerakoan harro egoteko motiboak eman zituen, talde pertenezia sentipenean sakonduta, eta beraz, gainerakoekin talde bereko kide gisa identifikatuta.

Gerraostean eratu zen konfigurazio sozialean, elkartasunezko eta lankidetzako harreman instituzionalizatuak topatu ditzakegu: *auzolan* ezaguna, sare komunitarioak edo elkarri lanean laguntzeko prestazioak, autoeraketa ekonomikoaren ideari oinarriak jarri zizkietenak (Lanki, 2004). Are, behin modernitatean sartuta ere euskal bizimodu komunitario aurre-kapitalista horretatik biziraun duten zenbait erakunde sozialek berebiziko garrantzia izan dute esperientzia kooperatiboan. Erakunde horiek, komunitatea eta harreman sozialen trinkotasuna dituzte ezaugarri, elkarte gastronomiko eta kulturalak, kuadrila, herri eta auzoetako festa batzordeak, txikiteoa... (Hess, 2009).

⁵⁰ Alemaniako sozialdemokraziak XX. Mende hasieran osaturiko sare komunitarioa izan da agian esperientzia historiko esanguratsuenetakoa langileen ahalduntze eta garapen komunitarioari dagokionean. Kapital sozial eta instituzional alternatiboa sortu zuten, industria langileen artean ehundura sendokoa: sindikatuak, alderdi politikoak, prentsa propioa, kultur etxeak, kafetegiak, hezkuntza zentro propioak eta era guztietako antolakundeak biltzen zituen sare horrek, langileen eta euren familien bizimoduaren eremu orotara iristen zirenak. Sare kontrainstituzional trinkoa eraikita, langileen kokapen soziala hobetu ez ezik, demokrazia soziala eraikitze bide izango zela sinetsita zeuden. Ordea, nekazal munduan sendo sartu ez izanak eta hirietan zein herrietan jarduten zuten ogibide zaharretako langileengana iritsi ez izanak ere euren praktika sektore sozial zehatz batera mugatzea ekarri zuen (industriako langileria), edozein sakoneko eraldaketa egiteko ez-nahiko. Domenech-en aipu honek oso argi islatzen du botere kontrainstituzional horren tamaina (2019: 184. orr):

“Literalmente, a comienzos del siglo XX. Un miembro de la SPD podía asesorarse acerca de cualquier problema legal- no necesariamente laboral- en los gabinetes jurídicos del partido, aprender las primeras letras en una escuela socialdemócrata, aprender las segundas y hasta las terceras letras en una universidad popular socialdemócrata, formarse como cuadro político o sindical en una academia socialdemócrata, no leer otra cosa que diarios, revistas y libros salidos de las excelentes imprentas socialdemócratas, comer comida puntualmente distribuida por una cooperativa socialdemócrata (...) Y llegada la postrera hora, ser diligentemente enterrado gracias a los servicios de la Sociedad Funeraria Socialdemócrata, con la música de la internacional convenientemente interpretada por alguna banda socialdemócrata.”

⁵¹ Beste esperientzia kooperatibo gehientsuenak langile mugimenduak eta ezkerreko pentsamenduak ezaugarritu baditu ere, Euskal Herrian garatu denak bereizgarri esanguratsuak dauzka: Batetik, katolizismo sozialak izandako pisua eta bestetik nazionalismoarekin izan duen harreman estua. Ikuspuntu honetatik, kooperatibagintza nazio eraikuntzarako tresna efektibo gisara irudikatzen zen, kapitalismoa eta sozialismoa bazterrean utzi eta hirugarren bide bat eraikiko zuena, justizia kristau-sozial eta euskaldunean oinarritutako gizarte ordena berria eraikiz.

Langileen erreproduzio kultural eta sinbolikorako espazioak funtsezko garrantzia izan zuten mugimendu kooperatiboaren errotze eta zabaltzean, komunitate autonomo baten eraikuntzaren erregai kulturala izan zela esaterik badugu.

Lantegietan lan-orduak partekatzeaz gain, sozializazio esparru berdintsuetan bizitza komunitarioa egiteak trinkotasuna eman zion kooperatibigintzari, gu orokor baten definizioari konsistentzia soziologikoa emanda. Elkartean, kuadriletan edo *txikiteoa* moduko praktika soziokulturaletan errealtatearen gaineko ulermen-marko zehatzak partekatzen ziren, eta baita kode kultural eta arau moral antzekoak errotu. Funtzeskoak dira, beraz, hasierako Arrasateko kooperatibagintzaren erreproduzio sinbolikoarentzat, mugimendu kooperatiboaren enbor nagusiari sendotasuna eman baitzion. Tradizio komunitario eta elkartasun horren aztarnak ere antzeman ditzakegu gaurko langile mugimenduan; zehazki, Euskal Herrian errotutako sindikatuen afiliazio tasak altuak dira estatuko beste lurralde batzuekin alderatuz gero, ehun asoziatibo sendo baten erakusgarri.⁵² Ekosistema kultural eta sinboliko horren baitatik jaio zen Arrasateko Kooperatibismoa, Azkarragak zehazten duen bezala (Azkarraga, 2017: 233-234):

“In conclusion, as with other experiences of social and solidarity economy, the Mondragon experience emerged out of a particular human ecosystem, a specific cultural and institutional framework, which together with its physical setting forms a complex sociohistorical configuration: traditions; particular social relationships; specific cultural resources; social customs; identity and identities; a history of production; technological characteristics; administrative structures; and, in general, the psychosocial, normative and community characteristics of the Basque people.”

Labur esanez, kooperatibismoaren diseinu, praktika eta gauzatzeak ehundura sozial sendo baten ezaugarrietatik asko eskatu du, konfiantzazko esparruak izatea, jabetza partekatua, txandakatzen diren ardurak, gobernantza eredu demokratikoagoak, elkaralan etengabea etab. Auzolanaren ideia eta bizi-filosofia klasikoaren garapen moderno modura ere ulertu liteke Arrasateko kooperatibagintza, edo behintzat, beharrezko aipamena da euskal kooperatibismoaren erro historikoei begiratzerako orduan (Altuna, 2008: 90). Izan ere, kooperatibismoa ezaugarritu duen lan saiatuak, sakrifizioak eta ahaleginaren kulturak, etika komunitarioak elikatu izan du. Antzekotasun nabarmenak badaude ere, funtsezko bereizketa dago hemen Max Weberren etika protestantearen azalpenarekin: Weberren kasuan, etika saiatua eta aszetikoa norbanakoaren salbaziorako bideratzen da; aldiz, Arrasateko kooperatibismoaren kasuan, erro katolikoak izaki, garapen komunitarioa da lan diziplinatuen bidez bilatzen dena.

Behin hori esanik, euskal kooperatibismoak adar politiko ezberdinetatik edan duela ere azpimarratu beharra dugu, XIX. mende bukaerako eta XX. hasierako disputa politikoei bereziki markatu baitute euskal esperientzia kooperatiboa. Euskal nazionalismoa eta euskal sozialismoa dira kooperatibagintzaren bueltan antolatu diren bi indar politiko-sozial aipagarrienak nahiz eta beste korrante politiko batzuekin loturiko esperientziak ere izan badauden (Arrieta et al. 1998). Nazionalismoaren kasuan, EAJren bueltan gorpuztua batez ere ELA sindikatuaren bidez, nekazal jabetza txikiaren ideia oso errotua ikus dezakegu:

⁵² Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako afiliazio tasa %24,9koa da. Ondoko lurraldeetara begiratuz, Frantziako afiliazio tasa %7,7koa da eta Espainiako batz bestekoa %17,5ean dago. Iturria: Ikusmiran (2016) *Poder Sindical, una realidad cambiante*. Ipar Hegoa Fundazioa: 53. Or.

“El ideal se situaba en una sociedad de pequeños propietarios, tanto en el mundo rural como en el industrial o comercial, pues la propiedad era considerada como un derecho natural, necesaria para la realización del individuo y de la familia, incluso anterior al Estado...” (Arrieta et al. 1998: 74).

Eusko Alderdi Jeltzalearen nazio burujabearen eraikuntza proiektuan Elizaren doktrina sozialak pisu berezia zeukan. Are, Arana eta kideek pentsatzen zuten Euzko aberri subiraua lortuz gero automatikoki desagertuko zela “auzi soziala”, berdintasun politiko eta soziala egikaritzeko baldintzak bilduko zirelako. Alabaina, helburu hori lortzeko zailtasunak handiak zirenez, bien bitarteko ildo “programatikoa” landu zuen EAJk, zeinak nazio independentea lortu bitartean lehentasuna izango zuen. Elizaren doktrina sozialaren markoan kokatuz, kooperatibagintzak kapitalismoaren eta sozialismoaren dikotomiatik atera eta hirugarren bide bat marrazteko aukera zekarren. Bestela esanda, 1930ko hamarkadan jeltzaleen programa sozioekonomikoaren ardatz nagusia izan zen; are, nazio burujabe eta sozialki harmoniatu horretara iristeko bide bakar gisa interpretatu zuten:

“el cooperativismo no es sólo un régimen que puede reportar beneficios económicos, sociales y culturales al País Vasco, sino el sistema por excelencia, el pilar principal de ese nuevo orden social alternativo – esa tercera vía entre el capitalismo y el socialismo basada en la justicia social-cristiana y vasca- de la futura nación vasca soberana” (Arrieta et al. 1998: 76).

XIX. mende bukaeran eta XX. hasieran gertatzen ari ziren eraldaketa sozioestrutural horietara hoberen egokitzen zen sistema gisa irudikatzen zuten euskal nazionalistek. Ordura arte, nekazal jabetza txikiak eta modu orekatuan banatuak defendatu bazituzten ere, gero eta industria zein finantza oldarkorrakoak eta jabetzaren metatzeak formula berriak eskatzen zituen justizia kistau-soziala mantentzeko. Bada, jeltzaleek hori ikusi zuten kooperatibagintza industrialaren indargune nagusietakoa, jabetza partekatuan. Alde batetik, bide hori aplikatzeari esker tamainaz handitzeko aukera errealak irekitzen zen, industria ekoizpenerako oinarritzeko baldintza. Bestetik, kolektibismo sobietarrean ez bezala, jabetzaren ideari eusten zituzten, hau da, langileak jakin bazekien lanaren fruituak beretzat izango zirela, ondorioz gogo eta zorrotasun gehiagorekin jardungo zuen, ekoizpena kalitatez hobetuz.

Ordea, kapitala eta lanaren arteko gatazka sozialaren adierazpen nagusia mugimendu sozialistaren bidetik etorri zen. Nazioartean, esperientzia esanguratsuak zeuden abian. Euskal Herriaren kasuan, PSOE-ren eta UGT sindikatuaren bitartez gorputua. Hauen ikuskeran, kooperatibismoak etekin handiak zekartzan, ez soilik ekonomikoak, borroka politikorako eta eraldaketa sozialerako balio zezakeen. Herriko Etxeak, alderdi sozialistaren egoitzak edo sindikatuak finantzatu zitezkeen kooperatibetan ateratako etekinekin eta horrez gain, elkarlana zein elkar-laguntza praktikatzeko orduan gizartea eraldatzen ari zireneko konbentzimendua izan zuten euskal sozialistek:

“Además de coadyudar a la financiación de la lucha socialista y al bienestar y formación de los trabajadores, la cooperación, si era socialista, contribuiría por sí misma a la transformación de la sociedad: era un complemento de la lucha liberadora llevada a cabo por los socialistas.” (Arrieta et al. 1998: 101).

Ildo honetan, bereziki interesekoa zaigu Toribio Etxeberriaren figura aipatzea, euskal sozialismoaren ikurretako bat, lehen kooperatiba industrialak abian jarri zuena, Alfa kooperatiba Eibarren, 1920. urtean. Etxeberriaren pentsakeran, progresismoaren, justizia sozialaren eta gizarte emantzipatuaren ufadak hegoaldeetik zetozen, hizkuntza

ezberdinetako langileak izanagatik, “auzi nazionalak” bigarren toki bat hartzen zuen, eta zinez axola zuena gizaki duin, burujabe eta osoak ekoiztea zen (Sarasua, 2005). EAJ-k ordezkatzeko bide eta tresnatzat zeukan sozialismoaren ideia, garaian PSOeren bueltan antolatua.

Nazionalismoak ez bezala, euskaltzaletzat zeukan bere burua, baina horrek ez zuen esan gura estatu independente bat eratu nahi zuenik. Espainiako beste herriekin federazioa osatzea eraikuntza politiko interesgarriagoa iruditzen zitzaion, beti ere herri bakoitzaren bereizgarriak, kulturak eta hizkuntzak errespetatuz. Lanaren zentraltasuna, balio etikoak eta euskararekiko zaletasuna izan ziren bere lan intelektualaren hiru zutabeak, ondoren Arrasaten eratzen eta zabaltzen ikusiko dugun “balio kooperatiboen” jatorritzat jo litezke, bai gertutasun geografikoagaitik eta baita Arzimendiarrietak ondotox ezagutu zuelako Alfa kooperatiba industrialaren esperientzia.

Etxebarriak, Alfa kooperatiba arrakastatsuen sorreran izan zuen pisua, bai praktikoa zein intelektuala, nabarmena izan zen. Alabaina, sozialismoaren eginkizun zabalen baitan jotzen zuen kooperatibagintza, lan politiko, sindikal eta administratiboaren osagarri. Europako langile mugimendu antolatuarekin harreman estuan, hiru ildo nagusi zehaztu zituzten ekimenerako, eremu politikoan sozialismoa, lan gatazkaren eremuan sindikalismoa eta eremu sozioekonomikoan kooperatibagintza. Hiru ertz horiek elkarren osagarri izatea zen helburua, antolakuntza organiko eraginkorra sortuz, sozialismoaren garaipenerako. Hala, bere pentsamenduaren oinarrietako bat, praktikaren bidez izaera “eraikitzailea eta sortzailea” gauzatzea zen, garaiko anarkistek ekintza zuzenaren bidez *ordena sozial burgesa* suntsitzeko zuten estrategiaren aurrean:

“Informado el socialismo eibarrés por ese espíritu de continuidad y aquel afán constructivo, desde los primeros tiempos del efímero Gremio Armero Eibarrés, conglomerado indiferenciado que precedió a las sociedades por oficio y montó de buenas a primeras un importante taller colectivo para la fabricación de armas, hasta la Cooperativa Alfa, que cuando la sublevación militar de 1936 triunfaba en la fabricación de máquinas de coser después de haber capitalizado de cinco a seis millones de pesetas en dieciséis años de constantes éxitos industriales, los ensayos cooperativos, complemento de labor política, sindical y administrativa que ocupaba a los socialistas, se sucedieron en Eibar en gran número. Unas veces en el terreno del consumo (víveres, tejidos, herramientas) y otras en el de la producción (armas, ferretería, etc.). Y se sucedieron, claro está, con muy varia fortuna, pero siempre dentro del mismo espíritu constructivo y creador.” (Etxebarria, 1968: 119-120).

Anarkistek Espainiako langile mugimenduan eta bereziki Katalunian zuten eragina nabarmena zen orduan. Komunitateen antolaketa propioa defendatzen zuten egitura politiko eta ekonomiko modura. Estatua suntsitzeko premia nabaria zen haientzat, beraz, edozein botere zentralizatuk zapalkuntza baitzekarren ezinbestez.⁵³ Bada, Etxeberriaren kokapen politiko moderatuago honek zerikusia izan lezake Eibarko eta Gipuzkoako industriaren tamainarekin, familiaren bueltan antolatutako lantegi txiki eta ertainak baitziren garaiko industriaren ezaugarri, milaka langilez eta patroi bakarrez osatutako egitura enpresarialetatik urrun. Anarkismoa, Bartzelonako lehergailuez eta “martir

⁵³ Sozialista-komunisten eta anarkisten arteko eredu ezberdintasun hau nabarmen geratu zen esperientzia historikoa 1936 eta 1937. Urteetan Bartzelonan gertatu zena izan zen. Anarkosindikalistek, altxamendu armatuari aurre eginez, Bartzelona eta inguruetakoa kontrola hartu zuten lantegi guztiak desjabetuz eta langile batzorde autoantolatua jarri hori kudeatzera. Alabaina, hori guztia koordinatzeko egiturarik ez izanak, armen fabrikazioa ezinezko bilakatzen zuen, sozialisten eta komunisten haserretako.

batzuez haratago” “modako” joera intelektual-politikotzat jo zuen, ezer eraikitzeko oztopo, “utopiaren marfilezko dorrean giltzapetzeko aukera ematen die, ezertara konprometitu barik” (Etxebarria, 1968: 123).

Etxebarria eta kideentzat, mugimendu sozialista zen klase borrokaren hauspo nagusia, eta langile klaseari hobekuntza materialak ekarriko zizkion tresna historiko erreal bakarra. Zeregin horretan, kooperatibagintzak funtsezko papera jokatzeko zuten, errotik defendatzen zuten izaera eraikitzaile eta sortzaile horretara egokitzen zelako, batetik, eta langile klasea tresnaz hornitzen zuelako, bestetik. Hala zioen Pablo Iglesias sozialisten buruak kooperatibez:

“Hay que emplear todas las actuaciones que sean útiles para que nuestra clase se capacite, disminuya los dolores que sufre y realice lo más pronto posible su emancipación y la de los demás seres humanos” (Arrieta et al. 1998: 102).

Lanaren zentraltasuna tresna politiko gisa, norbere eskuekin burujabe bilakatzeko joera, oso presente dago Etxeberriaren pentsamenduan, baita Arizmendiarrietarenean ere. Europako langile mugimenduaren adar ezberdinetan, gorago aipatu ditugun hiru ertz horiek pisu gehiago edo gutxiago hartzen zuten, testuinguru nazionalak eta berehalako behar politiko-ekonomikoak baldintzaturik. Lanaren zentraltasunaren ideiak ordea, formulazio bereziki zentrala izan zuten tokia Ingalaterrako laborismoa⁵⁴ izan zen. Horregatik interesatu zitzaion horrenbeste Arizmendiarrietari langile mugimenduaren adierazpen hori, Etxeberriak formulatu zuten izaera eraikitzaile eta sortzailea mantentzeaz gain, modu orekatuan, indarkeria maila baxu mantenduz eta “gizakia duinduz” aurrerapauso nabarmenak eman baitzituen.

Hiru zutabe ideologiko nagusi topatu ditzakegu, beraz, AKE-ren eraketa ahalbidetu dutenak. Klase-egoera, erlijioa eta abertzaletasuna. Hiru euskarri horien artean mugitu da bere historiaren aldi ezberdinetan. Dena dela, bai kristautasunak, bai euskal nazionalismoak zein ikusekera sozial aurrerakoiak bere eragina izan dute AKE-ren bilakaeran (Azkarraga, 2017: 242). Elkarren etsai izan diren ideologiak ere badaude multzo horretan, eta ez zen gatazkaz salbuetsita egon. Hiru euskarri horien arteko oreka mantentzeko ariketa tentsio-iturri izan zen.

Esaterako, Ingalaterrako laborismotik jasotako sozialismoaren ulerkera pragmatiko horrek eragingo zizkion geroago artikulatu zen Arrasateko kooperatibismoari kritikak ezkerreko indar politiko eta kulturaletatik. Zehazki, 1965ean ETA-ren ibilbidearen lehen urteetan, erakunde abertzale-sozialistak zalantzak agertu zituen Arrasaten gorpuzten ari zen kooperatibagintzaren inguruan, jabetza pribatuaren ideari eusten ziolako batetik, eta langilearen oinaze iturri zen alienazio prozesua ez zuelako ezabatzen bestetik (Altuna, 2008: 151). Lana-kapitala arteko gatazkari konponbidea eman bainoago, berau beste forma batez azaltzen zela kritikatzeko zuten, eta langile klaseak emantzipazioaren bideetan jarri beharrean, are gehiago errotzen zituela ordena sozioekonomiko kapitalistan.

⁵⁴ Ondoren Arrasaten abiaraziko duen esperientziaren sustrai teoriko eta adibide historiko gisa erabiltzeko Laborismoa sakonki aztertu zuten. Jabetza pribatua desagertu den esperientzia historikoetan nortasun galera eta norbere adierazpen propioarako gaitasun falta egin izan direla zioen, hortaz, Laborismoak defendatzen duen jabetzaren ideia bereganatu zuten, hala dioena: Sozialismoa ez da dogma multzo bat, praxiaren bidez egikaritu beharra duen ideia bat baizik, praxi horrek kontuan hartu beharko du jabetza pribatua gizakiaren adierazpenerako funtsezko faktorea dela, beraz, ezin da jabetzaren desagertzea defendatu.

Kritika horiek XX. mendeko 60ko hamarkadaren testuinguruan ulertu behar ditugu, euskal nortasun matxinatuaren loraldian eta haustura politiko eta sozialaren alde egiten zuen nazioarteko giro iraultzailean (Kuba, Aljeria, Vietnameko gerra, ikasle mugimenduak Europan, kolonialismoaren aurkako mugimendu politiko-militar indartsuak herri kolonizatuetan...). Pentsa genezake, hausturara zeraman mugimenduaren indartze fase batean, elizaren doktrinatik asko zeukan, lanaren gaineko moral kristaua gailentzen zen eta ildo erreformista bere egiten zuen esperientzia batek erakargarritasun gutxi edukitzea garaian planteatzen ziren gizarte komunista berriaren, edo askapen sozial, nazional eta sexualaren helburuen aurrean. Esan bezala, hiru zutabe ideologiko sarritan kontrajarriren nahasketa eta kontraesan beti prekarioetan mugitu behar izan du Arrasateko Kooperatibagintzak.

Dena den, AKE-ren oinarri ideologikoetara eta jatorrizko bulkadetara begiratzean, garaiko giro historiko-sozialaren arabera ezaugarri bat edo beste nagusitu dela aztertu da (Azkarraga, 2007: 1269). Hala, 60ko hamarkadan motibazio-erlijiosoak ziprztintzen du batez ere AKE-ren inguru sozial eta intelektuala (Ahedo, 2006)⁵⁵. 70ko hamarkadan, euskal nazio-erakuntza proiektuarekin estuki lotzen da, eta harreman zuzena eraiki zen kooperatibagintzaren ereduaren eta nazio-identitatearen artean, ETAk ireki zuen ulermen markoaren baitan (abertzaletasun iraultzailearen planteamenduarekin, nazionalismoaren eta sozialismoaren uztarketa progresistan). Aldiz, 90ko hamarkadatik taupatzen duen ezaugarri nagusia enpresa pragmatismoarena deneko susmoa jaurtitzen du Azkarragak, aldi neoliberalaren irekierarekin zerikusia lukeena.

Hamarkada bakoitzean egon den giro politiko-sozialaren arrastoan azaltzeak nukleo esplikatibo garrantzitsuak eskaintzen dizkigu. Esaterako, 1960ko hamarkadan motibazio erlijioso nagusitu izana erregimen frankistaren eta bere egitura errepresiboaren markoaren baitan ulertu behar dugu. Errepublikaren oinarri soziala izan zen langile mugimendua (anarkosindikalsimoan edo mugimendu sozialistan islatua) eta bere erakundeak desagerrarazteko lan politiko geldiezina egin zuen erregimenak, esparru horietatik taupatutako ekimen oro debekatuz eta beren buru politiko eta sozialak jazarriz (Doménech, 2012). Arrasateko kooperatibagintza, klase auziari eta langile eta herri klaseen hobekuntzari zuzenean heltzen dion esperientzia izanagatik, apaiz batek gidatu izanak eta elizarekin hastapenetatik izan zuen lotura estuak beharbada erregimenaren helburu errepresiboetatik inmunizazio nolabaitekoa eskaini zion. Horrela ulertu ahalko genuke hasierako kooperatiben arrakastaren giltzetako bat, oztopo politikorik ez jasan izana. Desarrollismo frankistaren fruituak jasotzeko eragile ekonomiko zilegitzat jo zuen erregimenak eta garaiko hazkuntza ekonomikoaren aberastasunean bere zatia landu eta jasotzeko parada izan zuen.

Koiuntura historiko hartan ez dugu baztertu behar Espainia Nazio Batuen Erakundearen onartzeak (1956) eta jarraian etorri zen estabilizazio planak (1959) kanpoko kapitalari atek zabaldu zizkiola eta hazkunde ekonomiko oparoko urteak bizi izan zituela

⁵⁵ Zentzu honetan, ezaguna da Ipar Euskal Herriko abertzaletasunean bulkada erlijioso-euskaltzaleak izandako pisua. Ahedo-ri (2006) jarraituz, Arrasateko kooperatiba esperientziaren eredia jarraituta trinkotasun sozial esanguratsuko mugimendu kooperatiboa eratu zen Iparraldean, abertzaletasun katolikotik sustatua. Kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko eredu baten bilakuntza, indibidualismo edo kolektibismo muturrekoari ukoa edota nazio-identitatea materialki errotzeko asmoak bultzatuta saiatu ziren Debagoienako eredia hango baldintzetara egokitzen, (Ahedo, 2006:447-448.) Era berean, aipatzekoa da lurraldeko industria faltak eta landa eremuko egoera ekonomiko ahulak, gazte belaunaldiak migratzera behartzen zituela eta konposizio soziologikoa mantentzeko apustua ere izan zen.

Frankismoak. Lan-esku merkea eta erregimenak zorrotz diziplinatutako langile klasea eskaintzen zituen erakargarri gisa Espainiak eta horrek nazioartean erdi-mailan kokatuko zen ekonomiaren eraikuntza egin zuen posible, ekonomia-mundu kapitalistan integratuz. Baldintza sozial eta ekonomikoaren eraldaketa esanguratsua bizi izan zuen Espainiar Estatuak, labor esanda, modernizazio kapitalistaren bidez kontsumo gizarteari ongi etorria eginda.

Alfonso Ortí soziologoak sostengatzen duen bezala, erreforma ekonomiko horiek Ipar-Amerikako eta Europako kapitalismoari ateak zabaltzea ekarri zuen, kontsumo kapitalismo neo-korporatibo berritua ezarriz, eredu autarkiko *nazional-patrimonialista* zegoen lekuan (Ortí, 1987). Soziologo madrildarraren analisisan espainiar gizartean klase-egituraren birkonfigurazioa ekarri zuen 60ko hamarkadan gertatu zen prozesu ekonomiko-sozial berri horrek, klase ertain funtzional berria sortuz *botere-bloke burges* berria ezartzeko eta euren proiektu politiko-sozialaren hegemonia sustraitzeko. Funtsean, profesional liberalez osaturiko klase ertain funtzional berri horrek (medikuak, teknikari publikoak, abokatuak, ingeniariak...) babes-talde estrategikoaren papera jokatu zuen botere oligarkiko frankistaren itxuraldaketa arrakastaz egiteko, eta kapitalismo handiari irekiera eredu politiko-sozial burges eta *kapitalzalearekin* gauzatzeko. Arrasateko Kooperatiben balantze ekonomikoaren alde jokatu zuen zabaltze ekonomiko horrek bi alderditan; alde batetik, ekonomia autarkiko batean jaio izanak lehiakortasun baxua ezarri zon, eta bere merkatu-kokapena ongi finkatzeko aukera izan zuen behin atzerriko kapitalari ateak zabaldu zitzaizkionean; bestetik, liberalizazio ekonomikoarekin, espainiarren errenta maila hazi zenez gero, klase ertainaren eratzearekin, guztiek nahi izan zuten zituzten etxetresnak erosi, eta kooperatibek eskaintzen zuten produktu hori. Bi faktore horiek, etenbageko hazkuntza jarraitua eta emaitza ekonomiko onak edukitzea ahalbidetu zien.

70ko hamarkadari dagokionez, bertan antzeman daitezke proiektu eraldatzaile baten zertzelada nagusiak. Frankismoaren gainbeherak batetik eta bere aurka eratu zen oposizio politiko matxinatuak bestetik korrante ideologiko berriak eta garai politiko-sozial mugituak ekarri zituen, sektore sozial zabalak politikoki posizionatzera behartu zituztenak, baita kooperatibismoaren baitako taldeak ere. Beste elementuen artean, antifrankismoak zeukan indar bateratzaile handiena, identitate iturri bilakatu zela esan liteke. Diktaduraren aurkako bulkada kolektiboak langile mugimenduaren eta herri klaseen artean lotura sendoak sortzea ahalbidetu zuen, eta errealitate sozio-historiko partikularra konfiguratu zuen estatuan. Euskal Herriaren kasuan aipatu beharrekoa da oposizio antifrankistaren taupada nagusiak ETArekin bueltan antolatuta zirela, eta horrek lotura zuzena ezartzea eragin zuen langileen emantzipazioaren eta askapen nazionalaren artean.

Dena den, denbora politikoak eta ekonomikoak ez doaz beti eskutik. Aipagarria da hego Euskal Herrian eta Espainiar estatuan gertatu zen prozesua paradoxiko modura jo izan dutela historialari batzuek, hain justu langile identitatea nazioartean krisian sartzen den aroan askatzen baitira hemen bere indar politiko eta soziala garatzeko baldintzak. Xavier Doménech historialariaren arabera masa kontsumoaren eta balio post-materialisten etorrerak, espainian artikulatu gura zen langile klase berriaren proiektuarekin bat egin zuen denboran, oreka bereizi eta partikularra sortuz talka egiten zuten bi korrante historikoren artean (Doménech, 2012: 28). Prozesu horren adierazgarri gisa 1974ko Ulgor eta Fagorren greba aipatu daiteke, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren

historian egon den bakarra (Altuna, 2008: 154). Arizmendiarrietak berak ere onartu zuen kooperatibetako lantegietan esplotatu/esplotatzaile terminoak erabiltzen zirela, eta kooperatibistek euren burua langile klasekotzat zeukatela. Ordea, Doménech-ek azaltzen duen paradoxa historikoaren baitan, kiritikotasun indartsu horrek ez zuen luze iraun kooperatibaren senean, 80ko eta 90ko hamarraldian hazkuntza ekonomikoarekin, nazioartetatzearekin edo gizarte post-industrialen balioen hedapenarekin lotura duten elementuak nagusitu ziren.

Bada, 90eko hamarkadan enpresa pragmatismoaren tesia daukagu. Tesi hori sostengatzeko 1991ko kongresuan hartutako zenbait erabaki aipatu daitezke. i) Eskualdekako taldeak izatetik sektore dibisioen arabera antolatzena igarotzea ii) soldata eskala 1:3 tartetik 1:6 tartera igotzea iii) behin-behineko kontratuen erabilera handiagoa egitea iv) nazioartean filialak irekitzea, eskulana merkeagoa den herrialdeetan (Fuente Cosgaya, 2020). Erabaki horien une sinboliko gisa Txinan 1995ean zabalduko lehen filiala aipatu dezakegu, 1991ko kongresuan harturiko norabide berriaren erakusgarri. Bide hori hartzeak eragin du eztabaida eta kritikarik akademian eta baita kooperatibagintzaren barneko sektoreetan ere. Auzi politikoa enpresa pragmatismoaren eta printzipio kooperatiboaren arteko tentsionamenduan lurreratuko da. Fuente Cosgayak hala argudiatzen du:

“En nuestra opinión, esto colisiona con los principios mutuales que fundan las cooperativas, mucho más si ahondamos en el debate de la extracción de plusvalía mediante filiales de la periferia capitalista.” (Fuente Cosgaya, 2020: 146.)

Gure irudiko, hamarkadetan zehar izan duen bilakaera horrek guztiak, bulkada espiritualetik hasi eta nazioarteko zabalpeneraino, erakusten du Mondragon euskal gizartea modernizazio industrialera eramateko tresna bezala agertu dela. Modernitatea gurutzatu dituzten tentsio eta eztabaidek bere forma propioa hartu dute AKE-n, baina hasieratik bertatik irakurri dezakegu garai berriak eta modernitatea besarkatzeko nahia izan duen esperientzia izan dela. Bai garapen eta hazkuntza helburuek eta baita teknologiarekiko egiten den apustu zentralak, erakusten dute modernizazio prozesuaren korrante nagusiaren bidean kokatu nahi izan duela esperientziak, eta paradoxikoki, logika hori bera da, hain justu, krisi ekosozialaren eragile kultural nagusia.

Eztabaida ekosozialaren ikuspegitik, ezin esan liteke gai ekologikoek Arrasateko Kooperatiben bilakaeran rol zentrala jokatu dutenik. Irakurritako literaturan ez dugu aurkitu gatazka sozio-ekologiko nabarmenik edo produkzioa eremu ekologikoan integratzeko proposamen sendorik, kolektiboan eztabaidatu dena. Hamarkadaka nabarmentzen diren ezaugarri nagusiek lotura estua dute mendabeldako gizarteek garatu dituzten gobernu politiko eta ekonomikorako mekanismoekin, eta neurri horien aurkako erantzun sozialekin. Dialektika horretan mugitu da ere Arrasateko Kooperatibagintza, eta krisi ekologikoaren gaia erdiguneratu den arte ezin dugu kezka ekosozialaren bueltan ardaztu den hari historikorik jarraitu AKEn senean.

5.2 Mugimendu izaera

Oinordetza historikoak eta Arrasate bailarako humus soziokulturalak eragin nabarmena duten bezala esperientziaren garapenean, gizarte mugimenduek eta taldeen psikologia sozialak berez dituzten dinamika propioetara ere gerturatu behar dugu AKE-ren bilakaera ulertzeko. Gizarte mugimendu baten ibilbidea beti da gorabeheratsua, faktore ezberdinek sendotuko edo ahulduko dute, dituzten sistema normatiboek, erakundeek edo kideen konpromiso mailak.

1970 eta 80ko hamarkadak Euskal Herrira ekarri zituen aldaketa sozial handien garaian, (birmoldaketa industrialak, espainiatik iritsitako migrazioa, hirien eraldaketa, klase-egituraren aldaketa, trantsizio politikoa eta nazio-auzia...), gizarte mugimenduen teoriak industria-osteko arora egokitzen diren mugimenduak ezaugarritu eta aztertu zituen (Melucci, 1995; Touraine, 1985; Offe, 1985), esanez kapitalismoaren bilakaerak berak eragin zuela gizarte mugimendu modernoan antolakuntza eta ekintza antzaldatzea, gatazka sozialetik gatazka kulturalera jauzi eginda. Arrasaten errotutako ekintza kolektiboa, beraz, aldaketa makrohistoriko horien arnasean ulertu behar dugu, bai bere barne-antolakuntza aldaketak (sare malgu toyotistaren itxurarekin) zein nazioartera egindako zabalpena.

Gizarte mugimenduek ezaugarri bat badute loturan, hori aldaketa soziala bilatzearena da. Mugimenduaren beraren ezaugarrien eta helburuen arabera bere lurraldeko bizitza politikoan eragin nahiko du, edo bestelako dimentsioetan eraldaketak bilatu. Sztompkari (1993) jarraituz, gizarte mugimenduen ekintza lau plano ezberdinetan aldaketak lortzera bideraturik egon liteke. I) errealitatearen ulermen-marko eta interpretazio eskemetan, hau da, egitura diskurtsiboan ii) jokabide sozialen-arau eta gizarte-balioetan iii) bizitza politikoan eragingo duten antolakundearen eraikuntzan iv) aberastasunaren banaketa zorrotzagoa eragingo duen antolakunde sistemetan.

Gizarte mugimendu bakoitzak bere bereizgarri eta ezaugarri propioak izanik, alderdi bat edo beste indartu dezakete euren praktika politiko-sozialaren ipar gisa. Nabaria da Arrasateko Kooperatiba Esperientzia ezin dugula bestelako herri edo gizarte mugimenduen izaerarekin parekatu, bere kokapen sozioekonomikoa, antolakuntza formala eta botere posizioa kontuan hartzen badugu⁵⁶. Hain justu, mugimendu sozial berrien teoriarari Alberto Melucci soziologo italiarrak zehazten du, gizarte mugimendu berriek elkartasun sareak josten dituztela esanahi kultural indartsu baten itzalpean eta ezaugarri hori dela hain zuzen ere bestalako eragile politiko eta antolakunde formaletik bereizten dituen (Melucci, 1995: 53). Alabaina ezin dugu baztertu ere AKEren sen herrigilea hasieratik bertatik oso presente egon den ezaugarria dela. Jon Sarasua soziologoak eta kooperatibismoan adituak hala deskribatzen du sen herrigile horren presentzia:

“Kooperatibismoaren lehen hamarkadetan badago konponente politiko-filosofiko bat, ez bakarrik barrura begirako mekanismo demokratikoei buruz, baizik baita ere herrigintzara begirako papelari buruz. Nolabait esanda, fundatzaileetan oso garbi ikusten da hori. Jubilatuta eta gero ere hor jarraitu zuten hirugarren munduraren aldeko taldeak sortzen, inplikaturik ekologian baso

⁵⁶ Gizarte zientzietan herri mugimenduak modu ezberdinean definitu izan badira ere, indarrean dauden botere konfigurazioak eraldatzeko eta zapalkuntza-sistemak desagiteko bulkada duten indar politiko antolatuta modura definitu ditzakegu.

autoktonoak sustatzen... burua zuten enpresan, baina burua zuten ikastolak sortzen, herriko parrokian laguntzen, burua zuten ekologian, hirugarren munduko kooperazioan... hau da sortzaileak herrigile todoterrenoak ziren. Ez guztiak agian baina arima hori hasieratik dago presente Arrasaten.” (Jon Sarasua, elkarrizketa)

Sen herrigiletik aparte ordea, literatura akademikoan indargune bat aipatu bazaio, bere antolakundearen ekimen propioaren bidez lortu dituen aberastasun sortze eta banaketa mekanismo eraginkorra izan da, gizarte mugimendu bereizi eta zentzu horretan arrakastatsu izatera iritsi dena. Hala, mugimendu sozio-enpresarial modura definitzen du Lanki kooperatibagintzaren ikertegiak, esku artean duguna zehaztasun handiagok definitze aldera. Definizio horren arabera, kooperatibagintzak bi alde horiek hartuko lituzke kontuan: batetik enpresaren bideragarritasunarekin zorrotzak izatea eta bestetik helburu enpresarialetik haratagoko ekimen sozial eta humanoa (Loiola eta Kareaga, 2020: 12). Dena den, eta gizarte mugimenduen definizio klasikoarenagana gehiago gerturatuz, ez da baztertu behar kooperatibek eraldaketa sozialarekin izandako harremana. Hala diote Ortega eta Uriartek:

“Arrasateko kooperatibagintzaren garapena ezin da ulertu esperientzia kooperatiboaren eraldatzeko senari erreparatu gabe. Izan ere, Arrasateko eredu kooperatiboaren hedapenaren muinean enpresa eredu demokratiko eta solidario baten bitartez gizarte bidezkoago eta gizatiarragoa eraikitzeko indar eragilea nabarmendu behar da. Eredu horretan, tokiko gizartearen garapen ekonomiko eta sozialerako tresna gisa ulertzen da enpresa” (Ortega eta Uriarte, 2015: 36).

Aldaketa sozialarekin izandako konpromisoak eta harremanak ez du intentsitate eta tentsio puntu berbera mantendu kooperatibagintzaren bilakaeran. Aipatu beharrekoa da hastapenetako urteetan egondako *olatu kooperatiboa*-ren dinamika eta 80ko hamarkadan globalizioaren zabaltzeak ekarritako agertokian eraldaketa sozialarekin izandako lotura zentzuz eta edukiz ezberdina dela.

Dena den, ezin esan liteke aro globalean sartzean AKE-ren egiturak erabat malgutu eta lausotu direnik. Ukaezina da kapitalismo industrialaren baitako eragile den neurrian egitura material sendoak mantendu behar izan dituela. Tesi post-materialisten testuingurura itzuliz, zail egiten zaigu Arrasateko Kooperatibismoan aldarri materialen ideia ezabatu dela zehaztea, oraindik orain bere bulkada nagusien artean aurkitu baitezakegu aberastasunaren banaketa justuagoa eta justizia sozial eta materialaren nahia, aurrerago ikusiko dugun legez.

Iglesias-ek dio (2005) hurbilpen post-materialista horiek errazegi ahaztu dutela gizarte mugimenduen jatorrizko aldarrikapenak balio materialistekin loturik egon direla. Are, ez dituzte kontuan hartu Thompson edo Gramsci moduko autoreen lanak, zeintzuk herri eta langile mugimenduak ulertzeko gako holistikoak ematen dituzten. Alde batetik, elkarte kulturalaren fenomenoaz aztertzen dute eta bestetik ez dituzte analitiko kanpo lagatzen gizartearen konfigurazioa gurutzatzen duten alderdi ekonomiko-estrukturalak. Iglesiasen tesia jarraituko bagenu, Arrasateko Kooperatibismoa aztertzerako garaian faktore kulturala oso garrantzitsua den arren bere baldintza material eta historikoak kontuan ez hartzea zabarkeria litzateke.

Ezin dugu baztertu kapitalismo industrialaren garapenak eta nazio-estatuen egonkortzeak zabalduetako agertoki historikoan egin behar izan duela bidea mugimendu kooperatiboak. Ezaugarri sozio-historiko horrek asko markatu du bai bere

mugimenduaren izaera zein jarduna, eta baldintza horietara egokitu behar izan du bere antolakuntza sistema, autoeraketa prozesu sofistikuaren bidez. Ukaezina da, beraz, agertoki historiko-sozial modernoak bere aztarna utzi duela mugimendu kooperatiboaren bilakaeran eta Weber eta Michels-ek aztertu bezala, dinamika propioak garatu dituela egiturak berak, partaideen borondatek haratago doazenak.

Hala, antolakunde heldu eta ondo errotuaren lege soziologikoari jarraiki biziraupeneko kooperatibagintza (Ortega eta Uriarte, 2015:38) garatzen ari dela aztertu da. Eraldaketa sozialarekiko pasio gutxiago eta dagoenaren mantenuarekiko arreta gehiago eskaintzen duen dinamikan murgilduta, edozein erakunde helduren antzera. Nolanahi den, eraldaketa sozialarekiko konpromisoa berpizteko iritzi nahiko orokortua dagoela ikertu dute Ortega eta Uriartek, eta mugimendu izaerarekin ostera ere konektatzeko urratsak emateko baldintzak badaudela iradoki:

“...halako behar bat sumatzen da Arrasateko kooperatibagintzaren proiektuaren oinarriak berregiteko eta berrosatzeko, modu horrexetan lortuko baita gizakiak gaur egun dituen helburuekin konektatzea, proiektuari zentzua ematea eta MONDRAGONen irudia (enpresaren imajinorantz lerratu samarra agian) emantzipazio sozialera bidean esperientzia interesgarri gisa aurkeztea. Hein batean, kutsu sindikaleko diskurtsoei aurre eginez, galdutako autoestimua berreskuratzeko bidea egitea litzateke, proiektuaren izaera emantzipatzailea aldarrikatzea.” (Ortega eta Uriarte, 2015: 39)

Era berean, gizarte mugimenduen analisisian leku zentrala izaten du mugimendu horren gidaritzak, nork, zein diskurtsorekin eta ze karisma gaitasunekin diharduen. Gizarte mugimendu orok behar ditu lidergotzak, erreferenteak eta inspirazio-iturriak, baina eragile sozial ugari sartzen dira jokoan, baita garaian indarrean dauden narratibak, motibazio-indarrak eta legitimazio ideologikoak. Eliteek gidaritza funtzio nabarmena jokatzen dute, eta funtsezko eragile izaten dira edozein mugimenduren kokapen eta ibilbidean. Lidergotza paper hori jokatzeke kapital sinbolikoa bildu beharra dute lehenbizi, eta hori duten diskurtsoaren, dituzten merituen edo borondateak batzeko erakusten duten gaitasunaren arabera izan daiteke.

Sztompka-ren tesi ezaguna da gizarte mugimendua beti dagoela baldintza historiko jakinetan emana, eta bere eginkizuna izan ohi dela oinordekotzan datozkien ikuspuntuak, ohiturak, jardunbideak eta motibazioak sailkatu, aukeratu eta modu berri batez ordenatzea (Sztompka, 1993). Berritasunaren itxura izanagatik, sekula ez da modu absolutuan izango, aurrez ezagunak ziren kode batzuei erantzun gabe, ez da izango ezerezetik sorturiko zerbaite. Ildo horretan, Arizmendiarietaren papera aipatu eta aitortzea ezinbestekoa da. Arrasateko mugimendu kooperatiboaren eraikuntzan eta gidaritzan izan duen paperak merezi du aipamenik. Hala, tesi honetan egingo ez badugu ere, funtsezkoa iruditzen zaigu Arizmendiarietaren figura eta AKE-k bere heriotzatik aurrera izan duen bilakaeraren inguruko analisia egitea, Soussa Santos soziologoak dioen moduan, karismak ez baitu trantsiziorik onartzen.

Laburbilduz, Arrasateko kooperatibismoaren azterketara hurbiltzen garen neurrian, uste dugu beraz ulertzeko funtsezko faktoreak direla Deba bailaran 40ko eta 50ko Hamarkadan zegoen behar material-ekonomiko larria, baina baita Elizaren doktrina sozialetik eta auzolanaren kulturatik ekarri ziren elementu bateratzaileak, agregazio kulturalerako eta ekintza-ildoak markatzeko balio izan baitzuen. Era berean, eredu sozial eta produktibo fordistarekin amaitu izanak, erakundetze sofistiku batek eta nazioarteko merkatu global agresiboetara ireki beharrak asko markatu du kooperatiba esperientzia,

zentzuz zein edukiz. Mendebaldeko Europan 80. hamarkadan gizarteak kudeatzeko martxan jarri ziren dispositibo kapitalistek ere asko baldintzatu dute bere jarduna, bai eta bere oinarri soziologikoaren konposizioa itxuraldatu ere, toki ezberdinetatik etorritako lan-indar kualifikatuaren eraginez eta nazioarteko lan banaketaren baitan asian zein hegoamerikan sorutako produkzio planten eraginez. Agian, zentzu honetan analisi sakonago batera iristeko aztertu beharrekoa da kapitalismoaren eraldaketaren eta kooperatibismoaren praktikaren arteko harremana nolakoa izan den.

Nolanahi den, Arizmendiarietaren figura zentralari muzin egin gabe, bere pentsamenduaren gako batzuk aztertuko ditugu jarraian, AKE-ren oinarri ideologikoak ulertzeko beharrezkoak baitira.

5.3 Kooperatibismoaren erro pertsonalista, Arizmendiarietaren oinarriak:

Gerra osteko bailara hartan
abaildurikan gehienak
Sirena-hotsak lantegitako,
sartu-irteren deienak
Hori eskatzen du industriak
Produzitzearen angustiak
Sortutako hasperenak...
Zergatik jardun besterentzako
Maiz bestea beste denak?
Lanak helburu bera ez al du
Nireak ta besterenak
Arizmendiarieta buru
Pentsatu zuten: "Iortuko dugu
Berdin entzutea denak..
Sirenak ta ez zirenak." **Andoni Egaña.**

Sirenak eta ez zirenak. Hobsbawn historialariak dio, gizateriaren %80arentzat erdi aroa XX. mendeko 50ko eta 60ko hamarkaden artean bukatu zela (Hobsbawn, 2012: 261). Munduko biztanleriaren gehiengoak neolitikoko bizi-estilo antzeratsua mantentzen zuen, komunitate tradizionaletan lurra emandakotik bizitzen, abeltzaintza edo arrantza praktikatzearekin batera. Horregatik, XX. mendearen bukaeran gertaturiko eraldaketa gizakiaren historiako eraldaketarik sakon eta intentsoena izan dela dio, bai bere azkartasunagatik eta baita bere unibertsaltasunagatik ere.

“Es verdad que las zonas desarrolladas del mundo - o sea, a efectos prácticos, La Europa central y occidental y América del Norte- hacía tiempo que vivían en un mundo de cambios, transformaciones tecnológicas e innovaciones culturales constantes. Para ellas la revolución de la sociedad global representó una aceleración, o una intensificación, de un movimiento al que ya estaban acostumbradas (...) Pasó bastante tiempo antes de que la gente se diese cuenta de la transformación del crecimiento económico cuantitativo en un conjunto de alteraciones cualitativas de la vida humana.” (Hobsbawn, 2012: 291)

Azkartasuna, hiriguneetan pilatzea eta mendeetan izandako jokabideen (eta ziurtasunen) desagiteak ezaugarritu zituen urte horiek. Bizi-forma tradizionaletatik aterarazi zituzten masa langileak, hirietara lan-indarra saltzera beharturik.

Zaurgarritasun egoera nabarian eta bizi-baldintza eskasetan bizimodua egitera beharturik, kapitalismo industrialak sorturiko klase sozial berriak Egañak ez zirenak moduan definitu dituenak lirateke, ezkutuan daudenak, izenik gabeak, ez zirenak eta sirenak elkarbizitzera kondenaturik zeuden aro historikoa. Historialari ingelesak XX. mende bukaerako paradoxa komunitarioa planteatzen du. Hazkuntza ekonomikoa eta ongizate materiala sekula historian aurrez ezagutu gabekoa izanagatik ziurtasun eta babes komunitarioa inoizko ahulena da. Lotura sozial iraunkorren eteteak egonezin eta kezka espiritualaren hedatzea ekarri du, jokatzeko, pentsatzeko eta sinesteko balio-multzo oso bat desegin baitzen biztanleriaren zati handienarentzat. Horra hor ostera ere komunitatera itzultzeko deien arrazoiak:

“El drama del hundimiento de tradiciones y valores no radicaba tanto en los inconvenientes materiales de prescindir de los servicios sociales y personales que antes proporcionaban la familia y la comunidad (...) radicaba en la desintegración tanto del antiguo código de valores como de las costumbres y usos que regían el comportamiento humano, una pérdida sensible (...) Por ello surgen llamamientos en pro de una comunidad a la que pertenecer en un mundo anómico, de una familia a la que pertenecer en un mundo de aislamiento social; de un refugio en la selva.” (Hobsbawn, 2012: 343)

Nola ehundu, beraz, ostera ere komunitatea? Nola bilakatu sendo lokarri komunitarioa? Puntu honetan Arrasateko Kooperatiba Esperientzia posible egin duen pentsamendu oinarri batzuk azaltzea beharrezkoa zaigu. Hobsbawn-ek azaltzen duen balio-galera prozesua berrehuntzeko eta ortzimuga berrietara begira jartzeko saiakera egin baitzuen Arizmendiarietak. Esan behar da, hala ere, Arizmendiarieta Arrasateko Kooperatibismoaren garapen eta gidaritzan erreferentziazko pertsona izan bazen ere, ezin dugula azaldu esperientzia kooperatibo honen jaiotza eta bilakaera pertsona bakar baten pentsamendu eta erabakietatik soilik. Nolabait, distantzia hartu nahi dugu Arizmendiarietazentristotik, eta azpimarratu lidergotza papera jokatu bazuen ere, funtsezkoak direla garaiko testuinguru sozioekonomikoarekin eta Deba Bailarako gizartearekin loturiko azalpenen baitan ulertzea bere ekarpena.

Elizgizona bera, Elizaren doktrina sozialetik zetozen planteamenduak bere egiten zituen, ongizate kolektiboa bilatzea eta norbere interes berekoiak alde batera lagatzea helburu zituena. Ingalaterratik etorri ziren kooperatibagintzari loturiko esperientziak interesatu zitzaizkion, ekonomia herritarren zerbitzura egon zedin aldarrikatuz. Nolabait, industrializazio prozesu oso gogor eta bortitza bizi izan zuen Ingalaterrak, Marxek *jatorrizko metaketa* kapituluan azaldu zuena. Errotu zen produkzio molde kapitalistak eragiten zituen kontraesanak nabarmenak ziren, gatazka sozialen, miseriaren eta ondoez kolektiboaren iturri. Arizmendiarietak kontraesan horien korapiloak askatu guran, erantzun esangururatsuenetariko bat, gerora bere ekintzen norabidea markatuko zuena, konstruktibismoaren ildoan topatu zuen. Konstruktibismoan esango zaio gizakia bera dela bere buruaren igeltsero, bere asmakuntzarako eta sormenerako gaitasunaren bidez bera eta hurbileko ingurua eraikitzeke ahalmena daukala.

Bere proposamenaren zentzua ulertzeko, testuinguru historikoak faktore azaltzaile asko eskaintzen dizkigu, gizartea erabat kolpatua zegoela aurkitu baitzuen Arizmendiarietak 40ko hamarkadan Arrasatera iritsi zenean. Espainiako gerrate zibileko gertakariak erabat baldintzatu zuten Arizmendiarietaren errealitatea ulertzeko modua. Gerraostea, Deba-bailara, fronteak gogor kolpaturiko ingurua, gutxieneko bizi-baldintza materialak asetzeko ere larri. Arizmendiarietak komunitate eraikuntzaren prozesua beharrezkoa

zela irakurri zuen berehala, ikasi, autoformatu eta aditu bilakatu sektore jakin batzuetan, inoren apurrak eskatzen ibili behar ez izateko. Planteamendu hori abiapuntutzat harturik formulatu zuen horren ezaguna egin zen esaldia “Jakintza sozializatu, boterea demokratizatzeke”. Nolabait, komunitate batek industria-ekoizpenerako gaitasun erreala erakusten badu, bere burua autoantolatu eta kokapen sozial indartsuagoa lortzeko moduan egongo da, are, botere-kuotan ere irabaziko du. Eragile esanguratsua izango da ekonomian, politikan edo kulturari, bere ahotsa entzunaraziko du eta bestelako eragileekin negoziatzeko kokapen hobea izango du, bestela esanda, boterea demokratizatuko da. Interes, eragile eta sare askotarikoak kontuan hartu beharko dira komunitate osoari eragiten dizkieten erabakiak hartu nahi izatekotan.

Arizmendiarietaren komunitate eraikuntzaren oinarritzko planteamenduetako bat bada, langileek eurek emantzipatu behar dutela euren burua, duten lan-gaitasuna ahalik gehien erabiliz. Mounier eta Maritain moduko pentsalariak irakurri zituen, kolektibismo sobietarretik eta eredu kapitalista anglosaxoietik urrunduta eta hirugarren alternatiba bat planteatzen zutenak, doktrina pertsonalista eta gertuko komunitatearen bidez⁵⁷. Era berean, Ingalarretako laborismoan aurkitu zuen ipar teoriko eta praktikoa interesgarria, lana bera emantzipaziorako bidetzat zeukana.

Komeni zaigu puntu honetan begirada pausatuagoarekin azalpenak bilatzea. Izan ere, Arizmendiarietaren lana goresteko eta gizakiaren emantzipaziorako tresna ezinbesteko gisa ikusteko joera horrek bere erro historikoak baditu. Bere pentsamenduak asko edan zuen lanaren filosofiatik, batez ere Hegel eta Marx-engan gorpuztu zena. Lanaren zentzu soziala mespretxagarria izan da historiako garai gehientsuenetan, zehazki, latinezko *tripalium* berbak, gaur egungo *trabajo*, *travail* edo *treball* hitzetan itxuraldatu direnak, torturarako tresna esan nahi zuen. Hizkuntza indogermanikoetan hartu dituen adierak ere miseria, premia gorri, gabezia eta txirotasunarekin dute lotura. Bestela esanda, historikoki eman zaion esanahi sozialean, lan egin behar zuenak kondena bat bete beharra zeukan, ez zen inondik inora miretsi zitekeen edo prestigio soziala zekarren jarduera⁵⁸. Alabaina, pizkundearrekin, gizarte industrialen agerpenarekin, jainkoaren heriotzarekin (Nietzsche) eta antropozentrismoaren gorakadarekin esanahi historiko hori goitik behera irauliko da, Marx-ek Feuerbach-i buruzko tesietan emandako sententzia ezagunarekin “Filosofoek mundua modu ezberdinetan interpretatu besterik ez dute egin, baina berau eraldatzea da kontua”.

“El primer paso a dar y fundamento del movimiento cooperativo es la toma de conciencia de la dignidad del trabajo, tanto como opción de realización personal, como de contribución efectiva al bienestar común y consiguiente testimonio de solidaridad humana” (Azurmendi, 1984: 270)

⁵⁷ Mounierren doktrina pertsonalistak gizakia bera jartzen du iraultzaren helburu. Krisialdi moral eta espiritualaren garaian egin zituen bere formulazio teorikoak, “gizaki berria” edo “zibilizazio berria” ezinbestekoak zirela aldarrikatzeko. Ekinbide politikoaren erdigunean pertsonaren askatasuna eta duintasuna jarri gura ditu, printzipio ekonomikoak pertsonaren zerbitzura egon beharko luketela defendatuz. E. Mounier (1972) *Manifiesto al servicio del personalismo*. Taurus. Madril.

⁵⁸ Zentzu horretan sakontzen duten lanak dituzte Andre Gorz eta Robert Kurz autoreek. Lanaren zentzu modernoa ateratzen dute argitara bi kontu ezberdinez: batetik, gizakiak naturarekin duen hartu-emana (unibertsala eta iraunkorra aro historiko orotan), bestetik, ekonomia politikoaren baitan langileak burutzen duen jarduera.

«El trabajo es vía de autorrealización personal y solidaria, de perfeccionamiento individual y mejora colectiva; es el exponente de una conciencia humanista y social más incuestionable» (Ibid. 277)

Erroko aldaketa bat dago hemen, gizakiaren historia unibertsalari eragiten diona modu zuzenean, hau da, ekiten duen gizabanakoak hartuko du protagonismoa aro historiko berrian, ez ingurua begiratzen duenak. Gizaki aktiboa da beharrezko, ez interpretatiboa. Are gehiago, lan egitea Jainkoarekin kooperatzeko modua dela defendatuko du Arizmendiarietak, eta hain justu horregatik, soilik lanaren bidez lor dezake bere askapena. Bere planteamendu filosofikoetan “zer da gizakia?” galderari erantzuna ematen saiatu guran, berau izaki bukatugabe eta osatugabetzat jotzen du. Soilik ekintza praktikoaren bidez hurbil daiteke gizakia perfekziora. Horrenbestez, perfekziora hurbiltzeko tresna hori, gizakiaren kasuan, lana izango da.

«El hombre no es un simple espíritu que piensa, siente o ama o se desenvuelve a su propio aire, a tenor de unas leyes que regulan la vida del espíritu. Es un espíritu el suyo que se encarna en la materia y que halla su perfección en el trato con los objetos materiales (...) Dios ha querido que este nuestro espíritu humano, aparentemente encarcelado en una naturaleza material, pero dotado de una inteligencia y de una voluntad —resortes espirituales— conociera de cerca las leyes de la naturaleza y mediante su actividad secundaria el propósito de Dios de completar su creación” (Azurmendi, 1984: 373)

Barren-barrenean eragin zion planteamendu honek Arizmendiarietari, hezkuntza, lana eta inguruko errealitate soziala aztertu zein bere gain nola ekin pentsatzerako orduan. Lanak egiten gaitu gizaki, hori da oinarrian duen planteamendu humanista. Era berean, lanaren bidez natura eraldatu eta bere burua hornitzeko aukera biderkatzen duela gizakiak dio, modernitateko natura-gizakia dikotomia klasikoa bere eginez. Alegia, natura hor kanpoan dagoen zerbait da gizakiari zerbitzu emateko. Ikuskerara moderno kristau horrek soilik Jainkoa jartzen du gizakiaren gainetik, gainontzeko espezie eta izaki bizidunak lanaren bidez erabilgarri eta moldagarri izan daitezkeela onartuta:

“Mediante el trabajo provee el hombre a sus necesidades y amplía las posibilidades de la naturaleza. La naturaleza, sin la cooperación y trabajo del hombre, sería hoy una madrastra que no podría sustentar la actual población mundial” (Azurmendi, 1984: 274).

Azpmarragarria da eztabaida ekologistan hartu zuen kokapena natur kontserbazionisten aurkakoa izan zela. Industriak eta urbanizazio azkarrak herritarren bizi kalitatea kaltetzen zutela onartzen zuen, baina natura eta lurrak arrazionalki kudeatzeko premia zegoela defendatzen zuen. Nolabait, gizakiak lanaren bidez lurraren potentzial guztiak zukutu behar zituela.

“Aún cuando alude a que la industrialización y urbanización precipitadas de los últimos años van convirtiendo la tierra vasca en inhabitable, Arizmendiarieta no opone un respeto pasivo de la naturaleza, sino una transformación más racional de la misma. Si es mucho lo que malamente se ha destrozado, Arizmendiarieta lamenta que nuestros pueblos estén rodeados de tantos espacios y tantas zonas «que se ofrecen a nuestra contemplación, tal como las generara la naturaleza virgen, sin que ninguna presencia racional y superadora del hombre las transformara» (Ib. 245). Es siempre la «naturaleza domesticada», no la «naturaleza natural», la que merece los respetos de Arizmendiarieta” (Azurmendi, 1984: 276).

Dena den, garaian agertzen ari ziren kezka ekologikoei aipamena egin, eta garapenkeria itsu batean sartzeak zentzua galtzen zuela azpmarratu zuen, norbere komunitatearen etxea zaindu eta edertzeko erabili beharra zegoela ekonomia:

“El trabajo, dice, transforma y fecunda la naturaleza, rindiéndola a las exigencias del hombre. Pero no podemos seguir un desarrollo ciego que destruye nuestro habitat. Los cooperativistas hemos realizado la reestructuración de la empresa, tratando de hacer de la misma una comunidad. Para «estar en Europa a lo europeo» será preciso proceder a la revisión y remodelación de más estructuras y hábitos que los del sector industrial; deberemos reordenar nuestra situación con más visión del futuro, aspirando «a que la economía no desfigure en ninguna vertiente nuestro país, sino la embellezca y nos la haga más grata mansión bajo todos los aspectos» (Azurmendi, 1984: 360)

Lanaren bidez dauka gizakiak bere gaitasun goren eta sofistikatuenak garatzeko modua, arrazionaltasuna, elkartasuna etab. Bulkada naturalen, pasioen eta bestelako eragin emozionalen etorria gaintzeko era aurkitzen du gizakiak lanean, gainontzekoekin parekatzen du eta bere ezaugarri kooperatiboak azaleratzeko aukera ematen dio (Azurmendi, 1984: 374). Esanguratsua da atal hau komunitate kooperatiboaren inguruko pentsamendu Arizmendiarritarra ulertu nahi badugu, bere komunitatea ulertzeko eta bere gain ekiteko modua hertsiki lotua egon baitzen lanaren gainean zituen goeto eta kezkekin.

Idea garbi horrekin egin zuen lan. Konferentziak eta eskolak ematen zituen nonahi, talde sozial oso ezberdinen aurrean, bertan lantzen ziren diskurtso, ideia eta mundu ikuskerek ondoren gauzatze zehatz bat izango zutela aurreikusi eta bilatuz. Komunitate sendo eta buruaskiaren eraikuntzarako lan-tekniko eta aditua bezainbeste landu behar ziren mundu ikuskerak apaizaren iritzian. Teknika eta ideiak, txanpon beraren bi aldeak zirela sinetsia zegoen. Erabateko garrantzia ematen zion kontzientziak lantzeari, egiazko konbentzimendu eta mundu ikuskera sakonak eraikitzeari. Teknikan formatzea ezinbestekoa bazen ere, zergatik eta zertarako galderari erantzuna ematen jakiteak are garrantzia handiagoa zeukan. Konbikzioarekin jardungo zuen jendearen premia nabari zuen:

“Konbentzimenduak dituen jendea behar dugu. Konbentzimenduak ez dira gauzen azaleko informazioa ematearekin soilik loratzen, egin eta landu behar ditugu (...) bere buruaren duintasunaren kontzientzia izango duten gizonak hezi behar ditugu, beren erantzukizuna barneratuko dutenak. Munduan duten kokapena zein den eta bizitzako helmuga zein duten argi izango duten pertsonak. Hori da modu bakarra masen barnean ez urtzeko, ur tantak ozeanoan nola” (Azurmendi, 1984: 166)

Mundura deituak izan bagara, esango digu Arizmendiarrietak, ez da ingurura begiratu eta dena zein gaizki dagoen konturatzeko, bertan eragin eta eraldatzeko baizik. Bere hausnarketak beti zeuden ekintzari zuzendurik. Pentsamendu Kantiarra oso bere egiten zuen, gizakiak bere burua eraikitzea du patu, ekintzaren bidez marraztu dezake existentzia ia-perfektua.⁵⁹ Hezkuntzak erabateko protagonismoa du langintza horretan, giza perfekziora iristeko bidean. Pentsamendu-ildo hori ilustratzeko Kanten honako aipu hau darabil:

«Quizá la educación vaya haciéndose cada vez mejor y cada generación sucesiva dé un paso más de aproximación hacia el perfeccionamiento de la humanidad; pues en la educación radica el gran secreto de la perfección de la naturaleza humana (...). Es delicioso imaginar que la naturaleza sea por medio de la educación desarrollada cada vez mejor, y que pueda alcanzar una forma que sea digna de la humanidad. Esto nos abre la perspectiva de un género humano más feliz. —Un proyecto de teoría de la educación es un espléndido ideal, y nada perjudica que

⁵⁹ Hezkuntzari buruz zuen ideia Kant-engandik hartua da. Zehazki filosofo ilustratuaren *Pädagogik* lanetik.

ahora mismo todavía no estemos en situación de poder realizarlo. No se debe sin más calificar de quimérica la idea y difamarla como bello sueño, aunque en su realización sobrevengan obstáculos—. Una idea (ideal) no es otra cosa que el concepto de una perfección que todavía no se encuentra en la experiencia” (Azurmendi, 1984: 203)

Gizartea egituratu eta antolatzeko moduak berrikusi, birpentsatu eta berrasmatzeko ariketa egin zuen, gertuko komunitateari erabateko protagonismoa aitortuta. Ez soilik ekoizpena eta aberastasunaren banaketa antolatzeko orduan, baita hezkuntza ibilbideen ezaugarrietan ere, hor ulertu zuen komunitatearen autoeraketarako zutabe estrategikoa zegoela. Ikusten zuenez, bizitzako fase bat hezkuntzara soilik bideratua egoteak eta lan munduarekin harreman zuzenik ez izateak gabezi handiak zekarzkie bai ikasleari zein langileari eta ondorioz, komunitateari. Formakuntza bizi ibilbidean zehar inoiz eteten ez den prozesu gisa ulerturik, ulertu zuen gaztetatik hasi beharra zegoela hezkuntza/lana esparruen arteko zubiak eraikitzen. Ikasleak langile, langileak ikasle. Langileen hezkuntzaren ardura izango zuenak ere behar zuen hezia izan, menpekoaren hezkuntza “menpekoarekin eta ez menpekoarentzat egin beharko da”, zioen. Komunikazioa da funtsa, etengabeko elkarrizketa eta ikaskuntza:

«Es a través de este que se opera la superación de la que resulta un nuevo término: no ya educador del educando; no ya educando del educador, sino educador-educando con educando-educador. —De este modo, el educador ya no es sólo el que educa sino aquel que, en tanto educa es educado a través del diálogo con el educando, quien, al ser educado, también educa. Así, ambos se transforman en sujetos del proceso en que crecen juntos y en el cual los argumentos de la autoridad ya no rigen” (Azurmendi, 1984: 204)

Arrazoi ezberdinak zituen eredu horren baliozkotasuna eta premia defendatzeko, guztiak ere gizarte-egitura justuagoak eta parekideagoak eraikitzeari begira, bere hizkera erabiliz, gizakiaren *perfekzionamendura* hurbiltzeko ariketa bezala.:

- Aukera berdintasunaren egikaritzea: Ikaslea lanean egonez gero bere jardunaldiaren zenbait ordutan, ikasteko aukera ez du bere familiaren kokapen sozioekonomikoak (errenta maila, kapital sozial eta kulturala...) erabakiko, bere burua autofinantzatu ahal izango du ikasleak, formatzeko eta trebetasun zein adimen bereziak garatzeko. Langile familia edo auzo batean jaio izanak ez du determinatuko, ehuneko ehunetan bederen, norbere ibilbide profesionala, jakintza ez da izango klase pribilegiatu zenbaiten kontua, gizartearen luze-zabalean hedatu ahal izango da.
- Ideien mundutik, eraldaketa praktikora: uste zuen ikasleak ikastetxean lantzen dituen ideiak eta hausnarketa ildoak praktikara ekartzeko aukera emango ziola lanak. Lana gizarte eraldaketarako taupada ezinbestekotzat ulerturik, ikasleak bere eguneroko praktikaren bidez ikastetxean landutakoa egikaritu dezake, egiturak eraldatuz eta komunitateari norabide berri baterako bidea marraztuz.
- Autoeraketa eta eraginkortasun kooperatiboa: Gizakiaren trebetasun intelektual eta fisikoak sozialki lantzen diren ezaugarriak direla sinetsirik, Arizmendiarrietak hezkuntza prozesuari egozten zion trebetasun horiek zukutzeko ardura. Lankidetzak, ekimen propioa, sormena eta eraginkortasuna ardatz izango dituen norbanakoa ekoitzi daiteke, eta jardun horretatik eratortzen den aberastasuna egitura autonomoak zurkaizteko erabili.

Bada, gogoeta horietatik hezkuntzara jauzi eginez, argi zeukan irakaskuntza zela lurzoru komunitarioa ureztatzeko lehen ur iturria. Soilik ongi formatutako herritarrek eraiki ahalko dute etorkizun oparo eta emankorra, garai berrietara egokitzeko gaitasunarekin. Hezkuntza da ekonomiaren lehen atala, hezkuntzarik gabe ezin baita ez ondasun ez eta zerbitzurik ere zirkulazioan jarri. Are, iruditzen zitzaion bere burua formatua duen eta formatzen dakien komunitatearentzat, lanpostu sorkuntza, jardun industrialak edo merkatuaren gorabeherak bigarren mailako arazo izango zirela, hezkuntza kultural eta profesional sakona badago, egoera arrotzen aurrean ekiteko gaitasuna ere indartsua izango da. Noski, ekonomia politikoaren logika nagusiak ez bezala, hezkuntzan baliabideak jartzeak ez du berehalako errentagarritasunik eskaintzen, apurka-apurka lurra landu beharra dago, hazia landatu, urteetara loratu dadin. Era berean, gaitasun analitiko eta intelektual altuko komunitate insituzionalizatu batek, unibertsitatearen edo ikerketa-zentro ezberdinen bidez demagun, munduaren norabidea usaintzeko eta aldaketetei aurrea hartzeko gaitasuna garatu behar luke teoriarik, beti berritzen ari den errealitatea interpretatzeko.

Igarri daiteke Arizmendiarrietaren ikuspegi kulturalista hori nahiko ondo ezkontzen dela tesi honetan egin dugun apustu teorikoarekin; hots, subjektibotasunen eraldaketaren teoria. Arrazoitzeke modu hori jarraituko bagenu, esan liteke krisi ekologikoak langile-kooperatibistaren formakuntzan eta mundu-ikuskeran integrazteko aukera esakintzen duela. Alegia, krisi ekologikoaren gaineko kontzientzia jakintza zehatz bat (krisi ekologikoaren eta sozialaren diagnostikoa landu eta ulertzea) barneratzea da neurri batean. Edo esan liteke beste modu batean, Kant-ek hezkuntzari buruz zuen giza perfektzioaren ideia berhartuz: krisi ekologikoari aurre egingo dion giza espeziea, espezie aurreratua, kultura, ikasia izango da, giza-perfekziora hurbiltzeko saiakeran murgildua dagoena. Izan ere, hezkuntza eta lana uztartzearen ideiak itzulpen zuzena du transizio ekologikoan, hezkuntza eremutik datorren jakintza hori txertatu behar baita ekoizpen prozesuetan. Lana, irizpide sozial eta ekologikoen galbahetik pasata gauzatu, hain zuzen ere.

Arizmendiarrietak izan baitzuen bi munduak -hezkuntzarena eta lanarena- uztartuko zituen formula asmatzearen bulkada, lanbide eskola. Hezkuntza eta lana ulertzeko modu batetik badator ere, gehiago du errealismo eta pragmatismotik, beste autore garrantzitsu edo esperientzia emankor batzuen ezagutza eta irakurketatik bainoago. Ikasleen beharrei erreparatu zien, iruditzen zitzaion ikasle eta aldi berean langile izate horrek balio erantsi bat ematen ziola ikaslearen heziketa prozesuari, aitortza bat zekarkion lanak, kokapen eta aitortza soziala eskaintzen zion. Eraginkortasun pedagogikoa da agian, Arizmendiarrietak buruan darabilen kontzeptua, bi munduetatik edan dezan ikasle-langileak, bai kultural-sinboliko-espirtualetik zein lan-produktibo-industrialetik. Garbi ikusten zuen biak adin gaztean uztartuz gero eta bi munduen ezagutza izatea ahalbidetuz gero, lana eta kultura elkarri lotuta leudekeen bi eremu izatea lortuko litzateke horrela, komunitatearen sendotzea lagunduz. Are, hezkuntza aktiboan murgiltzen den lana *jardun abertzale* modura definituko du, aberria humanizatuko duelako eta baita ekologikoki eraldatu ere. Zergatik ez pentsatu, bada, antzeko terminoetan erronka ekosozialaren garaian?

“Se trata de humanizar, transformar ecológicamente el país, más que de enriquecerlo o industrializarlo: «¿No pueden ofrecer estos espacios que circundan a todos nuestros centros urbanos, sin carecer de muchas de las ventajas de las zonas urbanizadas, nuevas oportunidades

para la promoción de un complejo de pueblos o ciudades que, a una con las factorías, ofrezcan otros centros de actividad creativa y utilitaria para que configuremos un país de trabajo con trabajadores y ciudadanos que no sean dos clases o castas?” (Azurmendi, 1984: 225)

Giza gaitasunak landu eta garatzen diren esparru gisa ulertu zuen hezkuntza, ondoren aplikazio praktikoa izango zuena lanaren munduan. Nolabait hezkuntza eta lanaren esparru horiek uztartzeak giza subjektua hornitzen eta eratzen duela uste zuen, soilik modu horretan izan zitekeela izaki kontzientziadun eta begien parean jarri zaion mundua eraldatzeko eragile. Hezkuntza praktikara eramateko orduan horrek beharko du izan funtsa, ikaslea edo hezia dena bere ekintzaren protagonista bilakatzea, sormena, gidaritzza, erantzukizuna, komunitatean parte-hartzea eta gizarte ehundura jostea izango dituen ardatz. Defendatu zuen pedagogiak aipatu itxura hartu behar luke, gizatiarra eta sentikortasun soziala duena, norbanakoaren gabezia eta ahultasunak zein kolektiboaren joera okerrak identifikatzera zein bere gainean ekitera bultzatuko duena.

Beste hitz batzuk erabiliz, biltzen eta deskribatzen gatozen ideia horiek guztiak izendatzeko kontzeptutzat zuen “Hezkuntza Aktiboa”. Funtsean zera da, elkarlanean eta kooperazioan bilatu eta aldarrikatu zituen printzipioak hezkuntza eremura ekartzea, hau da, autofinantzazioa eta autogestioa. Bere kabuz bideragarria izan zedin, ideia horretan sustraitzen zen Arizmendiarrietaren pentsamendua, hezkuntza proiektuei begira. Lana ardatz izan zezala, ez soilik gaztetxoentzako jolasak izan zitezkeen jarduera gisa ulertu, eskola kooperatiboak lanari bere egiazko esanahia eman behar lioke, eskolan ikasi eta egiten dutena denborapasa hutsa baino zerbait gehiago dela barneratu dezaten ikasleek:

“Aún no es el trabajo en sí y por sí lo que se apetece, por mucho que se presume de sensibilidad y conciencia humana social liberadora y promotora. Ejercen su magia las posibilidades de apelaciones paternalistas aun cuando por instinto o conciencia de personalidad aparentemente se repudiaran algunas manifestaciones. Más que trabajo a secas es el trabajo con lápiz y pluma, con máquinas muy evolucionadas y bajo condiciones tales que no desdiga socialmente lo que se apetece o acepta. De momento caen en vacío otras apelaciones y como alguien ha podido decir medio en broma medio en serio también en centros de educación que tienen amplio quorum las tendencias o militancias socialistas, maoístas o progresistas, habrá que esperar si no hemos de proveernos de bedeles a sueldo o profesionales para borrar las pizarras” (Azurmendi, 1984: 228).

Nolabait, lanak sozialki onetsia duen esanahia eskola eremura eramateak ikasleari aitortza bat ekarriko dio, gizarteari ekarpen esanguratsua egin diezaiokela eta bere lanaren izerdiz asebate daitekeela frogatuz. Berdin du ze lan mota, trebezia maila handia eska dezakeena edo zeregin errazagoa dena; kontua komunitateari ekarpena egitea da, norbere gaitasunak kolektiboaren indarrera biltzea bilatzen zuen, gorputz sozial sendoago, gihartsuago eta lotuago bat eraikitze aldera.

Honenbestez, hezkuntza aktiboaren kontzeptua ikasketak eta lana uztartzetik haratago doan formulazioa da, komunitatearen osasunari eta herri eraikuntza sendoari begira pentsatua. Gizakiaren gaitasuna bere burua eraikitzeke izango da giltzarri, lanaren kontzeptuan ardatzen den tesi arizmendiarrietarrak eraldaketarako subjektuak eratzea zuen helburu, zehazki, Maoren iraultza kulturalari erreferentzia eginez esango du “hezkuntza aktiboa izango da geure iraultza kulturala” (Azurmendi, 1984: 230).

Gogoeta eta kezka horiek planteatu zituenean, industria ekoizpenaren bueltan antolaturiko gizarte kapitalista indartzen eta zabaltzen ari zen mundu mailan. Sobietar

Batasunaren esperientzia sozialistak, “sozialismo erreal” gisa ezagutu denak, bi gizarte ereduren arteko kontrakotasuna mahai gainean jarri zuen, klase sozialen eta langileek jasaten zuten menderatzearen inguruko eztabaidak pil-pilean zeuden garaiko lurzoru soziopolitiko eta kulturalen. Alperrikakoa zen hezkuntza prozesu sakon, landu eta aurreratuak martxan jartzea ondoren ohiko enpresa eredu kapitalistak sortuko baziren, langileen izerdi eta sormen gaitasunaren jabetza ekoizpen bitartekoen jabeek poltsikoratuko bazuten. Marxismoaren formulazio klasikoetatik edaten zuen, *ekonomia politikoaren kritika-k* eskaintzen zizkion tresna analitikoak erabiliz garaiko osaera sozioekonomikoa aztertzeko. Egun oraindik pentsamendu eta korronte kritikoetatik salatzen duten bezala, Arizmendiarretak ere antzeman zuen gizakiak sorkuntzarako zuen gaitasun ororen balioa xurgatzen zuela kapitalak. Bere zalantzak eta gatazka teorikoak sortu zizkion Elizaren doktrina sozialaren eta sozialismo marxistaren arteko uztarketak. Agenda politiko-mediaticoan eztabaidatzen ziren gaiak izaki, Arizmendiarretak bere irakurketa propioa egin zuen, Elizaren inguruko korronte batzuk sozialismoaren *atzapar maltzurretan* erortzen ari zela ohartarazten baitzioten. Sozialismoaren baitan bi kontu ezberdintzea garrantzitsua irizten zion, alde batetik, sozialismoa oinarritzen zen filosofia edo pentsamoldea zegoen, bestetik, ekonomia berrantolatzeke erabili nahi zuten programa. Hala zioen Arizmendiarretak:

“Sozialismoaren filosofia ez da programa ekonomikorako beharrezkoa, eta programa ez da filosofia horren ondorioa derrigorrean. Historian zehar egon izan dira mugimendu ideologiko eta sozialak, planteamendu marxista edo materialistetatik abiatu ez direnak. Gaur egun indartu den sozialismoaren bultzatzaileek bi kontuak uztartu zituzten (programa ekonomikoa eta pentsamolde filosofikoa), eta hori izan da horrenbeste gatazka ekarri dituen sozialista horien eta katolikoen artean. Ondasunen komunitatearen kontzeptua ez da kontzeptu marxista bat, ezta hurrik eman ere. Bere babesle handienak elizgizonak izan dira, are, Eliza bera egon da teoria horien araberrako antolakuntza ekonomikoekin lotua” (Azurmendi, 1984: 131).

Pentsamendu horretatik abiatuz ulertzen zuen programa sozialistaren eta erreformazale Elizkoien arteko gertutasuna. Alabaina, ezberdintasunak ezarri zituen euren artean, jabetzaren sozializazio gutxieneko bat eman beharra zegoela defendatuagatik jabetza pribatuaren areagotzeak, (ez jabetza handiak pilatuz, baizik txikiak biderkatuz) helburu behar zuela sinetsita. Laborismoa hartuko du eredu gisa, ondoren Arrasaten abiaraziko duen esperientziaren sustrai teoriko eta adibide historiko modura inspirazio iturri izateko. Jabetza pribatua desagertu den esperientzia historikoetan nortasun galera eta norbere adierazpen propiorako gaitasun falta egin izan direla zioen, hortaz, Laborismoak defendatzen duen jabetzaren ideia bereganatu zuen, hala dioena: Sozialismoa ez da dogma multzo bat, praxiaren bidez egikaritu beharra duen ideia bat baizik, praxi horrek kontuan hartu beharko du jabetza pribatua gizakiaren adierazpenerako funtsezko faktorea dela, beraz, ezin da jabetzaren desagertzea defendatu.

Ezkor zen estatuarekiko, bere burua orohartzaile eta komunitateen salbatzaile gisa zeukala iruditzen zitzaion (betiere Espainiako estatua zeukan buruan bere gogoetak planteatzerako orduan) eta sarritan onura baino bere esku-hartzeak kalte nabariak egiten zituela uste zuen. Hala zehazten zuen eskuizkribuetan:

“Giza ekintzak, bere jardun propioz, helburuak lortu baditzake, izan erakunde, antolakunde, elkarte edo norbanako forman, ezin da espero ez eta desiratu ere erakunde publiko baten esku hartzerik. Soilik, laguntza eskaini badezake eta bere kolaborazioa probetxuzkoa suertatu badaiteke izango da ongi etorria, ez itxurak egiteko bakarrik” (Azurmendi, 1984: 149).

Bizi zuen testuinguru soziohistoriko gogorrek, sakonki kolpatuak utzi zituen Deba bailarako komunitateak. Ingurura begiratuaz premia sozial eta ekonomiko larriak zeuden, konponbide eta ekinbide azkarrak behar ziren, hortik Arizmendiarrietak eraginkortasunari eta ekimenari egiten zizkion goraipamenak, komunitatea hutsetik eraikitzeko funtsezko tresna bezala. Estatuak berandu zetorren, ezagutza eskasarekin eta konponbiderik gabe, komunitatearen dinamismoa zen garapenerako eta oparotasun soziokomunitariorako gakoa, herria kulturalki heziz eta haziz, kanpoko inorekiko mendekotasunik garatu gabe.

Haatik, urteak igaro ahala, estatuak bete zezakeen funtzioa erabakigarria izan zitekeela ikusi zuen eta kritika zorrotzak egin zizkion. Bai herri klaseetako umeek zein klase pribilejiatuetaoek ere, ikasteko, jakiteko eta ezagutzeko kuriositate antzekoa erakusten zuela zioen. Ikasteko gogorik ez daukan jendea baldin badago, portzentaia berdintsuan egongo da herri klaseetan zein erosoetan. Kulturarik eta bizitzarako formakuntzarik gabeko haurrik ez litzateke egon beharko gizarte zibilizatu batean, zioen Arizmendiarrietak.

Funtsean, konstruktibismo kutsua zerion haren hezkuntzaren planteamenduari eta estatuaren ulerkerari ere, Elizaren doktrina sozialetik ere asko zuena. Mesfidati zen estatuarekiko eta boteretze komunitarioan zein jardun ekintzaile pertsonalean sinestu zuen, estatuarekiko menpekotasuna izan barik, gizarte talde buruaskia eta ahaldundua edukitze aldera. Estatuak soilik esku-hartze zuzena izan beharko du bere burua kudeatu ezin duten komunitateen gain, baliabide eta tresnak eskaini beharko dizkie egoera horretatik atera daitezzen pixkanaka, ez botere-ezarpen zuzenaren bidez.

Bistan da pentsamendu oinarri horiek guztiek ondoren jaioko den Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren lurra goldatu zutela. Oinarri hauetatik abiatuta ulertu ditzakegu hezkuntzari eman zaion garrantzia (Unibertsitate propioa edukitzeraino), autogestioaren gauzaren praktikoa (sektore industrial estrategikoetan gauzatua) edota euskal kooperatibismoaren baitan lanak duen zentraltasun antropologikoa.

Laburbilduz, Joxe Azurmendiren *El Hombre Cooperativo, Pensamiento de Arizmendiarrieta* (1984) liburuan biltzen dira AKE gidatu duten pentsamendu oinarriak eta balio kooperatibo nagusiak. Alde horretatik, lan honetarako baliagarri zaigu pentsamendu-ildo horien ezagutza ekartzea, gaurko balio kooperatiboak zertan diren identifikatzeko batetik eta trantsizio ekosozialaren koiunturan zein lotura ezarri ditzakegun zehazteko, bestetik.

6. KAPITULUA

Planteamendu metodologikoa

6. Planteamendu metodologikoa

6.1. Ikerketaren galdera eta helburuak

6.1.1. Ikerketa galdera

-Krisialdi sozio-ekologikoaren aurrean zein ikasgai baliotsu atera ditzakegu Arrasateko Kooperatiba Esperientziatik? Garatu al du Arrasateko Kooperatibismoak krisi ekosozialaren aurrean kokapen eta erantzun propiorik, XX. mendean kapitala eta lanaren arteko gatazkaren aurrean garatu zuenean nola?

6.1.2 Helburu orokorrak

- Arrasateko Kooperatiba Esperientzia XX. mendeko gatazka redistributiboari erantzun arrakastasua eman dion mugimendua izan da, nazioarteko arreta piztuz eta gizarte berdinzaleago eta justuagoetarako bidea markatzen duen esperientzia aberatstzat agertuz. Bada, tesi honen helburu nagusia AKE krisi ekosozialaren testuinguruan kokatzea izango da, kooperatibismoari bertan sortzen zaizkion arriskuak eta mugak identifikatuz.

- Horretarako, helburu moduan jarri dugu Arrasateko Kooperatiben analisi metaboliko-sozial bat osatzea, elkareragiten duten hiru eremu autonomo arakatuz: i) Arrasateko Kooperatiben eremu metabolikoa. ii) Arrasateko Kooperatiben eremu sozioekonomikoa iii) Arrasateko kooperatiben eremu subjektibo eta kulturala.

-Helburu zehatzak:

-Arrasateko kooperatiben jardunean sartzen diren energia eta materia fluxuak identifikatzea, Arrasateko Kooperatibak trantsizio ekosozialerako dituzten baldintza materialak zein diren argitzeko.

-Kooperatibismoak merkatu ekonomiaren markoan jarduteko dituen egiturazko zailtasunak argitzea, eta zailtasun horiek trantsizio ekosozialaren prozesuarekin lotzeko ariketa egitea.

-AKEn esperientzian oinarrituz, kooperatibismoak trantsizio ekosozialerako dituen mugak eta aukerak arakatzea.

-Kooperatiben senean iraunkortasunari buruzko diskurtso analisia egitea, auziaren inguruan dauden uste eta iritzi sozialak zerrendatu eta aztertuz.

-Kooperatiben baitan martxan jartzen diren subjektibotasun formak zehaztea, neoliberalismoari eta subjektibotasun garaikideari buruzko teoriak kasu zehatz horretan aplikatuz.

6.2. Ikerketaren kokapena

Krisialdi sozio-ekologikoaren eta *zibilizazio krisiaren* paradigmaren ulermenak ezartzen digun analisi sozialaren konplexutasun maila izugarri altuaz jakitun, begirada hori Arrasateko Kooperatiba Esperientzian lurreratzea da egin asmo dugun lana, auzi sozio-ekologikoa nola interpretatzen den ikusiz, eta trantsizio ekosozialaren zein praktika kooperatiboaren artean ze zubi mota eraiki daitezkeen aletuz. Orain arte aurkeztu dugun marko teorikoak krisialdi ekologikoa eta gure gizartearen metabolismo soziala ulertzeko gakoak ematea izan du helburu, lan prozesuen eraldaketaren eta azken hamarkadatak eraldaketa subjektibo-kulturalen argitan. Azaldu ditugun prozesu sozial eta historikoek gizartearen eta naturaren arteko harremanak sakon zizelkatzen dituzteneko konbentzimenduz hurbiltzen gara Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren azterketa soziometabolikoa egitera, tamainako erronkak ikerlari bakarraren gaitasuna gainditzen duela jakinagatik.

Kasu zehatz baten ikerketa batez ere kualitatiboaren alde egin arren (Gerring, 2004; Muñiz, 2010; Yin, 2018), elementu kuantitatiboak ezinbestez ekarri behar izan ditugu ikerketara, ezaugarritze metaboliko bat egiteko funtsezkoa baita hori zientifikoki datuen bidez dokumentatzea, lehen kapituluaren ikerketa soziometabolikoen ezaugarritzean azaldu dugun bezala. Atal kuantitatiboan estatistika deskriptiboak erabili ditugu soilik, Arrasateko Kooperatibaren metabolismo soziala datuetan funtsatzeko, baina bigarren mailako datuen ustiapen estatistikorik egin gabe. Helburu hori betetzeko, hiru dira bereziki erabili ditugun ikerketa teknikak, tesiari gihar enpirikoa emango diotenak. Analisi dokumental eta bibliografikoa, elkarrizketa azpi-egituratuak eta behaketa parte-hartzailea.

Taylor eta Bogdanek (1986) esaten dutenez, hiru eredu horien arteko uztarketak balioko digu subjektuek euren burua ulertzeko dituzten formak identifikatzeko eta egunerokoan dituzten egoerak zein modutan definitzen dituzten aztertzeko. Gure kasuan, hiru teknika horien erabilera egin gura dugu ikerketa soziometabolikoari gihar enpirikoa emateko, osatzen diren iruditeria, esanahi sozial eta dimentsio sinbolikoa aztertzeaz gain, kooperatibek duten arlo materiala (energia eta materia fluxuak) ere ongi funtsatzeko.

Hiru teknika horiek uztartzeari esker, Arrasateko Kooperatibismoaren gaineko ikerketa soziometaboliko ondo oinarritu baterako baldintzak sortzen direla irizten diogu, azterketa zientifiko-sozial batek bildu behar dituen elementu ezberdinak biltzeko aukera eskaintzen digulako batetik, eta diziplina artekotasunerako atea zabalik lagatzen dituelako bestetik. Dena den, kooperatibismoa moduko esperientzia zabala ikertzeak bere mugak baditu ikerlari bakarraren begiradatik, elkarrizketatu kopuru, datuen eskuragarritasun eta denbora baliabideen aldetik. Horrekin ez dugu esan nahi ikerketak objektibotasun zientifikoa galtzen duenik, baina bai AKE-ren ikerketatik eratortzen diren harimutur ezberdinetan sakontze ariketa mugatu bat egin behar izan dugula ezinbestean.

Gure ikerketaren izaera orohartzaile eta hermeneutikoa kontuan hartuta, ikuspegi metodologikotik horrenbeste kooperatiba eta errealitate sozioenpresarial ezberdin biltzen dituen esperientzia baten azterketa sintetikoan, ezinbestez laga beharko ditugu informazio-iturri posibleak kanpoan, elementu baliotsuenak iruditu zaizkigun aldeko

apustua eginda. Hala, beharrezkoa zaigu hautaketa zein irizpideren arabera egin dugun zehaztea, eta zein perfilen erabilera egingo dugun argitzea, Arrasateko Kooperatibismoaren analisi sozio-metabolikoari ekiteko. Behin hori argitu ondoren zein material bibliografiko eta dokumental aztertuko ditugun aipatuko dugu eta baita, behaketa parte-hartzailea zein eremutan egin dugun ere.

Helburuetako bat kooperatibek krisi ekosoziala zein modutan interpretatzen duten eta horren aurrean zein estrategia aktibatzen dituzten ezagutzea denez, bertan dauden esanahi eta diskurtso sozial ezberdinen ezaugarritzea egingo dugu, kokapen zehatzaren arabera. Kooperatibismoa kokapen ezberdinak dituen esparru soziala izaki, bere baitako kokapen sozial ezberdinetara jotzea funtsezkoa da ildo diskurtsibo ezberdinak aurkitzeko. Norbanakoak egitura horretan duen kokapenaren arabera mundu ikuskerak, rolak eta diskurtsoak eratzen direla jakinik, lau kokapen ezberdinetara hurbiltzea izango da gure apustua.

Lehenik, kooperatibetan lan egitera azken urteetan sartu diren belaunaldi gazteak, bigarrenik zuzendaritza eta ardura postuetan dauden arduradunak, hirugarrenik bazkide kooperatibista helduak, eta azkenik jasangarritasunaren arloan eta kooperatibismoan adituak diren arduradunak, aditu eta informaziorako iturri baliotsu modura. Interesekoa zaiguna da kokapen soziologiko bakoitzetik egiten diren diskurtso eraikuntzen artean ze lotura-puntu eta ze desberdintasun dauden argitzea. Era horretan kooperatibismoaren baitan ibilbide ezberdinak izan dituzten pertsonen ikuspuntuak jaso ditzakegu eta esperientzia subjektibo bakoitzaren pertzepzioetatik kooperatibismoarekin eta auzi sozioekologikoarekin eratzen diren harremanak aletu ditzakegu.

Hartutako laginari dagokionez, parte-hartzaileak aukeratzeko prozesuan hiru irizpide orokor izan ditugu kontuan: i) ondoren zehazten ditugun lau perfiletako batean sartzea ii) kooperatiben askotarikotasuna ordezkatzeko, industria sektorean arreta berezia jarrita iii) eskuragarritasuna, ikertzaileari elkarrizketa egitea ahalbidetzen dioten kooperatibetara hurbiltzea. Esan behar dugu, hiru irizpide horiek kontuan hartuta, txosten teknikoan zehazten diren kooperatibetara gerturatu garela, modu horretan, heterogeneoa eta askotarikoa den mapa kooperatibo horretatik lagin esanguratsua eta zabala erdietsiko zela sientsita.

Jarraian, perfil horietako bakoitza zein irizpideren arabera aukeratu dugun justifikatzen saiatuko gara, eta multzo bakoitzak ikerketari zer eskaini diezaiokeen zehazten

6.3. Elkarrizketatuen profila

6.3.1. Gazteak, belaunaldi berriaren etorria.

Arrasateko Kooperatiba Esperientzian, beste edozein errealitate sozioenpresarialetan bezala, funtsezkoa da belaunaldi berriekin zein harreman mota dagoen identifikatzea eta horren gainean ekitea, etorkizun arrakastatsu baterako aurrebaldintza baitira belaunaldi berriak.

Gaztea, bere aldagai fisiologikoatik definitzen den bizitzako etapa modura jo dezakegu. Ordea, bere alderdi biologikoaz haratago gaztetasuna sozialki definitzen den kategoria da, gizarteen botere harremanetan eta estratifikazio sistemetan kokapen batean edo bestean jartzera eramaten duena, sexua izan daitekeen moduan. Bada, gazteak oro har euren lan-ibilbidearen hastapenetan egoteagatik ezaugarritzen dira, eta dituzten kezkek, ikuspegiak eta lan munduarekiko ezartzen duten harreman motak gizartean gertatzen ari diren sakoneko prozesu batzuen berri ematen digu.

Geure gizartearen balioak elementu zentral batzuen gainean eraikiak daude: adina, sexu-generoa eta ogibidea (Tejerina et al. 2005). Hiritarraren paradigma nagusia gizon heldu profesionalarena da eta berak jartzen du beste kategoria sozialekiko ardatza. Beregandik hasita eraikitzen dira gainerako kategoriak, izan haur, gazte, edo edadetu. Adin soziala, horrenbestez, ez du soilik norberaren garai biologikoak ezartzen, bere lan egoerak, etxebizitzak edo familia-egoerak ere baldintzatzen du.

Hala, gazteengan zentratutako analisisetan ezinbestekoa da gizarte prozesu horien berri ematea lehenbizi. Lan-mundurako jauzia, etxebizitzarako sarbidea edo seme-alabak izateko adina atzeratu da geure gizarteetan, batez ere lanaren arloan gertatu diren aldaketengatik. Bada, gazteei buruz ari garelarik kontuan hartu behar dugu gazte izatetik heldu izaterako jauzi horretan dauden pertsonen ari garela. Trantsizio luzatu batean daude nolabait, eta epe horretan aurreko belaunaldiak baino denbora gehiago emateak eraldaketa kultural batzuk hauspotzen ditu, lana ulertzeko moduan, lan eremuarekin ezartzen den harremanean eta oro har bizi-estiloan bertan.

Hiritar oso bihurtzeko moduak eraldatzen ari dira, beraz. Hiritar-heldua autonomiadun pertsona ulertuta, bere burua bizitzaren adar guztietan kudeatzeko gai dena, egoera profesional eta familiar iraunkor batean. Gazte izatetik heldu izaterako mugak lausotzen ari dira, gazte izateko forma berriak agertzen dira, errealitate solidoetatik deslotuagoak. Horrek guzti horrek heterogeneotasun handia egotea ahalbidetzen du oinarrizko lan, ikasketa, atsedeen edo zaintza egoeretan. Horren adierazgarri dira teknologia berriak, aldi berean mehatxu (bazterketa digitala) eta mugarik gabeko aukera ibilbide formatibo berrietarako, gaitasunen hobekuntzarako edo harremanetarako. Matrize berriak sartzen ari dira gure gizarteetan eta horrek gazteen errealitate multiformea eta baliabide ekonomiko, kognitibo zein sozialen aldetik oso ezberdindua izatea dakar.

Bi diskurtso korrante nagusitu izan dira gazteen bueltan azken urteetan (Subirats, 2014). Alde batetik, hegemonikotzat jo dezakegun kontakizuna dago, zeinak gazteak formazio garaian dauden subjektu gisa definitzen dituen. Ikuskera horretan, autonomia osorik ez dute, arreta eta zaintza beharrak dituzte eta helduen mundura jauzi egiteko zailtasunak. Bestetik, gazteri loriatsuaren kontakizuna dago: horren arabera, gazteek bide guztiak dituzte zabalik eta "mundu berriaren esploratzaileak" izango dira. Berrikuntzaren, inobazioaren eta ekintzailetasunaren bidez arrakastara iristeko modua izango lukete, mundua irensteko gai. Bistan da ez bata ez besteak ez duela sakontasun soziologiko gutxienezkorik, baina gizarteak gazteei begiratzeko dituen moduak definitzen ditu.

Bada, gazteekin eurekin dagokigu kontakizun horiek birpentsatzea, dauden behar eta gabeziak identifikatu eta horien ondorioz ekitea. Kooperatibismoak defendatu dituen pertsonaren zentraltasunaren ideia berhartuz, adinez nagusi bilakatzearen ideia ilustratua hain justu, gazteen inguruko analisi berriak eskatzen ditu garaiak.

Infantilismoaren edota heldutasun ahalguztidun baten kontakizunean erori barik. Agertoki soziologiko berri honetan Arrasateko Kooperatibetara murgiltzen diren gazteek dituzten kezketan arakatzea dagokigu ikerlan honetan. Errealitate zehatzagoa izaki, eredu kooperatiboarekin zein harreman ezartzen duten aztertuko dugu, ea kooperatibetako lanak hiritar-heldu bilakatzeko aukerarik ematen dien azaltzen saiatuko gara, balio post-materialak eta materialak zein modutan uztartzen diren argitzearekin batera.

6.3.2. Zuzendaritza eta ardura postuak.

Bigarren ikertu multzo honek ikerketari bestelako begirada eranstea aukera eskaintzen digu. Lehenik eta behin, kooperatiban duten kokapenak posizio analitikoki interesgarri batean jartzen ditu, kooperatibaren arazoaren eta dituen erronka estrategikoen gainean hitz egiteko. Era berean, ardura postuetan dauden marko diskurtsiboak ikertuz, kooperatibismoan gailentzen diren zentzu-oinarriak, mundu ikuskerak eta apustu ekonomiko-politikoak zein diren identifikatu dezakegu, botere posizio batetik eginak diren neurrian. Trantsizio ekosozialaren erronkari erantzuteko erantzukizun postuetatik formulatzen diren diskurtsoen eta krisi ekologikoa ulertzeko moduen gaineko ezagutzak garrantzia berezia hartzen du ikerketa honetan, kooperatibek balizko trantsizio baterako izan lezaketen jarrera eta horretarako dauden aukerak ezaugarritzeko parada izango baitugu.

Jaso dezakegun kritiketako bat bada ardura postuak oso ezberdinak direla sektore ekonomiko bakoitzean, eta beraz, soilik kooperatiba industrial handietako kideak elkarrizketatzeko bestelako sektoreen errealitatea analitiko kanpo lagatzen duela. Horren aurrean, arduradun zehatz horiek elkarrizketatzeko hautua bi arrazoiri jarraiki egin dugu i) kooperatibaren tamainak eta jarduten duen sektoreak bere inpaktu ekologikoa nabarmen handiagoa izatea dakar, beraz, isurpen faktorearen arabera eraginik handiena duten kooperatibak hautatzea apustu metodologiko interesgarria da. ii) Gazteen kasuan ez bezala, ikerlaria botere posizio batean egotetik kokapen umilagoa izatera igarotzen da. Argudiatu liteke beste sektore ekonomikoetan ere auzi hau berdina litekeela, baina uste dugu kooperatibaren tamainak, estatusak, fakturazio kopuruak eta sektore industrialak, perfil horiek botere posizio sendagoan jartzen dituela eta zenbait auziren inguruan hitz egiteko legitimitasun zabalagoa sentituko dutela.

6.3.3. Bazkide Kooperatibistak.

Hirugarrenik bazkide kooperatibista arruntei egingo dizkiegu elkarrizketak. Modu horretan, kooperatibismoaren barnean dauden ikuskera ezberdinak identifikatzeko aukera irekitzen zaigu, eta bazkideen kolektiboaren baitan egon daitezkeen iritzi, tentsio, ezinegon eta ikuspegiak aletzeko helburuz hurbildu gara beraiengana. Esan behar dugu ikerlariaren begiradatik Arrasateko Kooperatiben moduko tamainako esperientzian eta dimentsioan, iritzi-korrante adierazgarriak topatzeko zailtasunak egon litezkeela talde honetan. Dena den, beraiengana gerturatuta tesiaren gihar enpirikoa sendotu nahi izan

dugu, kudeaketa postuetan jardun behar ez dutenengana hurbilduta oinarritik zein iritzi eta ikuskera nagusitzen diren detekatatzeko elementuak jasotze asmotan.

6.3.4. Ingurumen arduradunak eta kooperatibismoan adituak.

Azkenik, gure tesiaren nukleoa ikerketa soziometabolikoa izanik, ingurumen eta jasangarritasun gaietan ardura postuak dituzten kideak elkarrizketatu ditugu. Adituari egin dizkiegun elkarrizketa modura definitzen ditugu honako hauek, iturri pribilegiatu modura joz. Kasu honetan, *key informant* papera jokatu dute elkarrizketatuek, tesi gaia sakontasunez hornitu zezaketelako. Gainontzeko elkarrizketetatik duten bereizgarri nagusia ondokoa da: elkarrizketatua ez da analisi-unitate soilik izango, ikerlariari informazioa helarazten dion aditu izango da.

Ondoko taulan zehazten dugu arlo bakoitzean burutu ditugun elkarrizketa kopurua. Esan behar dugu, genero bereizketa parekidea egiten saiatu garen arren, ardura postuetan eta sektore industrialean kostatuta egin zaigula emakumeak elkarrizketatzea, sektore maskulinizatutakoak izaki.

Taula 5. Elkarrizketa azpi-egituratuen banaketa.

| | Orotara elkarrizketak | Emakumeak | Gizonezkoak |
|---------------------------------|-----------------------|-----------|-------------|
| Zuzendaritza alorrekoak | 6 | 4 | 2 |
| Kooperatibetako gazte langileak | 13 | 7 | 6 |
| Bazkide kooperatibistak | 13 | 6 | 7 |
| Ingurumen arduradunak | 6 | - | 6 |

Iturria: Egintza propioa.

6.4 Elkarrizketen estrategiak, soziologia kualitatiboari ohore.

Lehenik eta behin, soziologia enpirikoa egiten denean, beti dago iker objektuaren gainetik jartzeko joera akademizista nolabaiteko bat. Arrisku horretan ikerlariak erortzeko aukera errealak dituela jakitun, berau ahalik gehien neutralizatzen saiatu gara, elkarrizketei izaera kolaboratiboa eta berdinetik berdinerako tratua emanez. Laborategian esperimendu eta elaborazio teoriko sofistakatuak egiten ari den bata zuriko zientzialariaren iruditik urrunduz, geure ikerlariaren kokapena zentzu etiko-politiko

batean kokatzeko ariketa egin dugu. Horretarako, gaiaren inguruan irakurri eta jantzi izanak ikerlariari eman diezaiokeen kokapen intelektual altuagoa eta *adituaren figura* desitxuratzen saiatu gara, elkarrizketa bakoitzean zeuden asmoak eta baldintzak zintzoki azalduz eta elkarrizketatuaren gogoetak/iritziak bere horretan jaso, epai moral, akademiko edo politikorik egin gabe.

Era berean, datuen trataeraren alderdi etikoei dagokienez, elkarrizketatuak esplizituki haien izen-abizenak erabiltzeko baimena eman ez diguten kasuetan, anonimotasuna bermatu dugu. Elkarrizketatuetakoz batzuk, elkarrizketan zehar aipatu duten pasarteren bat ez aipatzea eskatu duten kasuetan, haien borondatea errespetatu dugu. Elkarrizketatuei adierazi zaie grabazioak erabilera akademikoa soilik izango duela eta ez dela inolaz ere bestelako asmoetarako erabiliko. Halaber, datuen biltegitarte segurua eta, eskatu den kasuetan, konfidentzialtasuna bermatu dira ikerketa lan prozesu guztian zehar.

Soziologia kualitatiboak diskurtso emaileen esanahi sozialetan arakatzea eta berauek identifikatzea du xede, eragile ezeberdinek elkarren lehian dauden signifikanteak nola betetzen dituzten ikusi ahal izateko. Diskurtso eraikuntzak praktika sozialak diren neurrian, teoria sozialetik azalgarriak ere badira (Fairclough, 1995), eta haietan ikusi ahalko dugu diskurtso forma zehatzak zein talde sozialekin lotzen diren; zein diskurtso fluxuk zeharkatzen dituen Arrasateko Kooperatibak. Dena den, gure ikerketaren kasuan azpimarratu behar dugu asmoa ez dela soilik eragileek (kooperatibismoaren baitakoek) dituzten zentzu-eraikuntza mekanismoak ikertzea, horiek bestelako prozesu globalago batzuekin nola elkarlotzen diren aztertzea baizik, krisialdi sozioekologikoaren markoan. Esku artean darabilgun gaiaren izaera globala eta izaera historiko-estruturaleko fenomeno presentziak garrantzia berezia hartzen du, krisi sistemikoa edo *zibilizazio krisia*, zerbait izatekotan, maila makroan soilik ulertu litekeen auzia baita.

Bada, elkarrizketetan erabilitako estrategia kooperatiba bakoitzaren baitako mikro-prozesuak ulertzera bezainbat, egon da maila makroko prozesuek errealitate mikro eta konkretuetan zein eragin duten aztertzea bideratua. Hala, trantsizio ekologikoak zein eragin izan duen eta ari den izaten galdetu dugu, etorkizunerako dauden proiektzioak aletzearekin batera.

Elkarrizketak gidatu dituen gidoiari dagokionez, bakoitzaren kasuan norabide ezberdiak hartu baditu ere, honako bloke nagusiak lantzeari eman diogu lehentasuna:

- 1- Lehenik eta behin, elkarrizketatuari eskatu diogu kooperatiban duen kokapena eta izan duen ibilbidearen azalpen labur bat egin dezala. Batzuk ibilbide laburra izan dute eta berehala egin dugu jauzi ondorengo fasera, beste zenbaitek ordea sakon azaldu nahi izan du zein kargu izan dituen kooperatiba mugimenduan. Funtsezkoa izan zaigu atal honen lanketa elkarrizketatuak soziologikoki ondo kokatzeko eta zein talaiatik hitz egiten duten zehazteko.
- 2- Bigarrenik, kooperatibagintzari loturiko blokean sartu gara. Bertan, kooperatiba baten egunerokotasunari dagozkion gaiak lantzeaz gain (erabakiak nola hartzen diren, zein den langileen arteko giroa, dauden gatzakak eta tentsioak...) kooperatibagintzaren egoera sozialaz ere aritu gara, identitate kooperatiboaren egoeraz, gazteek jasotzen duten transmisioaz eta bere eraldaketarako indarrak. Bloke honetan askotariko iritziak jaso ditugu, kontrajarriak zenabitetan,

kooperatiba bakoitzaren egoera eta laneko giroa ezberdina izateaz gain, milaka esperientzia subjektibo daudelako kooperatibetan. Era berean elkarrizketatuari galdetu diogu ea zein diren bere ustez kooperatiben ezberdintasunak ohiko enprea ereduarekiko eta ea hori positiboki baloratzen duen.

- 3- Hirugarren blokean erronka sozio-ekologikoaren auzira jo dugu zuzenean. Hari ugari dituen gaia izanik, krisialdi sozio-ekologikoak kooperatibetan zein lurreratze izan duen galdetu dugu eta ea zein modutan egin diezaioketen aurre, euren ustean, erronka ekologikoari kooperatibismoaren senetik. Puntu honetan kooperatibagintzaren eta krisi ekologikoaren artean dauden sinergieztan eta planteatzen dituen problematika zabalez aritu gara (efizientzia energetikoa, justizia sozial jasagarria, desazkundera, nazioarteko merkatuek ezartzen dituzten mugak eta aukerak...).
- 4- Azkenik, elkarrizketatuari irudikapen ariketa bat egiteko eskatu diogu, ea datozen hamarkadetan nola irudikatzen duen kooperatiba, zein testuinguru sozial eta ekologikotan, eta baita ere bere buruaren kokapena kooperatiba horretan (edo beste tokiren batean). Ariketa honen bidez elkarrizketatuek taupatzen dituzten etorkizun desiragarriak identifikatu nahi izan ditugu, ikuspegi ekosozialarekin harremanean jarteko ondoren.

Era berean, adar enpirikoari dimentsio osotuagoa eman asmotan, *Lanki Kooperatibismoaren ikertegian 2020.* urtean gazte belaunaldien eta lanaren eraldaketaren inguruan egin genuen ikerketa batean egindako 9 elkarrizketa erabili ditugu. Kasu horretan, ikerketa-talde batek eginiko elkarrizketak izaki, oinarri enpiriko zabalagoa eskura geneukala iritzita, ikerketa horietan egindako elkarrizketen entzuketak egin eta aztertzea erabaki dugu. Modu horretan, oinarri enpirikoa zabaltzeak alde batetik gazteen kategorizazio egokiagoa egitea ahalbidetu digu, eta kooperatiba gehiagotako diskurtsoetara iristeko paradan jarri gaitu. Zehazki, gazteen kezken, kooperatibagintzarekin duten harremanaren eta lanaren etorkizunaren inguruan dauden diskurtsoetan arakatzeko baliatu ditugu elkarrizketok. Halatan, zuzenean ikerlariak egin ez dituen elkarrizketak direnez, zeharkako elkarrizketa modura definitu ditugu

Taula 6. Elkarrizketen txosten teknikoa.

| Kodea | Zuzena / Zeharkakoa | Kategoria soziologikoa | Gizona / Emakumea | Adina | Bazkidea | Jarduera sektorea |
|-------|---------------------|------------------------|-------------------|--------------|----------|-------------------|
| E01 | Zuzena | Zuzendaritza postuak | Emakumea | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E02 | Zuzena | Gaztea | Emakumea | 20-30 artean | Bai | Industria |
| E03 | Zuzena | Zuzendaritza postuak | Emakumea | 40-50 artean | Bai | Industria |

| | | | | | | |
|------------|--------|--------------------------|----------|--------------|-----|-------------------------|
| E04 | Zuzena | Kooperatibis moan aditua | Gizona | 50-60 artean | Bai | Formazioa |
| E05 | Zuzena | Zuzendaritza postuak | Emakumea | 30-40 artean | Bai | Industria |
| E06 | Zuzena | Gaztea | Emakumea | 20-30 artean | Bai | Industria |
| E07 | Zuzena | Gaztea | Emakumea | 20-30 artean | Bai | Industria |
| E08 | Zuzena | Gaztea | Gizona | 30-40 artean | Ez | Industria |
| E09 | Zuzena | Gaztea | Emakumea | 20-30 artean | Ez | Industria |
| E10 | Zuzena | Zuzendaritza postuak | Gizona | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E11 | Zuzena | Gaztea | Gizona | 20-30 artean | Ez | Industria |
| E12 | Zuzena | Ingurumen aditua | Gizona | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E13 | Zuzena | Bazkidea | Gizona | 30-40 artean | Bai | Industria |
| E14 | Zuzena | Ingurumen aditua | Gizona | 40-50 artean | Bai | Zerbitzuak |
| E15 | Zuzena | Kooperatibis moan aditua | Gizona | 50-60 artean | Bai | Hezkuntza |
| E16 | Zuzena | Bazkidea | Gizona | 40-50 artean | Bai | Formazioa |
| E17 | Zuzena | Bazkidea | Emakumea | 40-50 artean | Bai | Ikerketa eta teknologia |
| E18 | Zuzena | Zuzendaritza postuak | Gizona | 50-60 artean | Bai | Industria |
| E19 | Zuzena | Bazkidea | Gizona | 50-60 artean | Bai | Ikerketa eta teknologia |
| E20 | Zuzena | Ingurumen aditua | Gizona | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E21 | Zuzena | Bazkidea | Gizona | 40-50 artean | Bai | Formazioa |
| E22 | Zuzena | Bazkidea | Gizona | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E23 | Zuzena | Bazkidea | Gizona | 50-60 artean | Bai | Industria |

| | | | | | | |
|------------|------------|----------------------|----------|--------------|-----|-----------|
| E24 | Zuzena | Zuzendaritza postuak | Emakumea | 50-60 | Bai | Industria |
| E25 | Zuzena | Gaztea | Gizona | 20-30 artean | Ez | Industria |
| E26 | Zuzena | Gaztea | Gizona | 30-40 artean | Bai | Industria |
| E27 | Zuzena | Bazkidea | Emakumea | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E28 | Zuzena | Bazkidea | Emakumea | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E29 | Zuzena | Ingurumen aditua | Gizona | 30-40 artean | Bai | Industria |
| E30 | Zeharkakoa | Bazkidea | Gizona | 30-40 artean | Bai | Industria |
| E31 | Zeharkakoa | Gaztea | Emakumea | 20-30 artean | Ez | Industria |
| E32 | Zeharkakoa | Gaztea | Emakumea | 20-30 artean | Ez | Industria |
| E33 | Zeharkakoa | Gaztea | Gizona | 20-30 artean | Ez | Industria |
| E34 | Zeharkakoa | Bazkidea | Emakumea | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E35 | Zeharkakoa | Bazkidea | Gizona | 40-50 artean | Bai | Industria |
| E36 | Zeharkakoa | Gaztea | Gizona | 20-30 artean | Ez | Industria |
| E37 | Zeharkakoa | Gaztea | Emakumea | 20-30 artean | Ez | Industria |
| E38 | Zeharkakoa | Bazkidea | Emakumea | 40-50 artean | Bai | Industria |

Elkarrizketa hauek banaka burutu dira, buruz-buru, elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen artean. Elkarrizketa hauek lantzeko elkarrizketa erdi-egituratuaren metodologia aplikatu da: aurrez definituriko elkarrizketa gidoia hartu da oinarritzat, baina elkarrizketatuak elkarrizketa-hari berriak atera ezker, hari berri hauek joratzeko aukera eduki dugu.

Diskurtsoen analisirako erabili dugun metodoa bakoitzaren kokapenaren zentzu mikro eta makrosoziala ulertzera bideratu dugu. Ariketa hori egiteko bi premisa orokor kontuan hartu ditugu. Alde batetik, jakitun gara elkarrizketatuak historikoki eta sozialki kokatuak dauden moduak diskurtso zehatz batzuk osatzera bultzatzen dituela. Bestetik,

elkarrizketatu bakoitzaren diskurtsoak lur hartzen duen eremu komunikatibo eta ideologikoa ere kontuan hartu dugu, funtsezko aldagaia iruditzen baitzaigu edozein diskurtsoren jatorria ulertu ahal izateko (Alonso, 2013). Modu honetan, gure helburua da diskurtsoak eratzen dituztenek euren diskurtsoei ematen dieten zentzua argitzea, jarduten duten testuingurua eta berauek osatzera bultzatzen dituzten indar sozialak kontuan hartuta.

Era berean, kooperatibismoarekin lotzen diren interpretazio markoak aztertu nahi izan ditugu, mugimendu kooperatiboa ulertzeko eta azaltzeko zein esanahi sortzen diren argituz. Kooperatibismoak, mugimendu ekonomiko-sozial bizi eta aktibo modura, testuinguru zehatzak interpretatzeko eginkizuna ere betetzen du, eta beraz, gertakari eta prozesu ezberdinen aurrean (krisi ekosozialaren etorrera, lanaren eraldaketa, subjektibotasun berriak...) zein interpretazio marko garatzen dituzten azaltzea dagokigu.

Burututako elkarrizketa guztietatik, soilik esanguratsuak eta analitikoki adierazgarriak iruditu zaizkigun pasarteak ekarri ditugu testura. Batez ere, kooperatibismoaren, iraunkortasunaren eta subjektibotasun garaikidearen gainean pentsatzeko aukera eskaintzen zuten pasarteak ekarri dira, ondoren berauek konplexutasunez aztertu, eta marko teorikoko lanekin elkarrizketan jartzeko. Atal batzuetan beste batzuetan baino aipu gehiago aukeratu dira, atal zehatz hori azaltzeko informazio enpiriko adierazgarri gehiago topatu dugulako. Egindako aukeraketa horrek, iker-objektuaren analisi zorrotza egitea ahalbidetuko digu, betiere kontuan izanda hautaturiko aipuek ekarpen kualitatiboa egin behar dutela. Analisi interpretatiboa aberasteko elementu berriak ekartzen zituzten kasuan erabili ditugu, beraz. Aldi berean, azpi-talde bakoitzean egin ditugun elkarrizketa kopuruak saturazio puntu batera iritsi garen arte burutu ditugu, ondorioz, ideiak errepikatzen ari zirela eta argudio-ildo berririk zabaltzen ez zela identifikatu dugunean eten dugu eremu horretako elkarrizketa sorta.

Elkarrizketa guztiak, 5 izan ezik, elkarrizketatuek baimenik eman ez zutelako, audio formatuan grabatu ziren. Elkarrizketen transkribapen osoak baino, ikertzaileak aukeratu dituen pasarte kualitatiboki esanguratsuenak transkribatu ditugu testuan jartzeko, azken urteetako soziologiako ikerketa aplikatuan ohikoa den ekiteko modua erabiliz. Edozein kasutan, epaimahaiak eskura izango ditu elkarrizketak audio forman, bertan kontsultaren bat egin nahi izango balu.

Ikerketaren ezaugarriengatik, datuen kodifikaziorako sistema informatikorik ez erabiltzea lehenetsi da. NVIVO moduko programek lana erraztu diezaguketela jakin arren, eta ekarpen baliotsuak egin ditzaketela, gure ikerketaren ezaugarriak kontuan izanda (orohartzailea, sintetikoa eta hermeneutikoa) haren ekarpena mugatua izango zela erabaki zen, Horren aurrean, lanari egin ziezaiokeen ekarpen mugatua ikusita, elkarrizketak audioan grabatu eta horiekin modu manualean lan egitea hobetsi zen, elkarrizketatuek eskainitako informazioaren analisi eta interpretaziorako eraginkorragoa zelakoan.

6.4.1 Dokumentu analisia

Analisi dokumentalari dagokionez, Arrasateko kooperatiben perfil metabolikoa osatzeko helburu izango du erabiliko dugun ikerketa-teknika horrek. Zehazki 2007. urtetik 2020. urtera bitartean Mondragon Korporazioak (MK)k urtero argitaratutako txostenak jaso ditugu, bertan adierazten diren datuek (batez ere fakturazio eta langile kopuruan) eboluzio historiko bat eratzeko aukera ematen digutelako.

Bestalde, 19 kooperatibaren gizarte erantzukizun korporatiboko txostenak jaso ditugu. Bertan zehazten dira kooperatibaren jardunak dakartzan inpaktu ekologikoak, erabilitako materialak edo jasangarritasun irizpideetara iristeko martxan dauden estrategiak. Halaber, txosten zehatzagoak ere jaso ditugu, kooperatiba zehatzen karbono aztarna neurtzen dutenak eta informazio baliotsua eskaintzen digutenak. Kooperatibetan ez ezik, Euskal Herriko beste erakunde estatistiko batzuen datuetara ere jo dugu bizi dugun errealitate sozioenergetikoari argi izpi batzuk jartzeko helburuz, Eustat-en datu baseetan arakatuta.

Era berean, Mondragoneko erakundeetatik eraturako dokumentu batzuk ere bildu ditugu, jasangarritasun gaiaren aurrean diskurtso eraikuntza bat egiten dutenak, eta Mondragon taldean gai horiekiko dagoen posizioa zehazten dutenak. Azkenik, publikoki argitaratu diren elkarrizketa, artikulua edo prentsa erreportai batzuk ere aukeratu ditugu, informazio adierazgarria eskaintzen zutela iruditu zaigun kasuetan, esaterako Mondragon taldearen *TULankide* aldizkariaren bidez.

6.4.2 Behaketa parte-hartzailea

Azkenik, hirugarren teknika honekin gure apustu metodologikoa borobiltzea bilatzen dugu. Horretarako, Arrasateko Kooperatibismotik trantsizio ekologikoaren inguruan antolatzen den jardunaldi batean parte-hartu dugu, eta bertako bizipenaren parte izanik, han ikusi, jaso eta adierazten dugunak ikerketari balio-erantsia emango diolakoan gaude. Bizipen horiek partekatzeak elkar-ezagutza eta interakzio aberatsak sortzeko aukerak zabaltzen ditu, eta ikerlariaren rolaz gain beste posizio batzuk hartzea ahalbidetzen digu. Ikerketa soziala egiten dugun neurrian eta gure objektua gizartea eta giza-harremanak direnez, ikerlari soziala beti dago murgildua behaketa parte-hartzaile antzeko batean, aktoreek zein jokabide eta diskurtso dituzten behatuz eta interakzio horietatik eratortzen diren xehetasunak identifikatzen saiatuz.

Horrez gain, tesi honetan sortzen ari den jakintza partekatzeko foroak ere badira, eta akademiatik praxira jauzi egiteko teknika ere bada. Horrekin ez dugu esan nahi tesiarekin eraikiko dugun jakintza teorikoa derrigor praxi bilakatu behar denik, baina bai uste dugu zubi batzuk eraikitzeak tesiari funtzio erabilgarri eta praktikoa eman diezaiokeela.

Zehazki, behaketa parte hartzailea 2021eko urriaren 27an Eskoriatzan antolatutako *Garapen Iraunkorreko Helburuen gobernantza kooperatibetan* jardunaldian burutu dugu. Saio hau aztertzea oso interesgarria izan zaigu, kooperatibetako ordezkariak zabala edukitzeaz gain, jasangarritasunaren gaia modu esplizituan landu zelako. Landutako gaiak ondoko hauek izan ziren: i) *Garapen jasangarriaren adierazleak ekonomia*

sozialeko enpresetan ii) Adierazleak eta iraunkortasuna eztabaidara iii) Iraunkortasuna eta kooperatibak. Ikerlaria bertan sortu ziren eztabaiden parte izan zen, galderak egin, iritziak eman eta jasangarritasunaren gainean lanean ari diren profesionalen lana sakonago ezagutuz.

6.5 Landa lanaren garapena

Ikerketa honen garapenean, adierazi behar dut lehenik eta behin, nire jakintza kokatuak eta baldintzatuak sortzen dituen aurreiritziak neutralizatzeko ariketa etengabea egitea egokitu zaidala. Iker objektura hurbiltzen den soziologo modura, norbere lanarekiko jarrera erreflexiboa izatea eta kanpoko baldintzatzailleak noraino eragiten duten identifikatzea zientzalarari sozial orok pasa beharreko galbahea da. *Zaintza epistemologiko etengabea* deituko dio horri Santiago Muiño antropologoak, norbere nahiak, ilusioak eta gogoak uneroro kontrolpean mantentzearen zentzuan (Santiago Muiño, 2015: 95). Bada, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, ikerketa prozesuan murgildu aurretik, sentipen positiboak eta estimulagarriak eragiten zizkidan esperientzia zen, modernitatearen, eraldaketa globalen eta merkatu kapitalista zorrotzaren olatuetan mantentzen jakin duelako, arima herrigile eta demokratiko sendo batekin. Gainera, euskal pentsamenduan ikur nagusi den Joxe Azurmendi filosofoak zabalduak ikerbidetari jarraiki, AKE ezkerreko pentsamenduarekin elkarrizketa sakon eta baliagarriak edukitzeko esperientziatzat neukan, praktikaren lurraldean ekonomia alternatibo bat antolatu duelako, ohiko merkatu ereduetatik aldenduz. Bada, hori ez da soilik nire baitatik pasa den iritzi korrante bat, ezpada nazioarteko ezkerrean ere topatu daitekeena eta interes berezia pizten duena. Horren erakusgarri garbi, Erik Olin Wright marxista analitiko entzutetsuak *Envisioning Real Utopias* (2010) liburuan AKE erabili izana beste ekonomia molde justuago bat antolatzeko eta kapitalismoari alternatiba bideragarri baten eraikuntzan gidatzeko itsas-argi bezala. Aitortu beharra dut, beraz, zoru komun horretan nerabiltzan pentsamendu baikor eta miresleak neutralizatu, identifikatu eta lilurarik gabeko betaurrekoak jantzi ditudala. Zaintza epistemologiko etengabe hori AKE konplexutasunez pentsatu, marko teoriko kritiko batekin eztabaidan jarri, eta ahal nuen neurrian, esperientzia horren azalpena osatu eta fintzeko baliatu dut, ahalik eta ertz, ñabardura eta korapilo gehien ukituta.

Elkarrizketak egitera sartu garenean ez dugu aparteko arazorik izan elkarrizketarekin kontaktatzeko eta elkarrizketarako hitzorduak jartzeko. MU-ko ikerlaria izateak asko erraztu du kooperatibetara sarrera eta kooperatibek lehen unetik ikerketan parte-hartzeko erakutsitako borondate ona eskertu behar dugu. Dena den, ikerketan zehaztutako perfilak eta elkarrizketa kopuruak betetzeko zailtasun gehiago izan ditugu, kontaktaturiko kooperatibetan ez zegoelako beti eskuragarri planteamendu metodologikoak eskatzen zigun perfileko norbait. Oztopo horietara egokitzen saiatu gara eta beste bide batzuetatik (sare informalak, bigarren mailako kontaktuen bidez) kontaktatzen saiatu. Elkarrizketen prozesua jarraitua izan da, hasieran egindako elkarrizketek baldintzatu dituzte ondoren egindakoak, eta era horretan azken elkarrizketetan gaien zehaztasun eta sakontasun handiagora iritsi gara, analisirako beharrezko izan zaizkigun ertzak ukituz.

Bide ofizial eta formalak erabili direnean zenbait kasutan erresistentzia gehiago topatu dira bide ez-formaletatik egindako kontaktueta baino, eta elkarrizketa egin den espazioak (bulego ofiziala edo kafetegi/ingurune informala) asko markatu du elkarrizketatuaren aldetik freskotasuna eta ideiak garatzeko borondatea. Kasu horietan, konfiantza esparru seguru bat eraikitzeak elkarrizketaren joritasun eta emankortasunaren alde jokatu du, eta hor lortu dugu korapilo zentraletan murgiltzerik sakonena egitea.

Behaketa parte-hartzaileari dagokionez, kooperatibetako arduradun ezberdinekin jasangarritasunaren gaiaren inguruan egin diren saio batean hartu dugu parte. Saio hori, Lanki kooperatibismoaren ikertegiak antolatua eta sustatua izan da. Uste dugu teknika hau ikerketa honen erabilerarako justifikatua dagoela, kooperatibetako errealitate sozial eta kulturalaren agerpena gordinagoa delako, eta ikertzailearen presentziak ez duelako eztabaiden jardunean eta ideien plazaratzean eragin nabarmenik.

Egindako saio horrek informazio iturri oso baliotsua ekarri dio tesiari, eta kooperatibagintzaren senean bertan dauden errealitate ezberdinei sarbidea eskaini digu, sektoreen aurrean jasangarritasunaren gaiaren aurrean dauden sakoneko ezberdintasunak hobeto ezagutzera eraman gaituztenak.

7. KAPITULUA

**Arrasateko Kooperatiben metabolismo
sozialaren analisia**

7. Arrasateko Kooperatiben metabolismo sozialaren analisia

Arrasateko Kooperatibismoaren ezagutza lortu nahi duen aztertzaile orok, bere egiturazko tentsioetan arakatzea funtsezko zeregina du. Kooperatibagintza XXI. mendeko ekonomia globalean ulertuta, garatu dituen kontraesan, tentsio-puntu nagusi eta mugimenduaren beraren bilakaeraren pertzepzioan jarriko dugu arreta. Kartografiatzeko langintza hori burutzeko elkarrizketatuetatik jaso ditugun nukleo diskurtsibo esanguratsuenetan oinarrituko gara. Era berean, jarraian egiten dugun analisiak trantsizio ekosozialera bidean ekonomia kooperatiboagoak lortzeko egiten den proposamenari argi puntu batzuk erantsi gura dizkio, era horretako mugimendu batek izan ditzakeen korapilo estrategiko nagusienetan begirada jarrita.

Lehenik eta behin, Arrasateko Kooperatiben diagnostiko metabolikoan zentratuko gara, jasangarritasun irizpide objektiboetatik ikusi ahal izateko zein den egoera.

7.1 Ardatz energetiko-metabolikoa, jasangarritasunaren mugak

7.1.1 Jasangarritasun kooperatiboa kolokan.

Mondragon taldea orotara 281 enpresak osatzen dute, EAEko enpresa-sare handiena da eta 143 produkzio planta dauzka munduko herrialde ezberdinetan banaturik. 81.837 lanpostu dauzka (2018) bost kontinenteetan banaturik eta bere fakturazio industrialaren %69,7a nazioartetik lortzen du. Dena den, Ulma eta Orona taldeen artean kopuru horiek moldatu dituzte eta 2022an 70.000 lanpostu eta nazioartean 104 lantegi zituen. Ez gaude, beraz, enpresa txiki edo ertain baten aurrean, sistema soziometaboliko oso baten aurrean baizik, dimentsio ekonomiko eta energetiko-material altuarekin.

Aipagarria da globalizazio ekonomikoak zabalduko agertoki historikoan eman dutela Mondragon taldeko kooperatibek hazkuntzarik nabarmenena. Arizmendiarrietaren ekonomia lokala suspertzearen eta bailaran garapen komunitarioa ahalbidetzearen helburua beteta, nazioarteko korrante finantzario globalen joera ate joka zegoen hazkuntza gosez zegoen euskal ekonomian. Besteak beste, Espainia Europar Batasunean sartu izana (1986) eta Berlingo harresiaren erorketak (1989) nazioarteko merkatua jarri zuen jokalaria ekonomiko mendebaldatar orok jokatu beharreko joko-zelai gisa. Fluxu finantzario globalen joera ikusita 90eko hamarkadan nazioarteratzeko erabakia hartzen du taldeak. 1993ko uztailean, 93-94 urteetarako enpresa-politika onartu zuten, mundu komertziora zabaldu eta nazioarteratze plan zehatz bat osatzeko (Cancelo, 1996). Plan horri *Plan Estratégico Corporativo para La Internacionalización* (PECI) deitu zioten eta hartutako erabakiaren arrazoien artean ondoko hauek azpimarratzen dira (Arzadun, 2018). I) Hazteko beharra, taldearen gihar produktiboa mantendu gura bada, merkatu berriak bilatu eta bertan murgiltzea beharrezko pausutzat jotzen da ii) Produktuen dibertsifikazioa, nazioartera aterata produktu berriak ekoizteko prozesuak martxan jar daitezkeela irizten zaio eta produktu horiek errentagarri bihurtu.

iii) Bezero arrazoiengatik, geroz eta bezero gehiagok eurengandik gertu ekoitziak diren produktuak eskatzen dituzte.

Bistan da hiru argudioak merkatu arrazoi zuzenei erantzuten dioten argudioak direla bestelako dimentsioak (komunitatearen ehuntzea, pertsona burujabearen auzia, identitate kooperatiboaren mantenua...) bigarren dimentsio batean lagaz. Taldeak hartutako erabaki hau tesian jasotzea interesgarria zaigu, hortik aurrera biderkatze eta expansioaldi bat ireki baitzen, gaur duen tamaina eta dimentsioa hartzeraino.

Jarraian Mondragon taldeak nazioartean egun dituen produkzio plantak ageri dira.

Taula 7. Mondragon taldea nazioartean.

| | Produkzio Plantak | Korporazioaren bulegoa |
|-------------------------|--------------------------|-------------------------------|
| Alemania | 5 | - |
| Herbehere | 1 | - |
| Belgika | 2 | - |
| Erresuma Batua | 3 | - |
| Irlanda | 1 | - |
| Frantzia | 16 | - |
| Italia | 4 | - |
| Portugal | 4 | - |
| Marruekos | 1 | - |
| Txekiar Errepublika | 8 | - |
| Polonia | 6 | - |
| Eslovakia | 2 | - |
| Errumania | 2 | - |
| Errusia | - | 1 |
| Turkia | 2 | - |
| Txina | 13 | 1 |
| India | 4 | 1 |
| Vietnam | - | 1 |
| Thailandia | 1 | - |
| Australia | 1 | - |
| Amerikako Estatu Batuak | 4 | 1 |
| Mexiko | 7 | 1 |
| Kolonbia | 1 | - |
| Txile | - | 1 |
| Brasil | 6 | 1 |
| Taiwan | - | 1 |
| Orotara | 95 | 9 |

Iturria: Egintza propioa Mondragon Taldeko datuetatik abiatuta.

Taula 8. Nazioartean filialak dituzten kooperatiba sendoenak.

| Kooperatiba | Filial kopurua |
|--------------------|-----------------------|
| Copreci | 6 |
| Fagor industrial | 6 |
| Fagor ederlan | 5 |
| Batz | 5 |
| Cikautxo | 5 |
| Eika | 3 |
| Maier | 2 |
| Matz-Erreka | 2 |
| Mondragon Assembly | 4 |
| Orbea | 2 |
| Orkli | 2 |
| Fagor elektronika | 1 |
| LKS | 1 |
| Tajo | 1 |
| Coinalde | 1 |
| Oiarso | 1 |
| Fagor Arrasate | 1 |
| Lana | 1 |
| MSI taldea | 1 |
| | |

Jasangarritasuna neurtzeko dauden adierazle kuantitatiboen inguruan eztabaida dago komunitate zientifikoan, zein adierazleren bidez ikertu ote litekeen hobekien gizarte eta ekonomia sistema baten jasangarritasun edo ez-jasangarritasun maila. Horien artean, ikerketa soziometabolikoetan ia beti erabiltzen den adierazlea aztarna ekologikoarena da. Datu honek, gizarte baten jarduera neurtzen du lurraren biogaitasunarekin alderatuz. EAEren kasuan 2019ko datua dugu herritar bakoitzak 4,32 hektarea globaleko kontsumoa duela, 1,63 izanik eskuragarri duen biogaitasuna. Datuon arabera, erkidegoko herritar bakoitzak eskuragarri duena halako 2,6 planeta kontsumitzen ditu, hots, 2,6 planetako zor ekologikoa dute. Bizkaitarren kasuan, datua oraindik adierazgarriagoa da, 3,8ko zor ekologikoa baitaukate. Esan beharra dago datuok jasangarritasun irizpideak betetzetik urruti geratzen direla, eta hego blokeko herrialdeen baliabideen erabilera dagoela kontsumo eta jarduera maila horien zoruan.

Gure gizartearen eragin ekologikoaren tamaina neurtzen duen beste adierazle erabilgarri bat Berotegi Efeztuko Gasen *per capita* isuriak dira. Gaindegiaren datuen arabera, Euskal Herriko 2018ko datua 8,3 tona/biztanleko kopuruan kokatzen da, munduko 26. postuan, Belgika (8,0) eta Alemaniaren (8,4) artean.

Esan beharra daukagu begirada metodologiko batetik, Arrasateko Kooperatibak ezin ditugula estatu edo komunitate politiko baten gisan aztertu, autoeraketa ardatz izanagatik esperientzia kooperatiboaren gainean dagoen datu produkzioa ez baita konparagarria herrialde batenarekin. Metabolismo soziala neurtzeko egiten diren ikerketa energetikoek estatuen edo administrazio publikoen datuak erabiltzen dituzte, sistema energetikoaren egoera ezagutu eta bere aztarna neurtzeko. Gure kasuan, ez

dauzkagu Kooperatibismoaren metabolismoaren berri ematen duten datu zehatzak eskuragarri. Bai dakigu ordea, Mondragon Taldeko kooperatibak beste sistema sozioenergetiko zabalagoen baitan kokatuta daudela, batez ere EAE eta Nafarroako ekonomietan duten pisua ikusita. Zehazki, Mondragon taldeak EAEko ekonomian duen pisua nabaria da. Orotara, 35.377 lanpostu betetzen ditu Erkidegoan eta industria sektoreko lanpostuen %9,3a ordezkatzeko du (Mondragon, 2019). Horrez gain, EAEn egiten diren industria produktu guztien esportazioen %11,6a Mondragon taldeko kooperatibei dagokie.

Zentzu berean, dituen diru-sarrerek ematen digute mugitzen duen negozio-bolumenaren berri, 11.936 milioi euro 2017. urteko jardueran eta 12.215 milioi 2018koan. Bestela esanda, EAEko BPGa 2018an 76.888.235 eurotakoa izan zen, pisu esanguratsua izan baduela erakusten digu, beraz, datuak. Are gehiago, Arrasateko Kooperatiba Esperientzian industriak duen pisu zentrala kontuan hartuta, EAEko industria sektorean duen presentzia are nabarmenagoa da, %32,58ko datua emanez 2019an.

Jarraian, EAEko ekonomian kooperatibek duten pisua ageri da, Mondragon taldeko parte direnak eta ez direnak. Ehun kooperatibo sendoa erakusten dute datuek, eta ehun horren ardatza Arrasateko Kooperatiba Esperientziari dagokio, kooperatibetan lan egiten duten langileen %60,45a bere taldeko kide izanik.

Taula 9. Kooperatiben pisua lanpostutan EAEko ekonomian.

| | 2008 | | 2010 | | 2012 | | 2014 | |
|--------------------------|----------------|--------------|----------------|-------------|----------------|-------------|----------------|-------------|
| Kooperatibak | 46.068 | 8,68 | 45.468 | 7,98 | 46.585 | 8,62 | 49.704 | 9,59 |
| Ekonomia sozial klasikoa | 14.113 | 2,38 | 12.658 | 2,22 | 8.796 | 1,62 | 9.193 | 1,77 |
| Ohiko ekonomia | 530.556 | 88,94 | 511.230 | 89,8 | 484.643 | 89,76 | 459.169 | 88,64 |
| Guztira | 590.737 | %100 | 569.356 | %100 | 540.024 | %100 | 518.066 | %100 |

Iturria. Egintza propioa Eustat-eko datuetatik abiatuta.

Are gehiago Gipuzkoako kasua kontuan hartzen baudugu, kooperatiben pisua ekonomian nabariagoa da, jarraian datorren taulan ikus daitekeen bezala. Gipuzkoako enpleguaren %17,85a kooperatibek osatzen dute eta are modu nabarmenagoan ageri zaigu euskal kooperatiba esperientzia handienaren eragina. Ortegak (2018) aztertu bezala, 2008ko krisialdi finantzarioaren ondoren, kooperatibak lanpostuei eusteko formula modura sendotu dira, erresilientzia gaitasuna erakutsita.

Taula 10. Gipuzkoako ekonomian pisua.

| | 2008 | | 2010 | | 2012 | | 2014 | |
|--------------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|
| Kooperatibak | 24.309 | %14,41 | 24.779 | %14,98 | 24.574 | %15,64 | 26.607 | %17,85 |

| | | | | | | | | |
|--------------------------|----------------|-------------|----------------|-------------|----------------|-------------|----------------|-------------|
| Ekonomia sozial klasikoa | 4782 | %2,83 | 3885 | %2,34 | 3479 | %2,21 | 3358 | %2,25 |
| Ohiko ekonomia | 139.599 | %82,76 | 136.731 | %82,68 | 129.025 | %82,15 | 119.042 | %79,9 |
| Guztira | 168.690 | %100 | 165.395 | %100 | 157.078 | %100 | 149.007 | %100 |

Iturria: Egintza propioa Eustat-eko datuetatik abiatuta.

Bada, EAEko sistema sozioenergetikora hurbilduko gara lehenbizi, betiere gogoan izanda egitura produktiboaren zati esanguratsu bat Arrasateko kooperatibei dagokiela. Euskal sistema energetikoaren gabeziak AKEren gabeziak ere baitira, herrialdeko motore ekonomikoetako bat izaki, beraz, zein itsasotan egin behar duen igeri deskribatzea ezinbesteko zaigu. Ondoren hiru Kooperatiba-Talde adierazgarri zehaztutara hurbildu eta beraien jardunaren inpaktuaren berri emango dugu, datuak modu sinplistan estrapolatzea zabarkeria litzatekeen arren, bai uste dugu kasu zehaztutara hurbilduta dauden joera eta prozesu nagusiak identifikatzeko moduan egongo garela.

7.1.2 EAEko sistema sozioenergetikoaren zorrak.

Taula 11. EAE-ren menpekotasun energetikoaren bilakaera

| 2000 | 2002 | 2004 | 2006 | 2008 | 2010 | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 |
|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| 95,2 | 95,2 | 94,6 | 95,1 | 94,8 | 94,3 | 94,5 | 93,3 | 92,9 | 90,0 |

Iturria: Egintza propioa Eustateko datuetatik abiatuta.

EAEEn ekoizten den energia kopurua oso urruti dago bere ekonomiaren beharra asetzetik. 2000. urtetik 2018. urtera arteko zikloa kontuan hartzen badugu, %94-95 inguruko menpekotasun tasa mantentzen da nahiz eta azken urtean puntu batzuk behera egin eta %90ean kokatu den. Horrez gain, erkidegoak jasotzen duen energia-iturriak zein lurraldetatik datorren jakitea ere intereseko zaigu, estrakzio lanek ingurugiro kalte nabarmenak sortzen baitituzte jatorrizko lurraldeetan. Buenoren (2008) ikerketaren arabera, EAEk inportatzen duen petrolioia Iranetik (%35), Errusiatik (%28) eta Mexikotik (%8) letorke. Gas naturalari dagokionez, herrialde esportatzaile nagusiak Nigeria (%44) Trinidad eta Tobago (%27) eta Argelia (%9) dira.

Interesekoa zaigu arlo honi begiratzea, EAEren ekonomiaren hazkuntza eta ondorioz Mondragon taldearena beste herrialde batzuetako lehengaiak erabiltzetik etorri baita, kostuen esternalizazioaren azterketak merezi luke arreta ikuspegi sozio-ekologikotik.

Taula 12. Energia kontsumoaren bilakaera EAEn

| Urtea | Ikatza eta deribatuak | | Petroliotik eratorriak | | Gas naturala | | Energia berriztagarriak | | Energia elektrikoa | | Energia deribatuak | | Orotara |
|-------|-----------------------|-------|------------------------|--------|--------------|--------|-------------------------|-------|--------------------|--------|--------------------|-------|----------|
| | | | | | | | | | | | | | |
| 2013 | 47 | %0,93 | 2004 | %39 | 1418 | %26,24 | 15 | %0,29 | 1292 | %25,59 | 15 | %0,29 | 5049 ktp |
| 2015 | 45 | %0,89 | 2134 | %42,39 | 1.289 | %25,60 | 20 | %0,39 | 1289 | %25,6 | 20 | %0,39 | 5034 ktp |
| 2017 | 37 | %0,7 | 2323 | %43,96 | 1.326 | %25,09 | 342 | %6,13 | 1240 | %23,46 | 16 | %0,30 | 5284 ktp |

Iturria: Egintza propioa Eustatetik abiatuta.

Datu hauek jasangarritasun parametrotan aztertuta ezin dezakegu esan ardatz energetiko jasangarri baten aurrean gaudenik. 2017ko datuak kontuan hartuta guztizko energia kontsumoaren %43,96a petroleotik eratorritako erregaietatik jaso genuen eta %25,06a gas naturalatik. Hortaz, EAEko energia kontsumoaren %70,2a erregai fosilen bidez egindakoa da. Horri energia autohornikuntzaren datuak gehitzen badizkiogu sistema energetikoaren ahultasunak azalera izaten ditu.

Taula 13. Industriaren eta garraioaren kontsumo energetikoa EAEn.


| | 2006 | 2008 | 2010 | 2012 | 2014 | 2016 | 2017 |
|--------------------|------------------------|------------------------|------------------------|------------------------|------------------------|------------------------|------------------------|
| Guztizko kontsumoa | 5.596 ktep | 5.756 | 5.360 | 5.132 | 4.983 | 5.008 | 5.284 |
| Industria sektorea | 2.568 %45,88 | 2.684 %46,87 | 2.428 %45,29 | 2.169 %42,26 | 2.074 %41,62 | 1.960 %39,13 | 2.058 %38,94 |
| Garraioa | 1.867 %33,36 | 1.906 %33,11 | 1.763 %32,89 | 1.822 %35,5 | 1.861 %37,34 | 2.013 %40,19 | 2.130 %40,31 |

Iturria: Egintza propioa Eustateik abiatuta.

Goiko taulan EAEko guztizko kontsumo energetikoan sektore industrialak duen pisua adierazten dugu Eustateko datuetatik abiatuta. 2006-2017 urteen artean industriaren guztizko kontsumoaren pisu absolutua jaitsi bada ere %45,88tik %38,94ra, Erkidegoko ekonomia jardunean kontsumitzen den energiaren zati esanguratsua sektore horretatik dator. Berdina esan dezakegu garraio sektorearen kasuarekin, alderantzizko joera erakusten duena 2006-2017 aldian, %33,36ko pisua izatetik guztizko kontsumoan

%40,31 izatera igaro baita. Dena den, bien arteko batura eginda EAEko guztizko kontsumoaren %79,25a bi sektore horien jardunetik etorri zen, zeintzuk erregai fosilekiko menpekotasun tasa altua duten. Esan liteke, horrenbestez, EAEko egitura ekonomikoa kontsumo energetiko altuko sektoreetan oinarritzen dela, aro moderno fosilistaren antzeko egitura mantentzen du gaur gaurkoz, menpekotasun fosil handiarekin.

Argazki metaboliko horri, material jarioen datua gehitu behar diogu. Hori azaldu ahal izateko Sankey diagrama da baliabide egokia, energia kontsumoaren ezaugarriei zein material motaren kontsumoa gehitzen zaion adierazten baitigu. Almazán eta Reyesek (2023) dioten bezala, diagraman ikusi dezakegu EAEko ekonomia jarduera kanpora begira egituratzen dela. Bertan erabiltzen ditugun materialen %75a inportatua da eta %71 esportatua. Hori guztia posible egiteko, gogorarazi behar dugu garraio sektorea ezinbestekoa dela, material guzti horien joan-etorriak bermatzen baititu. Erregai fosilek mugiarazten dute garraio sektorea %95ean.



Oharra: biribiltzearen ondorioz fluxuen gehiketak beharbada ez datoz bat guztizkoekin

3. Irdia: EAEko Ekonomiaren Sankey Diagrama. Ekonomia Zirkularraren adierazleak, Euskadi 2018. Europako Jarraipen Esparrua. (Ihobe, 2018).

Diagraman ikus daitekeen moduan, erregai fosilen eta mineral metalikoen ia guztia inportatu egiten du EAEko ekonomiak. Aldi berean, metabolismo ekonomikoan sartzen diren materialen %2,5a birziklapen zirkuluan sartzen da, eta %6,7a gizarte izakinetara bideratzen da. Esan liteke, hortaz, produktuen bizitza-ziklo osoa neurri bajaran sartzen dela zirkularitate ekologikoaren parametroetan. Eskema metaboliko horretan bi ahultasun nagusi identifikatu ditzakegu: batetik, klima krisiaren testuinguruan, erregai fosilekiko mendekotasun erabatekoa; bestetik, mineral estrategikoen erabilera ere, mendekotasun kokapen batean jartzen du EAEko ekonomia. Gainera, mineral horien erauzpena tentsio geopolitikoak dauden herrialdeen kontrolpean dagoela kontuan hartzen badugu (Almazán eta Reyes, 2023: 13), oraindik gehiago bihurtzen da egoera. EAEko ekonomiaren ezaugarri nagusiak, beraz, lineala (zirkularitate gutxi), ez-berriztagarria eta kanpo merkatuarekiko guztiz mendekoa izatea dira. Zikloak ixteko gaitasun falta horrek, eta metabolismo fosil nabarmenak krisi ekologikoaren aro historikoan pisuzko zaurgarritasunak jartzen ditu agerian.

Intentsitate energetikoari dagokionez, neurri honek EAEn urte horretan milioi bat euro ekoizteko BPG-an zenbat energia behar izan den adierazten digu, petroleo tona ekibalentzia erabiliz (tep). Urteen bilakaeraren arabera eraginkortasun energetikoan hobekuntza gertatzen dela ikus dezakegu, ekonomiaren tertziarizazioaren eraginez, besteak beste. Arrasateko kooperatibek darabilten energia kopuru osoa kalkulatzeko, estimazio posible bat datu hori erabiliz egingo dugu. Arrasateko kooperatibismoa batez ere euskal sistema sozioenergetikoan murgildua dagoela kontuan izanik, 2008an 15.584 milioi euroko salmentak izan zituen. Urte horretan BPG-an milioi euroko 146 tep behar izan zirela kontuan hartuta, 2.275 tona petroleo behar izan zituela estimatu dezakegu. Dena den, berriz azpimarratu nahi dugu datuaren estimazio izaera.

Taula 14. Intentsitate energetikoa EAE-n eta Arrasateko Kooperatiben errendimendura estrapolazioa

| Urtea | 2006 | 2008 | 2010 | 2012 | 2014 |
|---|--------------|--------------|--------------|-------------|--------------|
| Intentsitate energetikoa | 151,1 | 146,0 | 143,8 | 101,4 | 94,9 |
| Urteko Salmentak | 13.390 M€ | 15.584 M€ | 13.989 M€ | 12.903 M€ | 10.985 M€ |
| Erabilitako energia kopurua (petroleo tonaka) | 2.113 | 2.275 | 2.000 | 1308 | 1.042 |

Iturria: Egintza porpioa, Mondragon Taldeko txostenetatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eustateko datuetatik abiatuta.

Azken urteetan intentsitate energetikoaren jaitsiera bat gauzatzen ari dela dirudi, hortaz estimazioak ere beherantz egiten du. Hala ere, aldagai ugari kanpoan geratzen dira (kanpoko produkzioa, nazioarteko garraio kateak erabilitako energia, sektore bakoitzaren bereizgarritasunak...) eta estimazioaren datua moldagarria da ikerketa zehatzagoa eta sakonagoa eskatuko lukeena, DebaGoienako bailarako intentsitate energetikoaren datu zehatzarekin, estimazio finagoa egin ahalko genuke. Dena den, hurbilpenak balio digu ohartzeko Mondragon taldearen erregimen metabolikoa jasangarritasun parametroetan sartzetik urruti dagoela gaur gaurkoz.

Era berean, Bagara elkarteak Debagoiena eskualdearentzat 2014an hango herritarrek zuten isurpen maila neurtzeko egin zuen ikerketak, datu baliotsuak jartzen dizkigu eskura. Bertan ondorioztatu zuten, DebaGoienako herritar bakoitzak 12,36 Tona

Karbono Dioxido (TCO₂) isurtzen zutela urtean, Autonomia Erkidegoko (8,8 Tco₂) eta Europar Batasuneko (8,4 Tco₂) batatz bestetik gora⁶⁰. Mendekotasun energetikoari dagokionez, txosten berean zehazten denez, 2019an DebaGoienak erabili zuen energiaren %5,2a soilik sortu zuen; beraz, horrek %94,8ko mendekotasun tasa ematen digu.

7.1.3 Ardatz energetiko kooperatiboa, ordainagiri metabolikoa

Mondragon taldea 281 enpresa eta erakundek osatzen dutenez, oso zaila zaigu guztien arrasto energetikoari jarraitzea. Alabaina, jarraian datozen tauletan adierazten den moduan, industria sektorea da taldearen birika produktiboa eta lanpostu gehien biltzen dituen. Osotasunaren argazki zehatza izateko aukera bada ere interesgarriena, arrazoi metodologikoak medio industria sektorean zentratuko dugu gure analisia, batetik, fluxu energetiko-materialen kontsumoari dagokionez inpaktu handiena duen sektorea delako (ikus EAEko industria sektorearen datuak) eta bestetik, Mondragon taldearen kooperatiba handienak (langile kopuruz, fakturazioz eta produkzio eskalaz) bertan daudelako. Taldearen barruan erreferentziazkoak diren kooperatibak hautatu ditugu bertatik gaiaren inuguran jaso dezakgun informazioa adierazgarria dela sinetsita. Ondoren industria sektore osora estrapolatzea zehatza ez bada ere, datu horietara hurbiltzeak balioko digu kooperatiben jardunak dituen behar energetiko sakonei begiratzeko eta produkzio jasagarrien parametroekin alderatzeko. Hala, Korporazioak 2019an egindako ikerketan oinarrituko gara, ingurumen inpaktuaren gainean egin den lehen eta datuen zehaztasunera gerturazten gaituen bakarra.

Halatan, energia kontsumoari dagokionez, 2019. urtean jatorri ez berriztagarrien bidez kontsumitutako elektrizitatea 885.713 mwh-koa izan da, kontsumitutako elektrizitate guztiaren %57,5a. Kopuru horri gas naturalaren kontsumoa (514.520 mwh) eta gasoleoarena (250.335 mwh) gehitzen badiogu korporazioaren kontsumo energetiko guztiaren %72a iturri ez berriztagarrietatik datorrela ondorioztatuko dugu. Datu horiei produktuen banaketak garraio sistemaren bidez eskatzen duen konbustio-iturriko motorren erabilera gehitu behar zaio, azken produktuak balio-kate guztian izan duen CO₂ aztarna neurtzeko. Kasu honetan ez dugu garraio sistemaren (erregai fosiletan oinarritua) daturik lortu, beraz, datuak produkzio plantetakoak dira.

⁶⁰ Datuak "Eraginez Piztu: Debagoienako Trantsizio Energetikorako esku-hartze proposamena" txostenetik jaso dira.

Taula 15. Langile kopuruaren bilakaera eta industria sektoreko langileen pisua taldean

| | 2006 | 2008 | 2010 | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 | 2020 |
|--------------------------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|
| Orotara taldea | 83.601 | 92.773 | 83.859 | 80.321 | 74.117 | 76.635 | 81.837 | 81.507 |
| Industria eremua | 42.167 | 40.822 | 37.839 | 36.936 | - | 34.329 | 38.722 | 39.131 |
| Guztira ehuneko a | %50,43 | %44,00 | %45,12 | %45,98 | - | %44,79 | %47,31 | %48,01 |

Iturria: Egintza propioa Mondragonek txostenetatik abiatuta.⁶¹

Mondragon taldeko kooperatibak lau eremu nagusitan banatuta dauden arren (finantza, industria, ezagutza eta banaketa), taulan ikus dezakegun gisan industriaren sektorea da lanpostuen ia-erdia betetzen duena. 2006. urtetik 2020rako zikloa kontuan hartzen badugu, antzeko kopuruetan mantendu da industriaren pisua taldearen barruan, lanpostuen %48a ordezkaturik. 2008ko krisialdiaren ondoren industriaren sektorearen giharra mantendu dela ikusten da Mondragon taldeko egitura okupazionala antzeratsua izanez bai 2006an eta bai 2020an.


2019ko ingurugiro inpaktuaren Mondragoneko txostenean ikus dezakegun legez, energia iturri ez berriztagarrietatik jasotako energia elektrikoa da gehien kontsumitzen dena 57 kooperatiba esanguratsuenetan. Zehazki, iturri berriztagarrietatik jasotakoa %28a da eta iturri ez berriztagarrietatik datorrena %72koa.

Taula 16. Mondragoneko kooperatiben kontsumoa.

| Iturria | Gasoleoa | Gas Naturala | Elektrizitate ez-berriztagatia | Elektrizitate berriztagarria (GdO) |
|---|---------------|---------------|--------------------------------|------------------------------------|
| Kontsumoa kooperatibetan Guztira | 250.335 (mwh) | 514.520 (mwh) | 885.713 (mwh) | 654.422 (mwh) |

Iturria: Egintza propioa Mondragon 2019tik abiatuta.

⁶¹ Urte guzti horietako txostenetatik jasotako datuak bildu ditugu taulan. Irakurleak antzemango zuen gisan, 2014ko txostenean ez dago industria arloko enplegu zehatzari buruzko daturik, beraz, ezin izan dugu urte horretako kalkulua behar bezala burutu.



4. Irudia: Energia iturrien banaketa Arrasateko Kooperatibetan. Egintza propioa.

Goiko irudian ikusten dugun eran, elektrizitate ez-berriztagarria da kontsumorik handiena duena, eta gas naturalaren erabilera oparoa egiten da, industrian erabiltzen diren beroketa-prozesuetarako (labeak, berogailu-sistemak). Banaketa horren arabera energia iturrien %28 berriztagarria litzateke eta aldiz %72ak iturri ez-berriztagarria luke, elektrizitate ez-berriztagarria izanik gehien kontsumitzen dena %38,4ko kopuruarekin. Guztizko isurien kalkulua egiteko, trantsizio ekologikoaren ministerioko adierazleetan oinarritu gara, ondoko balio hauek ematen dituena:

Taula 17. Berotegi efektuko gasen isurketa faktoreak:

| Energia Iturria | Isurketa Faktorea (kg C02/KWh) |
|-----------------------------------|--------------------------------|
| Elektrizitatea | 0,270 |
| Gas Naturala | 0,203 |
| Petroliotik eratorritako likidoak | 0,243 |
| Petroliotik eratorritako gasak | 0,228 |
| Ikatza eta deribatuak | 0,245 |

Iturria: Espainiako Trantsizio Ekologikorako Ministerioa

Isurketa faktore horiekin kalkuluak eginda honako emaitza izango genuke:

- 1) Gas Naturalaren kontsumotik 114.448 tona Co2-ko isurketa atmosferara 2019. urtean.
- 2) Elektrizitate ez-berriztagarritik 239.143 tona C02ko isuria.
- 3) Gasoleotik eratorritako isuriak 60.831 tona Co2.
- 4) Elektrizitate berriztagarritik 0 tona Co2


Isurketa faktore guztiak kontuan hartuta, beraz, 591.116 tona-ko Co2 isurien kopurua izango genuke urte beteko aldirian Trantsizio Ekologikoko Ministerioaren adierazleetan

oinarrিতuta. Mondragon taldeko txostenak eskainitako datuetara lerratzen bagara, hauek dira datu estatistikoek adierazten dituzten emaitzak:

Taula 18. Mondragoneko kooperatiben isuriak.

| | Gas fluoratuak | Kontsumo energetikoa | Guztizko kontsumoa |
|--------------------------|----------------|----------------------|--------------------|
| CO2 isuria (tona) | 36.566 t. | 474.385 t. | 510.951 t. |

Iturria: Egintza propioa Mondragon 2019tik abiatuta.




5. Irudia: CO2 isurien banaketa Arrasateko Kooperatibetan. Egintza propioa.

Guztizko Co2 isurien emaitza ezberdina bada ere (arrazoi metodologikoak tarteko) biek ere 500.000 tonatik gorako kopuruak ematen dituzte. Batez ere produkzio plantetan erabiltzen diren gas naturalaren eta kontsumo elektrikoaren ondorioz sortzen dira berotegi efektuko isuri gehien. Zehazki gas fluoratuetatik eratorritako isuriak %7,2koak dira eta kontsumo energetikotik eratorritakoa %92,8koa. Dena den, aipatu behar da datu horietan ez dela balio-kate guztia kontuan hartzen, kooperatiben produkzio plantek sortzen dutena soilik. ISO (Nazioarteko Normalizaziorako Antolakundeak) bere 14064 arauan zehazten duenez, Negutegi Efektuko Isuriak hiru taldetan banatzen dira: i) Emisio zuzenak antolakundearen produkzio jardunetik eratorriak ii) Energia kontsumotik eratorritako emisioak iii) Zeharkako emisioak, langileen lanposturako joan-etorrietatik, negozio bidaietatik, produktuen garraio eta banaketatik edo kontsumitzen diren materialen bizi-ziklotik eratorriak.

Gure kasuan, soilik lehen eta bigarren adierazleetara lotutako datuak hartu ditugu kontuan, eta ikerketa sakon eta xehea eskatuko luke hirugarren adierazlea kontuan hartuko lukeen txosten zientifiko bat osatzeak. Ondorioz pentsa genezake, produktuen garraioan eta banaketan, langileen joan-etorrietan edo negozio bidaietan erregai fosilen

erabilerarekin isurtzen den CO2 kopurua kontuan hartuz gero, negutegi efektuko isuriaren datua altuagoa izango litzatekeela. Dena den, taulan adierazi gisan, eskura ditugun datuekin guztira urte bateko jardunean 510.951 tona CO2 isuri direla atmosferara zehaztu dezakegu.

Nazioartera zabaltzeko estrategia lanpostu sorkuntza eta mantenu ikuspegitik asmakuntza izan zela argudiatu bada ere posizio diskurtsibo jakin batetik, begirada sozioekologikotik kezkarako tarte zabaltzen du. Aro globalean filialak sortu eta produkzio plantak biderkatzea, hazkuntza ekonomikoaren ideiarekin jarraitzea eta barneratzea adierazten du eta ondorioz, energia eta baliabide kopuru altuago baten kontsumoa.



6. Irudia: Lehengaien kontsumoaren banaketa Arrasateko Kooperatibetan. Egintza propioa.

Materialen kontsumoari dagokionez, taulan ikus liteke metalurgiaren duen pisua Arrasateko Kooperatibetan, kontsumitzen diren lehengai guztien %62a metalaren sektorerako erabiltzen delarik. Materia laguntzaileen kasuan ere, harea erabiltzen da gehienbat metalarekin batera produkzio prozesuetan, zeinak ondoren zabor bezala kudeatzeko arazoak sortzen dituen ingurugiro ikuspegi batetik (Mondragón, 2019).

Jarraian, azterketa honen izaera orokorrak zehaztasunean irabazi dezan, Arrasateko Kooperatibetan artean esanguratsuak diren hiru talderen egoera metabolikoa aztertuko dugu. Gure irudiko, kooperatibismoaren senean duten tradizio historikoagatik, tamainagatik eta jarduten duten sektoreagatik, adierazgarri onak dira Arrasateko Kooperatibismoak dituen ezaugarrietara gerturatzeko, eta gure buruak lurralde horretan kokatzeko.

7.1.4 DANOBAT GROUP

Lehenik eta behin, Danobat taldearekin hasiko gara. Horretarako 2021. urtean argitaratu zuten *Memoria de Sostenibilidad. Growing Sustainable* txostenean oinarrituko gara. Bertan, kooperatibaren egoeraren berri ematen dute hainbat adierazletan, hala nola, erabilitako energia kopuruan, isuritako Berotegi Efektuko Gasetan edota sortutako hondakinetan.

Eskura ditugun datuen arabera, energia elektrikotik eta gas naturaletik eratorritako kontsumoak zehaztu ditzakegu. Hala, Danobatek Elgoibarren (Ideko eta Danobat), Osintxun (Soraluce) eta Itziarren (Goimek) dituen plantetako kontsumoa zein den zehaztu dugu ondorengo tauletan, eta baita eremu bakoitzari dagokion ehunekoa zein den.

Taula 19. Energia kontsumoa Danobat:

| Elgoibarko plantaren energia kontsumoa (Danobat)(KWh/urte) | 2020 | Ehunekoa | 2021 | Ehunekoa |
|--|----------------|----------|----------------|----------|
| Energia elektrikoa | 2.303.644 kw/u | % 64,77 | 2.328.238 kw/u | %57,32 |
| Gas Naturala | 1.252.625 kw/u | %35,23 | 1.732.952 kw/u | %42,68 |
| Guztira: | 3.556.269 kw/u | %100 | 4.061.190 kw/u | %100 |

Iturria: Egintza propioa, Danobat 2021ean oinarritua.

Taula 20. Danobat taldearen Osintxuko planta

| Osintxuko plantaren energia kontsumoa (Soraluce) (KWh/urte) | 2020 | Ehunekoa | 2021 | Ehunekoa |
|---|----------------|----------|----------------|----------|
| Energia elektrikoa | 1.749.000 kw/u | % 51,48 | 1.960.000 kw/u | % 46,68 |
| Gas Naturala | 1.648.000 kw/u | %48,51 | 2.238.000 kw/u | % 53,32 |
| Guztira: | 3.397.000 kw/u | %100 | 4.198.000 kw/u | %100 |

Iturria: Egintza propioa, Danobat 2021ean oinarritua.

Taula 21. Danobat taldearen Itziarko planta

| Itziarko plantaren energia kontsumoa (KWh/urte) | 2020 | Ehunekoa | 2021 | Ehunekoa |
|---|----------------|----------|----------------|----------|
| Energia elektrikoa | 2.383.604 kw/u | % 98,90 | 2.230.172 kw/u | % 98,41 |
| Gas Naturala | 26.489 kw/u | % 1,10 | 35.833 kw/u | % 1,58 |
| Guztira: | 2.410.093 kw/u | %100 | 2.266.005 kw/u | %100 |

Iturria: Egintza propioa, Danobat 2021ean oinarritua.

Taula 22. Danobat taldearen Elgoibarko planta

| Elgoibar energia kontsumoa (Ideko) (KWh/urte) | 2020 | Ehunekoa | 2021 | Ehunekoa |
|---|--------------|----------|----------------|----------|
| Energia elektrikoa | 658.102 kw/u | % 75,76 | 748.465 kw/u | % 72,83 |
| Gas Naturala | 210.521 kw/u | % 24,23 | 279.183 kw/u | % 27,17 |
| Guztira: | 868.623 kw/u | %100 | 1.027.648 kw/u | %100 |

Iturria: Egintza propioa, Danobat 2021ean oinarritua.

Behin kopuru horiek kontuan hartuta, lau lantegien arteko batura eginda Danobat taldeak bi energia iturri horietatik duen gutzizko kontsumoa kalkulatu dugu ondorengo taulan.

Taula 23. Danobat taldearen gutzizko kontsumoa

| Gutzizko energia kontsumoa (KWh/urte) | 2020 | Ehunekoa | 2021 | Ehunekoa |
|---------------------------------------|-----------------|----------|-----------------|----------|
| Energia elektrikoa | 7.094.350 kw/u | % 69,33 | 7.266.875 kw/u | % 62,90 |
| Gas Naturala | 3.137.635 kw/u | % 30,66 | 4.285.968 kw/u | % 37,10 |
| Guztira: | 10.231.985 kw/u | %100 | 11.552.843 kw/u | %100 |

Iturria: Egintza propioa.

Energia kontsumoko datu horietan oinarrituta, Espainiako Trantsizio Ekologikoko Mininsteritzak emandako adierazleak aintzat hartuz, berotegi efektuko isurien kalkulua egiteko moduan gaude. Ondorengoak dira ateratzen diren gutzizko isurien kopuruak:

Taula 24. Orotara emisioak, Danobat taldea:

| Karbono Azterna | 2020 | 2021 |
|--------------------------------|----------------|----------------|
| C02 emisioak elektzitatetik | 1.915 tona C02 | 1.962 tona C02 |
| C02 emisioak naturaletik | 637 tona C02 | 870 tona C02 |
| Guztizko CO2 emisioak | 2.552 tona C02 | 2.832 tona C02 |

Iturria: Egintza propioa.

Datu hauek kontuan izanik, 2020. Urtean 2.552 tona Co2 isuri zituen atmosferara taldeak eta 2021ean 2.832. Beraz, %10,97ko hazkuntza gertatu zen isurietan 2020tik 2021era.

Bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarrtasun Ekologikoaren legeak ezartzen duen 2050era begirako %60ko murrizpen energetikoaren helburua hartuko dugu erreferentzia bezala, jasangarrtasun irizpideen barruan sartuko litzatekeen jarduna zein izango litzatekeen zehazteko. Argi gera bedi, hurbilpen bat baino ez dela, eta eztabaida dagoela komunitate zientifikoan jasangarrtasun kontzeptuari eta berau neurtzeko erabili beharreko adierazleei buruz. Guk, Legebiltzarrak hartutako legea hartuko dugu oinarri, Parisko hitzarmenean jasotako helburuetatik idatzitako datuak baitira, oinarri zientifikoetatik eraikiak. Legeak dioenez, jarraitu beharreko helburu lotesleak ondorengoak dira: "Europar Batasunaren helburu lotesleak dira 2030erako BEG isurketak % 40 murriztea 1990ekoen aldean, energia berriztagarriek energia guztien % 32ko kuota osatzea, eta efizientzia energetikoan % 32,5 hobetzea".

Bada, Danobaten kasuan horrek esan nahi luke 6.931.705,8 kw/u gutxiago kontsumitzea. Hori lortzeko modua gas naturala eta petrolioa erabiltzeari utzi eta kontsumitzen den energia elektrikoaren kopururik ahalik altuena berriztagarrietatik lortzea litzateke, berriztagarrietatik lortutako elektrizitateak teorian 0 isuri/urteko datua baitu. Halatan, Danobat taldeak EAEko legeak zehazturiko jasangarrtasun irizpideetan sartzeko 4.621.137.2 kw/u-ko kontsumoa edukitzea lortu beharko luke, jaitziera gradual eta ordenatu batean. Bestalde, erabilitako produktuen bizi-zikloen azterketak behar luke analisi sakona, berauek ere irizpide jasangarrietara garraiatzeko.

7.1.5 FAGOR TALDEA

Fagor taldeari dagokionez, nabarmena da bere pisua eta protagonismoa Arrasateko Kooperatiba Esperientzian. Iraunkortasunarekin lotutako taldeko datuak, 2021eko Iraunkortasun Memoriaren txostenean oinarritu ditugu, *Etorkizuna Hobetzeko, Iraunkortasuna eta Berrikuntza* izenburupean idatzitako txostena, hain justu. Taldearen tamaina eta sektorea kontuan hartuta, esaterako fundizioaren prozesu industrialetan energia eskari altua dago, kontsumo energetiko altuko datuak ageri zazikigu:

Taula 25. Fagor taldearen energia kontsumoa:

| Energia mota | 2020 | Ehunekoa | 2021 | Ehunekoa |
|--------------------|------------------|----------|------------------|----------|
| Elektrikoa | 438.050.000 kw/u | %61 | 490.640.000 kw/u | %70 |
| Ez-elektrikoa | 209.730.000 kw/u | %39 | 209.730.000 kw/u | %30 |
| Guztizko kontsumoa | 647.750.000 kw/u | %100 | 700.370.000 kw/u | %100 |

Iturria: Memoria de Sostenibilidad 2021. *Etorkizuna Hobetzeko, iraunkortasuna eta berrikuntza.*

Taula 26. Fagor Taldearen isuriak:

| Berotegi Efectuko Gasen isuriak | 2020 | 2021 |
|---|---------------------|---------------------|
| Co2 emisioak kontsumo elektrikutik | 79.090,40 tona Co2 | 80.101,04 tona C02 |
| C02 emisioak erregai fosiletatik | 28.878,70 tona Co2 | 41.345,18 tona C02 |
| Langileen emisioak (Lanerako joan-etorriak etab.) | 10,26 tona C02 | 10,75 tona C02 |
| Emisio fakturatuak 100m€ | 8,14 tona C02 | 8,20 tona C02 |
| Guztizko emisioak | 102.696,10 tona C02 | 121.446,22 tona C02 |

Iturria: Memoria de Sostenibilidad 2021. *Etorkizuna Hobetzeko, iraunkortasuna eta berrikuntza.*

Ikus dezakegunez, taldeak 2021. Urtean 18.750,12 tona CO₂ gehiago isuri zituen atmosferara 2020. urtearekin alderatuz. Kasu honetan ere, EAeko trantsizio ekologikoko legeak ezartzen duen %60ko murrizpena iristeko, esan nahi luke 400.222.000 kw/u gutxiago kontsumitzea. Egoera optimoa erregai fosilen erabileratik eratorritako isuriak ahalik gehien murriztea, eta kontsumitzen duen argindarra berriztagarrietatik lortzea litzateke, berotegi efektuko gasen isuriak isurtzea eragotziz. Kasu horretan, demagun energia berriztagarriekin kontsumoaren %60 estaltzea lortzen dugula eta erregai fosiletatik deslotzen garelara 280.148.000 kw/u-ko kontsumoarekin, 112.059.000 kw/u izango lirake argindar iturri ez berriztagarritik sortutakoak. Modu horretan, 30.255,93 tona CO₂ isuriko genituzke atmosferara urtean, 2021. urtean baino 91.190,29 tona CO₂ gutxiago.

Murrizpen hori esanguratsua eta nabarmena izan arren, gogorarazi behar dugu oraindik ere kopuru altua izaten jarraitzen duela eta erabateko deskarbonizaziotik urruti geratzen dela. Horren arrazoi nagusietako bat, Fagorrek duen dimentsio globala da, nazioarteko merkatuetan integratua egoteak zaildu egiten dio trantsizio ekosozialerako bidea. Industria meharrago eta berriztagarria edukitzea, lurraldearekin konexioan, nekeza da ezkontzen autogintza moduko sektoreen jarduera intentsiboarekin. Berotegi Efektuko Gasen murrizpenak, beraz, metabolismo fosilarekin lotutako industrietatik aldentzeko estrategiak garatzearekin du zerikusia, teknologia sinpleagoetan ardaztuko den industria ekologiko baterako bidean. Dena den, birgaitze industrial horrek eskatzen dituen zailtasunak eta izango dituen oztopoak (ekonomikoak, kulturalak, eta politikoak) askotarikoak dira, datozen ataletan saiatuko gara horien gainean gogoeta zentral batzuk jaurtitzen.

7.1.6 COPRECI

Hirugarrenik Copreci kooperatibaren kasua hartu dugu kontuan. Esan behar da Coprecik 6 ekoizpen planta dituela nazioartean eta produktuen garraio globalak ez direla kontuan hartzen ondorengo datuetan. Copreci taldearen datu hauek *Memoria de Sostenibilidad. Estado de Información No Financiera Consolidado, Ejercicio 2021* txostenetik atera ditugu.

Taula 27. Copreci kooperatibaren kontsumoa

| Guztizko energia kontsumoa (KWh/urte) | 2020 | Ehunekoa | 2021 | Ehunekoa |
|---------------------------------------|-----------------|----------|-----------------|----------|
| Energia elektrikoa | 28.740.150 kw/u | 77% | 34.414.917 kw/u | 76% |
| Gas Naturala | 8.722.032 kw/u | 23% | 10.769.347 kw/u | 24% |
| Guztira: | 37.462.182 kw/u | %100 | 45.184.264 kw/u | %100 |

Iturria: Memoria de Sostenibilidad. Estado de Información No Financiera Consolidado, Ejercicio 2021

Taula 28. Copreciko kooperatibako isuriak

| Berotegi Efektuko Gasen isuriak | 2020 | 2021 |
|------------------------------------|--------------------|--------------------|
| Co2 emisioak kontsumo elektrikutik | 10.177,58 tona CO2 | 8.643,74 tona Co2 |
| CO2 emisioak erregai fosiletatik | 1824,44 tona CO2 | 1968,58 tona Co2 |
| Emisio fakturatuak 100m€ | 190,56 tona CO2 | 197,71 tona CO2 |
| Guztizko emisioak | 12.255,56 tona CO2 | 10.863,71 tona CO2 |

Iturria: Memoria de Sostenibilidad. Estado de Información No Financiera Consolidado, Ejercicio 2021

Copreciren kasuan azertzen dugunez, kontsumoa eta isuriak Fagor taldeak dituenak baino nabarmen baxuagoak dira. 2021. urtean 45.184.264 kw/u-ko datua ematen du eta isuriak 10.863,71 tona CO2koak dira. Esan behar da, 2020an baino kontsumo energetiko altuagoa izan arren 2021. Urtean, isurien murrizpena berriztagarrietatik kontratatutako energia kopuruaren areagotzeari zor zaiola. Zehazki, argindar kontsumoaren %19a izan zen iturri berriztagarritik kontratatua. Bada, egiten ari garen ariketa berdinarekin jarraituz, Copreci taldea jasangarritasun helburuetara irits dadin ondoko murrizketa beharko luke:

27.110.558,4 kw/u gutxiago kontsumitu beharko luke urtean. Modu horretan, erregai fosilen kontsumoa Ora ekarrita eta iturri berriztagarrietatik argindarraren %60a estalita, 1951,960 tona CO₂ isuriko genituzke atmosferara urtean, 2021. urtean baino 8911,75 tona CO₂ gutxiago.

Hiru kooperatiben kontsumo energetikoaren eta isuriaren egoera aztertu badugu ere, darabiltzaten materialen eta ekoizten dituzten produktuen bizitza-zikloen azterketa egitea ere interesgarria litzateke, ez soilik isuriaren eremuan, baizik eta balio-kate osoaren jasangarritasunean jarriko genukeelako arreta. Lan hori egiteko ikerketa-talde handiak eta datu-base erraldoiak beharko lirateke, ikerlari honen eskuragarritasunetik haratago doazenak. Dena den, eta arreta Berotegi Efektuko Isurietan jarrita, ikusten dugu Arrasateko Kooperatibak klima aldaketan eragiten duten isuriaren emisore handiak direla eta Jasangarritasun helburuetara iristeko bidea oraindik luzea dela. Hala ere, jada gaur martxan jarri daitezkeen egokitzapen ugari daude efizientzia energetikoan, mugikortasun eta garraio moldeen egokitzapenean, energia kontratuen aldaketan, argindarraren ekoizpen propioan eta kontsumo energetiko oso altua eskatzen duten prozesu produktiboen berrikuspen sakonean.

Behin Arrasateko Kooperatiben organismo metabolikoaren ezaugarritzea eginda, datozen orriotan, metabolismo sozialaren ardatz sozioekonomikoa aztertzeari ekingo diogu. Ezeren aurretik, komeni zaigu aurreratzea merkatu ekonomia baten baitan eraturiko esperientzia sozioenpresariala izaki, bere metabolismo sozialaren adar ekonomikoa beti egongo dela ohiko praktika kapitalistak erreproduzitzeko muga lausoa gurutzatzeko gertu. Tarte txikia lagatzen du, beraz, modernitatearen ardatz nagusietatik haraindi joango den erregimen soziometaboliko alternatibo baten diseinu eta praktikarako. Bada, elkarrizketen analisiaren bidez ezagutuko dugunez, merkatuaren inbutuak eta logika kapitalistak sorturiko sakoneko kontresanek bidea zailtzen diote post-hazkundera jauzi egin gura duen edozein proposamen sozioekonomiko kooperatibistari.

7.2 Ardatz sozioekonomikoa. Makina-Kooperatiboa, gehiegizko burokraziaren eta aro malguaren artean.⁶²

7.2.1 Demografia eta hiriaren auzia

Arrasateko kooperatiben erronka estrukturaletan arreta jarriz lehenbizi, badira oro har lan merkatuari eragiten dioten arazo estrukturalak. Alde batetik, gure gizartearen egitura demografikoari erreparatu behar diogu. Izan ere, biztanleria aktiboan gazte belaunaldien pisu absolutua eta erlatiboa baxuagoa da, eta horrek enplegatu gazteen kopurua txikiagotzeaz gainera, biztanleria aktiboa zahartzearen eraginez aurrerabide teknologikoaren berrikuntza eta zabalkundea makaltzen ditu, ardura postuetako elkarrizketatuen arabera. Egoera horretan, kooperatibek birkualifikazio estrategiak jarri behar dituzte martxan, jende berria erakartzeaz gain:

“Demografia beherantz dijoa, Euskal Herri mailan eta Europa mailan... horrek bi eragin ditu, geroz eta gazte gutxiago daude eta nolabait belaunaldi erreleboa emateko arazoak dauzkagu. Bestalde, lan urteak luzatu egingo dira, hemendik urte batzuetara plantila zaharkituagoak edukiko ditugu. Jendeak 64-65 urte arte egin beharko du lan. Hor bi gauza hartu behar ditugu kontuan; batetik nola erakarri jende berria eta bestetik nola birkualifikatu kooperatibetan hainbeste urte egongo dan jende hori.” (E04).

Era berean, lokalizazioaren kezka aipatzen da. Enpresa toki geografiko konkretu batean errotuta egoteak bere gabeziak erakusten dituela aipatzen dute merkatua globala den eta aktibitate ekonomikoa hirietan aglomeratzen den aro honetan. Horregatik metropolizazio prozesuei adi egotea ezinbestekoa dela azpimarratzen dute, batez ere tamaina handietako kooperatibek.

Hirietatik urrun gaude... beste enpresa batzuk hartzen dute beren I+D guztia eta eramaten dute... ezdakit.. Bartzelonara. Guk hori ezin dugu egin. Hori ez da zerbait txarra baina arazoa sortzen du hirigunetik urruti egoteak. Gazteek eta nahiago dute hiri kosmopolita polit batean lan egin eta ez Arrasate edo Aretxabaleta batean. (E04)

Kokapen geografikoak, beraz, korrante metropolizatzailaren kontra aritzea esan gura du, gazte belaunaldien aurrean erakargarritasuna galduz. Hirietatik herrietara lanera etortzeko zailtasun praktikoak azpimarratzen dira, lan-baldintza onak eskaini arren tokiak ezin omen duelako lehiatu hiri haundi batek eskaini dezakeenarekin. Gazteek oro har hiri kosmopolita bat nahiago izaten duteneko pertzepzioa nagusitzen da. Dena den, gazte perfil konkretu bati buruz ari dela zehaztu beharra dago, klase ertaineko, ikasketadun eta hiritar gaztearen perfila hain justu.

Horri guztiari gehitu beharra diogu nazioarteko lan banaketaren egoera eta sektore estrategikoen lehia maila altua. Bi baldintzatzaile estruktural horiek kooperatibaren

⁶² Jarraian datorren atalean, datuen pribatutasuna eta kooperatiben anonimotasuna babesteko, kooperatibei buruzko aipu zuzenak sahiestu dira. Kasu horietan (gure kooperatiban) edo (x jarduera sektoreko kooperatiban) adierak erabili ditugu, datuen trataera etikoei buruzko irizpideak jarraituz.

eguneroko jardunean eragina daukate, enpresa multinazional handiek talentua bereganatzeko duten ahal ekonomiko-politiko handiarengatik.

Alor honetan aipatu beharreko beste puntu garantzitsu bat urbanizazio prozesuen eta krisialdi sozio-ekologikoaren arteko lotura da. Planeta mailako hiritartze prozesu geroz eta azkarragoa klima aldaketan eragin duten elementu zentraletako bat izan da. Whitehead autoreak, Metropozenoa deitu dio hirien inpaktu ekologiko geroz eta bortitzagoaren garaiari (Whitehead, 2014). Nazio Batuen Erakundearen datuei erreparatzen badiegu, gaur hirietan mundu biztanleriaren %55 bizi da, eta 2050. urterako %68a izatea aurreikusten dute. Ordea, krisi ekologiko-klimatikoaren talaiatik begiratzen badugu, eraldaketa soziologiko erraldoi hori mantenduko denik pentsatzea zalantzaragarria da, eta erdi tamainako herriek eta bailarek paper determinantea joka dezakete prozesu erresilienteen sorkuntzan, eta urbanizazio prozesua arintzeko prozesuaren aurrean.

7.2.2 Elkartasun mekanismoak

Arrasateko Kooperatibismoa ezaugarritzen duen beste alor bat elkartasun mekanismoak instituzionalizatuta edukitzea da. Krisialdi testuinguruan arnasa lortu ahal izateko bideak dira aurreikusita daudenak kooperatiben estatutuetan. Bestela esanda, ez da kooperatiba bakoitzaren borondata mugatzen elkartasuna praktikatzea, baldintza batzuk emanaz gero legez derrigortuta daude kooperatibak etekinen zati bat arazoak dituzten kooperatibetara bideratzea.

“Gure kooperatiban gogoan dut lehenengo krisia 2004-2005ean izan genuela. Nola konpondu izan gendun? Ba gehienbat aurrejubilazio plan dotore batekin. Bazeok jendia ia edade batekoa ta pentsatu behar izan gendun nola berregituratu guztia danentzako lanik ez zeon eta. Gero etorri zan 2007-2008ko krisia (...) Kriaren hasierak ez zigun oso fuerte jo baina 2010-2011n asko igarri gendun, batez ere espainiko merkatuan. Egoera horretan, superbibentziari begira egon gina 14a-15a eta 16a, jendearekin hitz egin genuen aurrejubilazioekin urten mesedez eskatzen. Eta jendiak ulertu zun eta chapeau! danak, urten egin zian ta nola edo hala orekatu gendun enpresa.” (E19)

Krisialdi egoerak enpresaren berregituraketa eskatzen du. Auzia, ordea, ondokoa da: nola egin berregituraketa hori parametro sozialki justuetan? Aurrejubilazioa da elkarrizketatuak 2010ean bizi izan zuten egoera ekonomiko zailari aurre egiteko erabili izan zuten mekanismo garrantzitsuenetakoa. Argudiatzen denez, adinean aurreratutako pertsonak merkatu berrietara egokitzeko gaitasun gutxiago leukakete batetik, eta bestetik deskantsurako atea zabaltzen dira espero baino lehenago. Bi baldintza bete behar dira ordea: i) aurrejubilatzeke adinean egon daitekeen bazkide kopurua esanguratsua izatea enpresan gastuetan igarri ahal izateko ii) pertsona horien borondatea enpresa baldintza jakin batzuetan uzteko.

Kasu zehatz honetan bi aldeean arteko adostasuna nagusitu zela adierazten da, pertsona horiek jubilaziora baldintza duinetan iristeko. Alabaina, bestelako arazo bat ere badakar mekanismo horrek, enpresan denbora gehien doazenek bazkidetza lagatzen duten moduan, ez dira atea zabaltzen postu horiek gazteek bete ditzaten.

“Noski, ari haiz etxia antolatzen, txukuntzen eta abar baina bazikde berririk ez, eta horrek jende zaharra geratzia ekartzen du.” (E19)

Aurrez aipatutako arrazionaltasun utilitarioaren arrazoitzeko moduaren presentzia identifikatu liteke jokaldi honetan. Izan ere, berregituraketan justua izaten saiatzen bada ere aurrejubilazioekin, ez da belaunaldi berriekiko ardura-hartze prozesurik antzematen eta erakundearen beraren balantze ekonomikoa da lehentasun. Elkartasuna parametro utilitarioetan praktikatzea problematikoa izan daiteke, beraz, are gehiago kooperatibismoak enplegu sorkuntzarekin izan duen konpromisoarekin harremanean jartzen badugu. Langileen soldata produkzioan ordaindu beharreko kostu finko modura ulertu beharrean, kooperatibismoaren bulkada nagusietakoa izan da esparru berrietan kooperatibak eta lanpostuak sortzea, lanpostua bera izanik helburu, eta ez etekina makaltzen duen gastu. Bada, elkarrizketatuetan zalantzan jartzen da bulkada horrek bizirik jarraitzen ote duen, enpresaren berregituraketetan barrura begirako ardura-hartze prozesua antzematen baita, baina borondate gutxi sumatzen da inguruan izan ditzaketeen behar soziolaboralak asetzen saiatzeko.

“Ematen du pertsonengan pentsatzen gabiltzala, baina egia da bakarrik pentsatzen ari garela barruan dauden pertsonengan. Kanpoko danak barreria guztiz itxita daukate. (...) Nik uste bazkide dana borondatez egon behar dala eta ez komodidadiagaitik ze gero gaztien artian kentzen dozu bat oso potenetia dala bere lanian ba bazkidiak bere leku daukalako (...) bazkidia ikutzia batzutan da eliza ikutzia, ez dakizu?” (E24)

Kooperatibismoak lanpostuak sortzeko izan duen joera historikoa krisialdian legoke ikuskera horren arabera. Aditzera ematen da bazkide direnen erosotasuna gailentzen dela erabaki batzuk hartzerako orduan, klase sozial bat osatuko lukeena, bere pribilejio eta segurtasun materialarekin. Bazkidearen figurak duen blindajeari errepaso bat ematea proposatzen du hizlariak, erosotasun sentipena nagusitu ez dadin eta borondate faltari edo gogogabetasunari galga jartzeko mekanismo modura. Nolabait, diskurtso honetan nagusitzen den tesia ondokoa da: elkartasuna bai baina klase kooperabistarekiko. Mugimendu kooperatibistarena baino, interes-taldearen izaera deskribatzen da diskurtso ildo horretan.

Bestalde, kooperatiben arteko elkartasunaren beste mekanismo ezagunetako bat birkokapena da. Batez ere Fagor Etxetresnaken kasuan erakutsi bezala, kooperatibek bazkideak birkokatze gaitasun handia erakutsi dute, eta hori enpleguari eusteko estrategia eraginkor modura irudikatzen da.

“Guk 2008an ez genduan hainbeste igarri, 2010ian bai ibili ginan floyto. Gero kooperatibak dakana be bai jendia reubikatzeko aukera ematen dizula. Oñi igarri dogu askoz gehiago, iaz ez zan ezer saltzen ta orain sartu zaigu lana. Lan gutxikin ibili ginan ta jendia arduratuta, batez be urte gutxia doan jendia... esaten zebe ostia! Hau pikera doa.. baina bueno ez dakit, nik hogetapiku urtean zaharreri beti entzun diet, pikera hau? Beti egon dira bolada bajuak.

Gero aurren soldata igo digute baina aurreko urte guztia %94an ibili gara. Jendia reubikatzeko LagunArori laguntza eskatzeko, egon behar zara %94 edo beherago kobratzen, bestela ezin zara sartu tramite hoietan. Gu hilabete honetan ipini gara %100era kobratzen, baina sarritan egon gara gu larogetahamapikua kobratzen.” (E16)

Nolabait, kooperatiba izateak eta korporazio baten egoteak egonkortasun eta babes sentipena indartzen duela adierazten da. Kooperatiben arteko elkartasunak krisialdi garai batek sor ditzakeen ondorio mingarrienak (kaleratzeak, edo enpresak porrot egiteak) arinduko lituzke. Logika horiek martxan ipintzeak baina eskatzen du ere norbere sakrifiziotik (%94a kobratzea) eta prestigio-galtze ariketa bat ere izan badela

ondorioztatu liteke, Lagun Arori laguntza eskatzea porrot egin izanaren aitortza bat ere badelako, neurri batean. Funtsezkoa da azken atal hau analisirako, merkatuaren indar estrukturalak lehia logikak eta errentagarritasun oparoak bilatzea sustatzen duen garaian, erresistentzia handiak egon daitezke elkartasun mekanismoak aktibatzea eskatzeko, lotsa, galtzailearen papera ez jokatu nahia edota botere-kokapen ahulago batean posizionatzea porrot propio modura interpretatu litekeelako.

Edozein kasutan, elkartasunaren praktika ondoren bueltan etorri daitekeela interpretatzen da, eta, beraz, norbere interesen alde egitea ere badela neurri batean. Elkartasuna ulertzeko modu horretan zorraren ideia nagusitzen da, gainontzeko kooperatibak egiten duten ahalegina bailitzan, ondoren moduren batean edo bestean ordaindu beharko dena. Galdera da, beraz, ea elkartasun instituzionalizaturik gabe (hasierako pentsamendu-oinarrietatik eraikia, ordena moral zehatz baten aterkipean) zein joera nagusituko litzatekeen kooperatiben artean, dispositibo kultural eta solidarioek izango ote zuketean gaitasuna deirrogatasun materialik gabe elkartasuna parkitkatzeko, edota, *corpus* kooperatibo morala horren ahuldua egonik, elkartasun maila ere proportzio berean ahulduko litzatekeen.

7.2.3 Merkatuaren exigentziak, makinaren bizkarrezur.

Inor gutxik jarri du zalantzan merkatuaren zentraltasuna kooperatibaren jarduera antolatzerako orduan, eta pisu zentrala duela onartzen da. Hasierako kooperatibismoaren pentsamendu oinarrietako bat erreproduzitua agertzen zaigu hemen, lehenbizi errentagarriak izatea eta ondoren praktika kooperatiboak, desberdintasunen murriztea eta arlo sozialeko neurriak. Kooperatiba industrial ezagun bateko lehendakariak, hala adierazi du merkatuaren auziaren gainean duen iritzia:

“Neretzako inportantia da merkaturan egotia, gero eukitzeko zertaz diskutitu. Kooperatiba bat ekomonikamente ez badabil ondo.. ostia.. orduan kooperatiba ez izateko arriskua dakazu. Nik uste merkatuari garrantzi handixa emon bihar jakola, jakinda zer zaren, nundikan zatozen, baina argi eukita jateko gauzela hemen.” (E18)

Gailentzen den diskurtsoa honakoa da: merkaturan modu eraginkorrean jardungo duen egitura izan beharra dago, identitate bereizgarri sendoa mantenduta. Ez dira biak kontraktotzat ikusten, hau da, merkatuari begirako jardueraren handiagotzeak itzal egingo diela kooperatibak ezberdin egiten dituen arlo kultural eta sinboliko ezberdinei. Argudio material oinarritzkoa erabiltzen da, *jateko gaude hemen* eta bigarren maila batean lagatzen dira bestelako arloak, garrantzia gutxiago aitortuz.

Era berean, kapitalismoaren barruan dagoen eredurik justuena dela argudiatzen da, dagoen onena. Kanpotik jasotzen diren iritziek hala baieztatzen ei dute. Merkatuari garrantzia ematea, beraz, ez da kooperatibistek egin duten hautu bat, kanpotik inposatzen den indar estruktural bat baizik, faktore exogeno sahiestezina, tarte laburra lagatzen diena kooperatibei bestelako auzietarako. Are gehiago, nagusitu behar den identitatea *enpresariearena* dela defendatzen da, guztiak jabe diren neurrian:

“Nik uste jendeari argi esan behar zaiola langile eta enpresarioak direla. Oso ondo dago danok garela lagunak hau dela kooperatiba ta ezta kitze... baina enpresarioa zara. Enpresa zurea da ere bai, eta hartzea hori rola de pobrecito trabajador que no tengo ningún derecho... ez? Askotan sentimendua hori da, nik ere bizi izan dut (...) baina erabaki batzuk te los tienes que tragar y punto.” (E17)

Kooperatibista izatea enpresariaren figurarekin identifikatzea interesgarri zaigun auzia da begirada analitiko batetik. Nolabait bereizi egiten dira enpresariaren eta ekintzaile-aktibista politikoaren figurak, kooperatibismoa egitea lana, ardura-hartzea eta enpresa bideragarri bat sortzea da, ez mundua eraldatzen saiatzea edo kapitalismoaren aurka borroka egitea, horretarako beste espazio batzuk daude, era garbian bereziak kooperatiba-enpresatik.

Jardun kooperatiborako aukerak murrizak direneko irakurketa nagusitzen da. Kooperatibaren arazoak konpontzeko enpresari gisa jokatzeko da defendatzen dena bi arrazoiengatik i) kooperatibaren jabe sentitzeak bere egoerarekiko ardura gehiago edukitzea dakar ii) enpresan inplikazio maila altuago batek eraginkortasuna indartu eta bere merkatu kokapena hobetzen du. Lehentasunen hierarkian, beraz, ez da zalantzarako tarte handirik geratzen, zenbait auzitan eskuak lotuta lagatzen dizkie kooperatiberi merkatuaren exigentziak, eta kooperatibismoaren filosofiarekin bat ez datozen praktika batzuk onartu behar izaten dira.

Nagusitzen den *frame-a* edo marko diskurtsiboa, beraz, lehiaren baitan aurkitu ditzakegun logikez gurutzaturik dator. Enpresariaren figura, eraginkortasunaren inperatiboa edo sakrifizio pertsonal eta kolektibo baten premia logika horien elementu eratzailer modura agertzen zaizkigu. Ahalegina, errealitate ekonomiko oldarkorrean jardutea eta gogortasuna deskribatzen dira kooperatibista baten ezaugarri indartsutzat, eta oinarri horietan eraiki behar du bere jarduna egunerokoan. Egiturak eraldatzen ari direneko sentipena, atseginarekin eta kontzientzia-lasaitze batekin lotu dezakeguna, lanetik kanpoko espazioei dagokien eremua da, *zu enpresarioa zara*. Beraz, marko horretan nagusi diren eta esan-indar handiena duten kontzeptuak, balio-erantsia, inbertsioa, kualifikazio egokia, egokitzapena edota enplegarritasuna dira, gerora ikusiko dugun bezala.

“(Industria sektoreko bi kooperatiba esanguratsutan) langile asko de baja cualificación daude, produkzioan ibiltzen direnak. Ta coprecin adibidez oiñ eskaera asko daude eta jendia kontratatzen ari dira horri erantzuteko. Ta klaro.. hori aurre eittia sistema kooperatibo batian zaila da ze gorabehera hoiek nola aguantatzen dira? Enpresa berak gauzak ondo doazenian dirua pilatzen badu badauka ere koltxoi bat gero gauza batzuk egitteko, horrek asko laguntzen du” (E19)

Globalizazioaren ondoren eratutako nazioarteko agertokian eredu toyotista eta *just-in-time* lan egiteko modua gailentzen da, eta malgutasun horren aurrean sistema kooperatiboak egokitzeko dituen zailtasunei egiten zaie erreferentzia. Arrasateko esperientzia fordismoan eta desarrollismo frankistan jaio eta egituratu zen bezala, gaurko nazioarteko merkatuen fluxu aldakorrek bestelako egitura bat eskatzen dute, eta hori lan-karga handiak datozenean jendea aldi baterako kontratatzetik konpondu liteke. Nolabait ezinezkotasun sentipen bat adierazten da kooperatiba egitura solido baten eta merkatu malgu eta likido baten elkarbizitzarekiko.

“Azkenaldian bai igartzen dudala aldaketa. Nola merkatua horren gaizki dagoen, lan egiteko moduetan nabaritu dut. Orain a la carta egiten dugu lan. Lehen stockatu egiten genuen produktua, eta beste erritmo baten egiten zen lan. Orain, gaur ez dago lanik, eta bihar a tope. Lehen egonkorragoa zen lan egiteko modua, orain esango nuke dena ezegonkorragoa dela. Eta hori, asko nabaritzen dugu lanean” (E33)

Oro har, baldin eta kooperatibaren jardun egokia mantendu nahi bada (bere dimentsio ekonomikoan ulertuta), azkartasunean, malgutasunean eta balio-erantsiko produktuen sorrera etengabe sakondu beharko da. Horrek nahitaez eskatzen du irizpide lehiakorrek bere egitea, lan-esku zuzenaren aldizkako erabilerarekin adibidez. Bestela esateko *erreserbako langileen armada* marxiarretik laneskua une zehatz batzuetan erosteko premia dutela kooperatibek azaleratzen da, beren sektorean diharduten enpresen ondoan lehiakor izaten jarraitzeko. Gehitu behar da, prekariotasunean bizi den laneku hori batez ere gazte belaunaldiak osatzen dutela eta merkaturen joan-etorrien zikloak gehien nabaritzen dituenak beraiek direla produkzio eredu horretan. Kooperatiba-enpresak, beraz, eskulan gazte prekarioaren aurrean esplotazio dinamikak martxan jartzen dituen egitura bezala ageri daiteke. Zentzu horretan, bazkideen eta gazteen artean jaso ditugu ahots kritikoak, merkatuaren gehiegizko pisuaz ohartarazten dutenak:

“Yo entiendo que esto sea una empresa y se tenga que mirar por la rentabilidad. Pero veo mal también que no se mire por el empleo. Porque las cooperativas, uno de sus objetivos es crear empleo en el valle. Y que las líneas por ejemplo se lleven a Chequia, pues...” (E31)

“Esan liteke, enpresaren politika, jende gutxiagorekin lan berdina egitea dela. Ze nire ondokoa falta da, baina nik egiten dut lana, ez du makina batek egiten. Eta bai, automatizazioaren eragina ere nabari da, baina jende murrizketa ez da soilik horregatik. Azkenean da gastu minimoa izatea” (E33)

Agerikoa da, beraz, merkatuaren indar baldintzatzaileek eredu kooperatiboan eta haren proiektu etiko-demokratiko zabalean arrakalak eragiten dituela, bai plano ideologikoko eztabaidan eta baita kooperatibagintzaren gauzapan praktikokoan. Dialektika horretan, dimentsio sozial eta komunitarioa da galtzaile ateratzen dena, ikuspegi pragmatikoago baten mesedetan.

7.2.4 Tamainaren arazoa

Merkatu globaletara irekitzeak eta zenbait kooperatibaren hazkunde esponentzialak kooperatibagintzaren baitan bertan desberdintasun nabarmenak eragin ditu, kopuruan eta dimentsioan. Bada, kooperatiba bakoitzaren jarduerak eta egiteko moduak ulertzeko tamaina ezaugarri determinante modura ageri da.

“Egia esan guztiz desberdina da dinamika jendea gertu dagoenean eta 20 bazkide bazarete edo 200 edo 500 baldin badira ezta?” (E05)

“Gu azkenian berrehun ta piku pertsona gara kooperatiban.. oso zaila da ze bakoitzak daka bere iritzia, bere bizitzeko modua.. ez dakit. Bakoitzak emoten dio garrantzia gauza bati, batek igual diruari, besteak igual denbora libreari... osea bakoitzak bere bizitzeko modua daka, 200 pertsonan artian danok berdin pentsatzia inposiblia da. (...) Guk araudi eta estauto pila bat ditzugu eta pentsatzen dot ba 10 lagunen artian ez dala behar ez

konsejo rektore ez sozialik ze danon artian ahal dira erabaki gauzak. Azkenian enpresa haundi baten ezin dozu erabaki bakoitza hartzeko 200 pertsona batu ta behar dira konsejuak.” (E16)

Dinamika ezberdinak eta izaera ezberdinak aipatzen dira, ehundaka bazkidez osatutako edo hamar edo hogeiki kideko kooperatiba txikien artean. Nagusitzen den irakurketa ondokoa da: geroz eta tamaina handiagoa, orduan eta aniztasun gehiago eta kudeatzeko konplexutasun handiagoa. Are gehiago produkzioan lanean ari direnen lan baldintzei dagokienez, kooperatiba handietan SA batean baino okerrago daudeneko susmoa ageri dute, funtsean Sindikatuek duten eragin-gaitasunik ez dagoelako kooperatiban.

“Ba beitu oiñ arte pentsau izan dot nahiago nebala kooperatiba baten lan egittia, ta gaur eztakit holako kooperatiba haundi baten nahi doten. Igual kooperatiba txikiau baten diferentia da eh, azkenian SA baten eitxen dabenian zuzendaritzatik jugarretak ba dakazu sindikatua, eta guk ez daukou ezebe, dakagu konseju soziala baina hor edozein egon leike... eta sindikatua antolatuago dago.” (E26)

Kooperatiba txikietan bazkideen arteko ezagutza sakonagoa eta harreman sozialen sendotasuna estuagoa dela ematen da aditzera, eta horrek asko erraztuko luke erabakiak modu azkarragoan hartzea eta adostasun maila altuagoarekin. Aldiz, ehundaka bazkide dituen kooperatibak izaera inbertsonalean irabazten du, gehiago kostatzen da enpresarekiko atxikimendua lortzea eta gobernantza eredu sofistikuagoa behar da, erantzukizun eta eskumen banaketa konplexuarekin. Ehundaka bazkidez osatutako kooperatibek gobernantza eredu sofistikuagoak eskatzen dituzte eta horren gainean instituzionaltasun propio bat garatzea.

Paradoxa ezagun batekin egiten dugu topo ordea. Elkarrizketatuen iritzian kooperatiba txikien *abantailak* aipatu badira ere, merkatuan lehiakor izateko egitura handien eta antolakunde eraginkorren premiaren aitortza egiten da. Tamainan irabazi ahala, kooperatibaren eragiteko gaitasuna ere areagotzen da, tokian tokiko agintarien erabakietan, edo botere probintzialaren (Foru Aldundiak) zenbait legeetan eraginez. Nolabait kooperatibak botere kuotan irabazten du, gihar ekonomikoa sendotzearen bidetik, eta horrek kokapen aiposean jartzen du zenbait negoziaketetarako. Ikuspegi horren arabera, enpresa moduan indartzeak eta tamainan irabazteak kooperatibari arnasa ematen dio, ez baita koiuntura ekonomiko-politikoaren aurrean horren zaugarri bihurtzen eta sekotze berrietan kooperatibagintza sustatzeko (beharrezko inbertsioak eginez) kokapen pribilejiatuan uzten du.

Oso eztabaidagarria da ordea plano ideologikoaren ikuspegitik, kooperatibismoaren baloreak enpresa handien etorbideetan lurruntzen direla onartzen ari baitira tazituki. Kooperatiba txikiak hortaz, kooperatibaren balioetan, gertutasunean, norbere lanaren jabetzan eta barne-demokrazian sakontzea ahalbidetzen du, baina betiere posizio zaugarri batean eta hori estrategikoki oso problematikoa da nazioarteko lehia testuinguru orokortuan.

Eremu ekosozialean lurreratuz, tamaina handiko eta nazioartean zabaldutako kooperatibak *erraldoi energetiko* diren aldetik, nahiko garbi ageri da kooperatiba txikiago eta lokalizatuagoek, sendotasun soziala eta kooperatibismoaren nortasuna mantentzeaz gain, sistema ekologikoetan integratzeko baldintza hobeak izango dituztela. Prozesu

horrek, baina, nahitaez eskatzen du gaurko merkatu kokapenari uko egin eta alternatiba bat martxan jartzea, txikiagotzearen eta herriratzearen bidetik, aberastasunaren banaketa sozialaren printzipio kooperatibista klasikoa mantenduta.

7.2.5 Burokraziaren auzia

Aipatu beharreko beste puntu bat, elkarrizketatuen artean iritzi kontrajarriak piztu dituen burokrazia zorrotzaren eta garai malgu neoliberalen arteko dialektika zorrotza da. Elkarrizketatuen arabera, kooperatibek gain-karga normatiboa dute, oso burokratikoak dira eta hori gazteek igartzen dute, beste garai batzuetan onartutako arauak eta egiteko moduak aplikatzen dituztenean.

“Somos muy normativos. Creo que el mundo moderno exige otra flexibilidad que nuestras normativas nos encasillan. Tenemos una cultura de muchos años de igualitarismo, es café con leche para todos y eso es un problema.” (E01)

Eredu kooperatiboa oso normatiboa dela esatean, nolabait estrukturaliki berdintasuna bermatzen duen arautegia du gogoan. “Guztiontzako kafesnea” eta “igualitarismoa” lan munduaren beharrei erantzuteko oztopo gisa aurkezten ditu, kooperatiben funtsezko balioak zalantzan jartzeko ariketa egiten dela esan daiteke. Azpimarragarria da aipuaren iradokizuna, balio kooperatibo “klasikoekin” haustea modu ez traumatikoan bizi baita, post-soldatak eta norbere enpresariak markatutako testuinguruan, parekatzea korrante nagusiaren kontra joatea da.

Dena den, kooperatibismoaren zentzuaren eta egitura burokratikoaren dialektikak kezkek pizten ditu elkarrizketatuetan. Aurrez aipaturiko “gain-karga normatibo” horrek bazkideak kooperatiba barneko eskubide osodun subjektu bezala eratzten ditu, eta bazkidearen blindaje horrek gatazka praktikoa batzuk dakartzala aipatzen da. Hurrengo pasartean, bazkideen zahartzearekin eta horien blindajearekin loturiko zenbait gako aipatzen dira.

“Lehen gai batzutan erabaki bat hartzeko batzar orokorraren zain egon behar zan, eta kooperatiba batzuk askoz arinagoak izan behar dira ze SA-k eta askoz azkarrago egiten dituzte. Orduan azken urteetan legea aldatu da eta kontseilu errektoreak erabaki batzuk hartu ditzake kooperatibak nahi badu. Baina hau punturik eztabaidagarrienetakoa da kooperatiba guztietan, holako gaiak nork erabaki behar dittun, batzar orokorrak ala kontseilu errektoriak? Adibidez, enpresan negozio batzuk berregituratu behar izaten dira ba pikutara doazelako eta jende baten lanpostuak ia ez du ekarpenik egiten. Adinagatik eta abar bazkide batzuei lagundu egin behar zaie enpresatik joaten. Noski, batzar orokorrean inor ez da ausartzen esaten esta persona baja obligatoria ez degu nahi persona horrek hemen jarraitzia. Hori kontseilu errektorearen esku egongo balitz, aukera egongo litzake holako erabakiak hartzeko.” (E19)

Estatutuetan eta kooperatibetako araudian langile-bazkidearen eskubideak atalez atal zehaztuta egoteak bazkideak *ukiezin* bilakatzen dituela planteatzen da. Kooperatibismoaren baloreen interpretazio ildotik, langilea eskubide osoko subjektu eta enpresaren “subjektu politiko” bilakatu izana, lanaren duintzean kooperatibek lortutako arrakasta da. Ordea, gehiegizko araudia kritikatzan dutenen ikuspegian, desoreka nabarmena sortzen da eskubideen eta betebeharren artean. Langile bat enpresaren

bilakaerarengatik ez-produktibo bihurtu liteke, eta pertsona horrekin zer egin, horra zuzendaritza sektoreetatik nagusitzen den kezka.

“Edozein arazo baldin badator bazkidia ikutzia da elizia ikutzia moduan. Blindaje horrek ez du laguntzen.. batzutan kentzen dozu gazte bat askoz potentiaua dana edozein lanetarako ba bazkidiak okupatzen dabelako postua, eta hori be ez da justua (...) blindaje hori ezin leike per se geratu... pixkat gertatzen dana da bazkideen artian deretxuak baditugu baina batzutan ahazketan ditzugu kooperatiba txarto doianian deretxuak puntu batetik behera be egon bia dala... anticipos de consmumo ez kobratzeko kriston liadia montetan da baina gero beste gauza batzutarako danok bazkidiak gara?” (E24)

“Nosotros en la cooperativa tenemos muchos derechos, pero también deberes. Lo que veo es que los que trabajamos en la cooperativa nos agarramos más a los derechos que a los deberes. Y en una sociedad anónima pasa al revés, si no haces tus deberes te echan a la calle” (E34)

Andre Gorz-ek definitu zuen eskala handiko produkzio prozesuetan langileen alienazio sentipena areagotzen dela, galtzen du nolabait ondo egindako lanarekiko begirunea. Puntu honetan alde batetik zeregin errutinarioen afera ageri zaigu, langile batek urteak badaramatza funtzio berbera burutzen, helduaroan geroz eta gehiago sartu ahala malgutasun gutxiago izango du produkzio molde berrietara egokitzeko. Era berean, azpimarratu beharra dago pertsona bakoitzaren gaitasunak, zaletasunak eta anbizioak ezberdinak direla eta beti dela oreka zaila pertsona bakoitzaren gaitasunekin bat datozen zereginak esleitzea kooperatiba ertain batean. Hala, goian deskribatzen zaigun kasuak agertzen dira, zeinetan malgutasun gutxiko langileek, zeregin antzekoak egitera ohituta, kooperatiben bideragarritasunerako arazo bihurtzen diren, eta euren kooperatibista eskubidearen heldulekuari heltzen dioten. Ertz asko dituen arazoaren aurrean jartzen da kooperatiba eta bere langile-bazkideak.

Ordea, auzia ez dago plano politiko-ideologikoko eztabaidatik salbu. Bazkideen blindajeari uko eginez gero, eskubideen arintze horrek bi ondorio logiko lituzke, kooperatibaren bereizgarritasunak ahulduko lituzkeenak i) kooperatibaren subiranotasuna arrakalatzeta, enpresaren barruko botere-harremanak areagotuz eta bazkide batzuk zaurgarritasun egoeran utziz. ii) Ziurgabetasunaren eta individualismoaren areagotzea. Norbera bere ekintzen gaineko arduraduntzat hartzeaz gain, bere lanak izan dezakeen bilakaeraren ardura ere langilearen bizkar gainean jartzeko aukerak areagotzen dira, eta ondorioz kaleratzeak planteatzen badira bazkideen arteko lehia logikak agertu litezke. Kasu horretan segurtasuna taupatzeari utziko lioke nolabait kooperatibak, edo behintzat neurri baxuagoan produzituko luke, merkatu haize aldakorren menpekoago bihurtuz.

Edozein kasutan, eskubideen blindajearen gaineko eztabaida *polemikoa* dela aipatu da, eta auzi hori planteatzerakoan ikuspuntu talkak eta tentsioak agertzen direla. Asko sinpletuz, kooperatibaren bi arimak (arrazionaltasun instrumentala vs etikoa) talkan sartzen direla interpretatu liteke auzi honetan ere. Interesekoa zaigu batzar orokorrean *inor ez da ausartzen esta persona baja obligatorioa* aipamenean une batez gelditzea. Pasartean, erabaki hori kontseilu errektorearen esku geratzea da proposatzen dena, hau da, langilearen gainetik legokeen botere-egitura baten esku. Batzar orokorraren kasuan, pentsatua dagoen moduagatik eta batzarra aurrera eramateko behar diren kodeengatik, logika berdinzaleak agertzen dira, kideen batasun bat irudikatzen premiarekin batera.

Bestela esanda, enpresa barruan egon daitezkeen botere desberdintasunak arintzen ditu espazio deliberatibo horrek (pertsona bat, boto bat) eta botere posizio baten egon daitezkeenek zenbait kontu beren golkorako gordetzen dituztela adieratzen da. Arriskutsua izan liteke, beraz, espazio horretan hartu beharreko erabaki batzuk kontseilu errektorearen eskuetara pasatzea, logika berdinzaleetan galduko litzatekeelako eta pisu gehiago hartuko lukeelako botere-ezberdintasunak.

Kooperatiben araudiak langileen alde lerratuta daudela nabarmena da, beraz, eta *management* modernoak ezartzen dituen logika neoliberalen oihartzuna entzun daiteke burokrazia arintzearen gaineko zenbait planteamendutan. Finean, arrazionaltasun ekonomiko-instrumentalaren indar estrukturalak urradurak sortzen dituen beste ertz baten aurrean gaude.

7.2.6 Kooperazioaren korapiloak

Elkarlanak eta era kooperatiboan jarduteak ezaugarritzen badu ere kooperatibagintza, korapiloak sortzen dira kooperatiben arteko elkarlanerako eremuak zehazterako garaian. Auzi hau funtsezkoa da trantsizio ekosozialaren ikuspuntutik aztertzea, inoizko ekintza koordinatu eta bateratuena eskatzen baitu modu kooperatiboan egingo litzatekeen trantsizio arrakastatsu batek. Beste behin ekintza ez arautuaren arazoarekin egiten dugu topo, interkooperazioa borondatek eta bi enpresen interesak bateratzetik etorriko delako. Besteak beste, topatzen dituzten arazoetako batzuk zerrendatzen dira hurrengo pasarteetan.

“Begira, gu gattuk bederatzi kooperatiba gure dibisioan, benetan, ze zaila dan batzutan bi kooperatiben artian elkarkooperazioko proiektu bat aurrera ateratzia. Nere iritzia da proiektu hoiek bideratzen dituztenak zuzendari nagusiak dirala, y hay mucho ego, mucho interés de yo primero mi cooperativa. Osea, gauza berri bat ateratzian empresa haundiek esaten dute, begira, nik dirua jartzen det nere irabazietatik gaizki dabiltzanei laguntzeko, neri ez etorri uain kontuekin. Ordun, ba gure balore kooperatibuak etab diskurtsuan oso ondo daude baina gero martxan jartzerakuan ba oso zaila da.” (E19)

Korporazio baten eta dibisio beraren parte izanagatik, kooperatiben euren artean ere lehia zantzuak antzeman litezkeela ematen da aditzera. Zuzendari nagusien egoa, edota bakoitzak bere kooperatibaren interes berehalakoei lehentasuna ematea jartzen dira kooperazioa zailtzen duten bi elementu adierazgarri modura. Barrura begira egitura kooperatiboan antolatua egongatik, kanpora begira elkarlanerako zubiak eraikitzeko erresistentziak daudela iradokitzen da, bertatik lor litekeen etekinaren balioa zalantzan jarriz. Bestela esanda, kooperatiba handiei dituzten joera estrukturalen gaineko kritika egiten zaie; kooperatiba horietan errotuta dauden dinamikek horrenbesteko indarra dute ze ekimen berritzaile oro blokeatzeko gai baitira, behintzat interkooperazioaren alorrean. Antolakuntza arazoak ere aipatzen dira, elkarren arteko kooperazioa zailtzen duten elementu bezala:

“Dibisio bat dago zuzendaritza eta kontseilu errektoreen artian. Eta kontseilu errektorian errezago dek gure artian ados jartzia jarduera berri bat martxan jarri ahal izateko, baina gero zuzendaritza bilera gerente guztiek osatzen dute eta.. con la iglesia hemos topado, Orduan ba gu nahiz eta gainetikan egon gero errealtatean ba ez. Askotan esaten degu,

gu txikienak gaitukenak eta gaizki pasatu degunak gaituk kritikuenak sistemarekin, eta proposamen asko iten ditugu lanpostu berriak sortzeko ze in berko zan eta abar edo nola meyoratu kontu batzuk, baina enpresa handiek esaten dute gauzak dauden bezala ekintza berriak martxan jartzeko uf.. Kooperatiba bakoitzan soberania asko igartzen da, osea bakoitzarena beste guztiaren gainetik dakate batzuk.” (E19)

Elkarlanerako borondatea egonagatik, kontseilu errektorearen eta zuzendaritzaren arteko botere banaketak, korapiloa estutzen ei du. Iradokitzen denez, kontseilu errektoreko erabakiak gorpuzteko zuzendaritzak erresistentziak garatzen ditu, bere autonomia ukituta geratzen dela iritzita. Kasu honetan, araudiak eta arduren postu banaketak norbanakoari espazio handiagoa emango lioke, eta hori kolektiboak behar dituen erabakiak harramazkatzera letorke, ardura postu jakinetako iritzia erabaki bat aurrera ez ateratzeko gaitasuna izateraino. Ikuskera horretan, kooperatibismoa esperientzia emankor eta interesgarriak sortzeko moduan legokeeneko sentipena nagusitzen da, baina antolakundeari berezko zaizkion ezaugarri organizatibo zenbaitzuk (indibidualismo garaikide egoikoaren ttantta batzuk gehituta) kooperatibagintzaren arlo potentzial hori guztia loratzea ekiditen dute, edo behintzat asko mugatu bere ahala.

Dena den, zuzendaritzaren alorretik jaso ditugun beste iritzi zenbaitek, euren estrategia errespetatzea eta autonomia handiagoa eskatzen dute. Hautatuak izan badira, lau edo bost urteko epean ebaluatuak izateko aukera dagoela argudiatuta. Iritzi kontrajarriak egonagatik, kooperatibak eraman behar duen norabidearen gaineko disputa politiko argi baten aurrean gaude, kooperatiba bakoitzeko botere instituituen artean sortzen diren tentsioek batzorde, kontseilu edo zuzendaritzari legokiokeen eskumenen lehian murgildu dira.

Sakoneko interkooperaziorako espazioak sortzeko zailtasun horiek, beraz, kooperatibagintzaren arazo garrantzitsutzat jotzen dira, bide horretatik lor baitaitezke heldutasuna eta bideragarritasuna izan ditzaketen proiektuak sektore berrietan, eta zer esanik ez trantsizio ekosozial koordinatu eta indartsu baten aurrerapausuak. Interkooperazio proiektuetan egon izan diren porrotek ordea, kooperatibagintza sektore berrietara zabaltzeko eredu aproposa ba ote den zalantza sortzen du, eta ohiko ereduan antolatu nahi diren ekimen enpresariale bidea zabalik utzi. Mondragon korporazioak norabide estrategikoetan kooperatibak elkarlanean jartzeko ezintasuna aipatzen da, kooperatiba bakoitzaren subiranotasun urratzen egongo liratekeela uste izanda. Ekonomia kooperatiboaren azterketaren ikuspegitik, García eta kideek (2006) autoreek interkooperazioak ze kostu ekar diezazkiokeen kooperatibari aztertzen dute. Besteak beste, autonomia arazoak (bazkideek eta kooperatibak berak bere botere kuota bat delegatu beharra du), proiektua batzeak dakartzan zehaztasun galerak edota proiektuak berak izango duen zaintza eta ardura noren esku geratzen den. Hiru oztopo horiez gain, lidergotza arazoak, inplikazio falta, berrikuntzarako eta sorkuntzarako gaitasunaren ahultzea edota eskubide eta betebeharren banaketa desorekatua egon litekeela nabarmentzen dute ikerlariek.

Garrantzitsua da azpimarratzea, ordea, sor litezkeen elkarlanerako arazo horiez guztiez gain interkooperazioak tresna boteretsuak jartzen dizkiola eskura kooperatibari, finantza, komertzializazio edo formakuntzaren alorrean aurrerapausuak emateko. Horrez gain, interkooperazio proiektu arrakastatsuek talde sentipenean, kooperatibista izaeran eta gaitasun kolektiboaren gaineko sinesmenean bidea egiten laguntzen dute. Dena dela,

kooperatiba bakoitzak bere sektorean bizirautearekin nahiko lan baduela argudiatzen da, eta salmenta gutxiko zein finantza egoera itogarriko egoera batean, nekezagoa da proiektu berritzaileetan sartzea, norbere kooperatibaren oinarria bera kolokan egonik. Besterik da, ordea, guztia berregituratzea eskatzen duen krisi ekologiko globalak interkooperazio dinamikak martxan jartzera behartu ditzakeela kooperatibak, aipatzen diren ego gutxiago eta elkartasun gehiago aplikatzera derrigortuz. Atal teorikoan giza jarrera kooperatiboari buruz aritu garenean, esan dugu suntsipen edo desagertze mehatxuak eragileen arteko urradurak arindu ditzakeela eta kooperazio forma berriei bide eman. Iraunkortasunaren auzian garrantzia berezia hartuko du ideia horrek, eta ondoren kooperatibismoaren forma sinbolikoek elikatu dezakete kooperazio estuagoa kooperatiba autonomoen artean.

Nazioarteratzea

Ardatz sozioekonomikoan eztabaida sustatu duen beste auzi gakoetako bat nazioarteratzearena izan da (ikus 1. Koadroa).

1. Koadroa: Nazioarteratu edo ez eztabaida

80 eta 90. hamarraldian ekonomia europarrak abiatutako ehun industrialaren deslokalizazioaren testuinguruan ulertu behar dugu Arrasateko Kooperatibetan gertatu zen eztabaida. Europako gobernu ezberdinek ekonomiaren zerbitzu adarraren aldeko apustua egin eta lan-esku merkea zein ingurugiro kostua kanporatzeko aukera ematen zuen estrategia jarri zuten martxan.

Bada, kooperatibismoaren ikuspegitik auzia bi ardatz nagusitan planteatu zen. Batetik, kooperatiben nazioarteratzea modu ez-kooperatibistan gauzatzeak zekarren kontraesana; bestetik, ezagutu gabeko ekonomietara zabaltzeak zekarren arriskua eta zirugabetasuna. Azkarraga Etxagibelek aztertu zituen eztabaida honetan egondako iritzi korronte ezberdinak eta gertakariak adierazten duten bezala, nazioarteratzearen aldeko korrontea nagusitu zen.

Nazioarteratzearen aldeko ikuspegiak biltzen dituen ezaugarri nagusiak ondokoak lirateke:

- Merkatu ekonomiaren exijentzietara moldatzeko beste aukerarik ez dago. Kooperatibismoak nazioarteratzearekin dibertsifikazioa, gaitasun enpresariala eta eragin-ahalmena irabazten ditu. Kooperatibismoari etorkizunean arrakasta bermatuko dion estrategia eraginkorra da.
- Ez dago kontraesan nabarmenik kooperatiben izaeraren eta nazioartean sortzen diren lanpostu ez-kooperatiboen artean. Arrasateko Kooperatibismoak dituen kudeaketa moduek atzerriko langileei parte-hartzeko mekanismoak jartzen dizkie eskura. Zenbait herrialderen kasuan aurrerapen handia da bertan zabaltzen diren planta industrialetan langileei iritzia eskatzea.
- Kooperatiben zeregina "kooperatibismo filosofiko" bat defendatzea baino, enplegua sortzea da. Nazioarteratzearekin hori egiten dute kooperatibek, enplegua sortu eta aberastasuna sortu tokian tokian.

Bestalde, begirada horri egin zaizkion kritikek, nazioarteratze prozesuaren ezaugarri kontraesankorretan jartzen dute arreta. Arrasateko Kooperatiba Esperientzian giltzarri izan dira demokrazia ekonomikoa eta erabaki-hartze prozesu igualitarioa. Prozesu horiek kolokan jartzen dira Elkarte Anonimoko enpresen izaeran eta lana eta kapitalaren arteko gatazka berpizten da. Era berean, kooperatibek euskal lurraldearekiko loturatik eraiki dute euren identitate eta zentzua. Nazioartean zabaltzeak lurraldearekiko erro horiek ahultzen ditu, eta euskal izaera hori bera auzitan jarri, hartzen duen dimentsioaren eta hedadura soziologiko dibertsoaren ondorioz.

Azkenik, auzia laburbiltzen duen elementu zentralaren (kanpo-elkartasuna) inguruan sortzen diren korapiloen inguruan Azkarraga Etxagibelek hala gogoetetzen du:

"Jarri dezagun arreta aurreko pasarteko ideia garrantzitsu batean. AKE-ren kanpo-elkartasuna batez ere enpleguan oinarritzen da. Enplegua sortzen da eta gizarteari sekulako zerbitzua eskaintzen zaio (...) Baina AKEk ondokoari erantzun beharko lioke: non amaitzen da kanpo-elkartasuna eta non hasi ekonomikoki hedatzeko beharrezana? Hobeto formulatuta: enplegua sortzeak zeri erantzuten dio gehiago, elkartasun ekintza bati ala hazkuntza ekonomikoa dakarren efektu material bati? Kanpo elkartasuna enpleguan oinarritzeak jendearengan galdera horiek sortzen dituelakoan gaude."

7.2.7 Lidergotza falta

Ikusten ari garenez, kooperatiben barne antolakuntzak konpartimentazioa eta modu argian zehaztutako lan eta rol banaketa ditu ezaugarri. Antolakuntza maila sofistikatu horretan, norbanakoaren pisuak indarra galtzen duela pentsa genezake, antolakundeak berez birarazten duela gorpila. Bada, zenbait elkarrizketaturen iritzian ez da hala, eta pertsona zehatzek toki zehatzetan egiten eta esaten duenak berebiziko garrantzia du. Hori da Arizmendiarrietaren kasua, kooperatibagintzak bere adarrak zabaltzea apaizaren ekimenez zetorren, eta bere ibilbideagatik zuen legitimotasunak lagundurik, erabaki politiko-ekonomiko horietan lider karismatikoaren papera jokatzeko abilezia garatu zuen.

“Bere garaian hau sortu zanian, kooperatiba berriak sortzeko electrodomesticosen bidez, eta danak saretu arlo sozial hori eukitzeko apaizak lortzen zun, apaizak egiten zun lan hori. Gaur ez dago Mondragonen lidergotzarikan.” (E13)

Arizmendiarrietak eredu kooperatiboarekin garatu zuen konpromisoa ez zen soilik legitimitate-iturri edozein erabakitan bere iritzia bidea egiteko; are, kooperatibaren jarduna bera zentzuz hornitzeko zeregina burutzen zuen, pentsamendu oinarri sozial-kristaueetatik abiatuta. Pentsa dezakegu, beraz, apaizaren figura kooperatibismoaren elementu bateratzaile zela, kooperatibismoari norabide argi bat zehazteko gai zena, helburu konkretuekin. Bada, gidari karismatikoa desagertzean, antolakundeen soziologiaren lege klasikoa da lidergotzaren trantsizioan gatazkak eta tentsio ezberdinak sortzen direla, eta bigarren edo hirugarren olatuan datozenek gutxitan lortzen dutela fundatzaileen legitimazio-indar berbera. Soussa Santos soziologoak gogorarazten duen moduan *Karismak ez du trantsiziorik onartzen*. Gure kasuan, lidergotza falta azpimarratzen da, apaiza joan zenetik berreskuratu ez dena. Ez legoke egiturarik edo nortasun sendoko figurarik kooperatibismoaren joste lanak egiteko moduko gaitasunarekin, arlo emozionalak eta politikoak mobilizatzeko gai.

Funtsean, kooperatibismoa signifikante huts bezala ageri zaigu, garaian garaian egon diren gidari ezberdinek zentzu ezberdinean interpretatu dutena. Kooperatibismoa eredu ekonomiko sozial-kristau bezala, kooperatibismoa herri antolatu bezala edo kooperatibismoa enpresa eredu arrakastatsu modura. Liderrak du signifikante hori zein zentzuz hornitu erabakitzeko ahalmen maila esanguratsua, eta horren ondoriozko zuzendaritza koherentea gauzatzeko ardura. Arizmendiarrietaren kasuan, bere autonomia aipatzen da egiturarekiko, gidari lanak egiteko talentu berezia aitortzen zaio, eta mugimendu kooperatiboa auzi erlijiosoan, auzi sozialean eta auzi komunitarioan kokatzeko marko diskursibo ongi funtsatua eraiki zuen, sektore sozial ezberdinak konbentzitzeko gaitasunarekin.

Liderraren existentziak ipar eta zentzu-oinarria eraikitzen die bere jarraitzaileei eta gidatzen duen mugimenduari. Nahiz eta egituraz planteamendu igualitarioak bilatu, lider karismatikoak zentzu eraikuntzan paper garrantzitsua jokatzen duela diote analisi soziologiko finduenek, ekintza kolektiboari buruzko azterketetan. Mugimendu sozial orotan, lidergoak marko ideologiko bat finkatzeko funtzioa betetzen du, ondoren mugimenduak burutuko dituen praktikak teoria horien talaiatik diseinatu ahal izateko. Ondoren gauzen konkrezio praktikoaren eta aurretik pentsatuaren artean desoreka bat gertatzen bada ere, ikuskera batzuk iltzatuta geratzen dira, ardatz ideologikoari

trinkotasuna emanaz. Bada, Arrasateko Kooperatibismoa alor horretan legoke hankamotz, lidergo sendorik gabe ardatz ideologikoa eta kooperabisimoa ulertzeko moduak lausotu egiten dira; hortik zentzu-kirisi, kooperazioa gabezi eta norabide argi baten falta.

Egin behar dugu baina ñabardura; bigarren modernitateko gizarte atomizatuetan liderrak berak ekoizteko baldintza sozialak desegin direla pentsa liteke, ez baita soilik Arrasateko Kooperatibek daukaten arazoa, alderdi politikoek, herri mugimenduek edo bestelako talde antolatuek nekez lortzen dute lider sendoaren figurarik masa-gizartearen garaiekin alderatuz gero. Adi, ez gara esaten ari supergizon Nietzschearraren figura desiratu behar denik, nolabait arrunkeria sozial garaikidea gainditzeko funtzioa beteko lukeena, baina bai marko politikoa sendotuko duten figuren itzulera bat beharrezkoa dela, nolabait ekonomiara egindako bidaiatik berriro ere erro politiko-sozialera ekartzeko kooperatibismoa.

Era berean, lidergotzaren biziberritze gabezi horrek kooperatibismoaren barneko botere egiturak belaunaldi zehatz bateko kideez osatuta egotea ekarri duela ohartarazten da. Faktore horrek korapilatu egingo luke belaunaldi berriekin konektatzeko aukera, eta ondorioz, lidergotza berriak produzitzeko premia asetu gabe geratuko litzateke.

“Danak zaharrak ari gaituk geratzen hemen, ez degu gazterik sartzen... hori ikusten det nik zer egitten degun.. baina zaila da ere atia zabaltzia behetik datozenei.” (E21)

Soussa Santos soziologoak dio, edozein mugimenduren edo antolakunderen gerontokratizazioak egitura bera joera kontserbadoreak hartzera bultzatzen duela, edozein erreforma edo aldaketarako mesfidati. Belaunaldien arteko arrakala sakondu egiten da kasu horietan eta polarizazio horren ondorioz, belaunaldi haustura bat gertatzeko aukerak ere areagotzen dira. Lidergotza berriek kooperatibismoa auzi sozialera eta bere *jatorrizko balioetara* itzularazteko funtzioa betetzeaz gain, belaunaldien arteko banaketa geroz eta esplizituago hori ehuntzeko ahalmena eduki behar luketela iradokitzen da. Era berean eta auzi sozio-ekologikoarekin loturan, bizi-esperezia mailan belaunaldi gazteak izanik krisi ekologiko-klimatikoaren ondorio larrienak pairatuko dituztenak, lidergoen berritzea eta jasangarritasun irizpideetan sakontzea elkarri loturik lioazken bi prozesu modura uler litezke, kooperatibagintzan murgiltzen diren belaunaldi berriek garaiarekiko leukaketen kezka eta konpromiso sakonagoarengatik.

“Orain, eszeptizismo handia dut nik balio horietatik geratzen den apurrekin egingo ote dugun, beharko dira oso lidergo fuertiak.” (E15)

Bestetik, aipagarria da lidergotzak ekoizteko baldintza sozialak desegin diren honetan, erronka ekosozialak eskatzen duen tamainako prozesuan lidergotza sendo eta indartsuak behar direla, ez horrenbeste pertsona bakarrarenak baizik zentzu gramsciarrean esateko, *intelektual organiko* gisa jardungo duen talde gidari batenak, zentzu-oinarriak betetzeko eta trantsizioaren fase ezberdinak argitzeko zein bultzatzeko gaitasunarekin. Komunitate kooperatiboarentzako erreferente moral(ar)en produkzioa, beraz, urgentziazko zeregin bezala identifikatzen dugu.

7.2.8 Parte-hartzea eta demokrazia formala.

Kooperatibako bazkideen parte-hartzea eta barne demokraziaren auziak ere eragin ditu kritikak eta baita gorespenak. Zenbaitzuen ustean, asanblada orokorrean bozkatzaren diren arren erabakirik garrantzitsuenak, ez da prozesu plural eta gogoeta kolektibo baten emaitza. Nolabait, zuzendaritzaren ikuskera eta apustuak nagusitzen dira, eta horren proposamenaren gainean bozkatzaren da. Parte-hartzea eta demokrazia formalki insitutitua egonagatik, erabaki garrantzitsuen aurrean aurrez eman behar litzatekeen eztabaida *publikorik* ez da egiten, baldintza eta botere posizio berdinetatik.

“Aber demokrazia bat badago. Gero segun ze gauza asanbladan erabakitzen dira. Guk adibidez aurreko urtian interesak tokatzen zitzaizkigun kobratzea %7ra, eta konsejo rektoriak %3,5era kobratzea proposatu zeban. Hori asanbladara eraman zan ta bazkide danok bozkatu genduan. Gero nire iritziz ba asanblada baino lehenau zuzendaritzakuek eta txarla batzuk emoten doskuez zein dan egoera ekonomikua, zer eiñ biako zan ta bestia... ta azkenian horrek be neretzat burua jaten dio jendeari eta bozkatzaren dute ba proposatu dutena.

Hor supuestamente rektorak hartzen ditxu erabakiak, baina zuzendaritzak ildo batzuk emoten dizkizu, eta adibidez ni ez nago prestatua hainbeste numero potolokin erabakiak hartzeko. Berak esaten badosta hau komeni zaigula nik konfiau egin behar dot, ze bera da ekonomiari buruz dakiena, ze milloiak dira azkenian ta nik ze ostia jakin behar dot horrekin zer eiñ?” (E16)

Enpresaren barruan kutsu teknokratiko bat gailentzen dela adierazten da, *numero potolokin* zer egin edozeinek ez dakiela iritzita. Konfiantza aipatzen da erabaki horien oinarri modura, bazkideen artean kooperatibaren interesen aurka inork egingo ez duela onartuta. Dena den, demokrazia egon badagoela onartuagatik, Batzar Orokorrak pasa beharreko *tramite* modura hautematen dira eta bazkide kolektiboaren gainean nagusitzen den sentipena da batzarraren aurretik erabaki garrantzitsuenak hartuta dudenekoa. Parte-hartzeko borondate falta bat edo joera konformista bat aipatu genitzake batzar orokorren bilakaera nagusiaren arrazoi modura, gobernantza era teknokratikoarekin batera. Barne-demokrazia ahul batek kooperatibaren zentzua bera hutsaltzeko arriskua dauka, bere ondorio zuzena dimentsio enpresarial-ekonomikoaren indartzea izanik. Kasu horretan, kooperatiba eta bere izaera demokratikoa estatutu mailan jasoa dagoen egitura juridikoa litzateke, baina eduki gutxirekin bete. Gainera, egitura demokratiko horien eragin errealaren gainean mesfidantza agertzen da, azkenean zuzendaritzak nahi duena egiten dueneko mezua jaso dugu.

“Gero danok daukogu pasotismua, ni ia asanbladatarra ta ez noia, ze bozkatu izan dira gauzak asanbladan irten dana ezetz eta gero insistitzen dabe irten arte baietz. Nik azkenian ikusten dot ez dauela ezertarako balixo ze eiten dauie gura dauiena ta iasta, euren ustez hori da enpresandako onena ta iasta. Ta gainera oiñ dau beldurra, ba egon zara bizitza osua borrokatzen postu bat lortzeko, eta igual enkarguak ezaitzulako begiko edo ba bidaltzen zaitxue beste postu batera askoz be indize gutxio daukola eta indize estrukturala direktamente jaisten jatzu, lehen ez jatzun jaisten. Bizitza dana kostau jatzuna lortzia ba momentuan kendu ahal dotsue, lanpostu askoz txarrago batera.” (E26)

Jon Sarasua soziologoari eginiko elkarrizketan 90ko hamarkada jartzen du gobernantza era teknokratikoa Arrasaten nagusitu zen aro modura, adibide esanguratsua izanik esperientzia kooperatiboaren erakunde nagusiak berak bere buruari emaniko definizioa:

“90. hamarkadan beste tonu bateko teknokrazia nagusitu zen, eta gainera nabarmen. Horren adierazgarrietako bat da Korporazio hitza. Korporaziok oro har mundu mailan daukan konnotazioa da multinazionalarena. Arrasatek bere buruari eman nahi izan zion Korporazio definizioa esateko nolabait homologarriak ginela beste enpresa multinazionalekin. Noiz eta Arrasate ez denean inoiz izan korporazio bat. Arrasate da nahi baduzu enpresa-multzo edo sare bat, enpresa autonomoen elkargo bat edo deitu nahi duzun moduan baina zerbait ez bagara da korporazioa. Orduan zergatik hartzen dugu 90. hamarkadan korporazio hitza eta oraindik ere ez dugu aski buruargitasun esateko ez garela korporazio bat?” (E15)

Botere teknokratikoa errotzearen inguruan egiten den kirikaren funtsa bada kooperatibismoaren zuzendaritza soziala praxi-an talde txiki eta itxi baten gainean geratzen dela, beren artean negoziatzeko logika konplexuekin (egitura konfederal batek eskatzen duen neurrian), baina ardatz ideologikoak garbi edukita: nazioarteko merkataritzaren koordenadetan kokatzea. Hortik uler liteke, tesi horren arabera, *Korporazio* hitza erabili izana Arrasateko Kooperatibak autodefinitzeko, beste enpresa multinazional batzuen pareko tamaina eta operazio-gaitasuna zutela adierazteko. Teknokrazia-ren egonkortzeak bere inplikazioak ditu barne-demokraziaren ejekuzioari dagonionean eta baita langileen pertzepzioan ere, zenbaiten iritzian kooepratibak eta ohiko SA-k bereiziez bilakatzen ari direneko zentzuan:

“Eta orduan, gaur egun nun ikusten duzu ezberdintasua SL eta kooperatiba baten artean? Ze nik diferentzia... Ez dut ikusten oso garbi. Teorian ezberdintasun asko egon beharko liriteke, baina praktikan ez dakit norarteko ezberdintasunak dauden. Eta uste dut, orokorrean pertzepzio hori dagoela” (E33)

Halaber, parte-hartzeari buruz egiten den beste irakurketa bat badago, enpresaren gaineko erabakietan eta eraman beharreko norabide estrategikoan parte-hartzearekin baino, bakoitzak bere lanean edo bere lan taldean parte-hartzearekin lotzen dena. Lanaren autonomiari buruz ari dira kasu honetan, arduradunari norbere iritzia emateko aukeraz edo bakoitzaren lanean zer egin eta zein modutan erabakitzeaz. Bi parte-hartze mekanismo ezberdinez ari dira, bata lotura gehiago duena erabaki makroekin eta besteak egunerokoan hartu beharreko maila mikroagoarekin. Dena den, guztiak ere daude gurutzatuak kooperatiba bakoitzaren baitako kultural demokratikoarekin. Giro parte-hartzaile eta berdinzaleagoak nagusitzen diren enpresen kasuan ordea, maila makro eta mikroko parte-hartzea areagotuko dela pentsa genezake, eta alderantziz. Bazkideen parte-hartze sistematikoa enpresaren erabakietan, edukiz ondo hornitua, gakoa da dimentsio kooperatiboaren errotze sendo baterako. Osterantzean, ohiko enpresa batekiko ezberdintasun puntuen murriztearen aurrean geundeke, ugariak izan dira ildo horretatik jaso ditugun ohartarazpenak.

“Badaude ezberdintasunak, baina nik uste nahiko antzekotasun daukala gauza askotan, azkenian enpresa baten funtzionamenduan aurrera atera behar dira gauzak. Gero supuestamente hor daukazu consejo sozial eta rektoria hori dana aldatzeko. Ni sozialaian bi urte egon naiz eta rektoran 4. Eta klaro... kanpotik oso errez ikusten da

gauzak aldatzia, baina gero han zoiaz eta ikusten dozu 8 pertsona gehi gerentia han ta presidentia be ta... ez da hain erreza.” (E16)

Eguneroko bizipenean antzekotasun ugari daudela nabarmentzen da, eta barne egituretan egiteko moduak aldatzearen zailtasuna azpimarratu. Hierarkia baten existentzia sahetsezina ere aipatzen da, nahitaez produkzioa aurrera ateratzeko eduki beharrekoa, eta hori tensio iturri izan daiteke.

“Gero ba toki guztietan bezala, igual hitzegiten da de aquellos, edo los otros.. jefiari buruz hitz egiteko... baina azkenian dira iritzi diferentiak gauzeri buruz, ta jefia beti jefia da, nahiz eta sozixua izan, beti euki bia dau jefin zera hori eta bueno.. ba gauza batzuk erabaki batzuk danon gustukuak ez dira izaten normalian.

Igual ebentuala danak ez dau eukiko jefiari edo zuzendaritari gauzak esateko nik dakaten erreztasuna... Adibidez, herenegun hiru geunden berriketan eta gure arduraduna dana sartu zan, eta erdi brometan baina erdi en serio esan zigun “eh, que estais trabajando para mi eh!” ta nik segiduan esan notsan “si, y tu para nosotros, no te jode!” (barreak). “ (E16)

Kooperatiban norberak daramatzen urteak, dituen harreman-sareak, autokonfiantza edo kooperatiba barruan daukan postua izendatu ditzakegu parte-hartzea baldintzatzen duten elementu bezala, eta baita norbere iritzia ematerako orduan ausardia biltzen laguntzen duten ezaugarri modura. Dena den, ez da berdinetik berdinerako harremanaren bizipenik gailentzen, eta hierarkiak, botere-banaketak eta sozializazio gune desorekatuak daudela onartzen da. Hala, bazkide bakoitzaren kapital sinbolikoa edo soziala elementu giltzarriak dira, kooperatibaren parte-hartze mekanismo formaletan jokatuiko duten rolerako. Auzi korapilatsua izanagatik, errotutako parte-hatze kultura batek eta egitura deszentralizatuagoak beti lagunduko du kooperatibako demokrazia formala demokrazia errealerara hurbiltzen. Zentzu weberiarrean esateko, arrazionaltasun formalaren aurkako gurutzadan aktibo baliotsua da parte-hartze eredu integralago baten diseinua eta gauzapena, balioetan oinarritutako arrazionaltasuna taupatu lukeelako enpresaren baitan.

Demokrazia formalaren auzia lur sozio-ekologikora ekarrita, bistakoa da Arrasateko Kooperatibetan desazkundea moduko prozesuei bide eman behar bazaie, nekez izango duela onespentik bazkide kolektiboan erabakia partekatua, eztabaidatua eta adostasun zabalekoa ez bada. Ikuspegi horretan, zuzendaritzek eztabaidaren markoa jarri lezakete eta gaiaren sozializaziorako prozesua abian jarri, baina erroko erabaki estrukturalak eskatuko dituen trantsizioak oinarrietatik abiatutako erabakiak eskatzen ditu, behetik gorako prozesuan eta baita lurraldeko beste eragile ekonomiko eta sozialekin konexioan. Hari horretan, mami demokratikoa berriz oratzeak trantsizio prozesua adostuago, denen aldetik konprometituago eta arduratsuagoa izatea erraztuko ahalko luke; aldiz, goitik beherako eskema teknokratikoa mantenduz gero, gatazkak, tentsioak eta kooperatiben etorkizunarekiko ardura faltak ezaugarritu dezake, hartutako erabakien erantzukizuna soilik zuzendaritzen esku utzita.

7.2.9 Digitalizazioaren erronka

Azkenik, digitalizazio prozesuaren gaiaren gainean jarri behar dugu arreta, datozen urteetan kooperatibek izango duten jarduteko moduan eragin zuzena duela interpretatzen baita eta lanaren mundua astintzen ari den gai zentraletakoa da egun. Gaiari loturik atera diren auzi adierazgarrien artean honako hauek zerrendatu ditzakegu: i) digitalizazio prozesura egokitzeko kooperatibek dituzten erresistentzia organizatiboak ii) digitalizazioak kooperatibetako eguneroko lanean eta enpleguaren konfigurazioan izan dezakeen inpaktua iii) teknologia berrien erabileran belaunaldi arteko hausturaren faltsutasuna.

Lanaren etorkizunari buruz galdetzea da gehienentzat digitalizazioaz galdetzea. Beti etortzeaz dagoen prozesu bat bezala azaltzen da, etorkizunaren ideiarekin eta teknologiaren garapenarekin lotua. Ordea, elkarrizketak egin ditugun garaia kontuan hartuta (2020ko maiatza), elkarrizketatuek oso presente izan dute Covid19-aren pandemiaren auzia. Azaltzen dutenez, pandemiak prozesu hori azeleratu egin du, eta kooperatibetan tele-lanak zein gailu digitalek presentzia nabarmenagoa hartu dute:

“Adibide bat jartzeko... ni enpeñatua nengoen telelana martxan jartzeko taldean. Aurtengo otsailean lortu nuen konpromezu bat Kontseilu Errektorearekin eta Zuzendaritzarekin proba pilotu bat martxan jartzeko non erabateko konfiantzazko pertsona gutxi batzueri hilabetez bi egunetan etxetik lan egiten utziko genien... proba egiteko a ver que pasaba... ezta kizu? Ta bueno ba errealitatea izan da martxoak 13an danok gauzak hartu genituela, pantaila, ordenagailua... dena. Eta hilak 15-16an denok hasi ginen etxean lanean (...) Hori ia gertatu da, ez dauka atzerapausurik, eta hori digitalizazioaren parte bat da, aldaketa sakona da.” (E10)

Bilera telematikoak, online konektatua egotea etab lotzen da digitalizazio prozesuarekin. Diskurtso ildo honen arabera digitalizazioak ez dakar lanaren suntsipena bere eraldaketa baizik, eta modu berri horietara egokitzea izango da gakoa. Guztiek ere, merkatu oso aldakor, zorrotz eta exijentea deskribatzen dute, euren kooperatibak etengabeko aldakuntzan dagoen nazioarteko merkatura egokitzeko dituzten zailtasunak aipatuz. Abiadura bizian egokitzeko gaitasuna garatu behar dutela azpimarratzen dute, nazioarteko merkatuak ezartzen dituen baldintza zorrotzek jokabide hori indartzea eskatzen baitie. Bestela esanda, abiadura handian ikasi, egokitu eta merkatu kokapen lehiakorra mantentzea baldintza estrukturala da kooperatibaren osasunarentzat, eta hori digitalizazioaren bilakaerari adi egotea determinantea da.

“Geure makinak ondo funtzionatu dezaten kontrol numerikoek gero eta bertsio berri gehiago dauzkate, eta hiru edo lau urtero bertsio berri bat ateratzen da. Lehen, bertsio horietako batek 10-15 urte irauten zituen, gaur 3-4 urtetan guzti hori aldatzen ari da. Eta 3-4 urtean behin hasi behar gara ikasten eta ikasten. (...) Lehen persona batek 50 urte egiten zituenean ia zen como... ahora me voy a dedicar a esto.. me lo voy a tomar con otra patxada... ya domino esto.. controlo.. hasta los sesenta o los sesentaidos, ezta kizu? Gaur egun 50 urtetik 60ra gauzak zenbat aldatuko diren inork ez daki. 50 urtekin tentsio hori galtzen badezu 53rekin ia zaude fuera de juego.” (E10)

Gaurko lan munduaren azelerazioa ezaugarri adierazgarria da kooperatiben egunerokoan. Kapitalismoari dagokion erritmoen azkartzea eta produktibitatearen hobekuntza oinarritzko behar modura nagusitzen dira. Aipuan ematen duen

lekukotasunari jarraituz, duela urte batzuk norbere lan ibilbidean heldutasun batera iritsita nolabaiteko erosotasunez jardun zitekeela ematen du aditzera; gaur ordea, langile aktibo oro dago behartua erretiro eguneraino eguneratua mantentzen eta bere enplegarritasuna balioan jartzen. Horrek etengabeko formakuntzan egotera eta euren burua berrasmatzera behartzen ditu langileak, uneroro berritu behar baitituzte euren gaitasunak produkzioak eskatzen dituen beharren arabera. Azelerazioaren, hazkuntzaren eta hobekuntzaren logikak gailentzen dira hortaz, eta denbora tarte laburra geratzen da kooperatibismoak eskatzen dituen bestelako ekimenetarako (kontseiluak, batzordeak, asanbladak etab.).

Hori esanik, digitalizazioaren auziak kooperatibaren jardunean eraldaketa sakon batzuk ekarri ditzakeela iritzi diote elkarrizketatuek, baina ez da kooperatiba orotan, erritmo berdinekin eta alor guztietan modu nahiko homogeenan emango den eraldaketa izango. Eragin ezberdindua izango du sektore produktiboaren, kooperatiba barruko lantalde ezberdinen eta gaitasun teknologikoen arabera. Halaber, lanaren digitalizazio eta automatizazioak dakarren lanpostuen galera posibleen mehatxuaren aurrean, lanpostuak mantentzea posible deneko pertzepzioa nagusitzen da, baldin eta kooperatibak eraldaketa digitalera egokitzen asmatzen badu.

“Adibidez ba muntaian ez dira gauzak asko aldatuko, muntaia muntaia da eta hola da, ez?... baina gainontzeko postu denetan, eraldaketa uste dut sakona izango da. Seguraski ez gara kapaz ikusteko zein neurritaraino. Balio-erantsi gutxi daukaten lanak argi eta garbi desgertzeraz joango dira (...) Jendeari asko esaten diot, zure enplegarritasuna mantendu nahi baduzu horretara egokitzeko zerbait egin behar duzu... ze gauzak hainbeste ari dira aldatzen, horren azkar... zu ez baldin bazara aktualizatu mantentzen fuera de juego geratuko zara segituan” (E10)

“Yo creo que el trabajo se va a transformar, no se va a destruir. Creo que las cooperativas tenemos el reto de transformar nuestros puestos de trabajo... y como tal tenemos el reto de que nuestras personas se transformen con ello. Esta cooperativa pasó de utilizar la máquina de escribir al ordenador en muy poquito tiempo...” (E01)

Egokitzapenaren ideia eta *enplegarritasuna* mantendu beharra bazkide-langileari eskatzen zaion ardura-hartze prozesu modura definitzen da, norbanakoaren inplikazio gehigarria eskatzen duena. Merkatu aldakor eta azkarrean gertatzen diren moldaketataraz egokitzeko-gaitasuna izatea da funtsezkoa, gudu-zelai berrietan borrokatzeko arma indartsuak norberegantuta. Alabaina, esan beharra dago etengabe egokitzeak eta enplegarritasuna mantentzen aritzeak epe ertain-luzeko ziurtasunak hausten dituela, egoera ziurgabeak sortuz. Egoera horrek, behin-behinekotasun sentipena eta zutabe sendorik ez edukitzearen beldurra hauspotu dezke langile kolektiboan. Nolabait, balio-erantsi gutxiko zereginetan ari direnei leporatzen zaie enpresa-kooperatiboan sortzen den aberastasunari behar besteko ekarpena ez egitea, eta beren gaitasunen zorrozte prozesu bat edo merkatuak eskatzen duen zerbaitetan aditu-bihurtzea. Postu *seguruetatik* egiten den diskurtsoa dela azpimarratu beharra daukagu, gehiago begiratzen duena merkatuak dakartzan arriskueta eta horien erantzun efektiboetara; gazteei egindako elkarrizketetan ez dugu zentzu horretako diskurtsorik aurkitu.

Era berean, aipotan ikus litekeen bezala, elkarrizketatuek ziurgabetasunez eta kezka bizi dute euren kooperatibaren etorkizuna baina ez da porrot helmuga bat irudikatzen.

Kooperatiben eguneroko jardunaren ezagun pribilejiatu diren neurrian, lan merkatu aldakorretara egokitzeko gaitasuna egon badagoela azpimarratzen da, baina deigarria da indibiduoaren protagonismoa nagusitzen dela. Norbanakoa bere lanpostuaren arduradun egitea eskatzen da, kooperatibari etengabe balio-erantsia ekarriko dion kokapen batean. Bestela esanda, arreta-puntua kooperatiba bera kolektibo modura bada ere, indibiduoaren ekintzari arreta zabalagoa eskaintzen zaio, Martucellik deskribatzen duen indibiduoaren *ekintza-zabalpenaren* ildoan. Are gehiago, balio-erantsi baxua daukaten lanpostuak pisu ez-eraginkortzat hartzen dira, digitalizazioak erraz ordezkatu ditzakeen lanpostu modura:

“Adibidez idazkarien lanak, balio-erantsi gutxi daukate... garai baten hemen gerenteek, zuzendari orokorrak idazkari bat zeukaten. Gaur egun gerenteek ez daukate idazkari bat, mobilakin, egutegiakin.. norberak gestionatzen ditu gauza guzti horiek... Kontsultora batekin ibili gara lanean eta ia badaude robot batzuk lan administratiboak egiten dituztenak, mekanikoak direnak. Nominako prozesu askotan robot horien bitartez egin daitezke gauza asko...”(E10)

Ordea, begirada kolektiboagoarekin eratu diren diskurtsoak ere egin dituzte elkarrizketatuek, digitalizazioak dakarren erronkari garrantzia kentzeko estrategiak erabiliz, konplexutasuna murrizteko ariketa batean. Hala, eredu kooperatiboak berak dituen ezaugarri batzuk aipatzen dira, digitalizazioari aurre egiteko erabilgarriak izan daitezkeenak; “lehen egin zuten bezala, guk ere egingo dugu” leloa erabili da.

“Creo que las cooperativas tenemos una ventaja. Nuestro modo de trabajar nos permite compartir conocimientos... unos tendrán la experiencia y otros tendrán los conocimientos de las nuevas tecnologías y de ahí generaremos un valor añadido mayor... Creo que el Covid nos ha enseñado que podemos digitalizarnos en muy poquito tiempo.”(E01)

Digitalizazio prozesuaren desdramatizazio ariketa bat egiten dute elkarrizketatuetako batzuek, baina erronka sakona eta kontrolatzen zaila dela esatean bat egiten dute guztiek. Digitalizazioaren gaiarekin fokoa ez dute horrenbeste jartzen digitalizazioak berak lan egiteko moduetan ekarriko dituen eraldaketetan, eraldaketa horietan kooperatiba nola kokatuko den da interesatzen zaiena. Inork ez du jarri zalantzan kooperatibaren beraren bizarapena, erronka horren aurrean estrukturalki nola antolatuak dauden jakitea interesgarriagoa zaie, tamaina horretako olatuari aurre egiteko baliabide tekniko, kultural eta finantzarioak mugiarazi beharko dituztelako. Alde horretatik, digitalizazioa etorri badatorreneko irakurketa onartu horrek, talka egiten du ekologikoki funtsatutako ikuskerekin, eta beraz, azaleratu egiten da trantsizio ekologikoa eta digitalizazio prozesua autonomoki jarduten duten bi prozesu paralelo gisa hautematen direla, elkarrekiko harremanik gabe. Izan ere, ez dugu jaso iritzirik digitalizazioa eta iraunkortasuna uztargarri ez direla diotenik, edo produkzio prozesu teknologikoki sinpleagoetara joango garela diotenik. Aitzitik, digitalizazioa etorkizunaren iruditeriarekin lotzen da, mundu konektatuago, indibidualago eta post-modernoago batean. Kontraesanean sartzen dira, beraz, klima krisiari erantzuteko eman nahi diren urratsak, eta aldi berean, digitalizazioan sakondu gura duten proiektuak.

Dean den, digitalizazioa etorriko den premisa onartuta, elkarrizketatuetan bi korronte garbi bereizi dira. Lehen korrontearen arabera, egitura solidifikatu eta zentzu batean zaharkitua izateak eraldaketetara egokitzeko prozesua zailtzen du, arau asko birformulatu behar baitira eta bazkideen jokamoldeak zein ohiturak aldaketei

erresistenteak dira berez. Bigarren korranteak aldiz, kooperatiba sare modura irudikatzen du, informazioa langileen artean elkarbanatzea eguneroko ohiko praktika izanik, kolektiboki prestatuago leudeke lan munduak dakarren edozein aldaketari aurre egiteko. Puntu honetan kontuan hartu beharrekoa da elkarrizketatuen kokapena eta nondik eratu duten diskurtsoa.

Eraldaketari erresistentzia gehien topatzen dizkioten elkarrizketatuak kooperatiba handienetakoak izan dira, errealitate fisiko-material oso sendoarekin egituratuak daudenak eta fakturazio zein lan-karga kopuru handiak maneiatzen dituztenak. Aldiz, kooperatiba txikiagoak direnak, sektore teknologikoetan espezializatuagoak, kezka gutxiagoz ikusten dute lan munduaren digitalizazioa, jakin baitakite baldintza egokietan daudela erronka horri sendotasunez erantzuteko.

Azkenik, digitalizazio prozesuak belaunaldi berrien eta zaharragoen artean ikusten dituzten ezberdintasunez galdetuta, diferentzia adierazgarririk ez dagoela adierazi dute. Belaunaldi gazteak teknologia berrien erabilerarekin ohituago egon daitezke, baina horrek ez ditu lanaren munduak eskatzen dituen exijentzia denei erantzuteko moduko kokapen batean ipintzen. Aipatzen dutenez, lanaren espezializazioak gaitasun informatiko zehatzak garatzea eskatzen die langile batzuei, eta teknologiaren gaineko jakintza orokorrak gain, lanketa berezi bat egin beharra dago trebeziak hobetzeko. Hortaz, izan heldu edo gazte, guztiak daude ikastea, trebeziak garatzea eta egokitzea eskatuko dien kokapen batean.

“Yo creo que tanto en jóvenes como en adultos el reto está en la formación. Un joven puede tener más cultura con herramientas tecnológicas pero a la hora de realizar un trabajo específico de programación etc. Empieza de cero, igual que un adulto.” (E01)

“Bai heldu zein gazteentzat adina baino nik uste bi konpetentzia direla garrantzitsuak: batetik, ikasteko grina eukitzea eta bestetik ikasteko erretasuna eukitzea. Bi horiek ikaragarriko garrantzia hartuko dute hurrengo urteetan.” (E10)

Egoera aurkezten den moduak gauzak egiteko eta antolatzekeko modu baten amaierari egiten dio erreferentzia. Eszenatoki berri bat zabaltzen ari deneko ideia nagusitzen da, eta bertara egokitzea beste aukerarik ez dagoela iradoki. Edozein kasutan, bai heldu zein gazte belaunaldiek jaso dituzten sozializazio esparruak, bereziki analogikoak izan dira eta eremu horretan sorturiko eraldaketek pisu handia izaten jarraitzen dute. Gazte belaunaldiek trebetasun digital gehigarri batzuk eskuratu dituzten arren euren hezkuntza prozesuan, langilearen lan praktikan oraindik ere gehiago eragiten du bakoitzak izandako bizipen eta esperientzien multzoak, mundu digitalean izandako bilakaerak baino. Gure sozializazio prozesuetan martxan jartzen ditugun mekanismoek garrantzia gehiago dauakate, beraz, langilearen trebetasun eta errendimenduan, eremu digitalean norberak garatu ditzakeen gaitasunek baino. Lan kultura baten errotzeak eta hortik eratortzen diren praktikek (betiere eremu sozial ohikoetan garatzen dena, ez birtualean) lehentasuna izaten jarraitzen dute edozein enpresarentzat. Ondorioz, esan liteke eraldaketa digitalaren auzia erlatibizatzeke balio digun beste elementu baten aurrean gaudela.

Edozein kasutan, enpresaren errendimenduari dagokionez bai ageri da kezka, eta kolektiboki ahalegin bat egiteko premia azpimarratu digute batez ere ardura postuak dituzten elkarrizketatuek.

“Nik uste teknologi berriak, digitalizazioko teknologiak adimen artifizialaren inguruan eta jende gehiago prestatua dagoela Madril aldean Euskal Herrian baino. Jaurlaritzak eta hemen egin deguna izan da producir, producir, producir... todo lo que no es hierro no vale esaten du Arantxa Tapiak eta Mondragoneko presidenteak ere bai. Nik uste atzian geratzen ari gerala, batzuk egiten ari dira... baina eraldaketa dator eta gu oraindikan burdinian pentsatzen. Nik ikusten det oso makal gabiltzala hor, eta ez badegu ikusten ondokua azkarrau dabilela ez gara espabilatuko.” (E19)

Merkatuaren eta lehiakidearen ideia dakar ostera. Etengabe egokitzen jardun beharra eskatzen duen testuinguru ekonomikoan, digitalizazioak bai dakar prozesu horren azelerazio bat. Fordismoari eta industria pisutsuari lotutako ezaugarriak (*burdina*) aipatzen dira, euskal industrian berrikuntza oztopatuko lukeen elementu modura.

7.3 Ardatz sinboliko kulturala (i) Iraunkortasunari buruzko nukleo diskurtsiboak, ekimen enpresarialetik identitatera

7.3.1 Iraunkortasunaren auzia Arrasateko Kooperatibetan, lekua hartzen.

Auzi ekologikoaren inguruan kooperatibetan dauden ikuspuntuak ezagutu aurretik, lagungarri zaigu gai hau kooperatibetan nola lurreratu den ikustea eta zein zabalpen daukan argitzea. Ezeren aurretik, ezinbestez aipatu behar dugu krisialdi sozioekologikoaren ulermen markoa Arrasateko Kooperatibetan ezin dugula irakurri nazioartean eraiki den modutik salbu. Bestela esanda, Arrasateko Kooperatiben baitan ez dugu espero ardatz moderno industrialari guztizko emendakina egingo dion diskurtso ekologistarik aurkitzerik, baina bai uste dugu korrante nagusitik aldentzen diren ikuspegi partikular batzuk loratu daitezkeela kooperatibagintzaren senean, bere jatorria, ibilbide historikoa eta nortasunak baldintzaturik. Era berean, sarrera labur honetan ezin dugu aipatu barik utzi krisialdi sozioekologikoa zientifikoki funtsatua egonagatik, bere gainean eraikitzen den diskurtso hegemonikoa prozesu soziala dela, eta beraz, eraikuntza horretan indarrean dauden botere-harremanak, interes subjektibo eta objektiboek eta logika sistemiko ezberdinek eragiten dutela.

Ondorengo orriotan aurkezten dugun analisia eta diskurtso sailkapena jasangarritasunaren gainean egin dugun diskurtso analisisian oinarritzen da. Helburua kooperatibagintzaren baitan dagoen produkzio diskurtsibo nagusia ezagutzea da eta horien gainean eraikitzen diren korrante ezberdinak. Zehazki, bost izan dira sailkatu ditugun diskurtso korranteak, elkarlotuak badaude ere, kualitatiboki ezberdintzeko oinarriak egon badaudela irizten diogu. Ondokoak dira kokapen diskurtsibo nagusiak i) jasangarritasuna derrigortasun koertzitibo modura ii) jasangarritasuna enpresa pragmatismoan iii) ekologiar buruzko kezka lanpostuen aruka iv) jasangarritasunaren zailtasun kulturalak. Kooperatibetan lurreratu ezina v) jasangarritasuna identitate ikur.

7.3.2 Iraunkortasunaren eraikuntza diskurtsiboa AKE-n. Austeritatearen eta neurritasunaren helduleku katolikoak.

Ezin dugu Arrasateko Kooperatibetako iraunkortasunari buruzko produkzio diskurtsiboa aztertzen hasi, erreferentzia egin barik bere erro katolikoek sustatutako biziera austeroei. Nahikortasunaren kulturaren premian eta desazkundearen paradigman azaldu bezala, krisialdi sozio-ekologikoari modu eraginkorrean erantzuteak eskatzen du eraldaketa kultural-subjektibo esanguratsua, biziera neurritsuen gaineko kultura bat hauspotuko duena.

Arrasateko Kooperatiben sortzaileen praktika kultural eta sozialetara hurbilduta, bizimodu austeroaren zantzu nabarmenak identifikatu daitezke, erlijio katolikotik edandakoak eta bere doktrina sozialetik aplikatuak.

“Arizmendiarietaren planteamenduen azpian dagoen balore-sortan, duintasuna, parte-hartzea edo berdintasuna moduko baloreez gain, kristautasunak ere badu austeritatearekin lotutako balioak... ba gutxirekin bizitzea. Ez da pobreziaaren apologia bat baina bai nolabait munduko bizitzako bi elementuren gaineko deslotura edo desapegoa: boterea eta aberastasuna. Biblian etengabe insistitzen da kontuz boterarekin kontuz aberastasunarekin, tradizio luzeko ibilbide espiritualetan aurkitu dezakegu hau.”

“Arizmendiarieta bera ere persona austeroa zen. Gorroñoigoitiak esaten zuen el no tuvo nada y era pobre porque quería ser libre. Ya lo siento pero estar borracho de aspiraciones de dinero no da libertad. Bazuten nolabait herriari laguntzeko bokazio bat, denak ziren katolikoak sortzaileen artean, ez katolikoak kulturalki baizik eta bizitzako elementu nagusi bezela. Kooperatibismoa euren kristautasunaren ondorio bat izan zen, eta austeroak ziren. Gure aita produkzio-buru izan arren, berari eta andreari ez zitzaien okurrizten taberna batera joatea afaltzera oso egun berezia ez bazen.” (E15)

Erro katoliko horietan aurkitu ditzakegu elementu material handiekiko nolabaiteko ukapena AKEn dna-an bertan zizelkatua dagoena. Dena den, ezin dugu baztertu natura ulertzeko zuten moduak ez zituela gaurko erronka sozioekologikoak eskatzen duen irakurketarik egiten, garaiko marko kontzeptualean ez zelako oraindik norabide honetan eztabaidarik ireki. Arizmendiarietan aurkitu dezakegu *natura transformatzeko dago* esaldia, eta erlijio katolikoak oso garbi mantendu izan du bere jarrera zentzu horretan, planeta gizakiari fruituak emateko materia modura interpretatuz edota gizakiak jainkoaren graziaz hazi eta biderkatzeko zeregina duela defendatuz⁶³. Arizmendiarietak gogor kritikatu zituen materialki *beti gehiago* nahi zutenak, eta lehentasuna izatean jarri beharra zegoela, edukitzean bainoago:

“Para que seamos un pueblo maduro, un colectivo no infantil, necesitamos valorar más el estado de conciencia que regula nuestras relaciones y convivencia que otros signos de opulencia y vano prestigio» (FC, IV, 88). «Aprender a ser», consigna anunciada por la UNESCO


⁶³ Ernest García soziologoak ongi funtsatzen du katolizismoaren gaineko bere azterketan elizak auzi demografikoarekin izan duen jarrera. Aita Santuak 1891an idatzitako honek ilustra dezake: “no hay ley humana que pueda quitar al hombre el derecho natural y primario de casarse, ni limitar, de cualquier modo que sea la finalidad principal del matrimonio, instituido por la gracia de Dios: Creced y multiplicaos” (García, 2021: 350).

en 1972, debe constituir una lección de vida, que urge que los cooperativistas la aprendan profundamente, en el sentido más amplio del «ser» sobre el «tener» (...) El «tener más» embruja a los cooperativistas y desvaloriza no poco sus vidas, al polarizarlas en torno al ansia de tener y sus correspondientes signos de prestigio.” (Azurmendi, 1984: 368)

Praktika austero horiek, ordea, hazkundera ipar zuen aro moderno desarrollistarekin topo egitean makaldu egin dira belaunaldi berrietan, eta Arrasateko Kooperatibak ez dira salbuespena izan. Kontsumo gizartearen jaiotzak eta klase ertainen produkzioak erro katolikoetan arnastu zitekeen neurritasun hori mantentzeko baldintzak desegin ditu, Arrasateko Kooperatibagintza bera paradoxa adierazgarri baten aurrean jarriz: inon gutxi topa litekeen esperientzia kooperatibo arrakastasua bururaino eraman, eta aldi berean bilatzen zen gizaki berria sistemikoki ezinezko izan dadin baldintzak sozial eta ekonomikoak jarri.

“Nire ustez da arrakastaren porrota, da esatea zuk hau egin duzu beste gizaki mota bat sortzeko, baina zure arrakastak sortu duen gizaki mota da klase ertaina, eta klase ertaina zer da? eukitzea kotxe on bat, etxe on bat, ahal bada ballatua hobeto eta oporretarako bigarren etxe bat. Klaro, zuk egin duzuna bada 60. Hamarkadatik klase ertaina sortzeko baliabideak eman kontraesana handia da. Nik Gorroñogoitiari ikusi diot hori ez, zer egin dugu? Osea berak ikusten zuen begirada erlijioso batetik, hau da, guk hau egin genuen plasmazio sozial moduan eta bapatean klase ertaineko jendea ahalbidetu dugu, eliza gutxi daude eta gure baloreak ba enfin, gutxi batzuk badaude baina zertan ari gara?. Momentu batean esaten zuen momentu honetan kooperatibismoaren txirula jotzea da baflez josita dagoen mundu kapitalista batean txirulatxo bat jotzea moduan.” (E15)

Atal teorikoan landu dugun erreforma moral zabal baten premiarekin lotura eginda, XX. mendek erakutsi digu agian gizaki berririk ez zegoela, gizaki zaharra zela baldintza berrietan.



7. Irudia: Klase sozialaren pertzepzioa EAE-n. Egintza propioa, EAE-ko datuak CIS 2021-eko datuetatik abiatuta.

Goiko taulan ikusi dezakegu EAE-ko klase sozialaren pertzepzio subjektiboa nagusiki klase ertainarekin lotua dagoela, euren burua ertain-ertaintzat jotz EAE-ko gizartearen ia %60k. Klase ertainaren gizarte bat sortzeko baldintzak sortu zituztela esatean, klase ertainari loturiko bizi-estiloa, iruditeria eta bizitza onaren gaineko ideia ere kontuan hartu behar ditugu, merkantziaren fetitxismoarekin eta biziera kontsumitzailearekin harremandua dagoena. Nolabait, modernizazio industrialak eta kontsumo gizarteak ahalbidetu duten egituraketa sozial konplexuan, zaila da moral katolikoarekin loturiko biziera neurritsuak sektore sozial zabaletan topatzea. Horrez gain, taulak erakusten digu langile klasearekin dagoen identifikazioa gutxiengoarena dela Erkidegoan, langileen identitate heldulekuen ahultzearen erakusgarri. Irakurketa horren arabera, beraz, Arrasateko Kooperatibismoak kontsumo kapitalismoa eusten duen klase ertain funtzionala sortzeko baldintzak jarriko lituzke, bizi-eredu *kontsumozalearen* hegemonia kulturala elikatzen duena. Bestela esateko, egungo botere-egituraren eta hari loturiko bizi-estiloaren egonkortasun ideologiko eta materialaren oreka eusten laguntzen du.

Klase sozial subjektiboan dagoen bilakaera horrek, eremu sinbolikoan eraginak edukitzeaz gain (identitate kooperatiboaren garapenerako kasu), bere burua klase ertaintzat duen kolektiboaren jokabideak komunitatearekiko ardura gutxiago eta lotura sozial ahulagoak adierazten ditu, bigarren modernitatean deskribatu diren indibidualizazio prozesuen eta bizi-ibilbideen singularizazioaren eraginez. Era berean, ez dugu gutxietsi behar Elizaren eta erlijiosotasunaren makaltzeak, Elizaren doktrina sozialaren aplikazioaren ahultzearekin lotuta, AKE-ren bilakaeran izan duen eragina, gidatu duen balio-sortari eta azken hamarkadetan hartu diren erabakiei dagokienenean.

Dena den, auzi sozioekologikoaren lotu badezakegu ere austeritatearen ideia edo pentsa baliteke ere gizaki berriak gogoz helduko liokeela tamainako erronkari, eztabaida erreal modura (inplikazio material errealekin) agertu da Arrasateko Kooperatibetan azken hamarkadan eta bilakaera positibo bat egon dela nabarmentzen da elkarrizketatuen artean. Hori azaltzeko arrazoitzat bi faktore hartzen dira bereziki: i) gaiak gero eta presentzia eta kezka handiagoa eragitea kooperatiben jardunean eta erakundeekin harremanean ii) ingurumenari begiratzeko modua eraldatzen ari da gizartearen zabalean.

“Nik ikusten dot oiñ dala 13-14 urte zer esaten zan gai hauen inguruan eta orain ikustia zuzendaritza batzuen gai-ordenian daguala, diferentzia handixa dago. Gainera, oiñ dala 13-14 urte gai hauek mesprexuz tratatzen zituztenak entzuten dozuz gaur eta esaten dozu, ostia, hemen zer bait aldatu da” (E04)

“Neri neuri be oiñ dala 10 urte esan izan ezkerro ze txip aldaketa etorriko zan aldaketa klimatiko, energia berriztagarri edo zirkularitatean inguruan, ez neuke sinestuko inondik inora. Baina egia da 10 urte hauetan aldaketa batzuk eman direla. Aldaketa txikiak dira, baina nunbaitetik hasi behar da, ta aldaketa horrek zenbat eta inertzia gehio izan ba erruberiak azkarrago jiraten dau.” (E21)

Nabarmentzekoa da, beraz, bilakaera. Iraunkortasun gaiak kontu estetiko modura ulertzetik auzi erreal eta material modura ulertzer a igarotzen ari dela iradokitzen da. Garaiko marko kontzeptualak eta iritzi publikoan izaten ari den oihartzunak ahalbidetu

du, besteak beste, kargu exekutiboak dituztenen bileretara iristea iraunkortasunarekin loturiko gaiak, ertzetik erdigunerako bidea eginez. Kooperatibismoaren baitatik datorren faktore endogeno modura baino, aldaketa kultural eta politiko zabalago baten baitan ulertu behar dugu, beraz, kezka honen hedatzea. Era bertsuan, nabarmentzekoa da ertzetatik abixua jotzen zuten ahotsak egonagatik ere, elkarrizketa behin baino gehiagotan agertu dela sorpresa faktorea.

“Tsunami baten modura iritsi da hau guztia, nos ha pillado de sopetón. Askotan inprobisatu behar izan dugu legeak, ziurtagiriak eta besteak bete ahal izateko” (BPH)

Beti bigarren maila batean lantzen zen gaitzat jota, horrelako dimentsioa hartu izanak harridura eragin du ardura postuetan kokatzen diren pertsonetan bereziki, eta egokitu beharrak alarma bat baino gehiago piztu dituela nabarmendu da. Bazkide partikularren artean krisi sozioekologikoaren inguruko kezka pribatuak egon bazitezkeen ere, taldearen arazo nagusi modura ez da interpretatu azken urteetara arte. Hortaz, sozialki arazo modura eraikitzen ari dela ikus dezakegu, kooperatibagintzak berak duen konfigurazio sozialetik eta interes talketatik. Arrisku ekosoziala sozialki eraikitzen den moduak koopertibagintza arau zehatzak eta jokabide patroi berriak ezartzera behartzen du.

Esan behar dugu ere jasangarritasunaren kontzeptuak adiera ezberdinak hartzen dituela elkarrizketatuen posizio sozialaren arabera eta oro har ez dagoela gaiaren gaineko ezagutza sakonik. Elkarrizketatu ditugun bazkide gehienentzat, jasangarritasunarekin naturari loturiko mundu sinbolikoa mobilizatzen da, eta gehiago pentsatzen da enpresaren kutsadura mailan eta sortzen dituen hondakinetan, zibilizazio erronka batean baino. Bestela esateko, jasangarritasunak eta auzi ekosozialak ez du errealitate soziala interpretatzeko bide teoriko-metodologiko bat eskaintzen gehiengoarentzat, lurralde sinbolikoan geratzen den elementua dugu, eguneroko praktika kooperatiboarekin zerikusi gutxi duena.

Dena den, kooperatibaren senean bertan auzi sozioekologikoari aurre egiteko ikuspegi ezberdinak ageri zaizkigu, zenbaitetan kontrajarriak, berrikuspen eta azterketa eskatzen dutenak. Jarraian bereizi ditugun bost diskurtso korronteak aurkeztuko ditugu, bakoitzaren ezaugarri bereizgarrienak analisira ekarri nahirik. Modu induktiboan osatu dugu sailkapena, jaso ditugun datu kualitatiboak ordena zehatzean kategorizatu asmoz. Elkarrizketen bidez jasotzen ditugun datu biografiko, sozial eta historikoak sailkatzea artisau lana den neurrian, ondorengo sailkapena esku artean dugun materialarekin lan egiteko aproposena iruditu zaigun modua da.

7.3.3 Jasangarritasuna derrigortasun koerzitibo modura

Lehenik eta behin, jasangarritasunaren gainean eraikitzen diren diskurtso bereizketan, sailkatu dugun lehen korronte diskurtsiboarekin egiten dugu topo, jasangarritasuna estatutik edo merkatutik eratorritako derrigortasun modura definitzen duena. Zentzu horretan mugarriztat jotzen da 11/2018 legea, 500 langiletik gorako enpresak erantzukizun sozial korporatiboko txosten ez-finantziarioa argitaratzera behartzen zituena. Bertan, langileen lan-baldintzak, genero aldetik eman diren urratsak eta konpromiso sozialarekin loturiko beste zenbait alor aipatzeaz gain, ingurumen inpaktua, erabilitako material, negutegi efektuko gasen isurpenak eta beste adierazle batzuk

jasotzea derrigortzen da. Kooperatibak txosten horrek eskatzen zituen alorrak betetzeko esperientzi falta zutela azpimarratu da, eta kontsultore pribatuetatik tira egin behar izan zutela legea betetzeko.

“Al final hicimos porque nos pide la ley, hemos tirado mucho de consultoras porque no teníamos información suficiente de nuestra actividad en ciertos aspectos. Ya este año nos animaremos a hacer nosotros el informe porque esto ha venido para quedarse” (BPH)

“Hasieran legia etorri zanian esan genuen, eta guk hau nola egingo dogu? Hor oso inportantia izan zan LKSk eman zigun laguntza ze ez geunden prest hola bapatian horri erantzuteko” (BPH)

Legeak ezarritako inperatiboak kooperatibak neurraketa ekimenak martxan jartzera behartu zituen 2018an. Gaur egun 250 langiletik gorako langileek ere derrigortasuna dute txosten hori aurkezteko, eta urte gutxian enpresa ororen jardun ohikoa bilakatuko dela aurreikusten da. Inflexio puntu hori aipatzea garrantzitsu zaigu, une horretatik aurrera iraunkortasun auziarekiko kontzientzia-hartze prozesua deskribatzen baita. Agian merezi luke puntu honetan ñabardura txiki bat egitea, kontzientzia-hartze prozesu hori zuzendaritza taldeetan hedatu zela esaten ari baikara eta ez bazkide kolektiboan. Modu horretan enfokatuta, irudi luke aurretik kezkarik ez zegoela gaiaren inguruan eta hori esatea ez litzateke analitikoki zuzena izango. Bai esan dezakegu, ordea, kooperatibetako botereguneetan kezka material eta erreal modura orduan agertu zela, eta hortik tantaka isuri dela kooperatiben gainerako sektoreetara goitik-beherako prozesuan.

Kooperatibaren jasangarritasuna eta solbentzia ekonomikoaren arteko gatazka korapilatsua agertzen zaigu, eta hor kontzientzia ekologikoak bazkide kolektiboan izan dezakeen papera garrantzitsua da. Eremu horretan, kooperatibistek komunitate lokalarekin duten lotura aipatu behar dugu, hau da, aldi berean dira enpresa industrialean ekoizle eta inguruko herrietako herritar. Hala, euren herritar identitatearen paperean, ez dute gustoko ingurugiro degradatu batean bizitzea, eta nazioarteko kapitalek egiten dituzten inbertsio-operazioak ez bezala, kooperatibistek gizarte horren parte izaki, bere kutsadura jardunak edo praktika ez-jasangarriak nozituko ditu. Beraz, ez dago horren garbi kooperatibek ingurugiroaren alorrean eman behar dituzten urratsen aurrean indiferentea denik bazkideen kolektiboa.

Halaber, txosten horiek betetzeko premiak ordenatze-funtzio bat bete duela azpimarratzen da. Aurretik garapen jasangarriaren inguruan (GJHak)⁶⁴ zeuden helburuak modu abstraktu xamarrean definitzen zirela aipatu da, eta honek bide bat eta ekintza zehatzak planifikatzeko balio izan duela, aurrerapausu errealak emateko aukera irekiz. Hala, garapen jasangarriaren gaia ezjakintasunak eta lausotasunak ezaugarritzen zuela azpimarratu da, eta adierazle zehatzak edukitzea lagungarri suertatu dela, diagnostiko bat edukitzeko eta hortik abiatuta bide ezberdinak planteatzeko.

⁶⁴ Atal teorikoan aipatu bezala, Garapen Jasangarriko Helburuak 2015. urtean Nazio Batuen Erakundearen 193 herrialdek sinatutako helburuak dira, ekonomiaren deskarbonizazioa eta garapen bidean dauden herrien hazkuntza berdea posible egitea bilatzen duena. Hitzarmen horrek, enpresak adierazle zehatz batzuk ezartzera eta horiek betetzera bultzatzen ditu.

Trantsizio ekosozialari begira, karbono neutraltasunera eta isurien murrizketara bidean eman beharreko urratsen gainean kezka ageri da, urrats horien beharrezkotasunak baino, norik esanda eta nola erabakita etorriko diren zalantza dute gehienek. Kooperatiba bakoitzak bere kabuz bide hori egitearen zailtasuna planteatzen da, lehia testuinguruan margena gutxituko lieke bide horren hautuak, errentagarritasun ekonomiko barik. Bada, kooperatibismo jasangarrietarako bidea erakundeetatik eta lege zehatzetatik egingo dela defendatzen duen ikuspegi honentzat, ezinbestekoak dira nazioartean eratzen ari diren akordio global zabalei erreferentzia egitea. Hala, Nazio Batuen Erakundeak 2015. garapen jasangarriarako zehaztutako 17 helburu orokorrak, Parisko 2015ko akordioa, Europako Itun berdea edota, geurera etorrita, *Basque Green Deal* erabiltzen dira zutabe diskurtsibo modura. Errealitate instituzionalizatu hori deskribatuz, kooperatibismoak ezinbestez jasangarritasunaren bidea urratu beharko duela azpimarratzen da. Erakunde nagusien mailan adostu diren hizarmenetan oinarrituta, sinesgarritasuna eta konfiantza gehiago lortzen deneko sentipena nagusitzen da, gainerako eragile ekonomiko eta sozialek ere bete beharko baitute, ahalik zabalena eta Europa mailan hegemonikoa izango den eraldaketa prozesuan. Estatuaren eta Europako erakunde nagusien bermea edukita, merkatuko gainontzeko lehiakideek ere arauak beteko dituzteneko konbentzimenduekin jokatzeko da ikuskera honetatik. Horrez gain, Mondragoneko kooperatibek iraunkortasunarekiko duten konpromisoaren erakusle modura *Change The World* aldizkarian eskuratutako postu ona aipatzen da, jada bidea egiten ari diren seinale:

“Negozioen aldizkari amerikarrak iaz egin zuen “Change the world” (mundua aldatu) sailkapenean hamaikagarren tokian kokatu zuen MONDRAGON, kooperatibek inguruarekin duten konpromisoaren erakusle. Kooperatibek gizarte orekatuago, bidezkoago, homogeenago eta iraunkortasunago baten alde egiten duten lanaren aitorpena” (TuLankide, 2021)

Banaketa enpresen kasuan 2030 agendak ezarritako helburuekin bat datozen estrategiak garatzen ari direla azpimarratzen dute, Eroskiren kasuan hamar konpromiso zehatz hartuta klima larrialdiaren aurrean ekinbide jakinak martxan jartzeko. Erreferentzia guzti horiek erakusten dutenez, Arrasateko Kooperatibak auzi sozioekologikoa ulertzeko ezartzen ari diren modua nazioartean nagusitzen ari den ulermen markoaren korrontean kokatzen da. Bestela esateko, eta hemen ageri zaigu agian tesi honen interes puntu gordinenetakoa, Arrasateko Kooperatibek ez dute krisialdi sozioekologikoaren aurrean interpretazio propio eta autonomorik garatu, nazioarte mailan ezarri diren ulermen patroi nagusien luzapenean kokatu dira, paradigma hazkundezalea auzitan jartzen ez duena, *green* ekonomia deskarbonizatuaren sorkuntzari esker. Esan beharra dugu pentsamendu sozioekologikoak salatu duen bezala, nazioarte mailako goi-politikak ezarri dituen koordenatuak ez-gai direla krisialdi sozioekologikoak behar duen tamainako erantzun sozial, politiko eta ekonomikoa artikulatzeko. Hor ageri zaigu kapitalismo axiomatikoaren indarra, itxuraldatzeko gaitasun handia, eta zentzu batean kooperatibismo integrala praktikatu ezinaren tragedia.

Eman diren urratsen artean, azken urteetan iraunkortasunaren gaineko datuak mahaigaineratzen dira. Bere enpresen jardueraren hornitzaileen %50 tokian tokiko ekoizle lokalak dira, bere salmenten %90ak kalitate ziurtagiria du eta %65ak ingurugioaren kudeaketa sistemaren ziurtagiria (Mondragon, 2021). Dena den aipatu

beharra dago, Arrasateko Kooperatiben jarduna iraunkor izatetik urruti dagoela gaur gaurkoz eta oraindik ez duela joera ez-jasangarriei buelta ematea lortu (Ikus ardatz energetiko-metabolikoa). Puntu honetan esan dezakegu AKE-ren nortasun birbanatzaile eta sozialki justuagoak ez diola ahalbidetu iraunkortasunaren auzian diagnostiko hegemonikoa gainditu eta horren aurrean modu originalago batean kokatzen.

Kooperatibismoak planteatzen dituen koordinatuetatik, datozen urteetan izango duen bidegurutze nagusietakoa hortaz ondokoa izango da: kooperatiben jarduna irizpide ekonomiko eta ekologikoen barnean mantentzea, biak ala biak posible egingo dituen oreka konplexuan. Elkarrizketatuetan, gaur gaurkoz irizpide ekonomikoaren gailentasuna dagoela islatzen da, eta estatuak edo korporazioak moduko botere-egitura batek zuzenean agindu ezean, nekez lortuko da produkzioa irizpide ekologikoen barnean sartzea. Ondorengo pasartean ere korapilo berberari egiten zaio erreferentzia:

“Mondragon korporazioa da indarririk gabeko egitura bat. Ez dauka ejekutiboak indar haundirik eta kooperatiba bakoitza soberanoa da. Orduan jun zaitte zu (Industria sektoreko kooperatiba esanguratsu) bati esatera erresilientzia eta ezta kitze.. esango dizue hi nere negozioa hau dek eta ni hamen burrukan nabil margen txiki bat eukitzeko, ez hasi neri istoriak kontatzen!. Orduan, kooperatiban gainetik korporazioa dago, baina ez daka botere ejekutiborik (...) Ez dut uste kooperatibagintzak dinamika hori aurrera eramateko.” (E08)

Adierazten denez, hazkundeari mugak jartzea eta produkzioa egokitzea soilik etorriko da botere exekutibo sendo batek agindu ondotik ikuskera pragmatiko horretan. Kooperatiben borondatera lagaz gero, ezinezkotzat jotzen da erresilientzia mailan sakontzea eta trantsio ekosozialerako urratsak ematea. Hasteko eta behin, enpresako arduradunak kezkatzen ditu helburu ekologiko horiek lortzeko egin beharreko inbertsio kopuruak, horrekin ze etekin lortuko den zalantzan jarrita. Hau da, trantsizioaren ikuspegi instrumentala ageri zaigu, dimentsio ekonomikoan errentagarri izan ezean (edo etekinak emango dituelako edo isun handiak sahiesteko) ez da beharrezko. Tesian zehar aipatzen gabiltzan kontraesan sistemikoarekin egiten dugu topo ertz honetan, kapitalismoan ardaztutako merkatuetan lehiakor eta solbente izateko asmoak nekez dira uztargarriak praktika kooperatibo jasangarriekin. Post-hazkundearen planteamendurik ez da ageri ildo estrategikoetan, horrek osoko emendakina aurkeztea esan nahiko lukeelako azken hamarkadetako ibilbide hazkorrari. Jarrera estrategiko horrek posizio apurtzaileagoetara gerturatzea eskatuko luke, ekologikoki beharrezkoa denera hurbildu nahi badu kooperatibismoak. Ez da ordea norabide horretan bidea zabaltzen duen korrante diskurtsiborik ageri. Besteen artean, zuzendaritzak epe motzeko begirada izan ohi duela nabarmentzen da elkarrizketatuen artean, eta premia larri bat ikusi ezean, denbora kontuengatik, ez direla gai horietara iristen, enpresaren kudeaketak berak dakarren lan-karga handia medio.

Badago, hala ere, gaiaren inguruan aurrerapausuak ematen ari direneko sentipena. Europa iparraldeko herrialdeetara saltzen diren produktuek geroz eta ziurtagiri ekologiko gehiago eskatzen dituztela aipatzen da, eta arau horiek betetzeko kooperatibak egokitzapen batzuk egin behar izan dituela. Arau horiek iristen direnean, zuzendaritzak gai-ordenean lehentasuna aitortzen dio auziari, eta arazoa nolabait gainditzeko saiatzen da, baina epe luzeko begirada estrategikorik gabe, joko-arauetara egokitu ahal bezala, ideia hori nagusitzen da.

“Guri adibidez Mercedes edo BMW etortzen jakuz, zirutagiri batzuk eskatzen, 2039rako neutralak izango garela karbonoan. Alemaniako gobernuek atera eban legia dirulaguntzak jasotzeko konpromiso batzuk ziurtatu behar dirala, eta hango enpresak oiñ zorrotz jarri dira horrekin. Klaro, guk ez dakau ikuspegi bat edo garatuta horren inguruan, eta datorren moduan ba saiatzen gara salir del paso, eztakizu? Eta aurrerantzien be pentsatzen dot holan izango dala, moldatuko gara ahal moduan.” (BPH)

Ez enpresaren ardura daramatenen artean soilik, bazkide kooperatibisten artean ere zailtasun handiak daudela iritzi diote, tamainako aldaketa ekosozialari eraginkorki aurre egiteko. Era berean, mesfidantza agertzen da iraunkortasunaren ikuspegian eman beharreko urratsen gainean, auzia ez baita norberak egiten duena, ondokoak egiten duenarekin alderatzea baizik. Hala argudiatzen du elkarrizketatuetako batek:

“Inposatua datorren edozer txarto ikusia izango da... ta ni izanda ingurugiroaren defendatzaile sutsua edo bueno behintzat kezkatua eta arduratua, neri inposaketa segun nundik datorkidan ba oldartu egingo naiz edo onartuko dut. Diskurtsoa oso zentzuzkoa izan behar da... ze azkenian jendia ez dago kontzientziatua desazkunderako.. ta nik be nire zalantzak ditut ez badut ikusten goiko agintariek eredia ematen dutela. Hau da, esatea Egiptora doazenak COP27 edo horretara danak euren hegazkin pribatuetan, neri esatea karbono aztarna neurtu behar dotela ta ba neretzat ez daka baliorik. Are gehiago, guztiz kontra jartzen naiz, matxinatu egiten naiz. Orduan ba ikusten badot benetan praktikatzen dala desazkundera eta benetan dala serioa, onartzeko prest nago, baina ez nago prest zirkunstantzia hauetan onartzeko, zeinetan munduko aberatsak gero eta abertsaguak diran.” (E22)

“Gauza bat da kooperatibista baten ikuspegitik kudeatzia baina gu geu be gizarteko parte gara eta gizartean danetariko ikuspegixak dauz. Garbi dagoena da trantsiziño energetikua, zirkularitatea, kontzientzia-hartzia etab. ez dala era natural eta sin dolor esaten dana egingo. Gaur egun daukagun bizitzeko era, bizi-maila eta hori dana aldatu egin beharko da. Kontua da desberdina da kontziente izatia aldaketa hori badatorrela, eta aldaketa hori bultzatu eta interiorizatu, edo izatia kanpotik datorren indar baten ondorio, eta derrigorrez aldatu beharra euki.” (E21)

Funtsezkoa da krisi ekologikoaren ondorioak derrigortasun koertzitibo modura interpretatzeak dakarren mesfidantza eta gaiarekiko arrotasun sentipena azpimarratzea. Kooperatibek, enpresek eta gizarteak berak modu arrazionalen eta zentzuzkoan gutxiagora egin behar dutela heldu informatu modura erabaki ordez, erakunde exekutiboren batek inposatutako pobretze modura ulertzen bada, konfiantza falta eta obeditzeko borondate gutxiago zabaltzea gerta liteke. Diskurtso kokapen horrek bete-betean jotzen du erakunde nagusietan eta politikagintzan dagoen mesfidantza gorakorrekin, gizartea eta politika banatu balira bezala. Sinesgarritasun falta horrek, trantsizio ekologikoa goitik-beherakoa izatea zailtzen du eta nolabait iradoki gutxiagora joatearen aldarria egin behar duten eragileak herrigintzarekin lotuago daudenak direla, sinesgarritasun handiagoarekin. Beraz, erresistentzia formak egon badaudela antzematen dugu, klima krisia eliteen diskurtsoarekin lotzen duen ikuspegian hain justu, botereak herritarrak are gehiago menderatzeko erabiliko lukeen gailu modura ulertua. Nolabait, klima krisiaren negazionismo zantzuak dituen ikuskera horretan, auzi ekologikoa kapitalismo globalak asmatu duen diskurtso berria da, herritarrei askatasuna kendu eta nahi duten eran diziplinatuzko sortua, pandemia garaian gertatu bezala. Krisi ekologikoaren irudi konspiratzaile horrek, kooperatibetan iraunkortasunarekin loturiko edozein ekimen eraginkor martxan jartzeko borondatea ahultzen du.

Bada, zentzu horretan, pobrezia eta aberastasuna kontzeptu erlatiboak izaki (pobrea edo aberatsa naiz, gizarteak duen aberatasun mailaren arabera), desberdintasun sozialak eta klase arrakalak areagotzen ari diren koiuntura historikoan klase ertainak argudiatu dezake desazi behar dutenak, lehenbizi, eliteak eta klase zuzendariak direla. Gorpil zoro diskurtsibo batean sar lieteke ordea bide horretatik, guztiek kate sozialean gora jaurtitzen badute krisi ekologikoari aurre giteko arduraren zama, ikuspegi kolektiboa ahuldu eta arduradunak denak eta inor ez izatea eragin dezake, azken emaitza neurri eraginkorrik ez hartzea eta orain arteko norabidearekin jarraitzea izanik.

2. Koadroa: Fagor Etxetresnaken ikasgaiak.

Ardatz ekonomiko-politikoan baliagarri zaigun adibide garaikide praktiko bat, elkarrizketa ia orotan aipatu dena, Fagor Etxetresnak kooperatibaren erorketa izan da. Faktore ezberdinak elkarlotu dira kooperatiba porrotera eramateko, horietako batzuk aipatu nahi ditugu, gutxiagora etortzearen zailtasunekin lotura puntu argiak dituela iritzita:

- i) Bazkide berrien kontrataziorako ahaidetasun irizpidea: Kooperatibaren erabakietako bat bazkideen seme-alabei Etxetresnak-era sarbide zuzena izateko eskubidea aitortzea izan zen. Horrek, kooperatibaren gaineko sare patrimonial eta klientelarra sustatzeaz gain, *habitus* ez-kooperatibistak hauspotu zituen. Bizi-ibilbideko oinarri materiala bermatua izanik, enpresaren arazoetan ez murgiltzeko joera indartu zen eta jokabide indibidualistagoak agertu ziren. Era berean, produktibitateari loturiko arazoak aipatzen dira ere, lan absentismo adierazgarria, lanari loturiko etika ahula edo bakoitzaren lana aurrera ateratzeko borondate falta.
- ii) Hazkuntza estrategia: Fagorren nazioarteratze estrategia eredu kapitalista ohikoan gauzatu zen (Alustiza, 2015: 332). Kapital inbertsio handiak kooperatibari erreserbak sortzeko gaitasuna mugatzen zion, eta zorraren mekanismora jo zuten enpresaren hazkuntza estrategia gauzatzeko (Ortega eta Uriarte, 2015: 15). Horrek, finantza egitura sendo bat eratzea sahiestu zion enpresari eta merkatu anbizio handiko operazioak arrisku handiarekin jarri ziren martxan. Kasurik adierazgarriena BRANDT enpresa Frantsesaren erorketa izan zen, 162,5 milioi eurokoa eta 4.700 langilekoa.
- iii) Kultura kooperatiboaren arrakalatzea: Bazkide berriak egiteko martxan jarri ziren mekanismoez gain, dimentsio enpresarial-ekonomikoaren gailentze nabarmena gauzatu zen, dimentsio sozial-kooperatiboaren kaltetan. Hala, lanari loturiko etika kooperatiboak (erantzukidetasuna eta inplikazio altua ezaugarri dituen) indarra galtzen du, eta kontsumo gizarteari loturiko praktika hedonistak hedatzen dira bazkide kolektiboan. Ortega eta Uriartek esan bezala, ezker fordistarekin loturiko interpretazio marko bat agertu zen Etxetresnak-en kasuan, non bere ardatza sorturiko aberastasunaren zati handiago bat langile klaseari eskaintzea den. Bere arrisku nagusia zera da, eskubide eta betebeharren arteko oreka beti konplexuan, norbere eskubideaz eta tartaren zatiaz arduratzea, betebeharren atala bigarren plano batean lagata.
- iv) Lehia testuinguru global oldarkorragoa: merkatu globalera irekitzeak ere lehiakortasunean sakontzea eta egokitzapen etengabea eskatzen dituen neurrian, beste oztopo bat izan da Fagor Etxetresnaken kasuan, Asiatik etorritako lehiakide berriak agertu zaizkiolako batetik, eta ekintza-margena murriztu zaiolako bestetik. Merkaturen determinazioek indartsuago kolpatzen dute garai globalean.

7.3.4 Jasangarritasuna enpresa pragmatismoan

Jasangarritasunari buruzko kokapena hartzean, bereizi dugun bigarren korrante diskurtsiboa enpresa pragmatismoaren baitan definitu duguna da.

Marko diskurtsibo honetan, jasangarritasuna negozio optikatik begiratzen da eta bi adiera berezi hartzen ditu. Batetik, lehiakortasunari kalte egin diezaiokeen eragile modura agertzen zaigu. Ingurugiroaren higatzeak, kutsadurak eta horri loturiko kostuek enpresaren irudia kaltetzeaz gain ekoizpenetik haratago doazen kostuak dakartza, eta horrek merkatuan posizio hobea lortzea galarazten dio. Bestetik, Arrasateko Kooperatibismoa ezaugarritu duen bulkada pragmatikoarekin bat eginik, jasangarritasunaren bueltan eraikitzen ari diren merkatu berriak aukera gisa ikusten dira, eta hor lanpostuak sortzeko parada dagoela nabarmentzen da. Energia berriztagarrien sektorea edota digitalizazioarekin loturiko merkatu sektore berrietan kooperatibismoak egokitzeko aukera duela adierazten da ikusmolde horretan.

“Analizando el concepto desde una perspectiva de negocio, la sostenibilidad representa una oportunidad excelente para la innovación, ya que es previsible que surjan nuevas oportunidades que generarán riqueza y nuevos puestos de trabajo. Porque si algo va a condicionar la economía en los próximos años y generar cambios profundos en nuestra sociedad es el medio ambiente, sobre todo la emergencia climática. Pero es cierto, igualmente, que va a significar un reto para nuestras cooperativas, que tendrán que adaptar –ya lo están haciendo– sus procesos, productos y servicios a las nuevas exigencias de un desarrollo más humano y resiliente.” (TuLankide, 2021)

lido bertsuan, jasangarritasunean aurrera urratsak emateak enpresaren kapital sinbolikoa indartzen duela nabarmentzen da, eta horrek balio-erantsi bat eskaintzen duela. Zehazki, azken urteetan Europako erakunde nagusiek zabaldu duten bidean *garaiarekin bat* etortzea da ingurugiroaren zaintzarekin zerikusia duten ekimenetan parte-hartzea. Alabaina, eremu sinbolikotik haratago, produkzioa jasangarriago egiteko erabaki estrukturalak hartu behar direnean, irizpide ekonomikoek duten lehentasuna mahaigaineratzen da.

“Halako erabakiak normalian kriterio ekonomikuakin hartzen dira bakarrik, orduan lege bat ez badago atzetikan ba enpresa bati nahiz eta kooperatiba izan kostatu egiten da asumitzea diru bat gastau behar dozula kriterio ekologiko batengatik.” (E18)

“Trantsizio energetikoa eta ingurumenarekin aurrera egiteko, negozioaren ikuspegitik izan behar da bideragarri. Ez badugu negozioarentzat ona delako hori ikusten, ez da ezer aurreratuko alor horretan. Zuzendaritzak hortik tiratzeko ikusi behar du inportantea dela negozioarentzat, bestela ez da inplikatu maila berean, eta gai sekundario bat izaten jarraituko du.” (BPH).

Enpresa pragmatismoaren ikuspegian nagusitzen den nukleo diskurtsiboa, beraz, ondokoa da: irizpide ekonomikoekin bat etorri ezean, sekula ez du hartuko zentraltasunik iraunkortasunaren gaiak. Negozioaren ikuspegitik pentsazeko nagusitzen den modu hori lehiaren nortasunean ardazten den identitate ekonomizistatzat definitu dezakegu. Balantzearen bideragarritasuna eta iraunkortasunaren alorrean harturiko erabakiak eskutik ez badoaz (lehia posizio hobego batean jarriko dituelako, isunak sahiesteko

edo kapital sinbolikoan irabazteko) kooperatibetako zuzendaritzek zailtasunak izango dituzte norabide horretan erabakiak hartzeko.

“Niretzat iraunkortasunak esan nahi du lehiakortasuna kooperatibetan.” (BPH)

Iraunkortasunean urratsak ematea merkatu-kokapen hobeagoan kokatzea da ikuskera horren arabera, non kooperatibek euren trebeziaren bidez lortu beharko duten *green* agertoki berrian sinesgarritasunarekin aurkeztea. Kooperatibek jokatu behar duten joko-zelaia lehiaren presioz ezaugarritua dator, eta horri erantzun sendoa emateko iraunkortasuna estrategikoki erabili behar da. Bestela esanda, negozio-egituraren mantenua da ardatz nagusia eta krisi ekologikoa gai-ordenean ertzetako den puntu gisara ageri da; urratsak eman beharko liratekeela onartzen den arren, finantza eta merkatu kokapenaren betaurrekotik begiratzen da krisi ekologikoaren auzia. Diskurtso eraikuntza hori osatzeko agertzen zaigun beste argudio-oinarri bat bada ingurugiroaren gaien aurrean erantzukizun mugatua dutela adierazteko operazioa. Zentzu horretan, kooperatibek ongizatea bermatzeko eta pertsonetan zentratzeko duten bokazioa azpimarratzen da, baina guztia bere gain hartu ezin duteneko argudioa darabilte.

“Guk sortzen dogu lana, enpresa eredu justu bat gara, baina munduko problema guztiak konpontzia be ezin zaigu eskatu” (E05)

“Guri adibidez begiratzen dozu (gure kooperatibako) plantetan dakagun kontsumoa, eta esan leike batek, joe kauen dios, hainbeste argindar kontsumituta CO2 pila bat isuriko dozue. Baina guri energia hornitzailiek esaten deusku erosten dogun energia guztia garbia dala, eta horren ziurtagirixe emoten deusku. Orduan ba nik ezdakit, baina berak esaten badau eta sinatu holan izango da.” (BPH)

Nabarmentzekoa da energiaren gaia horren zentrala izanik, hirugarren eragileengan izan behar den konfiantza. Krisi energetikoa ulertzeko ikuskera horretan, kooperatibak borondatea erakutsi dezake egiten duen jarduera energia berriztagarritik hornitua izateko, baina sektore energetikoa litzateke horri erantzun erangikorra bilatu behar diona. Lan sozialaren banaketa Durkheimdarrarekin egiten dugu topo oster, horren bereizitako eta konplexutasun handiko sektoreak izaki, energia ekoizle direnak izan beharko dute konponbidearen sustatzaile nagusi eta bere bezeroei aterabideren bat eman beharko dietenak. Kooperatibek prozesu horri erraztasunak jarri diezazkiokete, lagundu, moldatzeko borondatea erakutsi eta jarrera irekia izan, baina eraldaketa energetikoaren bulkada nagusia energia hornitzaileen aldetik iritsi beharko da. Beste ikuspegi batetik ere interpretatu dezakegu auzia, produktu baten produkzio prozesu guztia enpresa bakarraren esku ez dagoenez, katebegi bakoitzean aurreko katebegiari jaurtitzen zaio jasagarri izateko ardura. Nolabait, hornitzaileari eskatzen zaio bermatu dezala eskaintzen duena iraunkortasun irizpideekin bat etortzea, norberak inbertsio eta eraldaketa esanguratsurik egin behar ez dezan.

Posizionamendu hori problematikoa izan daiteke ertz ezberdinetan. Batetik, energiaren hornidura estrategikoa izaki, esperientzia autogestionarioak zutik jarrai dezan gertutik zaindu beharreko eremua da. Energiarik gabe, ez dago ekoizpenik, ez dago kooperatibarik. Bigarrenik, hornitzaile energetikoaren gaineko menpekotasuna areagotzen du, berak konponbiderik ematen ez duen neurrian berarekin eramango baitu kooperatiba. Ardura arintzeko marko diskurtsibo bezala interpretatu liteke, beraz, trantsizio energetikoaren lekukoa bestelako eragile batzuek hartu beharko luketela

irizita, eta Arrasateko Kooperatibei bigarren planoko papera jokatzeko dagokiela, sektore industrialarekin konsonantzia.

Funtsean, enpresa batek aurrera ateratzeko egunero gaintu behar dituen korapiloak, tentsioak eta gatazkak aipatzen dira, eta era horretako gaietzat denborarik ez dagoela edo ez dela ateratzen iradoki. Kooperatiba baten zuzendaritzak ardura handia du negozioa bera bideragarri egiten eta gai sozial zein ekologikoentzat ez da denborarik ateratzen, negozioaren eguneroko jardunean modu zuzenean eragiten ez badu behintzat.

“Zuzendaritzak ez du astirik ateratzen halako gauzetarako, epe motzera begiratzen dau normalian, eta mugituko da behar bat ikusten badu. Egunerokuak jan eitten gaittu. Errektoreak dauka begirada apur bat altxatzeko funtzioa, baina batzutan joeria dauko bera mugitzera eta ejekutiboan zuzenian sartzerara, eta hor tentsioak sortzen dira. Zuzendaritzak funtzio bat betetzeko baldintzak sortu ordez, berak hartzen dau inizatiba, eta azkenian danak gogotzarrez. Hori bai, klientiak eskatzen badabe, danak jartzen gara burubelarri hortara.” (BPH)

Dena den, gai ekologikoen inguruan gero eta lan gehiago egiten ari dela nabarmentzen da kooperatibetako ardura postuetan daudenen artean, eta aurrerantzean denbora gehiago eta arreta pausatua eskaini beharko zaiela irankortasunarekin loturiko auziei. Horren erakusle da, esaterako, 2021/2024 politika sozioenpresariako txostenean, ildo estrategikoen definizioan jasangarritasuna ardatz modura hartu izana. Araudiz, horrek zuzendaritzak behartuko ditu horren inguruan bideorri bat prestatu eta aldiaren bukaeran emaitza txosten bat aurkeztera. Era berean, Europatik hartzen ari diren erabakiak tentuz jarraitzen ari direneko sentipena nagusitzen da, eta finantza erakunde propioa izateak lagunduko du finantza sisteman eragiten ari diren aldaketen korrontea hartzeko:

“Europako erakundeak ari dira ikusten eta kudeatzen sistema finantzieroa, finantza fluxu guztiak mugiarazteko eta ekonomia bera aldatzeko. Beraz kontziente izan behar dugu horretaz kooperatiba guztiak, nolabait banketxe eta sistema guztia mugituko da bere flujoak bideratzeko iraunkortasuna lantzen den tokietara.” (BPH)

Interpretazio horren arabera, Europar Batasunak zein politika ekonomikoa gidatzen duten bestelako erakunde politiko nagusiek helburu politikotzat hartu dute iraunkortasuna lantzen den tokietara bideratzea baliabideak eta ahalegin kolektiboak. Ikuskera horretan ulertu dezakegu Europako finantza zirkulu garrantzitsuenak botere politikoarekin ados daudela ahaleginak sektore berde berrietara bideratzeko, edo behintzat bere zerbitzura jarri direla. Faktore hori funtsezkotzat jotzen da, korrontek nondik doazen interpretatzen jakitea delako batetik, eta Europako botere ekonomiko eta politikoarekin konsonantzia jokatzeko delako.

Enpresa pragmatismoaren ardatzean jarraituz, Mondragoneko eragileek ingurumenari eta erronka ekologikoari buruz eraikitzen duten diskurtsoan nabarmena da konponbidea hein handi batean ekoefizientzia eta teknologia *berdearen* garapenean sustraitzen dela. Energia berriztagarriak erabiltzen dira diskurtsoaren argudio-endar garrantzistu modura, baina betiere erregai fosiletatik jasotako energia ordezkatzeko gai izango direneko esperantzan, kontsumo eta produkzio mailan mugatze esanguratsuak ekarriko dituela auzitan jarri barik. Aipatu beharra dago argudio-ildo hori oso presente egon dela

modernotasunaren eraikuntzan eta ez dela esklusiboki Arrasateko Kooperatibagintzari atxikitzen zaion ezaugarri.

“Guri kooperatibetan tokatzen zaiguna da, erregai fosilen kontsumo zuzena ordezkatzeari beste teknologia batzuen bitartez. Segun ze prozesu industrial dekozun ba erabiltzen dozuz erregai fosilek edo ez, adibidez fundiziñuen temperatura handiak lortu behar dira gasaren bidez. Hori elektrizitateagatik ordezkatu beharko zan lehenbizi, eta gero saiatu elektrizitate horrek jatorri berriztagarria izatea.” (E12)

Energia fosiletik energia berriztagarrira doan ordezkapen prozesua prozesu egingarritzat jotzen da, kooperatibak estrategia gradual batean egin beharko dutena. Ezin da baztertu kooperatibetan ardura postuak dituzten kokapenetik garai berriak dakartzaten erronkei aterabideak proposatu eta pentsatzea dagokiela, eta beraz, marko horren baitan ulertu behar ditugu teknologiaren indarrean oinarritzen diren argudiategiak. Horrez gain, teknologia berriztagarrien diskurtsoak, energiaren auzia konpondu ez ezik, garapen sozioekonomikoarekin eta lanpostu berrien sorkuntzarekin lotura puntuak ezartzen ditu, hobekuntza forman ulertzen den gizarte estadio aurreratuago batera iritsiz.

“Etorkizunean zer gertatuko dan inork ez daki, baina garbi daude bi gauza. Bata egungo industriek eraldatu beharko dutela sakonki eta bi industria berriak edo lanpostu berriak sortu beharko dirala, hori da irtenbidea. Uste dut dauden erronka berriekiko ekimen berriak sortzea dela irtenbidea ez lasai geratu eta pentsatu moldatuko garela. Gure esperientziak zerbait egin badu historian zehar izan da teknologia berriak jaso, teknologia berriak egokitu... hau da lanpostu berriak sortu baina teknologia berriekin, automatizazioak etorri direlako ez dira lanpostuak galdu, sortu egin dira, eta honetan antzeko zerbait izan beharko luke, ikusiko dugu zer gertatzen dan.” (E14)

Egokitzapen prozesu modura ulertzen da trantsizio energetikoa, eta erronkaren dimentsio erraldoia azpimarratzen da. Kooperatibagintzak izan duen pragmatismoaren oinordekotza historikoari jarraituz, enpresa iraunkorrak bilakatzeko teknologia berrien garapena eta industriaren eraldaketarako potentziala izan baduela ematen da aditzera, eta hor jarri beharko direla XXI. mendeko kooperatibagintzaren gaitasunik onenak. Prozesu hori, gainera, atzera bueltarik gabeko prozesutzat jotzen da, eraldaketa teknologikoa eta energia berdearen eskaera lehenago edo beranduago inposatuko den errealitate zorrotzat jotzen da, beraz, kooperatibek bide horretan aurrera pausuak eman beste alternatibarik ez dute.

Aipagarria da pentsamendu sozio-ekologikoak zibilizazio krisia azaltzerako orduan mahai gainean jartzen dituen elementu zentral batzuen inguruan erreferentziarik ez dagoela. Esaterako, ez da aipatzen energia eta materia gutxiagoko agertoki historiko baten etorrera oso probablea dela, eta egokitzapena eskasiaren agertokitik baino energia oparoko garaiaren mantentutik pentsatzen da. Era berean, erregai fosilen aroa ordezkatu beharreko premia nabarmentzen bada ere, petrolioaren gailurrari edota beste erregai batzuen gailurrari (zientifikoki kontrastatua) buruz ez dago aipu zuzenik, ziur aski auzi horietan sartzeak ezinezko bilakatzen duelako gaurko tamainaren, lanpostuen eta jardun industrialaren abiadura.

Halaber, esan behar dugu Arrasateko Kooperatibetan energiaren gaian aurkitu ditugun nukleo diskurtsiboak ez direla bereizten nazioartean gailentzen den diskurtso sozio-ekologiko nagusiaren koordinatetatik. Besteak beste, garapen jasagarria, energia berdea, ekonomia deskarbonizatua, digitalizazioa edota I+D moduko kontzeptuak ageri

zaizkigu, ukitu gabe utziz krisialdi sozioekologikoaren bestelako ardatz nagusiak. Jarraian jasotzen ditugu MK-ko buruaren adierazpenak:

“se establecen unos pilares que unen nuestra forma de ser como movimiento cooperativo y lo que el futuro nos demanda para ser más competitivos. El cambio se acelera cada vez más y ello supone que habrá amenazas y oportunidades para nuestras cooperativas. El cambio climático, la descarbonización, más I+D y con más acierto, digitalización, 4.0... van a ser las olas que vamos a tener que coger para conseguir ventajas y no navegar sin rumbo en un mar que va a estar muy complicado” (Ucin, 2021)

Ulertu beharra dago ere, Arrasateko Kooperatiben dimentsiotik zailtasun handikoa litzatekeela egitura sozioekonomiko globala astintzen duen energia kirisiaren aurreran erabateko konponbidea bilatuko duen diskurtso bat egituratzea, edo oreka ekologikoa kokapen ideologikoaren erdigunean jartzea. Horrek kooperatiben funtzionamendua bera beste angelu batetik begiratzea ekarriko luke, tentsioak sortuz jarduteko modu ugarritan. Hortaz, egokitzapen eta soluzio *egingarriagoak* planteatzea (erregai fosilekiko menpekotasuna murriztu edo energia berriztagarrien plantak sustatu eta garatu) elkarrizketatuak hitz egiten duen kokapen soziologikoaren baitan azaldua geratzen da. Osterantzean, ekonomiaren hazkuntza dinamika eta kapitalaren metaketa zikloak zalantzan jartzera behartuak leudeke diskurtsiboki, gizarte tekniko-finantziarioari kritika egiten dioten ikuspegi ekosozialen ildoan.

Edozein kasutan, eraldaketa handia etorri badatorrela onartu eta horren inguruan pentsatu eta egokitzeko jarrera erakusten da. Kooperatibek egin ezean, kanpotik iritsiko diren neurri koerzitiboek behartuko dituzte kooperatibak iraunkortasunaren alorrean zorrotzak izatera.

“Zorroztasun gero eta handiago egongo da, hori badator. Bi palanka nagusi daude gaur egun, bata da erregulazioa, Europatik geroz eta azkarrago datorrena eta bestea bezeroena. Bezeroen eskakizunak gero eta garbiago daude, gero eta gehiago eskatu behar da informazioa... azkenean balio-kate guztian industria handiek trakzio inportante bat jokatzen dute, eta behar dute balio-kate guztian lanketa egin beraien helburuak lortzeko. Orduan zure bezeroak esaten dizu zer egiten ari zara 2039an iraunkorra izateko? Hori gero eta presenteago dago.” (E12)

Aipuan garbi adierazten da iraunkortasunaren alorrean nazioarteko erakundeetan eta merkatu indartsuenetan (Alemaniako gobernuaren eta hango autogintzako enpresa handien konpromisoa gai honetan aipatzen da bereziki) zorroztasuna areagotzen ari dela eta auzi hauetan gaur mugitzera behartzen dituela kooperatibak. Dena dela *green* merkatuan eta klima aldaketak sortuko duen nazioarteko egoera berrian kokatzeko, aukera berriak probestu behar direla babestu dute ardura postuetako guztiek.

7.3.5 Ekologiari buruzko kezka lanpostuen aurka.

Orain artean landu ditugun bi ikuskerek, enpresetako ardura postuetatik jaso ditugun begiradak izan dira batik bat, kooperatibaren biziraupena eta egoera ekonomiko ona mantentzearen ardura dutenak. Post-hazkundearen eta jasangarritasunaren gaiak, ordea, langile-bazkide kolektiboan zein iritziz sustatzen dituen aztertzeraz gerturatuko gara jarraian, Arrasateko Kooperatibetan iraunkortasunak hartzen dituen adieren argazki osotuagoa edukitzeko.

Langile kolektibotik jaso ditugun iritzien ñabarduretan sartu aurretik, aipatu behar dugu aho batez agertu dela elkarrizketetan lehenbiziko kezka, industria eta desazkundera bateragarri egiteko ezintasuna. Herri industrial batean bizi eta lan egiten duten langileak izaki, desazkundearen gaia industria bereziki kaltetuko duen prozesu modura ulertzen da, eta orokorrean iritziz negatiboak jaso ditugu. Besteak beste, lanpostuak mantentzeko egin izan diren borrorak aipatzen dira, eta Euskal Herrian eta hedaturaz Arrasateko Kooperatibetan industriak duen zentralitatea kontuan hartuta, kezka agertzen da zein sektoretan egin beharko dugun lan.

“Hemen ez dugu petroliorik edo natur baliabide handirik, industria da geratzen zaigun bakarra” (BPH)

“Azkenian egunero eraman behar dira lentejak etxera, eta ezin da jendia kalera bota enpresak kontaminatzen dabelako” (E23)

Izan liteke jasangarritasunaren gaiaren inguruko langintzarik garatu ez delako industria sektoreetan formakuntza edo saio ezberdinen bidez, edo urteetan zehar lan pedagogikorik ez delako egin krisi ekologikoaren inguruan, baina mesfidantza handiz ulertzen da trantsizio ekologikoa. Gehiengoarentzat, horrelako eraldaketa batean sartzeak lanpostu galera eta *pobrezia* egoerara hurbiltzea esan gura du, eta inork halakorik nahi ez duela bere herri eta familiarentzat argudiatzen dute. Hain justu, argudio-sorta horretatik tiraka, negazionismo klimatikaarekin lotutako iritzia ere jaso ditugu.

“Ni azkenian kritikua naiz be klima-aldaketan asuntuakin, ze zu fijasen bazara historian beti egon da klima-aldaketa. Orduan ez dakit nik zenbateraino ez dan elitien estrategia bat pobriak oraindik eta pobriak izateko eta aberatsak geroz eta aberatsago.” (E22)

Klima-aldaketaren eta krisi ekologikoaren errealitate zientifikoa ukatuta, bere gainean ardura ez hartzeko operazio diskurtsiboa jartzen da martxan. Ikuspegi horren arabera, elite gutxi batzuek alarma soziala pizteko erabili dute klima-aldaketaren gaia, egiazki, berotze globalari aurre egitea baino, bestelako interes ezkutatu batzuk daudela atzean iradokiz. Hartara, ez dagokio langileria industrialari pausurik ematea, izatekotan, gobernu handiak eta elite ekonomikoak izan beharko dire mugitu behar dutenak.

“Esto al final ha venido en los últimos dos años. Después de la pandemia había que hablar de algo y empezaron con el cambio climático a tope y han creado alarma social.” (E23)

Ildo horretan, jasangarritasunaren lekukoa hartzea Arrasateko Kooperatibei ez dagokiela interpretatzen da, hasieratik bertatik izan delako industriari loturiko

esperientzia eta kolore berdea ez doalako haren identitearekin bat, *gu ez gara hori inoiz izan.*

“Yo veo un poco forzado eso de unir cooperativismo y ecología, ¿por qué van a hacer las cooperativas más que los demás? Pues harán como el resto para no quedarse atrás ¿no?” (E23)

Orokorrean trantsizio ekologikoa aipatzean oztopoak, zailtasunak eta bide katramilatsuak etorriko direneko iruditeria nagusitzen da, eta askok euren lanpostua galtzeko edo kooperatibak porrot egiteko beldurra adierazi dute. Ez hori bakarrik, hamarkadetan zehar autogintzan edota bestelako prozesu industrialetan jardun dutenek, harrotasun sentipen bat ere adierazten dute euren lanarekiko, gaitasun tekniko altuak dituztelako eta makina zehatzen ekoizpenean espezializatu direlako, *beste inor baino lehenago*. Puntu honetan, lotura estua azaltzen da langileen eta euren lanaren artean, nahiago bada lanaren zentzu Gorzianoagoa egiten dute bere, artisauaren eta errealizazioaren zentzuan ulertuta. Atsegingarri zaie sortzen duten produktua, eta egonkortasun oinarria eskaintzen die euren langile-identitateari. Pentsaera horretatik, beraz, desazkundeak eurentzat ez luke soilik ekarriko lanpostu baten galera edo soldata txikiagoa jasotzea, munduan egoteko modu oso baten amiltzea litzateke.

“Azkenian zuk ikasi dozu, eñ dozu modulu bat honetarako eta urte pilua zoziaz gauzak ikasten makinak konpontzen.. hau kentzen badoskue imajinau kalera jutia 50 edo 55 urtekin.. ba putada haundixa da” (E13)

Ezaugarri hori oso kontuan hartzekoa da trantsizio ekosozialaren edozein proposamenentzat, ez baikara soilik ari lan mota aldatzeaz, denboran zehar egituratu eta sendotutako identitateen arrakalatzaz ere ari gara, eta ikerketa soziologiko ezberdinek esaten digute ondoez psikosozialareko eta jarrera autoritarioen sostengurako bide zuzena dela industrian lan egin duen eta kokapenik aurkitzen ez duen gizon mendabaldar zuria (Isenberg, 2017). Ikusi beharko litzateke ea Euskal Herriko testuinguru sozial eta politikoan zein forma hartuko lukeen industria krisi zabal batek, baina edozein kasutan gizartean dauden elementu autoritarioen indartze baterako baldintza soziologikoak jarriko liritekeela pentsa liteke.

Dena den, eta kolektibotik jaso ditugun iritzietara itzulita, burujabetzan sakontzea beharrezkoa ikusten da eta aho batez onartu da produkzioa hemen mantentzeko ahalegina egin behar dugula. Argi dago produkziara kanpora eramateak euren interesen aurka egiten duela zentzu ezberdinetan, askok jada bizi-proiektua eraikia baitute bertan eta ez dute joan-etorrian ibili nahi, familiarekin eta lagunekin egotea kanpora joatean jasotzen den dirua baino gehiago baloratzen dute elkarriketatu gehienek.

“Kooperatibak azkenian ematen dizu estabildade haundia. (Gure kooperatibak) adibidez erabaki zehan produkzio dana Txinatik hona ekartzia, eta horrek hemen lanpostu gehio sortzen ditxu, eta jendiak asko baloratzen dau hori.” (E36)

Alabaina, produkzio industrialia mantentzeko energia lortzeko zailtasunak egon daitezkeela planteatzean, energia nuklearra garatzearen aldeko ahotsak egon dira, *egiazko* burujabetza baterako ezinbestekoa dela iritzita Euskal Herrian. Bestalde, egon dira ere energia nuklearraren arriskuaz ohartarazi dutenak eta iritzien polarizazio bat detektatu dugu gai horri dagokionez. Ordea, bai sortu da adostasuna energia berriztagarrietan gehiago sakondu eta teknologia berdeen aldeko apustua egitean,

inpaktu ekologikoa gutxitzeko balio badu. Bestela esanda, langileen aldetik borondatea eta jarrera ona erakutsi dute gutxiago kutsatzeko edo ingurumen eragina ahalik gehien murrizteko, baina beraien lanpostu eta identitatearen mantenua marra gorritzat dute, norbere ibilbide biografikoarekin eta duintasunaren ulerkera batekin loturan, *nonbaitetik jan behar dugu*. Era berean, une batzuetan agertu da ekologistekiko nolabaiteko arrotasuna, kolektibo horrek langileen irudia *okertzen* laguntzen duela iradokiz.

7.3.6 Jasangarritasunaren zailtasun kulturalak. Kooperatibetan lurreratu ezina.

Trantsizio sozioekologikoaren ertz kulturala gizarte sistema jasangarriagoetara iristeko birika nagusi modura interpretatzen da pentsamendu ekosozialean. Bada, ondorengo orriotan jasangarritasuna auzi kultural modura ulertuta, kooperatibagintzaren baitan nahikotasunaren kultura batek edo borondatezko automugatzeko batek dituen aukera kulturalak argitzeko azterketa egiten saiatu gara.

Lehenik eta behin, aurrez aipatu ditugun erro katolikoekin eta handik eratorritako balio-sortarekin loturan, Arrasateko kooperatibetan neurritasunarekin edo berdintasunarekin loturiko balioak oso ahulduta mantendu direla diagnostikatzen da, gizartearen luze-zabalean gertatu den bezala, bizitza sozial, ekonomiko eta kulturala sekularizatu da.

“Hala ere, nik uste gizartean gertatu den bezala Arrasateko kooperatibetan ere gertatu dela. Gizartean balore kristauak mantendu dira mutazio batekin ez? Formulazio politiko edo sozial bat hartuz, ba danok berdinak garela, askatasuna etab. beste batzuk asko ahuldu dira adibidez austeritatearena. Orduan gure oinarri kulturalan badaude baloreak, berdintasunarena adibidez ez bakarrik begirada katolikotik, begirada sozialista bat egiten badugu ba berdin ez? Ez da soilik zu eta ni berdinak garela, baizik ni eta afrikakoa edo ni eta oraindik etorriko diren belaunaldiak. Orduan berdintasunak berak eskatzen du jaiste kontsumo maila gai hauekin, gure hasierako balioetan dago. (E15)

Hasierako balioekin leial jokatzuz, kontsumo mailaren beheratzea eta berdintasunaren ulerkera zorrotzagoa praktikatzeko zeregina egongo litzatekeela nabarmentzen da kokapen diskurtsibo horretatik, baina ohar eginda denbora igaro ahala bizi-era austeroak eta kristautasunarekin loturiko balioak ez dutela sendo iraun. Era berean, keinu egiten zaio trantsizio sozioekologikoaren funtsezko korapiloetako bati, ipar-hego nazioarteko harreman desorekatuei, berdintasunaren ulerkera lur planetan dagoen gizaki bakoitzarekin praktikatu beharrekoa dela iritzita. Pentsamendu ekosozialetik planteatu izan den ideia taupatzen zaigu hemen, mundu-sistemaren *hegoaldea* bizi-baldintza material hobetoetara hurbiltzeko ipar aberatsak bere ekoizpen-kontsumo eta banaketa maila drastikoki mugatu behar lukeela esanez, planeta justuagora bidean. Ordea, korapiloa are gehiago txirikordatzen da esaten badugu periferia kapitalistetan eratzen ari diren klase ertain berrien kontsumo ohiturak eta zenbait kasutan herri klaseenak ere, jasangarritasun irizpideak betetzetik urrun daudela, ipar aberatsaren kontsumo-mailara hurbiltzeko saiakeran. Bestela esanda, Arrasateko Kooperatibek ezagutu duten loraldia XX. mendearen azken herenean, historian sekula errepikatu ahalko ez den iturri energetiko oparo eta merke baten bultzadari esker gertatu da. Hor mundu-sistemaren *hegoaldeak* ezagutzen duen desoreka sistemikoa, inoiz ezingo da kontsumo maila horietara iritsi eta klase ertaina produzitu, mendebaldeak egin duen bezala.

Berdintasunaren neurria, beraz, bere adar materialean, izugarri mugatzea eskatzen du dimentsio politiko batetik herrialde ezberdinetako biztanleak parekatu nahi badira.

Langile-bazkideen kolektibora begiratuta, trantsizio sozio-ekologikoak eskatuko lukeen borondatezko pobretzea eta gutxiagora etortzearen ideiak izango lituzkeen erresistentziak aipatzen dira. Ildo horretako proposamen batek arrakasta gutxi izango lukeela defendatzen da, nahiz eta ideia orokorrarekin bat egin.

“Nik uste jendia ez zala egongo prest. Konsejo rektorian egon nintzanean gerentiakin eta, nik esaten notsan, ostia ba lan gutxiago egin, jende gehiok lan egiteko eta harek beti esaten zestan “si! diles eso a los demas, hori zure iritzixa da baina hemen ia zeinek nahi daben gutxio kobrau.” Nik be oiñ murriztua dakat semiagaitxik eta nahiago dot holan, bestela beste pertsona bat hartu biot umia zaintzeko eta bestia eta nahiago dot holan bizi. Baina jende gehienak ez dau holan pentsatzen esango nuke.

Neretzat hori planteamendu on bat izango zan eh, langabezia badago, ba 8 beharrian egin ditzagun 6 ordu eta jende gehiagok lan egin. Irabazia gutxiao izango zan baina bizi ahalko ginan danok, hori da nire iritzixa. Baina gero ba mundu hontan badakizu ba jendiak nahixao dau diru gehiago, kotxe hobea, etxe haundiaua... badakizu, danetik dao mundu honetan.” (E16)

Kontsumora sarbide oparoa eduki nahia erabiltzen da proposamen horren porrotaren argudiotzat. Merkantziaren fetitxismoaren ikurtzat jo genitzakeen *kotxe hobea eta etxe hobea* aipatzen dira bazkideen jokabideen eta nahien helburu bezala, materialki hobetzearen eta haztearen ideia da planteatzen dena. Jakin badakigu Veblen-en analisietatik kontsumo gizarteetan kontsumo produktuak berak zerikusia duela estatusarekin, klase sozial bateko kidetza erakustearekin eta masa langileetatik bereiztearekin. Kontsumoaren gainean hegemoniko diren espektatiba kulturelek zaildu egiten dute gutxiagora etortzeko bidea. Bestela esanda, gizartearen azpiegitura soziokulturean indarrean den mundu ikuskerak halabeharrez behartzen ditu norbanakoak gutxiagora joatera, kapital sinboliko eta ekonomikoan, norbere enpresari arrakastatsuaeren ideiaeren arrastoan. Harmut Rosarekin azaldu dugun bezala, esperientziaren *areagotze* prozesuaren elementuak ikusten ditugu hemen. Gehiagorako norabide horri buelta emateak espektatiba sozial eta kultural errotuen frustrazioa esan nahiko luke, horrek sor ditzakeen agertoki politiko autoritarioekin. Horrez gain, ez da soilik kontsumo oparoa murriztea zailtasunetako bat, denbora gutxiago lan egitea eta horrek askatuko lukeen denbora ez dira balio handikotzat jotzen. Jardunaldi osoak betetzearen nahia ageri da, lana jende gehiagoren artean banatzearen alde egon daitekeen argudioa desaktibatuz.

“Nik uste hori krisi haundi bat izango zala. Azkenian jendiak ez dau ondo hartzen poltsikua ikutzia, eta danataz pasatzen dau hasta que le tocan los beneficios, orduan bai sortzen dira problemak. Betikua da hori, gauzak ondo doiazanien girua hobetzen da, baina txarto doiazanien konbibentzia arazo haundiak sortzen dira, eta nik uste ez zala albiste on bat izango lan gutxiago egin behar dogula ta gutxiago irabazi behar dogula” (E37)

Materialki gutxiagora etortzeak lan gutxiago egotea eskatuko badu ere, lan sozialaren banaketa hori irizpide berdinzaleetan gauzatzeko erresistentziak ageri dira, beraz. Elkartasunerako borondate gutxi dagoela nabarmentzen dute diskurtso korrante honetako elkarrizketatuek, baldin eta gehiengoaren iritziaren baitan lagatzen bada erabaki hori. Ez da ikusten kooperatiba bide hori urratu beharko lukeen eragile modura, ahalegin kolektibo zabalago baten baitan ez bada, botere politikotik sustatua. Bestela

esanda, trantsizio ekosozialaren ardatzeko bat izango den industriaren berregituraketan abangoardia izateko nahirik ez da ageri, horrek ekarriko lituzkeen etekinen gaineko irakurketa mesfidatia eginda. Proiektu kooperatiboarekiko fideltasuna eta zentzua, beraz, neurri handian dago bere eraginkortasun ekonomikoari lotua eta ez eremu sozialean egiten dituen desberdintasun murrizpenen edo aberastasunaren birbanaketa justuagoaren heldulekuei.

“Todo es economía, es lo que prima en la cooperativa. Beste dana adornatzeko erabiltzen dute. Aber SA batekin konparatuta bai daude diferentziak, baina ez da nahita erabakiko enpresa txikitzia edo, beti dauz bilatzen merkatu berriak eta planta berriak zabaltzia. (Gure Kooperatiba)n kasuan, Markinan erosi berri dogu pabilloi bat, eta gainera hori eruateko juridikamente SA bat sortu da, osea, hango langiliak ez dira kooperatibista izango inoiz.” (E36)

Trantsizio ekosozialaren aldeko apustuak ahultasun soziokulturala erakusten du, hortaz. Elkarrizketatuen iritzian, jardun jasangarriagoetara iristeko bidea koerzioaren bidetik etorriko da, edo ez da etorriko. Errealitate materialak eragingo du produkzio kateetan, banaketan eta salmentetan eraldaketa ekologikoak egotea, baina borondate konprometitutik edo bulkada kultural indartsu batetik ez da agertokiaren eraldaketarik espero. Praktika jasangarrietara gerturatzeak sakrifizioaren ideia darama erantsia (soldata gutxiago, kontsumo gaitasun gutxiago) baina ez da oro har horrek askatuko lukeen denboraren baliorik azpimarratzen.

“Beharra egongo balitz.. ba igual bai, baina guk danetik euki dogu ez hasierakuak bezala eta ez dot uste pobretzia inork nahi dabenik” (E20)

“Beti esaten da tiempos pasados siempre fueron mejores, nik ez dot holan ikusten. Ez dot uste okerragora jun garenik ni por el forro. (...) Egixa da orain gehio baloratzen dogula lanaz aparte be bai bizi eta gozatu ahal izatia, baina hori uste dot positibua dala”. (E18)

Hasierako kooperatibisten austeritatea, sakrifizioa eta kooperatibismoarekiko konpromisoa premia material gordineko egoera baten emaitza modura interpretatzen da elkarrizketatuen artean. Ez da ordea gurasoen mundu austero horren oroitzapen desiragarrikerik eraikitzen, eta zorionez gainditu den aro modura ulertzen da. Beste faktore batzuk sartzen dira iragan austero horren gaindipena albiste ontzat hartzerakoan, ordena moral zurrun bat gainditu izana, norbanakoaren askatasunean zein lan kotziliazioan urratsak aurrera eman izana. Zer esanik ez, frankismo garaiak sortzen duen ukapen kolektiboak ere eragiten du bizi-estilo mugatu horiek ez desiratzerako orduan. Sinbolikoki, beraz, kooperatibismo austeroa iragan itxi, nahiko ilun eta gogorrekirekin lotzen da.

Era berean, gutxiagora etortzearen eta kontsumo materiala murriztearen ariketan kontraesanetan sartzen den beste faktore ardatzetako bat hazkuntza ekonomikoaren ideia da. Trantsizio ekologikoan pausuak emateko borondatea ageri bada ere, kooperatiba bakoitzaren eta korporazioaren helburua hazten jarraitzea da. Modu horretan lortuko omen da kooperatibagintzari sendo eustea eta eroriz gero oinarri batzuk edukitzea.

“Guk hazteko helburua jarri dogu, eta etorkizunian imajinatzen dot hazi dan (kooperatiba) bat eta inguruakin ondo integrata dauana”. (E18)

“Inguru kapitalista batean, azkenian enpresa guztiek izan behar dute helburu haztea. Zuk ez baduzu helburu bezela haztea jartzen, zara enpresa frakasatu bat.” (E20)

“Desazkudean ideia bai etorri leike bat kooperatibismuan baloriekin, baina gero praktikari begirutzen badiogu... kooperatibak guztiz dau txertatuta sistema kapitalistan, eta hazi beharra dauka aurrera jarraitzeko.” (E22)

Gure analisia zeharkatzen duen funtsezko puntu batekin egiten dugu topo hemen. Krisialdi sozioekologikoaren aurreran jardun beharraren kontzientzia erakutsiagatik paradigma hazkunderikaren bueltan ez da urradurarik sortzen. Hazkunderik egon ezean, merkatu kokapena galtzeaz gain, kooperatibismoa bera posible egiten duen oinarri materialik gabe geratuko litzatekeen beldurra adierazten da, eta horrek arazo estruktural larrietan sarraraziko lukeela esperientzia kooperatiboa. Hazi ezean, innobaziorako eta ikerketarako gaitasun gutxiago legoke, puntako teknologia garatzeko baliabide pertsonal eta material urriak eta horrek zuzenean eragingo lieke lanpostuei eta inguruko herrietako egitura sozioekonomikoari. Nazioarteko koordenada interpretatibo nagusietan kokatzen dira horrela, lehen kapitulu lan dugun moduan, garapen jasangarria eta enpresaren irabaziak uztargarri direneko ideian. Modu horretan, ez da zalantzan jartzen paradigma hazkunderikoa. Hemen ageri zaigu agian ikuspegi ekosozialarekin kooperatibismoak duen tentsio-ardatz nagusietako bat. Erronka ekosozialak ez duela eskatzen gehiago egitea, baizik eta gutxiago, edo ahal dela, egiteari uztea, Jorge Riechmann filosofoak nabarmendu bezala. Hazkunderikaren helburuekin jarraitzea ezinezina da norabide ekosozialean bultzatzen egongo duen alternatibaren garapenarekin.

Era berean, funtsezkoa da aipatzea hazkuntza sustatzen duen ikuskera kulturean, hazkunderik bera trantsizio ekosozialerako bide modura ere agertzen zaigula. Operazio diskurtsiboa ondokoa litzateke: haziko den eta solbentzia handia duen egitura sozioenpresarial batek ekintza-tarte handiagoa du energia-trantsizioan inbertitzeko, politika energetiko eta klimatiko alternatiboak martxan jartzeko eta gaur gaurkoz beste herrialde batzuekiko duen *abantaila historikoa* mantentzeko. Nolabait, errealismo politikoa eta ekonomikoaren posizioa hartu nahirik ondokoa gogoetatzen dute: kooperatibismoarentzat trantsizio ekologikoa orekatua eta desiragarria izatekotan, botere kuotak mantenduta egin beharko da hori, eragin-gaitasuna galdu barik. Argudio-oinarri horrek pentsamendu sozioekologikotik planteatzen diren pausuekin talka egiten badu ere, kooperatibek hortik haratago askoz gehiago ezin dutela egin ematen da aditzera, eta derrigorrezkoa dutela nazioarteko logika ekonomikoekin konexio puntuak mantentzea.

Halaber, trantsizioaren derrigortasuna aipatzen da, kooperatiba guztiei inposatuko zaien errealitate material gordin bezala.

“Bide hau egongo da, ze ez dago beste erremediorik, hortara behartuko gaittue. Behartuko gaittu legedixek, batez be gure bezeruei, ta gure bezeruei eragiten dotsen neurrien geure bezeruek geuri be eskatuko doskue. Hori ia gertatzen ari da automozio sektoreen, gure kooperatiba batzuei ari dira eskatzen 2039. Urterako beraiei suministratzen dieten pieza guztixek karbono neutrokoak izetie. Hori ez desku legiek eskatzen baina bezeruek bai... Orduen argi dau uztartu biko dala lehiakortasuna, ingurugiroarekiko konpromisue ta beste elementu batzuk, pena bat izango zan ez aurreikustie badatozen aldaketa hoiek eta izetie azkenak eszenatoki berri horretara moldatzen.” (E12)

Indar materialak aipatzen dira, jasangarritasunerako bidea egitera behartuko dituztenak. Beraz, ez da soilik borondate kontua izango, merkatuak eta estatuak elkarren eskutik ekarriko duten aldaketa derrigorrezkoa baizik. Dena den, eraldaketa hori gauzatzen

hasteko erresistentziak ageri dira, kooperatibak sinatuta dituzten kontratuak eta eraikita daukaten elkarmenpekotasuneko egiturak oztopatu egiten du edozein eraldaketa estruktural. Energiaren kasuan argigarria da adibidea.

“Ni adibidez saiatu nintzan oiñ dala bi urte edo, Goiener sartzen kooperatiban. Jun nintzan zuzendari finantzieruagana, jo notsan atia, ta esplikau notsan dana... dossier bat emon notsan, Goienerredera deitxu, eurak prest agertu ziran bilera bat eitteko... ta hasiera baten emoten zuan aurrera zoiala. Ta esaten neban nik, joe lortu in biot ba... total heldu zan momentu bat esan zostela hasta aquí, oso ondo egon da jolasa baina guk dakagu azpikontratauta korporaziñoko enpresa bat, eta hilabete bakoitzean aldatzen doa, batian iberdrola, bestian fenosa.. al céntimo, ez dakizu?” (E13)

Pasartean kooperatibako bazkideetatik abiatu daitekeen edozein ekimenek errealtate egituratu eta pisutsu bat topatuko dutela nabarmentzen da. Enpresen arteko hitzarmenak, funtzionatzeko modu errotuak, eta berriak sortzen duen ziurgabetasunak korapilatu egiten du energia-hornitzailea aldatzea moduko auzia ere. Kooperatiban indarrean dagoen jarduteko moduari erabilera alternatiboa emateko baldintza estruktural errotuekin egin du topo, botere-metaketa eta banaketa zehatza, lehiakortasunetik arrazoitzeko modua eta gastuen kudeaketa estrategia modu errotua. Marko hori onartuz, pentsa genezake lan-banaketaren arloan eta egitura produktiboaren auzi estrategikoetan (energia moduan) eraldaketak egotea, prozesu geldo, sigisagatsu eta harimuturrez betea izango dela, izatekotan.

Horrez gain, beste elementu bat gehitu behar genuke, merkatuaren izaerarekin loturik agertzen zaigun enajenazio prozesua. Trantsizio sozialki justura bidean edozein aurrerapausu emateko, harresi gaindiezin modura ageri zaiguna.

“Askotan eztabaida horrek bai ondo dauz desazkundea, ekologia... baina klaro, gero juten zara Alemaniara edo kompetentziara, eta gure kompetentziak dazka 3800 langile ta iaz 800 jun ziran kalera y aqui no ha pasado nada, ez? Osea, hor jolasten dogu eta edozer produzitzia merkiaua bada txinan kompetentziak txinan eiñgo dau, ta guk nahi dogu hemen eiñ. Baina zela eitxen dozu, errentagarri izateko? Ze azkenian bezeruari berdin jako zu kooperatiba zaran, explotatzaile bat zaran edo langiliak 800 euro kobratzen dazkazun, nahi dabe makina on bat prezio onian eta punto.” (E13)

Langileetaz gutxi arduratzen den testuinguru golabala aipatzen da, eta oldarkorra den merkatu batean bizirauteak sakrifizio etiko batzuk eskatu ditzakeela. Kooperatibak saltzen dituen makina eta produktuak du interesa, eta ez eredu kooperatiboan ekoitzia izanak. Hau da, merkatuko beste partaidearen enajenazio prozesua aktibatua ageri zaigu, harreman inpersonal eta interesen bateratze soila bilatzen duena. Marx-ekin esateko, abstrakzio sistemaren baitan gauzaten da elkartrukea, produktua eta ekoizlea erabat bereiziz, eta harreman sozial kosifikatuak gorpuztuz. Soziologo klasikoek eginiko biziera modernoaren analisiak hartzen du bere tokia orandik orain gauzatzen diren merkatu harremanetan. Simmelek esan zigun sorgotasuna zela hiri-modernoaren ezaugarri nagusi, eta giza-harremanen dimentsio kualitatiboak bigarren maila batean geratu zirela, dimentsio kuantitatiboaren mesedetan. Indiferentziaren ekoizpen sozialak, beraz, bere agerpena egiten du emaitza onak eta salmentak lehenesten diren joko-zelailan.

Esan beharrekoa da ere merkatu globalen testuinguruaren tragedia deskribatzen zaigula neurri batean. Nazioarteko merkataritza Arrasateko Kooperatibetatik askoz haratago doan botere globalek kontrolatzen eta ezaugarritzen duten bezala, arkitektura horretan

leku bat edukitzeko zentro global horien arauetara subordinatzea lehen baldintza da. Trantsizio sozioekologikoarekin loturan, ezin dugu bazterrean utzi botere politikoaren gaineko gogoeta. Estatuaren esku-hartzea berrindartzen ari den prozesuan, gidaritzaren ekonomiko eta politikoa berhartuz, jaurti liteke galdera legitimoa: zein babes-harresi eta segurtasun gehituko litzioke Arrasateko Kooperatibagintzari estatu propio eta botere politiko sendodun batean integratuta egoteak? Nazioarteko merkataritzaren haize ufaden aurrean burujabeago izan litekeela pentsa liteke, eta ondorioz, jasangarritasun irizpideetara lerratzeke tarte zabalagoa eduki.

Aro posfosilistarako jauzia iruditegitik urrun geratzen da, beraz. Fase hori gainditzeko, lanaren banaketa sozialetik lanaren antolakuntza sozialera jauzi egitea eskatuko luke, kooperazioaren ideian sakonduz. Bestea arrotz zaigun eragile modura interpretatu ordez, elkarmenpotasuna duten eta elkarlaguntza loturak garatu dituzten norbanako gisara interpretatzea litzateke auzia, bitarteko materialak kolektibotasunaren zerbitzura jarriko litzuzkeen antolakuntza moldearekin. Aro neoliberallean garatutako dinamika lehiakorrek ordea, enajenazio prozesuaren biziberritze fase bati bide eman dio.

Badago trantsizio ekologikora bidean pausu gutxi eman izana azaltzeko gehitu beharreko beste faktore bat, ardura postuak betetzen dituzten aro biografikoarekin zerikusia duena. Jubilaziotik gertu egonik, enpresa ahalik eta egoerarik onenean utzi gura dutela argudiatzen da, finantzarioki ulertuta, eta ondoren etorriko diren belaunaldiek egin beharko dietela aurre epe luzera begira marrazten diren erronkei. Ibilbide laboralaren bukaerako etapan egonik, interes nagusia oinordekotza bideragarri eta ongi antolatua lagatzea da, jubilazio urteetara gauzak ondo egin izanaren aho zapore gozoarekin iristeko. Kooperatibismoan eta lan munduan izan duten sozializazio prozesuan ez da lehen mailako kezkatzat hartu auzi ekologikoa, eta barneratuta duten *habitusak* bestelako moldeaz jardutea eskatzen die.

“Azkenean hor daudenei ez zaie asko falta jubilatzeko eta esaten dute... bueno, nik ondo eta txukun utziko dut hau eta datozen hurrengoek egin dezatela gero tokatzen zaiena. Ez hasi neri ekologia eta halako kontuekin, nik finantza aldetik eta ordenatuta lagako dut eta hori ia bada nahikoa lan” (E12)

Arduradun horien ibilbide biografikoan sekula izan duten erantzukizun maila altuena dute, eta inbertsioak egiteko mesfidantza dagoela nabarmentzen da, baldin eta ez bada bere errentagarritasuna garbi ikusten. Eredu energetikoan sakoneko eraldaketak egiteko, beraz, borondatezko prestutasun gutxi dagoela ematen da aditzera, arrisku handiak hartzea esan nahiko lukeelako horrek eta urte gutxian geratzen zaien ibilbiderako, ez dute gorabehera handiko prozesurik bizi nahi.

Azpimarratzekoa da ere ardura postuetara batzen den jendearen perfil soziologikoaz egiten den irakurketa, kezka ekologiko eta sozialak dituen jendeari astun egiten ei zaio era horretako kargu bat hartzea.

“Badakizu zer gertatzen dan? Azkenien inkietude diferentia badekozuz eta zuzendaritza baten sartzen bazara, han egunerokua da salmentak, balantzeak, grafikoak... ta klaro oso ekintza margen txikia geratzen da benetan kezkatzen zaituzten gai horietarako, besteak harrapatzen zaitu. Orduan ba inkietude hauek (ekosozialak) dituen jendeak ez du hor sartu nahi ta beste leku baten saiatzen da inkietude horiek asetzen, ikusten duelako zuzendaritzetan edo ardura postuetan oso mugatuta dagoela.” (E12)

Planteatzen den auzia funtsezkoa da puntu honetan. Kooperatibagintza irizpide ekosozialen bidetik eraman nahi bada baina aldi berean kontzientzia ekosozial sendoena duten pertsonak karguak ez badituzte hartu nahi, logikarik sinpleenak esango digu irtenbiderik gabeko kale izkinara iristen garela bide horretatik. Irakurketa horretan, mundu enpresarialean martxan jartzen diren sozializazio prozesuetan eta egunero performatu behar den *habitus* enpresarialean ez dira eroso sentitzen kontzientzia sozial sakoneko eta nortasun kritikoko pertsonak, kooperatiben norabidea bide ekosozialetik joatea oztopatuz. Ikuskera horretan, *salmenta portzentai* eta *balantze* artean arnasten den giroak ez ditu ekologiko eta sozialki konprometitutako pertsonak erakartzen, uste baitute bertan martxan dauden logikek eta inertziek ezer esanguratsua egiteko tarte oso mugatua lagatzen dutela.

Ikuspuntu horretatik aztertuta, agian zuzendaritza postuen birprestigiatze intelektual baten premian gaudela aipa liteke, adierazle ekonomikoen desdogmatizazio prozesu bati bide emanez, eta kontzientzia ekosozialarekin zipriztindutako belaunaldi gazteagoentzat eremu erakargarrigoak eta ekintza-tarte altuagokoak eraikiz. Gure irudiko, hor egon liteke trantsizio ekosozialera bidean kooperatibismoaren senetik urrats kualitatiboak emateko faktore gakoetako bat.

7.3.7 Jasangarritasuna identitate ikur

Bostgarren eta azken diskurtso nukleoa, kooperatibismoaren balioak jasangarritasunarekin lotzen dituen korrontetik dator. Ulermen marko horren arabera, Arrasateko Kooperatibismoak dituen balioak enpresa konstelazioan gailentzen ari den enpresa-ereduarekin bat datoz, eta horrek abantaila konparatiboa eskaintzen dio kooperatibagintzari alor askotan, tartean jasangarritasunean. Guztietatik ildo kritikoenetzat jo dezakegu diskurtso korronte hau, begirada politiko-sozial sakonagoa egiten du bere eta krisialdi sozioekologikoaren aurrean Arrasateko Kooperatibismoak paper protagonistagoa jokatzeko oinarriak egon badaudela defendatu.

“Nik uste bai hartu beharko geunkela kontzientzia eta kooperatibismua oraindik oso berde dauela, garai berri bateruntz goazela. Guk esaten dogu arazoaren parte gara, klima aldaketaren kasuen klima aldaketaren sortzailiek gara, eta toketan jaku soluzioaren parte izetie... orduan kooperatibismuak daukon komunitatearen konpromiso horretatik ezin gara mugatu legie betetzera edo inertzia jarraitzera, uste dot euki beharko gendula bestelako rol protagonista bat trantsiziño honetan, gure ardurak hartu, guk nahi dogulako ta gure kabuz bidie eitteko.” (E12)

“Aldaketa klimatikuan inguruan, guk kooperatiba moduan beste enpresa batzuen aldirian beste perzepziño gehigarri bat euki beharko genuke, nire ustez bai. Ze azkenian kooperatiban balorietan badago. Iraunkortasunan baloria betidanik euki dogu, ze gure betiko ideia izan da daukaguna ondorengo generaziñoeri be lagatzia; gainera ez bakarrik enpresa eta dirua irabazteko baizik eta eraldaketa sozial bat burutzeko enpresa dagoen ingurune hortan. Esango neuke, egin beharko genukeela.” (E15)

Borondatea ageri da ideia ardatz modura, trantsizio ekologikora bidean urratsak emateko. Indar koerzitiboetatik gaindi (legeak edo merkatuak behartuta izan daitekeen bezala) Arrasateko Kooperatibismoak bere historiari eta izaerari ohore eginda paper zentral bat jokatzeko dagokiola defendatzen da, argi adierazita klima aldaketa eragiten

duen isurpenen erantzuleen artean daudela. Kapitala eta lanaren arteko gatazka modernoari soluziobide bat eskaintzeko egituratu zen bezala, gaurko gizadiak bizi duen erronkarik handienaren aurrean ere antolakunde mota alternatibo bat izateko aukera duela da plazaratzen den ideia. Ikuskera hori abiatzen den sustraietako bat ekintza kolektiboaren eta printzipio batzuekiko engaiamenduaren bidez eraldaketa garrantzitsuak lortu daitezkeela da. Bestelako errealitate ekonomiko eta sozial demokratikoago batera jauzi egitea posible deneko esperantzatik jaiotako formulazio diskurtsiboak aurkitu ditugu. Aurretik landutako diskurtsoetan, dauden indar estruktural eta korapilo ekonomiko-politikoei erreferentzia eginda, eskuak loturik daudeneko ideia ematen da aditzera, nolabaiteko etsipen eta norbere gaitasunekiko mesfidantza agerturik. Aldiz, eremu diskurtsibo kritikokoago honetan, kooperatibek ekiteko tartea badutela aitortu eta iraunkortasunarekin loturiko galdera lodiak jaurti behar direla planteatzen da, ekoizpena gutxitzea kasu:

“Energiaren kasuan ordezkapena 1=1 izatea oso zaila ikusten dut. Agian planteatu beharko dugu guk ere ekoizpena murriztu beharko dala, ez? Gertatzen dena da, nork emango du lehen pausua? Ze klaro, nik murrizten badut eta besteak ez, planetarentzat berdin izango da kaltegarria eta momentu horretan neu geratuko naiz kaltetua.” (E20)

Nazioarteko merkatuaren legeak dakartzan mugez jakitun, gutxiagora etortzearen galdera ardatzean jarri beharra azpimarratzen da. Zentzu berean, kooperatibek iraunkortasunaren bidean eman ditzaketen aurrera urratsak esanguratsuak izan daitezkeela ematen da aditzera, esaterako, energiaren aurrezpenean askoz gehiago eginez.

“Nik uste egin behar dugun lehen gauza dela energiaren erabilera gutxitzea, azkenian nahi da ordezkapena egin berriztagarrietara horrek ere lanpostuak eta aktibitate ekonomikoa sortuko dituelakoan. Baina hori ez da jasangarria ikuspegi askotatik, azkenean hidrogenoaren, fotoboltaiken edo eolikoaren kasuan saltzen digute erabileran daukan onura, baina klaro horren sorkuntzan ez dauka eragin positiborik. 30 urte barru konturatzen bagara horrek ez duela balio izan ezertarako ba 30 urte galdu ditugu.” (E20)

Balio-kate osoa kontuan izatea ezinbestekotzat jotzen da, irtenbide partzialak eman ordezkorapiloa estrukturalki askatzen joateko. Alabaina, kooperatibetan gailentzen den ikuspegia oso soluzio teknikoetara bideratuta dagoela aipatzen da, kontuan izan barik gaur teknikoki produkzio prozesuaren une zehatz bat aldatuta ere, bihar arazoa beste ertz batetik atera daitekeela, esaterako mineralen agortzeak edo beste edozein baliabideren faltak bultzatuta.

“Teknikoki beti topatu ahalko dozu irtenbide bat produkzio prozesuetan. Gero irtenbide hori iraunkorragoa dan epe luzera edo ez, hor galdera. Nik uste analisi horiek falta direla, bizitza-zikloaren analisiak, horrek falta dira kooperatibetan. Falta da kate guztiaren ikuspegia edukitzea, apustuak epe laburrekoak dira. Hau da, gauza bat eraldatzen da berez iraunkorrako egiteko baina elementu zehatz bat hartzen da kontuan, ez kate guztia. Ondorioz epe luzera kalte gehiago sortu ditzake, onurak baino. Enpresa ikuspegitik baina zaila da, ze horrelako zerbait finantzatzen baduzu agian emaitza ez zaizu gustatzen.” (E20)

Horrez gain, lotura zuzena egiten da AKE-k historikoki komunitatearekin izan duen konpromisoaren eta klima larrialdiaren zein krisialdi energetikoaren aurrean hartu beharreko erabakien artean. Jaio-unetik ezaugarritu duen burujabetza eta autogestio

logiken sakontzea proposatzen da, baina begibistatik galdu barik nazioarteko merkatuen gora-beherak eta horra eraikiak dauden zubiak. Are gehiago, sortzaileen bizi-filosofiara begiratuta, belaunaldi horrek trantsizio ekosozialari heltzeko oinarri sendoak zituela defendatzen da eta balio austero eta neurritsuekin aurrera atera ahalko zutela.

“Hauek gaur egin beharko bazuten trantsizio sozio-ekologikoa, dudarik ez dut egingo zutela. Helduko zioten beraien tradizio kristau austeroari eta egingo zuten, lana egun erdiz, kotxeari uko egin... garbi dagoena da hori desgastatu dela guztiz. Bai tradizio kristaua hein handi baten eta bestalde klase ertaineko gizartea sortu dugu.” (E15)

Galdera da ea bestelako ezaugarriak eta baldintza soziologikoak dituen gizarte batean bizita, posible ote lizatekeen ibilbide hori egitea fede katoliko suhartsua izanik ere. Aro modernoak erreproduzitzen dituen balioen eta subjektibotasunen logika sistemikoetan, talde hiperideologizatua izanik ere, ez dugu uste baldintza sozialik izango zutenik euren kabuz heltzeko trantsizio sozioekologikoari, inguruan dauden inertzia sistemiko astun eta erresistenteei muzin eginda. Ibilbide indibidualen artean dagoen gero eta banaketa handiagoa, instituzioak arauak jartzeko eta obedientzia lortzeko galdu duten indarra edota sozializaio esparru geroz eta anitzagoek produzitzen dituzten eremu sozial desberdinak zaildu egiten du taldetasun sentipen estua behar duen pozesu desaztaile bat martxan jartzea. Dena den bai deskribatzen da jarrera ezberdina zutela auzi sozial eta materialekiko, subjektibotasun garaikideetan ageri ez zaigun jokabide mota bat, etika sakrifizialarekin eta neurritasun materialarekin zerikusia duena. Tradizio kristaua jarraitzeaz gain, komunitate pertenezia sentipen trinkoagoa edukitzeak ere ahalbidetzen du erabaki kolektiboak eraginkorrakoak izatea, norberaren interesak komunitatearekin ezinbestean loturik daudeneko sinesmena barneratua baitago. Ordea, bizitza sozialaren indibidualizazio sakonaren garaian, pertenezia sentipenek eta komunitatearekiko loturak bestelako logikaz dihardute, lotura ahulagoekin. Zentzu horretan, kezka agertzen dute, ea trinkotasun sozial ahulagoak dituzten kooperatibek ea egiazki aurrelari papera jokatuko duten krisi ekosozialaren auzian:

“Azken urtietan nik bai ikusten dot kooperatiban soziuak gaudela gaur egungo gizartian murgilduta. Oñ 40 urteko pertsona batek eta nik neuk edo oñ sartzen dabiltzan gaztiauak ba aldatu eñ gare, ta nire perzepziñua da badaudela balore batzuk ba solidaridadia edo ekintzailetasuna.. ba galtzeko bidian dauzela. Orduen, kooperatibak izan beharko ginake gehigarri bat krisi ekologikoa burrukatzeko zera hortan? Ba izan beharko ginake, baina ez dot uste izango garenik. Izango gara beste batzuen beste, ez gehiago ez gutxiago.” (E21)

Gaurko gizartearen eta berak ekoizten dituen subjektibotasunen egiteko moduekin, kooperatibak auzi ekosozialean kokatzeko zailtasunak izan ditzaketela ematen da aditzera. Dena dela, pentsamendu sozioekologikoak eskatzen duen tamainako eraldaketarik egitea korapilatsu modura ulertzen bada ere, produkzioa berriro hona ekartzea, birtokiratze sendoagoa eta ekonomia lokalean presentzia handitzea egin daitezkeen urratsak direla adierazten da. Modu estetiko batean baino, modu estrukturalean. Bestela esanda, AKE-k jasangarritasuna bere identitatearen parte bezala integratzeak krisialdi sozioekologikoari modu berritzaile eta zuzenean erantzutea eskatzen duela ematen da aditzera, abangoardiaren rola betez enpresa munduan.

“Har dezagun (banaketa enpresa esanguratsu baten) kasua.. Enpresa horrek 90ko eta 2000ko hamarkadan esan zuen handiak gara Euskal Herrian baina ez dugu ezer egiten

ze Carrefour eta abarrak datoz. Orduan, edo Espainian bihurtzen gara handi edo pikutara goaz. Bazegoen kontrara ahots bat esaten zuena, kontuz, gure arima soziala ez da hori eta agian gure herrigintzak eskatzen digu txikiagoak izatea eta beste eredu bat lantzea, bertako baserriarekin akordio estrategiko bat eginez, desberdina izanez, askoz gertukoagoa, beste supermerkatu eredu bat landuz... Kontua da arima enpresarialak saltzen duela eztabaida hori diskutable ez balitz moduan, hau da, edo Espainian handi bihurtzen gara edo pikutara goaz.” (E15)

Birtokiratzeari dagokion eta ekonomiak berriro lurrari lotuago eraikitzearen planteamendua narratiba honetan bezala, ekologismoaren adar gehienek defendatu duten posizioa da. Ez dago eztabaidatik salbu ordea, nazioarteko balio-kateak eta dagoen interdependentzia maila altuak ekonomiaren birtokiratzeak konplexutasun sozialaren galera nabarmena ekarriko duela onartzeaz gain, botere politikoaren gaineko galdera sartzen zaigu jokoan. Horrela planteatuta, espazio lokalek subiranotasun altuagoa irabaziko lukeketen agertokian, boteregune nagusiek euren dominazio gaitasunari borondatez uko egingo dioteneko premisa onartzeko arriskua legoke, botere estatal zein ekonomiko ezberdinak birtokiratzearen prozesu horren gainean kontrola ezarri nahiko luketela kontuan hartu barik. Kolapso egoera batean ere, pentsatzekoa da ekonomia erresiliente eta lokalagoak gaitasun handiagoa izango duela gertakari bortitz horri modu berdinzaleago eta demokratikoago batean erantzuteko, baina ezin da baztertu botere politikoa ahuldua geratu litekeen arren (Nazio-Estatuetako gobernuen kasuan adibidez), epe ertain luzean botere hori berrindartzea eta prozesu ekonomikoak kontrolatzeko gaitasuna berreskuratzea. Dena den, ikuspegi kritiko honetan funtsezkotzat jotzen da kooperatiben autonomia eta autogestio mailari eustea, hau da, duten botere politikoari, kanpotik etorritako erabaki desatseginen aurretik jarri gura bada.

“Edo guk kudeatzen dugu hau ahal dugun neurrian edo kudeatuko gaituzte. Hor sartzen dira adibidez lan-orduen murrizpena, lanaren banaketa... hor kooperatibak neurri batzuk inplementatu ditzake eta gainera uste dut pertsona batzuk prest egongo lirakeela gutxiagorekin bizitzeko... gero egia da beste batzuk ziur aski ezetz. Baina kooperatibek historikoki ere lanaren banaketan eta eman zituzten urratsek eragin zuzena eduki zuten ondoko enpresa kapitalistetako lan-baldintzetan. Nik uste orain ere beste enpresa batzuk baino aukera gehiago daukatela gai hauean bidea egiteko.” (E14)

“Ni lanean hasi nintzanean, nire lehenengo proiektua hidrogenoaren inguruan izan zan, 1995ean. Apustu sakona egin zen korporazioak eta dirua jarrita ea hor zer egin zitekeen aztertzeke. Baina apustu horrek bere garaia eduki zuen eta berriro etorri zen batera elektrikoen asuntua. Orain berriro gabiltza beste hidrogeno mota batekin saiatzen. Eta hidrogenoak orduan zeukan gaitasuna eta gaur egun daukana antzerakoa da eta salmentetan hutsaren hurrengoa. Hidrogenoak dauka termodinamikaren muga, muga oso handia, batez ere mugikortasun arinari begira, nik ez dut ikusten bideragarria. Ze azkenean hidrogeno hori sortzeko behar duzun energia, garraiatu, biltegitatu, konprimatu (repostajea azkarra izateko) ba oso prezio altuetara zoaz, eta azkenean ziklo guztian daukazu efizientzia da %30a. Hor ez da kontua teknologia garatzea, kontua da muga termodinamikoa.” (E20)

Aztertzen ari garen marko diskurtsibo honetan narratiba kritikoa gailentzen da azken urteetan Arrasateko zenbait kooperatibetan nagusitu den arima enpresarialarekiko. Kritikaren funtsean azpimarratzen da, ikusita AKE-ren ibilbide herrigilea zein den eta bere oinarri politiko-kulturalak non dauden, estrategia enpresariala ere lurzoru horretatik abiatuta pentsatzea. Horrez gain, haztearen eta handiago bilakatzearen jarrera

neoliberal orokortua eztabaidatzen da dimentsio enpresarialetik bertatik ere, esanez seguruagoa eta errentagarriagoa izan daitekela enpresa eredu txikiago baina komunitatearekin trinkotuagoa eraikitzea.

Zalantzan jartzen da azken urteetan hartu izan diren erabakiak ezinbestean hartu beharrekoak izan direnik. Nolabait hemen historia sozialean sarritan agertu izan den argudiategiarekin egiten dugu topo, non protagonistek hartu dituzten erabakiak justifikatzeko *ezinbestekotasun* abstraktu bati erreferentzia egiten dioten. Bestela esateko, hartu zitezkeen erabakien aurrean erabaki posible bakarra hartu zela argudiatzen da. Horren aurrean, kritikotasun nabari batetik erabakien *teknokratizazio-a* salatzen da, bazkide kolektibotik geroz eta gehiago aldentzen ari den zuzendaritza eta elite batek erabakiak oinarrien kontraste eta eztabaida sakonik gabe hartzen dituzteneko ideia mahaigaineratuz. Kritika horren mamia azpimarratzea esanguratsua zaigu, kidesunak eta berdintzaletasunak ezaugarritu duen esperientzia historiko-sozial bati buruz ari baikara.

“Normalean arima enpresarialak saltzen ditu erabakiak diskutibleak ez balira moduan. Zuzendaritzak esaten badu edo Espainian handi bihurtzen gara edo pikutara goaz, kontseilu errektoreak erosten dio, beraz asanbladak ere... Norbaitek esaten badu eh, agian hobe dugu txikiagoak izatea eta Euskal Herrian geratzea.. hori hartzen da utopikotzat eta politikotzat eta abar” (E15)

Diskurtso korrante kritiko honen sakoneko bulkada bada enpresa gidatzeko indarrean dagoen modu hegemonikotik aldentzea eredu alternatiboagoekin lan eginez, non elementu sozialak rol zentrala jokatu duen. Merkatuaren jardunarekiko eta exigentziekiko nolabaiteko burujabetza aldarrikatzen da, eta krisialdi sozioekologikoaren gaindipenerako bide propioa eraikitzeke premia proposatu. Zentzu horretan, neoliberalismoaren zabalpen orokortuari harresi propioak eraikitzeke deia luzatzen da, lehiaren printzipioak kooperatibagintzaren senean sustraitzeaz gain, haztearen eta handiagotzearen ideiak axiomatiko bilakatzen baititu.

Funtsean, bi lerro nagusitan jardutea da proposatzen dena. Alde batetik ohiko negozioak egiten jarraitu, fluxu ekonomiko nagusiekin sinergian; bestetik burujabetza dosietan sakontzea krisialdi sozioekologikoak ukitzen dituen gai zentraletan: energiaren alorrean, isurien murrizpenean eta ekonomia lokalen zein komunitateen indartzean. Estrategia sozio-enpresarial eraldatzailearen ardatzean gehiago kokatuko litzatekeen diskurtsoa dugu, neoliberalismoak 2008ko krisialditik aurrera sektore sozial ertain eta langileetan bizi duen higitzearen ondorioz ondo errotu litekeena bazkide kolektiboaren parte zabalean.

Bestalde, jasangarritasuna identitate ikurtzat hartzea proposatzen dutenen posiziotik krisialdi sozioekologikoaren aurrean neurriak hartzea ez da praxi enpresarialari mesede egin liezaiokeen estrategia bat, kooperatibagintzaren beraren helburua bere horretan baizik. Bestela esanda, esperientzia kooperatiboa gizarte eraldaketaren sinesmenean eta gizakiaren duintasunean oinarritua egonik, jasangarritasunaren auziari erabateko lehenetsunarekin ez heltzea kooperatibagintzaren funtsezko zereginak alde batean lagatzea litzateke. AKE-ren identitatearen baitan arima herrigilea eta bideragarritasun ekonomikoa uztartuta egonik, herri klaseen eta inguruko gizartearen bizi-baldintzak mehatxatzen dituen prozesu biofisikoaren aurrean, AKE-ren identitate-oinarriek eurek bilakatzen dute derrigortasun moral horren aurrean ekitea, ikuskera horren arabera. Hala

ere, azpimarra egin behar da ikuspegi ekosozialean ardazten diren erabaki politiko esanguratsuak hartuta ere, kooperatibak ezin daitezkeela deslotu errealitate sozioekonomikotik, eta zubiak mantendu behar dituela merkatuaren errealitate pisutsu eta egituratuarekin ezein trantsizio posible egiteko. Dialektika konplexu horretan mugitzea du erronka.

Argudiatzen da, alternatiba argi bat eraikitzeak ere mesde egingo liokeela jendeari sakrifizioak egiterako orduan, eta auzi ekosozialean protagonista papera hartzerako orduan.

“Norberagandik hasi behar dan gauza bat da be bai, kooperatibatik baino lehenago. Kennedy-k esaten zeban ez? ez galdetu zer egin dezakeen Amerikak zugatik, galdetu zer egin dezakezun zuk Amerikagatik! Ba hemen berdina ez? Guk egin behar ditugu lehen sakrifizioak, baina ez dakit kooperatibetan danak egongo ziran prest sakrifizio horrek egiteko. Renuntzia asko egon behar dira. Adibidez, eolikuak eta oso modan dau, neuk be ez dot gure nerue mendixetan haize-errotarik, baina klaro, gero nahi dozu egon etxian sofan internetekin netflix ikusten. Ta klaro ez da konpatiblia. Holako diskusiñuak euki eiñ behar ditxugu, ze erreza da be bai ekologista papera hartzia, baina klaro, galdetzen dozunian ta alternatiba zein da? Ez dau erantzun garbirik. Diskusiño asko falta da bai gizarte mailan eta kooperatiba mailan gehixau oindiok.” (E21)

Egin sailkapen honek irudi luke enpresa pragmatismoaren diskurtsoari zuzenean kontrajartzen zaion korrantea dugula deskribatu berri duguna. Ohar bat egin nahi genuke horren gainean, tentsio binario eta kontrajarri modura aurkezteak errealitatearen harimutur ezberdinak solteegi lagatzea esan nahi baitu. Bi ereduaren arteko tentsioa baino, testuinguru historiko-sozial zehatzean konfiguratzeko diren ikuskerak daude, elkarren osagarri eta elkarren eusle direnak. Errealitatearen izaera poliedrikoa kontuan hartzeko ez digu balio bi postura antagoniko baleude bezala aurkezteak, beste posizio batzuk ere egon badaudelako eta eztabaida gurutzatzen duten beste hainbat faktore kontuan hartu behar direlako (kritika sektore industrialetik edo hezkuntzarik datorren, adibidez). Zentzu horretan, merkatu exijentziak eta jasangarritasuna identitate ikur modura pentsatzea uztargarri izan litezke eta ez elkarren artean bateraezin diren bi posizio kontrajarri.

“Gai honek badauka abantaila bat eta da goitik ere presioa datorrela. Uste dot bai izan gaitzkeela aurrelari eta Ederlan (Fagor) adibidez autogintza sektorean aurrelari papera joka dezake. Edo Coprecik berak ere, lidergo minimo batekin, ez legeak eskatzen duelako baizik eta hautu kontziente batetik, ez? Izan gaitezen honetan puntakoak. Horretarako muskulua badugula uste dut. Eta agian klabea egongo da momentu honetako lider teknokratak eta lider sozialek, zenbaterainoko audaziaz hartzen duten hau.” (E15)

Audazia eta trebetasuna aipatzen dira gai sozioekologikoaren aurrean modu sendo eta eraginkorrean kokatzeko ezaugarri funtsezkotzat. Proposamen horren arabera, bai teknikoki enpresa bideratzeko gaitasunak dituztenek (teknokraziaren kontzeptupean definituta) zein bestelako irizpide sozial, ekonomiko eta politikoak zaintzen dituztenek (lider sozialak) adostasun zabal bat bilatu behar luke, Arrasateko Kooperatibak estrategia berritu batekin aurrelari gisa jokatzeke trantsizio ekosozialaren garaian.

Puntu honetan, ordea, badago merkatua eta auzi sozietologikoa lotzetik, kooperatibismoaren eremuan lurreratuta, egin behar den funtsezko galdera bat, tesiaren beraren nerbio zentraletako bat ukitzen duena: posible da enpresa bat mantentzea eta bideragarria izatea planteamendu desaztaile batetik? Jasangarritasuna identitate ikur modura hartzearen diskurtsoan gainditu beharreko korapilo teoriko nagusietakoa da honakoa, nola kapitalismo axiomatikoaren sareetan diharduen eragile batek aukerarik ba ote duen paradigma hazkundezaleari uko egiteko. Hala gogoetatu du elkarrizketatu batek:

“Zaila da Arrasateko Kooperatibak planteamendu horretatik ateratzea ze hori da egiten ikasi dugun bakarra, hazten dakigu, ez dakigu deshazten enpresa moduan. Oso galdera interesgarria da, enpresa bat izan liteke bideragarri eta inkluso arrakastatsua dekrezimendu batetik?” (E15)

Nabarmentzekoa dena da kooperatiba batek soilik bide desaztailea bere kabuz hartzea ez dela oso probabalea, faktore kultural, politiko eta ekonomiko ezberdinek ez badute norabide horretan bultzatzen. Horrez gain, aipatu liteke kooperatibaren eskaintza murriztuz gero, eksklusibotasunaren ideian oinarritzen den produktu bereizi eta partikular bat eskaintzeko arriskua areagotzen dela, eta soilik kokapen sozial jakineko kideek sarbidea izango duten produktua sor litekeela. Bourdieu, Veblen edo luxuaren soziologiatik egin diren ikerketetatik jakin badakigu ezberdintzea eta kontsumo bereziaren bilaketa oinarritzeko mekanismo soziologikoa dela, estatusa eta kapital sinbolikoa lortzeari begira, talde jakinek gizarte estratifikazioan duten botere posizioa ez galtzeko.

Arrisku horretaz jakitun, funtsezko galdera horri erantzuna bilatzerako orduan erantzun liteke desazkundearen aldeko prozesu makrosoziologiko baten arnasean kokatzen ez bada, gorpil desaztaileak nekez biratuko duela. Hain zuzen ere, beste elementu bat ere atera zaigu gogoeta ildo honetan. Argudiatzen da kooperatibaren egitura demokratikoari begiratzen badiogu, trantsizio ekologikoak eskatzen dituen erronkak modu adostu eta bateratuan aurrera ateratzea nekezagoa dela kooperatibentzat, bazkide asko ados jarri behar baitira. Aldaketak, tentsioak, eztabaidak eta kontraesanak ekartzen dituztenez, erabakitze-prozesuak demokratikoak izateak, SA batek duen malgutasun mailarik ez izatea dakarrela:

“Azkenien, transatlantikuak birau eñ bia dau. Eta zuk birau zeinke lemari tinko zeuk emonda, edo izan leike hasten dala itsasoko korrontia norabide baten eta itsasontzia bera mugitzen dau. Uste izanda, guk geuk lema mugidu beharko geunkela itxon barik korrontian aldaketa horri, egixa da kooperatiban erabakitzeko, hausnartzeko eta bere plan estrategikuak egiteko ba nahiko motelaguak gara beste forma juridiko batzuekin alderatuta. SA baten, akzioen %50ak daukanak nahi badu hori egin, ba egingo da, zergatik? Ba neuk esaten dotelako, ez? Zentzu hortan, inori azalpenik emon barik emon leikezu timoiari buelta. Kooperatiban ez da holan, kostau eitxen da aldaketa. Ni Ederlanen (Fagor) nabil, ta hor timoia mugitzeko diskusiño asko dauz. Ze ez da egon behar ados bat, asko egon behar dira ados. Beraz enpresandako nahiko zaila izango da punta-puntan egotia trantsiziño ekologikuan” (E21)

Beraz, egitura demokratikoaren eta hartu behar diren erabaki sakonen arteko tentsioa identifikatzen da. Gizartean gertatzen den bezala, erregimen demokratikoetan sakon sustraitutako askatasun liberal burgesaren ideiak, zaildu egiten du pobretze materiala eskaintzen duen adierazpen ekologistek hauteskundeak irabaztea. Kooperatibetan ere

egin liteke paralelismo ariketa, nork nahiko du pobretze orokorturanzko hautua egin? Horrek esan nahiko baitu mendekotasun berriak, autonomia galera, produktu ez hain lehiakorrek ekoiztea eta egitura organizatiboak sinpletzea. Agian alternatiba pentsatzen jarrita ondorengo oinarrietatik formula liteke galdera: nola mantendu kooperatiba bakoitzaren autonomia, ekoizteko beharrezkoa duen konplexutasun sozio-tekniko eta organizatiboa, eta nolabait bere erabakiak hartzeko askatasuna, horrenbeste estutu dezakeen erralitate material argalduan? Baina pentsa liteke ere kontrako zentzuan: Arrasateko Kooperatibek enpresa-multzo konsistente eta neurri handiko errealitate sozioenpresarial bezala, bere erro demokratikoei esker eta ondorengoengan pentsatuz (beraz belaunaldi-arteko demokrazia) izan daitekeela aurrelaria. Estrategia zabal, epe luzeko eta bateratu baten itzalpean abangoardia papera joka dezake trantsizio sozioekologiko serio batean, ekologikoki funtsatutako irizpideen arabera urratsak emanaz.

Izan ere, ekologo sozial ezberdinek planteatzen duten zibilizazio kolapsoaren paradigmaren baitan, MK moduko egitura handi, pisutsu eta erregai fosilekiko horren menpekota mantentzea materialki oso konplexua (ezinezkoa ez bada) izango da. Irakurketa horretatik, ez da aukera bat enpresa desazi ote daitekeen edo ez planteatzea bideragarritasun ekonomikoa eta beste irizpide enpresarial batzuk kontuan hartuz, kontrara, desazten ez bada zaurgarriago izango da ekonomia globalaren uzurtze prozesura. Sare insituzional zabal eta dimentsio altukoak bizirauten zail izango dute erregimen soziometaboliko modura. Dena den kontuan hartzekoa da kolapso mehatxuaren diskurtsoa eraikitzen bada, horren aurrean mobilizatu litezkeen emozioak angustiarekin, ezinegonarekin eta beldurrarekin lotuak egon litezkeela, eta horrek ekintza kolektiboa norabide propositibo berrietatik bideratzea blokeatu dezakeela.

Gogoeta guzti horiek eginda, ezin dugu begibistatik galdu boterearen inguruko galdera, trantsizio sozioekologikoa norabide batetik edo bestetik lerratzeko funtsezko aldagaia. Botere politikoaren auziari heltzea ezinbestekoa da, ozeano zabaletan naufrago txiki izan nahi ez badugu, korronteak nondik doazen detektatzen jakin beharra dago. Izan ere, edozein eraldaketa sozial estrukturaletan boterearen lehian dauden talde sozialek paper erabakitzailea daukate, gizartean eraldaketa horiek hauspotu eta ordena sozial (eta kasu honetan ekologiko) berriak haragitzeko. Ezin dugu baztertu, beraz, nazioarteko ordena geopolitikoak eta bertatik finkatuko diren kokapen politikoek zein botere-orekek sakon baldintzatuko dutela trantsizio sozio-ekologikoaren norabidea. Kooperatibismoaren senean ere, gailentzen den ikuspegi ekonomiko-sozialak garrantzia handia izango du, norabide ekosozialean sakontzeko edo, kontrara, eredu ekonomiko ortodoxoen oinarrian lanean jarraitzeko, esfera ekonomikoa erdigunean jarrita, sozialaren eta ekologikoaren gainetik.

7.4 Ardatz sinboliko kulturala (ii) Subjektibotasun postfordisten trantsizio kooperatiboa krisialdi sozioekologikoan.

7.4.1 Trantsizio kooperatiboa hizpide

Krisialdi sozio-ekologikoa modu kooperatibo eta berdinzalean gauzatzeko dauden oinarri sozialen analisian, badago begibistatik galdu ezin dugun auzi zentral bat, identitate eraikuntza prozesuekin zerikusia duena. Premisa teoriko honetatik abiatzen bagara, beraz, ondorengoa onartuko dugu: geroz eta identitate kooperatibo eta ehundura komunitario indartsuagoa, orduan eta gaitasun handiagoa ekinbide koordinatu eta esfortzu kolektibo handiak norabide berean lerratzeko. Arrasateko kooperatibetan azken hamarkadatan kezka azaldu duten funtsezko gaia da honakoa, identitate kooperatiboaren ahultze prozesua detektatzen duena aro globalean. Elkarrizketa ezberdinetan posizio propioak eta harimutur ezberdinak heldu badira ere, oro har diagnostikoa orokorra da eta kooperatiba orotan gertatzen den prozesu bezala azaltzen zaigu. Kultura kooperatibista makal dago. Gazte belaunaldiak duten harremanean jartzen da arreta gunea, beraiek Arrasateko Kooperatibismoaren biziraupenerako giltza direla ulertuta.

“Zaila da, aber.. nik ere nire esperientzian esaten dizut ni kooperatibista sentitu naizela edade batekin. Bi hilabetetik behin egoten ziren bilerak kooperatiba nola zebilen eta arlo sozialian gure iritzia emateko eta abar.. baina jende asko ez zan juten, erdia baino gehiago, ni ere ez batzutan. Momentu batian hasten zara kontzientzia hartzen zer dakagun etab. Nire kasuan igual gehiago kanpua ibili naizelako eta horrek laguntzen dizu ikusten kanpotik zenbat baloratzen gaituzten, eta guk barrutikan geuria dakaguna ez degu baloratzen.” (E13)

“Kooperatibista no se nace, hori argi dago. Inor ez da etortzen guregana esaten ni kooperatibista naiz eta modu kooperatibistan bizi nahi det, baizik eta lan bat delako” (E19)

Lehenik eta behin, aipu honetan identitate kooperatiboa eraikitzea prozesu geldo, pausatu eta korapilatsua dela iradokitzen zaigu. Hasieran taldean egonagatik taldeko parte neurri batean soilik sentitzen zela ematen da aditzera, eta ondoren, ardura postuak hartu, esperientzian irabazi eta kanpoko begirada jasotzearekin batera lortzen da oinarri sendoko identitate bat eraikitzea. Kooperatibista izatearen harrotasuna edo enpresarekiko leialtasuna garatzea ibilbide guzti horren emaitza beti ireki eta bukatugabea izango da, identitate eraikuntzaren izaera prozesuala ageri zaigu, Thompsonekin azaldu duguna helduleku teorikoetan. Faktore ezberdinak sartzen dira jokoan esperientzia bakoitzean, norbere biografiatik datozenak (esaterako, familian gurasoak kooperatibistak izatea edo DebaGoienako bailaran jaio eta hezi izana...), ingurutik jasotakoak (kooperatiba bakoitzaren izaera, bertako jendeak nola hartzen zaituen, zein gaitasun sozial eta tekniko dituzun etab.) eta estrukturalagoak direnak (bazkide izan ala ez izan, kooperatiba barruan duzun kokapena, ardura maila, generoa, adina...). Faktore horien guztien arteko konbinazioak identitate kooperatiboan sakonago iristea edo azalean geratzea eragingo dute, bestelako faktore kointuralagoekin loturik (egon litezkeen gatazkak eta talkak kooperatiba barruko beste posizio batzuekin hartu beharreko taktika edo estrategiaren gainean). Horrenbestez, norberak izan dituen bizipenek, ardurek, jokatu dituen paperek eta eratu duten harreman-sareek definitzen

dute identitate kooperatiboaren maila. Bestela esanda, kooperatibista izaera sozializazio gune zehatzen parte izatetik eratoritzen da, bertan garatzen diren kideza mekanismoei eta trebetasunei esker.

Horrek guztiak, kooperatiban parte-hartze maila ezberdinak egotea eragiten du, batzuk joera gehiago izanik taldearen egoera eta erabakien ezagutza izatera. Dena den, joera orokor modura parte hartzeko borondate falta eta joera indibidualista nagusitzen dela diote elkarriketatuek.

“Ni kontseilu errektoreko lehendakaria naiz, eta ikusten det ere zer egiten degun, bileretara deitu informatzeko. Krisi egoera latz bat egon danian hor bai, hor danak azaldu izan dira boto batek asko balio zulako, baina bestela... Beste jende batek komentatzen du, gaztiak beste balore batzuk dituztela. Bere momentuan guretzako zan, bazkide naiz, bizi guztirako lana daukat, funtzionarioak bezala, bai? Gaur egungo gaztiak ez dira ari horretan pentsatzen, badakite igual kooperatiba epe laburreko zerbait izango dala eta egonkortasun hori ez dute bilatzen. Eta guk zailtasunak ditugu beraiek erakartzen. Eta gero egia da ere Euskal Herrian bertan ez gaituztela ezagutzen gazteek, Euskal Herrian!”
(E19)

Interesgarria zaigu *bizitza guztirako funtzionario* moduko ideian azpimarra egitea, kooperatiba norbanakoari egonkortasun materiala eskainiko dion leku modura interpretatzen baita, alienazio puntu bat trukean emanda. Bestela esanda, itun sozial fordistaren eskema da nagusitzen dena, bulkada eraldatzaile batetik edo arrazoi moralaren gauzatzetik urruti. Alabaina, kooperatiba leku seguru eta iraunkor modura hautemateko joera hori ahultzen ari deneko iritziak jaso ditugu. Ikuskera horretan, gazte belaunaldiak nahiago dute lana beste toki batean topatu, kooperatiba zerbait itxi eta ilun modura ulertuz:

“Oin dala 10 urte norbaitek eskatzen bazeban kooperatibatik urtetzia jendiak pentsatzen zeban, ¿pero a donde va este loco?.. eta gaur egun debil jendia eskatzen eta inor ez da harritzen, eta lehen hori zan inpensable, lehen gure bailaran kooperatiban sartzen zana zan despues de funcionario el mayor chollo, eztakitzu? Baina hori aldatzen dabil (...) pandemian krisiak in ikusi da gezurrak eta transparentzia falta haundia dauala, eta jendia nazkatuta dau” (E26)

Halaber, kooperatiba bakoitzean egoera ezberdina bada ere, eztabaida politiko sakonak gerta daitezen borondate falta deskribatzen da, langileen kolektiboak lanean *giro ona* hautsi nahiko ez balu bezala, kooperatibismoa bide eraldatzaileagoetatik eramateko, trantsizio ekosozialaren kasuan esaterako. Narratiba kritiko horretan, erosotasunaren kritika azaleratzen da, nola langile-bazkideek euren bizi-proiektua egonkortuta ikusita, ongizate maila egokian ikusten dute euren burua eta aspirazio eraldatzaileak apaltzen dituzten.

“Dago joera bat, oinarri soziologiko ezkertzailea eta abertzalea izan arren gogoeta politikorik ez egiteko. Hau da jendeak pentsa lezake gogoeta politikoa dela joatea asanbladara urtean behin eta esatea denari bai. Sotila da, jendeak uste baitu bere borondate politikoaren arabera gidatzen dela kooperatiba, baina inork ez du asanbladan benetako galdera politiko bat egiten, teknikoa egiten du. Izan liteke gatatzari beldurra baina baita aspirazio eraldatzailea galtzea... jendeak pentsatzen du teknokraziaren esanari baietz esango diot, bazkide egingo naiz, ez naiz sartuko debate konplikatuetan... eta bide horretan aspirazioak galtzen dira.

Jendeak rollo ona nahi du, eta askotan debate politikoak rollo ona apurtzera eramaten zaituzte... neri emaidazu soldata ona eta giro ona lankideekin eta horrekin konformatzen naiz. Zergatik ez dugu aspiratu behar sen herrigiletik konkista zehatzak planteatzera? Ez da hala egiten, aspiratzen dugu Bilbon sukurtsala zabaltzera edo (tradiziorik ez dugun fakultate berriak) zabaltzera, baina horrek ze ipar estrategikori erantzuten dio? Indartu, nazioarteratu eta hazi estrategiari. Rollo onaren joera desgastatzea oso zaila da. Momentu batean zuk norabide estrategiko alternatibo bat planteatzen baduzu teknokraziarekin konfrontatu beharra duzu, eta jendeak ez du nahi hori.” (E15)

Marx-en tesietan aurkitu dezakegu jada oparotasun materiala gatazka sozialaren aurkako txertorik eraginkorra deneko ideia. Ikuspuntu materialista batetik oparotasun ondo banatu batek (berdintasun sozialeko terminoetan), gatazka soziala dosi jasagarrietan mantentzen du, eta ez da mugimendu kontrahegemoniko indartsurik garatzen. Elkarrizketatuaren iritzian, Arrasateko esperientzian eztabaida politikoaren sakoneko faltak erosotasun materialarekin zerikusia dueneko tesia gailentzen da, eta ikuspegi post-materialista batetik, *giro ona* apurtzeko zailtasun kultural nabarmenak daudela azpimarratzen du. Beraz, ikusmolde kritiko horretatik deskribatzen zaigun humus soziologikoak parte-hartze politiko baxuko, gatazka sozial murrizteko eta esanekoa den kolektiboa irudikatzen du. Auzia krisialdi sozio-ekologikoarekin lotuz, oparotasun materialaren aldia urte luzez mantentzea ezinezko dela ekologikoki funtsatua dagoeneko tesia aintzat hartzen badugu, pentsa liteke epe ertaineko kontua izango dela ikus dezagun erosotasun material gutxiagorekin eztabaida politikoak areagotzen diren edo ez, eta zein zentzutan norabidetuko diren. Narratiba kritiko horretan, ondorengo ideia gaineratzen du elkarrizketatu batek:

“Zerbait gertatzen da Arrasateko Kooperatibetan norabide politikoaren edo estrategikoaren inguruko gogoetak labaindu egiten direla. Beste paradigma enpresarialean murgildu gara eta gainera uste dugu gu ari garela erabakiak hartzen.” (E15)

Funtsean, puntu honetan trantsizio ekosozial kooperatibo baterako bidean ageri zaigun korapiloa kontra-hegemoniaren eraikuntzarena da. Ikuspegi kritiko berrien produkzioa gatazka sozial eta politikoa planteatzen den eremuetatik jaiotzen den neurrian, planteatu liteke, logika kontrahegemonikoen taupatze ahul batek nekez lor dezakeela kooperatibismoa krisialdi sozio-ekologikoari aurre egiteko bide eraginkor modura agertzea, kooperatibismo horretan hartzen diren erabakiak nazioarteko fluxu ekonomiko nagusien korrontean norabidetuta badaude. Alabaina, beti prozesuala, ez-itxia eta kontingentea izango den trantsizioan, krisialdi ekologikoak eta harekin loturiko bestelako krisialdiak (ekonomikoa, soziala, zaintza-lanena...) bultzatzen dituzte kooperatibisten kolektiboa galdera politikoagoak planteatzera, eta norabide estrategikoa bestelako oinarri ekosozialagoen gainean eraikitzen.

Oparotasun materialak gatazka soziala baxu mantendu eta erroko eztabaida politikoak desaktibatzen dituen moduan, aipagarria den beste pasarte bat krisialdi egoerei dagokiena da. Testuinguru kritiko batean, parte-hartzeko joera eta konpromisoak bere egiteko borondatea areagotzen dela deskribatzen da, kooperaziorako eta elkarlanerako prestutasuna handitzearekin batera. Fenomeno hori interes utilitario batetik interpretatu liteke, jokabide hori hartu ezean enpresak porrot egiteko dituen aukerak biderkatuko liratekeelako. Marxekin atal teorikoan ikusi dugun bezala, suntsipen mehatxuak taldetasunaren trinkotzea dakar eta kooperazio forma berriak agertu litezke interes material bati jarraiki.

“Gero garai gogorretan jendian konpromiso maila izugarria izan da, ordu extrak inork ez dittu egin, denok sartzen genituen! Jendiaren inplikazioa proiektu berrietan sartzeko eta abar oso handia izan da, egoerarik txarrenetan, kasu bakarren bat kenduta.” (E19)

Ezaugarri hori kontuan hartzea garrantzitsua zaigu trantsizio ekosoziala pentsatzerako orduan, bazkide-langileen aldetik jokabideak aldatzeko eta ekimenak norabide berri batean lerratzeko prestutasuna ugaritzen baita krisialdi testuinguruan. Ekonomia globalaren uzurtzearen kasuan, pentsa liteke konpromiso maila areagotuko dela eta kooperatibaren jarduna dibertsifikatzeko estrategiak kolektiboak begi onez onartuko dituela, proiektu berrietan sartzearen bidez eta langileen gaitasunak zorrozteari eskerrak. Kooperatibista izatearen zentzua sendotzeko baldintzak agertzen direla esan liteke, gaur nahiko azalean dagoela identifikatzen dena.

“Gero ere ez da sistema asanbleario bat, informatzen da eta abar baina nola transmitzen diozu jendeari kooperatiba baten parte dala, erabakiak hartzen dittula batzar orokorrian etab. Kooperatiba askotan organoetan parte hartzeko ez dago inor bolondres, askotan esaten da buff horri emango diogu botua urte asko doiala ta uf holan me libro, ez? Beraz pentsa, konpromiso maila eta hori ba nun geratzen dan. “ (E19)

Kooperatibak egituratuta dituen gobernantza organoetan parte hartzeko arazoak adierazten dira. Zeregin astuntzat hartzen da, arazo iturri, norbanakoari etekin gutxi ekarriko diona. Kooperatibaren erabakietan parte-hartzeko borondate falta hori bi modutara interpretatu liteke i) informazio faltak eta egitura horizontala ez egoteak jendea erabakietan inplikatzeko oztopatzen du, indibidoari esfortzu gehigarria eskatzen baitio informazioa bilatzeak, horren inguruan hausnartzeak eta organo exekutiboeri aurre egiteak ii) kontseilu errektorean edo kontseilu sozialean parte hartzeko inor prest ez agertzea egitura bertikala eta erabakien nolabaiteko elitizazioa justifikatzeko erabiltzen da, jardun ejekutiboak beste inork nahi izan ez duen tokia beteko lukeelakoan.

Bi aldagai genituzke, beraz, kooperatibaren beraren egitura eta antolakunde organigrama batetik, eta kooperatibaren kontuen gain ardura kolektibo gabezia, bestetik. Galdera, horrenbestez, zuzena da, zenbateraino eragiten du kooperatibaren egitura eta botere-banaketak berak, langile-bazkideen interes faltan eta borondate gabezia? Eta alderantziz, zenbat hauspotzen du gogogabetasun sentipen horrek, oraindik eta banaketa bertikalagoa eta erabakien konpartimentazio zorrotzagoa?

Deskribatzen den beste oztopoetako bat, gazteek eredu kooperatiboaren gainean duten ezagutza falta da. Ez da soilik ez dutela kooperatibismoaren eta bere bereizgarrien oinarritzko ezagutza bat, nolabaiteko karikatuzatuzko prozesua deskribatzen dute, egitura ilun, itxi eta nahiko lanbrotsu modura etiketatzen ei da Mondragon:

“Eredu kooperatiboa ez dute ezagutzen gazteek, nolabait ikusten gaituzte sekta bat bezela... ondo dago baina ez neretzat. El Opus Dei eta Mondragon, ez? Jende arraro bat, ondo dago bai baina urruti ikusten dute. Eta balore kooperatiboak etab. ba... hori da las historias del abuelo ezta? Gure diskurtsoak ez du engantxatzen, beste modu batera engantxatu beharko da.”(E04)

Gazteengana iristeko ahultasun sentipen bat nagusitzen da, garai batean baliagarri izan ziren balio-egiturak gaurko errealitatera egokitzeak zaharkituak daudela azpimarratuz. Alabaina, ahultasun hori bere mesederako probestu dezakeela kooperatibismoak iradokitzen da, diskurtso modu berriak eta gaurko errealitatera egokituagoak sortuz.

Horren harira, kooperatibek ordezkatzeko dituzten balioak eta Mondragon taldeak gazteen egungo balioen inguruan egindako ikerketa bat aipatzen da. Lotura puntu asko ikusten dira bertan, eta mezu egokia aurkituz gero, gazte belaunaldiekin konektatzeko aukera asko egon daitezkeela identifikatzen da.

“Esaten dugunean las historias del abuelo, guk kontatzeko erari buruz ari naiz (...) gure ereduak potentzialtasun handiak ditu balore horiekin konektatzeko eta baita ere esanahi sozial bat. Ez da bakarrik lan bat diru-truke baizik beste gauza batzuk ere lortzeko, ezta? Baina hori ezin dugu egin Arizmendiarieta zitatzuz.” (E04)

Nolabait, eredu kooperatiboak bere eguneroko jardunean zentratu du bere burua, transmisioa edo komunikazioa bigarren maila batean utziz ikuspuntu horren arabera. Diskurtso horretan, kooperatibismoak balio erantsia izan badu gazteengan erakarmen-indar bat sortzeko, baina ezagutzen du arazoa, inguru geografiko batzuetatik kanpo apenas ezagutzen da zer den kooperatiba edo eredu kooperatiboa.

Zentzu horretan, *marketing* arazo modura interpretatzen duen iritzirik bada, kooperatibismoa *saltzen* asmatu ez den kontu modura ulertzen duena.

“Nerezako kooperatiba gazteek nola ikusten duten marketing arazoa da. Egin dugu zailena, martxan jartzea enpresa modelo bat askoz justuagoa dana jendearekin, dana antolatuta dago, baina ez dugu saltzen. Beste batzuk ez dituzten gauza pila bat saltzen dituzte, eta guk zailen egin eta gero ez dugu saltzen. Nik uste gazte jendearentzat lana hain prekariora den momento batean eta ezin dutela kooperatiba ikusi zerbait zaharra moduan, kontatu behar zaie zer den kooperatiba bat. Nik neuk ere ez neukan oso argi zer zen kooperatiba bat edo SL bat.” (E17)

Praxi komunikatibo ez-eraginkorra egon dela deskribatzen da, eta transmititzeko moduetan ez dela asmatu. Ikuskeren arabera, mezuarekin eta kanpainarekin asmatuz gero, asko handituko litzateke kooperatibismoaren ereduaren gaineko ezagutza. Horrek balioko luke gazteek dituzten kezka eta balioekin lotzeko eta identitate kooperatiboa lora dadin oinarriak jartzeko. Edozelan ere, Otalorak, Lankik eta beste erakunde batzuek zentzu horretan egin dituzten saiakerak aipatzen dira, baina bi egunetako ikastaro batek zein eragin erreal izan dezakeen bazkideen mundu ikuskeran beste auzi bat da.

“Nik uste enpresa saiatzen dala horrekin. Nik eztaikit zenbat ikastaro egin ditzugun Otaloran, danok bazkide guztiak... saiatzen dira zure iritzixa noseke.. oiñ be bai badabiz Eraldi izeneko beste proiektu batekin. Osea holako proiektuak beti daude martxan (gure kooperatiban), gero ez dakit proiektu horrek eragin asko dauken egia esan, baina beti dauz martxan saiatzeko jendia inbolukratzen gehixao. Baina gero ez dakit zenbateraino eraginkorrak diran, ze azkenian funtzionamendua beste enpresa batzuen oso antzekua da.” (E16)

Ikuspegi materialista batetik begiratuta esan genezake maila komunikatiboan baino maila materialean eta formazio ekonomiko-sozial zehatzaren egituraketan jarri behar dugula arreta. Bestela esanda, transmisio kanpaina indartsuak eta komunikatiboki potenteak martxan jarriagatik, gazte belaunaldien boteretze maila baxua bada kooperatiben baitan (duten lanpostuagatik, ardura-mailagatik, bazkidetza prozesuan sartzeko zailtasunengatik...) mezuaresan esanahia barneratzeke eta bere egiteko bidea malkartsuagoa izango da. Bestela esanda, kooperatiben baitan boterearen konposizioan atzetik datozen belaunaldiek zein posizio daukaten begiratzea da zientzialari sozialaren

ikuspegitik intereseko zaiguna. Kooperatibismoaren zentzuak begirada politiko-sozial baten garapena ere eskatzen duen neurrian, azpimarratzekoa da ikuspuntu soziologikotik belaunaldi berrietako gazteak ez direla mezuak xurgatzen dituzten eragile neutro bat irizpide propiorik gabe, aurretiaz familiarik, eskolatik eta bestelako sozializazio sareetatik begirada bat dakarten pertsonak dira. Akatsa litzateke pentsatzea komunikazio-kanpaina bat egin behar denean mezu horien jasoleak norbanako pasiboak direla. Kooperatibismoaren mundu-ikuskerara transmititzen denean, beraz, aurretik bizkarrean zekarten iritziak indartzeko eta horretan sinisteko balio dezake, edo hasieratik bertatik ereduarekiko mesfidantza duenak, mesfidati izaten jarraituko du, transmisio estrategiarik eraginkorra pentsatuta ere. Bestela esateko, aurretik balio berdinzaleetan eta kezka kolektiboan sozializatutako pertsonak askoz irekiago egongo dira *Arizmendiarrjeta edo Sozialismoa zitatz* jasotzen dituzten mezuetara, bestelako mundu-ikuskeratan sozializatu direnak baino.

Aipatzen dira ere kultura aldaketa orokor batekin lotzen diren faktoreak, gizartearen atomizazio prozesuekin eta norbere etekinaren bila dabilen *homo economicus*-aren zabaltze orokortuarekin harremanean. Funtsean diote, kooperatibagintzaren zentzua eta nortasunaren transmisioa ongi eginagatik zailtasun batzuk sahiestezinak direla.

“Creo que para las nuevas generaciones el modelo cooperativo de ser socio no les da ningún plus. Ese individualismo prima sobre lo colectivo. La cooperativa muchas veces está basada en el bien común, en el bien de la sociedad. Y estas nuevas generaciones no tengo tan claro que eso sea para ellos algo para enganchar (...) Creo que ahora es posible a corto plazo que la cooperativa ofrece una serie de principios y una serie de estas cosas... pero a medio-largo plazo algo tenemos que hacer diferente para que sea un diferencial.” (E01)

“(Gure kooperatiban) gertatu da hain urte gutxitan hainbeste hazi danez kultura kooperatibista gaizki dau. Oñ gara 400 eta piku bazkide, oñ dala 3 urte, 180. 200 eta piku asko dira sozio ebentualak, baina asko kaleratuko ditxue laster, ze hartu zitxueneian beharra zeuan baina orain merkatua estankatu da. Eta holan ba jende berri horrek ikusten dau hori ez dala sentimentu kooperatibista. Nik ikusten dotena da kultura kooperatibista ez dala barneratu asko jende berrian eta gaztian artian. Pentsatzen dabe ni juten naizenian si se hunde esto ba me la suda. (E28)

Gazteak lana bizitzeko dituzten eretan aldaketak hautematen dira, eta kooperatibek eskaini dezaketen lan segurua, jabetza kolektiboa eta enpresaren demokrazia bigarren mailako kezka modura azaltzen direla gazteengan uste dute ardura postuetako kideek. Eraldaketa hori faktore ezberdinei egotzi geniezaieke, kooperatibaren zentzu eta izaeraren ezagutza faltari batetik, baina lan-merkatuaren degradazio orokortuari, harreman sozialen atomizazioari eta lanpostuak izan duen identitate-iturri eta aitortza funtzioaren ahultzeari ere.

Halaber, talaia diskurtsibo horretatik ondoko gogoetara egiten da jauzi: Merkatua, gazte belaunaldiak eta lan-harremanak norabide batean lerratzen badira, zertarako mantendu horren aurka doan egitura sozioenpresarial parekatzaile bat? Nola lortu ezberdintasunezko ezaugarriak mantentzea? posible da beste diferentzial batzuk topatzea izaera kooperatibotik haratago? Galdera irekia bezain interesgarria da planteatzen dena, ikuspegi ezberdinetatik heldu diezaiokeguna. Batek argudia lezake helburuen hierarkiari begiratuta, kooperatiben helburu nagusia ez dela jende berria seduzitzea, ez lukeela horretarako estrategiarik pentsatu behar baldin eta izaera

kooperatibistaren nerbio nagusiak kaltetuko baditu. Kooperatibaren nortasuna eta izateko arrazoia lana eta aberastasuna sortu eta banatzeko sistema demokratikoagoa den neurrian, printzipio horren aurka bideratu daitezkeen edozer sahiestea lortu beharko litzateke. Aldiz, kontrara ere argudiatu liteke, elkarrizketatuak egin duen ildoan: kooperatiba lehia merkatu aldakor eta desegonkor baten itsasoan hondoratu gabe mantentzea da lehen helburua, eta horrek ezinbestean eskatzen du erakargarriak izatea gazte belaunaldiekiko eta kooperatibagintzarekin harremanik izan ez duten sektore sozialekiko.

Gure posizioa ez da talkan egon daitezkeen posizio horietako bat edo beste hautatzea, kooperatibaren errealitate sozialaren analisisan eta euskal gizartearen egoera soziolaboralaren disgnostikoan oinarritzea baizik egin beharreko hautua. Ikusiko dugunez, gazteen arteko langabezia tasa altuak eta gainformakuntza moduko fenomenoak egonik, kooperatibak lanpostu ongi ordaindu bat eskaintzea bera nahikoa erakarmen bada egungo koiunturan. Besterik da zein motatako lan gaitasunak erakarri nahi diren eta ea talentua erretentzeko arazo errealak dauden, baina horrek eztabaidaren beste dimentsio batera garamatza, hurrengo atalean landuko duguna. (Ikus *Talentuaren auzia*).

Hamarkada luzez egituratutako errealitate sozio-enpresariala izateak ekiteko modu eta jardun batzuk normalizatzen ditu, iraunkor bihurtu. Antolakundearen soziologiatik garbi aztertu izan da erakundeetan jokabide eta jardunbide batzuk egonkortzen direla, erakundearen beraren inertziak lagunduta. Bada, gazteriaren pertzepzioan aspalditik datozen joera horiekin hausteko borondatea ageri da, kooperatibismoa eurak parte bilakatuko dituen proiektu bezala ulertuta. Balio post-materialak ageri zaizkigu diskurtsoan, horretara jauzi egin beharra azpimarratzen da. Hor dago identifikatu dugun gatazka nagusienetako bat, nola egokitu errealitate material egituratu eta pisuzko bat (Kooperatiba handiak) post-materialtasun horretara.

“Jartzen ditugu pertsonak erdian, pertsona bat boto bat. Hori oso baloratua da eta oso ezezaguna (...) Lan bat aukeratzeko orduan badago asko autonomia eskaera, ahotsa izatea.. ba nolabait zure burua espresatu ahal izatea, zure ideiak... eta ez ordeno y mando..” (E04)

Egitura hierarkiko eta autoritarioekiko kontrapuntuan jartzen da eredu kooperatiboa. *Pertsona bat, boto bat ordeno y mando* ereduaren aurrean eraikitzen den eredu modura deskribatzen da, gazte belaunaldien artean positiboki baloratua. Ideia horrekin, kooperatibagintza eredu hegemonikoaren aurrean alternatiba eskaini dezakeen eremu gisara aurkezten da, non *errealizazio pertsonal, autonomia* edo bestelako eskakizunek lekua baduten. Kooperatibetan eskaintzen den lana, beraz, ez da soilik sostengu material eta sinboliko iraunkor eta segururako lekua, pertsonaren identitatearen eraikuntza indibidualaren akuilu ere bilakatu daiteke diskurtso horren arabera. Enpresa autoritarioaren eredutik aldenduz, kooperatibak modu demokratiko eta parte-hartzaileagoan hartuko lituzke erabakiak, kolektiboaren osotasuna inplikaturaz erabaki estrategiko garrantzitsuenetan.

Kooperatiba, ikuskera honetan, norbanakoak bere eraikuntza subjektiboa garatu ahalko duen sozializazio eremu bilakatzen da, nor bere irudiaren kudeaketarako tartea dagoen leku. Instituzio sozial malgua, indibiduzio prozesu garaikidearen etorrerak itxuraldatua:

“Creo que las nuevas generaciones necesitan proyectos retadores, no trabajo de por vida. Antes yo creo que se pedía más seguridad y ahora se pide más reto, algo que me atraiga, algo que me ilusione... creo que eso nos va a llevar a que a las nuevas generaciones hay que estar rotándoles cambiándoles.. ilusionándoles...” (E01)

Gazteak, beraz, posizio nahiko autonomo batean jarriz gero, kooperatibaren gaineko pertzepzio positiboa areagotuko dela uste da. “Ilusionatuz” edo laneko zereginak aldatuz kooperatiba egitura dinamiko eta aldakor modura ager daiteke. Indibiduoaren soziologiatik datozen korronteeek gaitasun azaltzaile handia dute hemen (Martucelli, 2017). Indibiduoak baliabide ezberdinak (sinbolikoak, kulturalak, sozialak...) mugiarazten ditu parean topatzen dituen mota ezberdinetako erronkei aurre egin ahal izateko. Norbanako garaikidea beti dago bere kokapenaren baldintza estrukturalak ezartzen dizkioten erronkei aurre egin beharrean (lanean, eskolan, familian...) baina lehen modernitatean ez bezala, sistemaren eta ekintzaren arteko espazioa zabalagoa da orain. Norbanakoari dagokio bertan zabaltzen den espazioaren jarduna kudeatzea. Bada, kooperatibetako langilearen ekintza “liberatuz”, hau da, autonomia handiagoa emanaz indibiduoaren ekinbideari esperientzia bereizi eta partikularrak sortzeko, kooperatibak indartuko direla defendatzen da. Sistemaren eta ekintzaren arteko espazioa zabaltzea da, beraz, aipatzen den gakoetako bat, hor eraikitzen baitu bakoitzak bere singularitasuna.

7.4.2 Espazioaren garrantzia

Jakina da XX. mendeko langile klasearen eta bere identitate eraikuntzaren prozesuan, funtsezko faktore izan zirela langileei loturiko espazio fisikoak eta sozializazio esparruak. Arrasate moduko herri industrial baten esperientzian, non langile mugimendu bizia eta aktiboa egon den, kuadrilak, elkarte gastronomikoez edo txikiteoa moduko praktika komunitarioek berdintasun eta anaitasun sentimenduak errotzen lagundu zuten, lan egin osteko denbora tarte ez-formaletan, baina funtsezko funtzio soziala betetzen zuena taupada kooperatiboaren jostuntzan. Esperientzia horien bidez, mundu-ikuskerak, balioak eta kode kulturalak partekatze baldintzak sortzen ziren, kooperatibagintza eremu sinbolikoan erreproduzitzen, eta praktika zein kapital kultural baten transmisioa posible eginez.

Erreproduzio sinboliko hori posible egiten zuen oinarri materialak, ordea, ez daude gaur orduan bezain indartsu, lanaren banaketa espezializatuari eta jatorri ezberdineko langileen ugaritzearen ondorioz, bestelako faktoreen artean. Auzoak edo herriak espazio fisiko bezala arima kooperatibista hornitzeko zeukan gaitasuna apaldu da, identitate kolektibo baten eraikuntzaren tentsioa eusten duen sare komunitarioaren desegitearen bidez alde batetik, edo irabazi duen dimentsioa oinarri komunitarioetan eusteko ezinezkotasunagatik. Kooperatiben nazioartera hedatzeak eta kopuruan hazteak bidean trinkotasun komunitarioaren galera ekarri du, kooperatibismoaren baitako konfigurazio soziologikoa aniztuz. Azkarraga Etxagibel soziologoak sortzaileei egindako elkarrizketetan jada identifikatu zuen prozesua dugu:

“Sortzaileek diote garai bateko enpresa-bilerek edo langileen batzarrek egungo bilera azkar eta eraginkorrek baino askoz ordu gehiago irauten zutela, eta balio kooperatiboak

gogoratzeko balio zutela. Hainbat espazio, lehenik eta behin, pedagogia kooperatiborako eta esperientziaren baloreak erreproduzitzeko esparru gisa ulertuak ziren. Gaur egun, ostera, baloreez jardutea onenean zaharkituztat har daiteke; txarreanean, doktrinatzeko-saiakeratzat” (Azkarraga, 2007: 1292).

Xavier Domenech historialariak, espazio fisikoaren garrantzian jartzen du arreta langile klasearen identitatea eraikitzerako orduan, eta horren bueltan taupatuko zuen sare komunitarioa ehuntzerako garaian. Herriak eta hari loturiko komunitate praktikek posible egiten zuten beste talde sozial batzuegandik bereizten zen identitate kooperatibista bat errotzea, euren erreprodukzio eta sozializaziorako berezko esparruak garatuz. Identitate kolektiboaren eraikuntza prozesua geldoa eta pausatua izaki, osagai ezberdinak behar ditu edukiz ondo hornitutako identitate arrakastasua lortzeko, tartean erreprodukzio sinbolikoa. Azkarragak aztertu zuenez, identitatea birsortzeko espazio gisa jarduten zuten ogitartekoa jateko momentuak eta lan-osteko *poteoak*, une eta gune partekatutako edukitzea funtsezkoa zen talde identitate sendo baten eraikuntzarako. Gizarte lokalean txertatuta zeuden praktika komunitarioek talde pertenezia sentipena sakontzen laguntzen zuten, bai langile klaseak zein ugazabak talde berean integratuz eta hartara bi munduen arteko arrakala sozialak areagotzea ekidinez. Gaurko kooperatibetan nekez lortzen da ordea erreprodukzio sinbolikorako tarterik. Herri ezberdinetako langileak biltzearen eta lanaren izaera gero eta digitalagoaren ondorioz, ziberespazioak geroz eta leku handiagoa hartzen du lanlekuetan, bestelako sozializazio forma batzuk gorpuztzen dira. Hala irakur dezaiokegu LKS-ko pertsonen aholkularitzako arduradunari telelanaren inguruan:

“Ikerketek frogatu dute produktibitatea igo egiten dela. Askotan idealizatu egiten dugu bulegoa, lan giroarekin lotuta baina ez da zergatik horrela izan behar. Askotan etxean kontzentrazio maila handiagoa da eta produktibitatea igotzen da. Langilearentzat ere onuragarria da. Frogatuta dago estresa jaisten dela. Kontziliazio kontuatarako ere abantaila asko eskaintzen ditu telelanak, batez ere kontuan hartzen badugu lantokietako joan-etorrietan egiten dugun denbora, izan ere batzuetan beste ordu batek edo ordu eta erdi erabiltzen du jendeak joan-etorrietan.” (Ander Sansienea, 2020/10/19, Tulankide)

Aipuan telelanaren aldeko bira kultural bat gertatzen ari dela interpretatu liteke. Lanlekuak eskatzen duen presentzia fisikoa kaltegarri suerta daiteke dimentsio psikologikoan eta produktibitate mailan igotzea lortzen da. Beste auzi bat litzateke lanlekua fisiko-tenporalki ez partekatzeak eta lanlekuetik kanpoko sozializazio esparruen agortzeak zein modutan eragiten dion AKE moduko esperientzia bati, transmisioaren, kode kultural konpartituen eta mundu ikuskeren talaiatik. Kooperatibista izaera sentitzea lortzeko prozesuak eskatzen du praktika kooperatiboaren esperientzia partekatua, horrek ahalbidetuko baitu mundu-ikuskerak eta sentiera zehatz baten taupatzea, beti konplexuak diren prozesu kognitibo eta emotiboen galbahetik pasata. Dena den, ez da bistatik galtzen telelan orokor baten inplantazioak izan ditzakeen eraginak harreman sozialen ahultzeari begira, eta ohartarazpena argia da zentzu horretan.

“Esate baterako, asteko bost egunak etxetik egiten badugu lana, eta ez badugu bulegora joateko aukerarik, ahuldu egiten dira lankideen arteko harremanak, eta ez bakarrik lan arlokoak baizik eta harreman sozialak ere, izan ere lankideekin bulegotik kanpoko gaitaz ere aritzen gara. Hau da, lan espazioa gure sozializazioaren espazioa ere bada. Hori guztiz ezabatzen badugu, langileak enpresarekin duen erlazioa eta identifikazioa ahula izango da. Horrez gain, muturreraino eramaten badugu telelana, langilearen

promozioarekin ere izan dezake zerikusia. Izan ere, presente ez dagoen pertsonaz baino errazagoa da bertan dagoenaz gogoratzea. Animalia sozialak gara eta sozializazioa beharrezkoa dugu.” (Ander Sansienea, 2020/10/19, Tulankide).

Zaila zaigu telelanaren eta espazio fisikoa ketzearen ondorioak zentzu kuantitatibo batean neurtzea, trinkotasun soziala neurtzeko adierazleetatik tiraka ez bada. Edozein kasutan, lankideekin lan esparruaz kanpo sareak josteko aukeren ahultzea diagnostiko bateratua da, eta telelanaren etorrerak sor ditzakeen arriskuen kontzientzia egon badago elkarrizketatuen artean. Lantegitik kanpoko instituzio sozialek (kuadrila, elkarateak, bestelako sare asoziatiboak...) balio kooperatiboen zabalkunde kulturala posible egin zuten bezala, gaur instituzionalizatuago dago funtzio sozial hori beteko duen eragilea. Dena den ezin dugu bazterrean utzi langile klaseak bere ekimenaren bidez zituen nukleo ezberdinek, bide *natural* bat eskaintzen ziela garaiko aldarrikapen, arazo eta planteamendu nagusiak herriratzeko. Espazio fisiko berean egoteak eta gorputzetik gorputzerako harremanak elkartasun energiak elikatzen ditu eta baita identifikazio kolektiborako prozesuak erraztu ere.

Ikuspegi ekosozialetik zabaltzen zaigun koiuntura berriak erabilera material gutxiagoren bidetik lurraldeen eta herrietako sare komunitarioen berrindartzea etor litekeela sostengatzen du. Ideia horrek lotura zuzena du azaltzen ari garen espazioaren ketzearekin eta lan digitalaren zabaltzearekin; izan ere, muga materialak bere gordinean agertzeak langile lurraldekoago, eta lantegikoagoak bilakatuko dituela pentsa liteke. Ikuspegi sinbolikotik, ekonomiaren birtokiratzeak eta prozesu produktibo nagusien birjabetzeak langileen eta herritarren arteko kontaktuak biderkatzea eragin dezake, identitate kolektiboen berreraikuntzarako euskarri sendoagoak ipiniz. Krisialdi sozio-ekologikoak espazioaren eta lurraldearen aldarria lehen planoan jartzen du, eta hor identifikatu den identitatearen ahultzeari buelta emateko baldintza sozial eta materialak jartzen ari direla esan genezake. Horrez gain, ekonomia digitalaren orokortze masiboaren ezinezkotasuna kontuan hartzen badugu, norbanakoaren sozializazio eremuak ostera ere lanlekua, kalea eta plazak izan daitezke. Krisi ekosozialak modernitatearen atomizazio sozialari bira emateko aukera-lehioa ireki lezake, eta hor paper garrantzitsua jokatuko du komunitatearen eta espazio fisiko partekatua berrindartzeak.

7.4.3 Gazteak kooperatibismora gerturatuz: Subjektibotasun fordistak? Alienazioaren oihartzuna.

Kooperatibismoaren erreprodukzioa belaunaldi berrietan Arrasateko Kooperatibek ipar estrategikotzat dute. Jarraian gazteek kooperatibismoa edo kooperatiban lan egitea zein modutan identifikatzen duten aztertzer pasako gara. Funtsezkoa zaigu atal hau lantzea, ikuspegi ekosozialetik gazteak baitira mugimendu sozialen mailan gehien mobilizatzen ari direnak krisi klimatikoaren aurrean neurriak hartzeko eskatuz, edota tokian tokiko borroka sozio-ambientaletan. Gazteen begiradatik kooperatibismoarekiko dauden pertzepzioak, iritziak eta diskurtsoak ezagutzeak baliko digu ondoren lotura egiteko ea trantsizio ekosozialean baliagarri suerta daitekeen eredu arrakatatsu modura ulertzen

duten, edo bestelako egituraketa eta antolakuntza moldeak beharko genituzkeen alor ekonomikoan trantsizio ekologikoa berdintasun eta justizia sozial parametrotean gauzatzeko.

Funtsean, eta agian gehiegi sinplifikatuz ageri daitezkeen ñabardurak eta iritzi-korrontek, galdera da ea Arrasateko Kooperatibismoa gizarte eraldaketarako esparru gisa definitzen duten, edo kontrara, ohiko lanpostu baten dihardutela iruditzen zaien. Bada, lehenik eta behin belaunaldi-haustura bat egon badagoela identifikatzen da, egin dizkiegun elkarrizketetan gazte belaunaldiek beti hirugarren pertsonan hitz egiten dute kooperatibismoaz, euren burua esperientzia horren erroetatik aldenduz. Beste belaunaldi bati dagokion gai gisara bizi dute, eurak parte zuzena ez direna, emanda eta eginda jaso duten zerbait bailitzan irudikatu dute.

“Azkenean belaunaldi zaharragoek beste era batera bizi izan dute kooperatibismoa. Nik uste bizi izan duzun horrek markatzen dizula zure iritzia. Gu orain heldu gara kooperatibara [gazte bezala] eta ikusten dugu orain bertan dagoena eta zer bizi izan duten... baina azkenean guk ez dugunez bizi izan lehen pertsonan lehengo garai hori ba... agian ez gara errealistak.” (E02)

“En cuanto al cooperativismo, al final cuando te cuentan la historia es muy bonito... porque era como que necesitamos, ¿medicina? pues creamos Lagun Aro. ¿Formación?, pues hacemos un centro de formación... pero hoy en día al haber tanta gente y así el compañerismo se ha perdido, cada uno mira a lo suyo al final y no tenemos ese modo de ver las cosas que tenían ellos.”(E09)

“Nik bai neukan pixkat idealizauta kooperatibismua sartu aurretikan, baina behin ezagututa barrutikan... dakazu idealizauta ba erabakiak danon artian hartzen dirala, benefizixuak banatzen dirala ta... baina hori da bastante... barruan zauzenian ez dozu ez erabakirik hartzen, benefizixuen ehuneko txiki bat ikusten dozu... bakarrik urte asko doiazenek sentitzen dabe euren moduan” (E11)

Gaurko gazteek kooperatibetan duten esperientzia eta haiek kooperatibismoaz entzun izan dutena oso ezberdina dela aipatzen da. Nabaria da kooperatibismoaren hazia beste garai eta baldintza historiko-sozial batzuetan eman zela, behar material gordina zegoenean. Ezer ez zegoen tokian ziurtasun egitura batzuk sortzeeko eginkizuna bete zutela aipatu du elkarrizketuetako batek, baina behin ongizate material maila esanguratsu batera iritsi ondotik, hasierako elkartasun eta garapen komunitarioaren indarra ahultzen da, indibidualizazio prozesu garaikideekin loturan. Gazteen pertzepziotik behintzat ez dago aterki beraren azpian biltzen dituen proiektu eraldatzailerik, laneko eremua da partekatzen duten bakarra eta horrek kezka sortzen duen arren ez dago jarraitu beharreko ipar politiko erakargaririk. Garai batean kooperatibagintzaren jardura bera bere partaideen konpromiso soziala garatzeko toki legitimotzat jotzen zen bezala, gaurko militantzia esparruak beste nonbait garatzen dira. Ez da Arrasateko Kooperatibismoa gizarte eraldaketaren akuilu interesgarri izan daitekeen irudirik nagusitzen gazteen diskurtsoetan, ezpada beste garai baten lekukotasuna ematen duen historia modura, gaurko kezka, beldur eta eraldaketa-bulkada azpimarragarrietatik urrun dagoen espazio moduan.

Horren adierazgarri izan liteke lanpostu bat hautatzerako orduan ea era kooperatiboan lan egitea funtsezkoa den beraientzat edo beste ezaugarri batzuk lehenesten dituzten.

Gehiengoak kooperatiban lan egitea euren aukeraketaren bigarren mailako aukerak litzateke, gehiago begiratu lanari berari edo dauden baldintzei.

“ (...) a la hora de coger un trabajo miraría más si es un contrato indefinido, el horario y tal.. el hecho de que sea una cooperativa es algo secundario.”(E09)

“Lanpostu berdina balitz, baldintza berdinekin eta... ba agian bai aukeratuko nuke kooperatiba bateko lanpostua beste edozein enpresatakoaren aurretik. Baina lana bera gehiago gustatuko balitzait beste enpresa batean, ba ez dut uste ere eskaintza ukatuko nuenik.” (E08)

Alabaina, esperientziaren transmisioan egin diren ahaleginek ere izan dute bere emaitza. Diskurtso batzuetan atera da, historia hori propioa ez izanagatik, egin den guztiarekiko errespetua eta miresmena. Lan esparruan eman izan diren borroken ondorio modura identifikatzen da kooperatiba, langileen bizitza arautu eta hobetu duena. Gaurko diskurtso batzuekin kontuz ibiltzeko ohartarazten du:

“Hemen egon dira aldarrikapen asko 40 ordu astean eta 8 ordu egunean lan egiteko. Eta orain ari dira buelta bat ematen horri, esaten eguneko 10 edo 12 ordu pasatzeko gustuko duzun lanean... eta nik esaten dut, aber, hemen hildakoak egon dira oporrak eta gure jornada edukitzeko... eta horrekin kontuz ibili behar da. Eta kooperatibetan hori dago, daude estatutuak hori dena erregulatzen dutenak ondo.. Igual SA baten esaten dizute eh! Igandean etorri behar zara lanera y tienes que ir si o si porque si no ya sabes lo que hay.”(E08)

Hau da, gaurko errealitate sozialak norbanako bakartiago, pragmatikoago eta lehiakorragoa sustatzen badu ere, gazteen artean iritzi korrante bat ageri zaigu, kooperatiba eta ohiko Sozietate Anonimoko enpresa kapitalista bereizten duena. Kooperatibaren elementu instrumentaletik haratago, kooperatibismoaren jarduerari orientazio politikoagoa ematen asmatzen duen lurzoru bat badago, nahiz eta eguneroko jardunean “izan beharko litzatekeenaren” eta “zehazki denaren” artean dagoen tartea kritikatu. Puntu honetan, ordea, garrantzia du elkarrizketatu bakoitzaren kapital politiko eta kulturalak, izan dituen irakurgaien, parte-hartu duen espazio politikoaren edo gurasoengandik oinordetzan jaso duen kapital kulturalaren arabera asko aldatzen baita Arrasateko Kooperatibagintza azalpen-marko herrigile batean kokatzeko joera, edo enpresa bat gehiago modura ulertzekoa. Esaterako, narratiba kritiko indartsu bat ere aurkitu dugu elkarrizketatuetan, uste duena beste edozein enpresaren antzera jarduten duela kooperatibak.

“azkenian kanpotik ikusten dozu dala beste modu bat enpresa eruateko, azkenian danak gara enpresa horren barnekuak eta erabakiak danon artian hartu beharko ziran... baina gero heltzen zara bertara eta beste numero bat zara beste edozein enpresatan bezala (...) asko oso komodo daude, imaginatu zoaz 30 urte hor eta bakarrik irabazietan emoten dizute 12.000 euro... jende hori oso eroso dago eta ez da sartzen gauzak aldatzera” (E11)

Aipu honek kooperatibaren gaineko ulerkerak instrumentala lehenesten du. Diskurtso korrante horren arabera, kooperatiba geroz eta indibidualizatuago, hauskorago eta likidoago den gizarte batean hornidura ekonomiko-materiala ziurtatuko duen toki da, ez gizarte eraldaketarako taupada. Kooperatiban bazkide bilakatzea, ardura kolektibo

baten parte bilakatzea baino, norbere buruarekiko ardura hartzea balitz bezala deskribatzen da, jada egituratua eta merkatuan ondo kokatua dagoen talde ekonomiko-enpresarial batean lanpostu seguru bat izateak buruhauste ugari saihesteko bide modura interpretatzen duena. Merezki du, ordea, irakurketa honek ñabardurarik, herri mugimenduen soziologian ere hautu arrazionalaren teoriak era bertsuan argudiatzen baitu. Zergatik hartzen dute parte pertsonak mugimendu sozial eta politiko ezberdinetan? Haien arabera, herri mugimenduetan murgiltzea norbere estatusa eta kokapen soziala hobetzeko bidea litzateke batez ere, bestelako kontsiderazio moralen aurretik (Friedman eta McAdam, 1992). Hitz gutxitan esanda, norbere etekin propioa bilatuz sartuko lirateke pertsonak eremu militanteetan parte-hartzera, kolektibotasun baten parte sentitzeko eta norbere desirak betetzeko tresna modura erabiltzeko. Gure irudiko, eta kapital kultural eta politikoaren hausnarketarekin lotuz, kooperatibako kide bakoitzaren ibilbide biografikoetan eta sozializatu den inguru kulturaletan bilatu beharko genituzke izaera kooperatista garaikidearen sustraiak zein zorutatik datozen. Aurretik esperientzia politiko eta sozial ezberdinak bizi izan dituztenak, kolektibo ezberdinetan, edo familiatik kooperatibismoaren ulerkera zuzena jaso dutenak, lurraldearen eta kooperatibak bertan jokatu duten paper historikoaren kontzientzia eramaileago izango dira, interes-talde batetik haratagoko helburuak esleitzen dizkietenak.

Hau esanik, adierazgarria da “bakoitza berera” doaneko sentipenean arreta jartzea, gai kolektiboek gutxi arduratzen ei dute. Soziologia garaikideak identifikatutako likidotze prozesua gazteek eginiko diskurtso nagusietan oso txertatua dago, eta kooperatibismoaren esperientzian ere arazo hori ikusten dute arrisku nagusi modura.

“Jende zaharragoak agian gehiago kontrolatzen ditu gauzak eta berriak garenon artean ba pixkat denetik dago... 20 urteko batek igual pasatu egiten du... eta jende zaharragoak barneratuagoa dauka gauza batzuk egitearena,”autokontrolarena” adibidez. Tragatuago dute lo de que “enpresa hau guztiona da”.. baina zu berria zara eta esaten duzu “zurea izango da ze nirea ez da ezer”. Baina beno, badago ere jendea zaharra dena eta esaten duena ni utzi bakean ia.” (E09)

Transmisio galera nabarmen bat dago, are gehiago familiatik kooperatibismoa zer den jaso ez dutenen artean. “Zurea izango da ze nirea ez da ezer” moduko esaldiek gatazka analitikoki interesgarri bat planteatzen zaigu: lan munduak berarekin atxikia dakarren ardura, presioa eta tentsioa zein puntutaraino norbere egin. Bazkide izan edo ez, kooperatiba lanarekin, eginbeharrarekin, gatazkekin eta botere-harremanekin identifikatzen da, hots, lan munduarekin. Aurreko belaunaldiak eredu kapitalistak enpresa barruan zekarren esplotazio-harreman ageria ezagutu zuen; gaur lausoagoa da esplotazioa zein modutan gertatzen den, eta kooperatibara murgiltzen den gazteak sentipen horiek garatu ditzake. Bestela esanda, behin lan munduan sarturik, hasierako esperientzia kooperatiban baldin bada, pertsona horrek tentsioak, lanaren ardurak, diziplina eta abarrak kooperatibarekin lotuko ditu, bere langile identitate *koertzionatua* kooperatibak marraztuko du. Hortaz, botere ezarpen horrekiko erresistentziak garatuko dira, kooperatibismoarekiko identifikazio sendoak garatzea oztopatuko dutenak. Bestalde, “zurea izango da ze nirea ez da ezer” esaldia, lan ebentualak egiten dituen gazte baten eskutik jaso dugu, zeinari aurreko faktoreez gain kooperatibarekiko atxikimendu materiala ere falta zaion. Hau da, gazte horrek eta bere egoeran daudenek ez dute parte hartzen enpresaren jabetzan eta ez dute ere berau sortzeko erabakian parterik izan. Momentu koiunturalean lana eskaintzen badie ere, haunegan zailagoa da

kooperatibarekin identifikatzea, enpresa ongi joan edo ez, ez dutelako jubilatzen direnean euren partea salduko eta, beraz, kooperatibaren balioa etorkizunean handitu edo txikitu berdintsu zaie ikuspegi instrumentaletik.

Zentzu horretan, kooperatibismoarekin lotzen den identifikazio faltak eguneroko ekintzetan ondorioak dituela adierazten dute. Gazteek, euren lan-jardunari helburu batez ere instrumentala lotzen diotela identifikatzen da, eta kooperatibismoari dagozkion bestelako ekimenetan parte-hartu behar dutenean, zailtasunak daudela azaleratzen dute:

“Nik ikusten dut jende asko dagoela.. ba! Ni noa lanera, gero noa etxera eta iasta... adibidez joaten direnak Kontseilu Sozialera edo holako istoriak daudenean.. esaten dute nik ez dut gura... baina kooperatiban badakigu zer dagoen, si te votan tienes que ir... eta ez da zuregatik, besteak ordezkatu behar dituzulako baizik... Ikusten da jende batek ez duela sinisten eta berdin zaiola, eurentzako lana besterik ez da, si es cooperativa ba cooperativa, si es SA pues SA... baina hori bai, si hay beneficios... orduan denok bazkide” (E08)

“Kooperatibismo hori... ba jende zaharragoa bai ikusten da inplikauta, lanian... erabakiak hartzeko momentuetan euren artian berbetan ta, baina jende gaztiak bere lana eitxen dau eta badoia... gero bazkide eitxen badute ba de puta madre baina inplikaziño gutxi dau, jendia doia bastante beran bolara” (E11)

Interes falta horrek ardura delegazio bat erakusten du, zuzendaritza taldeari edo kooperatibaren kudeaketaren erantzukizuna dutenengan jarria. Lan jardunaren bereizketa zurrunagoa barneratu dela ematen da aditzera “ni noa lanera eta gero etxera eta iasta”, norbere zeregin zehatza bete eta osotasunarekiko kezka murrizten dela iradokitzen da. Alabaina, ez da gazteen ikuspuntutik hori gazte belaunaldiari soilik dagokion ezaugarri gisa bizi, langile kolektibo osoa zeharkatzen duen joera modura baizik.

“Nik bietan ikusten dut eskakeoa... gazteetan eta jende nagusian... agian lehen bai zen gehiago taldean lan egitea eta horrelako gauzak baina orain denok antzeko.. igual gizarte bera ere horrelakoa delako, bakoitzak gehiago begiratzen du bere buruarengan” (E05)

“Nik uste dut, hemen tailerrean oso indibidualak garela. Hemen talde lana eta hori... Justo aldrebes... Nik nirea, eta zu baino hobeto, eta... Eta hau horrela izan da beti, edo aldaketaren bat egon da? Nik uste dut horrela izan dela beti. Baina esango nuke, bultzatu ere egin dela. Azkenean, ribaltasun hori edukitzeak, produkzioa areagotzen duela. Karo, bada modu bat emaitzak lortzeko. Eta azkenaldian asko ikusten da hori, ambientea nahastuta dago... Eta karo, zure postua galtzeko beldur baldin bazara, ba albokoa zapaltzea errazagoa da” (E33).

Ikuspegi horretatik, ezin daitezke gazte belaunaldiak jarri soilik kooperatibismoarekiko erakarmenik gabe, kooperatibistak gizartearen isla diren neurrian, gizarte prozesu garaikideek pisu nabarmena dute enpresa barruan bertan. Eraldaketarako bulkadak ahul eta gizartearen atomizazioa indartsu dauden garaiotan, zaila da kooperatibak ere izaera kooperatibista *klasikoarekin* janztea, gizartearen ardatz nagusiak beste norabide batean ari badira tiraka. Interesgarriagoa zaigu, hortaz, kooperatibetako gazte belaunaldiek (eta

ez soilik gazteek) eredu kooperatiboarekiko ezartzen duten harremana prozesu zabalagoen baitan azaltzea, balio neoliberalen indartze fase baten testuinguruan.⁶⁵

Alienazio puntu bat egon badagoela gazteen artean detektazen dugu, hortaz. Langileak bere lan orduak asegarri ez zaion jarduera batean ematen ditu, eta ez du zeregin horretan zentzu-iturririk aurkitzen. André Gorzek, desazkunderako autore horren iradokitzaileak, esan zuen jada duela lau hamarkada alienazio maila gutxienekoa sahiestezina zela gizarte industrialetan (Gorz, 1980). Gazteen artean bezala, helduago diren langile-bazkideetatik ere jaso dugu ildo horretako baieztapenik.

“Nire ustez etekinak eta irabaziak badaka bere garrantzia, ze lanera zoaz etekinagaitzik. Neri bidaliko bazosten etxera beste zeoze eiño nuke seguraski, nire istoriak eiño nitxuan, baina enintzan juango goizeko 7etan biharrera egunero, hori seguro! (barreak) Semea eramango neban eskolara ta gero jasotzera jun, edo ezdakit.” (E16)

Diskurtso hau kontraesanean sartzen da langileria industrialia desazkundearekin lotzeko zailtasunak zituen diskurtsoarekin. Bertan industria jardueran elementu atsegingarri batzuk eta euren subjektibotasunaren eraketarako sustrai zenbait aurkitzen zituztela jardun produktiboan esan dugu. Adin gazteagoen dauden langileen aldetik ordea alienazioaren zentzua gordinagoa da, agian euren ibilbide profesionalaren hasieretan daudelako eta oraindik sendo egituratu gabeko industriako langileen identitatea ez dutelako bere egin. Era berean, ez da gauza bera hogeita bost edo hogeita hamar urterekin lanez eta sektorez aldatzea edo jubilazio adinetik gertu dagoen pertsona batentzat.

Gizarte eraldaketarekiko galderara itzuliz, elkarrizketatuko gazteek oro har ez dute ikusten kooperatiban lan egitea eta modu kooperatiboan jardutea gizarte egiturak eraldatzeko praktika denik. *Beste lan bat* modura ulertzen da, fordismo gogorretik datozen alienazioa eta horren truke jasotako gizarte babesa izanik kontratuaren bi aldeak, Robert Castelek definitutako zentzuan. Bestela esateko, ez da gailentzen *lanaren bidez* askatzen direla iradokitzen duen interpretaziorik. Lana ulertzeko modu hau gertuago dago italiako operaistek ematen zioten zentzutik (60ko eta 70ko hamarkadan) ondoren etorri diren tesi post-materialetatik baino. Bestela esanda, lan jarduera interes utilitario bati jarraiki burutzen da eta esplotazio maila jakin bat onartzen da trukean, jakinik osasugintza, hezkuntza edota opor ordainduetarako eskubidea izan badutela. Laburrean, itun sozial fordistaren oinarriko ezaugarriak. Kooperatibak, zentzu horretan, gizarte post-fordistetan mantendu diren ordena sozial keynestarraren aztarnak lirake.

Hala ere, ezberdintasun bat egitea komeni zaigu lantegian egin ditugun elkarrizketen eta bulegoan lan egiten duten langile gazteen artean. Bestela esateko, *ezagutzaren ekonomia kognitiboko* langileen eta *ohiko ekoizpen industrialeko* langileen artean. Lantegietan elkarrizketatu ditugun gazteen gehiengoak, lanarekiko ulerkera instrumentala erakutsi du, bakoitzak eskatzen zaion zeregina ahalik hoberen eginez, baina jakinik bere bizimodua lantegiko ateetatik kanpo kokatzen dela, eta ez duela etengabeko hobekuntza kognitibo eta teknikoetan aritzeko bulkadarik. Bestela esateko,

⁶⁵ Kooperatibismoan sustraitu diren balio-egiturak zalantzan jartzen dira azken hamarkadetako kudeaketa ildo neoliberalarekin, non norbanakoa eta bere jardun partikularra diren jarraitu beharreko ipar. Margaret Thatcherrek 1987an formulatu zuen esaldi aski ezagunarekin azaldu liteke nagusitu den mundu ikuskera hori esaldi bakar batean: *There is not such a thing as society, there are individual men and women and there are families.*

norbere enpresariaren eta subjektibotasun postfordistaren tesia ez dugu enpirikoki kontrastatzerik elkarriketatu hauen artean, lanaren ulerkera klasikoago bat egiten dute bere. Beraien gaitasunak hobetzeko borondate sendo bat agertu izan balute, edo formakuntzarako prestutasun suhartsua erakutsi, agian bai aurkituko genituzke norbere enpresari foucauldiarraren tipo idealarekin loturak egiteko zantzuak, baina ezin dugu lantegietako errealitate sozialean tesi hori sostengatu. MK-ren tamainan sektore industrialak duen pisua kontuan hartzen badugu, ez da nolana hiko datua fodismoaren egite-moduen elementu zentraletako batzuk iraun dutela kontrastatzea.

“Lana garbia izatia... zikintziak berak ez desta molestatzen baina auskalo zer ari zaren jaten. Gero pisua ez erabiltzia be, azkenian askotan pisua eskuz mugitu bihar da eta hori gaztiak garenian ez dozu igartzen baina epe luzera begira arazuak emoten ditxu. Eta gero soldata duina eukitzia eta jefiarekin ta lankidiekin harreman ona eukitzia... danok gauz behartuta lanera jutera baina giro ona badau ba beste modu baten zoiiaz.” (E08)

“Lankideekiko ta harremana ona da, baina danon harremana enpresarekiko en plan hau guria da, danok atera behar dogu aurrera noseke.. hori ez dau, ze badakizu bueltan ez dozula ezer jaso behar bez... osea lana ondo eifñ eta bai baina no te dejas los cuernos como quien dice enpresagaitxik, ze badakizu nahiz ta zuk dana emon igual kalera zoiazela lehenengo krisia datorrenian” (E11).

Kontrara, *kapitalismo kognitiboko post-fordistaren* elementuak era argiagoan agertu zaizkigu bulegoko lanak burutu behar dituzten gazteak eta proiektuak lan egiten dutenak elkarriketatzerakoan. Jaso ditugun testigantzen artean, egoera psikologiko-motibazionalarekin lotuak dauden hitzak identifikatu ditugu. *Gustora egotea*, harreman onak izatea eta abar azpimarratzen dituzte lanpostu onaren definizio gisa. Produktzioan ari direnek gehiago begiratzen diete baldintza materialei, laneko segurtasuna, garbitasuna, pisu haundiak mugitu behar ez izatea... aipatzen dituzte lan on bati eskatu beharreko kontu modura, soldataren eta ordutegiaren gaia azpimarratzearekin batera.

“Neretzako lan on bat eukitzea lehenik eta behin lan horretan gustora egotea da. Jendearekin eta egiten duzunarekin. Ahal den neurrian gustatzea da inportantea, gustatzen bazaizu gustorago joango zara lanera. Baldintza onak ere eukitzea garrantzitsua da, ez bakarrik diru aldetik, ordutegia, lan garbia izatea, zarata gutxi...” (E08)

“Para mi tener un buen trabajo es tener un horario flexible por ejemplo. El aspecto económico también. El hecho de que puedas combinar y tener reducción de jornada... que sea compatible con tu puesto de trabajo. Que estés a gusto con lo que haces es importante.” (E37)

“Neretzat lan on bat da: 1/ Pozik etortzea lanaera eta etxera heltzea gauza gehiago egiteko gogoz 2/ Kreatiboa izatea 3/ Lankideen arteko harremanak oso garrantzitsuak dira 4/ Garapen pertsonala ahalbidetzea, norberaren auto-ezagutza garatuz 5/ Bokazioarekin lotua” (E02)

Hobetzeko nahiaren eta *giro ona*-ren ideiez gain, bulegoko langileen artean ere agertzen dira baldintza materialei loturiko kezak. Bi ideiak oro har elkarri lotuak agertzen dira, elkarren osagarri. Bestela esanda, motibazioa pizteko arrazoietakoa bat (ez bakarra) soldata egokia, laneko osasuna bermatua eta arrazoizko ordutegia dira.

Bulegoko lanpostuetan artikulatu diren diskurtsoetan *erronka* edo *behar* modura egituratzen da motibazioa edo errealizazio pertsonalaren ideia, nolabait modernotasunean lanari eman izan zaion zentzu lineal eta sakrifikatutik haratago iritsi guran. Maila indibidualera eta norbere egoera emozionalera begiratzean aipagarria da estrategia subjektibo berriak mugiarazten dituztela, bere buruari ekiteko espazio zabalagoa aitortuz. Oztopoak sortuko balira berauek nolabait konpontzeko gaitasuna atxikitzen diote euren buruari, lan-munduan ohikoak diren eta modernitatean zutabe zentral izan diren hierarkia soziolaboralak gaindituz eta ekintza-erabaki eremua beste puntu batean jarriz. Norberari ezarritako auto-diziplinaren bidez, lan munduak ekarri ditzakeen agertoki ziurgabe eta prekarioan bidea irekitzeko borondatea erakusten da, lan saiatuaren eta kalkulu arrazionalaren bidez egindako aurrerapenekin.

Lanpostu egoki eta *on* batean, beraz, psikologizazio prozesua nabarmena da, gaitasun kognitibo eta inmaterialak sartzen dira jokoan eta beste trama laborala bat josten dute, zeregin produktibo hutsetik haratago doana.

“Niretzat harremantzeko gaitasuna oso inportantea da. Bizitzaren erdia edo laurden bat lanean pasa behar duzu eta beti hobeto da lankidearekin ondo konpontzea txarto konpontzea baino, aldaketak egiteko, azaltzeko nola egiten diren gauzak... Gure artean ondo konpontzea ez da barrezka egotea eta juergan joatea, lana gaizki egin badu ere gauza batzuk esateko konfiantza izatea da.” (E13)

“Nere ustez jendeak lan-taldeetan gustora eta gogoz hartzen dituzte lanak. Enpresa honek daukan gauza on bat bada proiektuak asko aldatzen direla, orduan erronka hori mantentzen denez agian gogotsuago hartzen duzu betiere lana.” (E02)

Azpimarragarria da elkarrizketatuen aipuetan ibilbide luzeko lanpostuez ari direla, kooperatibak eskaintzen duen segurtasun iraunkorraren isla. Lan-merkatu garaikide oldarkorrak geroz eta prekarizazio prozesu nabarmenagoak dauzkan honetan, kooperatibek jarraitzen dute elkarrizketatuen iruditerian etorkizunean babes material-laborala eskainiko duen leku izaten. Horrek lotura zuzena du aipatzen dituzten espektatiba kulturalekin, bizi-proiektu bat garatzeko aukera izatea, kontsumora sarbidea, diru-maillegua lortzeko aukera estatus sozial erdi-altuan kokatzea. Aipatzen dituzten lan-estrategiak lotura dute euren heldu-hiritar auto-eraketarekin, euren burua kooperatiban proiektatzen dute epe ertainean. Bestela esanda, lanaren instituzio sozialak indar subjektibatzailea du bulegoan lan egiten duten gazteengan, eta euren burua arduratsu, errespetagarri eta erabilgarri hautemateko modua ikusten dute kooperatiban.

“Bai profesionalki zein pertsonalki exigentzia bat eskatuko lidakeen lan bat da neretzat lan ona. Gustatuko litzaidake gustora eta eroso egotea baina baita ere erronka hori edukitzea. Etorkizunean (mailaz) igotzeko aukera daukan lana izatea ere (...) Lanak gure bizitzetan espazio haundia dauka eta horrek horrela jarraitu beharko luke. Baloratua sentitzen naiz eta gustora nago baina beti beste lehentasun batzuk daude eta ez zaigu hori ahaztu behar.” (E06)

Mailaz igotzeko aukera aipatzen da lan on baten estimulagarri gisa. Nolabait kasu honetan kooperatibak zentzu-artikulatzaile funtzioa betetzen du lan-ibilbidearen hastapenetan daudenengan. Eskema aurre-determinatu bat prefiguratzen da, baina ez da hori zentzu hertsatzaile edo diziplinatzaile batean bizi; aitzitik, norbere garapen pertsonalerako biderik egokiena balitz bezala aurkezten da, biografia laborala hasieratik bukaeraraino hari koherente batek zeharkatu dezan. Bizi-ibilbide linealaren aldeko

balorazio subjektiboa ageri zaigu, lanak euren lehentasunetan zentraltasun handia duela iradokiz.

Martucelli-ren parte-hartzeko prospekzioaren kontzeptua erabiliz, esan dezakegu, norberaren bereizgarritasun eta orijinaltasun ideia horiek, beraz, norbere garapen, gaitasunen hobetze eta autoerrealizazio moduko prozesuekin harreman estua duela. Norberaren ekintzaren gaineko ardura-hartze ariketa oso presente dago gazteekin egin ditugun elkarrizketetan.

“Nik asko baloratzen dut hasieratik erantzukizuna edukitzea zure proiektuan. Ni adibidez, hemen sartu nintzenez praktikan ardura nire gain utzi zuten eta azkenean horrek asko balio du ikasteko.” (E02)

Arau sozial modernoaren bilakaera azaldu daiteke mota honetako esaldiarekin, hau da, lanean otzana eta esanekoa izango zen subjektu pasibotik bere ekintzaren gain erabateko ardura hartzen duen subjektu aktiborako jauzia. Lash-en hitzetan normatibotasun arau-jartzaile batetik normatibotasun eratzailerako bidea egin da subjektibazio prozesu garaikideetan (Carbajo, 2014: 98). Martucelli (2007) ondo deskribatzen du prozesua: Sujezioaren kontzeptuarekin eragile pasibo bat deskribatzen da, teknologia diziplinatzaile batzuek gobernatzen dutena. Aldiz, ardura-hartze prozesuarekin bere burua kudeatzeko gai izango den eragilea definitzen zaigu. Beste hitz batzuetan, lehen kasuan botere teknologiek norbanako pasibo bat sortzea dute helburu, “subjektu” bihurtuko dena, nolabait boteretik nahieran eutsia eta moldatua. Bigarren kasuan ordea, botere teknologiek paper aktibo bat jokatzen duen eragilea nahiko dute, bizi, autonomia maila altukoa eta merkatuan ekinbide handikoa.

Hortaz, norbanakoaren soziologiaren ikuspegi honetatik deskribatzen den ardura-hartze prozesua gure elkarrizketatuen kasuan presente dagoela ikus dezakegu. Subjektibotasuna modu zehatz batez eraikitzeke modu eta koertzio-tresna gisa agertzen da, norbere bizi-ibilbidearen gainean etengabeko ardura izatearekin zerikusia duena. Bulegoko gazteek eman dizkiguten azalpenetan, ez dute lanez aldatzea bizi proiektu asetzailerako burutzeko oztopo modura bizi, erronka modura baizik; are, norbere gaitasunen lurra ereiten aritzea errealizatorako, garapen pertsonalerako eta arrakasta bitalerako bidetzat daukate. Bestela esanda, gaurko lan munduak (kooperatibetan zein haietatik kanpo) eskaintzen duen ziurgabetasuna estrategikoki darabilte euren burua formatu, kanpora atera eta profesional gisara hazteko. Ziurgabetasunaren eta arriskuaren naturalizazio prozesu bat identifikatzen dugu, joko-arauak emanda daudenez bakoitzak dituen piezak modurik inteligenteenez erabili nahian.

Ildo horretan, kooperatibak krisi ekologikoarekin loturan jarri ditugunean, erronkaren eta oztopoen aurren ahalduntzearen diskurtsotik jaso ditugu erantzunak. Testuinguru ziurgabea eratzen duen beste elementu bat gehiago bezala ulertzen da krisialdi sozio-ekologikoa, baina etorkizunak ekarriko dienera egokitzeko gai izango direneko konfiantza ageri dute. Auzia era horretan planteatzeak ahalbidetzen die beldurra edo panikoa mobilizatu ordez, ekimena, gauza berriak egiteko prestutasuna eta etengabe ikasten jarraitzeko jarrera proaktiboa mobilizatzea, “energia berriztagarriak nola egin ikasi behar badugu ba ikasiko dugu” (E19). Interesgarria da industriako langile gazteekiko ezberdintasuna azaltzea puntu honetan, krisi ekosozialaren aurren ekiteko borondate sendoagoa erakusten baita *subjektibotasun post-fordistetatik* gertuago kokatu ditzakegun elkarrizketatuen aldetik; industriako produkzioan dabiltzanek jarrera

pasiboagoa erakusten duten bitartean. Sormenaren, gaitasun berriak ereitearen eta lanerako prestutasunari esker euren beharrianak asetu ahalko dituzteneko ustea jaurtitzen dute, lehen modernotasuneko soldatapeko lanaren egituratik aldentzen dira horrela, bestelako ibilbide bat zizelkatzea dagokiela barneratuz.

“Nik uste aldaketak jasango ditugula, lanpostuan, estabilitatean... gorabeherak egongo dira... jakin behar dugu aldaketa horietara egokitzen eta gauza berrietan murgiltzen. Gure belaunaldiak barneratuta dauka aldaketa horiek bizi izango dituela.” (E02)

“Nik uste bukatu dela 50 urte lan berdinean egotearen kontua. Lana aldatu egin delako eta gu ere ondo prestatuta baldin bagaude badaukagu mentalitatea aldaketara egokitzeko. Etorkizunean 2-3 lan diferente edukiko du jendeak bizitzan zehar, hori segurua.” (E06)

Era berean, aipatzekoa da ziurgabetasunaren eta egokitu behararen barneratzeak ondorioak dauzkala gazteen identitatea egituratzerako orduan. Identitate aldakorragoa eskatzen zaie, iheskorragoa, lanpostu batetik bestera jauzika aritzeko gaitasuna (fisikoa eta mentala) izango duena, eta ezin dugu baztertu aldagai horrek identitate kooperatiboaren eraikuntza korapilatsuarekin duen lotura, eta baita krisi ekosozialaren aurrean izan dezakeen potentziala ere. Elkarrizketatuek identifikatzen dute prozesu hori eta kontziente dira eskakizun horiek egon badaudela euren gain, lan prozesu kognitiboen garaian. Bestela esanda, kooperatiban bazkide bilakatu arren edo kontratu mugagabe bat lortu arren horrek ez du esan gura lan ibilbide guztirako oinarri solidoa dagoenik. Prekariotasunak eta malgutusunak ezaugarritzen duen lan-merkatuaren testuinguruan, eta krisi sozio-ekologiko larriaren arnasean, jakitun dira baldintzatzaile garrantzitsua izango dela hori bakoitzaren lan biografian. Errealitate laboralaren gaineko ikuskera partekatu horrek batu egiten ditu nolabaiteko *baldintza prekarioaren*⁶⁶ seme-alabak direneko diagnostikoan, baina aldi berean kokatzen ditu horrek eraldaketara hobeki egokituko den subjektibotasunaren jabetzan, edo behintzat egokitzapen horretarako plastikotasuna erakusten:

“Al final yo creo que es la naturaleza del ser humano ¿no? Si hay necesidad pues aprendes rápido y te adaptas y yo creo que con la crisis ecológica y todo esto pues tendremos que adaptarnos igual a hacer trabajos que hacían nuestros abuelos. Pero aprenderemos y ya está.” (BPH)

Alidz, industrian lan egiten duten gazteengan segurtasun desioa adierazten duen elementu diskurtsibo gehiago ageri zaizkigu. Esaterako, erritual edo une estrategiko batzuk pasa beharra aipatzen da lanpostu seguru eta iraunkorra lortzeko bide modura, eta prozesu hori burutzearen zailtasunean jartzen da azpimarra.

“Badakizu kooperatiba batian heltzeko kooperatibista izatera bidia erreza ez dala. Adibidez gurean sartzen zara 2 urte ebentual moduan, gero sozio temporal moduan beste hiru urte eta gero 5 urtetan eñ ahal detsue sozio. Ta 5 urte hoiek pasau arte... sozio eñ arte ez dakazu segurtasunik lan horretan, ze 5 urte egon ahal zara eta kalera jun. Baina gaur egun ikusten da oso zaila dala hanka sartzia hor (...) bazkide ez egiteko jendiari subkontratak ari dira erabiltzen, osea... trikimailuak erabiltzen dira” (E11)

⁶⁶ Zentzu horretan, Stunding-en lanak dira aipagarrienak, klase sozial berri bati buruz hitz egin dezakegula dioena, prekariatua. Klase sozial hori bereziki lotua legoke gazte belaunaldiekin, eta malgutuasuna, etengabe lanez aldatzen aritu beharra edo geografikoki mugitu beharra lituzke ezaugarri.

“Azkenian guk esaten digutena egingo dogu” (E26)

Puntu honetan aipatu beharra dugu langabezia lanaren beste alde modura ageri zaigula, eta industria produkzioan lan egiten duten gazteen artean norbere bizi garapenean ezegonkortasuna ekarriko duen faktoretzat interpretatzen dela. Subjektiboki beldur eta angustia sentipena nagusitzen da langabeziaren ideiarekiko, lanaren integrazio sozialerako ahalmena galtzeak egoera *anomiko* bati bide eman diezaiokeelakoan. Bourdieu-rekin (1997) esateko “heriotz sozial” modura ulertzen da langabezia, eta ez, auzi sozioekologikora bueltatuz, denbora liberazio eta bizimodu patsadatsuagorako ate bezala edota ate berriak ireki ditzekeen bizitzako garai bezala. Dena den, lan merkatuaren eta etorkizun laboralaren ziurgabetasunak ezaugarritzen duenez euren nukleo diskurtsiboa, langabezi-faseak pasa beharko dituztela onartzen da.

Hasierako kooperatibismoak lanpostu seguru eta iraunkor bat ez ezik, munduaren aurrean kokatzeko zentzu bat eskaintzen zuen, esanahi trama bat josten zuen egiten zutenari lan jardun hutsetik haratagoko zentzua emanez. Baumanek deskribatzen zuen *plastiko biodegradagarrien* modernitatearekin lotuz, laneko etika klasikoaren ahultzeak eta kontsumoaren aukera-askatasunaren hedatzeak eragina du kooperatibismoaren balio transmisioen prozesuan, eta auzi-sozioekologikora identitate solido baten oinarrian ez iristean. Bizi-estiloen eta ibilbideen indibidualizazioak proiektu auto-eratzailan arrakalak sortzen ditu. Alabaina, izaera pragmatikoagoa barneratzen duten subjektibotasunetan, ikasteko, hobetzeko eta egokitzeko borondatea baldintza positibo eta itxaropentsu modura interpretatu liteke trantsizio ekosozialarentzat, nahiz eta jakin Harmut Rosaren azelerazioaren gizartearekin loturik dauden elementuak direla eta desazkundearen eta gizarte lasaiagoen helburuarekin ezkontzeko zailtasunak izan ditzaketela.

7.4.4 Talentuaren auzia eta trantsizio ekosoziala

Kooperatibismoaren etorkizunerako eta trantsizio ekologiko arrakastatsua egiteko auzia landu dugunean, ardura postuetako elkarriketatuen artean talentuaren inguruko gaia aipatu da, lehiakor izatearen zentzuan. Marko horretan ulerturik talentua, trantsizio ekologikoa egiteko ingeniari formatuak edo teknologia jakinetan puntakoak diren teknikariak erakartzeko estrategiak garatu beharra azpimarratzen dute, nahiz eta orokorrean plantilak betetzeko zailtasun estrukturalik ez dutela azpimarratu. Oraingoz inguru geografikoak eskaini dezakeen lan gaitasunak balio die, nazioarteko merkatuetara perfil zehatzen bila atera gabe:

“En el caso de copreci tenemos identificados algunas posiciones o algunas formaciones que es más difícil encontrar. Eso no quiere decir que estemos teniendo problemas ¿Vale?. Yo diría que gente con especializaciones en electrónica o ciclos formativos superiores en temas de mecanizados y tal.. ese tipo de profesionales pueden ser más costosos de localizar. Pero a día de hoy, toda la gente que trabaja en (nuestra cooperativa) es del entorno... de Euskadi. Yo ahí no veo un problema” (E01)

“Nik uste jendea erakartzeko zailtasunak egotekotan, enpresa guztientzat berdinak direla, ez dut sumatu guk erakartzeko zailtasunak dauzkagunik. Perfil batzuk agian bere konpetentzia teknikoagatik eskasak dira, baina oro har ez dut arazorik ikusten.” (E05)

“Gaur egun perfil orokorretan ez dugu arazorik, baina etorkizunean perfil teknikoetan ikusten dut egon daitekeela arazoa. Baina hori ez da kooperatiben arazoa, gizartearena baizik, ikasketa teknikoak geroz eta gutxiago egiten dira... industria desprestigiatzen da... Jendea kanpotik ekartzea baino gehiago arazoa dugu jendeak kanpora bidaiatzera joateko konpromisoa hartzean” (E03)

Talentuaren auziak hortaz, trantsizio ekologikorako garrantzitsutzat jo bada ere, bigarren mailako lehentasuna hartzen du gaurko kezka material errealean, eta *management* erretorikaren alorrarekin lotua dagoen diskurtso –nukleo bezala uler dezakegu. Baieztape hau bi arrazoitan oinarritzen dugu: i) giza baliabideetako arduradunek nahiko modu homogeenokan ukatu dute lanpostuak betetzeko arazoak dituztela gaur ii) Kooperatibetako enpleguaren konposizio soziologikoa hautematerako orduan, errotze geografiko nabarmena dagoela ondorioztatzen da (EAEtik kanpoko jende gutxi); *talentuagatik* bainoago, kooperatibetako langileak euren kokapen geografiko, klase sozial, adin eta generoaren bidez azaldu ditzakegu. Beste herrialde bateko profesional *talentudunen* presentzia adierazgarririk ez da nabari. Hortaz, *talentuaren erretentzio*, *sustapen* edo *erakarmena* gehiago interpretatuko dugu *management* literaturan erroten eta jokabideetan eragin gura duten termino bezala, eta ez kooperatibek lan-indarrera duten irisgarritasuna sakonki baldintzatzen duen auzi modura.⁶⁷

Era berean, talentua eta perfil tekniko zehatzen bilaketa trantsizio ekologikorako funtsezko direla onartzeak bi premisa onartzea eskatzen du kooperatiben aldetik: i) garapen teknologikoari eta energia berriztagarrien zabaltzeari esker posible izango dela trantsizioa egitea ii) merkatuaren eraldaketaren aroan, *green* eremutik etor litezkeen ezagutza/talentu orok kooperatibak lehiakorrago bilakatuko ditu.

Zuzendaritza postuetatik eginiko diskurtsoetan, eginbehartzat hartzen da, beraz, talentuaren erretentzioa, eta ezin da bazterrean utzi horrek gazte belaunaldiekin duen lotura. Gazte formatuak ikasketa gaitasun handiagoa dutela adierazten da elkarrizketatuetan eta, beraz, kooperatibak esfortzuak egin beharko dituela belaunaldi berrietan dauden gaitasunik onenak kooperatiben mesedetara bideratzeko. Gazte horiek dituzten eskakizunei dagokienez, bi diskurtso korronte berezi eta neurri baten kontrajarriak identifikatu ditugu ardura postuetan daudenen aldetik. Alde batetik, gazteen eskakizun materialak lehenesten dituen diskurtsoa dago, belaunaldi zaharragoak bezala, batez ere egonkortasuna bilatzen dutela diotenak:

“Zalantza daukat gazteek zerbait diferentea eskatzen ote duten.. bai eskatzen dute formakuntzako aukera eukitzea, ez geratzea lanpostu baten estankaturik. Baina muinean nik uste ez dela gehiegi aldatu. (Gure kooperatibak) kanpora joateko eskatzen badie gehienek ez dute nahi, bertan bizitzea nahiago dute.”(E05)

Puntu honetan aurrez aipatu dugun metropolizazio eta erakargarritasun faktorearekin kontraesanean sartzen gara. Globalizazioak eta metropoli handiak sektore batzuentzat erakargarri suertatzen badira ere, ikuspuntu honetatik balio materialak azaleratzen dira, familia, bizitokia, sare sozial propioa eta lan baldintza egokiak jarriz kezka nagusi bezala. Ardura postuetatik jaso dugun interpretazio honek, euren langileek lurraldearekiko duten

⁶⁷ *Talentua* bai interpretatu dezakegu gero eta kualifikazio altuagoa dagoen lan-merkatu batean *bereizteko* estrategia eta tresna ideologiko bezala, langile kualifikatu kopuru handiaren artean deigarri bilakatzeko. Ordea, konsistentzia ahula du *langile talentudunak* zerbait berezi eta bakana eskaini dezakeen ideiak, ez baitago kooperatibetako eguneroko errealitatean islatua.

atxikimendua eta bizi-proiektu bat garatzeko nahia adierazten dute, trantsizio ekosozialak eskatzen duen lurraldetasuna eta herri mailan garaturiko identitateekin sinergian.

“Creo que a día de hoy el mundo se ha vuelto mucho más impredecible que lo que nosotros nos empeñamos en predecir (...) Lo que estamos viendo en las escuelas y universidades es que cada año sale menos gente de ese tipo de perfil para la demanda que hay, entonces eso nos puede hacer intuir que va haber escasez pero a día de hoy no lo hay. La gente de aquí prefiere trabajar aquí”(E01)

Subjektibotasun garaikidearen diagnostikoan nagusitzen den lan-iblibide biografiko mugitu eta aldakorraren aurrean, Sennet-ek deskribatzen duen zentzuan, sustraitzeko eta komunitate sare batean bizitzeko hautua egiten dutela langileek iradokitzen zaigu. Edo ez dute euren hiri edo herritik mugitu nahi lan kontuengatik edo nahiago dute gutxiago kobratuta ere lurraldean sustraitu. Azpimarragarria da joera kultural horren garrantzia trantsizio ekosozialerako, sare komunitario sendoak eta lurraldean errotutako identitateak askoz eraginkorrago suerta baitaitezke kapitalaren berregituraketari harresiak jartzerako garaian, edo produkzioa lurraldearen behar eta ezaugarrietara egokitzeko orduan. Hiritik hirira eta lanik lan jauzika dabilen subjektu sustraitugabearen tipo idealaren aurrean, beraz, kooperatibetako langile errotua agertzen zaigu. Argi, bulkada kultural hori ez zaio soilik zor kooperatiba batean lan egiteari, nazio-identitateak, hizkuntzak, erlijioak edo kapital sozialak gure gizarteetan daukan garrantziak azal dezakete ere sustraitze gurari hori.

Dena den, bai egiten da bereizketa bat, langilearen formakuntza mailarekin eta egiten duen zeregin zehatzarekin zerikusia duena (produkzioa, diseinu industrial eta.). Aurrez egin dugun bereizketa berriz ageri zaigu hemen, produkzioan lanean ari direnen eta bulegoan formakuntza maila altuarekin ari direnen artekoa:

“Taldean oso perfil diferenteak ikusten ditut... dauzkat 19-20 urteko gazteak muntaian hasten direnak eta gero dauzkat 23-24 urteko neska-mutilak adibidez Idekon hasten direnak ikertzaile lanetan. Hor sekulako diferentzia nabari da... Lehenengo perfilak zer nahi du? Orduetgia, ordu-estekin zer geratzen den... nahi dutena hori da, lana ondo egin baina konfort zonalde horretan eroso daude, ez dute aparteko eskakizunik. Baina perfila geroz eta altuago edo aberatsagoa izan izugarri aldatzen da. (...) Danetarik dao... badago jendea balio material klasiko horietan dagoena eta badaude beste kolektibo batzuk beste lehentasun batzuk dauzkatenak. Baina neurri haundi baten bai esango nuke gehiago bai badagoela gai higieniko-material horiekin lotua.” (E10)

Diskurtso korrante honetan belaunaldien arteko jarraikortasuna agertzen da. Nolabait, ez dute belaunaldi-apurketa edo lanaren zentzu soziala erabat aldatu izana hautematen. Belaunaldi helduaren eta gaztearen artean balio-material klasikoak pisua izan badutela azpimarratzen dute, lanak geure bizitzetan duen zentraltasuna aitortuz. Proiektu pertsonal edo erronken beharra baino gehiago, orduetgi malgua, laneko segurtasuna edo diru-sarrera ondo ordainduak lehenesten dituzte. Paradoxikoa badirudi ere, horrek kooperatibei arazoa sortzen die batez ere sektore industrial klasikoagoetan.

“Gure sektorean behintzat, sektore industrial eta forja... sartu eta irten egiten dira. Guk daukagun lana hiru errelebotara da eta asteburuetan ere bai ondo goazenean. Orduan ba klaro... askotan nahiago izaten dute beste enpresa baten lan egin, bi errelebotara eta astebururik gabe (...) Badaude perfilak esaten dizutenak proiektu bat behar dutela

ikasteko, garatzeko etab. baina ez dira asko, ez da orokorra. (...) Formakuntza duten gazteek soldata behar dute, eta guk kooperatiba garela eta kontatzen diegu, bazkide izan daitekeela etab baina pareko enpresan 20.000 euro gehio kobratzen badu hara joango da.” (E05)

“Nik uste det jende konprometitua zegola lehenago eta dagoela orain ere..., konpromezua ez da jaisten jendearen adina jaitsi ahala baizik bere inguruaren arabera... Antes éramos más comprometidos moduko diskurtsoak entzuten ditudanean ni nire zalantzakin geratzen naiz. Klean bizitzaren kalitate maila ta hori asko entzuten da, lana bai baino disfrutearena... Baina lanari bai ematen diot balio asko, agian kontserbadorea naiz. Gero egia da nik uste bai ari dela indartzen hori, soldata bai baina lanean gustora egotea, harremanak etab. jendeak gero eta gehiago baloratzen du hori.” (E03)

Modernotasunari dagokion laneko kultura klasikoaren desagertzea ez dagoela ikusten dugu, bai itxuraldaketa, baina balio zentralek antzeratsu dira. Ordea, bai esan dezakegu balio horiek ez direla horren zurrinak eta aldaketak jasateko zabalago daudela, tolerantzia maila igo egin da lanez aldatu nahi duenarentzat edo gustura ez dagoenarentzat. Esan liteke, lanak gazteen bizitzetako zutabe nagusietakoa izaten jarraitzen duen arren bestelako eremuek tarte handiagoa hartzen dutela gazteen bizitzetan (hiritar-helduaren paradigmen muga behin betiko gainditzera iritsi gabe).

Kontrara, *produktzio molde biopolitikoarekin* sinergian, argudiatzen da gazte belaunaldiak zerbait ezberdina baloratzen dutela eta kooperatibek errealitate berri horretara egokitu beharra daukatela, baldin eta perfil aberatsak lotu nahi badituzte. Inondik ere bi ikuspegi ezberdin dira, kooperatiba bakoitzeko errealitatekin eginak eta sektore bakoitzaren problematikaren adierazle. Dena dela, bi diskurtsoen arteko izaera kontraesankorra dela azpimarratu beharra dago.

“Nik uste formakuntza internoarekin lortzen dugula jendea bertan geratzea... jendeak ikusten badu proiektu bat duela eta hobetu dezakeela ba orduan esaten du gustora nago, gauza berriak ikasten nabil... horrek azkenean motibatu egiten zaitu eta esaten duzu jo ba hemen nahi dut jarraitu. Horrek nik uste laguntzen duela jendea retenitzen. Gure helburua da hemen egon direnak, edo behintzat esperientzia bat eduki dutenak ondo etortzea eta ondo joatea (...) behintzat hemen dagoen denboran gustora egotea, azkenean beraiek izango dira ta nuestros embajadores de marca. (E05)”

Balio post-materialetik gertuen kokatzen den diskurtsoan sailka dezakegu aipu hau. Diskurtso honek hautsi egiten du soldata, ordutegi eta bestelako eskakizunen lehentasunarekin. Lan-harremanen psikologian murgiltzen da, eta langilearen egoera emozionalari lehentasun estrategikoa aitortzen zaio. Perfil teknikoetan ez ezik, muntaian lanean diharduten langileengan ere “hobetzeko” edo “ikasteko” aukerak sustatu beharra azpimarratzen da, plantilan era integralean aplikatu beharreko estrategia gisan.

Horrek ez du esan nahi balio materialaren garrantzia ezabatzen denik, onarpena badago ordutegiak malgutzeak, tele-lanak edo soldatak garrantzia izan badutela esatean. Dena dela, ordutegien malgutzea, telelanerako aukera eta materialitatearekin identifikatu ditzakegun aspektu ezberdinak zentzu psikologiko batetik aipatzen dira, langilea *gustorago, erosoago eta atseginoago* egongo baita neurri horiek aplikatuz gero.

“Kooperatibak begiratu du ea zer egin dezakeen jende hori gustora egoteko.. Bat da proiektu batean egotea; bigarrena promozio interna, guk asko bultzatzen dugu hori. (...)”

Orain oso apustu sendoa ari gara egiten telelana eta malgutasunaren inguruan. Nik bai kontsideratuko nuke oso aurreratuak gaudela zentzu hortan (...) Ordutegi aldetik (Gure kooperatiba) oso flexiblea da, ez gara oso estriktoak, jendea beharretara egokitzeko. Orduan baduakagu hori, bai flexibilitad horaria eta telelanaren asuntua, eta hori bai da gauza bat gazteek asko eskertzen dutena.” (E02)

Estrategia desberdinak garatzen dituzte langileek eginkizun errepikakorrak aldiro burutu ez ditzaten eta zereginen dibertsifikazioa gertatu dadin. Dena den, estrategia horiek batez ere perfil tekniko zehatzeko langileei begirakoak direla aipagarria da, izan ere, kooperatibaren izaera material-estrukturalak gainditzeko estrategiaren baitan ere interpretatu daiteke; hau da, soldata ratio jakinak egonik langileei (batez ere perfil espezializatuetakoei) beste zerbaite eskaini behar zaieneko sentipena nagusitzen da, soldataz gain baloratuko dutena eta kooperatibara erakarriko dituen. Bistan dagoena da eta elkarriketatu guztiek onartu dutena, trantsizio ekologikoak eskatuko duela gaitasunen zorrotze bat eta orain arte egiten ez ziren lanetan jardutera igaro beharko dela, lanpostuak mantendu nahi badira.

Era berean, sektore batzuetan onartzen da borondatea egonagatik lana mantentzeko agian dibertsifikatu egin beharko dela produkzioa Europar Batasunetik eta bestelako erakundeetatik datozen iraunkortasunari buruzko eskakizunak betetzeko. Talentuak, beraz, prozesu hori guzti hori modu eraginkorragoan gauzatzen lagundu dezake, eta gai horietan (energia aurrezpena, deskarbonizazio estrategiak, energia autohornikuntza...) adituak diren pertsonak formatzea zein erakartzea eginbehar estrategikotzat hartzen da.

Diskurtso-korrante hau helduleku teorikoan garatu dugun ikuspegi ekosozialarekin elkarriketan jarriz, argudia liteke Riechmann-ek definituriko *teknolatria*-ren elementuak agertzen direla diskurtsoan eta trantsizio ekosozialak gehiago eskatzen duela taupada politiko-sozialetik garapen teknologikotik baino. Nazioarteratutako enpresa indartsu batek, menpekotasun energetiko altuarekin, ikuspegi ekosozial kritikoaren koordinadetatik bere jarduna mantsotzeko estrategiak jarri behar lituzke martxan, ahal dela beste enpresa-multzo zabalago batekin batera aurrera-urratsak emanez eta lurraldeek dituzten behar estrategikoekin loturan. Paradigma hazkundezalearen etena eta koiuntura geopolitikoak zorrotz baldintzatutako energia beheraldiaren aurrean nola jokatu da gaur kooperatiben interesen lehen lerroa ukitzen duen auzia. Egoera bera politikoki ondo interpretatzen jakitea eta horren aurrean ekiteko estrategiak garatzea ere izan liteke talentuaren eta kooperatibismoak duen trebetasunaren emaitza. Agian talentuaren eta trantsizio ekosozialaren gurutzaketa honetatik jaurti daitekeen galdera da ea nola birdefinitu daitezkeen kooperatiben interesak krisi ekologikoko agertokian, eta zein gaitasun duten kooperatibek autonomia maila altua mantendu eta aldi berean desazkunde dinamikak martxan jartzeko.

7.4.5 Desberdintasun sozialak, batasunik ez.

Begirada soziologikoago batetik, nabarmentzekoa da desoreka nabarmen bat deskribatzen dela batez ere gazteei eginiko elkarrizketetan. Ertz horretan, kooperatiba barruan bi klase ezberdin sortzen direneko pertzepzioa nagusitzen da. Alde batetik, ibilbide luzeko bazkideek duten estatusa, enpresa barruan boterea eta erabakiak hartzerako orduan duten pisua (klase kooperatibista) legoke, eta bestetik bazkide ez direnena, ebentualak eta kontratuplean lanean dabiltzanak. Bereizketa hori ezberdintasun sozialeko iturri modura bizi dute batzuek eta egonezinak sortzen ditu zenbait elkarrizketaturengan.

“Zuk ikusten dozu bakarrik sozixuak direnak ze kotxekin heltzen diran lanera eta gu cuatrolatillasakin heltzen garela... esaten dozu... hemen diferentzia haundixak dauz.” (E11)

“Ta kooperatibari eustea ez dago erraza, askok enpresa normal bat bezala funtzionatzen dute jada, ebentualak eta abar erabiltzen dira enpresa mantentzeko eta hor diskrepantzia bat dago. Enpresa barruan bi klase ezberdin daude? Edo danak gara bat? Jendeak bazkide egiten duenean esaten du: “ni ia bazkide naiz eta besteak que se busquen la vida...” (E08)

Aipuotan bazkide ez direnenganako elkartasun falta dagoela ematen da aditzera. Kooperatiba handietan, datozen lan pikoekin bi klase sozial ezberdin sortzen direla diote eta klase batetik bestera jauzi egitea oso zaila deneko sentipena nagusitzen da. Merituak eginagatik eta lana ondo burutuagatik, kooperatibaren ateak gehienentzat itxita daudeneko susmoa ageri da gazteengan, bazkidetza prozesu batean sartzea oso jende gutxik lortzen duela iritzita. Beste hitz batzuetan esanda, prozesu produktibo berean kontratu eta soldata ezberdinak dituzten langileak biltzen dira, ezberdintasun ardatz argi bat txertatuz lan-harremanetan.

Arima kooperatibistari berari zuzenean eragiten dion erroko eztabaida planteatzen zaigu puntu honetan. Bazkideen jarreraren deskribatzen duten jokabide indibidualistak “besteak que se busquen la vida” moduko iritziekin, zaildu egiten du kooperatiba barruko berdinzaletasuna eta kolektibo osoaren gaineko ardura-hartzea. Dimentsio ekonomikoak hartuko luke ostera ere protagonismoa, eta produkzioaren izenean ebentualen eta kontratudunen erabilera egin, langileen arteko botere bereizketak sortuz. Ildo horretan, esan liteke kooperatibismoaren metabolismo sozialak desberdintasun sozialak murriztu ordez, berauetan sakontzeko egitura modura jarduten duela zenbait kasutan, belaunaldi-haustura bat sortzeko arriskuarekin.

Era berean, beste desberdintasun-ardatz bat hautematen da lantegian lan egiten dutenen eta bulegoko langileen artean. Lan-orduak betetzerako orduan, lantegian ari direnek betebeharrak gehiago dituzteneko sentipena nagusitzen da, eta horrek etsipena eta haserrea eragiten ditu, taldearen barruan gutxiagotasun kokapen batean egongo balira bezala.

“Beti orduak galtzen dogu berdinek, etxera bidaltzen gaitxue berdinek eta zapatuan joan behar danielan lanera be ba guri tokatzen zaigu, eztakitzu? Ta klaro gratis urtetzen da, ze

bulegokuak zapatuetan ez dira inoiz juaten lanera. Eurek ostiral baten ez badaukie lanik jungo dira berdin-berdin, orduak ez galtzeko, eta guk hori ezin dogu egin. Beti gara produkziñokuak. Gainera ni gratis jun behar naiz, ze SA baten azkenian asteburuan jutiagaitxik plus bat kobratzen dozu, baina guk ez...” (E26)

Cesar Rendués soziologoak desberdintasun-egoerak egonkortzeak sortzen duen ezinegona aztertzen duenean, dio gaurko gizarte konplexu, sofistikatu eta askotarikoan naturalizat jo dela ezberdintasun-sistemak egonkortzea. Nolabait, diskurtso hegemonikoaren arabera, postu ona dutenak eta arrakasta dutenak, talentuari eta eginiko merituari eskerrak dute kokapen hori; eta aldiz, egoera prekario eta ziurgabeetan dagoena, behar beste saiatu ez delako da. Hala, talde-egitura sozial batean geroz eta desberdintasun gehiago txertatu, mesfidantzak, arrotze sentipenak eta elkarlanerako borondate faltak gorantz egingo duela zehazten du. Berdintsu pentsa genezake kooperatibetan ere, noraino sartu daitezkeen ezberdintasun mekanismoak eta zein puntutatik aurrera hasten diren problema sozial bilakatzen. Oreka beti zail eta konplexua bilatzea da erronka, beti ere kontuan izanik, zeregin ezberdinak burututa eta ardura postu ezberdinak izanda ere, berdintasun sentipenak mesede egiten diola elkarlanari, norbere segurtasunari eta taldean duen inplikazioari.

Aurrez aipatu ditugun elkartasun mekanismo instituzionalizatueta ez bezala, bazkideek bazkide ez direnekiko elkartasuna praktikatzera arautua ez dagoen auzia da, beraz, langile batzorde bakoitzaren borondata mugatzen dena. Nabarmena da, beraz, elkartasuna arautua ez dagoen kasuetan berau murriztu egiten dela eta gazte belaunaldiak deskribatzen dituen botere desoreka horiei bide ematen zaie. Azkenik, identitate kooperatiboarekin lotura eginda, klase bereizketa horretan bazkide ez diren taldean egoteak eta enpresa barruan klase bereizketa bat egon badagoela hautemateak zaildu egiten du are gehiago gazteen identifikazioa kooperatibarekin, eta laneko alienazio sentipena indartu.

“Azken 5 urteetan jende gaztea sartu da kooperatiban, bulegoan sartzen dira, pinganilluak jartzen dituzte y se acabo txispun. Isil-isil-isilik, tutik pe ez daue esaten. Jende gaztea ikusten dut kikildute, baina izan leike hemen sartu diren momentu honetan hierarkia asko dagoela” (E38)

Aipuan anbizio gutxiko belaunaldi bat datorren sentipena nagusitzen da, lan munduarekin hasieran duen kontaktuan kooperatiben eguneroko kontuetan parte hartzeko borondate falta duena. Zenbateraino den prozesu sozial orokorraren emaitza eta zenbateraino kooperatiben baitako botere-harremanen ondorio, hor zehaztu beharreko galdera.

7.4.6. Etorkizunera begirako proiektzioak, garapenaren iruditeria. Segurtasunaren desioa.

Azkenik, etorkizunera begirako espektatiben inguruko pasartea landuko dugu. Interes soziologiko berezia hartzen du etorkizunera begirako espektatibetara begiratzeak, gazteengan errotuta dauden mundu ikuskeren eta patroikulturalen berri izan dezakegulako, jakinik zein paper garrantzitsua jokatzen duen subjektibotasun garaikidearen eraikuntzak transizio ekosozial ordenatu batean. Desirazko etorkizun posibleak irudikatzeak ipar bat markatzen du, eta hortik epaituko da egungo ondoezen edo arrakasten neurria.

Bada, aztertzen gatozenaren ildotik, etorkizuneko agertoki ziurgabeen, aldakorren eta prekarioen aurrean egonkortasuna, lana eta helduleku sendoak eskatzen dira. Gaurko kezka eta beldur nagusietarako txertoa lanpostua bermatua izatea da gazteen iritzian:

“Inori lanik ez faltatzea nahiko nuke etorkizunean, eta lan hori bizitza duin bat edukitzeko baliagarri izatea. Bai soldata aldetik eta bera pertsonalki ere gustora egotea. Nire ustez horrekin beste dena ekarriko du, lan duina badaukazu sozialki ere gero gauzak egitera konprometitzen zara.” (E08)

“Lehenengo lasaitasun bat eukitzia, lanpostu finko bat... osea ez egotia pendiente de.. ba igual lana pixkat bajatzen da eta kalera noa.. gustatuko litzaidake zure erabakia izatia lanez aldatzen duzun edo ez. Lanian segurtasuna eta soldata duin bat eukitzia” (E07)

Lan segurua eta iraunkorra edukitzea duintasunaren kontzeptuarekin lotzen da. Arrasateko kooperatibismoaren balioak diskurtsoaren azpikorronteetan badaudela suma liteke, Arizmendiarrietaren pentsamenduak zerbait jartzen badu erdigunean, gizakiaren duintasuna baita. Behin gizartean kokapen maila bat aitortuta, pertsonaren egoera material eta emozionalak hobekuntza esanguratsua daukatela ematen da aditzera “lan duina badaukazu sozialki ere gero gauzak egitera konprometitzen zara” hau da, gizarteko kausa ezberdinetan parte-hartzeko edo bestelako eremuetan konprometitzeko aurrealdintza lanpostu “duin” bat edukitzea da elkarriketatuta horren arabera. Alegia, gizartean leku egonkor bat edukitzea lan jarduera bat burutzearekin lotzen da; gizartearen parte sentitzeko eta bere dinamiketan parte-hartzeko aurrealdintza modura ulertzen da enplegua. Luze eta sakon emango luke horrek guztiak duen sakonera psikosozilogikoan sartzeak, baina bai nabari daitezke lehen modernotasunetik eta jatorri erlijiosotik (Weber, 2001) datozen oinordekotza batzuk, lanaren eta gizaki duin bilakatzearen artean dagoen harremanean.

Modu bertsuan, kezka ageri dute gazteek kooperatibismoaren etorkizunarekiko. Bai krisialdi sozio-ekologikoak ekonomia globalari emango dion astinduagatik eta baita praktika kapitalisten kutsatzeak ekarri dezakeenarengatik. Kooperatiben kokapen propioa mantenduz gero, izaera eta ekinbide berezia gorpuzteko aukeran egongo ei da, betiere negozioaren adarra behar beste zainduta, hori baita kooperatibismoaren biziraupenerako baldintzetako bat.

“Kooperatibismoak dauka erronka hori, lehen esaten nizuna, ez funtzionatzea beste enpresa normal bat moduan... nik hori ikusten diot.. ze ikusten dut asko besteak modura ari direla funtzionatzen eta esaten duzu, kooperatibismoa bai, baina zertarako? Funtzionatzeko besteak moduan? Gero argi dago eh, hay que tener cuenta de resultados.. ze zero edukitzen baduzu.. badakigu ze pasatzen dan” (E08)

Digitalizazioak eta lanaren eraldaketak dakarren erronkak ere badu lekurik etorkizunarekiko egiten duten irudikapenetan. Pertzepzio nagusia lana ordenagailu baten bidez egin ahalko dela da, edo gero eta gehiago behintzat; ondorioz, lanaren izaera fisiko berri horrek dakartzan arazo berriei aurre egitea hartzen dute erronka nagusietakotzat, kontziliaketak, etxetik lan egiteko aukera gehiago edukitzea etab.

“Nahiko nuke etorkizuneko lana aktualizatua egotea, digitalizazioarena eta aurrera badoa ba gu hor goian egotea nahi nuke. Aldi berean egonkortasun hori egotea gustauko litzaidake, kooperatibaren sareak azkenean ematen dizu babes bat... sentitzea lana badagoela ez lan faltan gaudela. Hona etorri eta denbora guztian egotea erronkak, ikasten jarraitzeko etab.” (E07)

Ikuspegi ekosozialetik, ordea, egin liteke azpimarra: digitalizazio orokorturik ez da posible muga materialen auzia modu zorrotzean aztertzen badugu. Atal teorikoan landu dugun moduan, suma liteke trantsizio ekologikoaren konponbidea eta digitalizazioa eskutik doazen bi prozesu direla, kontraesankorrak direla kontuan hartu gabe.

Etorkizunari begira garatzen duten estrategietan zentratuz, ziurtasuna baina aldi berean autonomia maila altuak agertzen zaizkigu ideia nagusi bezala. Kooperatiba lan molde enpresarial berri horretarako leku apropos bilakatu litekeela uste da, aurrez azaldu dugun diskurtso ildoan errepikatzen da hemen. Norbere gaitasun indibidualak garatzea kolektibo indartsu batek ematen duen sendotasunarekin.

Esanguratsua da elkarrizketatu guztiek bat egiten dutela etorkizun ziurgabe eta kezkarri baten diagnostikoan baina aldi berean garapenaren gaineko errelato klasikoa bere egiten dute (Hernández, 2014)⁶⁸. Lanaren zentraltasunak jarraitzen du etorkizuneko ipar sendoenetako bat izaten “lanik gabe jai daukagu”, “lana egotea nahiko nuke”, “me gustaría leer que apenas hay desempleo” moduko esaldiek. Elkarrizketatuen klase kokapena klase ertainarena izaki, lanaren aldarri hau 2008ko krisialditik eratorritako desklasamendu prozesuarekin harremanean jar dezakegu, klase ertainek euren kokapen soziala kaltetua ikusi eta garai fordistan zegoen enplegu ugari eta segurura itzultzeko desirarekin harremanean.⁶⁹

Jarraikortasun puntu bat dago gazteen gurasoen belaunaldiak lanarekin izan duen harremanarekin eta etorkizunari begira proiektatzen den agertoki desiragarriarenarekin. Euren gurasoen belaunaldiak lan-munduan izan zuen sarbidea goiztiarra izan zen oro har. Horietako gehientsuenek, edo kooperatiban edo beste enpresaren batean behetik gorako ibilbide bat jarraitu izan dute, betiere enpresa berean eta oparotasun material erlatiboki asegarri batekin. Ordea, gaurko lan merkatuak lanpostu horietara iristeko eskakizun zorrotzagoak dauzka, hizkuntzak, titulazioak, esperientzia eta abar. Lanpostu

⁶⁸ Klase ertainarekin lotu izan den errelatoan, garapenaren ideiak lotura zuen lanpostu egonkor bat lortzearekin, unibertsitate ikasketak egin, formatu eta eskatu zitzaion hori guzti hori beteko balu. Bada, gure elkarrizketatuek ere eskatzen zaien hori betetzen badute, garapen lineal bateko bizi-ibilbide posiblea irudikatu dute etorkizunera begira. (Hernández, 2014).

⁶⁹ Zentzu horretan, (Alonso et al. 2017) lana aipagarria da. Hiru desklasamendu prozesu bereizten dituzte soziologoek, aldi berean daudenak elkarren artean loturik: i) belaunaldi-artekoa, belaunaldi gazteak ez duenean lortzen aurreko beaunaldiaren estatus eta kapital sinboliko maila berera iristea ii) biografikoa, norbere lan ibilbidean galdutako kokapen sozialari egiten dio erreferentzia, estatus-galera, kapital sozial eta sinbolikoaren ahultzea edo aukera-mugapena dakarrena iii) hezkuntza edo merituarena, estatu mailan esleitzen diren titulazio akademikoen balio galerarekin zerikusia duena, kapital kultural instituituak ez du horrenbesteko baliorik.

baterako sarbidean egon den belaunaldi haustura horrek ezinegona sortzen du gazteengan, baldintza eskasagoak dituzten lanpostuetara soilik iritsi daitezkeelako.

“Nik uste dot orain epe laburreko lanak edo lan puntual topatzeko aukerak badauzela, baina lan duin bat topatzeko... igual gure gurasuen moduan sartzen zirela enpresa baten eta geratzen zirela 30 urte enpresa horretan... osea oso zaila da enpresa baten sartu 22 urtekin eta 62 urtetararte egotia, ta gure gurasuen garaian bastante errezagotia.”(E11)

Bada, etorkizunari begira egiten dituzten diskurtsoetan gurasoen belaunaldietako baldintzak berreskuratzeko planteamendua egiten da. Esaterako, euren gurasoen belaunaldiak soldata finkoak izanik, bizi-proiektu bati ekiteko aukera materiala zeukaten; gaurko gazte belaunaldietan aukera horiek izugarri murriztu dira⁷⁰. Ongizate estatuaren loraldiaren garaia mobilizatzen da imaginario desiragarri bezala etorkizunerako, eta gurasoen belaunaldiak izan zituen bizi-aukera materialetara ez iristea oinaze-kolektiboko iturri da, ezberdintasun nabarmena ezartzen duelako gaurko testuinguruarekiko. Ikuspegi ekosozialetik ordea, funtsatua geratu da Europa mendebaldeko ongizate sistemak energia transfusio oparoei esker egin zirela posible, Jason Moorek dioen moduan *natura sozial abstraktua* kapital hazkuntzaren zerbitzura jarrita. Galdera da, agian erredundantea baina gogoratzea komeni zaiguna, ea enegia eta materia gutxiagoko beheraldian posible den ongizate sistema erlatiboki asegarria sortzea, eta kooperatibagintzak zein paper jokatu dezakeen metabolismo sozialaren berregituraketa horretan. Gai izango ote da gazte belaunaldiei lanpostu seguru eta iraunkorrak bermatzeko? Jarriko ote ditu martxan egoera prekarioan daudenen egonkortze estrategiak? Zenbateraino izango da hori bideragarria, krisi ekonomiko globalaren testuinguruan eta ekonomiaren argaltze behartuan? Galdera horiek luzatu liezke gazteen interesak kooperatiben interesekin bateratzeko ariketan gauditutako beharreko korapilo modura.

Bestalde, azpimarragarria da etorkizunera begira egiten diren irudikapenetan eraldaketa-bulkadarik ez dela antzematen. Ez dugu diskurtsorik jaso auzi sozialari edo ekologikoari erreferentzia zuzenik egiten dionik eta kooperatiben proiektu eraldatzailean are gehiago sakontzea eskatzen duenik. Arindu egin da eraldaketarako grina, edo etorkizunean bestelako agertoki bat planteatzeko asmoa. Esan dezakegu utopia tantaz bustitako etorkizunik ez dela amesten, edo ez du behintzat elkarrizketatuen praktika gidatzen zerumuga horrek. Aurrez aipatu dugun hiritar-langilearen eredua erreproduzitzen da, “etapaka” edo “faseka” antolatzen duena bere narratiba. Lanaren presentziak protagonismo berezia du horietako bakoitzean, zentzu egituratzaile batean, bizitzaren antolakuntzarako ardatz modura agertzen zaigu. Hortaz, kooperatibismoan eta euren bizitzetan ze etorkizun nahiko luketen galdetuta ikuspuntu pragmatiko eta zuhurragoa adierazi dute XX. mendeko kooperatibismoaren hasieretako helburuetatik urruti.⁷¹

⁷⁰ EAEko etxebizitza behatokiaren arabera gurasoen etxetik ateratzeko adinaren batz bestekoa 30 urtekoa da. Observatorio Vasco de Juventud, 2020.

⁷¹ Gogoratu dezagun, adibidez Copreci kooperatiba ezaguneko estatutuetan jasota dauden helburuak; auzi soziala eta auzi industrial bereiziz, baina aldi berean elkarri loturik dauden bi hanka direla iradokiz “*el objeto social de esta cooperativa es la emancipación de la clase trabajadora. El objeto industrial la producción de componentes electrodomésticos*”.

Gazteek euren narratibetan zehazten dute zein diren eurak norbanako bezala izango dituzten erronkak eta gainditzeko oztopoak, baina era berean estrukturalagoak diren arazoak ere agertu dira, eta hor mundu mailako lan-merkatuari, errealitate ekonomiko aldakor bati eta ziurgabeak diren agertokiei egiten zaie erreferentzia. Narratiba hori osatzeko partekatzen duten sakoneko irakurketa ondokoa da: gizartea jasaten ari den eraldaketa nabarmenaren aurrean, edo eraldaketa horren abiadurara egokitu eta gaurko geure kokapena mantendu edo beste norbaitek irents gaitzan utzi. Deskribatzen duten errealitate aldakor, anomiko eta konplexutasun handiko horretan elkarrizketatuek euren burua borroka horretarako prest azaltzen dute, digitalizazioa eta automatizazioaren aurrean gaitasun berriak garatzeko borondatearekin, trantsizio ekologikora egokitze ahalmenarekin eta kooperatiba batean ez bada beste enpresaren batera aldatzeko aukerari aterik itxi gabe. Bestela esanda, norbanako moduan kudeatzea dagokien espazioaren ardura hartzen dute, baina hankamotz geratzen da hanka soziala edo besteekin harremanean eraldaketak gorpuzteko bulkada. Norbanako moduan kudeatzea dagokion espazio horretarako gaitasun gehiago gura dira:

“Etorkizunerako agian nahiko nuke formakuntza gehiago egotea. Sartzen zarenean hemendik pixkat eta handik pixkat ikasten duzu eta moldatzen zara baina igual horren formakuntza ez dizute emoten... kontrolatuago egon beharko litzateke hori. Berehala jartzen zaituzte makinan eta “vete tirando” esan.”(E06)

Horrekin lotuta, nolabaiteko diskurtso meritokratikoa bere egiten dutela deigarria da. Hortik abiatuta zailagoa zaie euren egoerari buruzko diagnostiko partekatuagoa egitea. Etorkizunerako egiten diren aurreikuspenek eta nahiek ez dute abiapuntu belaunaldi baten beharra edo gabezia, enpresarena baizik. Eurek enpresaren barruan izango duten kokapenak kezkatzen ditu. Kooperatibarekin identifikatzeko arazoak dauden arren, gazte belaunaldi gisa ere identifikazio ahula dago. Kokapen individualizatu horrek aurreikuspen eta etorkizuneko proiektzio estuagoak egitera daramatza, zerikusi gehiago duena norberaren etorkizunerako proiektzioarekin belaunaldiarenarekin baino. Modu horretan zail gertatzen da zibilizazio krisiaren aurpegi ezberdinei erantzun kolektiboak eta zabalak emateko prozesuak martxan jartzea.

Edozelan ere, ezin dugu ahaztu kooperatibetan lan egiteko modua, autogestioan oinarritua, positiboki baloratzen dela, eta hala nahiko luketela jarraitu etorkizunean. Gakoetako bat, beraz, ikuspegi honen arabera, norbere merituak garatzeko eta lan hori aitortua izateko moduak sortzean egongo da, kooperatibismoaren izaera mantenduz eta leku seguru bat eskainiz aldi beran. Uste dugu azpimarra merezi duela jabetza kolektibo partekatuak edo talde-lanak jasotzen duten ezaugarritze positiboak, botere-harremanen murrizte eta berdintasun printzipioaren indartzea norabide egokian arraun egitea dela iritzita. Bestela esateko, ikuspegi ekosozial batetik ekonomiaren berregituraketa gauzatzen ari den honetan, bide hori kooperatiba-forma duen enpresen bidez egitea justua eta aproposa jotzen da, *zentzu komunekoa* Gramscirekin esateko.

Etorkizunerako proiektzio horiek, ordea, paradoxikoak gertatzen dira analisis berriz ere krisialdi sozioekologikoaren lurrera ekartzen badugu. Lurren, erregai fosilen eta material ezberdinen eskasiak markaturiko aroan, etorkizunak ziurgabetasun eta ezegonkortasun dosi gehiago dauzka, hain justu leku seguruak eta traiektoria egonkorak eskatzen direnean. Norbere ibilbide profesionalean lanpostu hobe eta seguruago batera jauzi

egitea modernitatea gurutzatzen duen ikuskera desarrollistaren baitan interpretatzen dugu eta auzi sozioekologikoak ez du zalantzan jarri norbere ibilbidea irudikatzeko forma lineal hori. Datozen hamarkadak ziprztinduko dituzten oinarri materialen eskasiak industria sektoreari ekarriko dion inpaktua horren handia izanik, azpimarragarria da auzi zentral horren gaineko azaleko aipamenik ez egin izana eta beste talaia batzuetatik proiektatu izana etorkizuneko iruditegia.

8. KAPITULUA

Arrasateko Kooperatibismoa bidegurutzean, zenbait ondorio

8. Arrasateko Kooperatibismoa bidegurutzean, zenbait ondorio

Lehenik eta behin, ikerketa honetan jaurtitako galdera kontuan hartzen badugu, Arrasateko Kooperatiba Esperientziak XX. mendeko gatazka redistributiboari erantzun sustantziala eman zion moduan, XXI. mendeko krisialdi sozio-ekologikoari erantzuna modu bakan eta partikularrean ematen ari ote zaion, ezin dugu baieztatu modu integralean planteatzen den erantzuna aritkulatzen ari denik. Jabetza partekatua edukitzeak, balio kooperatibo historikoetan eraikitako esperientzia izateak edota hezkuntza-sistema propioa garatu izanak ez ditu Arrasateko Kooperatibak krisialdi ekologikoaren aurrean aterabide propio eta aurreratu bat planteatzeko paradan ipini. Are, hazkundearen paradigmarik eutsi dio. Ez dugu, beraz, gizarte kapitalista modernoetatik aldentzen den metabolismo-sozial ezberdindurik aurkitu, zibilizazio diseinu horren hezurdura birproduzituak baizik.

XX. mendean egin zituen eta oraindik orain egiten dituen ekarpenak gutxietsi barik, krisi ekologikoaren neurria ulertu eta bere praktikan barneratzeko urratsak oso azalekoak dira oraindik, bai arlo materialean zein sinbolikoan. Fundatzaileen etika katolikoa nabarmena izanagatik, nazioartera zabaltzeak eta mendebaldeko merkatu ekonomia kapitalistan erabat integratzeak sakonki ezaugarritu du esperientzia kooperatiboa azken hamarkadatan, hazkuntzaren eta produktibismo zaletasunaren oinarri modernoak barneratuta. Kooperatibismoa lehiakor egin eta lanpostuak sortzearen izenean Arrasateko Kooperatibek ez dute ardatzera ekarri petrolio eta gasa deskarbonizatuko dituen eredu produktibo propio bat sortzearen premia, eta mesfidantzaz begiratzen zaio etorriko den trantsizio ekologikoari.

Tesi honetan prozesu historiko-sozial hori ikuspegi ekosozialetik ulertzeko oinarriak jartzen saiatu gara, gizarte garaikideen gainean eragiten duten egiturazko prozesu batzuekin lotuz. Ikerketa-objektu honetara hurbiltzeak balio izan digu alde batetik euskal gizarteak trantsizio ekologiko sakon eta egiturazko baterako dituen zailtasun sozial, ekonomiko eta kulturalak kontrastatzeko, eta bestetik, Arrasateko Kooperatiba Esperientziak biziraun eta zabaltzeko dituen arazo sistemiko batzuetara hurbiltzeko. Halatan, AKE-ren jaiotza eta zabaltzea posible egin zuen egituraketa soziala guztiz itxuraldatua dagoen honetan, bere ibilbideari begiratzeak ekarri dizkigu ikasgai eta tentsio-puntu batzuk, ondorengo orrialdeetan aipatu nahi nituzkeenak.

8.1 Kooperatibismoa merkatu gizartean: post-hazkunderako bide katramilatsua.

Lehenik eta behin, aipatu nahi dugu Arrasaten errotutako kooperatibismoaren gainean bi ikuskera teoriko-politiko ezberdin formulatu izan direla. Eztabaidan dauden ikuspuntu horiek izendatzea garrantzitsu da, ñabardurekin, ondoren krisi ekosozialaren aurrean nola kokatzen den ulertzeko. Batetik, *pentsamendu sozialistarekin* lotzen den irakurketa daukagu, zeinaren arabera Arrasateko Kooperatiba Esperientzia kapitalismoak bere dimentsio zabalean bereganatutako munduan sozialismo uharte txiki bat den. Bestetik, adar erlijiosotik egiten den irakurketa dago, AKE batez ere Elizaren moral kristautik eratorritako esperientziarekin lotzen duena, zentzu Weberiarra batean nahi bada.

Hurbilpen kulturalista edo materialistagoa aukeratu baino, argi dagoena da bai langile mugimendua eta bere antolakundeen eskutik ezaugarritu zen fase historikoak zein Elizak jokaturako paperak ez zutela kontrako norabidean bultzatzen, eta nolabaiteko harreman dialektikoa eratu zuten kooperatibagintzaren gauzaren eta arrakastara bultzatzeko. Kooperabismoari loturiko ideiak eta langile klasearen zabaltze historikoa funtsezko bi aldagai izan ziren kooperatiba industrialak sortu eta ekonomiaren sektore estrategikoetan aurrera urratsak emateko: izan ere, asmo edo ideia batek ez du indar autonomo bezala jokatzeko, haragitzeko baldintza historiko zehatzak behar ditu, eta beti egongo da baldintzatua bere gauzaren historikoan.

Beraz, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia dikotomia horretan ulertu baino, modernizazio prozesua besarkatu nahi izan duen artefaktu historiko-sozial modura ulertzen dugu, *ethos* katolikotik eta lanaren ulerkera saiatutik izan duena, baina baita berdintzaletasunarekin, garapen komunitarioarekin eta demokrazia ekonomikoarekin lotzen diren elementuak ere. Era berean, azpimarratzekoa da, eztabaida teoriko horretatik haratago, haize politiko eta ekonomiko ezberdinekin malgu eta autonomiaz jokatzeko izan duen joerak traje politiko zehatz batekin ez ezkontzeko aukera eman diola, eta hori dela, agian, arrakasta ekonomikoa ahalbidetu dion faktore esanguratsu bat. Alegia, beste merkatu eragile baten modura jokatzeko eta ideologikoki gehiegi ez nabarmentzeko balio izan dio merkatuan kokapenak irabazi eta bere burua birproduzitzeko.

Nolanahi den, interesgarriago zaigu esperientzia kooperatibo horretatik jaso ditzakegun ikasgaiak zerrendatzea, bere inplikazio objektibo eta subjektiboak zenbaterainokoak diren ikusi eta gizarte eraldaketa ekologikoaren bidean bertatik zer atera dezakegun ikusteko. Esan behar da, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia bai dela kasu bereizia mendebalde ardatzen duten merkatu ekonomietan, eta eredu autogestionario propio eta bereizia garatu duela urteen poderioz. Kooperatibak eta ekonomia soziala beste lurralde ugarian ere badaude, eta beharbada AKE-ren bereizgarri nagusia denboran zehar arrakasta ekonomikoarekin irauten izana da. Dena den, eta gure tesiak egin lezakeen ekarpena hemen dagoela uste dugu: trantsizio ekosozialaren ikuspegitik, azpimarratzekoa da urrun dagoela ikuspegi ekologikoa ardatzera ekartzetik, eta zentzu horretan, asko dira burutzeke dituen zereginak.

Ondorio hori aterata, eztabaidan jarri gaitzke ikerketa sozio-ekologikoetan gailentzen den ikuspegi marxista batekin, eta AKE sozialismoaren uharte txikitat jotzen duen ikuspegiarekin. Marxismo ekologiko horrek defendatzen du, metabolismo sozialaren moteltzea eta ekonomiaren bide desaztaile sozialki justua soilik ekoizpen prozesua langileen kontrolpean jartzetik etorriko dela (Stefania Barca, Emanuele Leonardi, Giorgos Kallis, John Bellamy Foster). Aztertu dugunez, AKEk eredu sozioenpresarial demokratikoak jada martxan baditu ere, eta ekoizpen bitartekoen jabetza gehiengo zati baten behintzat langile-bazkideen esku egonik, ez da nahikoa izan ibilbide ekosozial sakon bati ekiteko. Nolabait, berriz egiten dugu topo XX. mendeko eztabaida klasiko horrekin, giza askapenaren abenturari erreparatzeko orduan, arlderdi produktiboa garrantzitsua den arren, ez da nahikoa: indar kulturek, psikosozialek, politikoek... ere bultzatzen behar dute norabide horretan. Horrenbestez, trantsizio ekologikorako aurrebaldintza enpresen jabetza egiturak eraldatzea esatea baieztapen sinplegia izan liteke, ondoren errealitate historiko-sozialean txertatzeko arazoak dituen, hariak gehiago findu behar direla iruditzen zaigu.

Tesian zehar azaldu dugun bezala, 70ko hamarkadatik aurrera indartu zen globalizazio neoliberalak, eta gizarte fordistetatik postfordistetarako trantsizioak merkatua eta bertako korporazio handiak bilakatu dituzte aro modernoaren ardatz, estatuen beraien burujabetzaren eta botere politikoaren kaltetan. Beraz, estatu nagusienek merkatuarekiko independentzia izatea lortu ez duten agertoki historikoan, ez litzateke analitikoki zintzoa izango AKE talaia horretatik epaitzea.

AKE-ren esperientziak forgatzen du hazkunde birbanatzaile baten formula justizia sozialaren irizpideekin bateragarria izan daitekeela, baina jasangarritasunaren aldagaia sartzen badugu, eredia amiltzen da. "Jakintza sozializatu, boterea demokratizatze" lelo arizmendiarrietarrak balio digu demokrazia ekonomikoa eraikitzeke saiakera modura deskribatzeko AKE, eta eremu horretan aitortzen diogu bere ekarpen nagusia. Ordea, krisi ekologikoaren gainean eraikitzen diren nukleo diskurtsiboek, ez dute zalantzan jartzen hazkunde birbanatzailearen eredia krisian dagoela, eta hazkundearen alde apustu egiten jarraitzea da asmoa, beharrezko inbertsio teknologikoak eginda. Diskurtso adierazpen horiek ulertzeko, ondorengo tentsio makro-estrukturaletan arreta jartzea funtsezkoa dela deritzogu:

- i) Esperientziaren biziraupenerako beharrezkoa izan du AKEk merkatua zabaltzea, irabazi gura zuen autonomia maila egiazki adierazgarria izan zedin. Horrek, merkatu jardunari berezko zaizkion arazo batzuk sortzen ditu errotuta dagoen komunitatean, elkertasuna eta errentagarritasuna konpontzen konplexua den korapiloan murgilduz. Merkatuaren oxigenoa nahi izanez gero, bazkideen eta bazkideak ez direnen arteko gatazkak sortzen dira, esaterako langile berriak ez kontratatuz, ebentualen erabilera handia eginez edo inbertsioak batez ere kapital finkoan zentratuz (teknologia eta makinak).
- ii) Kooperatibak bere emaitzei begiratu behar dienez, sarri kooperatibak duen interesa eta interes orokorra kontraesankorrak izan daitezke. Sektore batzuetan, termino etikoetan planteatzen den eztabaida gehitzen zaio horri (esaterako armagintzaren sektorean, Asiako lan esku merkearen erabileran etab.). Ordea, lehia ekonomiko orokortuak arnaserako tarte gutxi lagatzen du, balioa etengabe birsortu eta merkatu kokapena borrokatzera behartuak baitaude. Arrasateko Kooperatibek ildo horretako eztabaidei aurre egin behar diote bai barne-mailan zein iritzi publikoari begira.
- iii) Merkatuaren premia eta eskari geroz eta pratikularrago, zehatzago eta azkarragoek, kooperatiba barneko demokrazian eragin kaltegarria du. Langileen autogestio kultura kolokan geratzen da sarri enpresagintza berriaren *management* eta kudeaketa estrategiekin, talentuaren erretorika diskurtsiboarekin kasu, teknokraziaren mesedetan. Langile batzorde eta asanbladek erabaki efektiboak hartzerako orduan menpekotasun handia garatzen dute kudeaketa-batzordeekiko. Azken horiek, kooperatiba barruan botere kuota altua lortzen dute eta eragin-indar nabarmena daukate kooperatibaren norabidea gidatzerako orduan.

Hiru tentsio estruktural horiek kooperatibaren eguneroko jarduna baldintzatzen dute. Horien gainean irakurketa ezberdinak egiten dira: ikuspegi ezkertiar kritikotik, kapitalismoaren aurpegi *jatorrago* bat besterik ez da izango, funtsean merkatuaren egitura erreproduzitzen baitu. Bestetik, erreformismoaren barruan kokatu ditzakegun korranteentzat, jasan beharreko kontraesan sistemikoak dira, baina aurrerapen esanguratsua lortzen da justizia sozialarekin loturiko irizpideetan. Aipatu behar da, ordea, ez gaudela ongizate estatuaren garai keynestar fordistan, bestelako logika kulturek, subjektibotasunek, mundu-ikuskerak eta zentzu komunek egin dute lekua gizarte garaikidean. Auzi ekologikoaren larritasunak kooperatibismoa erreforma/iraultza eskema ez den bestelako betaurreko batzuetatik irakurtzea eskatzen du, ahal dela, konplexutasuna barnebilduko duten azalpenetan, eta dikotomia hori gaindituko duena. Gure irudiko, Euskal Herriko esperientzia autogestionario esanguratsu eta arrakastatsu horrek izan ditzake post-hazkundeko gizarte eta ekonomia forma bat inspiratuko duten elementu interesgarriak (autogestiotik eratortzen diren gobernantza era sofistikuak, demokrazia ekonomikoaren ideia, arima birbanatzailea...) baina, prozesu hori gerta dadin, haren gorputz sozialaren begirada kultural garapenazetik aldentzea, zuzendaritzen hazkunderako begirada estrategikoak zalantzan jartzea eta AKE-ren identitate industrialaren berrikuspen sakona egitea ezinbestekoa izango da.

Hori esanik, zein paper joka lezake AKE-k post-hazkunde gizarteranzko balizko trantsizio batean? Zein izango litzateke merkatuaren lekua gizartean? AKE, merkatuko eragile ekonomikoa izanik, bete-betean jotzen duen galdera da. Posible izango du kooperatibismoak jasangarritasun ekologikoan urrtas sakonak ematea, hazkunde gizarteratik atera ezean?

Lehenik eta behin, pozt-hazkunde gizarte baterako bidean, kontuan hartu behar dugu lehia globalaren testuinguru orokorra oso indartsua dela, eta oinarri material errealek dauzkala. Bada, epe laburrean kooperazio sozial orokor bat abiatuko dela pentsatzea, sinesmen edo nahi bat izan liteke, baina oinarritu gabea da. Beraz, lehen oztopoa ekonomiaren kooperatibizazio baten ezinezkotasuna da. Izan ere, kooperazio hori gauzatu ahal izateko, ekonomia liberaletan botere kokapen garrantzitsua duten eragileek uko egin beharko liekete haien kokapen pribilejiatuari, herri klaseen mesedetan.

Bestela esanda, politikoki kooperatibismoa ekonomiaren alor orotara hedatzea erabakiko balitz, erresistentzia gune sendoak eta jokabide oldarkorrak zabaltzeko aukera areagotzen da. Gainera, zalantzakoa da ea ekonomiaren kooperatibizazio horretan joera akumulatzaileari uko egingo lioketen kooperatibek eurek, haien artean lehiatuko luketeelako eta beti egongo direlako desberdintasun sozial eta ekonomikoak birproduzitu dituzten elementuak.

Konplexutasun maila altuak lorturiko gizarteetan, nekez irudikatu dezakegu merkatuaren gaindipenik edo eredu kooperatibistaren hedatze orokorrik, tokian tokiko komunitate erroturik, elkartasun mekanismo instituzionalizaturik, eta behar sozialak asetzeko ekimen komunitario indartsuak egon ezean. Horrez gain, Joaquim Sempere soziologoak ohartarazi moduan, botere oligarkikoek kooperatibismo dosi bat onartzen dute, baina ekonomian gehiegizko pisua hartzera iristen bada, joera hori mozteko neurriak hartuko dituztela pentsatzea oso probablea da (Sempere, 2012: 2-3). Alegia, enpresaren barne antolaketak bezainbat eragiten du botere ekonomikoa konfiguratu dagoen moduak eta hor dauden indar estrukturalak, kooperatibismoari muga nabarmen bat jartzen diotenak.

Santiago Muiñok (2015) hiru muga jartzen dizkio merkatua gainditzeko proposamenari: I) batetik, indar produktiboen topo egingo dute muga sozioekologikoekin, eta horrek mesfidantza, ziurgabetasuna eta harreman ekonomiko eta sozialak ahultzen ditu ii) giza portaera aurreikusi eta iragartzeko ezintasuna. Gizakia agentziadun subjektu den neurrian, ez dakigu ekonomiaren antolakunde berri eta sakonki ezberdinean nola erantzun duen iii) gizartearen interesen gaineko borroka dialektikoa dagoen neurrian (zein dira eta zeinek erabakitzen du, zer den interes orokorra?), zaila gertatzen da pentsatzea ustezko interes orokorraren izenean ekonomia irizpide ekologikoekin armonian antolatuko dela, izan ere, beti egongo dira hori errefusatuko duten indar politiko eta ekonomikoak.

Agian, ea kooperatibismoak gizarte eraldaketa ekosozialean sakondu dezakeen edo ez argitzeko, ondoko puntuetan sakondu beharko genuke:

- i) Modernitateak abiarazi duen lehia orokortuan, merkatua gizarteko erakunde goren gisara errotu da. Zein ekintzarako-tarte dauka, konfigurazio horretan, bestelako moldez jardun nahi duen eragile ekonomiko-sozialak?
- ii) Autogestioaren kultura mantendu daiteke eskala makroetan? Hau da, milaka bazkidez osatutako instituzio konplexu baten eraketan (jatorri kultural ezberdinekoak) posible da logika solidarioak eta sozialismoz bustiak mantentzea?
- iii) Subjektibotasun garaikidearen auzia edo auzi kulturala: soziologia garaikideak deskribatzen digun eta tesi honetan aztertu dugun norbanako bakartiago, etekinari begirako, ibilbide profesional arrakastatsuen miresle eta kontsumo pribatuarekin loturiko balio-egituren jabea nagusitzen den honetan (kooperatiba batean lan eginagatik), nola egin liteke posible autoeraketaren indartzea?

Planteatzen dugun auzia teorikoa bezain praktikoa da. XX. mendean zehar egon diren sozialismorako trantsizio saiakerek erakusten dute prozesu horrek dakartzan korapilo eta oztopo ugariak. Marx beraren kokapena zaigu zentzu honetan argigarri, kapitalismoari kritika politiko-ekonomikoa eginagatik apenas ausartu baitzen balizko gizarte komunistaren ezaugarriak irudikatzen. Bada, merkatua indartsu den herrialdeetan post-hazkunde baterako trantsizioak edo, kooperatibismoaren hedatze batek kontuan izan behar du, eremu soziokulturalean sakonki errotutako praktikak direla merkatu jarduerak. Balizko erabaki politiko zentralizatu batek, merkatu jardueraren murrizpena edo ia erabateko desagerpena dekretatuko balu, finantza eta burgesian handien interes zuzenak kolpatzeaz gain, erresistentzia soziokultural ugari topatuko lituzke, neurriak eraginkorra izatea ekidinez. Trantsizioa pentsatu gura duen edonork kontuan hartu beharko lukeen ezaugarria da egitura sozialak sakonki gurutzatzen duen faktorea dela merkatu erakundearena, eta hori ezin dela borondatezko modu batean edo erabaki zentralizatu batekin eraldatu, prozesu eraldatzaile psikokultural eta historiko-sozial zabalago batekin harremanean baizik.

Ziur aski, merkatuaren logikak horren zabaldurik eta hegemonizaturik egonik, lan nekeza izango zaigu merkatu jarduera zentralik gabeko post-hazkundeko gizarte moderno bat irudikatzea bera. Hortaz, trantsizio sozioekologikoa pentsatzen diharduten zirkulu intelektual garaikideetan merkatuaren nolabaiteko arauketa bilatzea da nagusitzen den tesia. Merkatua egon bai, baina erakunde politiko eta sozial ezberdinen irizpideetara lerraturik, muga ekologikoen barruan. Auzia, ordea, korapilatu egiten da esperientzia

historikoari begiratzen badiogu, merkatua modu batean edo bestean interes sozialen menpe jartzeko egon izan diren saiakerek porrot egin baitute, merkatu askearen ideologiak irabazi du, atal teorikoan aztertu dugun moduan. Gaur gaurkoz jorratzen den eztabaidan orain arte egon ez den ezaugarri batek gainerako guztiari egiten dio itzal, kolapso sozioekologikorako aukera errealak. Horren aurrean ekiteak, merkatuari bere lekua eta ondo kontrolatutako jarduera emateaz gain, eremu ekonomiko guztiaren gainean esku-hartzea eskatzen du, neurri zorrotz eta eraginkorrekin. Besterik da, geurera ekarriz, AKEk zein paper jokatu behar duen prozesu horretan, merkatu eragilea izanik, teorian merkatuari espazio soziala kentzeak kooperatiben jardute eremuari espazioa kentzea ere badelako.

Ekonomia instituzio sozial eta politikoen esanetara jartzea bilatzen duen tesi polanyiarrak badu ere askatzen zaila den beste korapilo bat kooperatibismoaren ikuspegitik. Kooperatibaren helburuak, zentzua eta langile-bazkideen konpromisoa ongi funtsatua egonagatik, bere jarduerak estrukturalki loturik egoten jarraituko du kapital metaketa, berrinbertsio eta balio-sorkuntza mekanismoei. Baldintzatzaile estuak izanik, kapitala eta lanaren arteko gatazkari barrura begira konponbidea eman arren, merkatuaren eskaeretara eta kapitalismo axiomatikoaren jarioetara egokitzeak kooperatibaren dimentsio sozial eta politikoa ahulduko du, dimentsio ekonomikoari pisu handiagoa emanda. Partida, beraz, ez da soilik kooperatiba barruan eta inguruarekin duen harremantzeko moduetan jokatzen, logika estrukturaletan baizik.

Bestalde, esatea dagokigu, merkatu eskakizunak kooperatibaren jarduera bera erabat lausotzeko duen dinamikari arrakalak eragin diezaiokeen eremua, eremu sinboliko eta kulturala dela. Demokrazia ekonomikoaren postulatuetan, ondasun komunen aitortzan edota kontzientzia ekologiko sakonean hezirik dauden subjektuek, merkatu logiken hedatzeari muga soziokultural batzuk jartzeko ahalmena izan dezakete. Balioaren birsorkuntzak bere izaeran daraman indar biderkaitzailea *kontrapisu* kultural eta politiko astunekin orekatzea litzateke formula, gizarte zibil antolatu trinkoaren eta balio demokratiko sakonen errotzeari eskerrak. Ordea, *norbere enpresagintzan* eta kontsumo gizarteetan sozializatutako subjektu garaikideak osatzen du geure gizartearen magma kulturala, balio hedonista, nartzisista eta egoikoez konfiguraturik dagoena. Konfigurazio soziokultural horrek, are gehiago zailtzen du kooperatibismoaren hedatzea edota praktika kooperatiboaren sustraitze sakona. Esan liteke erakunde kooperatiboak formalki era demokratikoan osatuak badaude ere, eduki sozial eta komunitario sendoz bete ezean kanpotik eratorritako logika estruktural makroek (dimentsio ekonomiko zein psikosubjektiboan) eragin gaitasun handiagoa izango dutela kooperatibaren jardun eta barne funtzionamendu errealean. Horren ondorio dira elkarrizketetan agertu zaizkigun *demokrazia errealaren gabeziak* edota beste edozein enpresan egon daitezkeen botere-harreman ez-igualitarioen existentzia bera.

8.2 Arrasateko kooperatibismoa, Modernitatearen zimenduetatik eraikitako metabolismo-sozial ez-iraunkorra.

AKE-ren lehen urratsetan, eta egituratu den moduan, nabarmena izan da fundatzaileen sentikortasun soziala eta ikuspegi humanitarioa. Pertsona oso eta heldu-hiritar bilakatzearen zentzuan, langile klaseko seme-alabei maila sozialean igotzeko eta berme material batzuk eskaintzeko bidea izan zen kooperatiba industrialen sorrera eta zabalpena. Hasierako legitimazio-iturri horien transmisioa ahulduta ordea, Arrasateko Kooperatibak palanka izan dira modernizazio prozesua azkartzeko eta hari loturik zetorren egituraketa sozial berria sendotzeko; hots, AKE-k, hasierako logika aurreztaile eta neurritsua gaindituta, klase-ertaina ekoizteko baliabideak jarri ditu, eta beraz, hari loturiko kontsumo praktika kulturalak, aztarna ekologiko altuarekin.

Alabaina, esan beharrekoa da hasierako taupada etiko-demokratiko horrek balio izan zuela printzipio kooperatiboak instituzionalizatzeko. Irabazien zati bat elkartasun kooperatibora bideratu beharra, erabaki-organo demokratikoak egituratzea, jabetza partekatua eta abarrak babes-harresi izan dira ekonomia global neoliberalaren zabaltze garaian, berdinzalatasuna eta sentikortasun soziala bizirik mantentzeko arnasa eman duena. Modu horretan, errentaren banaketa orekatuagoa, bazkideen arteko berdintasun juridikoa eta nolabait ikuspegi kolektiboagoa su txikian mantentzen lagundu du. Kasurik adierazgarriena, Fagor Etxetresnaken erorketaren ondoren gaitasun organizatibo handia erakutsi, eta bazkideak birkokatzeko eginiko operazio erraldoia da. Elkartasun mekanismoak instituzionalizatuta egoteari esker, beste faktore batzuen artean.

Izan ere, pentsatzekoa da Arrasateko Kooperatibismoak arau malguagoak onartu izan balitu eta nazioarteko merkatuen korrontean kokatu baita juridikoki ere, ez zela gaur egun ezagutzen dugun moduan agertuko. Dena den, klase ertainaren produkzioak eta hari loturiko mundu ikuskeraren hedatzeak erregimen soziometaboliko ez-iraunkor baten konfiguraziora eraman du AKE. Kooperatiben lidergotza daramatenen aldetik, nabarmena da ikuskera pragmatikoaren izenean mobilizatzen diren diskurtsoak, lehiakortasunarekin, merkatu-kokapenarekin eta hazkuntzaren premiarekin loturik doazela, krisi ekologikoaren dimentsioa ardatzera ekarri gabe. Era berean, hamarkadetan zehar lortutako emaitza ekonomiko onak eta bazkideetan hedatua dagoen desira kulturalak, Harmut Rosaren estabilizazio dinamikoaren ikuskera barneratzea dakar; hau da, uste izatea denak martxan ondo jarrai dezan, abiadura berean mantentzea eta pixkanaka azkartzea dela modu bakarra. Kontsumo-ohituren egonkortasuna mantendu ahal izateko, ezinbestekoa da hazten jarraitzea; soilik era horretan asetu ahalko baitira materialki hobetzeko dauden amets kolektiboak, etxea hobeak, furgoneta hobeak, soldata hobeak...

Desira material hori justifikatzen saiatzeko, krisi ekologikoaren aurrean ikuspegi ideologiko ezberdinak topatu ditugu, AKERen metabolismo-soziala konfiguratzeko dutenak ardatz soziokulturean: Alde batetik, diskurtso kokapen ugari zeharkatzen dituen negazionismoarekin egin dugu topo: horren arabera, larrialdi klimatikoari edo krisi energetikoari larritasuna kentzen zaio, zalantzan jarriz bere egiazkotasuna. Beste aldetik, kooperatibismoa trantsizio ekologikoarekin zergatik lotu beharko litzatekeen zalantzan jartzen den nukleo diskurtsiboa topatu dugu. Ikuspegi horren arabera, kooperatibismoak eta ekologiak ez leukakete lotura argirik, batek eredu sozioenpresarial bat adierazten duelako, eta besteak, gizartea orokorrean interpelatzen duen zerbait. Bi

ardatzak deslotzeko operazio horrek, funtsean, kooperatibek krisi ekologikoaren aurrean daukaten ardura arintzearen alde jokatzeko dute, urratsak eman behar badira, gainontzeko enpresen erritmorra emateko, ez azkarrago, ez polikiago.

Diagnostiko sozial horrek garrantzia paradoxo argigarrira: jasangarritasun ekologikoaren alde bultzatzea egoera sozial ez-jasangarriak sortu ditzake, tentsio, gatazka eta adostasun sozialen hausturaren zentzuan. Funtsetako bat, beraz, bada kooperatiben egituraketa soziala klase ertainaren iruditeria kulturalak elikatzen duela, eta nolabaiteko hurreratzea gertatu behar dela jasangarritasun ekologikoak eskatzen dituen errenuntzien eta klase-ertainak *ongi bizitzearen* gainean daukan iritzian. Bestela esanda, disputan dagoena kooperatibak *ondo joatea* zer den definitzea da, ea martxa on hori soilik epaituko den emaitzen balantza ekonomikotik, edo aldiz, bestelako ardatzak ere sartuko diren neurketa horretan, egonkortasun ekologikoa kasu.

Zentzu horretan, eraldaketa metaboliko esanguratsu batek esan nahi luke kooperatiben ekimen propioz sektore kutsakorrenetatik atera eta produktu jakin batzuk ez ekoiztea erabakitzea, sozialki eta ekologikoki kaltegarrienak diren sektore horietan (armagintza, hegazkin pribatuen industria etab.). Era berean, esan nahi luke produkzioa birtokiratu eta eskualde mailan erresilientzia gehiago garatzeko baldintzak jartzea, nazioarteko ekonomia egitura nagusietatik nolabaiteko autonomian. Beste hitz batzuetan, Arrasateko Kooperatibetan askatzen diren energia sozialak jasangarritasun ekologikoaren ardatzean sartzen saiatzea eskatuko luke murrizte metaboliko ahaltsu batek. Garatzen diren gaitasunak ikuspegi ekosozialarekin trebatzea, betiere autonomia irabaziz kapitalismo axiomatikoak askatzen dituen jarioen aurrean. Izan ere, nazioartera zabaldutako kooperatibismoa errealitate sistemikoa da gaur, edozein erabaki politiko esanguratsuk kontuan hartu behar duena.

Laburrean, esaten ari garena ez da ekonomia globaletik deslotu behar dela erabat, baina bai erregimen soziometabolikoa sakonki eraldatzeko prozesuak jarri behar direla martxan, eta horrek nahitaez eskatzen du ikuspegi materialean autonomia garatzea, kontsumo-maila nabarmen murriztuta. Beste modu batean ere esan dezakegu, kontua ez da lanpostu galera masiboa planteatzea, ez eta desazkudearen izenean kooperatiben bideragarritasunari uko egitea. Kontua da, eredu sozioproduktibo berriak arakatzen, garatzen, zabaltzen joatea, nolabait gidaritza metabolikoa eramango duten sektore berrietan, bailarara konektatuagoa eta mendekotasun energetiko baxuagokoa, iraunkorragoa. Zeregin horretarako, lehentasunen eskala birordenatzea funtsezkoa dela deritzogu eta kooperatibak etekina handitzea eta balantzearen emaitza ona lehen mailako helburuetatik kendu behar duela, negozio tamainaz txikiagoei, tokikoagoei eta botere ekonomiko gutxiagokoei lehentasuna emanda. Horrek eskatzen du kapital metaketa joera desarrolista eta hazkundeazetik haratago joatea estrategikoki.

Era bertsuan, Arrasateko Kooperatiben metabolismo soziala sentikortasun sozialak historikoki ezaugarritu izan duen arren, gaur konfiguratu den moduan klase sozial ezberdinak produzitzen ditu. Alde batetik, kooperatibetan urte asko daramatzaten kuadro/bazkideak daude, enpresa barruan boterearekin, zuzendaritza eta kargu organikoak betez, nolabait kooperatiben nazioartekotasuna kudeatzen dutenak. Bestetik, enplegu prekarioaren erabilera gorakorrak eta egonkortze estrategien faltak, enpresa barruan beste kategoria sozial batzuk sortzen ditu, mendekoagoak, erabakimen gutxirekin eta kooperatibarekin konexio ahularekin. Egituratze sozial horrek, kooperatiben berdintasunaren ideian tentsioak sortzeaz gain, bultzatzen ditu joera

teknokratiko handiagoak hartzera, eta ondorioz gizarte kapitalistetan eratzen den metabolismo sozialen antzeko formetarantz egiten du bidea. Beharrezkoa ikusten dugu, hortaz, jabetza eta gobernantza forma demokratikoagoak zabaltzeko estrategiak martxan jartzea; alde batetik, segurtasuna ekoizten delako krisi ekologikoak zabaltzen duen ziurgabetasunaren aurrean; bestetik, berdintasun eta pertenezia sentipena zabaltzen duelako, eta ondorioz, ardatz ekologikoan kooperatibak izango dituen zereginen aurrean inplikazio sakonagoa lortzeko baldintzak sortzen dira.

Ikuspegi materialari dagokionez, Arrasateko Kooperatibek duten mendekotasun fosila argia izateaz gain, nazioartean horrenbeste zabaldu izanak zaurgarriago egiten du nazioarteko merkatu-korronteen eta energia krisien fluxuetara. Ikusi dugunez, EAren sistema sozioenergetikoaren eta hedaduraz Deba Bailarako energia mendekotasunaren ajeak handiak dira. Bai Danobat, Copreci zein Fagor taldeak, jasangarritasun legearen irizpideetara iristeko, tamaina handiko eraldaketa materialak jarri beharko lituzkete gaur martxan, nolabait uko eginez erraldoitasun energetikoaren gainean ezarritako ekoizpen ereduari, eta alternatiba metaboliko iraunkorrakoak bilatuz.

Hori esanda, jaurti liteke galdera legitimoa: Jasangarritasunerantz urratsak emateak, gutxiago ekoiztea, nazioartean duten kokapena zalantzan jartzea eta bailarara zein bere inguruetara gehiago gerturatzea esan nahi badu, horrek botereari uko egitea esan nahi du. Sinpletasunaren bidetik eta nahikotasunaren kulturatik egiten diren proposamen ekosozialek ideia hori dute oinarrian, hain justu, loturetatik askatzea. Botereari, arrakastari eta kokapen sozial pribilejiatuei uko egitea, bizimodu mantsagoen, lasaiagoen mesedetan. Paradoxa kuriozosa eta legitimoa planteatu liteke, ordea, esanez hutsik lagatzen den botere kuota hori beste norbaitek beteko duela, ziur asko asmo eraldatzailerik gabeko eragile batek. Baina paradoxikoki, boterea da behar dena, trantsizio ekologikoa bide demokratikoetan eta klase sozialen artean orekan egin dadin. Nola kokatu, bada, ekonomia ireki, global eta aldakor honetan, ikuspegi ekosoziala ardatzean izango duen mugimendu kooperatibo bat? Metabolismo sozialaren murrizteak botere-galera sakona esan gura badu, zergatik utzi espazio hori beste eragile bati hartzen?.

Auziaren erantzun posibleetako bat, botere forma ezberdinak konbinatzen asmatzean datza. Hau da, eremu ekonomikoan urratsak eman bitartean -jakinik egiturazko arrazoiengatik beti onartu beharko direla aukera produktibista eta hazkundezale batzuk-narratiba kultural berriz busti beharko dira kooperatibismoaren senean ekoizten diren klase-ertainak. Pisu politiko handiagoko erabakiak hartuz, eta nolabait praktika eraldatzaile ekosozial berriak legitimatuz gizartearen begietara, sektore jakinetan lehiakideak ere birkokatzerara behartzeko ariketa jar liteke martxan, botere-kokapen sendoa mantenduta, baina aldi berean urrats erabakigarriak emanda. Baina prozesu hori posible egiteko, bistan da, lehenik subjektibotasun ekosozialaren buztinetik igaro beharko dugula, kontsumo-gizarteetan egituratutako nortasunen eraldaketa sakona posible den lekutik, hain zuzen ere.

8.3 Identitate kooperatiboaren ahuldadea, subjektibotasun ekosozialaren korapiloak.

Argi geratu da *habitus* kooperatibistak bere senean duen arima herrigilearen zutabea ahuldu dela. Nazioartera zabaldu, dimentsio ekonomiko eta sozialean hazi eta bere osaketa soziologikoa ugaritzeak/konplexutzeak kooperatibismoa bizitzeko modu berriak ekarri ditu, ez familia tradizioari, herriari edo bailarari lotuak. Beste lanpostu bat gehiago bezala, kasurik gehientsuenetan. Identitate kooperatiboaren eraikuntza prozesu geldo eta sigisagatsu modura ulertuta, argudia liteke talde identifikazioak nabarmen arrakalatu diren gizarte garaikide likidoetan, kooperatibismoaren ere atomizazio prozesu sozial horien baitan ulertu behar ditugula. Dena den, frogatu ahal izan dugunez, faktore endogenoak ere badaude, kooperatibetan sakon sustraituta dauden dinamika batzuetatik eratortzen direnak.

Luzatu dezakegu, beraz, lan-hipotesia: identitate kooperatibo sendo batek mesede egingo dio trantsizio ekologikoaren aurrean talde-sentipena mantentzen, eta kolektiboak norabide berean arraun egiten. Nolabait, taldearekiko leialtasun sentipenak garatzeak, blokeatu egiten ditu tentsioen gorakadak, eta hain erronka korapilatsuari oinarri sozial trinkoetatik eusten zaio. Jakin badakigu, tesian zehar landu dugun bezala, eraldaketa psiko-kultural eta subjektiboaren garrantzia funtsezkoa dela prozesu honetan; desirak eta kapital sinboliko zein materialaren metaketa mugatu ezean ez da egongo jasangarritasuna hegemoniko bilakatzeko baldintzarik. Gutxiagorekin hobeto bizitzen asmatzea, horra hor aski ezaguna den lelo ekologista. Jorge Riechmann pentsalari humanistak esan bezala, “ni”-aren auto-eraikuntza desberdinak jarri behar ditugu martxan, izaera egoikoak murriztuz, geure burua mugatzea baita gainontzeko bizi-formekin errespetuz jokatzeko modua gaur. Jasangarritasunaren muin nerbioa ez baita berriztagarriak era masiboan jartzen hastea eta lan esfortzu bizi eta saiatuaren bidez krisi ekologikoari aurre egitea, ezpada egiteari uztea:

“Sostenibilidad no es, de forma general, hacer más (aunque en algunos ámbitos haya que hacer más: energías renovables o tecnologías ecoeficientes, por ejemplo). Se trata, sobre todo, de hacer distinto y también de hacer menos. De ahí las dificultades políticas y sociales del asunto: añadir nos resulta fácil, autolimitarnos no. Pero tenemos que aprender a decir no colectivamente ante la terrible bulimia desarrollista.” (Riechmann, 2014:26)

Ariketa hori Arrasateko Kooperatiben senean egiteko, baina, bere esperientzia historikoa ezaugarritu duen elementu ideologiko zentral batean eragin behar da: lan saiatu eta diziplinatuaren ideian. Lanari gorazarre egiteak *habitus* kooperatibistak sakon ezaugarritzen ditu. Modernitateko gainontzeko ideologia nagusiekin (liberalismoa edo marxismoa) bikain ezkondu da zentzu horretan, eta hain justu, jasangarritasun ekologikoak eskatzen du lanaren utopiatik urruntzea. AKE-k modernitate kapitalistara iristeko palanka modura jokatu du XX. mendean, eta paradigma modernoaren kontraesan sistemiko nagusiak bereak ere badira. Hain zuzen ere, berriro diogu, zibilizazio paradigma hori berori da zalantzan jarri beharrekoa, hazkundearen ideiatik aldendu den eta haren bulkada kontsumozaleak erreprimetuko dituen gizarte forma iraunkorrari bide emanda.

Nola aldatu norabidea, ordea, behin garapen dinamikan erabat sartuta? Nola jokatu jada indar guztiak ekonomia globalean askatuta daudenean? Nola eraldatu, indar biopolitiko

neoliberalak herritarren gogo-arimak baldintzatzeko ahalmena duten sasoian? Joseba Gabilondo pentsalari eta saiogileak, krisi ekologikoaren aroan etorkizuna desiratzeko modua aldatu behar dugula defendatzen du: hau da, etorkizun hobe eta desiragarriaren ideia errenazentista edo komunista alboratu, eta apokalipsiari aurre egin behar dion mugimendu politikoa pentsatu behar genuke.

Kategoria horretan pentsatzeak guztiz itxuraldatzen du kooperatibismoak krisi ekologikoaren aurrean izan beharreko jokabidea. Auzia ez bailitzake izango garapen jasangarriari urrats batzuk eman edo GJH-ak apurka betetzen joatea, ezpada guztia birkonfiguratzeko, apokalipsiaren kolpea arintzeko kokapenak bilatuz. Gabilondoren ustean, hori igarotzen da estatua desiratzeari utzi eta prozesu destituitzaileak martxan jartzetik:

“Hori da Gabilondoren ondorioa. Politika destituitzaile baten helburua subiranotasun negatiboa dela formulatzen bada, politika berri bati zabal lekioke atea, estatuaren subiranotasuna berreraikitzeari uko egingo dion ekimen bati heltzeko, hau da, populismo negatiboa: estatuaren legeak ez dira berreraikitzen subiranotasuna herriari itzultzeko baino. Eta subjektu heterogeneoen eskaera destituitzailea beren buruaren burujabetasuna da, hau da, subiranotasun etnikoa, generozkoa, ekonomikoa, soziala, ekologikoa eta abar. Hala, ordena neoliberal globalaren adierazle nagusiak ukatzen dira eta subjektu heterogeneoaren burujabetasun-eskaera era negatibo, anizkun eta kutsakorrean zabalduko da, ordena neoliberalari ezetz esanez: destituituz” (Larrañaga, 2018: 116).

Produktio biopolitiko neoliberalaren aroan, beraz, destituitze mekanismoak martxan jartzeak esan gura du ere subjektibotasun neoliberalaren destituitzea, ihes lerroen bidez, beste norabait eraman eta bertan berlurraldetzea, irizpide ekologiko eta sozialen gainean. Bestela esateko, subjektibotasun ekosozialaren eraikuntza pentsatzeko, lehenago pentsatu behar da subjektibotasun neoliberalaren deseraikuntza. Ikusi dugunez, produktio biopolitikoak ezagutzaren gizartean, eragiten du giza gaitasunik onenak balio-sorkuntza kapitalistara bideratzea, baita geure gaitasun afektiboak, harremanetakoak edo sorkuntzakoak ere. Energia sozial eta subjektibo hori guztia balio-sorkuntzara bideratuta egonik, krisi ekologikoa iraunarazten duen sistema soziometabolikoa elikatzen du etengabe, eta ondorioz, gizarte azeleratuetan sakontzen. Subjektibotasunaren konfigurazio alternatiboak eskatzen du, beraz, pentsatzea subjektibotasun neoliberalaren deseraikuntza, egitura ekonomiko nagusien eraldaketa sakonarekin harremanean, kulturala eta materiala eskutik hartuta joan daitezkeen.

Lan honetan ikusi dugunez, ez da gauza bera industriak pisu handia duen sektoreetan lan egiten dutenen konfigurazio subjektiboa eta lanarekiko jarrera, edo sektore kreatiboagoetan dihardutenena. Lantegian langile sozial fordismaren elementu ugari birproduzituak ikusi ditugu oraindik ere, eta beraz, enkaje zaila daukate subjektu neoliberalaren tipo idealarekin. Dena den, auzi ekologikoarekin lotuz, industrian lan egiten duten langileen artean bai aurkitu ditugu erresistentzia handiagoak sentikortasun ekologikoarekiko, sektore digitalagoetan ari direnekin alderatuz gero, eta horrek, industriako narratiba kulturalan esku-hartzea premia-azkoagoa dela ondorioztatzea garrantzitsua. Esku-hartze hori, langilearen ongizatearen, oparotasunaren eta industriaren martxa onaren birdefinizioak ezaugarritu beharko luke, subjektibazio prozesu alternatiboak martxan jartzeko bezainbeste indarrez. Funtsean, berriz automugapenaren ideiarantz etorruta, subjektibotasun ekosoziala, kapitalismo axiomatikoa garaikidearen

definizio markotik kanpo jardungo duen subjektibotasuna da, ongi bizitzearen inguruan bestelako iruditeria mobilizatzen duena, kontsumo-praktiketarik eta klase-ertainaren egituratze materialetatik at.

Dena den, jasangarritasuna mugimendu kooperatiboaren identitatearen parte bihurtzeko dauden oztopoak handiak direla aztertu dugu. Alde batetik, gutxiagora etortzearen estrategiak sortzen dituen mesfidantzak nabariak eta transbertsalak dira kooperatibetako sektore ezberdinetan. Iraunkortasunaren garrantzia azpimarratu bai, baina desazkundera ez den beste proposamen batzuei heltzea nahiago da, garapen jasangarriaren eta GJH-en bueltan egindakoak. Nolabait, hazkunde birbanatzailearen formularen alde egiten da apustu, hazkunde hori deskarbonizatu litekeen esperantzaz. Bestetik, Arrasateko kooperatiben metabolismo soziala birproduzitzen den moduak oinarri material eta energetiko zabala eskatzen du, eta kooperatiben hazkuntza ekonomikoa bailarako bizi-mailari eustearen bermetzat jotzen da.

Bi hurbilpen horiek, zaildu egiten dute egiturazko erreforma sakona abiaraztea iraunkortasunaren eremuan, auzi ekologikoa bera kooperatiben eginkizunaren lehen lerrotik aldentzen duelako. Berriztagarrien konponbideari egiten zaizkio erreferentziak, kooperatibek egin beharko duten eraldaketak zentzu horretan joango direla argudiatuta. Ordea, jakinik erregai fosiletatik lortzen den energia kopurua iturri berriztagarritik ordezkatzeko zientifikoki ezinezkoa dela, beste estrategia batzuen diseinua eta gauzapen sendoa beharrezkoa deritzogu (zirkularitatea, mugikortasun mugapena, ekoizpenaren birtokiratzea, energia efizientzia, nekazaritza sektorearen aldeko apustua...) ardatz ekosozialak eskatzen dituen irizpideekin loturan.

Gure irudiko, Arrasateko Kooperatibek, subjektibotasun ekosoziala marraztu dezaketen eragileen bidetik, eragin kultural handia izan dezakete trantsizio ekologikoak abiarazi dituen prozesu sozialetan. Bere tradizioagatik, oinarri historikoagatik, agertu izan duen trinkotasun komunitarioagatik eta nazioarte mailan lortutako kapital sinbolikoagatik, XXI. mendean gizarte garaikideek duten erronkarik handienaren aurrean inspirazio-argi izateko baldintzak bildu ditzake, baina hori bai, egungo joeraren berrikuspen sakona egin eta energia kooperatiboak ardatz ekosozialarekin erresonantzia jartzen baditu.

Nolabait, gauzapen praktikoan erakutsi ahal izango lukeelako, suntsipen ekologikoaren bidetik ateratzea posible dela, autogestio konplexutik, aberastasunaren banaketa justuagotik eta komunitatearen beharrak lehenetsita. Aberastasunaren sorkuntza eta banaketan, mendebaldeko Europan dagoen esperientzia interesgarrienetakoa izanik, borondate politikoa izanez gero, zeresana eduki dezake trantsizio orekatu bat sortzeko narratiba kulturean eta bestelako harreman sozialak egituratu nahi dituen errelato ekosozialean. Noski, ekinbide hori ezin dezake berak soilik aurrera eraman, beste eragile ekonomiko eta sozial esanguratsuekin harremanean behar du. Nolabait, sektore sozial zabalak kontzientzia ekosozialez bustita egotea aurrebaldintza da eginkizun anbiziotsu horretarako. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia posible egin duen eta mantentzen duten oinarri sozialek norabide horretan bultzatzea funtsezko elementua dela deritzogu, errealitate instituzionaletik haratago, plangintza ekosozialak edukiz eta ekintzez beteko dituen subjektuaren parte izan dadin.

Alabaina, jakin badakigu gizarte bizitza botere-harremanez eta askotariko interesez gurutzatuta dagoela, eta sekula ez dela izango trantsizio ondo planifikatu eta gauzatua, gatazketatik, tentsioetatik eta borroka kulturetatik kanpo. Baina bai uste dugu,

jasangarritasuna AKE-ren bizkarrezurrean txertatzeak norabide argi bat marraztu dezakeela, krisi ekologikoaren larritasunaz jabetuz, eta justizia sozialarekin egingo den trantsizio ekologiko propio eta originalerako baldintzak ipiniz. Esperientzia honek biltzen dituen ezaugarri partikular bakan eta bereiziak, argi-izpiak izan baitaitezke unibertsalki erabiltzeko, beste lurralde batzuetan. AKE-ren bueltan biltzen diren jakintzak eta energia sortzaileak koordinada ekosozialetara ekartzea litzateke erronka, nahikotasunaren printzipioa gidari izango den tokira. Izan ere, auzia beste angelu batetik ere planteatu dezakegulako: iraunkortasunaren aldeko bide hori egin ezean, baldintza geroz eta zorrotzagoak inposatuak etorriko zaizkio, konfigurazio geopolitiko eta geoekonomiko korapilatu batean. Horrenbestez, ez da hainbeste borondate kontua, ezartzen den errealitate material pisutsua baizik.

8.4 Trantsizio eko-sistemiko baterako ikasgaiak Arrasateko Kooperatibismotik

Esan dugu jada, krisi sozio-ekologikoak zabaltzen duen testuinguru historikoak gizartearen erresilientzia eta autonomia gaitasuna indartzea eskatzen du. Zentzu horretan, komunitateek norbere ekonomia kudeatzea, autogestiotik, premia historiko urgente modura ageri zaigu, estatuaren edo merkatu eragile multinazionalen mendekotasunetik kanpo. Hor kokatzen da Arrasateko Kooperatiba Esperientziarekiko interesa, eta haien praktikatik jaso ditzakegun irakasgaien balioa. Helburu sozial eta komunitarioak lehenetsiko dituzten esperientzia herritarrak martxan ipinita, metaketa kapitalistaren lege zorrotzen aurretik. Emilio Santiago Muinoren berbetan:

“Por ello la transición sistémica hacia la sostenibilidad necesita una fuerte pulsión libertaria organizada al margen del Estado, con una estima utópica por la libertad como base de la dignidad humana, portadora de una enorme iniciativa y capacidad de emprendimiento que no sea exclusivamente lucrativa, empapada por una ética insobornable de fuertes principios solidarios y escéptica respecto a los tempos y los modos de la política institucional.” (Santiago Muño, 2016-817)

Gizartearen gaitasun eta autonomia sortzaileak iraunkortasun ekosozialaren helburetarantz jartzeko zeregina du trantsizio sistemikoa haragitu nahi duen eragileak, eta hori antolatzeko, erakundetzeko eta praktikan jartzeko eredu propio bat eskaintzen digu Arrasateko kooperatibagintzak. Ikusi dugu AKE-k, autoeraketaren ideiarik segika, herri autonomiatik jaiotzen den esperientzia arrakastatsua posible egin duela, baldintza historiko zehatzetara egokitzen jakin izan duelako. Bada, erreforma neoliberal edo neokeynestarrak aplikatuta ere, gure irudiko, funtsezkoa izango da estatuaren edo merkatuaren egituretatik haratago eraiki daitezkeen herri autonomiaren eta autogestioaren proiektuak, eguneroko beharrei erantzuna emateko, ekonomia zirkularraren, bertan ekoizitako produktuen eta kontsumo jasangarriaren bidez.

Dena den, Arrasateko Kooperatibismoak ere erakusten digu botere handiagoetan integratu behar diren zama edota autoeraketaren printzipioak malgutasunez irakurtzeko beharra, ordena sozial neoliberallean. Aztertu dugunez, nazioartekatze prozesuak ordena neoliberal globalarekiko mendekotasuna indartu zuen, eta ohiko enpresa praktika kapitalistetara hurbiltzera eramanez du azken urteetan korporazioa. Joera ekonomiko orokorra, hazi eta zabaltzearena izan da, Fagor Etxetresnaken kasuak erakutsi bezala, kolapsora eramanez duena. Egin dugun diskurtso analisian ere, hazkunde

ekonomikoaren joerari eustearen aldeko iritziak nagusitzen dira, eta beraz, ezin dugu baieztatu ikuspegi ekosozialetik positiboak direnik. Izan ere, ekonomia modernoek joera espantsionista hori bera da muga ekologikoekin talka egiten duena. Beraz, esan behar dugu, norabide estrategiko horretan jarraitzeak ondorio larriak izango dituela eremu sozialean eta ekologikoan ez ezik, ekonomikoan ere. Laburrean esanda, eta tesi hau hasieratik gurutzatzen duen galderara etorrira, AKE XX. mendeko marko kognitiboetan jaiotako eta egituratu da, eta modernitate kapitalistako tentsio-ardatzek baldintzatu dute haren bilakaera: guk gehitu nahi duguna da, marko kontzeptual horrek jada ez duela balio XXI. mendeak eskatzen dituen erronka ekosozialaren aurrean, kooperatiben zentzua, analisi-markoa eta kokapen sozioekonomikoa eguneratu beharra dago, baliabideen agortzeak, klima aldaketak eta gainezkatze ekologikoak ezaugarritutako aro historikoan.

Arrasateko Kooperatibek izan duten joera haztaile hori ulertzeko egin liteke agian ñabardura justifikatua: kontuan hartu behar da Arrasateko Kooperatibek joera espantsionista global horiei entzungor egitea kostu ekonomiko eta politiko altuko aukera izango zela, nazioarteko merkatu berriaren baldintza nagusiari nolabait izkin egitea ez bailitzake hauturik errazena. Berdintsu pentsatu dezakegu auzi ekologikoarekiko izan dituen jarreretan, bere hazkundezaletasunean edo produktibismoan, izan ere, ekonomia kapitalista modernoa ezaugarritzen zituen printzipio kardinaletatik *haratago* jardutea eskatuko luke horrek, oraindik garbi ikusten ez zuten krisi ekologiko lauso baten izenean. Baina puntu honetan iristen gara diagnostiko ekosozialaren garrantza gogorarazi behar izatera: hazkunde ekonomikoan oinarritutako eredu birbanatzaileak ez dauka baldintza materialik etorkizunean erreproduzitzen jarraitzeko; ondorioz, post-hazkundeko agertokietan pentsatu eta hara hurbiltzeko estrategiak diseinatzea ez da desira moral hutsa, premia material erreala baizik.

Arrazoi hori medio, iraunkortasuna lehiakortasunerako tresna modura ulertzen duen irakurketetatik urruntzea beharrezko dela irizten diogu, horrek auzi ekologikoaren aurrean modu traketsen kokatzea baitu ondorio, eta krisialdi sozio-ekologikoaren ertz gehienek aurrean itsu geratzea. Uste dugu, krisi ekologikoaren gaineko ikuskerak konplexutasunean irabazi behar duela kooperatibismoaren senean, egoera zientifiko erreala zein den garbi adierazita alde batetik, eta bestetik, horrek dakartzan inplikazio sozio-ekonomikoen eta kulturalen gainean analisiak zorrotz behar direla.

Era berean, ondorioztatzen dugu estatuak edo erakunde europarrek klima larrialdia aurrean ezarriko dituzten lege eta arauen zain egon barik, kooperatibek tartea badutela ekimen propioz urratsak emateko jasangarritasunaren eremuan. Puntu honetan estatuaren eta erakunde publikoen papera funtsezkoa izango den arren, erronka bada krisi sistemikoaren irakurketa barneratu eta kooperatibismoa tresna berriz hornitzea krisi ekologikoaren aurrean sendotasun gehiago erakutsi ahal izateko. Bere barne-estatuetan ekologikoki funtsatutako irizpideak erantsiz, langile-bazkideen pertzepzioan eraldaketak eragiteko formakuntza propioak eskainiz, prozesu produktibo iraunkorrak diseinatu ditzaketen ingeniariarekin lan eginez, espazioak efizientzia energetikoa ardatz izango duten eran birordenatuz etab. Funtsean, krisi ekologikoak zabaltzen dituen ziurgabetasun korronteen aurrean helduleku seguruak eraikitzen joatea da planteatzen duguna. Heduleku horien eraikuntza sektorearen eta baldintza propioen arabera erritmo ezberdinetakoa izan beharko da, kasu bakoitzean dituen inplikazio

errealak zein diren zehatz aztertuta, baina erronka ekologikoaren aurrean ardura egokia hartuta.

Trantsizio sozioekologiko hori ezin da kooperatibaren senean modu homogeneoan pentsatu. Garbi dago, sektorearen, tamainaren eta kooperatiba bakoitzeko ezaugarrien arabera abiadura ezberdinak eta estrategia propioak pentsatu beharko direla. Eredu batzuetan, martxan jarri daitezkeen eraldaketak oso murrizak izan daitezke, baina beste batzuetan eraldaketa sakonak aurrera eramateko apustuak egin ahal dira. Sektore kutsakorrenetatik aldendu, eta sektore estrategiko berrietan alternatibak eraikitzen joatea gako izango da; baina hori bai, hazkundezaletasunetik aldentzen diren proiektuak martxan ipinita. Esaterako, bere jarduna energia berriztagarrietan zentratuko duen kooperatibak biderkatuz, energiaren gaiari ikuspegi komunitariotik heldu diezaiokegu, hazkunde-eredua bazterrean utzita. Modu horretan, autonomia mantendu eta nazioarteko korranteetatik babesteko neurriak jar daitezke martxan, post-hazkundean ardaztuko den ekonomia estazionariora bidean. Prozesu hori aurrera eraman ahal izateko, ordea, trantsizio ekosozialaren aldeko legitimazio-indarra irabazi beharra dauka, gizartean askotariko eragileen aldetik bultzatua, kooperatibak tartean.

Ondorioztatzen dugu, hortaz, AKE-k krisi ekologikoaren testuinguruan kokatzeko Arrasateko identitate kooperatibistaren moldatze sakona beharrezkoa dela. Gure irudiko, auzi ekologikoa modu zentralean irakurri eta barneratuko duen identitate berritu baten eraikuntza premiazkoa da, joera hazkor eta akumulatibotik atera, eta bestelako lurralde ekonomiko eta sozialak arakatuko dituen, post-hazkundeko ekonomiekin sinergian. Horretarako, funtsezkoa deritzogu eraberritze prozesu horretan izaera sozial eta politiko sendoagoa barneratzea kooperatibek, mugimendu izaerarekin bat eginda eta jada trantsizio ekosozialean lanean ari diren eragileekin aliantza sakonak sustatuta.

Behin hori esanda eta egiturazko arazo horiek kontrastatuta, bestelako gizarte eta ekonomia konstelazioa irudikatzerako orduan, azpimarratu behar dugu ezin diezaiokegula Arrasateko Kooperatibismoari eskatu kapitalismo axiomatikoaren mekanismoak desegitea, eta azken bi mendeetako inertzia sistemikoen itzalean ez kokatzea. Metabolismo sozial garaikidea ezaugarritzen duten elementu sistemikoen eraldaketa bere ahalmenetatik askoz haratago doan eraldaketa politiko eta kulturalaren eremuan jokatzeko baita. Dena den, AKE-k bai jarri ditzake martxan neurri eraginkorrak eta diseinu estrategiko anbiziotsuak, ekologikoki kalte handia eragiten duten jarduerak mugatzeko, erakunde publiko eta pribatu ezberdinekin elkarlanean.

Aipatu nahiko nuke ere Arrasateko Kooperatiben azterketa metaboliko-sozial honetatik eratortzen den beste ondorio bat: lanaren eraldaketa post-fordistak eta digitalizazioak abiarazitako prozesuak, trinkotasun komunitarioan arrakalak sortu eta lanaren ekarpen ekologikoa ez-jasangarria izaten jarraitzera darama. Automatizazioa eta digitalizazioa izanik lanaren munduak azken hamarkadetan identifikatu dituen bi prozesu eraldatzaile nagusiak, azpimarra egin behar da digitalizazioaren orokortzea eta iraunkortasuna ezkontzen zailak diren bi eremu direla. Digitalizazioak oinarri fisiko-material jakina behar du, mineral urrien erauzketan sakontzen du horrela eta energia-erabilera areagotzen da. Lanean zehar ikusi dugunez, digitalizazioa geratzeko etorriko den prozesu modura interpretatzen da, lanpostu ugariarentzat mehatxu izango dena, eta kooperatibek bere bura berrasmatzen eta birkokatzen asmatu beharko dutena. Alabaina, lan munduaren ardura ekologikoaz ari bagara, funtsezkoa da prozesu horien gainean eraiki diren

kontakizun kulturelei bigarren buelta bat ematea, eta beste oinarri sozio-ekologiko batzuetatik irakurtzea prozesua.

Trantsizio sistemikoaren premiei begiratuta, lana bizitza sozial eta komunitarioan integratua egotearen amets emantzipatzaile zaharra (gaur ingurune ekologikoaren baldintza gehitu beharko genuke) gaurkotu eta eguneroko praktikaren bidez eraberritzeko programa sakona eraikitzea funtsezkoa da kooperatibagintzarentzat. Babes-harresiak ipinita krisi ekologikoak ekarriko dituen ondorio kaltegarrien aurrean. Lurraldean kooperatiba ekosistema ertain-txiki sakabanatuagoa sortuta eta estrategikoak diren sektoreetan hornidura bermatuko duten kooperatiben autonomia maila finkatuta, komunitatearen beharrei aurre egiteko egitura ekonomiko indartsuagoa izango dute Arrasateko Kooperatibek, krisi ekologikoaren kolpeei eusteko beste gihar birbanatzaile edukiz. Langintza horretarako, baina, beharrezkoa izango da diagnostiko ekosoziala muinean duen kontakizun kulturalak bere bidea egitea gizarte zibilean, nolabait Arrasateko Kooperatibek jasangaritasun ekologikoarekiko apustu material sakona kulturalki legitimatzeko indarra izango duena.

Badakigu prozesu sozialak ezin direla aurretik dekretatu, edozein planifikazio sozialek bere gauzapenerako baldintza historiko zehatzak aurkitu behar dituela, eta normalean bizitza soziala, etorriaren, berriaren, ez-ustekoaren historia dela, kontingentziarena, Deleuzekin ikusi dugun moduan. Baina norabide bati bai jarri dakizkioke irizpideak, toki batzuetatik joan dadin lagundu, oztopoak leundu, eta nolabait prozesua zaindu. Hori, metabolismo soziala egituratzen duten hiru fronteetatik egin behar da, kulturaletik, sozioekonomikotik, eta metabolikotik. Hiruak daude elkarreragin estuan, eta hain justu, Arrasateko Kooperatiben metabolismo sozial ez-jasangarria birproduzitzen dute, beti forma berrietan, beti forma aldakorretan. Bada, elkarreragin horien konexio-puntuak bilatu, eta nerbio sentikor horietan eragitea da erronka, metabolikoa eta kulturala nola konektatzen diren ikusi eta esku-hartze zehatza planifikatuz, funtsean, modu jasangarrian birproduzitzeko den trama metaboliko sozial berri bat josteko.

Izan ere, diagnostikatu dugu egitura instituzional kooperatiboa edukiagatik, berau kooperatibismoz jantzi beharko lukeen su kulturala baxu dagoela, eta horrek zaildu egiten duela trantsizio ekologikorako bide katramilatsua hartzea, zentzu kooperatibo batean. Arrazoi hori medio, AKE-tik ikasi dezakegu su kultural hori bizirik mantentzearen garrantzia, arkitektura instituzionalari benetakotasuna, grina, bulkada emantzipatzailea eta nolabait aspirazio politikoa ipintzen dion elementua baita. Hortaz, komunitate bakoitza bere buruaren egile den zentzu arizmendarrietarrari, hori soilik komunitate parte den bizitzaren-tramaren baitan dela posible erantsi behar diogu gaur, su kulturalak ezinbestez taupatu behar duela arima iraunkorra, bai zentzu sozialean zein ekologikoan.

8.5 Ikerketaren mugak eta zabaltzen diren ikerketa lerro berriak

Hasieratik zehaztu dugunez, ikerketa honen izaera orohartzaileak ezinbestean egin behar izan du ikerketa objektura hurbilpen mugatu bat. Lagin adierazgarri bat hartu eta landu dugu, eta iruditzen zaigu iker-objektua sakontasunean aztertzeko baldintzak jarri ditugula. Dena den, ikerlari bakarraren trebetasunak eta baliabideak mugatuak diren neurrian, alor batzuetan lagin handiagoa aztertzeak eta datu gehiagotara iristek interesa dauka, bereziki atal metabolikoari buruzko alorrari dagokionean. Uste dugu, materia eta energia fluxuen gaineko analisi zehatzagoak eskuragarri izateak, egoeraren azterketa zorrotzagoa egiteko bidea zedarritzen duela, eta ondorioz, kooperatibak trantsizio ekosozialaren markoan kokatzeko oinarri zientifiko sendoagoak jarriko liratekeela.

Edozein kasutan, kooperatibak deskarbonizatzeko prozesuan gehiago ikertu, idatzi eta pentsatu beharraren premia azpimarratu nahi genuke; ez soilik atal material/fisikoari dagokionean, bere eragin sozial, kultural eta ekonomikoak aztertuko dituzten ikerketak beharrezkoak direla irizten diogu. Zehazki, ikerketa honek begirada zabal eta makroa baliatu badu ere, kooperatiba bakoitzaren azterketara gerturatuz argazki finagoak eta zorrotzagoak atera ahalko dira, eta trantsizio ekosoziala burutzeko bideorri zientifiko-tekniko eta soziolaboral zehatzagoak lantzeko baldintzak ipini daitezke.

Era berean, krisialdi ekologiko eta sozialaren aroan ikerketa soziometabolikoek duten potentzian jarri nahi dugu arreta. Eremu metabolikoa, psikokultural-subjektiboa eta sozioekonomikoa uztartzen dituzten analisisien gorakada jorratu beharreko bide emankorra izan liteke euskarazko akademiarentzat, diziplinartekotasuna ezaugarri izango duena. AKERI buruz egindako analisi honetatik haratago, beste esperientzia interesgarri ugari aztertu daitezke betaurreko metaboliko-sozialekin, argia jarriz iraunkortasun ekologiko, sozial eta ekonomikoaren gai korapilatsuan. Gure irudiko, bide horretan egin daitezkeen ikerketek, ageriko interes soziologiko eta akademikoa izateaz gain, interes sozial handia dute, gizartera modu zuzenean itzuli daitezkeen jakintza sortuko luketelako.

9. KAPITULUA

Summary & conclusions

9. SUMMARY & CONCLUSIONS

1. Introduction

In the current context characterized by an unprecedented ecological crisis, the Mondragon Co-operative Experience (MCE) faces the challenge of updating co-operativism to this new dimension. Classical co-operativist thinking was formed on the theoretical foundations of modernity, with the precise economic rationality that characterizes the idea of growth. Thus, although co-operativism has successfully resolved the always conflictive relationship between capital and labour, it has been associated with nature on the basis of intensive exploitation and market resources. In this work, we study the co-operatives of Mondragon from a socio-metabolic approach, trying to clarify the role that the co-operative tradition can play in the socio-ecological transition. Above all, we will focus on the subjective form that contemporary co-operativism creates, discussing with other social theories that seek to form a social order beyond the Anthropocene.

2. Epistemological approach

Socio-metabolic research:

According to the perspective of socio-metabolic studies, the relationship between man and nature was defined in a dichotomous manner. In particular, after the Second World War, the social dimension had considerable autonomy in the social sciences, ignoring the limits imposed by nature. Gonzalez Molina and Toledo (2011) propose the idea of taking nature back into social and economic analyses, to overcome the epistemological paradigms of the post-war period. The belief that human relationships are distinct and independent from the rest of nature guided the development of social sciences, also influencing the theorists of the Anthropocene who based the interpretation of the ecological crisis on the central concept of *Anthropos*. This notion refers to the human species as a homogeneous collective actor that acts in a unitary manner, but does not take into account the profound social, economic and cultural differences that exist within it. These authors argue that the high energetic capacity of modern society has been translated into an anthropocentric fiction. In this way, the vision of the duality between man and nature must be overcome to build a social science that can analyse social processes within natural ones.

In the case of research in Basque, there are few references to social metabolism, the most notable being the study by Urikidi, Garmendia and Arto (2015) on social metabolism in the Basque Autonomous Community. The study details the ecological and social damage caused by the Community economic activity abroad, analysing foreign investments by Basque companies through three research cases (Urikidi et al., 2015:189). Although they approach the Basque sociometabolic system, their analysis is focused on the flows of matter and energy, regardless of cultural, symbolic or historical and social elements.

In this sense, the concept's trajectory in the social sciences has been closely linked to economic glasses (Santiago Muiño, 2015:114). In most studies of the metabolic regime, the focus has been solely on material elements over the past thirty years, mainly on determining quantitative indicators of sustainability. For example, in the study of Urkidi et al. (2015), it focuses on the resources that the Basque economy extracts from the territories studied, specifically on Indonesian palm oil, Bolivian tin or the performance of Basque tuna vessels in the Indian Ocean. However, the social and symbolic processes of the Basque social system, which inevitably feed these energy-material flows, are excluded from the analysis. In other words, the description of the way social metabolism operates within a certain cultural context remains unexplained. This thesis work will therefore seek to contribute to this field by linking these energy-material flows with the skeleton of a sociocultural system.

3. Research question and objectives

The main question that this study seeks to answer is the following: What valuable lessons can we draw from the Mondragon Co-operative Experience in the face of the socio-ecological crisis? How does Basque co-operativism stand in the face of the ecosocial transition? In order to find an answer to this question, it is essential to analyse the Mondragon Co-operative Experience from an ecosocial perspective, in order to be able to characterize its limitations and possibilities in relation to its historical trajectory.

Thus, we have formulated a two major and five specific objectives:

(i) the Mondragon Co-operative Experience has been a successful response to the redistributive conflict of the twentieth century, drawing international attention and appearing as a rich experience leading to more egalitarian and just societies. There are many authors who regard the Mondragon Co-operativism as the principal example of the transition to a post-capitalist society (Wright, 2010), and the discourse that has generally been built upon it has been built from both admiration and optimism. In this context, the main objective of this thesis will be to place Mondragon in the context of the ecosocial crisis, identifying the risks and limitations that arise from co-operativism itself.

ii) To this end, we have set ourselves the objective of completing a socio-metabolic analysis of the Mondragon Co-operatives, exploring three autonomous areas that interact between them: (i) the metabolic area of Mondragon Co-operatives. (ii) the socio-economic area of the Mondragon Co-operatives. (iii) the subjective and cultural area of the Mondragon Co-operatives.

- Specific targets:

(i) To identify the energy and matter flows that enter the activity of the co-operatives of Arrasate-Mondragón, in order to clarify the material conditions of the MCE for the ecosocial transition.

ii) To clarify the structural difficulties of co-operativism in operating within the framework of the market economy and to carry out the exercise of linking them to the process of the eco-social transition.

iii) Based on the experience of co-operatives in Arrasate-Mondragon, explore the limits and possibilities of co-operativism for the ecosocial transition.

iv) To develop a discourse analysis of sustainability within co-operatives, listing and analysing existing social beliefs and opinions on the issue.

v) To determine the forms of subjectivity that are put into operation within cooperatives, applying in that particular case theories of neoliberalism and contemporary subjectivity.

4. Theoretical framework

We have focused the theoretical framework of this study on three main branches. First, we have explained and developed some of the explanatory pillars of the social-ecological critical view, building the theoretical foundations of the social-ecological gaze that guides the thesis. In this regard, from the ecological economy and economic sociology, we have taken as our basis the open view of the works of Georgescu-Roegen (1971) and André Gorz (1995), which examine the cumulative dynamics of industrial civilization and the complexities of balancing ecological boundaries. We also explain the proposal of degrowth, as a way to achieve ecological sustainability and social justice. The basic idea is that we need to overcome the growth-centred societies, which are the responsible for ecological overreach.

Secondly, we have focused on the analysis of contemporary capitalism and the transformation of forms of work. Since the Co-operativism of Mondragon is immersed in this cultural, political and economic context, it is necessary for us to approach the current characteristics of capitalism. The analysis of its practices is an essential task, in order to understand the transformations that have taken place in the forms of work, on the one hand, and to observe the mechanisms for the production of specific subjectivities, on the other. We have thus sought a more complete and refined understanding of the socio-ecological crisis, in the light of the processes of transformation that have taken place in the world of work. To this end we have chosen the Deleuzian sociophilosophical gaze, which is very appealing and original to us, because it gives us conceptual tools for understanding the transition from fordism to post-fordism and the transformations of social life.

In direct connection with the foregoing, we have cultivated the forms of subject-formation which contemporary capitalism carries out. To do this exercise, we have selected a few Foucauldian authors that have contributed richly to the psychosocial diagnosis of the contemporary subject. In this way, we will deepen the question of neoliberal subjectivity

and its cultural hegemony in the business world. In addition, for a democratisation of the economy and its subjective form of function, there are important points of connection with many questions of the ecosocial transition which this thesis seeks to clarify.

As the third theoretical branch, communities and the deviation of human anthropology. We believe that it has provided valuable contributions from economic sociology and key arguments to understanding MCE. The co-operative experience grew up under the strict conditions imposed by capitalist modernity, and in the breath of the free market ideology that have prevailed in recent decades. We have thus connected the social-ecological crisis with the green strategies that are put in place in the age of cognitive capitalism to deal with it. For that task, we mention the mechanisms they implemented in contemporary market society. Next, to complete the Polanyian gaze, we have drawn points of connection with other cultural and community views, addressing the cultural issue of the ecosocial transition.

Finally, in connection with the previous theoretical pillars, we have endeavoured to introduce the Mondragon Co-operative Experience into this framework by establishing historical and social principles for its understanding. Thus we have characterized the evolution of the MCE with different elements, and have placed its foundations of thought in such a way as to compare them with the present situation.

5. Metodology

Faced with the complexity imposed on us by the paradigm of the civilization crisis, our work seeks to place that focus on the co-operatives of Arrasate-Mondragon. In this way, we will see through what discursive mechanisms the interpretation of the ecological crisis arises and what role co-operatives assign to the eco-social transition. Considering that social processes are associated with natural processes, we propose a socio-metabolic study of Mondragon co-operatives, which will be divided into three parts. I) metabolic axis (ii) socio-economic axis (iii) psychosocial axis.

This method has advantages and disadvantages compared to other research method options, but there are three circumstances that reinforce this election. Firstly, the case of Mondragón has never been studied with a socio-metabolic optic, therefore, that introduces a new element in the MCE research; secondly, by understanding the peculiarities of the Mondragón case, we will get closer to clarifying different cooperative experience, and their structural problems in the social-ecological transition. In third place, this thesis allows us to offer an analysis and explanation of the Mondragón Cooperative Experience and its relation with sustainability in Basque language.

Although we have mainly opted for qualitative research, we also provide quantitative elements, since a metabolic description requires the use of descriptive statistical data. To obtain empirical evidence on which this thesis is based, we have used three different research techniques: (i) documentary and bibliographic analysis (ii) in-depth semi-structured interviews (iii) participatory observation. In our case, these three techniques will provide empirical muscle to socio-metabolic research. We believe that by combining these three techniques, we enrich access to the social reality of cooperatives by various

means. Results are based on research conducted by the author between 2019 and 2022. In this period, we conducted 38 interviews (29+9), a research seminar (18 participants), and a several relevant document analysis. The interviews were carried out with profiles of different social positions: management members, young workers, co-operative partners, and sustainability area directors.

6. Empirical analysis

After analysing the data from interviews, participatory research, and documentary analysis, we have found six major discursive blocks in relation to the ecological issue:

(i) The Catholic grip on austerity and moderation in Mondragon: reference is made to the faith of the founders of Mondragon co-operatives and to the austere ethics. Temperance and criticism of cumulative tendencies are identified as elements existing from the beginning. The figure and influence of the priest Arizmendiarieta stand out in this area.

(ii) Sustainability as coercive necessity: Restrictions on growth and adaptation of production are expected to come from a strong executive authority. If we abandon ourselves to the will of cooperatives, it is considered impossible to deepen the level of resilience and take steps towards the eco-social transition. First of all, the managers of the companies are concerned about the amount of investment needed to achieve these ecological objectives, doubting what profit this will make. In other words, we have here an instrumental view of the transition, if it is not profitable in the economic dimension (either because it will yield profits or to avoid large fines) it is not necessary.

(iii) Sustainability in business pragmatism: sustainability is associated with business competitiveness, new markets are seen as opportunities, and the opportunity to create jobs is highlighted. This view reflects the possibility of adapting co-operativism to new market sectors related to renewable energy and digitalization, repositioning cooperatives in the new green growth dynamics.

(iv) Ecology opposed to the working class: Ecological transition is understood with great distrust. For the workers-partners, to enter into such a transformation means to bring them nearer to the situation of loss of employment and poverty, and they argue that no one wants it for their people and their families. Generally speaking, ecological transition is dominated by the imagery of obstacles, difficulties, and convoluted paths, and many have expressed fear of losing their jobs or failing the cooperative.

(v) Cultural difficulties of sustainability: In the opinion of the interviewees, access to more sustainable practices may or may not come through coercion. Material reality will cause ecological transformations in production chains, distribution and sales, but no transformation of the stage is expected from committed will or strong cultural impulse. The approach to sustainable practices carries with it the idea of sacrifice (less wages, less capacity for consumption), but in general no value of the time which it would release is emphasized.

(vi) Sustainability as an identity mark: According to this framework of understanding, the values of the Mondragon Co-operative correspond to the business model that is taking precedence in the constellation of the company, which offers a comparative advantage to co-operative activity in many areas, including sustainability. Of all of them, we can describe this current of discourse as the most critical line, with a deeper political-social look at it and the socioecological crisis. The Mondragon Co-operativism argues that there is a basis for playing a more leading role.

7. Concluding remarks

By way of conclusion, we have determined that this significant and successful self-management experience in the Basque Country may have interesting elements that inspire a post-growth transition: the sophisticated forms of governance derived from self-management, the idea of economic democracy, the redistributive soul... But, in order for this process to take place, it will be necessary to move away from the cultural and developmental gaze of its social body, to question the strategic aspects of the growth of the directorates and to carry out a thorough review of the industrial identity of the Mondragon Co-operatives.

By pulling this thread, Mondragon Co-operativism teaches us the burden of integration into greater powers or the need to read the principles of self-formation flexibly, in the neo-liberal social order and in the light of the processes of labour transformation. As we have seen, the internationalization process strengthened dependence on the global neoliberal order, and in recent years has led the corporation to approach traditional business capitalist practices. The general economic trend has been growth and expansion, as the case of Fagor Appliances has shown, which has led to collapse.

Even in the discourse analysis we have made, opinions in favour of maintaining the trend of economic growth prevail, and we cannot therefore affirm that they are positive from an ecosocial point of view. Indeed, is the same expansionist tendency of modern economies that collides with ecological boundaries.

We must therefore say that continuing in this strategic direction will have serious consequences not only in the social and ecological but also in the economic sphere. In short, and coming to the question that crosses this thesis from the beginning, the MCE has been born and structured in the cognitive frameworks of the twentieth century, and its evolution has been conditioned by the axes of tension in capitalist modernity. What we have added is that this conceptual framework is no longer valid in the face of the ecosocial challenge, that what the twenty-first century requires is to update the sense, the framework of analysis and the socio-economic position of cooperatives in a historical period characterized by the exhaustion of resources, climate change and ecological overflow.

We believe that the conception of the ecological crisis must gain in complexity in the instinct of co-operativism, clearly expressing the real scientific situation, on the one hand, and the analyses of the socio-economic and cultural implications of it must be sharpened. So we need to rethink how co-operatives relate not only to the nearby community, but

also to the environment, and we stress the importance of researching and theorizing about the problems, contradictions and tangles that these new forms of relationships can create.

We also conclude that without waiting for the laws and rules to be enacted by the State or European institutions in the face of a climate emergency, co-operatives have space to take steps on their own initiative in the field of sustainability. Although the role of the State and public institutions will be key here, the challenge is to internalise the reading of the systemic crisis and to re-equip co-operativism with tools to be more robust in the face of the ecological crisis.

By incorporating ecologically based criteria into its internal statutes, by providing its own formulations to bring about changes in the perception of working partners, by working with engineers who can design sustainable productive processes, by rearranging spaces in a way that will focus on energy efficiency, etc. Basically, what we propose is to build safe grips in the face of the currents of uncertainty that the ecological crisis opens up. The construction of these grips must be of different rhythms depending on the sector and its own conditions, analysing in detail the actual implications of each case, but taking appropriate responsibility for the ecological challenge.

This socio-ecological transition can not be thought in a homogeneous way in the instinct of the co-operative. Clearly, depending on the sector, size and characteristics of each co-operative, different speeds and strategies will have to be considered. In some areas the changes that may be put in place may be very small, but in others there may be bets on profound transformations. The path to sustainable production processes will therefore be diverse, conflicting and complex in each cooperative.

Moving away from the most polluting sectors and building alternatives in the new strategic sectors will be key, but with the implementation of projects that move away from growth, towards a seasonal economy that focuses on the post-growth that we have worked on in the theoretical field. In order to carry out this process, however, it must gain the legitimizing force in favour of the ecosocial transition, promoted by various actors in society, including cooperatives.

We therefore conclude that the contextualization of the ecological crisis by the MCE requires a profound adaptation of the co-operative identity of Mondragon. In our view, there is an urgent need to build a renewed identity that centrally reads and internalizes the ecological issue, draws it out of a growing and cumulative tendency, and explores other economic and social territories in synergy with post-growth economies. To this end, we believe that it is essential that in this process of reform co-operatives incorporate a stronger social and political character, aligned with the nature of the movement and promoting deep alliances with the actors already working in the social-ecological transition.

10. KAPITULUA

Eranskin teorikoak

10. ERANSKIN TEORIKOAK⁷²

Jarraian tesiko memoria testuaren osagarri diren atal teoriko batzuk bildu ditugu; alde batetik tesiaren gogoeta prozesua helduleku teoriko sendoagoetan oinarritu ahal izateko, eta bestetik, ikerlariak izan duen ibilbidearen lekukotasuna emateko, tesi baten idazketa geltoki ugaritatzeko igarotzen den prozesua delako. Ondoren datozen hiru atalek, Habermasen pentsamendua, digitalizazioa eta post-operaismoa, bere denbora eta lekua izan dute tesi honen osaketan. Dena dela, nahiago izan dugu testu nagusitik bereiztea, digresio horiek irakurketa oztopatu zezeketela iritzita.

9.1 Oharrak ehuntze komunitario habermasianoz:

Habermasen kasuan, kezkatzen duena merkatuaren zabalpen mugagabea da, Polanyi-ekin gertatu bezala. Biek partekatzen dute merkatuaren izaera *sozialari* buruzko ikuspegia, ezaugarri hori azpimarratzen dute eta bertatik pentsatu gizarte modernoetan gertatzen ari dena, esparru ekonomiko, politiko eta sinboliko-kulturalen. Tesian subjektibotasunaren auziak eta esparru sinboliko-kulturalak duen garrantzi teorikoa ikusirik, Karl Polanyiaren eta Jürgen Habermasen oinarritzko ekarpenak ezagutzeak balioko digu Arrasateko Kooperatibismoaren bi elementu zentralen (merkatuaren auzia eta dimentsio komunikatibo-komunitarioa) azterketara gihar teorikoarekin iristeko.

Aipatu dugu Polanyi-ren obraren tesi nagusienetakoa badela merkatuan eta soilik baldintza horietan gauzatzen diren harremanak bizimodu sozial eta kulturalaren gainontzeko esparruetara zabaldu dela. Modu horretan, lotura sozial iraunkorrek kaltetu eta komunitatearen ehundura sakonak desegin dira. Horra modernitateak konpontzen asmatu ez duen sufrimendu garaikidearen itogin nagusienetako bat. Jarraian aurkeztuko dugun Jürgën Habermas pentsalariaren oinarri batzuk, tesi hau gidatzen duen posizioetako bati oinarri teorikoa ematera datoz. Giza portaera eta jokabideak materialki eta estrukturalki baldintzatuta badaude ere, indarrean den eredu kulturalak, mundu ikuskerak eta molde subjektibo hegemonikoak berezko indarra daukate gizarte dinamikak alde batera edo bestera bideratzeko. Bestela esanda, auzi kulturala edo sinboliko-komunikatiboa ez da gainegitura arin eta aldakorra, marxismo ortodoxoak defendatu izan duen bezala. Sendotasun eta izaera ontologiko propioa du. Begirada horretatik zaigu interesgarri Habermasen ekarpena, batez ere komunikazioaren ildotik komunitatea berrehuntzeko eta ekintza komunikatibo arrazoituak gizarte-batasuna eragiteko duen indarrari arreta berezia eskaini ziolako.

Labur bada ere, irakurketa polanyiarraren osagarri gisa Habermasen ekarpenak aro modernoaren nerbio gehiagotara iristea ahalbidetzen digula uste dugu, eta merkatuaren eta komunitatearen arteko elkarbizitza konplexu horren arrazoietan sakonago arakatzeko aukera irekitzen digu. Ez dugu tesi habermasianoa burutu, honen obraren ezagutza eta aplikazio sakonean ulertuta, baina bai iruditzen zaigu beste inork eman ez

⁷² Testuaren gorputz nagusitik bereizita datorren atala izanik, aipuak bertan oin-oharretan jasoko dira datorren pasarteetan.

zituen zertzeladak pintzel finarekin marraztu zituela, begirada original eta iradokitzailearekin.

Ezertan hasi aurretik ezinbesteko erreferentzia da Frankfurtoko eskolako azken belaunaldiko kidea izan zela esatea, teoria kritikoari eta pentsamendu zein ekintza sozialaren norabideari buruzko lan mardulak ekarri dituen, oso aipatuak gizarte zientzietan eta filosofian. Alabaina, frankurtiar zaharragoek ez bezala, lerro berri bat ireki zuen, pentsalariari nortasun eta ahots propioa eman ziona. Adorno eta Horkheimerren *Ilustrazioaren Dialektikari kritika* obra ezagunean oso kritiko agertzen dira Frankfurtiarrak, garapenaren, aurrerapen moralaren eta giza gaitasunen hobetzearen ideia ilustratuekin. II. Mundu gerra eta holokaustoa moduko gertakari historikoen ondotik Ilustrazioak posible egin zuen arrazionaltasuna sutuki salatzen dute. Aldiz, Habermasen kokapena bestelakoa izango da, Ilustrazioan formulatu zen modernitatearen proiektua, pentsalari handiek egin (Kant, Voltaire...), bukatu gabeko proiektua da oraindik. Nolabait, Ilustrazioa praktikara ekarri nahiak espero gabeko ondorio kaltegarriak laga dituela defendatuko du, ondorioz gaurko pentsalarien zeregina kalte horiek arintzeko proposamenak egitea litzateke.

Habermasen obraren arabera, moderno bilakatzeak, garapen teknologikoa, hazkuntza ekonomikoa, gauzen kudeaketa arrazionala eta esparru sozial ezberdinen autonomia gehiago ekarri du. Ordea, eraldaketa prozesu horretan zauri nabarmenak geratu dira gizartearen gogo-erroetan.

Merkatuaren jardun araugabeak, eta Ilustrazioaren proposamenaren zenbait porrotek ekarri duten ondorez sozial eta ekonomikoak gainditzeko Habermas sistema eta metodoa garatzen saiatu zen, konstelazio intelektual oso sofistikatu proposatuz. Zientziaren objektibotasunaren bilaketak eta jakintza esparruen autonomiaren areagotzeak bi efektu izan dituela dio: alde batetik, bakoitzaren jarduteko moduak konplexutasunean irabazi du eta sofistikazioan hazi da; bestetik, publiko orokorretik bereizi dira eta esparru paraleloetan gauzatzen da; horra oinaze garaikidearen iturri nagusietako bat. Bere iritziak, arrazoiaren erabilera sofistikatu horrek "bizitzaren mundua"⁷³ deitzen dion esparruaren pobretzea ekarri du, sistemaren arrazoitzeko moduaren mesedetan. Hori da modernotasunaren arrisku nagusienetako bat. Bizitzaren mundua ekinbide eta praktika komunikatiboaren berezko etxea da, eta arrazionaltasun instrumentala nagusi den sistemaren munduak kolonizatu dezake. Prozesu hori gauzatuko balitz, modernitatearen proiektuarentzat oso mingarria izango litzatekeela dio filosofoak.

Ordea, pentsalariak arrazoi funtsatuaren goi-mailako erabilera ahalbidetuz gero, dio frogatu ahalko genukeela "nola komunitate politiko bateko herritarrek eragin kolektiboa eduki dezaketen euren patu sozialaren gain, prozesu demokratikoaren bidez". Funtsean dagoen oinarritzko ideia ondokoa da: komunikazio sofistikatu eta finduaren bidez

⁷³ Kontzeptu gakoetako bat da honakoa bere teoria soziala ulertzeko. Habermasen proposamenaren arabera bizitza sozialak bi esparru lituzke, bizitzaren mundua eta sistema. Lehenak, familiaren eta etxearen mundua ordezkatzeko du, esanahi eta adostasun partekatuak daude, subjektuak sozializatzen diren esparrua da, kode kultural konpartituak posible dira bertan. Bigarrenik, sistemaren mundua dago, eta honek arrazionaltasun instrumentalekin lotu daitezkeen jokabideei egiten die erreferentzia. Bere helburua ondasun eta zerbitzuen zirkulazioa martxan egotea da, ekonomia, estatuaren administrazioa edo efikazia teknikoaren bilakuntza esfera honetan gauzatuko dira.

gizakion arteko bereizketak eta ikuspegi etnozentriko-egozentrikoak bazterrean utzi daitezke, nolabaiteko pentsabide partekatua garatzeko. Soilik eztabaida arrazoitu eta funtsatuaren bidez iritsi gaitzke adostasun arrazionalera, mugarik gabeko komunikazioa aplikatuz. Puntu hori zaio interesgarrien, inguruan zabaltzen eta hazten ikusi zuen pentsamendu postmodernoaren erlatibismoa kritikatu eta arrazoia, garapena, zientziaren objektibotasuna, egiaren bilaketa... moduko printzipio ilustratuak ostera ere aldarrikatzeko ariketa egin zuen.

Weber-en irakurlea izanik, arrazionalizazio prozesua azalpen egokitzat hartzen zuen modernitatearen gakoak ulertzeko. Ordea, efikazia, kalkulagarritasuna, hoztasuna eta teknika historian aurrez sekula ez bezala garatu diren ezaugarriak diren moduan, modernitateak komunikaziorako gaitasunak eta aukerak ere biderkatu dituela defendatuko du. Soziologo alemaniar ezagunari kritikatu diona zera da: arrazionaltasun instrumentalaren hedatzeak ezaugarritu du modernitatea; garapen teknozientifiko azkarra ekarri du eta komunitate tradizionalak euren bizimolde historikoetatik aterarazi ditu. Baina era berean, Weberrek ez zuen identifikatu arrazionaltasun komunikatiboaren hedatzea ezinbesteko faktorea izan zela gizarte modernoaren etorrerarako zein garapen teknozientifikorako, elkar-elikatzen duten prozesu dialektikoan. Labur esanda, modernitateak zuzenbide estatu konplexua egin du posible⁷⁴, bere erakundetze prozesu gatazkatsu baina aldi berean finduarekin, sistema demokratikoen errotzearekin batera. Giza potentzialtasun hori, dio Habermasek, modernitateari berari dagokion ezaugarri berezkoa ere bada, bestelako egituratze eta elkarbizitza kolektiboak gauzatzeko funtsezko elementua izango dena.

Habermasek iritzi publikoaren sorrera prozesua aztertzen du XVIII. mendean, literatur aldizkariak, kafetegietako solasaldiak eta elkartzeko zein adierazteko askatasunaren eskubideen testuinguruan jaioa. Pentsalari alemaniarrek dioenez, garai historiko zehatz horretan sortu ziren baldintzak iritzi kritikoak osatu eta adierazteko, geroz eta ahulagoak ziren errege absolutuen gobernuetara oztokoak jartzeko. Argudio arrazoituaren sorrera hori kokatzen du Habermasek, nahiz eta zehazten duen hori egiteko aukera ez zela berdina talde sozialen arabera.

Bere obran zehar identifikatu dezakegu abiapuntuko galdera bat, zeinaren oinarritik eraikiko baituen ondoren bere lan teoriko sozial eta filosofikoa: Nola da posible soziologikoki geroz eta banatuago dauden gizarteetan nolabaiteko batasuna mantentzea? Historiako aurreko aroetan balio izan duten "ongia"ren deitzaile nagusiak desagertu diren honetan, erlijioa, aberria edo iraultzak jada ez dute balio elkarren artean horren ezberdinak izan daitezkeen sektoreak batzeko. Horratx bere proposamenaren jatorria, baldin eta batasun berri bat bilatu gura bada ilustrazioak garatu zuen modernitatearen proiektua egiazki gauzatu duena (aurrerapen moralak, zientzien eta arteen loratzea, erakundeen justizia eta gizakiaren zorientasuna) hori ekintza komunikatibo arrazoitutik pasa beharko da ezinbestez.

⁷⁴ Interesgarria da puntu honetan Fernandez Liriaren obra aipatzea, modernitate kapitalista modernitatearen hasiera besterik ez dela defendatzen du, oraindik oso gordin dagoen proiektua litzateke, baldintza sozial kapitalistan eta klase sozialetan banaturiko gizarteetan gauzatea ezinezkoa dena. Dena den, ilustrazioaren filosofo handiek egindako teorizazioak zuzenbideko estatu sozialaren, botere banaketaren edo giza askatasunaren iguruan idatzitakoak edozein emantzipazio mugimenduk onartu beharko lukeen postulatuetatik direla dio. Hain justu, hori egon da marxismoaren porrotetako bat Liriaren arabera, pentsalari ilustratu nagusiak burgesiarri entregatzean (Liria eta Alegre, 2010. *El orden del Capital*. La Habana, Ciencias Sociales.)

Konstituzioaren *patriotismoa* izan da bere planteamenduaren kontzeptu entzutetsuenetarikoa. Bere begien aurrean ikusten zuen gizartearen banatze soziologiko eta kulturala gainditzeko tresna aproposena begitandu zitzaion konstituzioa. Gizarte kulturantzak elkarbizitzaz jantzi nahi badira, etnia, kultura eta erlijio orok onartzeko moduko konstituzioak idatzi eta onartu beharko dira. Nolabait, ordena sozial berri baterako proposamena da luzatzen duena berritasun nabarmen batekin. Aurrez bestelako ordena sozial eta ekonomiko justuago eta igualitarioago batera jauzi egiteko egon izan diren proposamenek, lana izan dute ardatz nagusi, zer esanik ez marxismoan. Alabaina, Habermasen proposamenean interesgarriena da agian ardatza beste lerro batera mugiarazten duela, lana egon ordez erdigunean, komunikazioa dago.

Bere lan entzutetsuenean *Ekintza Komunikatiboaren Teoria*-n⁷⁵ arrazionaltasun komunikatiboaren ideia dakar. Horren arabera, erabakitze prozesuetan argudio arrazoitu eta funtsatuekin gertatzen badira eztabaidak, eragile ezberdinek besteengandik ikasiko dute hasiera baten egiakotzat edo jakintzat ematen zituzten premisa zenbait, berauek berformulatuz eta esanahi berriz hornituz. Intersubjektibotasuna da giltzarri, beraz. Adibide paradigmatico gisa, Europaren eraikuntza politikoa jartzen zuen. Europar Batasuna moduko proiektu konplexu eta korapilatsua ekintza komunikatiboari esker lortu zitekeela defendatu zuen, erakunde konplexu eta sofistikatuak eraikiz, baina batez ere, prozesu deliberatiboak eragile ezberdinen parte-hartzearekin gauzatzeko espazioak ahalbidetuta. Bestela esanda, Frankfurtiarrek dialektika negatiboan eraiki dute euren pentsamenduaren sistema, Adornoren kasuan bereziki. Habermasek metodo dialektikoa baztertzeko ez duen arren, dialektika negatibotik atera eta proposamen utopiko berria dakar, hau da, metodo dialektikoak balio dezake ilustrazioaren printzipioak erreskatatzeko eta iraganaren kutxatik hautsa kenduta berrezartzeko.

Proposamen komunikatiboan sinesteko gakoetako bat gizarte garaikideen dimentsio aniztasuna eta errealtatearen gaineko irakurketa posibleen zatikatzea da. Modernotasunaren estadiora iristean errealtateari begiratzeko modu uniformeak desagertu dira, errelato bakarrik ezin da gailendu prentsa eta adierazpen askatasuna, gabeziak gabezi, praktikak duten gizarteetan. Errealitate partikular bakoitzak interpretaziorako gaitasun gehiago garatuko du, eta gauzei bestelako azalpenak bilatu ahalko dizkie, elementu sakratuei gero eta azalpen gaitasun gutxiago aitortuta. Modu horretan, gizartearen ehuntzean funtsezko diren prozesuak, sozializazioa, erreproduzio kulturala edo integrazio soziala ez dira elizaren doktrinak edo aberriaren gorentasunak marrazturiko norabidera lerratuko, aitzitik, ekintza komunikatiboari esker, adostasuna ardatz izango duten prozesuak garatuko dira.

Erreproduzio sinbolikoaz ari da Habermas, bizimodu sozialaren edozein esparrurako funtsezko prozesua dena. Egunerokotasunean martxan jartzen ditugun estrategia komunikatiboetarako ezinbestekoa da kode sinbolikoak partekatzea, esparru sozial bakoitzak bere kode propioak garatzen ditu. Ordea, kode horien berritzea zein prozesuren bidez egingo den zehaztea da langintza zailenetakoa. Horregatik dio, pobretze kultural orokorra ari dela gertatzen gizarte garaikideetan, ez zentzu espezializatuko esparru ezberdinak ari direlako garatzen, adituen jakintza edonora iristen ari delako baizik, eguneroko praktika komunikatiboa oztapatuz.

⁷⁵ Habermas, J. (2004) *The Theory of Communicative Action*. Trotta, Madril, 2010.

Ekinbide komunikatiboaren kosifikazioaz mintzo da Habermas, tradizio kulturean berez adostasunaren eta kode kultural partekatuen bidez garatzen ziren esparruak arrazionaltasun ekonomiko-administratiboak irensten duelako. Bestela esanda, haurren hezkuntzan, integrazio sozialean edo ekintzak koordinatu ahal izateko adostasuna eta elkar-ulertzea funtsezkoa den eremuetan begirada burokratiko-instrumentala sartzeak zentzu-galera eragiten du, egonezin eta kezka pisutsuei bidea zabalduz.

Alabaina, aldagai materialaren arazoari soilik ekintza komunikatiboaren bidez erantzungo ote zaio? Materialismo historikoak planteaturiko arazoari beste erantzun idealista bat ez ote dio ematen Habermasek? Bada, bere teoriaren formulazioan agertzen zaion arazo horren jakitun hala dio:

“Naturalmente que la reproducción material de un mundo de vida se efectúa a través de los resultados y consecuencias de las acciones enderezadas a la realización de fines, con las que sus miembros intervienen en el mundo. Pero estas acciones instrumentales están entrelazadas con las comunicativas, por cuanto representan la ejecución de planes que quedan ligados con los planes de otros participantes en la interacción a través de definiciones comunes de la situación y de procesos de entendimiento (Habermas 1989: 381)⁷⁶”

Modu horretan, Habermasek aterabide bat eman gura dio gatazkari, berretsiz ekintza komunikatiboaren teoriak bere egiten duela erreproduzio sinbolikoa erreprodukzio materialarekin estu loturik dagoeneko ideia.

Bada, Polanyirekin azaldu dugun lokarri sozialen haustura ehuntzeko proposamen gisa ulertu dezakegu Habermasen proposamena. Antzekotasun handiak daude bi autoeron artean, bata bizitzaren munduko arrazionalitatea berreskuratzeaz mintzo zaigu, eta bestea merkatu ekonomia bestelako dimentsio sozial eta politikoen erraietan murgiltzeaz. Biak ere, arrazionaltasun liberalaren kritikariak, merkatu jarduera moderno *kaotikoa* balio humanistagoak lituzkeen begiraden mendean jartzea aldarrikatzen dute. Interesgarria litzaziguke, gure iker objektura ekarriz, Arrasateko Kooperatibismoa posible egin duen ekintza komunikatiboa aztertzea, zein komunikazio-ildok izan duen arrakasta gehien eta balio izan duen komunitatea arau batzuen pean egituratzeko, Atal materialak ez ezik, faktore kulturalak zerikusi handia izan baitu AKE zabaldu, errotu eta sendotzearekin. Hor lagatzen diegu, beraz, historialari sozialei gonbidapena.

Era berean, Habermasen pentsamenduak krisi ekosoziala pentsatzeko helduleku iradokitzaileak eskainzen dizkigu. Bere teoria aplikatuko bagenu, batek pentsa lezake ezatabaida arrazoitu eta funtsatuaren bidez, krisi ekologikoari eta haren larritasunai buruzko kezka sakona hedatu daitekeela gizartean, eta haren aurrean ekin beharra adostasun zabala bilakatzea. Ordea, esparru komunikatiboen baitan ere botere desoreka nabarmenak daude. Komunikabide nagusiek iritzia sortzeko duten gaitasuna kontuan izanik, krisi ekologikoa zientifikoki funtsatua egon arren, ez da momentuz egiturazko erabakirik hartu hazkunde gizarteak gainditzeko; are, hazkundera oraindik ere berehalako helburu modura hartzen da, uste izanda eragin positiboak izango dituela gizartearen bilakaeran.

Baina adostasun zientifikoak ez dauka itzulpen zuzenik iritzi sozial eta politikoetan, horiek arrazoiak gain emozioek, talde sentipenek eta askotariko interes ekonomiko eta politikoek moldatzen baitituzte. Egin diezaiokegu, bada, krisi ekosozialaren testuingurutik kritika, arrazoiaren idealizazioari. Prozesu sozial eta politikoak emozioz

⁷⁶ Habermas, J (1989) *El discurso filosófico de la modernidad*. Taurus. Madril.

eginak daude, eta haiek baldintzatzen dute mundu-ikuskeraren baten gorakada edo behaldia. Arrazoibide horretan zera esan genezake: krisi ekologikoaren gaineko arrazoi funtsatua edukitzea beharrezkoa den bezala, ezinbestekoa da ere eragile ezberdinak modu positibo eta proaktibo batean inplikatzeko trantsizio ekologikoaren erronkan. Esaterako, Arrasateko Kooperatibek inplikazio handiagoa izango dute, neurri ekosozialak gizarte eta bizitza hobere baten alde hartuak direla barneratzen bada kolektiboki, segurtasun ekonomiko eta bital gehiago emango duen esperantzan. Osterantzean, zuzendari batzordeetan hartzen den erabaki arrazional modura interpretatzen bada, gatzakak eta tentsioak areagotu daitezke, arrazionalki ulertu arren.

9.2 Digitalizazioaren eta gizarte eraldaketaren gainean oharrik.

Nahiko modu argian ikusi daiteke orain artean kooperatibek izan duten jarduteko erak egokitu behar izan direla internetek, globalizazioak eta nazioarteko merkatu lehiakorrek hala behartuta. Komunikazio-moduetan, makinaren arteko balio-kateetan edota zerbitzu pertsonalizatuagoak ematerako orduan aurrerapauso nabarmenak egon dira. Argitu behar gurek puntua, beraz, zera da: ea digitalizazioa posible egiten duten teknologia berriak soilik tresna berria diren, edota enpleguaren, enpresa barneko botere-harremanen eta produkzio moduen egitura aldatuko duen berritasuna den. Bestela esanda, gizarte eta lana egituratzeko moduak antzeko jarraituko ote duen, ezberdintasun sozial "klasikoekin" (genero-arrakala, gazteen prekariotasuna, klase bereizketa...) edota Presnky-k defendatu bezala, berritasun disruptibo baten aurrean gauden (lehen industrializazioak ekarri zuen tamainakoa). Egitura produktiboan gertatzen ari diren eraldaketek zein itzulpen dute gizarte egituretan? Proletalgo digital berri bat eraikitzen ari da? Edo klase desberdintasunak geroz eta murriztagoak dira?

Lehenik eta behin, digitalizazio prozesuen inguruan XX. mende bukaeran hitz egiten hasi zirela azpimarratu beharra dago, modernizazio prozesu jada klasiko eta luzearen azken ertz modura. Modernizazio prozesuak 60. eta 70. Hamarkadetan emandako eraldaketa estrukturalak definitzeko balio izan duen kontzeptua da gizarte aldaketaren soziologian, gizarte tradizionaletatik industrialetara emaniko jauzia azaltzeko (ikus lehen kapitulua). Bada, digitalizazio prozesuak modernizazioak bezainbesteko eraldaketa ekar dezakeela efendatzen dute autore batzuek, iraultza digitalaren inguruan mintzatzeraino (Castells, 1996)⁷⁷. Ikuskera horretan, digitalizazio prozesuak eta sarean diharduen gizartearen etorrerak gure produzitzeko, harremantzeko eta kontsumitzeko ohituretan eraldaketa iraultzailea ekarri du. Hortik dator bealunaldi digitalaren, millenialen edo natibo digitalen kontzeptua, apurketa oso garbi bat iradokitzen duena gaitasun digitalaren testuinguruan jaiotzen diren eta ez diren artean.

Esan beharra dago kontakizun soziologiko honek nekez eusten diola edozein ebaluazio zehatzi, eraldaketa sozialen soziologiak ongi aztertua baitu soilik faktore teknologikoaren eraldaketak ez dakarrela eraldaketa prozesu bat. Nolabait, ziberutopismoaren kontakizunak pisu esplikatibo handiegia airtortzen baitio arlo digitalaren potentziari. Batetik, bealunaldi digitalaren kontzeptuarekin deskribatzen den pertsona dinamiko, oso teknologizatu eta berritzaile horrek dituen kokapen soziologiko estruktural klasikoak

⁷⁷ Castells, M. (1996) *La era de la información: Economía, sociedad y cultura*. Alianza, Madrid.

azalpenetik at geratzen dira: ez dakigu zein ikasketa ibilbide izan duen, zein kapital sozialek eusten duen eta zein aukera estruktural eduki dituen bere gaitasun teknologikoak landu, zaindu eta garatzeko. Bestetik, sozializazio teknologikorako modu oso anitzak eta elkarren artean erabat ezberdinak egon litezke, eta ez da zehazten zein motibazio-indar, interes edo zaletasunek bultzatzen dituen sektore sozial jakin batzuk gaitasun digitalen etengako hobekuntzan murgiltzera.

Arrazoi horiek medio, zail zaigu digitalizazio prozesua prozesu iraultzaile modura definitzea, ez baita subjektu politiko zehatz bat identifikatzen prozesu horren gidaritza hartu, dinamizatu eta gizartearen luze zabalean hedatu duena; are, digitalizazioak eguneroko harreman sozialetatik hasi eta nazioarteko politikaraino dituen eraginak ulertu ahal izateko ezinbesteko zaizkigu teoria soziologikoak eman dituen kontzeptu eta azalpenetako asko geure analisisetara ekartzea. Gainera, ondorengo ezaugarri hauek aipatu ditzakegu: I) Interneten hedapena eta erabilera ez da berdina sektore sozioekonomikoen arabera, beraz, gizartearen botere-egituretan zaugarrien diren taldeek sarbide gutxiago eta aukera gutxiago dituzte teknologia modu eraginkorragoan erabili eta euren kokapen soziala hobetzeko. II) Teknologia berrien etorrerak gizarteko desberdintasun sozialak murriztu baino gehiago, biderkatu egiten ditu III) Sarearen gain plataforma digitalek modu oligopolikoan ezartzen duten kontrolak, informazio eta botere metaketa masiboak ahalbidetzen ditu, beraz, demokratikoa izatetik urruti dago.

Beste autore batzuek digitalizazioaren auzian tresna berri gehiegizko pisua ematen zaiela kritikatzeko dute (Renduéles eta Sádaba, 2019)⁷⁸, esanez gailu digital berriak lurren-makinarekin edo iraultza industrialarekin alderatzea ez dela analitikoki zintzoa bi arrazoierengatik. Batetik, industrializazio prozesua historikoki luzea eta konplexua izan zelako; bestetik, errealitate digitalaren etorrera prozesu "apurtzaile" gisa definitu bada ere, oraindik orain bitarteko tradizionalek pisu handia daukate gizarte-harremanetan, ekoizpen prozesuetan eta jokatzeko moduetan. Bada, bi analisi korrante nagusi daude internet eta teknologia berrien fenomenoaren aurrean, dituzten gizarte inpaktuen irismenaren inguruan:

- Interneta tresna berri bat izan arren, bitartekaritza moduak errazteko eta komunikaziorako aukerak biderkatuagatik, baliabide teknologiko bat gehiago da, errotuta dauden egiteko moduak, desorekak eta antolakunde egiturak errotik eraldatzeko aukerarik gabe (ikuspuntu materialista batetik egiten den argudiaketa da honakoa).
- Bigarrenik, internetek geure gauzak hautemateko eta harremantzeko moduak errotik eraldatzen dituela dioen korrantea dago. Ikuspuntu horren arabera, internetek bitartekaritza funtzioak eginez, parekotasun handiagoa egiten du posible norbanakoen artean, lotura sozial askoz horizontalagoak sortuz eta erabaki-prozesuak deszentralizatuz. Nolabait, ekoizpen bitartekoen jabetza izateko aukera emango luke teknologia berriak, kapitalismo koginitiboaren aroan (adibidez artista batek sare sozialetan promozionatuz bere burua edo artisau batek instagram bidez salduz bere produktuak). Analisi horren aburuz, geure gizarte azpikorranteetan sakoneko eraldaketak gertatzen ari dira interneti esker, eta garai historiko ezberdin batean murgiltzen gabiltza.

⁷⁸ Renduéles, C. eta Sádaba, I. (2019) "Digitalización y cambio social. De las expectativas apocalípticas a la tecnopolítica del presente." *Cuadernos de relaciones laborales*. 37, 2, 331-349.

Garai historiko berri batean sartzen ari ote garen edo ez zehaztera sartu barik, gizarte zientzietan zein iritzi publikoan gehien zabaldutako joerak bai uste du digitalizazioak gizarte errealtatearen alor gehientsuenak zipriztintzen dituela. Noski, testuinguru sozial bakoitzean duen eragina eta sarbidea ezberdina izan da, fakotze ugari nahasten baitira eta ondorio zeharo ezberdinak dakartza. Are, algoritmo sofistikuak diseinatuagatik, euren azken ondorioa desberdintasun sozial klasikoak erreproduzitzea izan daiteke, demokratikoki nahiko eztabaidagarriak izan daitezkeen metodoak aplikatuz (O’Neil, 2018)⁷⁹.

Zein aukera hauspotzen ditu, ordea, gizarte eraldaketerako? Autoeraketaren alternatiba irudikatu, planifikatu eta praktikatzeko orduan zein pisu eman beharko litzaiokie digitalizazioari? Gaiak teknopolitikaz hitz egitera garamatza, teknologiaren eta politikaren arteko harremanaz, hain justu. Twitterren, Youtuben, Wikipediaren edo Facebooken iritsierara arte, ezkerreko sektore ugari mesfidantza handiz bizi zuten teknologia berriekin zerikusia zuen oro (Rendués eta Sádaba, 2019). Haien ikuskeraren arabera, teknologia berriek AEBetako inperialismoa, bigilantzia modua eta kontsumo kapitalismoa elikatzen zituzten; ezinezkoa zen, beraz, mundu digitalaren gaineko interes berezirik garatzea, zapalkuntza eta dominazio forma berriak eraikitze bidea omen zelako (Chomsky eta Dieterich, 1997)⁸⁰. Interneti ez zioten prozesu demokratizatzaileetan laguntzeko aukerarik ikusten, errealtate sozial distopiko-orwelldarrak edo errealtatez kanpokoak (Baudrillard, 1993)⁸¹ sortzeko bide zuzena zela iruditzen zitzairen.

Bestalde, teknologiaren aldeko iritzi suhartsuak ere egon bazeuden. Politika horizontalagoa, parte-hartzaileagoa eta finean demokratikoagoa ekarriko zuen esperantzan, demokrazia digitala moduko kontzeptuak garatu ziren, herritarren eta politika instituzionalaren arteko aldea murriztuko zelakoan. Autore horien arabera, elkarrekin modu eraginkorrean konektaturik zeuden masek euren ekintzarako ahalmena izugarri ahaldunduko lukete eta herri mugimenduen ekintza kolektiboak sekula aurrez ikusi gabeko emaitzak lortzera iritsiko lirateke.

Azken urteotan eraldaketa sozialaren eta digitalizazioaren gainean egin diren ikerketei erreparatzen badiegu, bi ikuspuntuen aurreikuspenak zehatz mehatz bete ez direla identifikatzen dugu. Rendués eta Sádabak dioten moduan:

“Frente a la idea inicial de que la mayor alteración se iba a producir en el Estado y su aparato administrativo o en los poderes empresariales globales, ocurrió en cambio que quien más ha transformado su arsenal y estructuras organizativas han sido los movimientos ciudadanos y sociales, que han generado un conjunto de pequeñas prácticas políticas digitales dispersas y poco coherentes, impensables hace pocos años. La digitalización ha cambiado el juego político de maneras muy diferentes a las imaginadas inicialmente y ni el pesimismo tecnofóbico ni el ciberutopismo acertaron (...) Lo realmente importante es que ninguno de los dos modelos fue capaz de proporcionar un programa de investigación adecuado para seguir el rastro de las prácticas emergentes en un proceso de cambio histórico en el que conviven formas lentas, rupturas bruscas y continuidades muy persistentes no sólo en el ámbito

⁷⁹ O’Neil, C (2018) *Armas de destrucción matemática. Cómo el Big Data aumenta la desigualdad y amenaza la democracia*. Traficantes de Sueños. Madrid.

⁸⁰ Chomsky, N. eta Dieterich, H. (1997) *La aldea global*. Txalaparta. Tafalla.

⁸¹ Baudrillard, J (1993). *Cultura y simulacro*. Kairós.

tecnológico sino también en el plano económico, político y social.” (Rendués eta Sádaba, 2019: 336).

Arrasateko kooperatibismoan, gizarte eraldaketarako esparru modura ulerturik, digitalizazioak zein prozesu demokratizatzaile abiatu ditzakeen zehaztea beharrezko ariketa litzateke, enpresa barruko botere-harremanetan zein enpresatik kanpokoetan. Dauden parte-hartze eta prozesu digital eraldatzaileen artean, bere dimentsioagatik, errotze sozialagatik eta insituzionalizazio mailagatik ziberdemokrazia instituzionalizatuaren paradigma egokitu daiteke hobekien kooperatiben ezaugarrietara. Beti ere kontuan hartuta horrek ekologikoki duen kostu altua.

9.2.1 Gazteak eta digitalizazio milleniala

Jadanik aipatu dugu gazte belaunaldien eta teknologia berrien arteko harremanari buruz dauden iritzi korrante ziberutopikoaren zenbait ezaugarri. Ikusmolde horren aburuz, iraultza digitalaren garaian gazte belaunaldiak dira iraultza hori azken muturrera eramango dutenak, ustez haurtzarotik garatu duten kultura digitalari esker.

Eraldaketa soziala, teknologia berriak eta gazteak, beraz, elkarren artean oso modu eraginkorrean uztartu daitezkeen hiru elementu lirateke, apurketa historiko bat gauzatzeko ahalmenarekin. Bada, Prensky-k ordezkaturako korranteak darabilen ikusmolde horrek, gazteen gaineko mitifikazio prozesu bat bideratzen du, etorkizuneko gizarte digitala eraikitzeke gai izango dena. Gazte belaunaldien eta teknologien harremanaren artean dagoen ikerketa enpirikoa aztertzen hasten bagara ordea, gazteen gaineko eraikuntza mitiko horren ahuleziak nahiko nabarmen ageri dira.

Ildo horretan Petr Lupac-en lana aipatzea dagokigu (Lupac, 2018)⁸² gazteen gaitasun digital altuen gaineko iritzi korrantea zalantzan jartzen duena, hiru arrazoiengatik bereziki. 1) Ikerketa enpirikoetan frogatu ahal izan denez, ez dago korrelazio zuzenik gaitasun digitalen eta adinaren artean. Gazte belaunaldiak oro har hartuta, belaunaldi helduagoekiko ez dute ezberdintzen dituen gaitasun berezirik erakusten, transbertsalagoa da belaunaldien artean gaitasun teknologikoa dutenen eta ez dutenen arteko aldea. Ezin da, beraz, belaunaldi digitala kontzeptu zuzentzat jo. 2) Gazte belaunaldiek bai erakutsi dute teknologia berrien erabilera altuagoa, baina horrek ez du esan nahi praktika digital sofistikutuak direnik; aitzitik, komunikatzeko eta entretenimendurako erabiltzen dituzte gehienbat. 3) Arrakala digitala egon badago, baina sektore sozialak bereizten duen aldagai adierazgarri nagusia kapital kulturalarena da. Hau da, goi mailako ikasketak dituztenek tresna digitalak erabiltzeko gaitasun handiagoa erakutsi dute, modu adierazgarrian. Bada, adin tarte baina gehiago, kapital kulturalari erreparatu beharko genioke gaitasun teknologiko altua duten subjektuei buruz aritu nahi badugu.

Natibo digitalaren kontzeptuak dituen ahultasun horiek, beraz, horren inguruan eratzten diren diskurtsoak tentuz hartzera behartzen gaitu. Egin zaizkion kritika nagusien artean

⁸² Lupac, P. (2018) *Beyond the digital Divide. Contextualizing The Information Society*, Emerald Publishing limited, Bingley.

ondokoa dago: iraultza digitala aipatuagatik, sakonean gizarte egiturak zalantzan jartzen ez dituen diskurtso bat eratu dute. Bestela esanda, informazioan oinarritutako kapitalismoari oso erabilgarri zaion ikuspegia da belaunaldi digitalarena, lan-harremanetako eredu post-fordista prekarizatzailea bere horretan utzi eta kontsumo birtualean ardaztutako bizi-estiloak sustatzen baitira (Gilleard, 2018)⁸³. Indibidualismoa, sarean eraikitzen diren identitateekin oso bateragarria da, eta ondorioz nekez egin daiteke diskurtso ziberutopiko eta teknodeterministatik abiatzen den proposamen eraldatzailerik, talde sentipena eta ekintza asko ahultzen baitira.

Bada, kontakizun ziberutopikoak duen indar mediatiko, politiko eta soziala kontuan hartuta, ugari dira korrante kritiko indartsu baten beharra aldarrikatzen dutenak, teknologiaren eta gizartearen arteko harremana eremu kritikotik aztertu eta azalduko duena. Hala, Selwynek dio eremu akademiko seriotik eta zorrotzasun analitikoetik natibo digitalen kontzeptua erabiltzeari utzi behar zaiola, gazteek zein rol eduki beharko luketen iradokitzen baitu, interes zehatz batzuei erantzunez.

“Natibo digitalaren kontzeptua gehiago da diskurtsiboa deskriptiboa baino. Berau erabiltzen dutenak epe laburrean etor daitekeen etorkizun digitalaren gain botere eta kontrol formaren bat aplikatu gura dute.”

Bada, aldarrikatzen den digitalizazio prozesuaren gaineko ikerketa ildo kritikoak bere azpikorrante estrukturalak azaleratu beharko lituzke, berritasun teknologikoak aurrez egituratutako gizarte sistemetan hartzen baitu lur. Nork du aukera testuinguru digitalean aritzeko? Zein baldintzak egiten du hori posible? Calderón Gómez-ek hala azpimarratzen du ildo kritiko baten beharra:

“Es por este oscurecimiento de las condiciones estructurales de existencia de los sujetos, que condicionan también sus dinámicas de apropiación tecnológica, por lo que es necesario desarrollar una perspectiva crítica con las visiones ingenuas que promueven las perspectivas ciberutópicas, enormemente funcionales para la alegitimación del sistema capitalista informacional pero absolutamente catastróficas para cualquier tipo de indagación sociológica que intente comprender, situar y dar sentido a las prácticas cotidianas, digitalmente mediadas, de los ciudadanos.” (Calderón Gómez, 2019: 134)⁸⁴.

Teknologia berrien gaineko ikerketek, gizartean eta subjektibotasun garaikidean eragin ditzakeen eraldaketan inguruan dauden eztabaidetan arakatzen hasirik, gehienetan gazte belaunaldiaren gain jartzen dute eraldaketa horiek gertatzeko aukera. Nonbait, sektore sozial jakin horretan (adin biologikoarekin soilik zerikusia leukakeena) lotura puntu sendoagoak ezartzen dira berrikuntza teknologikoekin, hazi eta hezi izan diren testuinguru soziokulturean modu “naturalean” jaso dutelako teknologia horiekin elkarbizitza. Bada, orain ere ildo horretako diskurtso korronteak daude gizarte zientzietan eztabaidagai, gazteen eta teknologia berrien arteko harremanean arreta berezia jartzen duena. Harreman horrek ezaugarri lituzke digitalizazio prozesu geroz eta azkarragoa eta interneten erabilera orokortua; bestela esanda, eremu digitalean sozializatutako *belaunaldi digitalaz* ariko ginateke, kultura digital batez jantzia.⁸⁵

⁸³ Gilleard, C. (2018). *The place of age in the digital revolution*. Hemen argitaratua: S. Taipale, T.-A. Wilska, & C. Gilleard (Eds.), *Digital technologies and generational identity*, 11–22, Routledge, Londres.

⁸⁴ Calderón Gómez, D. (2019) *Capital digital y socialización tecnológica: una aproximación bourdiana al estudio de la desigualdad digital y la estratificación social entre la juventud*. Doktorego tesia. UCM, Madril.

⁸⁵ Levy, P (2007) *Ciberculturas. La cultura de la sociedad digital*. Anthropos, Bartzelona.

Ezaguna da Marc Prensky-k ekarri zuen “natibo digitalen” kontzeptua (Prensky, 2001).⁸⁶ Autorearen arabera, ingurugiro digitalean sozializatu diren gazteek (XX. Mendeko 80. hamarkadatik aurrera jaioak) ez dute zerikusirik aurreko belaunaldiek eduki izan dituzten sozializazio prozesuekin. Oso bestelako testuinguruarekin egin dute topo, eta hor haustura antropologiko-subjektiboa gertatzen ei da “natibo digigitalen” eta “etorkin digitalen” artean. Oihartzun handia eduki zuen artikuluan “jatorrizko” eta “etorkin” metaforen bidez, inguru teknologiko orokortu batean sozializatu direnen eta jadanik helduaroan teknologia berriak erabiltzen ikasi behar izan dutenen artean ezberdinu gura izan zuen. Ildo beretik, komunikabideetan eta gizarteko diskurtso korronte jakinetan zabaldu den beste kontzeptu bat *millenialena* izan da (milenioko belaunaldia, hain justu). Howe eta Strauss-ek (2000) ekarri zuten kontzeptua, 1982. urtetik aurrera AEBtan jaiotako haur eta nerabeek zituzten balio eta bizi-estilo ezberdinak azpimarratu asmoz. Egile horien arabera, teknologiaren erabileraren aldetik ezberdintasun nabarmena dago aurreko belaunaldiekiko, gaitasun digitalak, komunikatzeko moduak edo identitate teknologizatuagoak sortzen dira millenialen aroan. Howe eta Straussek belaunaldi millenialari itxaropen karga handia eransten diote, belaunaldi aktibo eta iraultzaile modura identifikaztuta, dekadentzian dagoen gizartearen gabeziak konpontzera etorriko litzatekeena.⁸⁷

Antzeko tesia defendatzen du ere Tapscott autoreak (1998, 2008)⁸⁸ *Sare belaunaldiari* buruz hitz egiten duenean. Millenialen kontzeptua baino lehenago formulatutakoa bada ere (1998an hain justu) antzekotasun nabarmenak daude gizartea hartzen ari den norabidearen gaineko diagnostikoan. Gailu digitaletik, gazteen nortasunaren eraikuntzan zein bizi-estiloan leku zentrala izatera pasa izanak, gizartearen zimenduetan eraldaketa sakonak ekarriko ditu, batez ere digitalizazio prozesuari esker:

“¡La Net Generation ha llegado! (...) ¿Qué hace diferente a esta generación del resto que han existido con anterioridad? Es la primera que ha crecido rodeada por medios digitales. Los ordenadores pueden encontrarse en casa, en el colegio, en la fábrica y en la oficina, y tecnologías digitales como las cámaras, los videojuegos y los CD-ROMs son un lugar común. Cada vez más, estos nuevos medios están conectados por Internet, una red de red en expansión que está atrayendo a un millón de usuarios cada mes. Los niños de hoy en día están tan imbuidos en bits que piensan que son una parte natural de su entorno. (...) Por primera vez en la historia, los niños están más cómodos, tienen más conocimiento y habilidades que sus padres en una innovación central para la sociedad. Y es a través del uso de los medios digitales que la Net Generation desarrollará e impondrá su cultura al resto de la sociedad. (...) Este libro se basa en la creencia de que podemos aprender mucho de una generación entera –que está en proceso de adoptar los nuevos medios- a través de los niños más avanzados en la adopción de esta tecnología” (Tapscott: 1998: 1-2)⁸⁹

Tesi horren oinarrizko planteamendua aintzat hartzen badugu, ondorio logiko behinena zera litzateke: natibo digitalen harremantzeko modu, zaletasun, gustu, gaitasun eta lehenetasunak guztiz desberdinak dira; are, sozializazio prozesuaren eraldaketak hain dira handiak ze gizarte egitura historiko “klasikoak” ez diren erabakigarriak

⁸⁶ Prensky, M (2001) “Digital natives, digital immigrants”, *From the Horizon*, vol 9, 5. Znb. 1-6 or.

⁸⁷ Howe, N eta Strauss, W. (2000) *Millennials Rising: The Next Great Generation*. Knopf Doubleday Publishing Group, New York

⁸⁸ Tapscott, D. (1998), *Growing Up Digital. The Rise of the Net Generation*, McGraw-Hill, New York.

Tapscott, D. (2008), *Grown Up Digital: How the Net Generation is Changing Your World*, McGrawHill. New, York.

⁸⁹ Calderón Gómez 2019-tik hartua, 101-102 or.

norbanakoaren ibilbide biografikoan eta nortasunaren eraketan. Klase, genero edota kultura desberdintasunak baino haustura puntu zorrotzagoa ezarriko luke digital eta ez-digitalen arteko sailkapenak.

Alabaina, soziologoak teorizazio horrek bultzaturik ikertzera sartu direnean, nekez frogatu ahal izan dute tesiak gihar enpirikoa izan baduenik. Azken urteetan geroz eta ikerketa gehiagok ondorioztatu du digitalizazioak dakarren gaitasun kognitiboan eraldaketa ez dela gizarte estratifikaziorako egitura klasikoek zekarrena gainditzeko beste. Natibo digitalen kontzeptuari desberdintasun sozialen gaineko gaitasun esplikatibo handirik onartu ezin badiogu ere, agian bai aitortu behar zaio garaiko taupada edo *zeitgeist*-a detektatzeko izan zuen gaitasuna. Sakoneko aldaketa antropologikoa usaintzeko izandako abilezia nabarmentzekoa da, Manuel Castells-ek esaten zuen eran “jada ez dugu internet begiratzen telebista begiratzen dugun moduan; aitzitik, internet bizi egiten dugu.”

Proposamen horretatik automatikoki luzatu dezakegun galdera, beraz, ondokoa da: zein dira sakoneko aldaketa antropologiko horiek? Nola eragingo du horrek esperientzia auto-eratzailleak gorpuzterako orduan? AKE moduko esperientziari era zuzenean eragiten dio molde digitalaren agerpenak arrazoi ezberdinak medio i) Kooperatiba industrial eta teknologikoen sektorea estrategikoa izanik, lanaren mundua digitalizaziorantz begira jarri izanak bailara ere derrigortzen du begiak hor jartzera. ii) Kooperatibetan bizi den belaunaldi aldaketa dela eta, gazte belaunaldi berriaren etorrerarekin, jada sakoneko aldaketa antropologikoa bizi duten kideak sartuko dira kooperatibetan, bere jardun objektibo eta subjektiboari ezaugarri berri bat erantsiz. iii) Digitalizazio garaian lanaren nazioarteko banaketak eta prozesu makro lodienak izango duten eboluzioak, harreman estua izango du AKE-ko kooperatiben nazioartekotzean zein negozio eredu gisa izan dezaketen biziraupenean.

Hari beretik jarraituz, digitalizazioaren aztertzaileek egiten duten beste ohartarazpen bat ondokoa da: giza jardueren ia ehuneko ehuna ordezkatu ahal du makina errobotizatuak, globala izango den prozesuan. Teoria hori defendatzen dutenen arabera, lanpostua galduko dutenak ez dira soilik eskuz lan egiten duten langileak izango (makinak ordezkaturak), lan kualifikatua burutzen duten horiek ere bai. Inteligentzia artifizialak ordezkaturako omen ditu langile horien pentsamendurako, diagnostikorako eta sorkuntzarako gaitasunak. Analisi hori gurera ekartzea funtsezkoa da, AKE-ko kooperatibek sektore estrategikoetan arrainak itsasoan nola mugitzearen garrantzia Arizmendiarretaren garaitik izan baitute oso garbi, eta hori, ezinbestean egongo da lotua egokitzeko, sortzeko eta garaian garaiko diagnostiko zorrotzak egiteko gaitasunarekin.

Edozen kasutan, digitalizazio prozesuan sakontzeko eta giza gaitasunak areagotzeko ikuspegi horrek, gizartearen metabolismo-soziala are gehiago azkartu nahi du, hain justu, krisi ekologiko betean gauden sasoi historikoan. Transhumanismoaren proposamen distopikoak, esaterako, botere eta nagusitasun borondatea duen gizaki Nietzschearra irudikatzen du, gizakiaren gaitasunak infinituraino hobetu eta zabaltzeko. Digitalizaziora buruzko ikuspegi horrek daukan karga ekofaxista nabarmenaz gain, gizarte baten egonkortasun eta osasunerako komenigarria da zabalpen digital masiboari harresiak jartzea, irizpide demokratiko eta ekologikoen gainean erabakiak hartu ahal izateko.

9.3 Pentsamendu emantzipatzaile autonomoa, kate-muntaiatik askatuz. Post-operaismoaren oinarriak.

Tesi honetan zehar landu eta erabili diren lanaren gaineko teoria soziologiko eta psikosozialek, post-operaismoaren mugimenduaren senetik jaiotako ikuspegiak dira. Bada, lanari, subjektibotasunari eta emantzipazio sozialari buruzko haien ikuespegiz jantzi dugunez tesia, beharrezkoa iruditzen zaigu mugimendu horren eta haien testuinguru historikoaren gainean zenbait argipen egitea, egin zituzten ekarpen teorikoak sakontzearekin batera.

Lehenik eta behin, Italiako 60. Eta 70. hamarkadara hurbildu behar gara, inguru bereziki industrializatuetan langile mugimendua indartsu zegoen eta gatazka sozial zein politikoak puri-purian zeuden lekura. Vietnameko gerraren aurkako mugimenduak Berkeleyn, autoritarismo sobietarraren aurkako protestak Pragan, Parisen gizarte ordena burgesaren aurkako oldarraldiak, Milanen estatu kapitalistaren kontrako borrokak... nazioarteko plano politiko mugimendu sozialen protestek ezaugarritzen zuten. Giro gatazkatsu horretan sortzen da pentsalari Italiarren talde berri bat, neomarxistatzat edo obreristatzat joko direnak gerora (Raniero Panzieri, Toni Negri, Romano Alquati, Mario Tronti...). Autore horiek ondoren ibilbide propioak izan badituzte ere, garai historiko-sozial zehatz hartan egin zuten bira paradigmaticoa da interesko zaiguna. *Classe Operaia* eta *Potere Operaio* aldizkariak bueltan egin zituzten beraien ekarpen teoriko entzutetsuenak, garaiko langile mugimenduaren planteamenduetan eragin nabarmena eduki zuten. Dena den, aro fordistaren ezaugarritze orokorra egitea beharrezko zaigu aurrenik, mugimendu post-operarioak lanaren subjektibotasunaren eta kapitalismoaren bilakaeraren gainean egiten duten irakurketan murgildu aurretik.

Haien jardun eta teorizazioetan, dakarten funtsezko berritasunetako bat ondokoa da: teorizazio konposizionista eta inteligentzia orokorrari edo *Grundrisse*-ri (Marx-en kapitalaren aurreko obra ezagunari) arreta berezia jartzea ostera ere. Konposizionismoak dakarren berrikuntzarik nabarmenena da langileen antolakuntza politiko ez dela alderdi edo sindikatu bakar batetik pentsatu behar, baizik eta osaera edo konposizio sozialetik. Ordura arte ezagutu zuten marxismo-leninismo jada helduak, alderdiaren figura diziplinatu, koordinatu eta zorrotza tresna ezinbestekotzat zeukan, gizartean eragin eta aldaketak lortzeko. Zergatik alderdia? Bada, langile industrialen ezaugarrietara modu eraginkorrean egokitzen zen antolakuntza mota zelako. 1968ko gertaerek ordea, gizarte industrialaren, lanaren zentraltasunaren eta etika saiatuaren ideia astindu zuten, ikasleak eta langileak aurrekari historikorik gabeko aliantza baten azpian batuz.

Analisi hori bere eginik, neomarxista italiarrek diote lanaren osaera sozial berriaren aurrean gaudela. Alde batetik, 1968ko mugimenduen gidariak bereziki ikasleak izateak, sektore sozial horren biderkatze esanguratsua adierazten zuen. Lan prozesuek geroz eta gehiago eskatzen zuten sofistikazio tekniko eta zientifikoa, beraz, unibertsitateko ikasleen kopurua horrenbeste ugartze horrek lan intelektualaren premia ordezkatzeko zuen. Bestetik, langile industrialek (autogintza moduko sektoreetan) lanaren antolakuntza alienagarriari geroz eta ukapen-bulkada handiagoa zioten. Ekoizpen industrialak ezaugarritzat zituen gizatasunik gabeko zeregin makinikoak burutzea eta

langileen eginkizuna automatismo teknikoen menpe egotea, aurrez ikusi dugun moduan. Bada, 60ko hamarkadan lan egiteko modu horrek sortzen zien haserrea erakusten hasi ziren, harik eta sektore osoak berregituratze teknologikoak egitera behartu arte. Italiako operaismoaren ikuspegitik, masek euren praktikaren bidez egiten duten lan intelektuala eta langile industrialek ohiko lanari dioten herra, agertoki historiko berrian dauden bi ezaugarri dira.

Lan industrial errepikakorra ukatze horren bidez inteligentzia orokor bat garatzeari bide emango zitzaiola uste izan zuten, teknologiaren amets utopiko emantzipatzailea ekarriz eztabaidara. Zehazki, opearisten pentsamendua eta ekintza ildo uletzeko, Marx-n *Grundrisse-n* atal baten gainean egin zuten interpretazioa hartu behar dugu kontuan “Makinen gaineko atala” hain justu. Testuan sozialki beharrezko den lan kopuruaren murrizteaz mintzo da, inteligentzia orokor bat sortzeari esker, zeina zientziaren eta teknikaren garapenarekin uztarturik egongo den, aurrerabide etengabea.

“Lanak, gaur duen forman, aberastasun iturri izateari lagatzen dionean, lan-denborak bere neurria izateari lagatzen dio. Ondorioz, trukerako duen balioa eta erabilera balioa neurri ezberdinetan agertuko da. Masak egiten duen gain-lanak laga dio aberastasun orokorraren garapenerako baldintza izateari. Era berean, beste batzuek lan egin beharrik ez izatea ere ez da baldintza bat giza inteligentzia orokorrak aurrera egin dezan (...) Horrenbestez, gizarteak beharrezko duen lan denbora ahalik gutxienera ekarrita, formazioa, garapen artistikoa, zientifikoa etab. burutu ahaliko ditu edonork, denbora askatu delako eta indibidualitateen garapena posible egiteko bitartekoak sortu direlako.” (Marx, 1993: 230)⁹⁰

Inteligentzia orokorraren kontzeptua bere eginik, ekintza-moldea ere birpentsatu beharra zegoela zioten, alderditik *generall intelect*-era igaroz. Lanak dituen ezaugarri berriak kontuan hartuta, jada ez luke zentzurik intelektual bakan talentudunen eta lidergoen bila aritzeak, inteligentzia orokorra bilakatzen da indar produktibo nagusi. Tesi hau sostengatzeko Marx gaztearen aipu batera jotzen dute, Makinei buruzko pasartean zera dioena:

“Naturak ez du makinarik, lokomotorrik, trenbiderik, telegrafo elektrikorik etab. ekoizten. Giza industriaren produktu dira: guztiak ere, naturatik datorren materia dira, giza borondatearen arabera eraldatuak. Giza burmuinaren organo dira, gizakion eskuak sorturikoak; jakintzaren indar objektibatuak. Kapital finkoaren garapenak erakusten du, zein neurritaraino bilakatu den jakintza sozial orokorra *berehalako indar produktibo*. Ondorioz, ikus dezakegu bizitza sozialaren prozesuak nola izan diren egokituak *general intellect*-aren kontrolera; ez hori bakarrik, era berean ikus dezakegu gizartearen indar produktiboak ez direla soilik jakintzaren bidez eraikiak, praktika sozialaren berehalako organo gisara baizik, bizi prozesu errealean.” (Marx, 1993: 706)⁹¹

Nolabait, ordura arteko analisi marxistari esaten diote, ez dela nahikoa ekoizpen-harreman kapitalisten baitan dauden kontraesanak azaleratzearekin edo kapitalaren ezaugarri garaikideen azterketa xehea egitearekin, lana ulertu izan den modu klasikotik haratago joan beharra aldarrikatuko dute; are, lanaren ukapenaren barrunbeetan sartu beharko da baldin eta dinamika produktiboaren eraldaketa ulertu nahi badugu. Paolo Virno autorearentzat, Marx-en atal horrek balio zuen lana-ren gaineko mitoa eta garaian

⁹⁰ Marx, K. (1976) *Grundrisse: Elementos Fundamentales para la crítica de la economía política*. Penguin Classics, Londres. Itzulpen propioa.

⁹¹ Itzulpen propioa, *Ibidem*.

Sobietar Batasunaren bueltan praktikatzen zen sozialismo erreala kritikatzeko, bestelako ortzimuga komunista bat irudikatuz.⁹²

Tronti-k eginiko formulazio teorikoek adierazten dute agian obrerismoak marxismo tradizionalagoarekin egindako apurketa.⁹³ Pentsalari italiarrak teorizatu zuenez marxismoa (bere adar estrukturalista/ekonomizistan) oker zebilen kapitalaren indar tekniko-produktiboek langileen subjektibotasuna eraldatzen zutela esatean. Alderantzizko prozesua dela argudiatu zuen, langileen kontzientzia sozialaren garapenari, ekinbideari eta antolakuntzari esker, kapitalak, ekoizpena egiteko moduak berregokitu beharrean ikusten du bere burua. Ekoizpen-oinarrien, kontrol eta esplotazio moduen berregituraketa bat gauzatuko da, hau da, langileari bere balio sorkuntza xurgatzeko tresna berriak asmatu behar dira. Nolabait, langileen jokabideak autonomia maila bat lortzera eramaten zituen, eta autonomia horri eskerrak ekoizpen prozesuaren egitura teknikoak eta organizatiboak berregin behar izaten zituzten enpresek. Are, inteligentzia orokorren garapenari esker, langileek ez dute kapitalak gidatuak izateko beharrik eta euren ahalduntzerako aukerak sekula baino indartsuagoak dira, dio Trontik.

Hortaz, langileen subjektibotasunaren autonomia egon badagoela sostengatuko dute *operaistek*; are, halako ahalmena dauka ze garapen industrial-produktiboa bera modu erabakigarrian baldintzatzen baitu. Subjektibotasun hori langileen arteko loturetatik, eztabaidetatik eta harreman sareetatik eratuko da, ez ekoizpen teknoindustrialia modu batekoa edo bestekoa izatetik. Beraz, Tronti eta kideen arabera, egin beharrekoa autonomia horren zukutzea litzateke, lanari uko eginez, lanera ez agertuz, ekoizpen erritmoa motelduz, sabotaiak teknika ezberdinak erabiliz etab.

“Se trata precisamente de la separación de la clase obrera de sí misma, del trabajo, y, por lo tanto, del capital. Es la separación de la fuerza económica de la categoría económica. Pero la división y separación no son suficientes: es necesaria la lucha, la oposición, la contraposición. Para luchar contra el capital, la clase obrera debe luchar contra sí misma en cuanto capital. Se trata del punto de la máxima contradicción, no para los obreros, sino para los capitalistas. Basta exasperar este punto, basta organizar esta contradicción, y el sistema capitalista dejará de funcionar.” (Tronti, 2001: 269).

Lana kapitalaren elementu zentral gisa ulertzeak, beraz, langile klasea kontraesan baten aurrean jartzen du. Aldi berean baita erresistentzia eta ekoizpen prozesuaren ardatz. *Operaistek* langile mugimenduaren estrategia edukiz eraldatu gura dute guztiz, aldarrikapen klasikoetatik (soldata igoera, jardunaldi murriztagoak etab.) atera eta langile klasea emantzipazioaren ateetan jarriko lukeen jokabidea ipartzat hartuz. Autoreon arabera, langileriak gizarte kapitalistan egokitu zaion funtzioa betetzeari uko egingo balio, gizarte kapitalista bera konpontzen zail lukeen krisialdi politiko-sozialean sartuko litzateke. Hortaz, langile antolatuen mugimendu subjektiboek blokeo egoeran jarriko lukete ekoizpen prozesu kapitalista, kapitalismoaren kontraesanak agerian jarri eta krisialdi politiko bortitz batean joko-zelai berri bat zabaltzeko (Tronti, 2001: 260).

Ikuspegi operaista horrek, norbera ezinbesteko faktore produktibo modura ikustera daramana, eta ondorioz kapitala *barnetik* borrokatu dezakeena, Italiako lehen gatazka sozio-ekologikoetan ere bere agerpena egin zuen 1970eko hamarkadan Stefania Barca

⁹² Virno, P (2003) *Virtuosismo y Revolución. La acción política en la era del desencanto*. Madril. Traficantes de Sueños.

⁹³ Tronti, M (2001) *Obreros y Capital*. Akal. Madril.

soziologoak ikertzen duenez (Barca, 2011)⁹⁴. Alde batetik, sindikatu antolatuek esplotazio tasa zenbatekoa izan negoziatzen zutenean (lan harremanak soldata instituzioaren bitartekaritzarekin negoziatuz), langileek osasun kalteak onartzera behartzen zituzten, industria kutsakorretan ekoizpen prozesuan aritzeak zekarren arriskua monetizatzearen bidez. Horren arabera, langileen ordaina areagotuko zen, baldin eta osasunari kaltegarri zitzaizkion egoeretan lanean jarraitzea onartzen bazuten. Operaisten bueltako kolektiboen kokapena ordea bestelakoa zen; haien arabera, negoziatu behar zena ez zen soldata gehiago edo gutxiago jasotzea, soldata instituzioa gainditzea baizik. Prozesu hori bururaino eramanez gero, langileek prozesu produktiboaren gaineko kontrol osoa edukita, ez luke zentzurik arriskuaren monetizazioa aplikatzeak, ez zelako negoziazioaren parte izango, osasunari kalte zuzena egiten zioten jarduerak bazterrean lagako zituzten langileek eurek. André Gorz ekologia politikoaren aitak 70eko hamarkadaren hasieran defendatu zuen tesia dugu honakoa, esanez, autoaskapenerako bidea soldatapeko lanaren instituzioaren *baitan* hasten dela, kapitalaren prozesu produktiboaren *barnean*. Hortaz, lanaren eta ingurugiroaren arteko kontraesan eta interes *bateraezinen* diskurtsoa gainditu liteke ekoizpen prozesuak *soldatatatik haratago* eramanez gero, produktibismotik aske legokeen bizikidetzazko gizartea eraikiz (Gorz, 1973:136).

Lan ordainduraren *tripetatik* askapen bidea hasteko planteamendu honek apurketa teorikoa ekarri zuen marxismo tradizionalagoarekin. Kapitalaren indar tekniko-produktiboek langile klasearen mugimendu subjektiboarekin zuen harremanari buelta ematen baitio. Langileen antolakuntza eta mugimenduak dira kapitalaren ondorengo itxura aurreterminatuko dutenak, ez alderantziz. Horrek, langile mugimendua subjektu autonomo gisa ulertzea dakar, kapitalarekiko zuen mendekotasun teorikoa apurtzen duena. Marxismo tradizionalagoak langile klasearen kontzeptua modu estatikoan eraiki zuen, kapitalaren egituraren parte integratzaile modura. Aldiz, operaismoak ikerketa puntua aldatzeko premia aldarrikatzen du; gizarte eta ekonomiaren eraldaketarako ez da arreta jarri behar gizarte kapitalista arautzen duten legeetan, langileen erresistentzia eta mugimendua ahalbidetzen duten faktoreetan baizik (Gómez Villar, 2019).⁹⁵

Neomarxismo edo marxista autonomo italiar horien pentsamendu oinarrietako bat, beraz, bada lanaren ukapenetik abiatzea edozein azterketa teoriko edo ekimen-ildo. Jarrera hori justifikatzeko, Marx-ek berak zeregin zehatzaren eta lan abstraktuaren artean egiten duen ezberdintasunean oinarritzen dira. Honakoa ideia klasikoa da Marx-en: antolakuntza molde kapitalistan posible den garapenak, ezinbesteko du lana bere zeregin zehatzetik aldentzea. Ekimen konkretu bat baino maileguan lagatako denbora huts bilakatzen da, langileak ez du inolako atxikipenik edo lotura afektiborik sentituko produktuarekiko edo ekoizpen prozesuaren emaitzarekiko. Dio Marx-ek hori dela bide bakarra elkarren artean horren ezberdinak diren zereginak trukagarriak bilakatzeko, abstrakzio sistema batera joz. Produktuaren balioa, hortaz, hori egiteko behar izan den denbora sozialki beharrezkoaren arabera izango da, hau da, bertan sartutako lan-

⁹⁴ Barca, S. (2011) "Lavoro, corpo, ambiente. Laura Conti e le origini della'ecologia politica in Italia. *Ricerche Storiche* XLI, 3: 541-550.

⁹⁵ Gómez Villar, A. (2019) "Del operaismo al (post)operaismo: La importancia del cruce con el postestructuralismo francés" *Pensamiento*, vol 75, 287, 1545-1569 orrialdeak.

indar orduak zehaztuko dute merkatuan eskatu beharreko prezioa zein den, beste faktore batzuen artean.⁹⁶

Korrante marxistak bere garaian garrantzia handirik eman ez zion ikuspegi hau zentrala izango da *Potere Operaioren* bueltan biltzen diren gizarte aztertzaile kritikoentzat. Inteligentzia orokor baten eraketak eta lanak 60. Hamarkadan hartzen zuen formari ukapen aktiboak bestelako ordena ekonomiko eta sozial baterako jauzia egiteko baldintzak sortuko lituzke.

Bada, *Grundrisse*-aren irakurketarekin egiten duten apurketari beste bat gehitu behar zaio, konposizionismoa definitzen duena: *klase konposizioaren* kontzeptua. Klase-kontzientziaren ideia klasikoa berritzen du nolabait, arreta-puntua beste leku batean jarriz. Marxismo klasikoak bereizketa garbia egiten du “klase-kontzientziaren” eta “alderdiaren” artean; kontzientziak materialki ezberdinu eta zatitua zegoen langile klasea batzeko funtzioa beteko luke eta kontzientzia horren iturria alderdia litzateke. Alderdiak taupatzen zuen klase-kontzientzia, nolabait, ondoren bere burua indartu eta langileria emantzipazioaren bideetatik gidatzeko. Ordea, operaistek beste ikuspuntu bat gehitzen diote korapilo teoriko horri. Formulatu dutenez, langileen subjektibotasunaren eraikuntza ez dator kontzientziaren eremutik, ez da nolabait langileak teorikoki aurkitu dezakeen lurralde bat. Borroka prozesuan bertan eraikitzen da subjektibotasuna, klasea eratzeko prozesuan, hain justu. Ikuspegi horren arabera, beraz, kapitalismoaren legeak gainditzeko, lan munduak berak antolatu behar zuen, bai teknikoki zein espiritualki, mendekotasun-harremanetatik askatzeko bidea. Bidean eratzen da subjektua, nolabait.

Operaistentzat klase-eraketa edo konposizioa ezaugarri ezberdinen arteko loturatik etorriko da; Langile klase historikoaren baldintza objektiboek funtsezko garrantzia dute (ekoizpen prozesuan norberak duen kokapena etab.), baina ez da faktore bakarra; langile bakoitzaren esperientzia subjektiboa kontuan hartzea ezinbestekoa izango da klasea eratzeko. Klase sozialaren ulerkera berritzea dakar hurbilpen teoriko horrek, marxismo ortodoxoak iraultzaren subjektu historikoa langile-klasea dela defendatzen zuen, klase hori egon bazegoela. Aldiz, *operaistek* esango dute langile-klasea ez dela errealitate ontologikoa, borroka ezberdinen bidez artikulatzen eta eratzen den kontzeptua baizik (Berardi, 2007)⁹⁷. Marxismoak subjektua definitzeko izan duen modua eraldatzen da beraz, dialektikatik antagonismora egiten du jauzi (Gómez Villar, 2019).

Behin analisi hori eginik, konposizionismoak hiru oinarritzko elementu azpimarratzen zituen, klase konposizioaren kontzeptua deskribatzeko, langile klasetik haratago iritsi gura zuena: i) Interes bateratua edukitzea, lan prozesuan kokapen eta baldintza berdinak izanez. Denbora-espazio dimentsioak partekatzearekin batera. ii) Talde potentzia, indar material erreal bat sortuz taldearentzat, bere interesak berresteko

⁹⁶ Modernitatean enpleguak duen zentraltasuna ulertzeko ezinbestekoa da *lan abstraktuaren* kontzeptua, balio sorkuntza prozesurako ezinbesteko zutabea baita. Bada, zorrotzak izate aldera, balioa edo balioztat jotzen duguna ez da *beraz* determinatuta datorren zerbait, forma historiko zehatz batzuen arabera baizik. Kapitalismoan balioaren kopurua neurtzeko *lan abstraktua* eta berau produzitzeko *sozialki beharrezko den denbora* hartu behar ditugu kontuan, merkantzia bakoitzean islatuko baita hori, hots, bere trukerako balioan. Era berean garrantzistua zaigu *sozialki beharrezko denboran* arreta puntu jartzea, kontzeptu horrek balio eraikuntzaren izaera sozialari egiten baitio erreferentzia. Hau da, ondasun baten balioa ez da berau ekoizteko behar izan den langile bakoitzaren lan abstraktuaren denboraren batura: gizarteak berau ekoizteko behar izan duen denbora baizik. Denbora hori, aldakorra izan daiteke produkzio moldeen, produktibitate mailaren eta bestelako faktore batzuen arabera.

⁹⁷ Berardi, F. (2007) *Generación post-alfa*. Tinta Limón, Buenos Aires.

gainerako eragile sozialen aurrean. iii) Istorio edo narratiba bateratua partekatzea, hots, iraganaren eta orainaldiko egoeraren irakurketa berbera edukiz, helmuga komuna ere irudikatu daiteke, eta horren ondorioz ekin.

Ez dute kapitalismoa gainditutako duen prozesu historiko edo trantsizio batean pentsatzen, autonomiaren ideian baizik. Bestela esanda, langile klaseak bere logika propioa dauka, ez dena kapitalarekiko harreman zuzenaren bidez definitzen, bere ekimen eta barne ezaugarrien bidez baizik. Operaistek defendatutako dute ez dagoela zertan egokitu behar, historizismoak defendatu bezala, ekoizpen harreman eta indar produktibo jakinetara. Ez da kapitalarekiko lehia edo harreman aldakorren arabera pentsatu behar, bere suntsipenean baizik. Osterantzean, metodo dialektikoan mugitzen eta pentsatzen jarraituz gero, langile klaseak sekula ez du lortuko bere burua askatzerik, subjektibotasun autonomo eta beregainean pentsatu behar da.

“En todos los grandes cambios del pasado jamás ha sido transformado el tipo de actividad. Siempre y únicamente se ha tratado de una distribución distinta de esta actividad, de una nueva distribución del trabajo entre otras personas. Sólo la revolución comunista, como decía Marx, o simplemente la revolución, como empezamos a decir hoy, y, por lo tanto, sólo el actual programa de mínimo de la clase obrera, se dirige por primera vez contra la totalidad del modo de actividad que ha existido hasta nuestros días. En él se suprime el trabajo. Y de esta forma, se abole el dominio de clase. Supresión obrera del trabajo y destrucción violenta del capital son entonces una única cosa.” (Tronti, 2001: 272).

Lanaren ezabatzetik, beraz, etorriko da kapitalari arrakala sakonak eragin ahal izateko aukera politikoa. Gómez Villar (2019) filosofoak egiten duen deskribapenean, hirugarren kontzeptu bat gehitzen dio konposizionismoaren bueltako pentsamenduari; borroka-zikloei dagokiena. Antagonismoaren estrategiari jarraiki, langileek batasun eta eraginkortasun puntu bat lortzen badute, hots, klase konposizioaren maila adierazgarri sendo batera iritsiz gero, kapitalak bere burua berregituratuko du mugimendu hori desegin nahian. Hortaz, kapitalak bere antolaketa eta berregituratzeen bidez klase konposizioa ezinezko egin nahi duen gisan, azken hau etengabe aldakuntzan, berrikuntzan eta berrasmatzean murgildu beharko da. Akzio-erreakzio logika da gailentzen dena, kapitalak berregituraketak egiten baditu, erresistentzia prozesuak ere moldatu eta berregokitu beharko dira, presio-indar handiagoa lortzera bideratuta. Hortaz, borroka-ziklo bakoitzak hirualdi lituzke konposizionismoaren ikuspegitik: konposizioa, deskonposizioa eta birkonposizioa.

Operaisten iritzirako, logika honetan pentsatzeak potentzialtasun politiko handia du, lana objektu edo merkantzia gisa definitu ordez indar politiko gisa definitzen baita, klase antagonista gisa, hain zuzen ere. Gure irudiko Arrasateko Kooperatibagintzan ere, lanaren ulerkera gogoeta-bide antzeratsuetatik ibili da, lanaren jabetzaren eta autonomia mailaren zentzuan. Ondoren Arizmendiarrietaren pentsamendu oinarrietan zehaztuko dugun bezala. Beraz, ikuspegi operaistak defendatutako du, hiruko horretan mantentzeak kapitala etengabeko krisian murgiltzera eramango lukeela

“...una composición técnica implica una cierta composición política que conduce a un nuevo ciclo de luchas; ello obliga al capital a transformar su poder de mando, que a su vez dará lugar a una nueva composición de clase, comenzando el ciclo de nuevo. A ciertas formas adoptadas por la organización de la producción —composición técnica— deben corresponder ciertos patrones de comportamiento político que prefiguran las respuestas inmanentes a aquellas formas —composición política—, la intensificación e

interconexión de las cuales pueden generar un nuevo ciclo de luchas.” (Gómez Villar, 2019: 1552).

Operaismo italiarraren teoriaren eskutik, irakurleak galdetuko du non dauden lotura puntuak auzi sozio-ekologikoarekin eta Arrasateko kooperatibagintzarekin. Gure iritzian, soldata instituzioa eta ondorioz langilea balio sorkuntzaren elementu zentraletako bat deneko ideia operaista kontuan hartzen badugu, ondoriozta genezake hazkunde amaigabeari etena jartzeko soldatapeko lanetik *haratago* iritsi behar dela, indar produktibo izateari utziz eta harreman sozial kapitalisten kontraesanak bururaino eramanez. Korporazio handiek menderatutako ekonomia globalean, gizarte-subiranotasuna herri ekimenetik berreskuratzea da auzi zentraletako bat krisi sozio-ekologikoaren aroan, nolabait modernitate industrial burgesaren egitura deseginez bere dimentsio kultural eta ekonomikoan, eta komunitateen autogestiorako bideak zabaldu eta biderkatuz, autonomian eta subiranotasunean irabaziz.

Operaismoaren kontzeptuekin esateko, garapen eta hazkunde kapitalistaren birika makaldu badaiteke antagonismo sozialaren eraikuntzarekin eta borroka-zikloen berrikuntzekin, krisialdi sozio-ekologikoak langileen borrokaren (eta hedaduraz, kooperatibismoaren) itxuraberritzea eskatzen du, antagonismoa indar produktiboen elementu ezberdinetan kontzentratuta. Esan liteke kolapso egoera batek ekoizpenaren antolakuntza teknikoa aldaraziko duen bezala, krisi ekologikoak birkonposiziorako aukera historikoa irekitzen duela, eraldaketa sozialean bultzatzen duena. Izan ere, autore-multzorretatik ateratzen dugun ikasgai nagusietakoa bada lanaren eraldaketa historikoa ulertzeko ez zaiela soilik egitura teknikoaren bilakaerari edo asmakuntza teknologikoei begiratu behar, eraldaketa hori hauspotu duten hautu politikoei eta indarrean dauden ikuskera kulturei baizik. Begirada honek zentzua hartzen du ekologia politikoaren koordenadetan, izan ere krisialdi sozio-ekologikoak gizartearen ertzetatik erdigunera egin duen bidea, eta agenda politikoaren lehen puntuetara iritsi izana, gehiago zor zaio gizarte zibilaren bidetik artikulatu den borroka sozial eta mugimendu iraunkorrari, txosten zientifiko ezberdinen publikazioari baino baino, behar-beharrezkoak diren ekarpenak direla kontuan hartuta.

Subjektu ekosozial zabal baten eraikuntza pentsatzeko ere elementu interesgarriak eskaintzen dizkigu operaismoaren ekarpenak, langile edo herritar bakoitzaren bizipen subjektiboa klase-erataile dela dioten zentzuan, eta hor, kooperatibismoak paper garrantzitsua jokatu dezake. Klima larrialdian sakondu ahala edo krisi energetikoaren ondorioak eguneroko bizitzan sumatu ahala, subjektu ekosozial eraldatzaile baten aldeko hautua egin dezaketen bizipen subjektiboak metatzen joango dira. Kezka ekosozial horri forma eman eta operaismoaren tradizioan borroka sozio-ekologiko ezberdinen bidez herritarrei mugimendu zabalago baten parte sentitzeko aukera eskainiz, lotura afektiboak, pertenezia sentimenduak eta krisi ekologikiarekiko ardura-hartze sozialean sakonduko da. Euren hizkeran esateko, antagonismo ekosozialaren eraikuntzan dago subjektu eraldatzailea sortzeko mamia, eta ez kapitalarekin harreman dialektikoan. Eginkizun horretarako, operaisten errezetak jarraituko bagenitu, funtsezkoa litzateke lan denborak eta espazio fisikoak herritar zabalaren artean partekatzea, ekonomiak birtokiratzea, eragile indartsuak sortzea eta iraganaren zein gaurko egoeraren gaineko diagnostiko ekologiko antzeratsuak partekatzea. Alabaina, ez gaude fordismoak egituratu zuen gizarte eta ekonomietan. Dena den, operaismoak egin zituen ekarpen intelektual batzuk berreskuratzeak krisi ekologiko globalaren aurrean beste

talaia batzuetatik begiratzeko paradan jari gaitu. Eraikin intelektual horrek krisi ekologikoa pentsatu eta haren aurrean aterabide posibleak irudikatzeko aukerak zabaltzen dituelakoan nago, teoria soziala praktikaren eremura ekarrita.

Erreferentzia bibliografikoak

11. Erreferentzia bibliografikoak

- Ahedo, I. (2006). *El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- Almazán, A., eta Gonzalez Reyes, L. (2023). "Una propuesta de hoja de ruta para la transición ecosocial de la economía en Hego Euskal Herria." *Inguru Gaiak*, 8.
- Alonso, L.E. (2013). "La sociohermenéutica como programa de investigación en sociología". *Arbor*, 761, 1-15.
- Alonso, L. E., Fernández Rodríguez, C., eta Ibáñez Rojo, R. (2017). "Juventud y percepciones sobre la crisis: precarización laboral, clases medias y nueva política." *Empiria, Revista de metodología de ciencias sociales*, 37, 155-178.
- Alonso Benito, L.E., eta Fernández Rodríguez, C.J. (2020). "Capitalismo y personalidad: consideraciones sobre los discursos empresariales de la rentabilización del yo a través de la marca personal", *Política y Sociedad*, 57(2), 521-541.
- Altuna, L. (2008). *Arrasateko Kooperatiba Esperientzia. Sintesi orokorra*. Lanki. Eskoriatza.
- Alustiza, A. (2015). "El impacto de la crisis de Fagor en el cooperativismo vasco." *International Association of Cooperative Law Journal*, 49, 321-338.
- Amery, C. (2002). *Auschwitz, ¿Comienza el siglo XXI? Hitler como precursor*. Turner/FCE. Madrid.
- Ampudia de Haro, F. (2010). "La posibilidad de des-civilización." *Sociología, problemas e prácticas*, 63, 91-112.
- Anders, G. (1956). *La Obsolescencia del Hombre. (Vol II) Sobre la destrucción de la vida en la época de la tercera revolución industrial*. Pre-Textos. Valentzia, 2011.
- Ajangiz, R., eta Barcena, I. (2001). Euskal Herriko Gizarte mugimenduak. *Giza Eskubideei buruzko koadernoak/Cuadernos de Derechos Humanos*, 14. Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutua. Bilbo.
- Aretxabala, A. (2020) Una reflexión más en torno al 5G y los retos de nuestra organización social. 2020-07-01.
- <https://antonioaretxabala.blogspot.com/2020/07/una-reflexion-mas-en-torno-al-5g-y-los.html>.
- Arrieta, L., Barandiaran, M., Mujika, A., eta Rodríguez Ranz, J.A; (1998). *El movimiento cooperativo en Euskadi 1884-1936*. Sabin Arana Fundazioa. Bilbo.
- Arzadun, P. (2018). *Globalización del proceso productivo en el sector cooperativo: el caso de Erreka Mex*. Deusto Estudios Cooperativos.
- Gazteen Euskal Behatokia. (2023). *Aurrera Begira 2022, Indicadores de Expectativas Juveniles*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Azkarraga, J. (2007). *Nor bere Patroi. Arrasateko Kooperatibistak Aro Globalaren Aurrean*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- Azkarraga, J. eta Altuna L. (2012). *La evolución sostenible (II) Apuntes para una salida razonable*. Lanki Koadernoak, 5, Eskoriatza.
- Azkarraga Etxagibel, J. (2017). "Slaying the Dragon together: Modern Basque Cooperativism as a Transmutation of Traditional Society." (217-255). (Ed.), *The basque moment: Egalitarianism and Traditional Basque Society*. Xabier Arregi eta Andreas Hess.
- Azurmendi, J. (1984). *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*. Laboral Kutxa. Arrasate.
- Azurmendi, J. (1991). *Gizaberearen bakeak eta gerrak*. Elkar, Donostia..
- Bauman, Z. (1989). *Modernidad y Holocausto*. Sequitur, Madrid.
- Bauman, Z. (2001). *Modernidad líquida*. FCE, Buenos Aires.
- Bauman, Z. (2005). *Vidas desperdiciadas: La modernidad y sus parias*. Paidós, Bartzelona.
- Bauman, Z. (2006). *Vida líquida*. Paidós, Bartzelona.
- Barret, J. R. (1992). "Americanization from the bottom up: Immigration and the Remaking of the Working Class in the United States 1880-1930" *Journal of American History*, 79, 996-1020.

- Beck, U. (2003). *Un nuevo mundo feliz. La precariedad del trabajo en la era de la globalización*. Paidós, Bartzelona.
- Beck, U. eta Beck-Gernsheim, E. (2003). *La individualización. El individualismo institucionalizado y sus consecuencias sociales y políticas*, Bartzelona, Paidós.
- Begiristain, M., Etxezarreta, E., Morandeira, J., eta Kareaga, A. (2021). "Mozkin asmoagatik ez bada, zein da ba asmoa? Ekintzailletza sozial kooperatiborako adierazle-sistema baten proposamena." *Ekonomiaz*, 99, 278-301.
- Bellah, R. (1989). *Hábitos de Corazón*. Alianza Universidad.
- Bellamy Foster, J. (1999). *Marx's ecology. Materialism and nature*. Monthly Review Press.
- Bennet, W.L., eta Segerberg, A. (2013). *The Logic of Connective Action. Digital Media and the Personalization of Contentious Politics*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Béjar, H. (1996). "Una época de frío moral. La sociología comunitarista de Robert N. Bellah." *Reis*. 74/76, 77-113.
- Berardi, F. (2003). *La fábrica de la infelicidad. Nuevas formas de trabajo y movimiento global*. Traficantes de Sueños, Madrid
- Berardi, F. (2018). *Fenomenología del Fin. Sensibilidad y mutación conectiva*. Caja Negra, Buenos Aires.
- Bergara, J. (2019). "Hautsi da Anphora: Sare-Aktorearen Teoriara hurbilpena." *Uztaro: Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria*, 108, 97-114.
- Bergara, J. (2021). "Bizi-hautuak ertzetatik. Esperientzia agroekologikoen dimentsio subjektiboa trantsizio ekosozialari begira". *GIZAEKOA- Economía Sozialaren Euskal Aldizkaria*, 18, 75-107.
- Berger, P. (1989). *La revolución capitalista. Cincuenta proposiciones sobre la prosperidad, la igualdad y la libertad*. Península, Bartzelona.
- Berger, P., eta Luckmann, T. (1996). *The Social Construction of Reality. A Treatise in the Sociology of Knowledge*. Anchor Books, Garden City, New York.
- Blumer, H. (1951). "Collective Behaviour", in: A. McClung Lee (ed.), *Principles of Sociology*, Random House, New York.
- Bonnueuil, C., eta Fressoz, JB. (2013). *L'Événement Anthropocène: La Terre, l'histoire et nous*. Éditions du Seuil. Paris.
- Bottomore, T. (1990). *La Economía Socialista. Teoría y práctica*. Sistema, Madrid.
- Bourdieu, P. (1997). *Capital cultural, escuela y espacio social*. Siglo XXI. Madrid.
- Bourdieu, P. (1997). *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Anagrama. Bartzelona.
- Bowen, A., eta Hepburn, C. (2014). "Green growth: an assessment." *Oxford Review of Economic Policy*, 30(3), 407-422.
- Brunhoff, S. (2003). "Value, Finance and Social Classes". *Value and the World Economy today*. Palgrave Macmillan, London. 40-56.
- Buck-Morss, S. (2004). *Mundo Soñado y catástrofe. La desaparición de la utopía de masas en el este y el oeste*. Antonio Machado, Madrid.
- Buttel, F.H. (2000). "Ecological modernization as social theory." *Geoforum*, 31, 57-65.
- Cancelo, A. (1996). "Plan Estratégico Corporativo de Internacionalización de Mondragón Corporación Cooperativa." *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*. 25, 27-32.
- Carbajo, D. (2014). *Vivir en la Precariedad. Trayectorias y estrategias residenciales de la juventud en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. EHU. Leioa.
- Casilli, A. (2017). "Digital Labour Studies go Global. Toward a digital decolonial turn." *International Journal of Communication*, 11, 3934-3954.
- Castel, R. (1997). *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*. Paidós. Bartzelona.
- Castel, R. (2003). *From Manual Workers to Wage laborers. Transformation of the Social Question*. Routledge.
- Centro de Investigaciones Sociológicas. (2023). *Barómetro Marzo 2023. Ficha Técnica*. CIS, Madrid.
- Cerrillo, J.A. (2010). "Medición de la conciencia ambiental: Una revisión crítica de la obra de Riley E. Dunlap" *Athenea Digital*, 17: 33-52

- Chul Han, B. (2012). *La sociedad del cansancio*. Herder, Bartzelona.
- Ciccarelli, R. (2017). *Forza Lavoro. Il lato oscuro della rivoluzione digitale*. DericeApprodi, Roma.
- Chertkovskaya, E., eta Paulsson, A. (2016). "The Growthocene: Thinking through What Degrowth is Criticising." Entitliebolg.org.
- Chicchi, F. (2016). "Capitalismo come assiomatica sociale. Note a margine sul concetto di sfruttamento." *Etica & Politica*, XVIII, 3, 183-199.
- Chicchi, F. (2020). "Beyond the 'salary Institution': On the 'society of Performance' and the Platformisation of the Employment Relationship." *Work Organisation, Labour & Globalisation*, 14(1), 15-31.
- Cocco, G., eta Szanecki, B. (2015). *Creative capitalism, Multitudinous creativity*. Lexington books. London.
- Cohen G. A. (2001). *Si eres igualitarista ¿Cómo es que eres tan rico?*. Paidós, Bartzelona.
- Costanza, R., de Groot, R., Sutton, P., van der Ploeg, S., Anderson, S. J., Stephen, I. K. (2014). "Changes in the global value of ecosystem services." *Global Environmental Change*, 26, 152-158.
- Crespo, E., eta Serrano, A. (2012). "La psicologización del trabajo: la desregulación del trabajo y el gobierno de las voluntades." *Teoría y crítica de la psicología* (2), 33-48.
- Crutzen, P. J. (2002). «Geology of mankind», *Nature*, 415.
- D'Alisa, G., Demaria, F., eta Kallis, G. (2015). *Degrowth: A Vocabulary for a New Era*. Routledge, Londres.
- Dardot, P., eta Laval, C. (2013). *La nueva razón del mundo. Ensayo sobre la sociedad neoliberal*. Gedisa. Barcelona.
- Davis, M. (2001). *Late Victorian Holocausts: El Niño Famines and the Making of the Third World*. Verso.
- Deleuze, G., eta Guattari, F. (1973). *El Anti-Edipo. Capitalismo y esquizofrenia*. Paidós. Bartzelona.
- Deleuze, G., eta Guattari, F. (1994). *Mil Mesetas. Capitalismo y esquizofrenia*. Pretextos. Madrid.
- Dobson, A. (2000). *A Green political thought*. Routledge. Londres.
- Dobson, A. (2005). "Ciudadanía ecológica". Isegoría. 47, 47-62.
- Dobson, A. (2010). *Ciudadanía y medio ambiente*. Cànoves y Samalus. Bartzelona.
- Doménech, A. (2005). "El socialismo y la herencia de la democracia republicana fraternal", *Sin Permiso*.
- Doménech, A. (2019). *El eclipse de la fraternidad. Una revisión republicana de la tradición socialista*. Akal. Madrid.
- Doménech, A. (2013). Los trucos del neoliberalismo. Elkarriaketa. Revista Ñ (2013ko otsailak 13).
- Doménech, X. (2012). *Cambio político y movimiento obrero bajo el franquismo. Lucha de clases, dictadura y democracia (1939-1977)*, Icaria, Bartzelona.
- Dubet, F. (2006). *El declive de la institución, profesiones, sujetos e individuos en la modernidad*. Gedisa, Bartzelona.
- Durkheim, E. (1893). *La división social del trabajo*. Akal, Madril, 1987.
- Durkheim, E. (1912). *Las formas elementales de la vida religiosa*. Akal, Madril.
- Dunlap, R. E.; Van Liere, K. D.; Mertig, A. G.; eta Jones, R. E. (2000). "New Trends in Measuring Environmental Attitudes: Measuring Endorsement of the New Ecological Paradigm: A Revised NEP Scale. *Journal of Social Issues*" 56, 425-442.
- ELGA. (2011). *Towards Green Growth. A summary for Policy Makers*. Paris, Ekonomia Lankidetzta eta Garapenerako Erakundea.
- Elias, N. (1993). *El proceso de civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*. FCE. Madril.
- Etxebarria, T. (1968). *Viaje por el país de los recuerdos*. Eibarko udala 2018. 119-120.
- Fairclough, N. (1995). *Critical Discourse Analysis*, Edward Arnold, Londres.
- Federici, S. (2012). *Revolution at Point Zero. Housework, Reproduction and Feminist Struggle*. Oakland, CA. PM Pres.

- Fernandez Durán, R., eta González Reyes, L. (2018). *En la espiral de la energía: colapso del capitalismo global y civilizatorio*. Libros en acción, Madrid
- Fischer-Kowalski, M. (1997). "Society's Metabolism. Journal of Industrial Ecology" 2, 61-78.
- Florida, R. (2010). *La clase creativa*. Paidós, Madrid.
- Fontana, J. (2017). *El siglo de la revolución. Una historia del mundo desde 1914*. Crítica, Barcelona.
- Fontana, J. (2000). *La Historia de los hombres. El siglo XX*. Crítica, Barcelona.
- Foster, J.B. (2013). "Marx, Kalekcy, Keynes y la estrategia socialista: la superioridad de la economía política del trabajo sobre la economía política del capital" *Sin Permiso*. Antoni Domenech-en itzulpena.
- Foucault, M. (1976). *Vigilar y castigar*. Siglo XXI editores. Madrid
- Foucault, M. (1977). *Historia de la sexualidad. La voluntad de saber*. Siglo XXI editores. Madrid.
- Foucault, M. (1991). *Microfísica del poder*. La Piqueta, Madrid.
- Foucault, M. (2002). *La hermenéutica del sujeto*. FCE. Buenos Aires
- Foucault, M. (2004). *La Naissance de la Biopolitique. Cours au Collège de France (1978-1979)*. Hautes Etudes. Gallimard. Paris.
- Fraser, N. (2021). *Kapitalaren lantegi ezkutua, mapa bat ezkerrentzat*. Lisipe, 10. Susa Argitaletxea. Donostia.
- Fuente Cosgaya, M. (2020). "La función social de las cooperativas vascas". *GIZAEKOA, Gizarte Ekonomiaren euskal aldizkaria*. 17, 131-180.
- Gaindegia. (2022). *Euskal Herria 2022, Adierazle Galeria Nagusia*. Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia.
- García Olivares, A. et al. (2012). "A global renewable mix with proven technologies and common materials", *Energy Policy*. 41.
- García, J., Via, J., eta Xirinacs, L. M. (2006). *La dimensión cooperativa. Economía solidaria y transformación social*. Icaria, Barcelona.
- García, E., eta Sempere, J. (2014). "Qué papel pueden tener las cooperativas en una transición post-carbono? Reflexiones desde el cooperativismo en Cataluña." *Revista de Economía Crítica*. 18, 31-47.
- García, E. (2021). *Ecología e Igualdad. Hacia una relectura sociológica en un planeta que se ha quedado pequeño*. Tirant Humanidades, Valencia.
- Garmendia, A. (2021). *Multitudearen utopia Inperio distopikoaren ispilu. Michael Hardt eta Antonio Negiren "Empire" bildumaren analisisa utopiei buruzko ikerketen ikuspegitik*. EHU, Doktorego Tesia.
- Georgescu-Roegen, N. (1971). *La ley de la entropía y el proceso económico*. Fundación Argentaria, Madrid.
- Giampietro, M., Mayumi, K., eta Sorman, A. H., (2011). *The metabolic pattern of societies: where economists fall short*. Routledge, London.
- Giddens, A. (1994). *Consecuencias de la modernidad*. Alianza, Madrid.
- Giddens, A. (1995). *Modernidad e identidad del yo: el yo y la sociedad en la época contemporánea*. Península. Barcelona.
- Godechot, O. (2005). *Les traders. Essai de sociologie des marchés financiers*. La découverte. Paris.
- Gómez Villar, A. (2019). "Del operismo al (post)operismo: La importancia del cruce con el postestructuralismo francés" *Pensamiento*, vol 75, 287, 1545-1569 orrialdeak.
- Gorz, A. (1980). *Adieux au prolétariat*. Galilée. Paris.
- Gorz, A. (1995). *Metamorfosis del trabajo: Búsqueda del sentido: Crítica de la razón económica*. Sistema.
- Gorz, A. (2008). "La salida del capitalismo ya ha comenzado". *Ecorev*. 28.
- Guattari, F. (1996). *Las tres ecologías*. Pre-textos. Valencia.
- Guattari, F. (2004). *Plan sobre el Planeta. Capitalismo mundial integrado y revoluciones moleculares*. Traficantes de Sueños, Madrid
- Guattari, F. (2017). *La revolución molecular*. Errata Naturae. Madrid.

- Haberl, H. et al. (2020). "A systematic review of the evidence on decoupling of GDP, resource use and GHG emissions, part II: synthesizing the insights." *Environmental Research Letters*, 15, 6.
- Haraway, D. (1985). "Manifiesto for ciborgs: science, technology and socialist feminism in the 1980s". *Socialist review*, 80: 65-108.
- Hardt, M. eta Negri, A. (2000). *Empire*. Harvard University Press.
- Hardt, M., eta Negri, A. (2004). *Moltitudine, Guerra e democrazia nel nuovo ordine imperiale*. Rizzoli.
- Hardt, M. eta Negri T. (2011). *Commonwealth, El proyecto de una revolución en común*. Akal.
- Hardt, M. eta Virno, P. (1996). *Radical Thought in Italy. A potential politics*. University of Minnesota Press.
- Harich, W. (1978). *¿Comunismo sin crecimiento? Babeuf y el Club de Roma*. Materiales. Bartzelona.
- Harvey, D. (2004). "The 'New' Imperialism: Accumulation By Dispossession." *Social Register* 40, 63-87.
- Harvey, D. (2007) *Breve historia del neoliberalismo*. Akal, Madril.
- Harvey, D. (2012) *El enigma del capital y la crisis del capitalismo*. Akal, Madril
- Hernández, E. (2014). *El fin de la clase media*. En clave intelectual, Madril.
- Herrero, Y. (2014). *Vivir bien con menos. Ajustarse a los límites físicos con criterios de justicia*. Manu Robles-Aranagiz institutua. Bilbo.
- Hess, A. (2009). *Reluctant modernization: Plebeian Culture and Moral Economy in the Basque Country*. Oxford. Peter Lang.
- Hickel, J. (2019). "The contradiction of the sustainable development goals: Growth versus ecology on a finite planet." *Sustainable Development*, 27, 5, 873-884.
- Hickel, J., eta Kallis, G (2020). "Is Green Growth Possible?" *New Political Economy*, 25, 4, 469-486.
- Hobsbawn, E. (1987). *El mundo del trabajo. Estudios históricos sobre la formación y evolución de la clase obrera*. Critica. Bartzelona.
- Hobsbawn, E. (1998). *Historia del siglo XX*, Crítica, Madrid.
- Huber, J. (1991). *Ecological modernization: Beyond scarcity and bureaucracy*. Routledge. New York.
- Huws, U. (2014). *Labour in the Global Digital Economy. The cybertariat Comes of Age*. NYU Press.
- Ibañez, J. (1997). *A contracorriente*. Fundamentos, Madril.
- Iglesias, P. (2008). *Multitud y acción colectiva potnacional. Un estudio comparado de los desobedientes: De Italia a Madrid (2000-2005)*. UCM, Madrid.
- Ihobe. (2019). *Ingurumena Euskadin*. Eusko Jauriaritza, Ingurumen, Lurralde plangintza eta Etxebizitza Saila.
- Illich, I. (1973). *Energía y equidad. Los límites sociales de la velocidad*. Diaz & Pons, Madril, 2015.
- Illouz, E. (2014). *El futuro del alma. La creación de estándares emocionales*, Madril eta Bartzelona, Katz eta CCCB.
- Illouz, E. (2019). *Capitalismo, consumo y autenticidad: las emociones como mercancía*. Katz, Madril.
- Imaz, O., eta Eizagirre, A (2020). "Responsible Innovation for Sustainable Development Goals in Business: An Agenda for Cooperative Firms." *Sustainability*, 12, 6948.
- Inglehart, R. (1991). *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*. Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid.
- Infante-Amate, J., González de Molina, M., eta Toledo, V. (2017). El metabolismo social. Historia, métodos y principales aportaciones. *Revista Iberoamericana de Economía Ecológica*. Vol 27: 130-157.
- IPBES. (2019). *Global assessment report on biodiversity and ecosystem services of the Intergovernmental Science-Policy Platform on Biodiversity and Ecosystem Services*. IPBES, Bonn, Alemania.
- IPCC. (2021). *Climate Change 2021: The physical science Basis*. UN.

- IRENA. (2018). *Global energy transformation: a roadmap to 2050*. International Renewable Energy Agency, Abu Dhabi.
- Isenberg, N. (2017). *White Trash. Los ignorados 400 años de historia de las clases sociales estadounidenses*. Capitan Swing, Madril.
- Jackson, T. (2019). "Unraveling the claims for (and against) green growth. Can the global economy grow indefinitely, decoupled from Earth's limitations?" *Science*, 366, 950-951.
- Jacobs, M. (2013). 'Green Growth', 12. Kapituluua; in R. Falkner (ed.), *The Handbook of Global Climate and Environment Policy*, Oxford, Wiley-Blackwell, 197-214.
- Jessop, R. (2008). *El futuro del estado capitalista*. Catarata, Madril.
- Jones, R., eta Dunlap, E. (1992). "The social basis of environmental concern: Have they changed over time?." *Rural sociology*, 57(1), 28-47.
- Kallis, G. (2019). *Limits: Why Malthus was Wrong and Why Environmentalists Should Care*. Stanford University Press. Stanford.
- Keucheyan, R. (2019). "Insuring Climate Change: New Risks and the Financialization of Nature", *Development and Change* 49(2), 484-501
- Keynes, J. M. (1930). "Economic Possibilities for our Grandchildren" in *Essays in Persuasion* (New York: Harcourt Brace, 358-373.
- Knorr-Cetina K., eta Preda A. (2012). *The Sociology of Finance*. Oxford University Press. Oxford.
- Krausmann, F., Lauk, C., Haas, W., eta Wiedenhofer D. (2018). "From resource extraction to outflows of wastes and emissions: The socioeconomic metabolism of the global economy, 1900-2015." *Global Environmental Change*, 52, 131-140.
- Kurz, R. (1991). *El colapso de la modernización. Del derrumbe del socialismo de cuartel a la crisis de la economía mundial*. Editorial Marat, Madril, 2016.
- Lacan, J. (1949). "El estadio del espejo como formador de la función del yo." *Escritos, 1*. Siglo XXI, Madril.
- Lanki. (2004). *Autoeraketa globalitatean. Autoeraketa ekonomikoaren kokapena egungo munduan*. Lanki, MU. Eskoriatza.
- Latouche, S. (2008). *La apuesta por el decrecimiento. ¿Cómo salir del imaginario dominante?*. Icaria, Bartzelona.
- Latour, B. (2005). *Reassembling the Social: an introduction to Actor-Network-Theory*. Oxford University Press.
- Latour, B. (2018). *Où atterrir? Comment s'orienter en politique*. La Découverte, Paris.
- Lazzarato, M. (2013). *Il governo dell'uomo indebitato*. DeriveApprodi, Roma.
- Leonardi, E. (2011). La dimensione ecologica della crisi economica, in Chicci, F et al. *Lavoro in Frantumi*. Verona, Ombre Corte.
- Leonardi, E. (2012). Per una critica della green economy neoliberale. *Cultura della sostenibilità*, 9. zenbakia, 30-46 or.
- Lewkovicz eta Cantarelli (2003). *Del fragmento a la situación. Notas sobre la subjetividad contemporánea*. Altamira, Buenos Aires.
- Leff, E. (2005). *Ecología y capital: racionalidad ambiental, democracia participativa y desarrollo sustentable*. Mexiko Hiria, Siglo XXI.
- Leonardi, E. (2017). *Lavoro Natura Valore, André Gorz tra marxismo e decrescita*. Orthotes, Napoli-Salerno.
- Lorey, I. (2011). *Estado de inseguridad. Gobernar la precariedad*. Traficantes de Sueños, Madril.
- Löwy, M. (2009). *Ecosocialismo y planificación democrática*. Actuel Marx, Intervenciones 7. zenbakia.
- Lukács, G. (1969). *Historia y conciencia de clase*. Grijalbo, Mexiko.
- Luckmann, T. (1974). *La religión invisible: el problema de la religión en la sociedad moderna*. Salamanca,.
- Malm, A. (2021). *Capital Fósil. El auge del vapor y las raíces del calentamiento global*. Capitán Swing. Madril.
- Martinez Alier, J. (2003). "Economía industrial y metabolismo socioeconómico. Concepto y evolución histórica." *Economía Industrial*, 351 znb. 15-26.
- Marx, K. (1971). *El Capital. Libro I, Capítulo VI (Inédito)*. Siglo XXI. Madrid.

- Marx, K. (1844). *Manuscritos económico-filosóficos*. Edizioa 2007, Colihue, Buenos Aires.
- Martucelli, D. (2007). *Cambio de rumbo. La sociedad a escala del individuo*. Santiago de Chile. LOM.
- Martucelli, D. (2007). *Lecciones de sociología del individuo*. Departamento de Ciencias Sociales. Pontífica Universidad Católica de Perú.
- Martucelli, D., eta Santiago, J. (2017). *El desafío sociológico hoy. Individuo y retos sociales*. Centro de Investigaciones Sociológicas- Madrid.
- Mead, G.H. (1972). *Espíritu, persona y sociedad*. Paidós. Buenos Aires.
- Meadows, D, Meadows, Dennis eta Randers, J. (1972). *The limits of the growth*, Universe Books. New York.
- Mol, A. (2002). Ecological Modernization and the Global Economy. *Global Environmental Politics* (2002) 2 (2): 92–115
- Moore, J. (2015). *Capitalism in the web of life*. Verso, London.
- Moore, J. (2020). *El capitalismo en la trama de la vida. Ecología y acumulación de capital*. Tranfiantes de Sueños, Madrid.
- Moreno, F. (2019) "El fin de la memoria (i): Procesadores." 2019/11/06- 15/15/15 aldizkaria.
- Morris, W. (2015). *La Era del Sucesáneo*. Pepitas de Calabaza. Madrid.
- Mounier, E. (1972). *Manifiesto al servicio del personalismo*. Taurus. Madrid.
- Mozorov, E. (2015). *La locura del solucionismo tecnológico*. Katz, Buenos Aires.
- Mumford, L. (1969). *El mito de la máquina. Técnica y evolución humana*. Pepitas de Calabaza, Logroño, 2010.
- Mumford, L. (1979). *Técnica y civilización*. Pepitas de Calabaza, Logroño (2020)
- Munduko Bankua (2012). *Inclusive Green Growth: The pathway to Sustainable Development*. Washington, DC. Munduko Bankua.
- Nazio Batuen Erakundea. (2015). *Transforming our world: the 2030 Agenda for Sustainable Development*. A/ Res /70 / 1.
- Naredo, JM. (2003). *La economía en evolución. Historia y perspectivas de las categorías básicas del pensamiento económico*. (jat. berts. 1987) Siglo XXI. Madril.
- Naredo, JM. (2019). *Taxonomía del Lucro*. Siglo XXI. Madril.
- Nisbet, R. (1981). *Historia de la idea de progreso*. Gedisa. Bartzelona.
- Ortega, I., eta Uriarte, L (2015). *Arrasateko Kooperatibagintzaren erronkak eta dilemak, Fagor Etxetresnak kooperatibaren krisiaren ondotik*. Mondragon Unibertsitatea, Huhezi.
- Ortega, I. (2018). "Las cooperativas ante un nuevo ciclo de transformaciones. Su contribución a los retos del tejido productivo vasco." *GEZKI, Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria*. 15 znb, (49-76).
- Ortega, I. (2021). *La contribución de los fundadores del cooperativismo de Mondragón al pensamiento cooperativo*. Doktoretza tesia. Mondragon Unibertsitatea, Oñati.
- Ortí, A. (1987). *Estratificación social y estructura de poder: viejas y nuevas clases medias en la reconstrucción de la hegemonía burguesa*. Política y Sociedad, II, 711-736.
- Parrique, T. (2019). *The Political Economy of Degrowth*. Doktoretza tesia, Université Clermont Auvergne eta Stocholm University.
- Parrique, T., Barth, J., Briens F., C. Kerschner, Kraus-Polk A., Kuokkanen A eta Spangenberg J.H (2019) *Decoupling debunked. Evidence and arguments against green growth as a sole strategy for sustainability*. European Environment Bureau, Brusela.
- Pellizzoni L. (2013). "Governo dell'ambiente e razionalità neoliberale", *Sociologia e ricerca sociale* n. 102, 31-40, orriak.
- Perez-Agote, A. (1979). *Medio Ambiente e Ideología en el capitalismo avanzado*. Ediciones Encuentro, Madrid.
- Pérez de Mendiguren, J. C., Etxezarreta, E., eta Guridi, L. (2009). *Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate*. Bilbao. Hemen eskuragarri <http://bit.ly/1QXUs1P>
- Pérez de Mendiguren, J.C., eta Etxezarreta, E. (2014). "Ekonomia sozial eta solidarioa: zer da eta nola ulertzen da?", *Gizarte Ekonomia Euskal Aldizkaria*, GEZKI, X urteurrena, 13-34.

- Pew Research Center. (2019). "Climate Change Still Seen as the top Global Threat, but Cyberattacks as a rising Concern." *Global Attitudes Survey*.
- Polanyi, K. (1989). *La Gran Transformación. Crítica del liberalismo económico*. La Piqueta. Madrid.
- Polanyi, K. (2009). *El sustento del hombre*. Capitán Swing, Madrid.
- Prieto, P., eta Hall, C. (2013). *Spain's Photovoltaic Revolution: The Energy Return on Investment*. Springer, Berlin.
- Raworth, K. (2017). *Doughnut Economics. Seven ways to think like a 21st-century economist*. Random House. New York.
- Recio, A. (2019). "Digitalización y trabajo. Notas para un debate." *Papeles de Relaciones ecosociales y cambio global*. 144 zenbakia, pp. 49-58.
- Renduéles, C. (2014). *En Bruto. Una reivindicación del materialismo histórico*. Catarata. Madrid.
- Requena i Mora, M. (2015). *Entre natros i mosatros: representacions socials, discursos agraris i discursos medioambientals al Delta de l'Ebre i l'Albufera de València*. Doktoretza tesia. Universitat de València.
- Richardson, K., Steffen, W., Lucht, W., Bendtsen, J., Cornell, S.E., Donges, J.F., Drüke, M., Fetzer, I., Bala, G., von Bloh, W., Feulner, G., Fiedler, S., Gerten, D., Gleeson, T., Hofmann, M., Huiskamp, W., Kummu, M., Mohan, C., Nogués-Bravo, D., Petri, S., Porkka, M., Rahmstorf, S., Schaphoff, S., Thonicke, K., Tobian, A., Virkki, V., Weber, L. & Rockström, J. (2023). "Earth beyond six of nine planetary boundaries." *Science Advances* 9, 37
- Riechmann, J., eta Buey, P. (1994). *Redes que dan libertad. Introducción a los nuevos movimientos sociales*. Paidós, Barcelona.
- Riechmann, J. (2003). *Tiempo para la vida: La crisis ecológica en su dimensión temporal*. Translibros. Malaga.
- Riechman, J. (2008). Elementos para una teoría de la racionalidad ecológica. Konferentzia. Hemen ikusgai. http://ayp.unia.es/index.php?option=com_content&task=view&id=551
- Riechman, J. (2013). *El Siglo de la Gran Prueba*. El Baile del Sol, Tenerife.
- Riechmann, J. (2014). *Un buen encaje en los ecosistemas*. Los Libros de la Catarata, Madrid.
- Riechmann, J. (2019). "Capitalismo verde: no (tampoco como Green New Deal), sino ecosocialismo (descalzo)". *Revista* 15/15/15.
- Riechmann, J. (2019). *Otro fin del mundo es posible, decían los compañeros. Sobre transiciones ecosociales, colapsos y la imposibilidad de lo necesario*. Barcelona: MRA Ediciones.
- Riechmann, J. (2020). *Simbioética. Homo sapiens en el entramado de la vida. Elementos para una ética ecologista y animalista en el seno de una Nueva Cultura de la Tierra gaiana*. Plaza y Valdés. Madrid.
- Riechmann, J., eta Fernández Buey, F. (1998). *Trabajar sin destruir: trabajadores, sindicatos y ecologismo*. Hoac, Madrid.
- Rosa, H. (2010). *Alienación y aceleración. Hacia una teoría crítica de la temporalidad en la modernidad tardía*. Katz, Madrid.
- Rosa, H (2016). *Alienación y aceleración. Hacia una teoría crítica de la temporalidad en la modernidad tardía*. Katz editores.
- Sacristán de Lama, D. (2008). *La próxima Edad Media*. Barcelona. Bellaterra.
- Sadiel, M. (2016). "La fábrica de la subjetividad neoliberal: del empresario de sí al hombre endeudado."- *Pelayde* 17, 131-154
- Sanchez-Cedillo, R. (2001). "Post-fordismo y la vida puesta a trabajar." *Contrapoder*, 5 znb, 66-70, Madrid.
- Santiago Muiño, E. (2015). *Opción cero: Sostenibilidad y socialismo en la Cuba post-soviética: estudio de una transición sistémica ante el declive energético del siglo XXI*. Madrid. UAM.
- Santiago Muiño, E. (2015). *No es una estafa, es una crisis (de civilización)*. Enclave de Libros, Madrid
- Sarasua, A. (2005). *Toribio Etxebarria, biografía e ideario*. Eibarko Udala.
- Sarrionandia, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean*. Pamiela. Arre.
- Sassen, S. (2010). *Territorio, autoridad y derechos. De los ensamblajes medievales a los ensamblajes globales*. Katz, Buenos Aires.

- Schweickart, D. (2006). "Democracia económica: propuesta para un socialismo eficaz." *Derecho a decidir: propuestas para el socialismo del siglo XXI*. Koord. Arriola Palomares, J. 2006.
- Seem D. M., eta Guattari F. Elkarrizketa/Félix Guattari, in *Diacritics*, Vol. 4. N. 3, Autumn, 1974, The John Hopkins University Press, Baltimore, 1974, pp. 38-41.; Chicchi, 2016-tik hartua.
- Sempere, J., eta Riechmann, J (2000). *Sociología y medio ambiente*. Síntesis. Madril.
- Sempere, J. (2009). *Mejor con menos: necesidades, explosión consumista y crisis ecológica*. Crítica. Madril.
- Sempere, J. (2012). *Cooperativismo*. Rebelión, 2012ko uztailaren 3a.
- Sennet, R. (2006). *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*. Anagrama. Bartzelona.
- Sennet, R. (1983). *Narcisismo y cultura moderna*. Editorial Kairós, Bartzelona.
- Sennet, R. (2008). *El declive del hombre público*. Anagrama, Bartzelona.
- Smith, A. (1776). *The Wealth of Nations*. W. Strahan eta T. Cadell, Londres.
- Smith, A. (1759). *Theory of Moral Sentiments*. Alexander Kincaid eta J. Bell, Edinburgo.
- Spencer, H. (1857). *Progrees: its law and causes*. "The wensminster review".
- Sousa Santos, B., eta Rodriguez, C. (2011) *Producir para vivir: los caminos de la producción no capitalista*. FCE. Mexiko Hiria.
- Sousa Santos, B. (2003). *Crítica de la razón indolente: Contra el desperdicio de la experiencia*, Volumen I. Bilbao Editoriala: Desclée de Brouwer.
- Sousa Santos, B. (2009). *Una epistemología del sur*. Cerro el agua. Siglo XXI
- Subirats, J. (2014). "Ser joven hoy. El reto de la inclusión. El reto de la nueva ciudadanía. Metamorfosis." *Revista del Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud*, 0, 99-111.
- Sztompka, P. (1993). *The Sociology of Social Change*. Wiley-Blackwell.
- Taibo, C. (2009). *En defensa del decrecimiento. Sobre capitalismo, crisis y barbarie*. Catarata, Madril.
- Tainter, J. (1988). *The Collapse of Complex societies*. Cambridge. Cambridge University Press.
- Tanuro, D. (2011). *El imposible capitalismo verde. Del vuelco climático capitalista a la alternativa ecosocialista*. La Oveja Roja, Madril.
- Taylor, S. J., eta Bodgan, R. (1986). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación. La búsqueda de significados*. Paidós, Buenos Aires.
- Tejerina, B., Gusfield, J., eta Laraña Rodriguez-C. (1994). *Los nuevos movimientos sociales. De la ideología a la identidad*. Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS), Madril.
- Tejerina, B., Cavia, B., Gatti, G., Gómez, A., Martinezz de Albeniz, I., Rodríguez, S., Pérez-Agote, A., Santamaría, E. (2005). *Hacia una nueva cultura de la identidad y la política : tendencias en la juventud vasca*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Thompson, E. P. (1963). *La formación de la clase obrera en Inglaterra*. Capitán Swing. Madril.
- Tilly, C. (1991). *Grandes estructuras, procesos amplios, comparaciones enormes*. Alianza Editorial, Madril.
- Tirado, F. (2011). *Los objetos y el acontecimiento. Teoría de la socialidad mínima*. Amentia editorial. Bartzelona.
- Thompson, E. P. (1978). *Miseria de la teoría*. Editorial Crítica. Madril.
- Trainer, T. (2017). *La vía de la simplicidad. Hacia un mundo sostenible y justo*. Trotta, Madril.
- Touraine, A. (1993). *Crítica de la modernidad*. FCE. Madril.
- Tordjman, H. (2021). *La croissance verte contre la nature. Critique de l'ecologie marchande*. La Découverte. Paris.
- Tönnies, F (1887). *Community and Society*. (Itz. *Comunidad y asociación: El comunismo y el socialismo como formas de vida social*. Minerva, 2013).
- Uicich, Sandra M. (2012). "Crisis ecológica, subjetivación y modos de habitar el mundo." In *Gillez Deleuze: Diez lecturas en torno...*

UNEP. (2011). *Towards a Green Economy: Pathways to Sustainable Development and Poverty Eradication. A Synthesis for Policy Makers*. Nazio Batuen Erakundekeo Ingurugiro Programa. Nairobi, Kenya.

Urdangarin, M. (2020). "Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa:zaurgarritasuna, interdependentzia eta erantzukizuna", *Jakin*, Donostia, 237-238.

Van Ark, B. (2016). "The Productivity Paradox of the New Digital Economy". *International Productivity Monitor*, 31, 3-18.

Van Liere, K.D. eta R.E. Dunlap. (1980). "The social bases of environmental concern: a review of hypotheses, explanations and empirical evidence." *Public Opinion Quarterly*, 44, 181–197

Valero, A., Valero, A., eta Calvo, G. (2021). *Thanatia. Límites materiales de la transición energética*. PUZ. Zaragoza.

Virno, P. (2002). "Moltitudine e clase operaia" *Multitudes* 9.

Weber, M. (1983). *Ensayos sobre Sociología de la religión*, Taurus, Madrid.

Weber, M. (2001). *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*. Madrid: Alianza editorial.

White, L. (2015). "The historical roots of our ecologic crisis", *Science*, 155. 1207. (García 2021ean aipatua, 373. orria.)

Whitehead, M. (2014). *Environmental transformations. A geography of the Anthropocene*. Routledge. New York.

Wright, E. O. (2010) *Envisioning Real Utopias*. Verso. Londres.

Zafra, R. (2017). *El Entusiasmo. Precariedad y trabajo creativo en la era digital*. Bartzelona, Anagrama.

Zubero, I. (1998). *El trabajo en la sociedad*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.